

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*  
Euskaltzaindia, 2011
2. *Leioako leku-izenak*  
Euskaltzaindia, 2011
3. *Aiarako toponimia nagusia*  
Euskaltzaindia, 2013

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.




EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



9 788494 071713



## AIARAKO TOPONIMIA NAGUSIA TOPONIMIA MAYOR DE AYALA



*Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.*

### ONOMASTIKA BATZORDEA

BURUA:

Patxi Salaberri

IDAZKARIA:

Mikel Gorrotxategi

KIDEAK:

Nerea Alaba  
Asier Bidart  
Patxi Galé  
Imanol Goikoetxea  
Roberto González de Viñaspre  
Elena Martínez de Madina  
Felix Mugurutza  
Paskual Rekalde  
Luis Mari Zaldúa

### ONOMASTIKA BATZORDE AHALDUNDUA

BURUA:

Patxi Salaberri

IDAZKARIA:

Mikel Gorrotxategi

KIDEAK:

Adolfo Arejita  
Battittu Coyos  
Patxi Galé  
Roberto González de Viñaspre  
Paskual Rekalde  
Xarles Videgain





# AIARAKO TOPONIMIA NAGUSIA

---

## TOPONIMIA MAYOR DE AYALA

Patxi Galé  
Mikel Gorrotxategi  
Felix Mugurutza



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: [www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: [www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: [www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: [www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Liburu hau Arabako Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz argitaratu da. Este libro ha sido publicado gracias a la colaboración de la Diputación Foral de Álava y la Real Academia de la Lengua Vasca.

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B. (Gaztelaniazko testuarena barne)

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.net>

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Testuak / Textos: Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi eta Felix Mugurutz

Argazkiak / Fotografías: Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi eta Felix Mugurutz

Diseinua / Diseño: Ikeder S.L.

Maketazioa / Maquetación: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia / Impresión: Gráficas Lizarra, S.L.

ISBN: 978-84-940717-1-3

Legezko-gordailua: BI1780-2013

# Aurkibide nagusia

## Índice principal

<b>Aurkezpena</b> / Presentación . . . . .	7
<b>Sarrera</b> / Introducción . . . . .	11
<b>Aiara: izena eta lurraldea</b> / Ayala: nombre y territorio . . . . .	27
<b>Aiara Udalerriko kontzejuak eta auzoak</b>	
Concejos y barrios del Ayuntamiento de Ayala . . . . .	47
Agiñaga . . . . .	49
Añes . . . . .	55
Arespalditza . . . . .	62
Beotegi . . . . .	83
Erbi . . . . .	95
Erretes . . . . .	105
Etxegoien . . . . .	115
Izoria . . . . .	120
Kexaa / Quejana . . . . .	132
Lanteno . . . . .	144
Lexartzu . . . . .	168
Luiaondo . . . . .	171
Luxo . . . . .	186
Madaria . . . . .	190
Maroño . . . . .	196
Menagarai . . . . .	203
Menoio . . . . .	220
Murga . . . . .	228
Olabazar . . . . .	244
Opellora / Costera . . . . .	263
Ozeka . . . . .	270
Salmantón . . . . .	278
Soxo . . . . .	285
Zuhatza . . . . .	299
<b>Aiarako mendiak</b> / Montañas de Ayala . . . . .	317

<b>Gorobel / Sálvada</b> . . . . .	<b>318</b>
<b>Aiarako beste mendi batzuk / Otras montañas de Ayala</b> . . . . .	<b>333</b>
<b>Bibliografia / Bibliografía</b> . . . . .	<b>341</b>
<b>Toponimoen aurkibidea / Índice de topónimos</b> . . . . .	<b>347</b>
<b>Aiarako gailurrak / Cimas de Ayala</b> . . . . .	<b>355</b>
<b>Jai patronalak / Fiestas patronales</b> . . . . .	<b>356</b>
<b>Eranskin dokumentala / Apéndice documental</b> . . . . .	<b>357</b>

## Aurkezpena

Liburu honen hasierako sarreran, egileek argi azaltzen dute lanaren zioa. Helburu nagusia Aiara udalerriko toponimian gorderik dagoen ondare kulturala agerian jartzea izan da, hala aiararrek nola gainerako interesatu guztiek ezagutzeko aukera izan dezaten. Izen horiek dira, hain zuzen ere, mendeetan zehar ibar honetan bizi izan diren herritarrek sortu eta erabili izan dituztenak bertako herriak, auzoak, etxeak, mendiak... izendatzeko. Horietako gehientsuenak gaurdaino transmititu direnez gero, esan dezakegu bertako hizkeran sortutako toponimia historikoaren erakusleihoa direla.

Hala ere, eremu honetan euskara mendeetan zehar indarra eta tokia galtzen joan zen neurrian, izen horietako batzuk baztertuak gelditu ziren eta, gaztelania indartu ahala, beste zenbait toponimo desitxuratuak, hizkuntza honen ahoskera eta formetara egokitzearen eraginez.

Errealitate honetaz jabeturik, Aiarako Udalak ondare hori errekuiperatzea erabaki zuen eta asmo on hori burutzeko Euskaltzaindiaren Onomastika batzordera jo zuen. Izan ere, Batzorde honen zereginetako bat toki-izenak errekuiperatzea da eta azterketaren bidez euskarazko idazkera eta forma egokian proposatzea, euskararen normalizazioaren prozesuan toponimoen erabilera zuzenak ere bere tokia izan dezan. Batzorde horretako kide diren hiru egileek liburuki honen hasieran azaldu dituzte proposamen horiek egiteko aplikatutako irizpideak. Horrez gainera, desitxuratze prozesu handiagoa nozitu duten toponimoen errekuiperazio edota egokitzapen kasuetan azalpen xeheagoak ere eman dituzte, *Arespalditza*, *Erretes*, *Kexaa*, *Lanteno*, *Lexartzu*, *Luiaondo*, *Saraube*, *Zuhatza*... eta beste zenbait izenetan.

Lanaren estrukturari dagokionez, egileek modu ordenatuan aurkeztu dituzte materialak, alegia, Aiara izenaren eta lurraldearen deskribapena egin ondotik, Aiarako kontzejuak banan-banan azalduz eta horietako bakoitzari dagozkion auzo eta etxe-multzo edota etxaldearen izenen berri emanez. Toponimo bakoitza osatzen duten elementuak aipatu eta gero, azalpen etimologikoa eskaini dute, edota etimologiarekiko hurbilpen bat hain garden ez diren izenetan. Bide batez, zenbaitetan oinarririk eta funtsik gabe egin izan diren ustezko etimologiak arbuizatzeko aukera aprobetxatu dute, esaterako *Jauregibengo*, *Marquijana*, *Petiz*, *Vulpijeras* eta abarri buruzkoak. Aiarririko euskararen ezaugarri batzuen berri ere ematen da lan honetan. Aipagarriak dira, horien artean, toponimoen ahozko hizkeran erabiltzen diren azentuazio motak, hala nola, *Beótegi*, *Ibáizabal*, *Mugáburu*, *Olábezar*, *Lárrabe*, *Léndika*, *Ózeka*, *Sálvada*, *Úreta*, *Sologúren*, *Undío*, *San Babilás*... eta toponimoetan islatzen den bertako hiztegi berezia: *aretx*, *betxi*, *gotxi*, *kurtze*...



Toki-izen bakoitzaren deskribapen zehatzean ezaugarri hauek ageri dira: kokapen konkretua, koordenatu geodesikoak, toponimoak adierazten duen tokiaren altitueda eta bertaraino iristeko hartu eta jarraitu beharreko bidea; informazio garrantzitsuak horiek guztiak, helburutzat erabilera praktikoa duen lan honetan.

Ekarpen interesgarriak eskaintzea lortu badute ere, egileek zintzotasunez eta apaltasunez aitortzen dute lan hau ez dela ikerketaren azken hitza, bai baitakite azken xede hori lortzeko beharrezko litzatekeela eskura izatea erabili ahal izan duten baino informazio gehiago, artxiboetako datuak batik bat. Horregatik, jakitun dira artxiboetako miaketa sistematiko baten ondorioz lor litezkeen lekukotasun berriak oso lagungarri izanen liratekeela oraingo lan hau osatzeko ez ezik, hipotesi moduan aurkeztutako zenbait azalpen argitu ahal izateko ere, besteren artean, *Billarkudi*, *Campoiza*, *Lapetaratxe...* izenen ingurukoak. Halaber, lekukotasun berri horiek bermea ere emanen lukete orain arteko datuetan oinarritutako lan honi zenbait zuzenketa egin ahal izateko.

Euskaltzaindiak herrietako toponimia lanak argitara emateko sortu zuen, gehienbat, IZENAK bilduma. Horregatik, gogobetetasunez hartu zuen Aiarako Udalak egindako proposamena. Orobat, espero du gauzatu den argitalpen hau, aiararentzat eta gainerako interesdun guztientzat, nolabaiteko eskuliburua izatea, Aiarerriko toponimian islatzen den ondare kulturala hobeki ezagutzeko eta estimu handian izateko.

ANDRES IÑIGO  
*Euskaltzaina*

## Presentación

En la introducción del presente trabajo, los autores exponen con claridad el motivo de la realización del mismo. Efectivamente, se trata de recoger el patrimonio cultural de los nombres de lugar del término municipal de Ayala (Aiarra) y ponerlo en conocimiento de los propios ayaleses y demás interesados. Dichos nombres vienen a expresar la designación que los habitantes de este valle aplicaron a lo largo de los siglos a los pueblos, barrios, casas, montes... de la tierra donde vivían. Son, por ello, el exponente de la toponimia histórica del valle expresada en la lengua en la que fueron creados los nombres, los cuales, en gran parte, se han conservado hasta la actualidad.

El correr de los tiempos, sin embargo, ha llevado consigo la pérdida progresiva de la lengua vasca en este espacio geográfico y, juntamente con ella, tanto la desaparición de algunos nombres, como la deformación y acomodación de otros a los usos de la lengua castellana.

El Ayuntamiento de Ayala, con muy buen criterio, se propuso como objetivo recuperar su patrimonio toponímico, encargando dicho trabajo a la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia). Uno de los cometidos de dicha Comisión es, precisamente, recuperar y analizar los topónimos, adecuarlos a las formas y grafías correctas de la lengua, y darlos a conocer a fin de facilitar y promover el uso correcto de los mismos. Los criterios aplicados en la elaboración del mencionado proceso de normalización han sido expuestos con claridad por los autores, miembros de la citada Comisión, en la introducción del presente trabajo. Al mismo tiempo, han explicado en detalle los casos concretos de mutaciones, cambios, deformaciones..., operados en los topónimos objeto del estudio. Como consecuencia de ello, se han aplicado las correspondientes adecuaciones en casos como *Arespalditza*, *Erretes*, *Kexaa*, *Lanteno*, *Lexartzu*, *Luiaondo*, *Saraube*, *Zuhatza*...

Los autores han tenido sumo cuidado en presentar los materiales de forma ordenada. Comienzan con la exposición del propio nombre de Ayala y su territorio, y a continuación pasan a describir todos los concejos del valle, incluyendo en cada uno de ellos los nombres de barrios y casas que les pertenecen. En cada topónimo se incluye la descripción de los elementos que entran en su composición, para pasar a exponer la correspondiente explicación etimológica, o un acercamiento a la misma en los casos más dificultosos. A su vez, han aprovechado la ocasión para exponer las razones por las que deben rechazarse, por carecer del más mínimo rigor, algunas etimologías de tipo popular que habían aparecido en trabajos publicados anteriormente, como las referentes a *Jauregibengo*, *Marquijana*, *Petiz*, *Vulpijeras* y varias más. La obra presenta otros aspectos importantes que reflejan las características propias del euskera del Valle de Ayala. Cabe destacar, entre otras, la acentuación en el uso oral de los propios ayaleses de topónimos como *Beótegi*, *Ibáizabal*, *Mugáburu*, *Olábezar*, *Lárrabe*, *Léndika*, *Ózeka*, *Sálvada*, *Úreta*, *Sologúren*, *Undío*, *San Babilás*..., y el léxico específico plasmado en vocablos como *aretx*, *betxi*, *gotxi*, *kurtze*...

A cada uno de los lugares de referencia acompaña una descripción exhaustiva de la localización del mismo, incluidas las coordenadas para su localización, la altitud a la que se sitúa el lugar designado por el topónimo y la explicación detallada de la ruta a seguir para acceder al mismo, datos todos ellos importantes y muy prácticos en una obra diseñada para la finalidad descrita.

Junto a las interesantes aportaciones que hallaremos en este estudio, los autores reconocen con sinceridad y valentía que el mismo no es el punto final de un trabajo de investigación. Para su realización les hubiera gustado contar con mayor base documental. Por eso, lo definen como un trabajo abierto, seguros de que un rastreo sistemático de los archivos aportará datos hasta ahora no conocidos que ayuden a completar y aclarar aspectos de ciertas hipótesis aquí planteadas, tales como las referentes a los nombres *Billarkudi*, *Campoiza*, *Lapetaratxe*... y que puedan, incluso, facilitar la rectificación garantizada de algunas afirmaciones realizadas a la luz de los datos hasta ahora conocidos.

Euskaltzaindia que creó la colección IZENAK fundamentalmente para publicar estudios monográficos de toponimia local, acoge con agrado este trabajo propuesto por el Ayuntamiento de Ayala. Asimismo, desea y espera que la presente obra sea una especie de manual básico a través del cual los habitantes de Ayala y otros interesados puedan conocer y valorar el patrimonio cultural incluido en la toponimia del valle.

ANDRES IÑIGO  
*Académico de Euskaltzaindia*

## Sarrera

Eskuetan duzun lan hau Aiarako Udalak abian jarritako ekimen baten fruitua da. Izan ere, Udalak Euskaltzaindiko Onomastika batzordeari eskatu zion bertako auzo, etxe eta kaleen izenak aztertzeko eta idazteko proposamenak egin zitzaizkien. Behar zirenean agiriak aztertu eta ikerketak egin ondoren, testu honetan dituzu batzordearen lanaren emaitzak. Baina inolako azalpenik gabeko zerrenda hutsa egiteak gaizki-ulerterak ekar zitzakeela eta, ez zen nahikotzat hartu zerrenda batean zuzenketak edo aurreko formak nahiz bide-seinaleetako aldaketak adieraztea. Horregatik, pentsatu genuen egokia eta erabilgarria izango zela izenekin batera azalpen batzuk ematea eta aiarar guztiei helaraztea. Horri esker, aldaketak zeuden kasuetan, berauen zergatia ez ezik, udalerriko herri eta auzoen historia ere gehixeago ezagutzeko aukera izango zuten. Batzordeak eskatuta egin dute egileek lan hau eta ikerketaren lehenengo urratsa besterik ez da eta ez pentsa, beraz, ikerbidea amaitu denik. Aitzitik, hasi besterik ez da egin zeregin handiago baten hastapena den lan hau. Izan ere, udal eta kontzejuetako artxiboak ez dira sistematikoki aztertu eta lan hau etorkizunean noiz edo noiz egin beharko da. Ahozko toponimia ere zehatz-mehatz jaso beharra dago, aurreko dokumentazio lanak kontrastatu ahal izateko. Horregatik, ez litzateke harriztekoa zerrenda honi geroago zuzenketa batzuk egin behar izatea, lurralde honetako historia sakonago ezagutzen dugunean. Lan horiek guztiak lehenbailehen hasiko direlako esperantza daukagu eta,



ildo horretan, 2012ko otsailean udalerriko 1:20000 eskalako mapa interesgarri bat plazaratu da, ahozko nahiz idatzizko datuen bilketa sistematiko baten ondoren, Aiarako toponimo txiki askoren kokaera zehatza eta idazkera zuzena eskaintzen duena.

Toki-izenen multzoa edo toponimia jagon beharreko altxorra da, kultur ondarea osatzen duten gainerako elementu guztiak zaindu behar diren era berean. Toki-izenak iraganetik jaso dugun ondarea dira eta ondare hori bere osotasunean transmititu behar dugu etorkizunera. Halaber, eremu hauetan duela ez hainbestera arte erabilitako hizkuntzaren historia dira, antzinako bizitasun haren lekuko fosilak eta, askotan, gure arbasoek toki hauek ulertzeko moduari buruz utzitako adierazpenak. Denon ardua da zaintzea eta, horretarako, toponimia-altxor hori ezagutu, erabili eta zabaldu egin behar dugu.

### Toponimia normalizatzeko irizpide orokorrak

Ezer baino lehen, zertarako normalizatu behar den, edo esaten duguna ongi ez ote dagoen galdetuko duenik izango da. Esaten duguna ez dago gaizki, jakina, baina erabiltzen duguna baloratzeko, badira aintzat hartu beharreko kontu batzuk. Hasteko, toki-izenek zein hizkuntzaren ondare diren jakin eta hizkuntza hori errespetatu egin behar da. Hau guztia aztertzen ari garen inguruko kultura eta historiarekiko errespetu-jarrera orokorrekkin lotuta dago. Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara den arren<sup>1</sup>, gaur egunera arte ez du administrazioak erabili. Eta lurralde honetan herriak erabiltzen zuen garaian ere, etxeko eta familiako giroetara zokoratuta bizi zen, argi eta garbi jazarrita ez baldin bazegoen. Horren guztiaren ondorioz, administrazioek askotan baztertu egin dituzte euskarazko izenak, gaztelania estandarretik gertuago zeuden izenak ezarri dituzte eta zenbaitetan asmatu ere bai, jarrera horrekin herrialdearen gizarte-kohesioari mesede egiten zitzaiolakoan. Benetan ekinbide penagarria etorkizuna eraikitzeke iraganaren ahanztura bilatzen duenarena! Modu horretan kultur ondarea ezeztatu egiten denez, guk ez dugu jarrera hori inondik inora partekatzen eta, horrenbestez, saihesten saiatuko gara.

Bestalde, ahozko eta idatzizko erabileraren mailak ere bereizi egin beharko ditugu, horiek ere eragin argia baitute toponimoen alorrean. Edozein hiztun ohartuko da zenbaitetan hitz egiteko moduaren eta idazten den eraren artean diferentziak egoten direla, nahiz eta horrek hizkuntzaren erabiltzaileari inolako arazorik sortzen ez dion, ez eta mezua jasotzen duenari ere. Andaluziar batek «Graná» esan dezake, baina ez da harritzen *Granada* idatzi behar duela esaten diotenean. Bien arteko alde hori naturalizat jotzen du eta, duen formazioaren heinean, bere mintzairaren joerak eta idatzizko forma normalizatuak ezagutuko ditu kontzienteki. Era berean, hitz egiterakoan laburdurak nahiz aldaera

<sup>1</sup> Autonomi Estatutuko 6.1. artikuluan euskararen koofizialtasuna aitortzen da: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera».



*Enegorta edo El Valle dorretxeko leiho ederra*  
*Hermosa ventana de la torre de Enegorta o El Valle*

afektiboak erabili arren, horrek ez du hizkuntza normalizazioan eraginik izan behar, izan ere, helburua horixe baita: zenbaitetan bat ez datozen ahozko eta idatzizko formak egoitea. Esate baterako, *Portugalete* itsasaldeko hiribilduari *Portu* deitzea ez dago gaizki, baina era hori ez guke, adibidez, bide-seinaleetan erabili beharko, ez baita horretarako egokia.

Toponimiari dagokionez, oro har logikoena da izenen grafiak normalizatzeko izen bakoitzaren jatorrizko hizkuntzaren arau ortografikoak jarraitzea. Hala diote nazioarteko gomendio guztiek ere. Beraz, egokiena da euskal jatorriko toponimoak euskaraz idaztea (*Agirre, Etxegoien...*) eta jatorri erromantzea dutenak gaztelaniazko idazkeraz (*Sobrevilla, Villanueva...*). Hala egingo ez bagenu, hizkuntza horren ondare linguistikoa higatzen ariko ginatke. *Billanueva* idatzita ez diogu inolako mesederik egiten euskarari, baina gaztelaniaren integritateari kalte egiten diogu. Gauza bera gertatzen da *Aguirre* edo *Echegoyen* idazten dugunean ere, nahiz eta, ohituraren poderioz, hain harrigarria ez zaigun iruditzen.

Gainera, gerta daiteke hizkuntza ofizial bietan izenak nabarmen desberdinak izatea eta horrelakoetan biak normalizatu eta ofizialduko dira. Hala gertatzen da *Opellora / Costera, Elexalde / La Iglesia...* eta era horretakoetan. Irizpide hori ematen da aditzera *Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarriko Legean* ere, haren 10. artikulua Legebiltzarreko saiora joan ziren alderdi politiko guztien aldeko botoa izan zuelarik<sup>2</sup>. Irizpide honen aldekoa da Euskaltzaindiko Onomastika batzordea ere, eta aipaturiko Legean eta Autonomi Estatuan jasotakoari jarraiki, Euskaltzaindia da gai honetan era-

<sup>2</sup> Azaroaren 24ko 10/1982 Legeko 10. artikuluan honako hau ezarri zen:

«1. Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, geografia-gorabehera, hiribide eta, oro har, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzeko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez.

Toki-erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren. [...]

3. Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira».

*Ungino*

kunde aholkulari ofiziala<sup>3</sup>. Dena dela, Lege horretan ez da zehazten «oso ezberdinak» izate hori zertan datzan, nahiz eta zentzuzkoak izanik, bertakoek hala hartzen badituzte edo forma bat eta bestea elkar trukatzeko zailak baldin badira, «oso ezberdintzat» jo behar direla dirudien. Argi dago, beraz, *Aretxazar*, *Etxabarri* edo *Campijo* bezalako izenek ezin dituztela onartu baliokidetzat, ez idatziz ez eta era ofizialetan ere, *Arechazar*, *Echabarri* edo *Kanpijo* idazkerak.

Azken urteetan, inolako tradizioirik edo garrantzirik ez duten izenak jarrita ordezkatu egin dira antzinako toponimoak, eta badakigu zaharrak direla agiri zaharretan erregistratuta daudelako edota egungo formari esker antzinakoak direla nabari zaielako. Lehen aipatu dugun kultur ondarearen zaintza dela eta, horrelakoetan jatorrizko forma berreskuratzeko ahalegina egin behar dugu, nahiz eta horrek ez duen esan nahi forma berria desagerrarazi behar denik. Hala gertatzen da *Opelloraren* kasuan, azken aldian *Costera* izenarekin ezagutzen hasi eta toponimo zaharra ordezkatu denean.

Lehen ere aipatu dugu toki-izen bat normalizatzeko proposamenak erabaki aurretik, zer-nolako datu iturriak hartu behar diren kontuan: batetik, idatzizko agiri historikoak eta, bestetik, egungo hizkera, batez ere, toponimia txikiaren kasuan (iturrien izenak, mendienak, zelaienak, txokoenak...). Horren bidez, Aiarako biztanleek, ohikoan euskaraz mintzaturik, izen horiek sortu zituztenean zein forma erabiltzen zuten jakin ahal izango dugu. Baina lehen esan dugun bezala, kontuan izan behar dugu administrazio publikoetako agiriek ez zutela beti hiztunen hizkera islatzen eta askotan administrazio hark bere helburu politiko-kulturalen arabera aldatu egiten zituela. Ekintza «zuzentzaile» horiek bide bi hartu izan dituzte.

<sup>3</sup> Autonomi Estatutuko 6.4 artikuluan honako hau esaten da hitzez-hitzez: «Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale».

Hasteko, zuzeneko itzulpena dago. Administraziooko ordezkariak, eskribauak, funtzionarioak... toponimo baten esanahia iker (edo berez jakin) dezake, baina «ofizialki» idaztean gaztelaniarako itzulpena erabiltzen du. Esate baterako, Arabako herri baten izen ofiziala *Portilla* dugun arren, izen hori *Zabalate* izenaren itzulpen librea baino ez da. Antzinako izena inguruko ermita baten adbokazioaren osagai gisa baka-rrik mantendu da: *Zabalateko Andra Maria*. Antzeko kasu bat aurkitzen dugu Aiaratik hurbilago, Amurrio eta Orozko arteko muga, *Aspaltza* izen ederra (*Atx-baltz-a* ‘haitz beltza’), zuzenean itzuli eta *Peña Negra* eman baita.

Bada beste bide bat ere. Jatorritzko hizkuntza ezagutu ez, eta izena gaztelaniartu nahi izaten da antzekotasun fonikoetan edo herri etimologietan oinarri hartuta. Argi dezagun adibide batez: bada Beotegiko kontzejuan etxe bat ohikoan *Perikoarana*, eta are *Periko Arana* ere, izendatu ohi dena. Egungo hiztunek *Periko* forma pertsona izena nahiz goitizenaekin lotzen dute, baina tokiko toponimia aztertzen hasiz gero, berehala ohartuko gara antzinako *Perea* herri izenetik datorrela, garai batean Beotegiko eliza egon zen tokiarenetik hain zuzen ere. Izen egokia, beraz, argi eta garbi *Perekoarana* litzateke, hau da, ‘Pereko harana edo ibarra’. Antzinako toponimoak badirau inguruko *Peregaña* mendiaren izenean ere, hitzez-hitz ‘Pereko gaina’ esan nahi duena.

Hortaz, begi bistan dago bide bi haiek –leku-izenen itzulpenarena eta desitxuraketarena– Aiarako toponimian ere utzi dutela beren lorrataz.

Idatzizko lekukotzei balioa eman behar zaien arren, kontuan izan behar dugu haietan konfiantza gehiegi jartzeak ere bere arriskuak dituela. Adibidez, Aiarako toponimiari buruz Erdi Aroan erreferentzia askorik ez badugu ere, dauzkagun apur horietako asko Lope García de Salazarri zor dizkiogu. Egile honek *Bienandanzas e Fortunas* izeneko lan luzea idatzi zuen XV. mendean, eta lan horretan azaltzen du, *Salvadako* mendilerroa (eta ez batzuek dioten bezala, *Salváda*<sup>4</sup>) garai batean Gorobel<sup>5</sup> deitzen zela. Datu honekin batera, izen hari buruzko etimologia irudimentsu bat dakar<sup>6</sup>, gaur egun zenbait arrazoi historiko eta linguistiko direla eta, ezin onar daiteke-

<sup>4</sup> 864an *Salbata* eta *Salvata* daude dokumentatuta. Agiri horretan bertan aipatzen da *Ezqui* haitzuloa ere, gaur egun *Eskutxi*, mendilerroko gailurrik altuena.

<sup>5</sup> Mendizaleen artean *Garobel* izena zabaldu den arren, mendilerro hori euskaraz izendatzeko, behin eta berriro errepikatu den irakurketa-akatsa baino ez da. Izan ere, aipaturiko agiri historiko horretan *Gorobel* ageri da argi eta garbi. Beherago ematen dugun *Bienandanzas e Fortunas* laneko pasarteaz gainera, Lope García de Salazarrena dela esaten den *Crónica de Vizcaya*-n, pasarte berbera agertzen da, apur bat aldatuta egon arren: «E los leoneses cuando fueron encima de la Peña de Salvada dixieron: ‘En salvo somos’. E por esso le llaman Salvada, ca de primero le llamaban Peña Gorobel».

<sup>6</sup> Bizkaitarrek Jaun Zuria buru zutela Leongoak garaitu eta Jaun Zuria Bizkaiko lehenbiziko jaun izendatu zutenekoa kontatzean, honakoa dio: «E siguieron el alcançe matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el arbol de Luyaondo; e porque se tornaron de allí, pesándoles, llamaron el árbol gafo. E los leoneses que escapar podieron salieron por la Peña Gorobel, que es sobre Ayala; e como ençima de la sierra dixieron ‘a salvo somos’, e por esto le llaman Salvada. E porque en Padura fue derramada tanta sangre llamaron Arrigorriaga, que dize en vasconçe ‘Peña Viciada de Sangre’, como la llaman agora».



na. Beste datu interesgarri batzuk ere eskaintzen dizkigu, adibidez, inguruan euskara erabiltzen zelako lekukotza.

Agiriak alde batera utzita, batzuetan toponimo baten normalizazioa ahozko hizkuntzak berak emango digu. Aiaran, zoritxarrez, euskara galtzen ari zen heinean galdu ziren ahozko erreferentzia gehienak ere, baina batzuetan inguruko eskualdeetako euskaldunek edo garrantzi apalagoko toki-izenek gorde dituzte forma horiek. Horren adierazgarri dira Gasteizko *Miñao* / *Miñano* herriak edo gertuago daukagun *Kexaa* / *Quejana*. Euskarazko antzinako arau fonetiko baten arabera, hiztunek bokal arteko *-n-* galdu egin zuten izen berezi askotan, adibidez: *Aramaio* (Araba), *Dorrao* (Nafarroa), *Galdakao* (Bizkaia), *Zestoa* (Gipuzkoa)<sup>7</sup>. Herri hauen kasuan badakigu euskarazko forma zein den, bertako euskaldunek erabili egiten dutelako. *Miñaoren* kasuan toponimia txikia da euskarazko izena *-n-* gabe mantendu duena, adibidez, honako izen hauetan: *Miñaogutxirabidea*<sup>8</sup>, *Miñaoko arana*, *Miñaorabidea*... *Kexaaren* kasuan badakigu euskarazko forma zein den, Orozko, Zaratamo, Arrigorriaga eta inguruko lurretako euskaldunak aspalditik etorri izan direlako bertako feriara<sup>9</sup> eta beren ahozko hizkeran *Kexaa* aldaera erabiltzen dutelako gaur egun ere.

Zenbaitetan, bertako biztanleek ere ezagutzen dute euskal izena, nahiz eta ofiziala beste bat izan. Adibidez, Ozekan ikusi ahal izan dugunez, *Ulibarri* izen ofiziala ez ezik, gaur egun oraindik *Uribarri* ere entzun daiteke bertakoen ahotan. Izen honen oinarrian *uri* ‘hiria’ nahiz ‘populaturatutako lekua’ eta *barri* osagaiak ditugu, biak mendebaldean erabiliak eta beste euskalkietako nahiz euskara batuko *hiri* eta *berri* formen parekoak direnak.

Toki-izenetan maiz gertatzen den beste fenomeno bat da toponimoa (toki-izena) hagianimo batek (santuen edo adokazioen izena) ordezkatzeko duela. Ermitak edo monumentu erlijiosoak daudela, izen handiko erromeriak ospatzen direla, herri debozioa dela... santuen izenak gailendu eta gaur egun toki horien izenak ahaztuak daude. Prozesu hori ezin dugu naturalizat eta halabeharrezkotzat jo, euskara baztertuta egotearen eta ideologia kutsuko fenomenoaren ondorioa baita. José María Jimeno Jurío Artaxoako ikerlariak Nafarroako toponimia aztertzean argi utzi zuenez, Euskal Herri osoan gertatzen den fenomeno da<sup>10</sup>. Honen argigarri, inguruko adibide ezagun bat jarriko dugu. Bada Gordexolan *Berbikiz* izeneko toki eta haren ordez *San Cosme* erabiltzen da gaur egun, irailean, San Kosme eta San Damian egunean, erromeria ospetsua egiten delako bertan, nahiz eta, bitxia bada ere, ermita Done Joan

<sup>7</sup> Gaztelaniaz, hurrenez hurren *Aramayona*, *Torrano*, *Galdacano* eta *Cestona* erak eman zituztenak.

<sup>8</sup> *Guti*-ren aldagarria da *gutxi* eta Lautadako toponimian ‘txiki, txikiago’ esanahia izaten du. Aiaran, ordea, maiz ageri ohi da lehenagoko *goiti* baten aldagai, ‘goikoa’ esanahia duela, eta ohikoak dira horren antzekoak gure lurralde honetan: *go(i)ti* > *gotxi*, *barruti* > *barrutxi* edo *urruti* > *urrutxi*.

<sup>9</sup> Abeltzaintzako eta nekazaritzako feria ospetsu hori San Joan Bataiatzailearen egunaren inguruan izaten zen eta aldirietako baserrietarak hurbildu ohi ziren, baita oraindik euskaraz hitz egiten duten herrietako asko ere.

<sup>10</sup> Jimeno Jurío, 1985.

Bataiatzaile edo Lepomoztuari eskainia egon. Horrelako kasuetan, tokiaren jatorrizko izena berreskuratzea gomendatzen du Euskaltzaindiak eta joera hori da egokiena ikuspuntu guztietatik. Gure adibidearen kasuan *Berbikiz* berreskuratu beharko litzateke tokia izendatzeko, santuen izenak dagozkien zereginetarako gordez: *San Kosme* (eta *San Damian*) egun horretako jaia aipatzeko eta *Done Joan Bataiatzailea* edo *Lepomoztua* toki horretan dagoen ermitaren adbokazio historikorako.

Zoritxarrez, toki askotako euskal izenak azkenengo euskal hiztunekin batera galdu ziren eta gaur egun ez daukagu izen horiek jakiteko modurik. Baina zenbaitean, horietako batzuk berreraikitze aukera izaten da. Euskal Herriko mendebaldean eliza dagoen auzoa izendatzeko *Elexalde* erabiltzen zela argitzen duten adibide asko ditugu. Hala gertatzen da Barrundian hasi eta Amurrio nahiz Beotegiraino, herri horretan oraindik ere XIX. mendean *Elejalde* forma dokumentatzen baita, hau da, euskal izenaren forma gaztelaniartua. Hori dela eta, egungo *Barrio de la Iglesia* eta antzekoak euskarazko *Elexalderen* itzulpen hutsak direla esan genezake eta, horrenbestez, bidezkoa dateke atzera bihurtzea. Gauza bera gertatzen da asko erabiltzen ziren beste hitz batzuekin ere, adibidez, *molino (errot)*, *palacio (jauregi)*...; gainera, gaur egun,

*Negua Kobatan*  
Invierno en la Kobata



oraindik ezagutzen ditugun errealitatei erreferentzia egiten dietenak. Agirietan horrelakorik agertu ez arren, ziur dakigu aiarrak obikoan erabili zituztela. Esate baterako, Derediako dermioan (Barrundia), *Molinoviejo* izenaz ezagutzen den errotaren azpian dagoen aurkintzari *Errotazpi* esaten zaio gaur egun. Pentsatzekoa da, beraz, *Molinoviejo* hura euskarazko leku-izen zaharrago baten itzulpena izango dela eta, frogatzeko, XIX. mendera arte dokumentaturik aurkitzen dugu: *Errotazar*. Horregatik, antzeko kasuetan, batzordearen iritziz, egokia da, egungo erromantzeko formarekin batera, euskal forma ere iradokitzea.

Amaitzeko, eta gaiari ekin aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu Aiarako auzotar guztiei, inolako zalantzarik egin gabe erantzun baitzituzten arrotz batzuek egindako galderak. Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, udalbatzari, lana eskatzerakoan adierazitako interesagatik, Alberto Agirre hizkuntza normalizaziorako teknikariari eta, azkenik, Euskaltzaindiko Onomastika batzordekoei, hemengo proposamenak aztertzen egindako lanagatik eta horiei buruz emandako irizpenengatik.



*Done Mikel Goiaingeruaren india Etxegoienen*  
*Imagen de San Miguel Arcángel en Etxegoien*

# Introducción

El presente trabajo es fruto de la iniciativa que el Ayuntamiento de Ayala (Aiara) puso en marcha al solicitar a la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) el análisis y propuesta ortográfica para los nombres de sus barrios, casas y calles. Consultada la documentación pertinente y realizada la oportuna labor de campo, los resultados de aquel trabajo de la Comisión se pueden ver materializados en el presente texto. Sin embargo, se consideró que la emisión de un simple listado en que se recogiesen las correcciones o formas anteriores, así como el cambio de las señalizaciones viarias sin ningún tipo de explicación, podrían dar lugar a equívocos o malentendidos. Por esta razón se juzgó procedente y útil realizar un pequeño esfuerzo explicativo y hacerlo llegar a todos los ayaleses para que, por una parte, pudiesen saber el porqué de los cambios cuando los hubiese y, por otra, conociesen un poco más la historia de los pueblos y barrios del municipio. Este trabajo, realizado por los autores a solicitud de la Comisión, es tan solo un primer paso y no debe entenderse como el punto final de la investigación. Muy al contrario, no es sino el principio de una labor más ambiciosa puesto que, entre otras carencias, no se han investigado sistemáticamente los archivos municipales y concejiles, trabajo este que debería acometerse en el futuro junto con la recogida exhaustiva de la toponimia oral que sirva como fuente de contraste para las labores precedentes. Por ello, no sería extraño que más adelante haya que hacer algunas rectificaciones, fruto de un mayor conocimiento de la historia de esta tierra. Esperamos que estos trabajos sean acometidos en breve y, en esa línea, en febrero de 2012 ha visto la luz un interesante mapa del término municipal a escala 1:20000 que, tras una sistemática recogida oral y documental de datos toponímicos, ofrece la situación precisa y la grafía correcta de gran parte de la toponimia menor ayalesa.

La toponimia, es decir, el acervo conformado por los nombres de lugar, constituye un tesoro que hay que conservar, al igual que han de conservarse todos los elementos que conforman el patrimonio cultural. Las denominaciones de los lugares son un legado del pasado que estamos obligados a transmitir al futuro en su integridad. Son la historia viva de la lengua que se ha hablado hasta no hace tanto en estas tierras, el testigo fósil de su antigua vitalidad y, a menudo, la expresión que nuestros antepasados dejaron sobre la percepción que ellos tenían de estos lugares. Todos somos responsables de su conservación: solo conociendo, utilizando y difundiendo este tesoro toponímico, contribuiremos a tal tarea.

## Criterios generales de normalización toponímica

Antes que nada habrá quien se preguntará: ¿para qué normalizar?, ¿no está bien lo que decimos? Obviamente lo que decimos no está mal, pero hay algunas cuestiones que debemos tener en cuenta al valorar lo que utilizamos. El primer punto a considerar es el respeto a las lenguas de cuyo patrimonio léxico forman parte los nombres de lugar, lo que sin duda va liga-



do a una actitud general de respeto para con la cultura e historia de la zona que consideramos. Aunque el euskera es la lengua propia del País Vasco<sup>11</sup>, nunca hasta la actualidad ha sido lengua de uso en la Administración e, incluso en la época en que su uso era aún habitual en los estratos populares de estas tierras, se hallaba relegada al ámbito privado y familiar, cuando no manifiestamente perseguida. Como consecuencia de todo ello, en numerosos casos las administraciones han optado por arrinconar los nombres de origen eusquérico, imponiendo formas que consideraban más cercanas al estándar castellano o, incluso, inventándolas, en la creencia de que con esta actitud se estaba contribuyendo más eficazmente a la cohesión social del país. ¡Triste estrategia la de quien pretende construir el futuro desde el olvido del pasado! Es un ejemplo de anulación del patrimonio cultural que no compartimos en absoluto y que trataremos de evitar.

En segundo lugar, habremos de diferenciar los dos niveles de uso de la lengua, el oral y el escrito, puesto que afectan también al campo de los topónimos. Cualquier hablante puede comprobar que existen ciertas diferencias entre el modo en que escribe y la forma en que habla, sin que ello represente ningún tipo de conflicto para el que utiliza la lengua, ni para el receptor de los mensajes. Un andaluz que dice «*Graná*» no queda perplejo cuando le dicen que ha de escribir *Granada*. Antes bien, percibe esa diferencia como algo natural, siendo consciente, en la medida de su formación cultural, de las tendencias de su habla y de las formas normalizadas escritas. Igualmente, el uso de formas abreviadas o afectivas en el habla, no debe afectar al trabajo de normalización lingüística, pues el objetivo es precisamente que lo «normal» sea la existencia de formas habladas y escritas que a veces no coincidan: llamar *Portu* a la villa marinera de *Portugalete* no es rechazable, pero no es la forma adecuada para utilizarse, por ejemplo, en las señalizaciones viales.

En cuanto a la toponimia se refiere, parece que lo más lógico es normalizar la grafía de los nombres conforme a las reglas ortográficas del idioma original. Así lo confirman todas las recomendaciones de carácter internacional. Por lo tanto, es más apropiado escribir los topónimos de origen eusquérico en euskera (*Agirre*, *Etxegoien*...) y los de origen romance con la grafía del castellano (*Sobrevilla*, *Villanueva*...). No hacerlo así sería simplemente erosionar el

<sup>11</sup> El artículo 6.1. del Estatuto de Autonomía proclama además su cooficialidad: «El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi».

patrimonio lingüístico del idioma. Escribir *Billanueva* no hace ningún favor al euskera, mientras que menoscaba la integridad de la lengua castellana. Otro tanto hemos de decir de quien escribe *Aguirre* o *Echegoyen*, aunque a fuerza de costumbre, esto no nos parezca tan extraño.

Puede además darse la circunstancia de que los nombres sean sensiblemente diferentes en las dos lenguas oficiales, en cuyo caso se normalizarán y oficializarán ambos. Este puede ser el caso de *Opellora / Costera, La Iglesia / Elexalde*... Así lo recoge también la legislación del país en la *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera*, cuyo artículo 10 contó en su día con el voto favorable de todos los partidos políticos presentes en la sesión parlamentaria<sup>12</sup>. También comparte este criterio la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia), la cual, según lo recogido en la referida Ley y en el Estatuto de Autonomía, es la institución oficial consultiva en esta materia<sup>13</sup>. No obstante, la citada Ley no señala qué se entiende por «sensiblemente diferente», si bien el sentido común nos indica que han de considerarse tales cuando los habitantes de un lugar así lo perciben, o cuando una y otra forma no sean fácilmente intercambiables. De este modo, parece claro que nombres como *Aretxazar, Etxabari* o *Campijo* no deben admitir la doble denominación escrita u oficial *Arechazar, Echabari* o *Kanpijo*.

En ocasiones ocurre que un topónimo secular, registrado desde sus primeras manifestaciones documentales, o cuya antigüedad es reconocible gracias a su forma actual, ha sido sustituido por otro en los últimos años, a pesar de que la forma nueva carezca de tradición o sea intrascendente. En estos casos la postura de conservación del patrimonio cultural antes citada, debe llevarnos a hacer un esfuerzo por restituir el original y auténtico sin que, por supuesto, ello implique la desaparición de la forma moderna. Así ocurre en el caso de *Opellora*, conocido en los últimos tiempos como *Costera* por un simple proceso de sustitución.

Ya hemos sugerido más arriba que las fuentes que deben consultarse antes de decidir la propuesta de normalización de un nombre de lugar, han de ser tanto la documentación histórica escrita, como el habla actual, especialmente en el campo de la toponimia menor (nombres de fuentes, montes, prados, rincones...). De este modo, podremos saber realmente cuál era la forma original que usaban los habitantes de Ayala (Aiara) cuando generaron tales nombres, normalmente hablando en euskera. Para ello deberemos tener en cuenta, como ya hemos citado antes, que la documentación de las administraciones no reflejaba siempre la forma de hablar de los habitantes y que, en muchos casos, la transformaba al servicio de su intencionalidad político-cultural. La forma de proceder para este tipo de acciones «correctivas» suele seguir dos caminos.

<sup>12</sup> Ley 10/1982 de 24 noviembre, cuyo artículo 10 establece lo siguiente:

«1. La nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los órganos forales de los territorios históricos o las corporaciones locales en el ámbito de sus respectivas competencias, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.

En caso de conflicto entre las corporaciones locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca. [...]

3. En caso de que estas nomenclaturas sean sensiblemente distintas, ambas tendrán consideración oficial, entre otros, a los efectos de su señalización viaria».

<sup>13</sup> En su artículo 6.4. se dice textualmente: «La Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia es institución consultiva oficial en lo referente al euskera».

En primer lugar está la traducción directa. El representante de la Administración, escribano, funcionario... puede indagar (o conocer directamente) el significado de un topónimo y utilizar por escrito «oficialmente» su traducción a la lengua castellana. Así, por ejemplo, una conocida localidad alavesa se denomina oficialmente *Portilla*, si bien este nombre no es sino una traducción libre de *Zabalate*, del euskera *zabal* 'llano' y *ate* 'puerta', antigua denominación del lugar y su importante fortaleza, que solo se ha conservado como complemento a la advocación de una ermita cercana: *Andra Maria de Zabalate*. Caso análogo encontramos más cerca de Ayala (Aiara), en el límite entre Amurrio y Orozko, donde el bonito topónimo *Aspaltza* (de *Atx-baltza* 'la peña negra') fue directamente traducido por *Peña Negra*.

Otro camino puede ser, en la ignorancia de la lengua original, pretender la castellanización del nombre en base a ciertas similitudes fónicas o etimologías populares. Ilustrémoslo con un ejemplo: existe una casa en el concejo de Beotegi que suele denominarse *Pericoarana* o, incluso, *Perico Arana*, lo que cualquier hablante actual pone en relación con un presunto nombre de persona o apodo *Perico*. Sin embargo, el estudio de la toponimia local, enseguida nos desvelará que en realidad es un derivado del antiguo nombre *Perea*, localidad en donde se ubicó antaño la iglesia de Beotegi. El nombre correcto sería, por tanto, con toda evidencia *Perekoarana*, es decir 'valle de Perea'. Este antiguo topónimo también se halla presente en el nombre del cercano monte *Peregaña*, literalmente 'alto de Perea'.


Como puede observarse, ambos caminos –el de la traducción y el de la desfiguración de los topónimos– también dejaron su impronta en la toponimia de Ayala (Aiara).

Sin perjuicio del valor que debemos dar a los testimonios escritos, a su vez, hemos de ser conscientes de los peligros que en ocasiones la excesiva confianza en ellos pudiera tener. Por ejemplo, una de las pocas referencias medievales a la toponimia de Ayala (Aiara) se la debemos a Lope García de Salazar. Este autor escribió en el siglo XV la extensa obra titulada *Bienandanzas e Fortunas* donde, entre otras muchas cosas, explica que la sierra *Sálvada* (mal acentuada por algunos *Salváda*<sup>14</sup>) se llamaba con anterioridad *Gorobel*<sup>15</sup>. Sin embargo, acompaña este dato de una imaginativa y fantástica etimología de aquel nombre<sup>16</sup>, y que hoy, por diversas razones históricas y lingüísticas, no cabe dar por buena. También nos proporciona algunos otros datos de interés, como la constatación de que en la zona se hablaba euskera.

<sup>14</sup> Documentada en el 864 como *Salbata* y *Salvata*. En el mismo documento se cita la cueva de *Ezquti*, hoy en día *Es-kutxi*, cima más elevada de esta sierra.

<sup>15</sup> Aunque en ambientes montañosos se ha difundido la denominación *Garobel* como variante en euskera del nombre de esta sierra, no es sino un error de lectura que se ha ido repitiendo, ya que el documento histórico en cuestión muestra un indiscutible *Gorobel* que no deja lugar a ninguna duda. Además de la célebre cita de las *Bienandanzas e Fortunas* que damos más abajo, la *Crónica de Vizcaya*, también atribuida a Lope García de Salazar, cita igualmente este mismo pasaje con algunas variantes: «E los leoneses cuando fueron encima de la peña de Salvada dixieron: 'En salvo somos'. E por esso le llaman Salvada, ca de primero le llamaban peña Gorobel».

<sup>16</sup> Al citar la batalla en la que los vizcaínos capitaneados por Jaun Zuria vencieron a los leoneses y nombraron al citado cabecilla primer señor de Bizkaia dice: «E siguieron el alcance matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el arbol de Luyaondo [en referencia al árbol malato]; e porque se tornaron de allí, pesándoles, llamaron el árbol gafo. E los leoneses que escapar podieron salieron por la peña Gorobel, que es sobre Ayala; e como ençima de la sierra dixieron 'a salvo somos', e por esto le llaman Salvada. E porque en Padura fue derramada tanta sangre llamaron Arrigorriaga, que dize en vascuence 'Peña Viciada de Sangre', como la llaman agora».



*Aiarerria mendilerroaren pean*  
La Tierra de Ayala al pie de la sierra

Al margen de las fuentes documentales, en ocasiones, la normalización de un topónimo habrá de venir dada por la forma oral del mismo. Desgraciadamente, en casos como Ayala (Aiará), paralelamente a la desaparición del uso histórico del euskera, se perdieron la mayoría de dichas referencias orales. Sin embargo, pueden aún permanecer en el uso de euskaldunes de zonas próximas o en nombres de lugar de menor importancia. Ejemplo ilustrativo de estos casos pueden ser los pueblos de *Miñao* / *Miñano* en Vitoria (Gasteiz), o el más cercano *Kexaa* / *Quejana* en el municipio que nos ocupa. En euskera se da una antigua norma fonética según la cual los hablantes suprimieron la *-n-* entre vocales en multitud de nombres propios, por ejemplo en *Aramaio* (Álava), *Dorrao* (Navarra), *Galdakao* (Bizkaia), *Zestoa* (Gipuzkoa)<sup>17</sup>. En el caso de estas localidades conocemos cuál es la forma eusquérica porque aún vive en el uso de los euskaldunes locales. Para *Miñao*, utilizado en castellano *Miñano*, es la toponimia menor la que ha conservado el uso del nombre eusquérico sin *-n-*, por ejemplo en los nombres *Miñao-gutxirabidea* ‘El camino a Miñao gutxi’<sup>18</sup> o ‘Miñano Menor’, *Miñaooko arana* ‘El valle de Miñano’, *Miñaoarabidea* ‘El camino a Miñano’... En el caso de *Quejana* (*Kexaa*) sabemos cuál es la forma eusquérica porque los vascohablantes fundamentalmente de Orozko, Zaratamo, Arrigorriaga y zonas limítrofes, han acudido tradicionalmente a su importante feria<sup>19</sup> y han conservado en su uso oral la forma vasca *Kexaa* hasta nuestros días.

<sup>17</sup> Que en castellano dieron respectivamente las formas *Aramayona*, *Torrano*, *Galdácano* y *Cestona*.

<sup>18</sup> *Gutxi* ‘poco, pequeño’ variante fonética de *guti*, similar a *go(i)ti* > *gotxi*, *barruti* > *barutxi* o *urruti* > *urruixi* tan frecuentes en Ayala (Aiará) aparece en la toponimia de la Llanada con el significado de ‘menor, pequeño’. En Ayala (Aiará) suele aparecer *-gotxi* con el significado de ‘arriba’, variante local de un anterior *goiti*.

<sup>19</sup> Famosa feria agrícola-ganadera que solía celebrarse en torno al día de San Juan Bautista y a la que acudían *baserritarras* de un área circundante bastante extensa, incluidas numerosas localidades aún vascohablantes.





*Aiarako txakolin ospetsua egiteko mahatsa*  
Uva para la elaboración del afamado chacolí ayalés

También ocurre en ocasiones que los propios habitantes de un lugar saben cuál es su nombre eusquérico, a pesar de que el oficial sea diferente. Por ejemplo, en Ozeka hemos podido constatar que además de la forma oficial *Ulibarri* todavía se puede oír *Uribarri*, procedente de *uri* 'villa' o 'lugar habitado' y *barri* 'nueva', formas propias del occidente del país y equivalentes al *hiri* y *berri* de los demás dialectos y del euskera estándar.

Otro fenómeno muy común en las denominaciones de lugares es la sustitución de topónimos (nombres de lugar) por hagiónimos (nombres de santos o advocaciones). La existencia de ermitas o monumentos religiosos, la celebración de romerías de cierto renombre, la devoción popular... han provocado que los nombres de santos se impusieran y se relegasen al olvido los de dichos lugares. No podemos considerar este proceso sustitutorio como algo natural y aceptable, pues es consecuencia tanto de la situación marginal del euskera como de un fenómeno de cierto corte ideológico. Como hace años puso de manifiesto el investigador artajonés José María Jimeno Jurío en sus estudios sobre la toponimia de Navarra, se trata de un fenómeno que ocurre en todo el País Vasco<sup>20</sup>. Para ilustrar este extremo con un ejemplo conocido, citemos el nombre del lugar de *Berbikiz* en Gordexola, que ha sido sustituido por el de *San Cosme* al celebrarse allí su afamada romería en septiembre, festividad de San Cosme y San Damián aunque, curiosamente, el santo titular de la ermita es San Juan Degollado o Bautista. En estos casos el proceder de la Academia, y lo más razonable desde cualquier punto de vista, consiste en recomendar la recuperación del nombre original del lugar, *Berbikiz*, reser-

<sup>20</sup> Jimeno Jurío, 1985.

vando los nombres de los santos para el objeto que deben designar: *San Cosme* (y *San Damián*) para la festividad del citado día y *San Juan Bautista* o *Degollado* para la advocación histórica de la ermita situada en dicho término.

Desdichadamente, en muchos casos los nombres eusquéricos se perdieron para siempre con los últimos vascohablantes y hoy en día no tenemos modo de saber cuáles fueron. Sin embargo, en contados casos cabe la posibilidad de reconstruir algunos de ellos. Podemos ilustrar con innumerables ejemplos el hecho de que en la zona occidental del país, el barrio donde se encuentra la iglesia se denomina en euskera *Elexalde*. Es algo constatable desde Elgea (Barrundia) hasta Amurrio y Beotegi, donde aún en el siglo XIX se documenta *Elejalde*, forma castellanizante del nombre vasco. Cabe pensar que denominaciones actuales como *Barrio de la Iglesia* no son sino traducciones de anteriores *Elexalde* eusquéricos, por lo que su restitución parece lícita. Otro tanto ocurre con algunas otras palabras genéricas de uso común como *molino* (*errot*), *palacio* (*jauregi*)... que además hacen referencia a realidades (molinos o casas señoriales) aún conocidas en el terreno. Aun en ausencia de testimonios documentales, sabemos con seguridad que fueron habitualmente utilizados por los ayaleses. Por ejemplo, en término de Deredia (Barrundia), la zona situada bajo el llamado *Molinoviejo*, se denomina actualmente *Errotazpi*, literalmente 'bajo el molino'. Cabe por tanto pensar que ese *Molinoviejo* pueda ser traducción de un topónimo eusquérico anterior y que hallamos documentado hasta el siglo XIX: *Errotazar* (literalmente 'molino viejo'). Por ello, en estos casos la Comisión también ha juzgado razonable proceder a indicar su forma eusquérica junto a la actual romance.

Para finalizar, y antes de entrar en materia, quisiéramos dar las gracias a todos aquellos vecinos y vecinas ayaleses que no dudaron en contestar con la mayor amabilidad a las preguntas de unos extraños, a la Corporación municipal, por el interés mostrado al solicitar el trabajo, al técnico de normalización lingüística de Ayala, Alberto Agirre y finalmente a los miembros de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia), por la labor de examen de las propuestas que aquí se presentan, así como del dictamen sobre las mismas.



## Aiara: izena eta lurraldea

Gaur egun izen hori daraman udalerria Arabako probintziaren ipar-mendebaldeko muturrean dago eta Aiarerri historikoaren lurralde-hondarra da. Arabako isurialde atlantikoan dago, longitudeko 2° 58' eta 3° 10' W, eta latitudeko 43° 00' - 43° 09' N artean, Gorobel mendilerroaren iparraldeko hegalean. Mendigune honetako gailurrik altuena den Eskutxi mendian (1178 m) erdiesten du Aiarak ere bere punturik garaiena.

Erlojuko orratzen norabideari jarraituz eta iparraldetik hasita, Aiarako udalerriak honakoekin egiten du muga hurrenez hurren: Gordexola, Okondo, Laudio, Orozko, Amurrio, Urduña, Villalba de Losako Batzarra, Lausa Harana, Mena Harana eta Artziniega. Baina Aiarako jurisdikziopeko mugen kontua, inguruko auzo herrien lerrokada hutsa baino aberatsagoa da. Beste toki batzuetan ohi denaz beste, udalerrriaren barruko antolakuntza ez da homogeneoa. Aitzitik, oso ongi zehaztutako nortasun propioa duten hogeita lau herriz osatuta dago, herri batzar edo kontzejuetan biltzen direnak<sup>1</sup>. Antzinako figura administratibo hori oso ohikoa da Arabako lurralde historikoan eta eskumen, betebeharrak nahiz eskubide batzuk izaten dituzte, udalerrriaren berezko gobernu-organoa den udalaren aurrean. Udalaren osoko bilkurak Arespalditza herrian dagoen udaletxean egiten dira.

### Aiara izeneko errealitate administratiboak

*Aiara* izena hainbat errealitate administratibo izendatzeko erabili izan da denboran eta espazioan barrera. Espero zitekeen bezala, elkarren antzik ez zuten gauzak izendatzeko erabili izan denez, Aiarako lurralde historiko bereziari erreferentzia egin behar zioten kontzeptuak nahastu egin dira sarritan.




*Lantenoko Andra Maria Zuriaren ondoko mugarria*  
*Mojón próximo a La Blanca de Lanteno*

<sup>1</sup> Aiarako udalerria hogeita lau herrik osatzen duten arren, administrazio-batzarrak edo kontzejuak hogeita hiru dira, batez ere arrazoiz praktikoengatik Beotegi eta Menagarai herriak batzar bakar batean bildurik daudelako.

Laburki bada ere, gaira argi pixka bat ekarri nahirik, beren identifikaziorako *Aiara* izena erabili duten edo orain ere erabiltzen duten erakundeen zerrenda laburra egitea egokia dela dirudi. Honako hauek dira:

- **Aiarrerria.** Egungo Aiararen oinarri historikoa eta jatorria izanik, erakunde politikoa zen eta erabileraren nahiz ohituren ondoriozko botere publikoak zituen, gaur egun, lurralde historiko horretan dirauen berezko lege-sistema den Foru ezagunean jasota daudenak. Aiarrerria hobeto kudeatu eta administratze-ko, bost kuadrillatan<sup>2</sup> bilduta zeuden hogeita hamahiru herrik osatzen zuten. Kuadrilla bakoitzak bere ordezkaria zuen Saraubeko landetan egiten ziren Bartzarretan. Gerra Karlistetan armada liberala irabazle gertatu ondoren, foruen abolizio legea (1839) ezarri eta udal antolamenduei buruzko legeria berria

indarrean jarrita (1841), izandako garaipen militar ospetsuen ondorioz, Baldomero Espartero jenerala zen gobernuko presidentea, eta Erresuma probintzia nahiz udalerrri homogeneo samarretan antolatu zuen. Orduz geroztik, Aiara 36 herri haiek bost udalerritan banatuak gelditu ziren<sup>3</sup> –Aiara, Artziniega, Okondo, Amurrio eta Lezama–, gaur egun lau badira ere, azkenengo hau Amurriorekin elkartu baitzen 1976an. Horren ondorioek bizirik diraute gaur egun eta Gorobelgo zelaietan bazkatzeko eskubidea dute oraindik ere



<sup>2</sup> Saraubeko Bartzar Orokorretan botoa ematen zuten hurrenkeran jarri ditugu horko kuadrillak eta herriak: **Lezama:** Barambio, Astobiza, Lezama, Larrinbe, Lekamaña, Saratxo, Etxegoien eta Izoria; **Amurrio:** Amurrio, Olavezar, Murga, Luiaondo; **Sopena:** Arespaldiza, Maroño, Aguinaga, Madaria, Salmantón, Menoio, Ozeke, Lexartzu, Añes, Soxo, Erbi eta Luxo; **Lanteno:** Kexaa, Menagarai, Erretes, Opellora, Lanteno, Mendieta, Santa Koloma, Erretes Tudela eta Soxoguti; **Okondo:** Beotegi, Zuhatza eta Okondo.

<sup>3</sup> Aiarrerriko gaur egungo udalerrien sorreraz, oso interesgarriak dira Aiara udalerriko mapan ageri diren ohar historikoak (Mugurutza, 2012):

«Gerra Karlistetan nagusitu eta gero, Espartero bera izango zen Erregeordea –egungo Estatuko Presidentearen baliokidea– eta Frantziako Iraultzaren (1789) ostean hazitako joera liberal eta modernistak aplikatuz, 1841 urtean Espainia osoko tokiko foru-sistemak baliogabetzeko agindua emango zuena eta udalen sistema berritzaile eta homogeneoa ezarriko zuena. Eta horra arte hain itzal handikoa zen 36 herriko Aiarrerria desagertu egin zen. Baita bere Foru eta berezko antolatze-sistemak ere. Gainera, biztanle-gune handienei udal propioa sortzeko aukera eman zien lege berriak eta Amurrio, Lezama –1976 urtean Amurriok bereganatuko zuena–, Artziniega eta Okondo udalak eratu ziren. Egoera traumatiko hartan gauzatu zen gaur egungo 24 herriko Aiara udala, 1842ko azaroaren 17an eta urtebete lehenago zituen lurren % 55arekin».

gaur egun Aiarakoak ez diren Amurrio eta Okondoko udalerrietako abereek. Gauza desberdinak aipatzeko izen bat bera erabiltzeak arazoak sor zitzakeela ikusita, Euskaltzaindiak bere Onomastika batzordearen bitartez erabaki zuen errealtate historiko hau aipatzeko *Aiarrera* izenaren erabilpena zela egokiena, antzeko beste zenbait izenetan segitu diren irizpideak erabilia. Gaztelaniazko *tierra* hitzak ('herri'), Erdi Arotik hona, lurralde bereziak politikoki ulertzeko era berezko baina nahiko arrunt bati egiten dio erreferentzia.

- **Aiarako kuadrilla** (tradiziozkoa). XIX. mendean Arabako lurraldea antolatzeko zeuden sei kuadrilletatik hirugarrena dugu Aiarakoa. Kuadrilla honek, halaber, bost ermandade<sup>4</sup> zituen hobeto gobernatu ahal izateko. Gauzak are gehiago nahasteko, ermandade horietako bati ere *Aiara* izena ematen zitzaion.
- **Aiaraldea** (egungo Aiarako kuadrilla). Arabako lurralde historikoko udalerriak elkartzeko udalaz gaineko administrazio-erakundeetako bat da, kuadrillak 1986/63 Foru Arauaren aplikazioaren ondorio zuzenez sortu baitziren. Honako udalerrri hauez osatua dago: Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondo. Izen horren azpian Aiarrerrikoak inoiz izan ez diren Artziniega edo Laudio egoteak oztopo bat baino gehiago sortu du, baita zenbait errezelo ekarri ere. Horregatik, homonimia honen ondoriozko deserosotasuna eta desadostasunak saihestu nahian, azkenaldian *Aiaraldea* euskal izena erabiltzen hasi da, orokorragoa eta egokiagoa dena eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak 2005ean onartu zuena. Horren bidez, irtenbide errazik ez duen arazo honi nolabaiteko erantzuna eman nahi izan zaio.
- **Aiarako ermandadea**. Aiarako kuadrilla antzina banatuta zegoen ataletako bat da, hogeita hamalau herriz osatua eta gorago esan den moduan zehaztua.
- **Aiara udalerria**. XIX. mendean geroztik Espainiako erresuma artikulatzeko oinarri nagusia udalerria da. Udala Estatuaren administrazio-organoa da eta herri inguruari dagokio. Arau bidezko definizioaz honako hauek osatzen dute udala: Alkate bat –udalerria administratzeko gobernu-ordezkaria baino ez dena–, zenbait alkateorde eta zinegotziz osatutako udal-kontseilua eta, Aiaran bezala beharrezkoa den kasuetan, auzo-alkate batzuk. Udalerriaren figura indarrean jarrita, erresumako lurraldeak homogeneizatu nahi izan ziren eta, haren ondorioz, lehengo figura historikoak desegin behar izan ziren eta lurraldea beste modu batera berregituratu. Aldaketa harengatik, administrazioari eta gobernuari dagozkienetarako Aiare-

<sup>4</sup> Aiarako kuadrillan ermandade hauek zeuden eta horien barruan zenbait biztanle-entitate: Aiarako ermandadea, 34 gunerekin: Agiñaga, Amurrio, Añes, Astobitza, Baranbio, Beotegi, Opellora, Erbi, Erretes, Erretes Tudela, Etxegoien, Izoria, Larrinbe, Lekamaña, Lexartzu, Lezama, Lanteno, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Mendieta, Menoio, Murga, Okondo, Olabezar, Ozeka, Kexaa, Salmantón, Santa Koloma, Saratxo, Soxo eta Zuhatza; Artziniegako ermandadea, 5ekin: Artziniega, Campijo, Gordelliz, Soxoguti eta Villasús; Laudioko ermandadea, 6ekin: Dubiriz, Goienuri, Isusi, Larrea, Larrazabal eta Olarte; Arrastariako ermandadea, 4ekin: Aloria, Artomaña, Delika eta Tertanga; eta Urkabustaizko ermandadea, 11 entitaterekin: Abezia, Abornikano, Apregindana, Beluntza, Goiuri, Izarra, Larrazkueta, Ondona, Oiardo, Untzaga eta Uzkiario.



*Zizelatutako hilarria Arespalditzako elizaren hormetan*  
*Relieve funerario en los muros de la iglesia de Arespalditza*

rri Historikoa desagertzera eraman eta, lehen esan den bezala, zenbait udalerritan banatuta gelditu zen. Jatorrizko 36 herri haietatik gaur egun 24k osatzen dute Aiara udalerria –23 administrazio-batzarretan antolatuak–: Agiñaga, Añes, Arespalditza, Beotegi –administrazioaren eraginetarako Menagarairekin bat egina–, Erbi, Erretes, Etxegoien, Izoria, Kexaa, Lanteno, Lexartzu, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Opellora, Ozeka, Salmantón, Soxo eta Zuhatza. Udaleko auzoburua Arespalditza da eta hor daude udaletxea eta administrazioiko bulegoak, aipatu dugun legez, ez baitago Aiara izeneko toki zehatzik eta horrek zenbait nahaste sortzen baitu.

- **Aiarako bikarriotza.** Elizaren administrazio historikoari dagokio lurralde antolaketa hau. Gotzainen elizbarrutiak bikarriotzetan banatzen dira eta hemen aipatuko dugun elizbarrutia Calahorrrakoa da ari garen garaiaz ari garela. Bikarriotza honetan hurrengo 27 herrietako parrokiak zeuden: Agiñaga, Amurrio, Añes, Arespalditza, Astobitza, Baranbio, Beotegi, Erbi, Erretes, Izoria, Kexaa, Larrinbe, Lekamaña, Lexartzu, Lezama, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Ozeka, Salmantón, Saratxo eta Zuhatza. Aiarako herriak izan arren, Lanteno eta Opellora Tudelako bikarriotzakoak ziren. Elizgizonen bilerak Arespalditzan egiten ziren, administrazio laikokoak bezala, herri hori hartzen baitzen bikarriotzako erdigunetzat.
- **Aiarako jaurreria.** Aiarako jaunaren mende zeuden lurraldeen multzoa zen, denboran zehar oso muga eta hedadura aldakorrekoak.

*Aiarako kantzeleri Pedro Lopez Aiarako eta haren emazte Leonor de Guzmanen hilobia Kexaan*  
*Sepulcro del canciller Pedro López de Ayala y su esposa Leonor de Guzman en Quejana*



- **Aiarako ibarra.** Azkenaldian erruz erabiltzen hasi den arren, izen tamalgarri honek nahastea besterik ez du ekarri, era berean erabiltzen baita Aiarako kuadrillaren, udalerriaren nahiz Aiarerri historikoaren sinonimo gisara. Turismoaren sustapeneko sektoretik-eta bultzatu da batez ere, eta hain maite omen duten Aiarako idiosinkrasia ezagutu gabe egiten dutela nabari daiteke haien defendatzaileengan, zeren Aiarak inoiz ez baitu ‘ibar’ hitza erabili bere burua izendatzeko. Euskaraz egokia ez den *bailara* hitz gipuzkoarra erabiltzeak akatsaren ondorioak areago nahasten ditu, hitz hori ez delako ‘ibar’ orokorragoaren baliokidea, ‘eskualde txikia’ adieraduna baizik.

### Aiara izenaren jatorria eta esanahia

*Aiara* aipatzen den lehenengo agiri ezaguna, Alfontso izeneko Asturiasko errege bati zor diogu, bere leinua godoekin lotzeko ahaleginean, bere endaren historia bildu nahi izan baitzuen. Balizko iragan hori oroiminez puztu nahian, Asturias boteretsua Kantauri alde osoraino eta Pirinioetaraino hedatzen zela kontatzen digu. Eta testuinguru horretan aipatu ziren lehen aldiz, esaterako, Sopena, Karrantza, Bizkaia, Urduña, Araba, Iruñea eta Alaon –edo Aiaone, irakurketen arabera–, azkenengo hau ia historiagile guztiek Aiararekin lotzen dutena. Agiri interesgarri horrek Alfonso III.aren Kronika du izena eta IX. mendearen amaierakoa dela dakigun arren, ezin da data gehiago zehaztu. Aipua goiztiar samarra izanik ere, ez da pentsatu behar inola ere Aiara orduan sortzen ari zenik. Aitzitik, mundu bizi baten isla da, hedatzen eta eraldatzen ari zena, zeren mundu hartako antzinako egitura politiko, ekonomiko eta sozialak –seguruenik VIII. mende inguruan sortuak– ez baitziren jadanik ekonomia eta gizarte arloetan aurrera egiteko egokiak (García Camino, 2005).

*Aiara* aipatzen den bigarren agiria ere Erdi Arokoa da. *Fernán González kondearen botoak* izenaz ezagutzen den 939. urteko pribilegioa da eta Donemiliaga Kukulako artxibo historikoan gordetzen da. Agiri horretan toki asko aipatzen dira eta haien artean *Aiala* ageri da. Baina azkenaldian egindako ikerketa historiko batzuen arabera, agiri hori 1143 inguruan egindako faltsuketa ei da, Donemiliagako monasterioak berak bestela ezin konpon zitzakeen barneko arazo batzuei irtenbide justifikatua eta sinesgarria emateko egina<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Benetan 1143 inguruko faltsuketa da eta Euskal Herriaren mendebaldeko zenbait tokik Donemiliagari eman beharreko produktuen zerrenda dakar. Honela dio: «Salceto, Sopena, Carrantia, Bardules, Tabison, Aiala, cum suis villis ad suas alfores pertinentibus: per omnes domus, singulas libras de cera». Horren bidez, 200 urte lehenago Fernán González Gaztelako kondeak emandako balizko eskubide batzuk eskuratu nahi zituen Donemiliagak. A. Ubietok aztertu du agiria eta faltsuketa 1143an egin zela proposatzen du. Gaia jorratzen da, halaber, García de Cortazarren *El dominio del monasterio de San Millán de La Cogolla* (1969) tesian ere, eta historiagile honek





*Burdinezko gurutzea Erbin, Santi Kurutze ermita zaharraren oroigarri*  
Cruz de hierro en Erbi, en memoria de la antigua ermita de la Santa Cruz

*Aiara* izena agertzen den hirugarren agiria ere –bigarrena, aurrekoaren datazioaz esandakoa kontuan izaten badugu– Donemiliaga Kukulakoa da, 1095ekoa da eta Lau-dioko elizaren kotsakrazioaz ari da. Esaten denez, ekitaldi horretan elkartu ziren eskualdeko zaldunak zein auzotarrak eta, agiriaren arabera, Aiarako jaunak hartu zuen ibarreko herrixken ordezkaritza eta gotzainari zerga zehatz bat ordaindu behar izan zion elizen jabetza izaten jarraitzeko. Hori guztia hobeto ulertzeko, garai hartan kokatu beharra daukagu. Izan ere, feudalizazio prozesua bete-betean zegoen eta hamarenak pilatzen saiatzen ziren ibarretan kokaturiko eliza nagusien bitartez.

Aipaturiko data horietatik aurrera, *Aiara* toponimoa sarriago aurkitzen da agiritan, espero zitekeen bezala, idatzizko iturri historikoak ere gero eta ugariagoak baitira. Agiri horiek guztiak, ordea, latinez edo hizkuntza erromantzez idatzita daude eta horregatik *Ayala* izena baizik ez dugu aurkituko antzinako paper-sortetan. Hala ere, segurtasunez dakigu aldi berean lurralde hori bera izendatzeko *Aiara* erabiltzen zuela euskaraz hitz egiten zuen herri xeheak –‘el vulgo’– hizkuntza horretan eskualdea izendatzeko. Berrito ere badirudi gure izenen egiazko historiak ihes egiten

dokumentua faltsutzeko arrazoiak sakonki interpretatu eta dagokion garaian kokatu du. Elena Barrenak (1989) eta Ernesto Pastorrek (1997) ere aztertu dute agiria.

digula, garai bakoitzeko gizartearen errealitatea islatu nahi ez zuten agiri egoskorren erruagatik.

Lekukotzarik argi eta irmoena Esteban Garibaik bere *Ilustraciones genealógicas* delakoan (1596) ematen diguna da, Ayala izenari buruz honakoa baitio: «...antes de los tiempos de este rey, se llamó Ayara en la lengua bascongada de la misma tierra, y oy dia se llama en ella de la misma manera, y por corrupción dicen en la castellana Ayala...»<sup>6</sup>, hau da, '...errege horren agintaldiaren aurretik, lur honetako euskal hizkuntzan Ayara esaten zitzaion, eta gaur egun ere bertan euskaraz halaxe esaten zaio, eta endekapenaren ondorioz esaten zaio gaztelaniaz Ayala...'. Beraz, badirudi XVI. mendearen bigarren erdialdean bertako biztanleek erabiltzen zuten ohiko forma *Aiara* zela, eta *Ayala* alor ofizialera eta gizarteko maila altuagoetan kokaturiko gutxien-goetara mugatuko zela.

*Aiara* izena erabiltzen zela adierazten digun beste lekukotza bat, argitaratu gabea, 1696ko azaroaren 24an bildutako Arabako Batzar Nagusietako akordio batetik heldu zaigu. Batzar horretan Aiarako ermandadeak zubi bat berriro altxatzeko beharraz aritu ziren. Zubia Amurrio eta Larrinbe artean omen zegoen eta *Aiarazubia* zuen izena, gaur egun hari buruzko beste berririk ez dugun arren<sup>7</sup>.

Toki-izenez gain, lurraldearen euskarazko izena abizenetan ere islatzen da. Zalantzarik ez dugu, hemen adierazten ditugunak baino lekukotza gehiago egongo direla, oraindik ez baitzaio ekin eskura dagoen dokumentazio guztia sakon aztertzeari.

Jakina da euskal abizen gehienen jatorrian toki-izenak daudela. Badirudi gauza bera gertatzen dela *Aiara* abizenarekin ere, halaxe aurkitzen baitugu, adibidez, Ondarroa hiriko kontzejuko XV. mende amaierako errolda-liburuan<sup>8</sup>. Badira errolda-liburu horretan abizen horren beraren forma erromantzea duten bizilagunak ere, *Ayala* alegia. Zalantzarik gabe, azkenengo honek zuen kutsu ofizialagatik eta besteak aldean eramango zuen arrunkeria kutsuagatik, abizen bi horien bilakaerak gaur egun ezagutzen dugun egoerara ekarri gintuen: *Ayala* abizena mantendu egin da baina, aldi berean, *Aiara* aldaera galdu egin da, alegia.

<sup>6</sup> Guerra, 1911, 60. or.

<sup>7</sup> «...que entre otros puentes que auia en dicha su hermandad, hera la que llaman AJARAZUUIA, entre los lugares de Amurrio y Larrinbe, paso rreal desde esta ciudad para el puerto de Bilbao...» (Arabako Batzar Nagusietako aktak, 1696ko azaroaren 24).

<sup>8</sup> Enríquez, 1991: Domeca de Ayara (1495, 217. or.), Furtún de Ayara (1495, 167. or.), Marya de Ayara (1495, 211. or.), María de Ayara (1495, 227. or.), Martín de Ayara (1490, 228. or.), Pedro de Ayara (1490 eta 1495, 227. or.)...

Antzeko beste lekukotza asko aurki daitezke, halaber, herri askotako eliza artxibategietan:

Bataioak: Juan Ayara (Antzuola, 1503ko abuztuaren 6a), Ana Ayara Ylloro (Ondarroa, 1565eko martxoaren 24a), Anna Ayara Larrea (Bilbo, 1596ko apirilaren 20a), Pedro Goytiniz Ayara (Ondarroa, 1560ko urriaren 15a), Eusebia Arteché Ayara (Bilbo, 1892ko abuztuaren 1a)...

Ezkontzak: Pedro Ayara (Durango, 1563ko irailaren 10a), Teresa Ayara (Ondarroa, 1625eko urtarrilaren 6a), Josef Ayara Yriarte (Gasteiz, 1787ko apirilaren 13a)...

Ohikoa da abizenek eboluzionatu eta toponimoen gaztelaniazko forma hartzea. Esate baterako, *Laudio* abizena Leintz Gatzagan 1497. urtean dokumentatzen bada ere –*Juan de Laudio*<sup>9</sup>–, gaur egun ia desagertuta dago erromantzezko *Llodio* formaren mesedetan. Gure inguru honetan, antzeko ordezkapenak aurki daitezke *Arespalditza*, *Erretes*, *Lanteno*, *Okondo*, *Urduña*... bezalako abizenekin. Haien euskarazko aldaerak behin eta berriz dokumentatzen diren arren, gaztelaniazko aldaeren nagusitasun administratiboagatik, gaur egun ahitu egin dira.

Bitxia bada ere, gaur egun abizen bihurtutako toponimoen euskal formak errazago aurkitzen dira jatorrizko tokitik urruneko dokumentazioan, bertan toki-izenaren erreferentzia galdu delako. Gure kasuan, oso arraroa litzateke Aiara bertan *Aiara* abizena dokumentatuta agertzea, bertako biztanleek oso ongi baitzekiten gaztelaniazko forma zela izen ofiziala, prestigioduna eta arrunkeiazko kutsu txikiagoa zuena, nahiz eta erabiliena izan ez. Gaztelaniazko formak herrian bertan izan zuen prestigioaren adibide ditugu Amurrioko *Aialabaso*<sup>10</sup> edo Salmantongo *Aialaran*, Alfredo Oribe Fernandezek egoki dioen legez<sup>11</sup>.

*Aiara* edo *Ayala* izenen etimologiari edo esanahiari dagokionez, ezin da datu sendo ugari eman. Jatorri argirik gabeko izena dela esatea da zuhurrena, nahiz eta zilegi den ikertzaile desberdinek emandako interpretazioak eskaintzea, kasu nahiz egileen arabera batzuk besteak baino egokiagoak izanik ere.

Agian guztietan ezagunena, legenda kutsua duen Lope García de Salazarrek *Bie-nandanzas e Fortunas* lanean emandakoa da<sup>12</sup>:

«En el tiempo que reinava el rey don Alonso en Castilla que ganó a Toledo vino un fijo vastardo del Rey de Aragón que llamavan don Vela a lo servir. E andando este rey don Alonso a correr monte sobre las peñas de Mena, vio d'ençima la tierra donde es agora Ayala, que no era poblada, que se llamava la Sopeña; estando el Rey sobre la peña de Sálvada, dixiéronle los cavalleros que por qué no poblava aquella tierra e díxoles que la poblaría, si oviese quien lo poblase. E aquel conde don Vela de Aragón pidióle por merçed que gela diese e qu'él la poblaría. E algunos que allí estavan, que lo querían bien, dixiéronle:

– Señor, áyala.

E el Rey dixo:

– Pues áyala.

E por esto ovo nonbre Ayala e llamóse conde don Vela, Señor de Ayala».

Kronika legendario horren arabera uler daitekeenez, *Ayala* izena ‘ahí hela!’ edo ‘háyala’ formatatik letorke. Seguruenik, horixe izan da oihartzunik handiena erdietsi

<sup>9</sup> Patxi Salaberri Zaratiegik eskuratutako datua.

<sup>10</sup> Amurrio eta Orozko artean 1791n egindako mugarriztatze batean: «...en el sitio titulado Bakuneko errekatxu, desviado con el (mojón) que sigue al término de Ayalabaso, formando ángulo a la parte de Ayala...» (Barrenengoa, 1990, II. liburukia, 91. or.).

<sup>11</sup> 2001, 161. or.

<sup>12</sup> García de Salazar, XV. mendea, XX. lib., 13b-14a.



*Elurra Sopeña delakoan*  
*Nieve en la Sopeña*

duen dedukzio etimologikoa, behin eta berriro errepikatu baita epai kritikorik bat ere gabe, izaera desberdineko hainbat argitalpenetan. Baina oso hedatuta eta sustraituta dagoen arren, eta aipa litezkeen hizkuntza arrazoibideak gorabehera, ikuspegi historikotik ere ez da onartzeko modukoa. Izan ere, noizbait esan den legez<sup>13</sup>, *Ayala* izena kronika horretan edesten diren gertaera historikoak baino lehenago dokumentatua dago. Gogoan izan behar dugu errege horiek Gaztelako Alfontso VI.a (1040-1109) eta Aragoiko Antso Ramiritz (1063-1091) baino ezin direla izan.

Interpretazio hori alde batera utzita, bada onarpen handiagoa izan duen bide modernoago bat. Guk dakigunez, Julio Caro Baroja<sup>14</sup> izan zen *Ayala* eta *ai(a)* ‘aldapa, malda’ hitzaren arteko harremana iradoki zuen lehenengoa. Horretarako, Koldo Mitxelena *Apellidos Vascos* lanean<sup>15</sup> aipatzen den Pedro Antonio Añibaroren (1748-1830) eskuizkribu bat erreferentzia gisa hartzen du, haren arabera *ai(a)* hitzak, esan den bezala, ‘aldapa, malda’ esan nahi du. Baina datu bakar hori baizik ezagutzen ez denez gero, ikertzaile askok esanahi hori zalantzan jartzen dute.

<sup>13</sup> Mugurutza, 2004, *Aunia* 8, 9. or.

<sup>14</sup> 1980, III. liburukia, 250. or.

<sup>15</sup> 1977, 16, 38. or.

Federico Barrenengoak (1990) aukeratu zuen bide etimologikoak ere badu bihurtzerik. Haren iritziz, *Ayala* izenaren jatorrian *Aiara* dago eta ‘haitzeko bazkalekua edo larrea’ esan nahi du, *aia* ‘haitza’ arraro bat eta *ala* ‘bazka, larrea’ hitzetan oinarri hartuta. Amaierako *alha* hitza ‘belardia’, euskararen ekialdeko aldaeretakoa da eta, gainera, nekez eman zezakeen euskaraz *-ara*.

Interpretaziorako biderik berriena F. Mugurutzaren eskutik heldu zaigu<sup>16</sup> eta, horren arabera, hasierako osagaia *Aio* edo *Aius* pertsona izen bat litzateke –oso ohikoa eta dokumentatua hala erromanizazio garaian nola Erdi Aroan–, eta gero horri *-ara* edo *-ala* partikula adjektibatzailea erantsita, horren ondorioz, pertsona izenak esanahi paraleloa hartzen du toponimo bezala. Antzeko zerbait gertatuko zen Aiarako *Gotara* auzoaren izenarekin, oinarrian *Gota* edukiko lukeena –Erdi Aroko pertsona izena–, eta lehen aipaturiko partikula bera hartuko lukeena. Egile horrek berak adierazten du garai batean Luiaondon zegoen *Aio* dorrearekin duen harreman argia ere, baita *Ayega* izenarekin duena ere, azken hau *Aiara* ondoan Gordexola eta Mena haranetan ageri dena.

Beste proposamen etimologiko batzuk ere jaso ditugu sareen sareko zenbait forotan<sup>17</sup>. Horien arabera, segurtasun handirik gabe, gure izena eta horren aldaera den *Aiara*, agian, *aiala* hitzetik heldu dela, hebreeraz ‘orein emea’ edo ‘gazela emea’ esan nahi duena. Esaten denez, abizen hebrearra litzateke eta lurralde honetako lehenengo biztanleetako bat edo beste askazi horretakoa izango zen eta ekarriko zuen hona.

Aurrekoaren moduko funtsik gabeko proposamenak alde batera utzita, eta azken ondorio gisa, esan dezakegun bakarra da *Aiara* edo *Ayala* izenaren jatorria eta esanahia oraingoz zalantzazkoak direla, hau da, ezin baieztatu daitekeela segurtasunez zein ote den haren esanahia.

<sup>16</sup> 2004, *Aumia* 8, 9. or.

<sup>17</sup> [www.judaismovirtual.com](http://www.judaismovirtual.com)

## Ayala: nombre y territorio

El municipio que actualmente lleva este nombre se encuentra en el extremo noroeste de la provincia de Álava y es el territorio residual de la histórica Tierra de Ayala. Se sitúa en la vertiente atlántica alavesa, entre los 2º 58' y los 3º 10' de longitud W y 43º 00' - 43º 09' de latitud N, en las laderas septentrionales de la sierra Sálvada o Gorobel. Es en la cumbre de Eskutxi (1178 m), punto culminante de esta formación montañosa, donde Ayala (Aiara) alcanza también su máxima cota de altitud.

Siguiendo el sentido de las agujas del reloj y comenzando por su flanco norte, el término municipal ayalés limita con Gordexola, Okondo, Laudio, Orozko, Amurrio, Urduña, Junta de Villalba de Losa, Valle de Losa, Valle de Mena y Artziniega. Pero los límites jurisdiccionales son en Ayala más ricos que la simple relación de los vecinos de su perímetro externo. El municipio no tiene una organización interna homogénea, como es habitual en otros lugares, sino que se conforma por la unión de veinticuatro pueblos de marcada identidad y personalidad propia, perfectamente delimitados, y que conforman las juntas o concejos<sup>18</sup>, una antigua figura administrativa, muy usual en el territorio histórico de Álava, que asume ciertas competencias, deberes y derechos frente al Ayuntamiento o Consistorio, órgano de gobierno municipal propiamente dicho. Este, celebra las oportunas sesiones de Ayuntamiento en pleno en la casa consistorial, ubicada en el pueblo ayalés de Arespalditza.

### Realidades administrativas llamadas Ayala

El nombre *Ayala* o *Aiara* ha servido a través del tiempo y el espacio para designar otras muchas realidades administrativas distintas a las actuales. Como cabe esperar, el servirse de un mismo nombre para denominar concepciones dispares ha provocado y provoca en más de una ocasión ciertas imprecisiones y equívocos entre aquellos que han de hacer referencia al singular territorio histórico de Ayala.

Con la pretensión de traer algo de luz sobre el asunto, parece conveniente presentar, aunque sea de manera sucinta, una relación de aquellas entidades que se han servido y sirven del nombre *Ayala* (*Aiara*) para su identificación. Son las siguientes:

- **Tierra de Ayala.** Fundamento histórico y origen de la actual Ayala (Aiara), se trataba de una entidad política con poderes públicos emanados del uso y la costumbre, y que



<sup>18</sup> A pesar de ser veinticuatro los pueblos que conforman el municipio de Ayala, las juntas administrativas, también conocidas como concejos, se reducen a veintitrés, ya que por razones sobre todo prácticas, los pueblos de Beotegi y Menagarai conforman una única junta.

quedan recogidos en su conocido Fuero, sistema legislativo propio y de aplicación en su territorio histórico. La Tierra de Ayala se componía de treinta y seis pueblos, organizados para una mejor gestión y administración, en cinco cuadrillas<sup>19</sup>, cada una de las cuales se encontraba representada en las Juntas llevadas a cabo en el campo de Saraube. Con la ley abolitoria de los fueros (1839) –tras el triunfo del ejército liberal en las Guerras Carlistas– y la legislación consecuente sobre las nuevas organizaciones municipales (1841), el general Baldomero Espartero, que ocupaba por sus sonadas victorias militares la presidencia del Gobierno, organizó la Corona en provincias y municipios más o menos homogéneos. Desde entonces, aquellos 36 pueblos ayaleses quedaron redistribuidos en cinco municipios<sup>20</sup> –Aiara, Artziniega, Okondo, Amurrio y Lezama– que en la actualidad son cuatro desde la anexión de este último a Amurrio en el año 1976. Una reminiscencia de aquella realidad, es el derecho al uso de los pastos que en los montes de Sálvada (Gorobel) aún disfrutaban pueblos que, como Amurrio u Okondo, ya no son parte de la actual Ayala. Para hacer referencia a esta figura histórica, y siempre intentando evitar la confusión que acarrea el uso de un mismo nombre para denominar realidades diversas, la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia), por medio de su Comisión de Onomástica, acordó la forma *Aiarerria*, como equivalente eusquérico del castellano *Tierra de Ayala*, siguiendo criterios de paralelismo con otras denominaciones similares. El término castellano ‘tierra’ hace referencia a una concepción territorial y administrativa específica pero relativamente común, teniendo su origen en el medievo.

- **Cuadrilla de Ayala** (antigua). Es la tercera de las seis cuadrillas en que se organizaba el territorio alavés en el siglo XIX. La cuadrilla de Ayala se subdividía a su vez en cinco hermandades<sup>21</sup> para su mejor gobierno. Para complicar aún más las cosas, una de dichas hermandades se conocía también por el nombre de *Ayala*.

<sup>19</sup> Las cuadrillas y los pueblos que las conforman son los siguientes, presentados según el orden con que emitían el voto en las Juntas Generales del Campo de Saraube:

**Lezama:** Baranbio, Astobitza, Lezama, Larrinbe, Lekamaña, Saratxo, Etxegoien e Izoria; **Amurrio:** Amurrio, Olabazar, Murga, Luiaondo; **Sopeña:** Arespalditza, Maroño, Agiñaga, Madaria, Salmantón, Menoio, Ozeka, Lexartzu, Añes, Soxo, Erbi y Luxo; **Lanteno:** Quejana (Kexaa), Menagarai, Erretes, Costera (Opellora), Lanteno, Mendieta, Santa Koloma, Erretes Tudela y Soxoguti; **Okondo:** Beotegi, Zuhatza y Okondo.

<sup>20</sup> Sobre la constitución de los actuales municipios ayaleses, son de gran interés las notas históricas que figuran en el mapa municipal de Ayala (Aiara) (Mugurutza, 2012):

«Tras vencer en las Guerras Carlistas fue aquel mismo Espartero, ascendido ahora a Regente de la nación –equivalente al actual Presidente del Gobierno– quien, aplicando las tendencias liberales y modernistas que habían nacido tras la Revolución Francesa (1789), decretó la eliminación de todos los antiguos sistemas forales locales, dando paso al novedoso y homogéneo régimen de los ayuntamientos. Y la que hasta entonces tan gloriosa había sido aquella Tierra de Ayala de 36 pueblos dejó de existir. Con ella, su Fuero y modo de organización propios. La nueva ley daba además la opción de constituirse ayuntamientos propios a los grupos poblacionales mayores, decidiendo varios desgajarse y formando los municipios de Amurrio, Lezama –que Amurrio anexionaría en 1976–, Artziniega y Okondo. En aquella trágica situación se constituyó el 17 de noviembre de 1842 el actual municipio de Ayala, ahora con tan solo 24 pueblos y con el 55% del que hasta un año atrás había sido su territorio».

<sup>21</sup> La Cuadrilla de Ayala se componía de las siguientes Hermandades que a su vez englobaban varias entidades de población: Hermandad de Ayala, con 34 núcleos: Agiñaga, Amurrio, Añes, Astobitza, Baranbio, Beotegi, Costera (Opellora), Erbi, Erretes, Erretes Tudela, Etxegoien, Izoria, Larrinbe, Lekamaña, Lexartzu, Lezama, Lanteno, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Mendieta, Menoio, Murga, Okondo, Olabazar, Ozeka, Quejana (Kexaa), Salmantón, Santa Koloma, Saratxo, Soxo y Zuhatza; Hermandad de Artziniega, con 5: Artziniega, Campijo, Gordelliz, Soxoguti y Villasús; Hermandad de Ildio (Laudio), con 6: Dubiriz, Goienuri, Isusi, Larrea, Larrazabal y Olarte; Hermandad de

- **Cuadrilla de Ayala** (actual). Se trata de una de las organizaciones administrativas supramunicipales en las que se agrupan los municipios del territorio histórico de Álava, y consecuencia directa de la aplicación de la Norma Foral 1986/63 por la cual se crea dicha figura. Está compuesta por los municipios de Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio y Okondo. Incluir bajo dicha denominación a lugares como Artziniega o Laudio, que nunca pertenecieron a la Tierra de Ayala propiamente dicha, genera más de un inconveniente y no pocos recelos. Por ello, a fin de evitar la incomodidad y los desajustes de la homonimia, últimamente viene utilizándose la forma eusquérica *Aiaraldea*, más genérica y adecuada en su planteamiento, aprobada por la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) en 2005 y con la que se intenta dar respuesta a un problema sin fácil solución.
- **Hermanidad de Ayala**. Constituye una de las subdivisiones de la antigua Cuadrilla de Ayala, compuesta de treinta y cuatro pueblos y que ya ha quedado definida más arriba.
- **Municipio de Ayala**. Desde el siglo XIX, el municipio será la base principal sobre la que se articulará el territorio del reino de España. Aparece estructurado como un órgano de administración del Estado en su círculo local. Se compone, por definición normativa, de un Alcalde –que no es sino un delegado del gobierno para la administración del municipio–, de un consejo municipal compuesto por un número variable de tenientes de al-



*Aiarako Udaletxea Arespalditzan*  
 Ayuntamiento de Ayala en Arespalditza

Arrastaria, con 4: Aloria, Artomaña, Delika y Tertanga; y Hermandad de Urkabustaiz, con 11 entidades: Abezia, Abornikano, Apregindana, Beluntza, Goiuri, Izarra, Larrazkueta, Ondona, Oiardo, Untzaga y Uzkiano.



calde y concejales y, si se requiere, como en el caso de Ayala, de diversos alcaldes pedáneos. Con la irrupción de la figura del municipio se pretende homogeneizar el territorio del reino, lo que obliga necesariamente a deshacer anteriores figuras históricas y a reestructurar el territorio de manera novedosa. Consecuencia de aquel cambio, la histórica Tierra de Ayala es forzada a desaparecer para los efectos administrativos y gubernativos y pasa a desgajarse, como se ha dicho anteriormente, en varios municipios. De aquellos 36 pueblos originales, hoy son tan solo 24 –organizados en 23 juntas administrativas– los que conforman el actual municipio de Ayala (Aiará): Agiñaga, Añes, Arespalditza, Beotegi –unido a efectos administrativos con Menagarai–, Costera (Opellora), Erbi, Erretes, Etxegoien, Izoria, Lexartzu, Lanteno, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Ozeka, Quejana (Kexaa), Salmantón, Soxo y Zuhatza. La capitalidad del municipio, donde se ubican la casa consistorial y las oficinas administrativas, es el pueblo de Arespalditza ya que, como se ha citado, no existe un lugar concreto denominado Ayala, algo que ha generado no pocas confusiones.

- **Vicaría de Ayala.** Es una división territorial correspondiente a la administración eclesiástica histórica. Las vicarías son cada una de las demarcaciones en las que se subdividen los obispados, refiriéndonos aquí al de Calahorra en la época que nos ocupa. Abarcaba 27 parroquias correspondientes a los siguientes pueblos: Agiñaga, Amurrio, Añes, Arespalditza, Astobitza, Baranbio, Beotegi, Erbi, Erretes, Izoria, Larrinbe, Lekamaña, Lexartzu, Lezama, Luiaondo, Luxo, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Ozeka, Quejana (Kexaa), Salmantón, Saratxo y Zuhatza. Pueblos



*Menagaraitik Jauregirako bideko Arimen gurutzea*

*Cruz de las Ánimas junto al camino de Menagari a Jauregi*

plenamente ayaleses como Lanteno y Costera (Opellora) pertenecían, sin embargo, a la anexa vicaría de Tudela. Las reuniones del clero tenían lugar, al igual que sucedía con la administración laica, en Arespalditza, por considerarse este pueblo el punto más central de la vicaría.

- **Señorío de Ayala.** Conjunción territorial de aquellos lugares, variables en el tiempo, que se encontraban bajo el mandato del Señor de Ayala.
- **Valle de Ayala.** Desafortunada denominación, muy en uso en las últimas épocas, y que se utiliza como equivalente tanto de la Cuadrilla de Ayala, como del municipio o de la histórica Tierra de Ayala. Impulsada especialmente desde sectores relacionados con la promoción turística, etc., deja a la vista el gran desconocimiento de la idiosincrasia ayalesa de que hacen gala sus promotores, ya que Ayala (Aiara) nunca ha usado el concepto 'valle' para autodenominarse. El uso en euskera del inadecuado término guipuzcoano *bailara*, que no es equivalente de 'valle', sino que viene a significar 'pequeño territorio', agrava aun más, si cabe, el desacierto.

### Origen y significación del nombre Ayala (Aiara)

El primer testimonio documental conocido en el que se cita *Ayala* lo debemos a la iniciativa de un monarca asturiano, llamado Alfonso y que, empeñado en relacionar su estirpe con los godos, pretendió recopilar la historia de su linaje. Añorando y exaltando su supuesto pasado, nos habla del foco de poder asturiano y de su extensión por toda la cornisa cantábrica y los Pirineos. Es en dicho contexto, donde se citan por primera vez lugares como Sopena, Karrantza, Bizkaia, Urduña, Álava, Pamplona y un Alaon –o Aiaone, según lecturas–, identificado por la práctica totalidad de los historiadores con Ayala. Tan interesante documento es conocido con el nombre de Crónica de Alfonso III, y se data, sin mayor concreción posible, a finales del siglo IX. A pesar de lo temprano de la cita, no cabe pensar que Ayala se estuviese gestando en ese momento. Muy al contrario, es el reflejo de un mundo vivo, en notoria expansión, y continua transformación, porque las viejas estructuras políticas, económicas y sociales –probablemente surgidas en torno al siglo VIII– no resultaban ya operativas para prosperar económica y socialmente (García Camino, 2005).

La segunda cita documental en que se habla de *Ayala* también está datada en plena Edad Media. Se encuentra en el privilegio del año 939 conocido como *Votos del Conde Fernán González*, custodiado en el archivo histórico de San Millán de la Cogolla. Entre otros varios lugares, en dicho documento se cita el denominado *Aiala*. Sin embargo, las recientes investigaciones históricas parecen confirmar que dicho documento no es sino una falsificación, elaborada en torno al año 1143, con el que el mismo monasterio de San Millán intenta dar una solución justificada y creíble a varios aspectos internos que no podía solucionar de otra manera<sup>22</sup>.

<sup>22</sup> Se trata, en efecto, de una falsificación de hacia 1143, en la que se listan los productos que diversos lugares del occidente de Euskal Herria debían pagar a San Millán. Dice así: «Salceto, Sopena, Carrantia, Bardules, Tabison, Aiala, cum suis villis ad suas alfozes pertinentibus: per omnes domus, singulas libras de cera». Con ello trataba San Millán de hacerse con ciertos derechos supuestamente cedidos por el conde castellano Fernán González 200 años antes. El documento ha sido estudiado por A. Ubieta, que propone 1143 como fecha de falsificación. También trata de él García

La tercera aparición documental del nombre *Ayala* –segunda, si tenemos en cuenta lo referido respecto a la datación anterior– sería también en el monasterio de San Millán de la Cogolla, en un documento datado en 1095, y en el que se hace referencia a la consagración de la iglesia de Llodio (Laudio). El texto da cuenta de cómo en dicho acto se reúnen los caballeros y vecinos de la comarca. Según el documento, el Señor de Ayala asume la representación de las aldeas del valle y tributa al obispo cierta cantidad, a fin de poder continuar manteniendo la propiedad de las iglesias. Para comprenderlo adecuadamente hemos de situarnos en aquella época, en notorio proceso de feudalización, y en un tiempo en el que se intentan concentrar los diezmos a través de templos principales situados en los valles.



*Sarubeko zelaia, Aiarako batzarretako lekua*  
Campo de Sarube, sede de las juntas de la Tierra de Ayala

A partir de las fechas citadas, la aparición documental del topónimo *Ayala* comienza a ser más común, ligado esto, como cabía esperar, a un progresivo aumento de la documentación histórica escrita. El hecho de que la citada documentación siempre haya sido escrita en latín o en lenguas romances, es la causa de que tan solo conozcamos a través de los viejos legajos la forma *Ayala*. Sin embargo, tenemos constancia del uso del topónimo paralelo *Aiara*, por la mayoría popular vascohablante –el «vulgo»–, para denominar en euskera dicho territorio. Una vez más, tenemos la sensación de que la historia real de nuestros nombres se escapa, merced a una documentación tozuda que no quiere reflejar la realidad social de cada época.

El más clarificador y contundente de los testimonios es el que nos da Esteban de Garibai, quien en sus *Ilustraciones genealógicas* (1596) dice en referencia al nombre *Ayala* que «... antes de los tiempos de este rey, se llamó Ayara en la lengua bascongada de la misma tierra, y oy día se llama en ella de la misma manera, y por corrupción dicen en la castellana Ayala...»<sup>23</sup>. Parece, por tanto, que en la segunda mitad del siglo XVI la forma de uso habitual

de Cortázar en su tesis doctoral *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla* (1969), donde interpreta las razones de la falsificación y lo contextualiza en su época. Igualmente ha sido estudiado por Elena Barrena (1989) y por Ernesto Pastor (1997).

<sup>23</sup> Guerra, 1911, pág. 60.

para sus habitantes era *Aiara*, frente a un *Ayala* probablemente restringido a los ámbitos oficiales y clases sociales superiores minoritarias.

Otro testimonio, inédito, del uso del nombre *Aiara*, nos viene de la mano del acuerdo de las Juntas Generales de Álava, reunidas en sesión de 24 de noviembre de 1696. En esta Junta se trató acerca de la necesidad que la Hermandad de Ayala tenía de reponer un puente denominado *Aiarazubia* 'el puente de Aiara', entre Amurrio y Larrinbe y del que, desgraciadamente, hoy día no tenemos más noticias<sup>24</sup>.

Además de los nombres de lugar, la denominación eusquérica del territorio tiene también reflejo en los apellidos. Sin duda los testimonios reales serán más abundantes que los que aquí presentamos, ya que no se ha acometido aún el estudio exhaustivo de la documentación disponible.

Es cosa sabida que gran parte de los apellidos vascos tienen su origen en nombres de lugar. Así parece suceder con el apellido *Aiara*, que documentamos, por ejemplo, en el libro padrón del concejo de la villa marinera de Ondarroa en la última década del siglo XV<sup>25</sup>. Conviven con otros vecinos que ostentan el mismo apellido, pero en su forma romance: *Ayala*. Sin duda, la pátina de la oficialidad de este último frente al carácter de vulgaridad que debía de envolver al primero, hizo que dichos apellidos evolucionasen hasta la situación actual: la persistencia del apellido *Ayala* y la práctica extinción de la forma *Aiara*.

Este fenómeno de evolución de apellidos a formas castellanizadas de los topónimos es algo común. Por ejemplo, el apellido *Laudio* se documenta –*Juan de Laudio*<sup>26</sup>– en 1497 en Leintz Gatzaga, si bien hoy se halla prácticamente desaparecido en favor de su forma romanizada *Llodio*. En nuestro ámbito geográfico, podemos rastrear sustituciones análogas con los apellidos *Arespalditza*, *Erretes*, *Lanteno*, *Okondo*, *Urduña*..., cuya forma eusquérica se documenta de forma recurrente, pero actualmente se ha extinguido debido a la primacía administrativa de sus correspondientes castellanizantes.

Curiosamente, las formas eusquéricas de los topónimos, ahora convertidas en apellidos, se documentan más fácilmente en pueblos alejados del lugar de origen, donde se ha perdido la referencia del nombre del lugar. En nuestro caso, sería extrañísimo que encontrásemos en *Ayala* documentado el apellido *Aiara*, ya que sus habitantes sabían que el nombre oficial prestigioso y con menos carga de vulgaridad, a pesar de no ser el más usado, era el de la

<sup>24</sup> «...que entre otros puentes que avia en dicha su hermandad, hera la que llaman AJARAZUUIA, entre los lugares de Amurrio y Larrinbe, paso real desde esta çiudad para el puerto de Bilbao...» (Actas de las Juntas Generales de Álava, 24 de noviembre de 1696).

<sup>25</sup> Enríquez, 1991: Domeca de Ayara (1495, pág. 217), Furtún de Ayara (1495, pág. 167), Marya de Ayara (1495, pág. 211), María de Ayara (1495, pág. 227), Martín de Ayara (1490, pág. 228), Pedro de Ayara (1490 y 1495, pág. 227)...

También se hallan muchos otros testimonios en archivos parroquiales de diversas localidades:

Bautizos: Juan Ayara (Antzuola, 6 de agosto de 1503), Ana Ayara Ylloro (Ondarroa, 24 de marzo de 1565), Anna Ayara Larrea (Bilbao, 20 de abril de 1596), Pedro Goytiniz Ayara (Ondarroa, 15 de octubre de 1560), Eusebia Arteche Ayara (Bilbao, 1 de agosto de 1892)...

Matrimonios: Pedro Ayara (Durango, 10 de septiembre de 1563), Teresa Ayara (Ondarroa, 6 de enero de 1625), Josef Ayara Yriarte (Vitoria, 13 de abril de 1787)...

<sup>26</sup> Dato proporcionado por Patxi Salaberri Zaratiegi.

forma castellanizada. Un ejemplo del prestigio adquirido incluso en las capas más populares por la forma castellana, puede ser el topónimo *Aialabaso* 'bosque de Ayala' en Amurrio<sup>27</sup> o *Aialaran* 'vaguada de Ayala' en Salmantón, como bien aprecia Alfredo Oribe Fernández<sup>28</sup>.

Respecto a la etimología o significado de los nombres *Aiara* o *Ayala*, poco dato contundente se puede ofrecer. Lo más prudente es clasificarlo como nombre de origen dudoso, si bien ello no es obstáculo para que puedan ofrecerse unas interpretaciones del mismo, con mayor o menor acierto según los casos o autores.

Quizá la más conocida y popular por el carácter legendario de la misma, es la ofrecida en los estertores del largo período medieval por Lope García de Salazar, en sus célebres *Bienandanzas e Fortunas*<sup>29</sup>:



*Sopeña delakoa mendilerrotik*  
La Sopeña desde la sierra

«En el tienpo que reinava el rey don Alonso en Castilla que ganó a Toledo vino un fijo vasterdo del Rey de Aragón que llamavan don Vela a lo servir. E andando este rey don Alonso a correr monte sobre las peñas de Mena, vio d'ençima la tierra donde es agora Ayala, que no era poblada, que se llamava la Sopeña; estando el Rey sobre la peña de Sálvada, dixiéronle los cavalleros que por qué no poblava aquella tierra e díxoles que la poblaría, si oviese quien lo poblase. E aquel conde don Vela de Aragón pidióle por merçed que gela diese e qu'él la poblaría. E algunos que allí estavan, que lo querían bien, dixiéronle:

– Señor, áyala.

E el Rey dixo:

– Pues áyala.

E por esto ovo nonbre Ayala e llamóse conde don Vela, Señor de Ayala».

Cabe interpretar que el nombre de *Ayala* provendría, por tanto, según la fabulosa crónica, de 'ahí hela!' o 'háyala'. Probablemente, dicha deducción etimológica ha sido la que mayor resonancia ha alcanzado, ya que se repite sin el más mínimo juicio de valor una y otra

<sup>27</sup> En un apeo de 1791 entre Amurrio y Orozko: «...en el sitio titulado Bakuneko errekatxu, desviado con el (mojón) que sigue al término de Ayalabaso, formando ángulo a la parte de Ayala...» (Barrenengoa, 1990, tomo II, pág. 91)

<sup>28</sup> 2001, pág. 161.

<sup>29</sup> García de Salazar, s. XV, libro XX, 13b-14a.

vez a través de las más variadas publicaciones. A pesar de su difusión y arraigo, al margen de las razones lingüísticas oportunas, tampoco puede ser aceptada desde el punto de vista histórico ya que, como se ha dicho en alguna ocasión<sup>30</sup>, el nombre *Ayala* se documenta con anterioridad a los hechos históricos a los que se refiere la crónica. Tengamos en cuenta que los citados reyes no pueden ser sino el castellano Alfonso VI (1040-1109) y el aragonés Sancho Ramírez (1063-1091).

Al margen de dicha interpretación, otra vía resolutive más moderna ha contado con gran aceptación. Hasta donde conocemos, fue Julio Caro Baroja<sup>31</sup> el primero en sugerir la relación entre el nombre *Ayala* y la palabra *ai(a)* 'pendiente, cuesta'. Para ello toma como referencia, aunque a través de la obra *Apellidos vascos* de Luis Mitxelena<sup>32</sup>, el testimonio aparecido en un manuscrito de Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) en el que se dice que *ai(a)* significa, como se ha dicho, 'pendiente, cuesta'. Sin embargo, el hecho de que se trate de un único testimonio conocido lleva a muchos autores a poner en duda dicha acepción.

Tortuoso camino etimológico fue también el que eligió Federico Barrenegoa (1990). En su opinión, el significado del nombre *Ayala*, a través del supuestamente original *Aiara*, es 'pastizal de la peña', interpretado mediante un extraño *aia* 'peña' y *ala* 'pastizal'. El término *alha* 'pastizal' es propio de las variedades orientales del euskera y, además, difícilmente hubiese dado en euskera *-ara*.

La más reciente de las vías interpretativas viene de la mano de F. Mugurutzza<sup>33</sup> y en ella se pretende que el término inicial provenga de un nombre personal, *Aio* o *Aius* –muy usual y documentado, tanto en el período de la romanización como en el medieval–, al que posteriormente se añade una partícula adjetivadora, *-ara* o *-ala*, con el que nombre de persona alcanza un significado paralelo como topónimo. Algo similar a lo que sucedería con el nombre del barrio ayalés *Gotara*, a partir de *Gota* –nombre personal medieval– más la citada partícula. El mismo autor también apunta la inevitable relación con la antigua y hoy desaparecida torre de *Aio*, en Luiaondo e incluso con el nombre *Ayega*, en los vecinos valles de Gordexola y Mena.

También hemos recogido otras propuestas etimológicas en ciertos foros de la red de redes<sup>34</sup>. En ellos se sugiere, no con mucho convencimiento, que el nombre en cuestión y su variante *Aiara* pudieran proceder de la palabra *aiala* que en hebreo significa 'cierva' o 'gacela'. Sería, según se apunta, un apellido hebreo que llega al lugar por medio de alguno de sus primeros pobladores portador del mismo.

Al margen de propuestas anecdóticas como la anterior, y a modo de conclusión, tan solo estamos en condiciones de afirmar que el origen del nombre *Aiara* o *Ayala* es en cualquier caso dudoso o, dicho de otro modo, que no puede afirmarse con rotundidad cuál sea su significado.


<sup>30</sup> Mugurutzza, 2004, *Aunia* 8, pág. 9.

<sup>31</sup> 1980, tomo III, pág. 250.

<sup>32</sup> 1977, 16, pág. 38.

<sup>33</sup> 2004, *Aunia* 8, pág. 9.

<sup>34</sup> [www.judaismovirtual.com](http://www.judaismovirtual.com)



*Aiara Udalerriko kontzejuak eta auzoak*  
Concejos y barrios del Ayuntamiento de Ayala







## Agiñaga



1932



2000

Agiñagako kontzejua Gorobel mendilerroko Iturrigorri eta Ungino mendien artean dagoen ibarbide batetik gertu dagoen gaintxo batean kokatua dago. Ekialdean Urduñako Belandia kontzejuko muga du, mendebaldean Madaria eta iparraldean Maroño. Parrokia Andra Maria Sortzez Garbiari eskainitakoa da eta Mendieta auzoan dago. Madozen *Diccionario* delakoan (1845-1850) ez da auzorik aipatzen kontzeju honetan, Mendieta, Sologuren eta Larrabe oso gertu daudenez, auzo bakar bat bezala uler daitezkeelako. Baina Ricardo Becerro de Bengoak 1877an egindako *Libro de Álava* lanean auzo bi aipatzen dizkio: Lárrabe eta Sologuren. 1950eko erroldan 33 biztanle zituen kontzejuak, 1970ekoan 36 eta 2000koan 22 besterik ez.

Izenaren berezko forma *Aginaga* da, eta zati bi ditu: batetik, *hagin* zuhaitz izena dugu (*Taxus baccata*) eta bestetik, *-aga* atzizkia. ‘Hagin tokia’ esan nahi du, beraz. Hala dokumentatu zen lehen aldiz 1114an eta XV. mendera arte. Eta hala ikus daiteke, besteak beste, 1471n Bizkaiko Foruak zin egin zireneko dokumentuaren kopian ere, Portugaleten gordetzen dena. Oraindik *-n*-rekin aurkitzen dugu *España dividida en provincias e intendencias* liburuan (1789): *Aguinága*. Hala ere, XVII. mendetik aurrera *Agiñaga* forma zabalduz joan zen eta gaur egun horixe da ofiziala, euskaraz *-n* konsonantearen aurretik *i-* bokala baldin badago *-ñ* ahoskatzeko joeraren ondorioz. Adibidez, *-ñ*-rekin ageri da gorago aipatu dugun *Libro de Álava* delakoan (1877). *Aguinága* forma aipatzen da Madozen *Diccionario* lanean (1845-1850) eta hala dator gaur egun *Mapa Topográfico Nacionalean*<sup>1</sup> ere. Forma hori izan da ofiziala urte askoan

<sup>1</sup> 1997, 86-III.



*Agiñaga Iturigorri mendiaren azpian*  
*Agiñaga al pie del monte Iturigorri*

eta gaur egun ere ohikoa da ahozko hizkeran, nahiz eta *Agiñagaren* aldaera fonetiko hutsa izan. Nolanahi ere, zahar samarra dela dirudi, gutxienez 1566tik dokumentatua dago eta. Arabako toki askotan oraindik ere *agiña* hitza erabiltzen da gaztelaniaz zuhaitz horri buruz ari direnean.

El concejo de Agiñaga se ubica en una altura cercana a la vaguada que se abre entre los picos Iturigorri y Ungino en la Sierra Salvada (Gorobel). Limita por el este con el concejo orduñés de Belandía, por el oeste con Madaria y por el norte con Maroño. La iglesia parroquial, bajo la advocación de la Purísima Concepción de Nuestra Señora, se ubica en la barriada conocida por Mendieta. En el *Diccionario* de Madoz (1845-1850) no se le asignan barrios, pues Mendieta, Sologuren y Larrabe están lo suficientemente próximos como para ser percibidos en unidad. Sin embargo, en el *Libro de Álava*, de 1877, Ricardo Becerro de Bengoa le cita dos: Lárrabe y Sologuren. En el censo del año 1950 el concejo tenía 33 habitantes, en 1970 eran 36 y en el 2000 tan solo 22.

La forma original del topónimo es *Aginaga*, compuesto del nombre de árbol *hagin* 'tejo' (*Taxus baccata*) más el sufijo locativo *-aga*, significando, por tanto, 'el lugar del tejo'. De aquel modo se documenta por primera vez en 1114 y hasta el siglo XV, como se puede ver, entre otros, en la copia de la jura de los Fueros de Bizkaia de 1471 conservada en Portugalete. Con *-n* la hallamos todavía en el libro titulado *España dividida en provincias e intendencias* (1789): *Aguinága*. Sin embargo, a partir del siglo XVII se fue generalizando la forma *Agiñaga*, hoy en día oficial, como consecuencia de la tendencia del euskera a pronunciar como *-ñ* la *-n*

precedida de la vocal *i*. Con *-ñ*-figura, por ejemplo, en el citado *Libro de Álava* (1877). La forma *Agiñiga* que cita el *Diccionario* de Madoz (1845-1850) y aún figura en el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>2</sup>, ha tenido carácter oficial durante años y también es en la actualidad común en el uso oral, pero no es sino una variante fonética de la más propia *Agiñaga*. Sin embargo, parece bastante antigua, pues se documenta al menos desde 1566. En muchas zonas de Álava, todavía hoy en día se llama *agiña* al tejo al hablar en castellano.

## Larrabe

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494137, Y.4765185, alt. 400 m.

Auzo honek etxe bi baizik ez du. Kontzejuko gunen nagusiaren ipar-mendebaldean dago, Idas ibaiaren beste aldean. Ibai honi ahozko hizkeran *Ías* esaten diote.

Toponimoaren egungo forma, *Larrabe*, 1551tik dago hala dokumentatuta eta maiz erdiko silaban azentua duela ahozkatzen den arren, Becerro de Bengoak 1877an adierazi zuenez, orduan atzetik hasita hirugarren silaban zeraman azentua: *Lárrabe*. Izen konposatua da: batetik, *larra* daukagu, hau da, belarra hazteko erabiltzen den landu gabeko lursaila, eta bestetik, *-be(he)*. Bigarren osagai honek esanahi bikoitza du: lehenik, gaur egungo ohiko esanahia, ‘azpi’-ren sinonimoa da eta, bigarrenik, ‘txiki’ ere esan nahi du, adiera hori toponimian bakarrik agertzen den arren. Esanahi bi izan ditzake, beraz, ‘larre txikia’ edo ‘beheko larrea’.

Barrio compuesto por tan solo dos casas al noroeste del núcleo capital del concejo, al otro lado del río Idas, oralmente conocido como *Ías*.

El topónimo se documenta en su forma actual, *Larrabe*, desde 1551 y se pronuncia con acento grave normal *Lárrabe*, aunque como ya hemos citado, Becerro de Bengoa parece indicar que en 1877 era esdrújula: *Lárrabe*. Es un compuesto de *larra* ‘prado de hierba’ o ‘campa’, esto es, el terreno no cultivado que se usa para pasto, y *-be(he)* que tiene la doble significación de ‘debajo’, común hoy en día, y ‘pequeño’, acepción que solo aparece en la toponimia. Puede, por tanto, significar ‘dehesa pequeña’ o ‘bajo la dehesa’.

## Lugar, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494374, Y.4764858, alt. 390 m.

Mendieta eta Sologuren auzoen erdian dagoen toki honetan pare bat etxe eta pabilioi bat besterik ez dugu aurkituko. Mendieta dago eliza eta Sologuren, berriz, apur bat ekialderago dago.

Gaztelaniazko *lugar* substantiboa askotan erabili izan da beste inolako titulurik (hiri, kontzeju, elizate etab.) ez duten biztanle-guneak izendatzeko. Honek iradoki-

<sup>2</sup> 1997, 86-III.

tzen digu, garai batean kontzejuko buruari erreferentzia egiteko erabiliko zela agian, kontzejua bera eta haren buru egiten zuen gunea bereizi ahal izateko, hain zuzen ere. Horren ondorioz, batetik, *Agiñagako kontzejua* geneukake, lurralde-mailako erakundea litzatekeena eta, bestetik, berriz, *lugar de Agiñaga* legoke, hau da, herrigunea. Real Academia Española delakoaren hiztegiak populazio guneei artez dagozkien adiera batzuk jasotzen ditu *lugar* hitzerako: «3. m. Ciudad, villa o aldea. // 4. m. Población pequeña, menor que villa y mayor que aldea. [...] 9. m. En Galicia, casería dada en arriendo».

Este nombre se refiere simplemente a un par de casas y un pabellón situados entre el barrio Mendieta, donde se ubica la iglesia, y Sologuren, algo más al este.

El sustantivo castellano común *lugar* se ha utilizado a menudo para designar núcleos de población sin otro título como *villa*, *concejo*, *anteiglesia*, etc., lo que puede sugerir que en otro tiempo hiciera referencia a la capitalidad del concejo, para distinguirlo de este: *concejo de Agiñaga* como entidad territorial por un lado y, por otro, *lugar de Agiñaga* como núcleo urbano. El *Diccionario* de la Real Academia Española recoge algunas acepciones de *lugar* directamente relacionadas con núcleos de población: «3. m. Ciudad, villa o aldea. // 4. m. Población pequeña, menor que villa y mayor que aldea. [...] 9. m. En Galicia, casería dada en arriendo».

## Mendieta

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo:  
ED50 30T X.494295, Y.4764897, alt. 395 m.

Auzo honetan kontzejuko parrokia dago eta, beraz, kontzejuko auzoburua da. Herriguneko etxe taldearen eremurik mendebaldekoena baino ez da. Sortzez Garbiarren parrokiaren ondoan dago garai bateko apaiz-etxea, eta gaur egun hor daude kontzejuko aretoa eta bileretarako gela. Jatorriz Aiarakoa zen Mexikoko erregeorde batek agindu ei zuen eliza egiteko eta barruan Santiago Apostoluari eskainitako kaperata dago. Hori dela eta, bertako jaiak uztailaren 25ean izaten dira, santu horren egunean.

*Mendieta* ohiko izena da herrialde guztian. Badira beste *Mendieta* batzuk ere aldirietan. Horietako bat Sopuerta inguruan dugu, San Martín de Carralen antzinarako eliza zegoen tokian, Salmantongo etxe batek ere *Mendieta* du izena eta Bizkaiko baserri ugariak ere bai. Toponimo honek ere osagai bi ditu: batetik, *mendi* substantiboa dugu eta, bestetik, *-eta* toki-ugaritasunezko atzizkia. 1591n dokumentatua dugunez, Antonio de Mendieta bidaiaria Perura abiatu zen Urduñatik. Bada izen bereko auzo bat Artziniegan eta herri izenkide bat ere bazen Arabako Donemiliaga udalerrian.

Barrio en que se ubica la iglesia parroquial del concejo y, por tanto, capitalidad del mismo. No es sino la zona más occidental del grupo de casas que conforman el núcleo de población. Aneja a la parroquia de la Inmaculada se halla la antigua casa cural, donde hoy



*Agiñaga Ungino haitz lerdnaren azpian*  
*Agiñaga bajo la esbelta peña de Ungino*

se emplazan la sala del concejo y un salón de reuniones. Mandada construir por un virrey de México originario de Ayala (Aiara), en el interior de la iglesia existe una capilla bajo la advocación de Santiago Apóstol, lo que justifica el hecho de que la fiesta local se celebre en honor de este santo, el día 25 de julio.

El nombre *Mendieta* es muy abundante en todo el país. Encontramos otros *Mendieta* en la zona de Sopuerta donde se ubicaba la antigua iglesia de San Martín de Carral, para una casa de Salmantón y en numerosos caseríos de Bizkaia. El topónimo se compone de *mendi* 'montaña' o 'lugar prominente' y el sufijo locativo-abundancial *-eta*, significando, por tanto, 'lugar del monte' o en general 'el alto'. En 1591 documentamos que el viajero Antonio de Mendieta partió de Urduña en dirección a Perú. También hay un barrio de este nombre en Artziniega y existió pueblo homónimo en el municipio alavés de San Millán (Donemiliaga).

## Sologuren

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494469, Y.4764941, alt. 385 m.

Auzo honetan daude herriguneko etxerik ekialdekoenak, zehazki herrigunea zeharkatzen duen kalearen amaieran eta apur bat haren azpian. Gezala baserria zegoen tokirik garaienean eta duela gutxi bota zuten etxe berria eraikitzeko.


Izena euskal toponimioa da eta lehenengo osagaia zein den argi dago: *solo*, men-debaldean *soro* esateko erabiltzen den aldaera, 'baratze, ortu', alegia. Bigarren osagaia *guren* da, eta horren esanahiari buruz adituak ez dira ados jartzen. Hainbat eratako

iritziak daude, esate baterako, batzuen ustez ‘muga’ esan nahi du eta beste batzuen iritziz, ‘eder’. Haez gainera, ‘garaiena’ esan nahi duela iradokitzen duten arrastoak ere badira. Beraz, toponimo honek hiru adiera izan litzake: ‘soroaren muga’, ‘soro ederra’ edo ‘sororik garaiena’. Gaur egun azken-aurreko silaban du azentua: *Sologúren*, baina euskarazko ahoskeran seguru asko *Sológurèn* izango zen.

Barriada conformada por el grupo de casas más oriental del núcleo urbano, algo por debajo de la calle que lo atraviesa y al final de esta. El caserío Gezala, que ocupaba la zona más elevada, fue derribado recientemente para construir una casa nueva.

Se trata de un topónimo vasco cuyo primer componente es sin duda *solo*, variante occidental de *soro* ‘pieza, huerta’. El segundo elemento es *guren*, sobre cuyo significado los autores no se ponen de acuerdo, asignándole significados tan variados como ‘límite’ o ‘hermoso’. Además hay indicios para pensar que pueda también significar ‘más alta’. Por tanto, el topónimo podría significar en origen ‘límite de la pieza o huerta’, ‘huerta o pieza hermosa’ o ‘huerta, pieza más alta’. Actualmente se pronuncia con acentuación llana común: *Sologúren*, si bien la acentuación eusquérica sería con toda probabilidad *Sológurèn*.

## Añes



1932



2000

Aiarako hego-mendebaldeko muturrean dago kontzeju hau, hain zuzen, Gorobel mendilerrotik datorren adar baten gainean Aro gainaren iparraldean eta haren oinetan. Mendebaldean Burgosko Mena haraneko La Abadía eta Cozuela ditu, ekialdean Lexartzuko kontzejua eta iparraldean Soxo. Pascual Madozen *Diccionario* delakoaren arabera (1845-1850), auzo hauek ditu: elizatik gertu dagoen Campillo, el Bardal, Orzanico eta so Añez. Becerro de Bengoak 1877an Orzánico etxaldea besterik ez du aipatzen. Egia esan, gunezehatz bi baino ez du: Añes (eta hor daude La Iglesia, El Bardal, El Campillo eta Soañes) eta Urzaniko. XVIII. mendean kontzeju hau eta ondoko Lexartzu elkartzuta zeuden alkate eta diputatu zereginetarako, eta hamar urtetan behin txandakatzen zuten kargua. Udalerriko beste toki askotan bezala, biztanleriak behera egin du eta erdialdeko toki hurretarra joan da: 1950ean 66 biztanle zituen, 1973an 39 besterik ez eta 2000n 29 bakarrik.

Añesi buruzko lehenengo aipamen dokumentatua 864. urtekoa da<sup>1</sup>. Izan ere, urte horretan eman zitzaion San Félix de Oca monasterioari<sup>2</sup> inguru hauetan zegoen Done Bikendi monasterioa, egungo parrokiaren aitzindaria dena: «id est sancti Vicenti de Annis, sancti Iacobi et sancti Iohannis de Uzuz». Egungo elizan aztarna erromaniko oso interesgarriak daude eta 1128 eta 1130 artean eraiki zen. Geroagoko

<sup>1</sup> Ubieto Arteta, A. (1976) 15-17. or. Dokumentua Llorentek ere itzulpen eta guzti argitaratua zuen (1806-1808) III. liburukia, 93-102. or. Tamalez. Izen guztiak ez zituen egoki kokatu.

<sup>2</sup> Burgosko Villafranca de Montes de Oca udalerrian dagoen monasterioa. Done Felix santu titularra Done Millan ezagunaren maisua izan zen eta, azken honen adbokazioak, penintsulako erromantzearen sorlekua den Errioxa Garaiko monasterio entzutetsuei lotuta irauten du.





*Añes eta Gorobel mendilerroa*  
*Añes y la sierra Sálvada*

agirietan ere aipatzen da: *Annies* (886), *Annes* (1085), *Hannes* (1095), *Annas* (1119), *Anñes* (1194) edo *Añies* (1770). Madozen *Diccionario* delakoan *Añez* ageri da, eta bertan jasotzen denez «Hoy [1850 inguruan] se escribe *Añes*». Dirudienez, toponimioa *Annius*, *Annio* edo antzeko pertsona izen batetik dator, erantsita *-i(t)z* atzizkia daramana. Caro Barojak (1945) eta ondoren egin diren hizkuntzalaritza-lan gehienek<sup>3</sup> iradokitzen dutenez, atzizki horrek patronimikoa edo jabetza adierazten du. Pertsona izen bezala gaur egun ohikoa ez den arren, seguru asko beste izen batzuen oinarrian dago, esate baterako, *Aniano* abizenean edota Arabako *Añana* kuadrilla nahiz hiriarenean. Kasu bi horietan latinean oso ezagunak ziren atzizkiak erantsi zaizkio. Dirudienez, izen hori bera da Nafarroako *Aniz*<sup>4</sup> toponimoaren jatorria ere. Amaierako partikularren *-iz* > *-es* eboluzioa erromantzearen eraginari egotz dakiok eta gauza bera gertatzen da *Muski*z (Bizkaia) izenarekin ere, gaztelaniaz *Musques* eman baitzuen. *Añes* izenarentzat eman diren ‘larreko harkaitza’<sup>5</sup> bezalako beste etimologia batzuk ezin dira gaur egun defendatu.

Pertsona izenetik datorren etimologia horrekin batera, ezin da aipatu gabe utzi 864ko dokumentu batean ageri den *Anni* izeneko pertsona, bere senideekin eta ama Elduararekin Erretes Tudelan finkatu zena. Behin baino gehiagotan esan izan da per-

<sup>3</sup> Mugurutza, 1999, *Zaraobe*, 67.

<sup>4</sup> Belasko, 1999.

<sup>5</sup> Barrenengoa, 1990.

tsonaia horrengandik hartu zuela Aiarako herriak izena<sup>6</sup>, baina datak ez datoz bat, herriaren izena familia aristokratiko hori lur hauetara etorri baino lehen dokumentatuta baitago.

Concejo situado en el extremo sur-occidental de Ayala (Aiara), sobre un estribo que se desprende de la sierra Sálvada o Gorobel, aproximadamente al pie y al norte del Pico de Aro. Limita al oeste con los términos de La Abadía y Cozuela en el valle burgalés de Mena, al este con el concejo de Lexartzu y al norte con el de Soxo. El *Diccionario* de Pascual Madoz (1845-1850) le asigna los barrios de Campillo, cerca de la iglesia, el Bardal, Orzanico y so Añez. Becerro de Bengoa en 1877 solo cita el caserío Orzánico. En realidad solo consta de dos núcleos definidos: Añes (con La Iglesia, El Bardal, El Campillo y Soañes) y Urzaniko. Durante el siglo XVIII este concejo se mantuvo unido con el vecino Lexartzu para los oficios de alcalde y diputado, alternándose en el cargo cada diez años. Como en tantos otros lugares del municipio, la evolución de la población muestra un acusado y continuo descenso en favor de otros lugares menos periféricos: En 1950 contaba con 66 habitantes, en 1973 ya solo eran 39 y en el año 2000 descendió aun hasta 29.

La primera mención documentada de *Añes* data del año 864<sup>7</sup>, cuando se donó al monasterio de San Félix de Oca<sup>8</sup> el de San Vicente que existió en este lugar, y que fue el antecesor de la actual iglesia parroquial: «id est sancti Vicenti de Annis, sancti Iacobi et sancti Iohannis de Uzuzza». La iglesia actual, que guarda restos románicos de gran interés, se edificó entre 1128 y 1130. Posteriormente también se documenta como *Annies* (886), *Annes* (1085), *Hannes* (1095), *Annas* (1119), *Anñes* (1194) o *Añies* (1770). En el *Diccionario* de Madoz figura la entrada *Añez*, indicando que «Hoy [por alrededor de 1850] se escribe *Añes*». Apparentemente, el topónimo procede del nombre de persona, *Annius*, *Annio* o similar, al que se le ha añadido el sufijo *-i(t)z*, que indica patronímico o posesión, como ya sugirieran Caro Baroja (1945) y la mayoría de los trabajos lingüísticos posteriores<sup>9</sup>. Este nombre, hoy día poco común, figura también muy probablemente en otros derivados como el apellido *Aniano* o en la villa y cuadrilla alavesa de *Añana*, en ambos casos con sufijaciones latinas muy conocidas. También parece ser el mismo que da origen al topónimo navarro *Aniz*<sup>10</sup>. La evolución de la partícula final *-iz* > *-es* podría atribuirse a la influencia del romance, como sucede con el nombre *Muskiz* (Bizkaia), que dio *Musques* en castellano. Otras etimologías dadas para el nombre de *Añes*, como ‘peña del pastizal’<sup>11</sup>, son difícilmente defendibles hoy en día.

Junto a la citada etimología procedente de un nombre de persona, no podemos dejar de mencionar el documento de 864, en el que se cita cómo un tal *Anni*, junto a sus hermanos y

<sup>6</sup> Barrenengoa, 1997.

<sup>7</sup> Ubieta Arteta, A. (1976), págs 15-17. El documento también fue publicado con su traducción, por Llorente (1806-1808), tomo III, págs. 93-102. Lamentablemente no supo localizar algunos de los nombres.

<sup>8</sup> Monasterio situado en el término municipal de Villafranca de Montes de Oca (Burgos). El santo titular, San Felix, fue maestro de San Millán cuya advocación quedó asociada a los célebres monasterios de la Rioja Alta, cuna del romance peninsular.

<sup>9</sup> Mugurutz, 1999, *Zaraobe*, 67.

<sup>10</sup> Belasko, 1999.

<sup>11</sup> Barrenengoa, 1990.

su madre Elduara se instaló en Erretes Tudela. Se ha sugerido en más de una ocasión<sup>12</sup> que dicho personaje fuera quien dio nombre al pueblo ayalés, si bien, la incompatibilidad de fechas lo hace imposible, ya que el nombre del pueblo se documenta ya en fecha anterior a la presunta instalación de la aristocrática familia en tierras ayalesas.

## Bardal, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489254, Y.4767423, alt. 440 m.

Kontzejuaren gune nagusia den La Iglesia edo Barrio de Arriba delakoaren goiko aldean dauden lau etxeek osatzen dute. Kontzejuko auzorik altuena da, beraz.

*Bardal* izena gaztelaniaz erabiltzen den hitza da eta Corominasen esanetan jatorri ezezagunekoa da, seguruenik erromatarren aurrekoa. Etxaldeak nahiz baratzeak ixteko, arantzez, lurrez edo beste elementu naturalen batez egiten ziren itxiturak izendatzen omen dira horrela. Gaur egun hitz hori ez da hiztegietan agertzen, baina lehen ‘sastraka, basa lahar, amezti’ hitzen parekotzat ematen zen...

Es el barrio compuesto por las cuatro casas situadas sobre el núcleo capital del concejo, conocido como La Iglesia o Barrio de Arriba. Se trata, por tanto, de la barriada más alta del concejo.

El nombre *bardal* es vocablo utilizado en castellano al que Corominas atribuye «origen incierto, seguramente prerromano» y que designa vallados o cubiertas de espinos, tierra u otros elementos naturales, para cercar heredades y huertas. Aunque en la actualidad esta palabra no figura en los diccionarios, anteriormente aparecía como ‘maleza, matojos silvestres, monte bajo de roble o quejigo’...

## Campillo, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489339, Y.4767842, alt 390 m.

La Iglesia izeneko gunearen azpian dago El Campillo etxe taldea, auzo hura eta Soañesen artean, hain zuzen. Auzoa igaro eta Soañesera jaisten den bidearen ezkerretara San Sebastian ermita dago.

Auzoaren izena erromantzean erabili ohi den txikigarri arrunta da eta erraz ikus daiteke zer esan nahi duen, gaztelaniazko *campo* izenetik dator eta, ‘larretxoa’.

El barrio El Campillo es el grupo de casas situado bajo el núcleo de La Iglesia, a medio camino entre este y Soañes. Pasado el barrio, al lado izquierdo del camino que baja a Soañes, se ubica la ermita de San Sebastián.

El nombre del barrio es un diminutivo romance común y de fácil interpretación, derivado del vocablo usual *campo*.

<sup>12</sup> Barrenengoa, 1997.

## Iglesia, La

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.489319, Y.4767614, alt. 415 m.

Kontzejuko auzo nagusia da, Done Bikendi Martiriaren parrokia eta kontzejua-  
ren etxea ere hemen baitaude. Egungo eliza izango zen, seguruenik, 864an San Félix  
de Ocari Aiarako eta Menako zenbait eliza eman zitzaizkioneko dokumentuan aipa-  
tzen zen Done Bikendi monasterioa. Erretetik Encima Angulora eta gero portura  
doan A-3630 errepidearen ondoan dago.

Gaztelaniaz *Barrio de la Iglesia* edo *Barrio de Arriba* esaten zaio eta, izen hori oina-  
rri hartuta, *Elexalde* euskal izenaren normalizazioa abia liteke. Añesen izen hori era-  
biltzen zenik frogatu ez den arren, badakigu Amurrion eta Beotegin erabili direla,  
baita Euskal Herriko mendebalde osoan ere, Bizkaiko edo mendebaldeko euskalkia  
mintzatzen zen edo mintzatzen den eremuan, hots: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako  
Deba arroan. Hitz konposatua da, batetik mendebaldeko *elexa* substantiboa dugu,  
'eliza', eta bestetik *alde* postposizioa.

Se trata del barrio capitalidad del concejo donde está ubicada la iglesia parroquial, bajo  
la advocación de San Vicente Mártir, así como la casa del concejo. El actual templo debió  
de ser el monasterio de San Vicente que se cita en el año 864 con motivo de la donación a  
San Félix de Oca de diversas iglesias de Ayala (Aiara) y Mena. Se sitúa a la vera de la ca-  
rretera A-3630 que de Erretes pasa a Encima Angulo y a la carretera del puerto.

En castellano se viene denominando simplemente *Barrio de la Iglesia* o *Barrio de Arriba*.  
El aspecto tan común del nombre permitiría normalizar la denominación eusquérica *Elexalde*,  
pues aunque no tenemos constancia de su uso en Añes, sí la hay en el cercano Amurrio y en  
Beotegi, así como en todo el occidente del País Vasco, donde se habla o habló el dialecto  
vizcaíno u occidental, a saber: Álava (Araba), Bizkaia y la cuenca del Deba en Gipuzkoa. El  
nombre se compone del sustantivo *elexa* 'iglesia', forma occidental del estándar *eliza*, y la  
posposición *alde* 'junto a'.

## Soaños

Auzoa / Barrio: ED50 30T X. 489263, Y.4768043, alt. 385 m.

Pico de Arotik behera datorren mendi-adarraren beheko muturrean dago auzo  
hau, herriko gunearen eta El Campillo auzoaren azpian, ibarraren barrenean behera  
doan Ibaizabali begira. Auzoaren mendebaldean, aipaturiko ibai horren ezkerrean eta  
Burgosko mugatik oso gertu, errota interesgarri bat dago.

Madozek (1845-1850) *so Añez* idazten zuen, izenaren lehenengo osagaia prepo-  
sizio asketzat hartuz. Izan ere, auzo honen izenak kontzejuko auzoburuarekiko duen  
kokapenari egiten dio erreferentzia argia, *sub-* hizki latinotik datorren erromantzezko  
*so-* aurrizkia du eta, biek 'azpi', 'behe' esan nahi dutelarik. 'Añesen azpian' esan nahi

du, beraz. Bada gaztelaniaz *Barrio (de) Abajo* aldaera sinpleagoa, lehen aipaturiko *Barrio de Arriba* edo *La Iglesia* hari kontrajarria.

Es la barriada ubicada en la parte inferior del cordal que descende del Pico de Aro, debajo del núcleo y del barrio El Campillo, dando ya vista al río Ibaizabal que discurre por el fondo del valle. Al oeste del barrio, a la orilla izquierda del citado río y cerca ya del límite de Burgos, hay un interesante molino.

Madoz (1845-1850) escribe so *Añez*, entendiendo el primer componente del nombre como preposición independiente. Y es que el nombre de este barrio hace referencia evidente a su ubicación respecto a la capitalidad del concejo, ya que está compuesto del prefijo romance so- 'debajo' procedente de la partícula latina *sub-*, y el nombre *Añes*. Significaría, por tanto, 'debajo de Añes'. También existe la sencilla variante *Barrio (de) Abajo*, en contraposición al *Barrio de Arriba* o *La Iglesia*.

## Urzaniko

Etxea / Casa: ED50 30T X.489452, Y.4768166, alt. 380 m.

Etxe bat besterik ez da, baina oso aparte dagoenez eta agiri askotan aipatzen denez, badirudi komenigarria dela seinaleztapenetan ere agertzea. Soañesen ipar-ekialdean dago, ibar txiki baten beste aldean, urak Ibaizabalera bideratzen dituzten malkarren gainean.

Ahozko hizkeran *Orzánico* esaten diote, azentua bigarren silaban daramala. Antzinako forma *Urzaniko* zen eta hala ageri da Aiara eta Menako zenbait eliza San Félix de



*Añes eta Gorobel elurpean*  
*Añes y la Sálvada bajo la nieve*

Ocari eman zitzaizkioneko agirian (864. urtekoa), besteak beste, Añesko Done Biken-di eliza: «pinna de Urzannico (...) Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia». Pascual Madozen *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico* delakoa 1845 eta 1850 artean argitaratu zen eta hor *Orzanico* ageri da eta orobat 1877ko *Libro de Álava* delakoan. Hemen gainera tiletarekin dator: *Orzánico*. Egungo agiri ofizialetan berez dagokion euskarazko grafian dator: Urzaniko. Julio Caro Barojak dio toki honetan aspaldian ez dela inor bizi<sup>13</sup>, seguru asko Llorentek horixe esaten zuelako. Halaber dio, latinezko *-icum* atzizkia erantsi zaion pertsona izenen bat dagoela oinarrian, atzizki hori euskaraz eboluzionatuta *-iko* bihurtuko zelarik. F. Mugurutzaren iritziz, izen konposatua da, hasierako osagaia \**Urtius* edo antzeko antroponimo bat izanik –dirudienez *Urduña*, *Urtain*, *Urdiain* eta beste zenbat izenetan ere ageri dena– eta horri *-an(o)-* eta *-ico-*, atzizkien kateatzea gehitu izango zitzaion, biak ala biak pertsona izenekin ageri ohi baitira. Ikertzaile beraren arabera, *U-* > *O-* eboluzioa *Urduña* > *Orduña* hitzean gertatzen denaren parekoa da eta oso ohikoa da erromantzean (*ursus* > oso, *ulmus* > olmo, *urina* > orina...).

Se trata de una simple casa, pero su clara diferenciación y la abundante documentación que a ella se refiere, parecen recomendar su señalización. Se ubica al nordeste de Soañes y al otro lado de una pequeña vaguada, sobre los barrancos que vierten ya directamente al río Ibaizabal.

Oralmente se denomina *Orzánico*, con acentuación esdrújula. En su forma primitiva, *Urzaniko*, lo hallamos en el documento de donación a San Félix de Oca de varias iglesias de Ayala (Aiara) y Mena, datado en el año 864, entre las que se cedió también el monasterio de San Vicente de Añes: «pinna de Urzannico (...) Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia». El *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico* de Pascual Madoz, publicado entre 1845 y 1850, lo hace figurar como *Orzanico*, igual que el *Libro de Álava* de 1877, que además trae el acento gráfico: *Orzánico*. En la documentación oficial actual figura con su grafía eusquérica propia *Urzaniko*. En opinión de Julio Caro Baroja que, seguramente recogiendo lo dicho por Llorente, da este lugar como despoblado *desde muy antiguo*<sup>14</sup>, se trataría de un nombre de persona portador de la desinencia latina *-icum*, con evolución propia del euskera en *-iko*. En opinión de F. Mugurutz, sería un compuesto a partir de un primer elemento \**Urtius* o similar, probablemente un antroponimo en apariencia también presente en nombres como *Urduña*, *Urtain*, *Urdiain*, etc., al que se añade el encadenamiento de los sufijos *-an(o)-* e *-ico-*, que suelen aparecer acompañando a nombres propios de persona. Según el mismo autor, la evolución *U-* > *O-* es similar a la que se da en *Urduña* > *Orduña* y es común en el romance (*ursus* > oso, *ulmus* > olmo, *urina* > orina...).

<sup>13</sup> 'Urzanico' fué despoblado desde muy antiguo, situado en el valle de Ayala; en cuanto a 'Ervice' (sic, Ervico ordez), hoy se le conoce por 'Erbi' (Caro Baroja, 1945, 107. or.). Guk dakigula, toki horretan jendea bizi da gaur egun eta ezagutzen den garai historikoan beti izan du biztanleria.

<sup>14</sup> 'Urzanico' fué despoblado desde muy antiguo, situado en el valle de Ayala; en cuanto a 'Ervice' [sic, por Ervico], hoy se le conoce por 'Erbi' (Caro Baroja, 1945, pág. 107). Sin embargo nos consta que el lugar no se encuentra despoblado en la actualidad, ni lo ha estado en época histórica conocida.

## Arespalditza



1932



2000

Kontzeju hau udalerriko burua da. Nahiko erdigunean dago eta muga hauek ditu: iparraldean, Zuhatza eta Laudio; mendebaldean Zuhatza, Kexaa eta Menoio; hegoaldean Izoria, eta ekialdean Murga eta Luiaondo. Udalerriko auzoburua den arren, Luiaondok beti izan ditu biztanle gehiago. 1950ean 312 biztanle zituen, 1970ean 299 eta 2000ko erroldan 327 ageri ziren, eta horietatik 199 auzo nagusiko gunean bizi ziren. Kontzeju honetan, beraz, biztanleriak ez du alderdi periferikoagoetan gertatu den heineko beherakadarik pairatu. Aitzitik, ibarraren barruko auzokideak erakarri egin ditu.

Izenari dagokionez, zenbait modutan idatzi izan da: *Arispaldizaca* (1095), *Reipaldizar* (1149), *Arespaldiza* (1371), *Respaldiça* (1471-76) edo *Respaldiza* (1487). Argi dago abiapuntua *aretx* 'haritz' (*Quercus robur*) dela eta hortik saiatu beharko dela izen honen jatorria argitzen. Forma arkaikoa (*h*)areitz genuke eta eboluzionatu ondoren forma horrek eman ditu *aretx* aldaera, batez ere mendebaldeko euskaran erabilia, eta erdialdeko euskalkietako (*h*)aritz ere. Antzeko eboluzioa gertatzen da *eleiza* formatik datozen *eliza* eta *elexa* hitzetan, edo *leizar* formatik datozen *lizar* eta *lexar* (*Lexartzu*) aldaeretan. Izenaren gainontzeko osagaiak zeintzuk diren ez dago argi, baina bada Felix Mugurutzak abiatutako etimologia onargarri bat<sup>1</sup>. Horren arabera, *Arizpeleta*, *Arizbalzisketa*, *Arespalzenbea*, *Respalazeta* edo gertuago dagoen Juguko (Zuia) *Respaldutxaga* bezalako toponimoak ikusita, seguruenik ezagutzen ez dugun zuhaitz mota baten izena izango genuke. Ikerlari berak gogorarazten digun legez, *haritz* substantiboa ez

<sup>1</sup> Mugurutza, 1999, *Zaraobe*, 68.

bakarrik haritzak, baina oro har zuhaitzak izendatzeko ere erabili izan da. Toponimoaren osagaien artean hurrengo *baltz* adjektiboa daukagu, antzinatean *bal* edo *bel* (*arbel*: (*h*)*arr(i)* + *bel* ‘*beltza, iluna*’) zena. Esan beharra dago *-b* letrak (*-bal-*) ahostun izateari uzten diola eta *-p* bihurtzen dela (*t*)*z-*, (*t*)*s-* edo (*t*)*x-* txistukarien ondoren doanean. Horregatik, (*h*)*aretx-* + *-bal* elkartuz gero, *arespal* bilakaera gertatzen da, halako beste askotan bezala. Horren adibide egokia dugu Urduñako *Arespakotxaga* toponimoa, *aretx* ‘haritz’ + *bakotx* ‘bakarra, bakartia’ osagaiak dituena. Gure kasuan, berriz, amaierako elementuak *-d(u)i* eta *-tza* atzizki ezagunak dira, ugaritasuna adierazten dutenak eta toponimo ugaritan ageri direnak. *Arespalditza* aldaera euskal hiztunek duela gutxira arte erabili izan dutela dirudi. Hala ulertu behar da, maiz dokumentatzen den *Arespaldiza* forma, besteak beste, Lamuzako Done Petri elizako agiritegiko 1716ko jaiotza agiri batean ageri dena.

*Arespalditza* euskal izenaren oroimena galdu eta erreferentzia bakarra gaztelaniaz-tatutako *Respaldiza* izanik, azkenengo hau euskaratzeko saioan, *Errespalditza* forma asmatu egin da. Forma hori nahiko hedatuta dagoen arren, behin betiko baztertu beharrekoa da inolako oinarri historikorik ez izateaz gainera, kultura eta hizkuntza oinarriak ere ez baitu.

Es el concejo que ostenta la capitalidad del municipio. En una situación relativamente céntrica, limita al norte con Zuhatza y Llodio (Laudio); al oeste con Zuhatza, Quejana (Kexaa) y Menoio; al sur con Izoria, y al este con Murga y Luiaondo. A pesar de ser la capitalidad, en población siempre ha sido superado por Luiaondo. En 1950 contaba con 312 habitantes, en 1970 eran 299 y en el censo del año 2000 había 327, de los que 199 vivían en el núcleo de la capitalidad. Es, por tanto, un concejo que no ha sufrido el intenso despoblamiento de otras zonas más periféricas, sino que por el contrario, se ha constituido en polo de atracción dentro del valle.

El nombre en cuestión se documenta en formas como *Arispaldizaca* (1095), *Reispaldizar* (1149), *Arespaldiza* (1371), *Respaldiça* (1471-76) o *Respaldiza* (1487). Parece evidente que debamos partir del término *aretx* ‘roble’, (*Quercus robur*) para intentar desvelar su origen. En las formas documentadas disponibles, constatamos la evolución en *aretx*, especialmente notorio en el euskera occidental, y (*h*)*aritz* en los dialectos centrales, ambas formas procedentes de un más arcaico (*h*)*areitz*, con evolución fonética similar a la que sucede en *eliza*, *elexa* ‘iglesia’ a partir de *eleiza* o *lizar* y *lexar* ‘fresno’ (en *Lexartzu*) partiendo de *leizar*. El resto del nombre resulta más opaco, pero puede aceptarse la etimología de Felix Mugurutz<sup>2</sup> según la cual, a la vista de topónimos como *Arizpeleta*, *Arizbalzisketa*, *Arespalzenbea*, *Respalazeta* o el cercano y clarificante *Respaldutxaga* de Jugo (Zuia), estaríamos probablemente ante una forma de denominar alguna especie arbórea que desconocemos, que porta el adjetivo *baltz* ‘negro’, variante dialectal occidental de *beltz*, que suele aparecer en la antigüedad como *bal* o *bel* (*arbel* ‘pizarra’ de (*h*)*arr(i)* ‘piedra’ + *bel* ‘negra, oscura’). También recuerda el mismo investigador que con el sustantivo *haritz* se designó a los árboles en general, y no específicamente a los robles. Hay que recordar que la letra *-b* (de *-bal-*) suele perder su sonoridad y convertirse

<sup>2</sup> Mugurutz, 1999, *Zaraobe*, 68.



en *-p* al encontrarse tras un sonido sibilante, como son la *(t)z*, *(t)s*-o *(t)l*-. Así *(h)arex- + -bal* da normalmente *arespal*, como sucede en otras ocasiones similares. Un buen ejemplo es el del topónimo orduñés *Arespakotxaga* de *aretx* ‘roble’ + *bakotx* ‘único, solitario’. Los componentes finales no serían sino los conocidos sufijos *-d(u)l*i y *-tza* que indican abundancia y hallamos también en multitud de topónimos. La forma *Arespalditza* parece haberse usado hasta no hace tanto por los vascohablantes. Así puede deducirse de la forma *Arespaldiza* documentada, entre otras muchas ocasiones, en una partida de nacimiento de 1716 en el archivo parroquial de San Pedro de Lamuza en Llodio (Laudio).

Una vez perdida la memoria del nombre eusquérico *Arespalditza*, y teniendo como única referencia la variante castellanizante *Respaldiza*, en un intento por euskaldunizar este último, se ha inventado la forma *Errespalditza*, no poco extendida, pero que debemos desterrar definitivamente por no existir ningún fundamento histórico, documental o lingüístico para su aceptación.

## Agirre

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496765, Y.4770236, alt. 290 m.

Etxe-talde txiki bat da eta kontzejuko gunen nagusiaren iparraldean dago, Pago-nabarreko basoetako hegian gorako bidea hasten den mendi-lepoaren inguruan, Arespalditzatik Zuhatzara doan bidearen eskuinean.

*Agirre* eta honen aldaerek (*Agarre*, *Agerri* nahiz *Agerre*) euskaraz ‘toki nabarmena’ edo ‘agerikoa’ adierazten dute eta Euskal Herriko toponimorik ohikoenetarikoa da.



*Agirre*

Ondorioz, oso abizen ohikoa ere bada. Izenaren lekukotzarik mendebaldekoena Artzentales ibar bizkaitarrean aurkitzen dugu, Santa Cruz auzoan, eta handik abiatuta, hamaika aldiz aurkituko dugu herrialdeko ekialdeko muturreraino, Zuberoako Irurin ere aurkitzen baitugu, hain zuzen ere.

Se trata de un pequeño grupo de casas emplazado al norte del núcleo capital del concejo, cerca del cuello del que parte el camino que sigue la loma ascendente de los bosques de Pagonabarra, a la vera derecha del camino que de Arespalditza se dirige a Zuhatza.

El nombre *Agirre*, o sus variantes *Agarre*, *Agerrri* y *Agerre*, vienen a significar en euskera 'lugar prominente' o 'expuesto' y es probablemente uno de los topónimos más comunes de Euskal Herria, razón por la que también es frecuente como apellido. El testimonio más occidental de este nombre lo hallamos en el valle vizcaíno de Artzentales, en el barrio de Santa Cruz, desde donde se puede encontrar en innumerables ocasiones hasta el confín oriental del país en Trois Villes (Iruri), en Zuberoa.

## Amirola

Antzinako etxea / Antigua casa: ED50 30T X.498025, Y.4770375, alt. 265 m.

Kontzeju honetako etxea zen, baina bere jabegoko lurrekin batera Murgako lurraldean zegoen, 27,92 Ha-ko esparru edo barrendegia osatzen zuena. Magdalena errekaen ekialdera dagoen goi-lautada xume batean zegoen eta bertara heltzeko basabidea dago Murgako San Martin auzotik, iparraldera egiten duena eta gaur egun toki horretan dagoen pinudietan barna doana. Jendea bizi izan zen etxe horretan XX. mendeko 60ko hamarkadara arte, baina gaur egun ez dago antzinako kokapen haren inolako arrastorik.

Izenaren ahoskera *Amírola* da. Haren jatorri argirik ez dakigu, baina bigarren osagaia *ola* dela dirudi 'burdinola', 'etxola' edo 'kortabaso'. Beste kontzeju batean dagoen barrutia denez gero, esanahirik egokiena 'kortabaso' litzatekeela dirudi, hau da, 'herri basoan dagoen abere nagusien bazkarako larre itxia'. Eman diren 'zelaiguneko garoen burdinola'<sup>3</sup> bezalako beste etimologia batzuk ezin dira gaur egun aintzat hartu.

Se trataba de una casa perteneciente a este concejo, pero que junto a sus pertenecidos se ubicaba en pleno territorio de Murga, constituyendo así un enclave o 'coto' de 27,92 Ha. Su ubicación corresponde a una pequeña meseta al este del arroyo Magdalena, a la que se accede desde el barrio San Martín de Murga por pista forestal que hacia el norte asciende penetrando en la plantación de pinos que actualmente ocupa la zona. La casa estuvo habitada hasta los años 60 del siglo XX, sin embargo en la actualidad no se encuentra resto alguno de su antigua ubicación.

<sup>3</sup> Barrenengoa, 1990.

La pronunciación es esdrújula: *Amírola*. Dicho nombre es de origen confuso, aunque parece contener como segundo componente el sustantivo *ola*, 'ferrería', 'cabaña' o 'sel'. Dado que se trata de un enclave, parece que la etimología más adecuada sería 'sel, prado cerrado en el monte comunal para el pasturaje de ganado mayor'. Otras etimologías dadas como 'ferrería de los helechos del rellano'<sup>4</sup> no son hoy defendibles.

## Arenal, El

Etxea / Casa: ED50 30T X.497098, Y.4770004, alt. 277 m.

Arespalditzako gunearen azpialdean dago etxe eder hau, haren ipar-ekialdean eta muino baten gainean. Horregatik, Izoria ibai arroaren gaineko oso ikuspegi ederra du. Garai batean ostatua izango zen, Murgatik Menagarai aldera zihoan errege bidean baitzegoen. Izan ere, etxetik gertu dagoen mendi-lepoa da Izoriaren arrotik Itzaldekora igarotzeko punturik apalena. Gaur egungo errepidea, ordea, Arespalditzako erdigunetik gertu igarotzen da, El Arenal baino gorago eta hegoalderago dagoen tokitik. La Iglesia gunetik etxe horretara heltzeko bidea, bihurtune batzuen ondoren iparraldera jaisten da aipatutako mendi-leporaino, baina Agirre auzotik ere joan daiteke.

Toponimioa gaztelaniazkoa da eta ahozko hizkeran *Arenal* edo *Larenal* entzun daiteke. Bigarren aldaera horren hasierako *L-* hori, hala ere, erromantzezko *El* artikularen hondarra dela dirudi.

Se trata de una hermosa casa ubicada bajo el núcleo de Arespalditza en dirección noreste, en lo alto de una pequeña prominencia del terreno, lo que le proporciona una vista privilegiada sobre el valle del río Izoria. Debió de ser posada al hallarse en el antiguo camino real que pasaba por aquí procedente de Murga en dirección a Menagarai, ya que el cercano collado es en realidad el punto más bajo para pasar de la cuenca del Izoria a la del Itzalde. Sin embargo la actual carretera pasa próxima al núcleo de Arespalditza, más elevada y al sur de El Arenal. Se accede a la casa desde el núcleo de La Iglesia por carretera local que tras varias curvas, desciende hacia el norte para alcanzar el citado collado, o bien desde el barrio Agirre.

El topónimo claramente castellano que designa esta casa se recoge oralmente *Arenal* o *Larenal*. Sin embargo, la *L-* inicial de la segunda variante parece ser residuo del artículo romance *El*.

## Aretxa

Baserria / Caserío: ED50 30T X.496281, Y.4771655, alt. 270 m.

Aretxa baserri tipiko eder horietako bat da eta Zuhatza kontzeju hurbileko gunearen gainean dago, bizkar baten gainean, Arespalditzatik Okondora doan eta Ben-

<sup>4</sup> Barrenengoa, 1990.

go izeneko A-3624 errepidearen ezkerrean. Ondoko muinoaren gailurrean, oso gertu, Ulibarri baserria dago.

Begi bistakoa denez, *aretx* euskal hitz arrunta duen izena da, Arespalditza izenaren iruzkinean esan den legez, euskara estandarreko *haritz* (*Quercus robur*) edo, oro har, 'zuhaitz' esan nahi zuena, eta amaieran *-a* artikulua daramana.

El hermoso y típico caserío Aretxa se encuentra en un lomo sobre el núcleo capital del vecino concejo de Zuhatza, a la izquierda de la carretera A-3624, llamada de Esquinabajo (Bengo), que de Arespalditza se dirige a Okondo. Cercano se halla el caserío Ulibarri en la cumbre del próximo altozano.

Es con toda evidencia nombre eusquérico que contiene el vocablo común *aretx* 'roble' (*Quercus robur*), o 'árbol' en general, y lleva además el artículo *-a*. Como ya se ha dicho al hablar del nombre *Arespalditza*, la forma *aretx* es propia del euskera occidental o vizcaíno, y se corresponde con el estándar *haritz*.

## Barretxeguren

Etxea / Casa: ED50 30T X.496554, Y. 4771087, alt. 260 m.

Zaharberitutako etxe honek dagoen tokiko toponimoa hartu zuen. Arespalditzako La Iglesia auzoaren iparraldean dago, A-3624 edo Bengoko errepidearen eskuinean, eta aipatutako gunetik Zuhatza nahiz Okondorantz goazela, 48. puntu kilometrikotik apur bat harago.

*Barretxeguren* izenaren euskal jatorria argia bada ere, osagaiak identifikatzea ez da hain erraza. Daitekeena da osagaietako bat *barrutxi* substantiboa izatea, hau da, ohiko *barruti* formaren era palatalizatua, oso ohikoa baita hori Aiara. Halaber badaiteke osagai hori *etxe* izatea eta, edozein kasutan ere, esanahi argirik ez duen *guren* adjektiboa erantsia darama<sup>5</sup>. Era berean, noizbait proposatu den bezala<sup>6</sup>, *ibar*, *etxe* eta *guren* elementuak elkartuta sortu izana ere posible da.

Se trata de una casa reformada que adoptó el topónimo del término en que se halla. Se encuentra emplazada al norte del núcleo de La Iglesia de Arespalditza, al lado derecho de la carretera de Esquinabajo (Bengo), A-3624, según vamos del citado núcleo hacia Zuhatza u Okondo, y poco después del punto kilométrico 48.

No cabe duda del origen eusquérico de *Barretxeguren*. Sin embargo, identificar sus componentes resulta dificultoso. Pudiera contener el sustantivo *barrutxi* 'término', forma palatalizada del común *barruti* muy usual en Ayala (Aiara), o *etxe* 'casa', al que de cualquier modo se le ha añadido el adjetivo *guren*, de significado discutido<sup>7</sup> o, sin más, la suma de

<sup>5</sup> Ikus Agiñagako kontzejuko *Sologuren* izenerako esandakoa.

<sup>6</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>7</sup> Véase lo dicho para el nombre *Sologuren* del concejo de Agiñaga.

los elementos *ibar* 'vega, valle', *etxe* 'casa' y el citado *guren*, tal y como se ha propuesto en alguna ocasión<sup>8</sup>.

## Bengo / Esquinabajo

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496413, Y.4771235, alt. 275 m.

Arespalditza iparraldean dagoen eremu zabal bat izendatzen du toponimo honek, haren barruan A-3624 errepidearen ondoan dauden etxe guztiak hartuta. Errepideari berari ere Esquinabajokoa esaten zaio (Bengokoa alegia), Arroyo baserrian hasi eta Zuhatzako kontzejuaren muga ondoan dagoen Espinokoraino. Horrenbestez, bere barruan hartzen ditu Etxeandia, Isasi, Barretxeguren, Larrea eta Aretxa auzoak.

*Esquinabajo* jatorri erromantzeko toponimoa dela esan beharrik ez dago. Toponimian maiz erabili izan da *esquina* hitza ibarrak banatzen dituzten mendi adarrak izendatzeko. Kasu honetan, jatorriz, Ungila edo Eskorietatik datorren mendi adarraren zatirik apalena izendatzen duela dirudi, adar horrek Arespalditzatik eta Ibaguendik Zuhatzara doazen bideak banatzen baititu. Adarraren alderik garaienean eta Menagarairako bide nagusitik gertuago, *Esquina* toponimoa aurkitzen dugu, seguruenik esku artean dugunari erreferentzia egingo diona. Sarreran esan dugun bezala, inguruko udalerrietan behin baino gehiagotan *Esquinabarrena* eta antzeko formak dokumentatuta aurkitzeak<sup>9</sup> iradokitzen du, Aiarako auzo honen toponimoa jatorrizko euskal izen baten itzulpena dela. Ez da arraroa, beraz, izen hau eta udalaren batzar aretoan dagoen Cerrajerriako Markesaren mapa (1930), leku horretan bertan ageri den *Bengo* toponimoa loturik egotea.

Se conoce con este nombre una extensa zona situada al norte de Arespalditza, incluyendo todas las casas emplazadas a lo largo de la carretera A-3624, que se conoce popularmente como carretera de Esquinabajo (Bengo), desde el caserío del Arroyo hasta el del Espino, ya en el límite con el vecino concejo de Zuhatza. Incluiría, por tanto, los barrios de Etxeandia, Isasi, Barretxeguren, Larrea y Aretxa.

*Esquinabajo* es un topónimo de evidente origen romance. El vocablo *esquina* aparece en toponimia para designar los estribos montañosos descendentes que separan vaguadas. En este caso parece que en origen designa precisamente la parte más baja del cordal que descendiendo de Ungila o Eskorieta, separa las carreteras que se dirigen a Zuhatza procedentes respectivamente de Arespalditza y de Ibaguen. En la parte alta del citado cordal, más cerca de la carretera general de Menagarai, también hallamos el topónimo *Esquina*, al que seguramente hace referencia el que nos ocupa. El hecho de que en varias ocasiones se documenten

<sup>8</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>9</sup> Horrela dago dokumentatuta Laudioko Udal Agiritegian, Landa Finken Katalogoa, 1895 (Mugurutza & Zalbide, 2006).

formas como *Esquinabarrena* en municipios próximos<sup>10</sup>, parece sugerir que el nombre del barrio ayalés no sea sino una traducción literal de un nombre eusquérico previo, tal y como se sugería en la introducción de esta publicación. No debe extrañar, por tanto, que el nombre actual tenga su origen en el topónimo *Bengo*, de idéntico significado y ubicación, recogido en el mapa del Marqués de Cerrajería (1930) que preside el salón municipal de plenos.

## Cerrajería

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496391, Y.4769915, alt. 320 m.

Arespalditzako guneari datxekion auzoa da, haren ipar-mendebaldean eta herriaren irteeran, Zuhatzara doan Bengoko A-3624 errepidea eskuinean utzi eta segituan, Menagarairako bidea hartuta. Bidegurutze hori igaro eta berehala, Cerrajerriako jau-regia dago eta horren inguruan artikulatzen da auzoa.

Auzo honen izenaren jatorrian aipaturiko oinetxe horren abizena dago. Jatorri erromantzea du eta esanahia argia da. Hala dago dokumentatuta 1671n: «Expediente de Hidalguía de Juan de Ibarra Armona Cerrajería (...) Natural de Isoria (sic). Contiene noticia de los solares de Ibarra, Armona, Cerrajería, Olandia y Jáuregui en Ayala».

Se trata de una barriada aneja al casco urbano de Arespalditza, situada al noroeste del mismo, a la salida del pueblo tras dejar a la derecha la carretera de Esquinabajo (Bengo), A-3624, que va hacia Zuhatza y siguiendo en dirección a Menagarai. Inmediatamente pasado el citado cruce, se encuentra el Palacio de Cerrajería, núcleo en torno al que se articula la barriada.

El nombre de este barrio tiene su origen en el apellido correspondiente al solar citado, de evidente origen romance y significado diáfano. Así se documenta en 1671 en el «Expediente de Hidalguía de Juan de Ibarra Armona Cerrajería (...) Natural de Isoria (sic). Contiene noticia de los solares de Ibarra, Armona, Cerrajería, Olandia y Jáuregui en Ayala».

## Done Bikendi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496854, Y.4769446, alt. 285 m.

Duela gutxi sortutako auzunea da, La Iglesia izena duen kontzejuko eta udalerriko auzo nagusitik hegoekialdera. Gune horretatik hurbil Murgara eta Luiaondora doan errepidea hasten da eta, bidegurutzean norabide hori hartuta, berehala aurkituko dugu Done Bikendi urbanizatutako alderdi berria, errepidearen eskuineko aldean.

Alderdi horren urbanizazio berriarekin batera, 2007an *Done Bikendi* izendape-na onartu zen auzoaren izen ofizial bezala, gaztelaniazko *San Vicente* izenaren euskal

<sup>10</sup> Así lo hallamos documentado en el Archivo Municipal de Llodio (Laudio), Catálogo de Fincas Rústicas, 1895 (Mugur-tza & Zalbide, 2006).

ordaina, inguru hori izen horrekin ezagutzen zelako, antzina bertan egon baitzen adbokazio horretako tenplu bat. 1651n egoera txarrean zegoela eta, egin beharreko lan batzuei buruzko dokumentu bati esker dugu haren berri. Bisita pastoralen kroniketan 1722. urtera arte ageri da aipatua eta 1791tik aurrerakoetan jadanik desagertzen da<sup>11</sup>.

Se trata de una barriada de reciente creación situada al sureste de La Iglesia, núcleo central del concejo y del municipio. Cerca del citado núcleo nace la carretera que conduce a Murga y Luiaondo y, partiendo del cruce por dicha ruta, encontraremos inmediatamente la nueva zona urbanizada de Done Bikendi a la vera derecha del carril.

Con la reciente urbanización de la zona, en 2007 se adoptó la denominación *Done Bikendi* como nombre oficial del barrio, forma eusquérica equivalente al castellano *San Vicente*, debido a que el paraje venía conociéndose con este nombre, por haberse emplazado allí antaño un templo de esa advocación. Se tiene noticia del mismo desde 1651, gracias a un documento referido a ciertos trabajos de reparación que se efectuaron a causa de su mal estado. En la crónica de las diversas visitas pastorales aparece citado hasta el año 1722, desapareciendo ya en la de 1791 y posteriores<sup>12</sup>.

## Etxeandia

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496486, Y.4770424, alt. 290 m.

Arespalditzaren iparraldean dago auzoa, Bengo edo Esquinabajo izena hartzen duen A-3624 errepidean. La Iglesia izeneko gunea Zuhatzarekin eta Okondorekin lotzen ditu errepide horrek eta eskuinera jota Agirrera doan bidegurutzearen aldirietan dago auzoa. Auzoaren alderik iparraldekoenean, Isasitik gertu, Etxebarri dorrea dago.

Toponimoak euskarazko jatorri argia du. Lehenengo osagaia *etxe* da eta ohikoa da elkarketetan amaierako *-e* hori *-a* bilakatzea. Bigarren osagaia mugatzailea daraman (*h*)*andia* izenondoa da. Daitekeena da handik gertu dagoen Etxebarri dorreari erreferentzia egitea. Dena dela, ezin ditugu beste aukera batzuk ere baztertu, adibidez, *etxe-* berdin baten ondoko bigarren osagaia (*h*)*aindi* forma estandarren mendebaldeko aldaera izatea. Hala balitz, ‘beste aldean’ esan nahiko luke eta antzeko adibideak baditugu: *Uresandi* (Ugao) ‘uraz harago’, *Andikoa* (Izarduin –gaur egun Isardio–, Lau-dioko auzoa) ‘beste aldeko (etxe)a’ etab.

Barrio ubicado al norte de Arespalditza, en la carretera A-3624, llamada de Esquinabajo (Bengo), que une el núcleo de la Iglesia con Zuhatza y Okondo, concretamente en las inmediaciones del cruce que a la derecha conduce a Agirre. En la zona más al norte, ya cerca de Isasi, se ubica la torre de Etxebarri.

<sup>11</sup> Micaela Portilla, 1967, VI. liburukia, 831. or.

<sup>12</sup> Micaela Portilla, 1967, tomo VI, pág. 831.

El topónimo tiene origen vasco claro, pues parece ser un compuesto de *etxe* ‘casa’, que en composición suele habitualmente mudar a -a su vocal final, y *-(h)andia* ‘grande’ con artículo. Significa por lo tanto ‘la casa grande’, nombre que bien pudiera hacer referencia a la cercana torre de Etxebarri. A pesar de ello, tampoco podemos desdeñar otras opciones como la de hacerla derivar de un idéntico *etxe*, seguido de *-andi*, variante occidental de *(h)aindi*, ‘al otro lado de’, similares a *Uresandi* (Ugao) ‘al otro lado del agua’, *Andikoa* (en Izardui –hoy Isardio–, barrio de Llodio (Laudio)) ‘la (casa) del otro lado’, etc.

## Goikosolo

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496848, Y.4769763, alt. 315 m.

Arespalditzaren ipar-ekialdean dagoen etxe-talde txiki bat da, El Arenal baserri-  
ra doan bidean eta La Iglesia auzotik 200 bat metrotara.

Oso ohiko toponimoa da euskaraz, *Bekosolo* antonimoari kontrajarria. Esanahi argia du *goi* + *ko* eta *solo* osagaiek adierazten duten bezala, ‘goialdean dagoen alorra’, bigarren osagai hori *soro* forma estandarren mendebaldeko aldaera izanik. Esanahia kontuan izanda, izena eraikinak baino lehenagokoa dela pentsa dezakegu.

Se trata de un pequeño grupo de casas al nordeste del núcleo de Arespalditza, en el camino que se dirige al caserío El Arenal y tan solo a unos 200 m de La Iglesia.

El nombre es topónimo muy común en euskera, en contraposición a su antónimo *Bekosolo*. Su significado es claro, compuesto de *goi* + *ko* ‘de arriba’ y *solo* ‘huerta, pieza’, variante occidental común del estándar *soro*. Significa por lo tanto ‘huerta o pieza de arriba’, por lo que puede inferirse que el nombre es anterior a las edificaciones.

## Guziesko

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496418, Y.4769390, alt. 335 m.

Auzo honetako eraikinik gehienak berriak dira eta Arespalditzako gunetik gertu daude. Ungila edo Eskorieta mendira doazen mendi adarretan kokatua dago auzoa, hego-mendebalderantz sakabanatutako etxez osaturik.

Auzo izen hau euskarazkoa da itxuraz, baina jatorrizko formari buruzko idatzizko agiririk ez dugunez, arriskutsua da hipotesiak menturatzea. Federico Barrenengoa ausartu zen jatorria proposatzen eta *Goiasko* ‘goiko (etxe)koa’ izan zitekeela proposatu zuen. Esan den legez, hori bermatzen duen agiririk ez dugun bitartean, zaila da ezer ziurtatzea. Beste alde batetik, F. Mugurutzak nahiago du antroponimoren batekin lotu, agian *Guti* ‘gutxi, txiki’, *-sko* atzizki txikigarria eramango lukeena erantsirik. Gauza bera gertatzen da *Belasko* abizenean, baita oinarrian *itsu* edo *itsusi* duen *Ychusko*



izen berezian (1354) ere, *oilasko*, *idisko* arruntetan edo, Koldo Mitxelena ezagunak aipatu zuen bezala<sup>13</sup>, *Olaskoaga* bezalako beste zenbait izenetan ere.

Es una barriada en su mayoría de moderna construcción, próxima al núcleo de Arespalditza, que comprende las casas que hacia el suroeste se ubican dispersas en las primeras estribaciones que se dirigen al pico Ungila o Eskorieta.

El nombre de este barrio es un topónimo de aparente origen eusquérico, pero al no disponer de documentación escrita que proporcione pistas sobre su forma originaria, resulta peligroso aventurar hipótesis alguna. Federico Barrenengoa se arriesgó a proponer el origen *Goiasko* 'de (la casa) de arriba' pero, como se ha indicado, mientras no se disponga de documentación que lo avale, es difícil aseverarlo con rotundidad. Por su parte, F. Mugurutza prefiere relacionarlo con algún antropónimo, quizá *Guti* 'pequeño', al que se le añade el sufijo diminutivo *-sko*, tal y como sucede en el apellido *Belasko*, nombres como *Ychusco* (1354) a partir de *itsu* 'ciego' o *itsusi* 'feo', *oilasko* 'pollo', *idisko* 'novillo' o incluso en términos como *Olaskoaga*, tal y como apuntase el celeberrimo Luis Mitxelena<sup>14</sup>.

## Iglesia, La

Kontzejuko eta udalerriko auzoburua / Capitalidad del concejo y del municipio: ED50 30T X.496644, Y.4769669, alt. 315 m.

Arespalditza kontzejuko auzoburua da, baita Aiara udalerrarena ere. Izoria eta Itzalde ibai arroak banatzen dituen muinoaren beheko aldean dago, Ungila edo Eskorieta mendiaren ekialdera dagoen malda behean, zehatzago esanda, Amurrio eta Artziniega lotzen dituen A-624 errepideko 47. puntu kilometrikoa baino apur bat lehenago. Auzoan udaletxea eta Andra Mariaren Jasokundeko parrokia daude. Garai batean herriko jaiak Jasokundean eta San Roke egunean izaten ziren arren (abuztuaren 15 eta 16an), gaur egun San Prudentzio eguneko jai orokorragoa ospatzen da (apirilaren 28an), baita kontzejuari atxikiago dagoen San Isidro ere (maiatzaren 15ean). Hilerria etxeek osatutako gunetik iparraldera dago eta haren barruan Santa Luzia ermita dago. Ermita horretan daude Aiarako antzinako noble batzuen hilobiak, hala nola Atxako markesenak edo Cerrajerriako kondeenak. Auzoko eraikin aipagarrien artean, elizaren hegoaldean, Guzieskora doan bidearen ondoan, Atxa jauregia nabarmendu behar da.

*Elexalde* euskal forma normalizatzeko aukerari dagokionez, ikusi Añesko kontzejuan izen bereko auzoari buruz esandakoa.

Se trata del núcleo capital del concejo de Arespalditza, y del municipio de Ayala (Aiara). Se halla emplazado en la zona baja de la loma que separa las cuencas de los ríos Izoria e Itzalde, al pie y este del monte Ungila o Eskorieta, poco antes del punto kilométrico 47 de la

<sup>13</sup> 1977, 544, 149. or.

<sup>14</sup> 1977, 544, pág. 149.



*Inartza auzoa eta Bagatza mendia edo Pico de Asnos*  
Barrio Inartza y Pico de Asnos o Bagatza

carretera A-624 que une Amurrio y Artziniega. En el barrio ocupan lugar central el ayuntamiento y la Iglesia parroquial de la Asunción de Nuestra Señora. Aunque antaño la fiesta local se celebraba por la Asunción y San Roque (15 y 16 de agosto), actualmente solo se celebra el más general San Prudencio (28 de abril), así como San Isidro (15 de mayo) de carácter más concejil. En el interior del cementerio, algo al norte del núcleo de casas, se halla la ermita de Santa Lucía, donde se emplazan algunas tumbas de la antigua nobleza de Ayala (Aiara), como los marqueses de Atxa o los condes de Cerrajería. Entre sus edificaciones notables, cabe destacar también al sur de la iglesia, junto al camino que se dirige a Guziesko, el palacio de Atxa.

Sobre la posibilidad de normalizar el equivalente eusquérico *Elexalde*, véase lo dicho en el barrio homónimo del Concejo de Añes.

## Inartza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496270, Y.4768871, alt. 360 m.

Madozen *Diccionario* lanean (1845-1850) «los barrios despoblados de Inarza y Paunabarra» aipatzen badira ere, hau da, 'jendez hustutako Inartza eta Pagonabarra auzoak', gaur egun oraindik ere bizirik dirau auzo horrek. Hiru etxe zahar eta berri bi ditu, guztiak ere La Iglesia izeneko gunearen hego-mendebaldean, Ungila edo Eskorieta mendiaren ekialdeko adarrean sakabanaturik.

Auzo honen izenak osagai bi dituela dirudi: *inar* (*Erica sp.*) gaur egun oraindik ere Aiaran erabiltzen den euskarazko hitza, eta ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzizkia. ‘Txilardia’ren parekoa da, beraz.

En el *Diccionario de Madoz* (1845-1850) se citan «los barrios despoblados de Inarza y Paunabarra». Sin embargo, en la actualidad aún pervive el barrio. Está compuesto por tres casas antiguas y dos nuevas, todas ellas dispersas y emplazadas al suroeste del núcleo de la Iglesia, en el estribo oriental del Pico Ungila o Eskorieta.

El nombre de esta barriada parece compuesto de *inar* ‘brezo’ (*Erica sp.*), palabra eusquérica que todavía se usa en Ayala (Aiara), más el sufijo abundancial *-tza*. Equivaldría a ‘el brezal’.

## Isasi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496486, Y.4770781, alt. 280 m.

Arespalditzatik Zuhatzara eta Okondora doan Bengo (A-3624) errepidearen ezkerrean dagoen baserri talde bat da. Gaur egun, batean bakarrik bizi da jendea, beste baten arrastoak ere ikus daitezke eta hirugarren bat etxola bezala erabiltzen dute. Apur bat beherago eta errepidearen eskuinean *Bengo* baserria dago. Izen hori *Isasibengoa* ‘Isasi behekoa’ izenaren forma laburtua dela dirudi, nahiz eta gaur egun auzo horretatik aparte bezala uler daitekeen.

Auzoa identifikatzen duen izena oso ohikoa da hala toponimian nola abizenetan. Euskal jatorri argia du eta haren esanahirik arruntena ‘sastraka’ da.

Se trataba de un grupo de caseríos situados a la izquierda de la carretera de Esquina-bajo (Bengo) (A-3624) que de Arespalditza se dirige a Zuhatza y Okondo. En la actualidad solo uno de ellos se encuentra habitado, si bien aún pueden verse las ruinas de otro, y un tercero que es utilizado como cabaña. Algo más abajo y a la vera derecha de la carretera, se halla el caserío *Bengo*, cuyo nombre parece ser la forma abreviada de *Isasibengoa* ‘Isasi de abajo’, aunque en la actualidad se percibe ya separado de este barrio.

El nombre que designa el barrio es muy habitual como topónimo y como apellido. Tiene origen indudablemente eusquérico, y su significado más habitual en la toponimia alavesa es el de ‘jaro’.

## Iturran

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496445, Y.4769561, 315 m.

Izen honek identifikatzen duen etxe multzoa Arespalditzako gunen nagusitik oso gertu dago, baina Amurriotik Artziniegara doan A-624 errepidearen hegoaldeko hegian kokatua. Hara heltzeko, bada, errepide nagusi horretatik abiatuta, urrunago dagoen Guziesko auzorako bidea hartu behar da.

*Iturran* izenak euskarazko *iturri* osagaia duela ematen du, konposatuak osatzean amaierako bokala galdu ohi baitu (*itur-*). Azken osagaia euskarazko (*h*)*aran* hitzaren era laburtua izan liteke, eta kasu horretan leku-izenaren esanahia ‘iturriko harana’ izango litzateke.

Se conoce por este nombre el grupo de edificaciones próximo al núcleo central de Arespalditza, pero situado a la vera sur de la carretera A-624 que une Amurrio y Artziniega. Se accede, pues, al mismo, desde la propia carretera general dirigiéndose al barrio Guziesko, algo más alejado de la carretera.

El nombre *Iturran* parece ser un derivado del euskera *iturri* ‘fuente’, que normalmente pierde su vocal final (*itur-*) al formar compuestos. El componente final pudiera ser una forma contracta del euskera (*h*)*aran* ‘vega, vaguada’, por lo que el topónimo vendría a significar ‘vega de la fuente’.

## Landeta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497177, Y.4768858, 270 m.

Amurriotik Arespalditzako gun e nagusira doan A-624 errepidearen ondoan dagoen etxe multzoa da, 46. puntu kilometrikoa baino apur bat lehenago. Egia esan, hego-ekialdera Bagatza edo Pico de Asnos eta ipar-ekialdera Zarandona gailurren arteko mendi-lepo zabal bat da kokalekua. *Bienandanzas e Fortunas* (1475) liburuan aipatzen da auzo hau, 1328an Aiara etxeko oinordekoen artean jaurerria bereganatzeko borrokan aritu ziren leku bezala:

«En el año del Señor de mil CCCXXVIII años morio don Juan Sanchez de Salzedo, Señor de Ayala. E porque no dexo fijo ni sobrino legitimo que eredase el su señorío, ovo mucha guerra [...] e ovieron una pelea entre Landeta e Sant Juan de Murga e fueron vençidos los de Murga. E morio alli Sancho Garçia de Murga e otros de los suyos e quedo por Señor de Ayala don Sancho Perez de Ayala...»

Gehienetan *Landéta* ahoskatzen da, azentuazio laua daramala. Oso toponimo ohikoa da eta osagai bi ditu: *landa* eta ugaritasuna nahiz tokia adierazten duen *-eta* atzizkia. ‘Belardiak’ edo ‘larreak’ esan nahi du, beraz.

Grupo de casas ubicadas junto a la carretera A-624 que procedente de Amurrio se dirige al núcleo capital de Arespalditza, poco antes del punto kilométrico 46. El emplazamiento es en realidad un ancho collado entre el Bagatza o Pico de Asnos al suroeste y el alto de Zarandona al nordeste. El lugar es mencionado en las *Bienandanzas e Fortunas* (1475), como campo de batalla donde los herederos del solar de Ayala disputaron su señorío en 1328:

«En el año del Señor de mil CCCXXVIII años morio don Juan Sanchez de Salzedo, Señor de Ayala. E porque no dexo fijo ni sobrino legitimo que eredase el su señorío, ovo mucha guerra [...] e ovieron una pelea entre Landeta e Sant Juan de Murga e fueron vençidos los de Murga. E morio alli Sancho Garçia de Murga e otros de los suyos e quedo por Señor de Ayala don Sancho Perez de Ayala...»

Su nombre, pronunciado normalmente *Landéta*, con acentuación llana, es un topónimo muy común compuesto de *landa* ‘campa, prado’ y el sufijo locativo-abundancial *-eta*. Significa, por tanto, ‘los prados’ o ‘las campas’.

## Larrea

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496423, Y.4771235, alt. 275 m.

Auzo honetan gaur egun hiru baserri eta horien eraikin osagarriak daude, Arespalditzatik Okondo nahiz Zuhatzara doan Bengoko (A-3624) errepidearen ezkerrean. Barretxeguren baserria eskuinean utzi eta gutxira, 49. puntu kilometrikoa baino metro batzuk lehenago.

Auzo hau izendatzen duen toponimoa euskarazko *larre* substantibo arrunta da, eta jarraian *-a* artikulua erantsi zaio. ‘Belardia’ esan nahi du, beraz. Paisaiaren deskribatzaile ona denez gero, maiz ageri da toponimian baita, ondorioz, abizen bezala ere. Zenbaitetan administrazioek aldatu eta *La Rea* bihurtuta ikus daiteke edota, areago, *Rea* forma barregarria ere dokumenta daiteke.

Barrio formado actualmente por tres caseríos más sus edificios anejos, ubicados a la vera izquierda de la carretera de Esquinabajo (Bengo) (A-3624) que de Arespalditza se dirige a Zuhatza y Okondo. Los hallamos después de dejar a la derecha el caserío Barretxeguren, concretamente unos metros antes del punto kilométrico 49.

El topónimo que designa este barrio es un sustantivo de uso común en euskera, *larre* ‘pastizal’, seguido del artículo determinado *-a*. Significa por lo tanto ‘el pastizal’. Aparece muy a menudo en la toponimia, como buen descriptor que es del paisaje, y también en consecuencia como apellido. En algunas ocasiones, ha sido transformado por las administraciones en *La Rea* y, yendo más lejos, puede documentarse incluso la ridícula forma *Rea*.

## Laurel

Etxea / Casa: ED50 30T X.495997, Y.4770181, alt. 325 m.

Gaur egun Arespalditzatik Menagaraira doan A-624 errepidearen ezkerrean dagoen etxe berria da, Kexaara doan bidegurutzearen inguruan. Bidegurutze honetan sutegi bat egon zen eta errepidea egitean bota zuten.

Toki horretan garai batean egon zen benta batek eman zion auzoari izena, eta orain dela gutxira arte ikus zitezkeen benta horren horma puska batzuk zutik. Gaztelaniazko jatorri gardena du, euskaraz ‘ereinotza’ edo ‘erramua’ (*Laurus nobilis*) esaten zaion zuhaitz ezagunaren izena baita.

Actualmente se trata de la casa nueva al lado izquierdo de la carretera A-624, que de Arespalditza se dirige a Menagarai, en las inmediaciones del cruce que lleva a Quejana (Kexaa). En este cruce hubo antiguamente una fragua que se derribó al hacer la carretera.

La denominación de este barrio proviene de una venta de igual nombre que existió en dicho lugar, cuyas ruinas han estado en pie hasta hace poco tiempo. Es de origen castellano y significado diáfano, nombre de una especie arbórea muy conocida denominada en euskera *ereinotza* o *erramu* (*Laurus nobilis*).

## Llana, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496584, Y.4769403, alt. 320 m.

Amurriotik Artziniegara doan A-624 errepide nagusiaren ezker aldean dagoen herriguneko sektorea da. Errepidearen eskuinaldean dauden eraikinik gertukoena ere auzo honetakoak dira.

Auzo honen izenak oso ongi deskribatzen du zer-nolako tokian dagoen. Gaztelaniazko substantiboa da, esanahi argikoa eta, sarritan, artikuluz horniturik erabili ohi dena. Euskal toponimian *zabala*, *zelaia* izenen parekoa dugu.

Se trata del sector del núcleo urbano situado a la parte izquierda de la carretera general A-624 que de Amurrio se dirige a Artziniega. Incluye también las edificaciones más próximas a la vera derecha de la carretera.

El nombre de esta barriada designa muy descriptivamente el lugar orográfico que ocupa. Es un sustantivo castellano de significación diáfana, que suele utilizarse acompañado del artículo y cuyo equivalente en toponimia eusquérica es a menudo *zabala*, *zelaia*.

## Muñezkan

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496619, Y.4768567, alt. 345 m.

La Iglesia izeneko gunearen hegoaldera dauden pare bat eraikin dira, Bagatza edo Pico de Asnos mendia gerizpean daudenak. Tontorretik behera datorren adar batean eta Landeta auzoaren gaineko muino batean daude etxeak, ekialdera dagoen Izoria ibaiari begira.

Toponimo hau *Muño* pertsona izenaren deribatua izan daiteke, agian *Muñez*, *Muñiz* edo *Muñoz* bezalako eratorria, eta horri euskarazko *gan* 'gain' substantiboa erantsiko zitzaion<sup>15</sup>. Hala balitz, 'Muñezko gaina' esan nahiko luke. Baina hipotesi hori egiaztatzeko agiriak behar ditugu eta oraindik, guk geuk behintzat ez dugu halako frogarik aurkitu. Bestelako soluziobide batzuk ere eman dira, esaterako, 'muino-ko haitzaren gainean'<sup>16</sup>, baina linguistikoki arraro samarra da.

<sup>15</sup> Mugurutz, 1999, *Zaraobe*, 68.

<sup>16</sup> Barrenengoa, 1990.

Se trata de un par de edificaciones situadas al sur del núcleo de La Iglesia y a la sombra de Bagatza o Pico de Asnos, en el estribo que baja de esta cima, y sobre un altozano que domina el barrio Landeta y la vega del río Izoria al este.

El topónimo pudiera ser un derivado del nombre de persona *Muño*, quizá algo del tipo *Muñez*, *Muñiz* o *Muñoz*, más el sustantivo eusquérico *gan*, que significa 'alto, cima', y corresponde al estándar *gain*<sup>17</sup>. En este caso vendría a significar 'alto de Muñez'. Sin embargo, esta hipótesis debería verificarse con testimonios documentales que, de momento, nosotros no hemos hallado. Se ha ofrecido asimismo alguna otra opción resolutive como 'sobre el risco del ribazo'<sup>18</sup>, aunque es lingüísticamente extraña.

## Pagonabarragoikoa

Eroritako baserria / Caserío en ruinas: ED50 30T X.498200, Y.4773700, alt. 485 m.

Gaur egun erorita dagoen antzinako baserri hau kontzejuaren iparraldean dago, toki menditsuan eta izen bereko mendiaren iparraldeko lepotik gertu. Zuhatza eta Luiaondoko mugetatik gertu, Arespalditzako jurisdikzioko lur ziri bat luzatzen da iparralderantz harik eta, soilik sinbolikoki bada ere, Laudioko muga erdietsi arte. Luiaondoko jurisdikzioan, ipar-ekialderago eta ez hain toki garaian, Pagonabarra «de Abajo» ('be(he)koa') izeneko etxe batzuk egon ziren. Horregatik, oraingo honetan deskribatzen ari garen baserri honi askotan «de Arriba» ('goikoa') erantsi izan zaio. Agirretik Pagonabarrera doan bidearen eskuinaldean, Magdalenaren ermita zaharra egon zen, eta haren adbokazioak toponimian dirau oraindik ere.

*Pagonabarra* izena dokumentu askotan agertzen da bere jatorrizko forman, nahiz eta azkenengo mendean *Panabarra* forma laburtua ezagunagoa izan den. Seguruenik forma bi horien artean *Paunabarra* eratik pasatuko zen<sup>19</sup>. Orobat gertatuko zen inguruko *Pagolar* mendiaren izenaren garapenarekin ere, *Paular* aurkitzen baita agiri batzuetan (1894), eta guregana ere ahozko hizkerak laburtutako forma horretan heldu baita. Lehenengo osagaia *pago* (*Fagus sylvatica*) dela argi dagoen arren, euskara galtzearekin batera, forma aldatu eta gorago aipatu dugun *pau* bihurtu zela dirudi. Osagai horri *nabar* adjektiboa eta *-a* artikulua gehitu zitzaizkion. Dirudenez, pago bereziren bati egiten dio erreferentzia izenak, espezie hori antzina Euskal Herrian orain baino hedatuago zegoen eta. Gehiagotan ere erantsi izan zaie *nabar* adjektiboa zuhaitzen izenei eta horren adibide dugu *Ariznabarra* toponimioa, lehen osagaia *haritz* duena.

Era un antiguo caserío actualmente en ruinas emplazado en la zona más septentrional del concejo, en paraje montañoso, próximo al collado norte de la cima conocida con el nom-

<sup>17</sup> Mugurutza, 1999, *Zaraobe*, 68.

<sup>18</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>19</sup> Madoz, 1845-1850.

bre de Pagonabarra. Cerca del límite con Zuhatza y Luiaondo, una cuña de terreno en jurisdicción de Arespalditza, se extiende hacia el norte hasta alcanzar, solo simbólicamente, el límite de Llodio (Laudio). En jurisdicción de Luiaondo, más al nordeste y en paraje de menor altitud, hubo casas conocidas como Pagonabarra «de Abajo» (-be(he)koa), razón por la que a la casa que tratamos aquí, a menudo se le añade también el situador «de Arriba» (-goikoa). A la derecha del camino que de Agirre se dirige hacia Pagonabarra, hubo una ermita de La Magdalena, cuya advocación aún pervive en la toponimia.

El nombre *Pagonabarra*, se documenta con abundancia en su forma original, si bien en la última centuria ha sido conocido en la forma abreviada *Panabarra*, probablemente a través de un intermedio *Paunabarra*<sup>20</sup>. Otro tanto habría sucedido con la evolución del nombre de la cercana cumbre de *Pagolar*, también documentado *Paular* (1894), y que ha llegado a nosotros en esta forma abreviada por transmisión oral. El elemento *pago* –que con la pérdida del euskera parece pasar a la forma vulgarizada *pau* más arriba referida– no es sino ‘haya’ (*Fagus sylvatica*), al que, en el caso que nos ocupa, se le añade el adjetivo común *nabar* ‘parda’ más el artículo -a. El nombre, que viene a significar ‘el haya parda’, sin duda hace referencia a algún ejemplar singular de esta especie arbórea, antaño más frecuente en Euskal Herria. El adjetivo *nabar* añadido a un árbol, también lo tenemos presente en topónimos como *Ariznabarra*, siendo el primer elemento *haritz* ‘roble’.

## Sagasti

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496767, Y.4769596, alt. 295 m.

Duela gutxi urbanizatutako alderdia da, La Iglesia izenaz ezagutzen den gunetik hegoekialdera, Murgara eta Luiaondora doan A-3622 errepidearen bila doan jaitsieraren ondoan dagoena. Etxe berriak, jaitsiera horren eskuinaldean behera agertzen dira, bide honen eta Amurrio-Artziniega errepide nagusiaren (A-624) artean.

Inguru horren urbanizazioarekin batera, 2007an *Sagasti* izena onartu zen auzoaren identifikatzaile ofizial gisa, eraiki zen soroa, bertan zeuden sagarrondoengatik ezaguna zelako. *Sagasti* izena *sagar* hitzaren euskarazko eratorria da, atxikita ugaritasunezko -*ti* atzizkia daramana. Hortaz, ‘sagardia’ esan nahi du.

Se trata de una zona recientemente urbanizada que se emplaza en la bajada que del núcleo conocido como La Iglesia se dirige hacia el sureste en busca de la carretera A-3622 que va hacia Murga y Luiaondo. Las modernas casas se sitúan a lo largo de esa bajada a la derecha del carril, entre este y la carretera general Amurrio-Artziniega (A-624).

Con la urbanización de la zona, en 2007 se adoptó el nombre *Sagasti* como identificador oficial del barrio, debido a que la finca donde se construyó había sido conocida por sus manzanos. *Sagasti* es un derivado del euskera *sagar* ‘manzana’, que porta además el sufijo abundancial -*ti*, por lo que significa literalmente ‘el manzanal’.

<sup>20</sup> Madoz, 1845-1850.



## Ugalde

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497128, Y.4769355, alt. 285 m.

A-3622 errepidean zehar, bizkarrean han eta hemen sakabanatuta dago auzoa, Arespalditzako gunen nagusitik Murga nahiz Luiaondorantz kilometro erdi bat inguru jaitsita.

Izen konposatua da eta batetik *ur* daukagu ‘ura’ nahiz ‘erreka’ esanahiaz eta, bestetik, *alde*. *Ur* hitza bere horretan agertzen da batzuetan, baina beste batzuetan *uh-* edo *ug-* forma hartzen du konposatueta eta halaxe gertatu da kasu honetan. Horrenbestez, ‘uraren ondoan, erreka bazterra’ esan nahi du.

Esta barriada se emplaza algo dispersa por la loma a lo largo de la carretera A-3622 que del núcleo capital de Arespalditza se dirige a Murga y Luiaondo, descendiendo por ella medio kilómetro en ese sentido.

El nombre de este barrio es un compuesto de *ur* ‘agua’ o ‘río’, que en compuestos puede aparecer tal cual o como *uh-* o *ug-*, y *alde* ‘junto a, zona próxima a’. Significa por lo tanto ‘junto al río’ o ‘ribera’.

## Zerralde

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496857, Y.4769245, alt. 340 m.

Amurriotik etorrira, Arespalditzako gunen nagusira hurbiltzen gaituen A-624 errepidearen ondoan sakabanaturiko hiru etxe identifikatzen dituen eremua da, Landeta auzoa pasatu eta berehala. Izen bera du Murgara doan errepidearen elkarzuta den erreka ere<sup>21</sup>. Zehazkiago, auzoa errepide horretako 46. puntu kilometrikoaren inguruan dagoela ere esan daiteke.

Litekeena da izen honen osagai biak *zerra* eta *alde* izatea. Hortaz, ‘zerrategiaren ondoan’ adieraziko luke eta erreka urek mugituko zuten behialako zerrategiaren bati erreferentzia egingo lioke. Baina beste aukera batzuk ere gogoan izan behar ditugu. Adibidez, lehenengo osagaia *sarra* ‘oilhanartea’<sup>22</sup> izatea, toponimoa ohikoan *Serralde* nahiz *Sarralde* ahoskatzen baita. Era berean, *zear* ‘zehar, magal’ dela ere esan izan da<sup>23</sup>, nahiz eta ezohikoa datekeen hitz horrek gero *serra* edo *sarra* ematea. Zuhatzako kontzejuan *Zerrabe* toponimoa dugu ‘beheko zerra’ edo ‘zerra apala’, baina hemendik oso urrun eta beste ibai arro batean dagoenez, zaila da toki bien artean harremanik egotea. Beste kasu askotan bezala, agiri guztiak hustu arte beste baieztapenik ezin dugu egin, eta sarreran ere aipatu dugu lan hori ahalik eta lasterren egiten hastea komeniko litza-

<sup>21</sup> Beste iturri batzuetan *Arroyo Sarabia* esaten zaio.

<sup>22</sup> Mugurutz, 1999, *Zarabe*, 68.

<sup>23</sup> Barrenengoa, 1990.



*Txabarri dorretxea*  
Torre de Txabari

tekeela. Mexikon aurkitzen dugu hitz hau abizen bezala eta zenbaitetan konposatua da: *Vélez de Zerralde*. Pueblako estatuan, Tochimilco herrian bizi izan zen *Agustín de Zerralde* (1634–1679) fraide frantziskotarra, 1675ean Madrilén argitaratutako *Censura Teológica contra la doctrina de Miguel de Molinos* lanaren egilea.

Zona que identifica las tres casas dispersas a lo largo de la carretera A-624 que viniendo de Amurrio nos acerca al núcleo capital de Arespalditza, después de pasar el barrio Landeta. Con el mismo nombre se conoce también el arroyo que desciende perpendicular a la carretera hacia Murga<sup>24</sup>. Podemos precisar la ubicación del barrio aproximadamente en torno al punto kilométrico 46 de la citada carretera.

El nombre pudiera proceder de *zerra* 'sierra' y *alde* 'lado' o 'zona'. Significaría, por tanto, 'junto a la sierra', quizá en referencia a algún antiguo aserradero movido por las aguas del arroyo. Ahora bien, no debemos despreciar otras opciones como *sarra* 'espesura'<sup>25</sup>, ya que este topónimo indistintamente se pronuncia *Serralde* o *Sarralde*. Asimismo han sido ofrecidas otras opciones como *zear* 'ladera'<sup>26</sup> si bien sería inusual que este término diese *serra* o *sarra*. En el concejo de Zuhatza hallamos también el topónimo *Zerrabe* 'bajo la sierra' o 'sierra baja', pero se encuentra muy distante de aquí y en otra cuenca hidrográfica, luego difícilmen-

<sup>24</sup> También denominado en otras fuentes *Arroyo Sarabia*.

<sup>25</sup> Mugurutza, 1999, *Zaraobe*, 68.

<sup>26</sup> Barrenengoa, 1990.

te pueden ponerse en relación ambos lugares. Al igual que nos sucede en otras tantas ocasiones, no se puede ir más allá en las aseveraciones hasta no hacer un vaciado sistemático de todas las fuentes documentales, una labor que, como ya se dijo en la introducción, sería recomendable acometer cuanto antes. En México existe como apellido, solo o en composición: *Vélez de Zerralde*. En el estado de Puebla, en la localidad de Tochimilco, vivió el fraile franciscano *Agustín de Zerralde* (1634-1679), autor de *Censura Teológica contra la doctrina de Miguel de Molinos*, editado en Madrid en el año 1675.

## Zubialde

Lekua / Lugar: ED50 30T X.496268, Y.4768690, alt. 330.

Abaro errekaen ibarrean dagoen toki baten izena dela dirudi, Inartza auzoaren azpian dagoena, hegoaldean hain zuzen ere. Dirudenez, hemen egon zen garai batean Zubialdeko Done Sebastian ermita, 1791rako hondaturik zegoena eta 1793an *Iñazarra* (sic) auzoko ermita bezala aipatua, seguru asko *Inartza* izenaren desitxuraketa dena<sup>27</sup>. Lehenago ere dokumentatuta dago *Ybarra de San Sebastian* (1692)<sup>28</sup> adierazpidea, eta hori da aipaturiko ermita horren azken lekukoa. Herriaren erdigunetik hegoaldera zegoen, handik kilometro batera edo.

Toponimoa euskarazko hitz konposatua dela argi dago, batetik *zubi* eta bestetik *alde* osagaiak dituen. ‘Zubiaren ondoan’ esan nahi du eta, beraz, ez dago zalantzarik aipatutako erreka horren ibarrean zegoela.

Parece designar un lugar en la vaguada del arroyo Abaro, justo bajo la barriada de Inartza y al sur de esta. Al parecer en este lugar se ubicó la ermita de San Sebastián de Zubialde, arruinada ya en 1791 y que en 1793 se cita como ermita del barrio de *Iñazarra* (sic), aparente corrupción de *Inartza*<sup>29</sup>. Anteriormente se documenta la expresión *la Ybarra de San Sebastian* (1692)<sup>30</sup>, último testigo de la citada ermita que estaba situada aproximadamente a un kilómetro del centro del pueblo en dirección sur.

El topónimo es un claro compuesto vasco de *zubi* ‘puente’ y *alde* ‘junto a’. Significa, por tanto, ‘junto al puente’, inequívoco indicio de que se hallaba precisamente en la vaguada por la que discurre el citado arroyo.

<sup>27</sup> Portilla, 1978. Segur aski jatorrizko *Iñarra(t)za* izenaren irakurketa okerra.

<sup>28</sup> Arabako Agiritegi Historiko Probintziala, 12.800 zk., 118 v. or.

<sup>29</sup> Portilla, 1978. Seguramente lectura errónea del original *Iñarra(t)za*.

<sup>30</sup> Archivo Histórico Provincial de Álava, nº 12.800, fol. 118 v.

## Beotegi



1932



2000

Peregaña mendiaren beheko magalean dago, tontorraren ipar-ekialdean, sortaldera begira dagoen ibar batean. Iparraldetik Menagairarekin egiten du muga eta herri horren erdigunetik abiatzen da kontzeju honetarako bidea. Ekialdean Kexaa du, hegoaldean Ozeka eta mendebaldean Erretes eta Zuhatza. Madozen *Diccionario* lanean (1845–1850) Beotegiren auzo hauek aipatzen dira: Mimena, Elejalde, San Miguel eta Zaballa, baita Larrinza, Beotizaballa eta Casapericoarana (sic) etxaldeak ere. Becerro de Bengoak 1877an Beotizaballa eta Mímena etxaldeak aipatzen zituen bakarrik. XVIII. mendean kontzeju hau eta Zuhatzakoa Okondoko kuadrillakoak ziren. 1950ean 49 biztanle zituen eta 1970ean 61era igo ziren. Baina 2000ko biztanleria erroldan 49ra jaitsi ziren berriro ere.

*Beotegi* deitzen dira hala kontzejua nola kontzejuko buru den auzoa. Ezagutzen dugun agiririk zaharrenean *Perea* izenarekin agertzen da, hor egon baitziren eliza nagusia (San Tomas Apostoluarena) eta kontzejuaren gunea, biak ala biak geroago Peregaña mendiaren ekialdeko toki baxuago honetara aldatu ziren arte. 1753an eraiki zen parrokia berria, toki erosoagoan, gutxi gorabehera gaur egungo kanposantua dagoen tokian, eta Erretesko San Andres Apostoluaren elizari atxikia egon zena. Jadanik XX. mendean, bigarren eliza hau 1916an erorita zegoela dokumentatu dugu. Lehendik ermita bat izanik, Done Mikel Goiaingeruaren gaur egungo parrokia eraiki eta 1918an inauguratu zuten. Lekuaren antzinako izenak *Peregaña* ‘Pereko gaina’ mendiarenean iraun du (ahoz *Perigaña*). Ahozko hizkeran auzo honi *Biótegi* esaten zaio eta XVIII. mendeko kontzejuen agiritegian dokumentatuta dago. Baina *Bióti* ere esaten zaio eta izen bietan ikus ditzakegu euskarazko ahoskeraren hondarrak: batetik,

Aiara eta inguruko euskal toponimo gehienek bezala, azentuazio proparoxitonoa du, eta ez gaztelaniaz espero zitekeen \**Beotégi*. Esan beharra dago ohiko azentuazio ego-kia *Beotégi* dela, baina gaztelaniaren eraginez gero eta gehiagotan entzuten dela *Beoté-gi* oker hura. Bigarrenik, hizkera laxoan bokal arteko -g- galtzeko joera dago eta horren ondorioz sortu da ahozkoan *Bioti* forma. Aldaera honetan, gainera, -ei diptongoa laburtu eta -i bihurtu dela ikusten dugu, hori ere euskaraz ohikoa. Esanahiari dagokionez, ia denek onartzen dute *behor* eta *tegi* osagaiak dituela. Nafarroako *Beortegi* nahiz Nafarroa Behereko *Behorlegi* herrien izenekin antz handia du. Maiztasun handikoa da lehen osagaiaren amaierako -r letraren galera egitura berdineko konposatuetan, hala nola *adaburu* (< adar-buru), *hamabi* (< hamar-bi), *Akesolo* (< aker-solo), *Batzalarrina* (< batzar-larr(a)ina)... Barakaldon *Biotegi* izeneko toki bat dago dokumentatuta eta Oiartzunen ere bada, agirietan *Beotegi* ageri den arren, ahozko hizkeran *Bioti* esaten dioten beste toki bat. Jose Luis Lizundiak esaten digunez, Espainian askotan aurkitu ohi da 'La Yeguada' leku-izen baliokidea, maiz abeltzaintza feriak egiten ziren lekuei lotuak<sup>1</sup>. Hain hurbil egonik, ez litzateke hain zentzugabea izango kontzejuaren oraingo izena Kexaako ganadu feria ospetsuaren ondorio izatea, Erdi Arotik duela ez hainbestera arte oso ezaguna eta bisitatua izan baita. Dokumentatua dago<sup>2</sup> 1756an komentuko historiagilea zen Lalastra abadeak kontaturik, feria hauek hamabost egunetako iraupena zutela eta ba omen ziren «tan abundantes y copiosas de mercaderías y ganados, que a no verlo es imposible de creer el que se junte tanta gente en un desierto y que a él vengan tantos géneros para venderse y comprarse (...) de las tres provincias, de Navarra, de Aragón, de Castilla, de las Montañas, Asturias y otras partes». 1800. urtean berrogeita bat saltoki jarri omen ziren.

Concejo situado al pie de la cima denominada Peregaña al nordeste de esta, en una pequeña vaguada que mira a levante. Limita al norte con Menagarai, desde cuyo casco se accede por carretera, al este con Quejana (Kexaa), al sur con Ozeka y al oeste con Erretes y Zuhatza. Madoz en su *Diccionario* (1845-1850) enumera para Beotegi los barrios Mimena, Elejalde, San Miguel y Zaballa, así como los caseríos Larrinza, Beotizaballa, y Casapericoarana (sic). Becerro de Bengoa en 1877 solo cita los caseríos de Beotizaballa y Mímena. En el siglo XVIII este concejo, junto con el de Zuhatza, pertenecía a la cuadrilla de Okondo. En 1950 el concejo tenía 49 habitantes, que ascendieron a 61 en 1970. Sin embargo, en el censo de población del año 2000, había bajado nuevamente a 49.

El nombre *Beotegi* hace referencia tanto al concejo como al barrio que constituye su capitalidad. En la documentación de mayor antigüedad figura con el nombre *Perea*, por haber estado originalmente la iglesia parroquial (de Santo Tomás Apóstol) y el centro del concejo en dicho lugar hasta su desplazamiento a una zona más baja al este del pico Peregaña. En 1753 se erigió la nueva parroquia, en lugar más cómodo aproximadamente sobre el actual cemen-

<sup>1</sup> Abeltzaintzaren munduan tradizionaliki, abereari dagokion erreferentzia eta substantibo multzokaria osatzekoa, animaliarene meka izan da. *Behor*ekin bezalaxe, *ardi azienda*, *behi azienda* eta abarrekin errepikatzen da fenomenoak. Hala ere, azken aldi honetan gero eta maizago entzun daitezke *zaldi azienda* bezalako esapideak ere.

<sup>2</sup> Micaela Portillak jasotako aipamena (1967, VI. liburukia, 765. or.).



*Beotegiko ikuspegi ederra*  
Hermosa vista de Beotegi

terio, siendo aneja a la de San Andrés Apóstol de Erretes. Ya en el siglo XX, ante la ruina de este segundo templo documentada en 1916, se construyó la parroquia actual de San Miguel Arcángel, inaugurada en 1918 y que con anterioridad era una ermita. El nombre del antiguo lugar pervive en el del monte *Peregaña* 'Alto de Perea' (oralmente *Perigaña*). En las formas con que se denomina oralmente el barrio, *Biótegi*, documentado en el archivo concejil en el siglo XVIII, y *Bióti*, pueden apreciarse rasgos residuales de pronunciación eusquérica: por un lado, la acentuación esdrújula propia de los topónimos eusquéricos de Ayala (Aiará) y alrededores, en lugar del \**Beotégi* que cabría esperar en castellano. Por tanto, además de habitual, la acentuación correcta es *Beótegi*, aunque por influencia del castellano, cada vez es más común escuchar aquella forma errónea *Beotégi*. En segundo lugar, percibimos tendencia a omitir la -g- entre vocales en el habla relajada, que es causa de la forma abreviada oral *Bioti*, en la que también está presente la reducción del diptongo -ei a -i, fenómeno igualmente habitual en euskera. El significado o étimo de *Beotegi* es comúnmente aceptado como formado por *behor* 'yegua' y *tegi* 'lugar', de gran similitud al nombre del pueblo navarro de *Beortegi* o del bajonavarro de *Behorlegi*. Es recurrente la pérdida de la -r final del primer componente, fenómeno que podemos observar en compuestos de estructura análoga como *adaburu* (< adar-buru), *hamabi* (< hamar-bi), *Akesolo* (< aker-solo), *Batzalarrina* (< batzar-lari(a)ina)... En Barakaldo hay un término documentado como *Biotegi* y en Oiartzun existe otro lugar, que se documenta *Beotegi* y que oralmente también es conocido como *Bioti*. Según nos informa José Luis Lizundia, en España es frecuente encontrar el topónimo equivalente 'La Yeguada', a menudo asociado

a lugares donde se celebraban ferias de ganado<sup>3</sup>. Dada su enorme proximidad, no parece descabellado suponer que el nombre actual de este concejo, sea precisamente consecuencia de la feria ganadera de Quejana (Kexaa) que ha sido muy conocida y visitada desde la Edad Media hasta no hace tanto tiempo. Se documenta<sup>4</sup> que, según el padre Lalastra, historiador del convento en 1756, duraban estas ferias quince días y eran «tan abundantes y copiosas de mercaderías y ganados, que a no verlo es imposible de creer el que se junte tanta gente en un desierto y que a él vengan tantos géneros para venderse y comprarse (...) de las tres provincias, de Navarra, de Aragón, de Castilla, de las Montañas, Asturias y otras partes». En el año 1800 se colocaron cuarenta y un puestos.

## Agirre

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493925, Y.4770900, alt. 375 m.

Eliza nagusitik gertu dagoen alderdia da, zehatz esateko, haren iparraldeko hormaren gainean, bidez beste aldean. Gaur egun eroritako etxe bat besterik ez dago aurkintzan.

*Agirre* da Euskal Herriko toponimian eta abizenetan sarrien agertzen diren ize-netako bat. *Agirre* aurkituko dugu bai Euskal Herriko mendebaldeko muturrean, Bizkaiko Enkarterriko Artzentaletan herrian, eta bai halaber ekialdeko muturrean, Zuberoako Irurin. Ahozko hizkeran ohikoa da bokaletan aldaketak egotea eta, horren ondorioz, *Agarre*, *Agerre* edo *Agerrri* formak ere entzutea. Esanahiari dagokionez, 'toki agerikoa edo nabarmena' esan nahi du, eta kasu honetan guztiz bat dator kokapenarekin, alderdia Ibaguen ibarraren gainean baitago.

Se trata de una zona cercana a la iglesia parroquial, concretamente sobre su muro norte al otro lado del camino. En la actualidad tan solo se aprecia una casa en ruinas en el paraje.

*Agirre* es uno de los nombres más abundantes en la toponimia y los apellidos de toda Euskal Herria. Encontramos el nombre *Agirre* desde lo más occidental del país en Artzentaletan, en la Encartación vizcaína, hasta lo más oriental en Trois Villes (Iruri) en Zuberoa. Oralmente son comunes las alteraciones vocálicas que dan lugar a variantes como *Agarre*, *Agerre* o *Agerrri*. Su significado es 'lugar prominente o expuesto', lo cual se ajusta perfectamente a la ubicación geográfica de la zona, asomada hacia la vega de Ibaguen.

<sup>3</sup> Tradicionalmente en el mundo ganadero, la referencia a las reses y al sustantivo colectivo ha sido siempre la hembra del animal en cuestión. Igual que *behor* 'yegua', el fenómeno se repite con las ovejas (ganado ovino), las vacas (ganado vacuno), etc. Sin embargo, modernamente se puede oír también *ganado caballar* y en euskera *zaldi-azienda*.

<sup>4</sup> Cita recogida por Micaela Portilla (1967, tomo VI, pág. 765).



*Beotegiko kokaleku ederra Peregañaren magalean*  
*Bello emplazamiento de Beotegi en la ladera de Peregaña*

## Beotegizaballa

Etxea / Casa: ED50 30T X.493675, Y.4771300, alt. 385 m.

Etxe bakartua da, Zaballa aldetik Erretesera irtenez gero, iparraldera dagoen bidea hartuta aurkituko duguna, ondoko kontzeju horretara jaisten hasi baino lehen, La Dehesa muino xumearen oinetan.

Herri erabileran *El Rincón* izena eman ohi zaio, seguruenik urrun egoteari zor diona. Hala ere, adineko pertsona batzuek *Beotizaballa* terminoa ere erabiltzen dute oraindik. Toponimo honek aldean darama *Beotegi* kontzejuaren izena eta *zabal* hitza 'lautada, ordokia' -a artikulua erantsita. Euskaraz duen esanahia argia da: 'Beotegiko zabalgunea'. Eta -l- > -ll- bihurtzeari dagokionez, ikus Beotegi kontzejuan bertan, *Zaballa* auzoaren izenerako esandakoa. Baina daitekeena da inguruko *Beotegi* eta *Zaballa* toponimoen elkarketa izatea ere, antzekoa gertatzen baita *Laudioko Lusurbeilanda* baserrian, kasu honetan *Lusurbei* eta *Landa* izeneko beste baserri bien arteko bide erdian aurkitzen baita.

Se trata de una casa aislada que, saliendo de Zaballa en dirección a Erretes, hallaremos tomando una desviación hacia el norte antes de iniciar el descenso hacia ese concejo vecino, al pie del modesto alto de La Dehesa.



Debido seguramente a su alejada situación, es conocida popularmente como *El Rincón*, aunque algunas personas de más edad aún utilizan el nombre *Beotizaballa*. El topónimo contiene en composición el nombre del concejo, *Beotegi*, y el vocablo común *zabal* 'llano' más el artículo *-a*. Su significado en euskera es transparente: 'el llano de Beotegi'. Respecto al cambio de *-t* a *-ll*, véase lo dicho más abajo para el barrio *Zaballa*, en este mismo concejo de Beotegi. También pudiera ser el resultado de la composición de los topónimos cercanos *Beotegi* y *Zaballa*, similar a lo que sucede con el caserío *Lusurbeilanda* de Llodio (Laudio), a mitad de camino entre otros dos caseríos llamados *Lusurbei* y *Landa*.

## Elexalde

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.493922, Y.4770889, alt. 370 m.

Lehen esan dugunez, gaur egun kontzejuaren izena bera erabiltzen da auzo nagusiaz aritzean ere. Han aipatu dugu, halaber (ikus *Beotegiko kontzejua*), garai bateko gunea Peregaña menditik gertuago zegoela. *Perea* eta *San Tomas* toponimoak bizirik daude oraindik mendi honen magalean, hegoaldera begira eta hilerria baino aurrerago doan basabidearen gainean, hain zuzen ere. San Tomas Apostolua zen herri hartako parrokiaren adbokazioa, eta gainera Erretesko biztanleak nahiz inguruko beste auzo batzuetakoak ere horko eliztarrak zirela dirudi. Agian horregatik aldatu zen santua Erretesko parrokiara. Beotegiko gunea leku apalago berrira aldatu zenean, parrokia berria eraiki zen gaur egun Zaballa izenez ezagutzen dugun alderdiaren inguruan. San Andres Apostoluari eskainitako eliza hori ia erorita zegoen 1916 inguruan. Seguruenik horregatik inauguratu zen 1918an Done Mikel Goiaingeruaren parrokia berria, lehenagotik santu honi berari eskainitako ermita egon zen tokian.

Madozek (1845–1850) *Elejalde* eta *San Miguel* aipatzen ditu Beotegiko auzoen artean. *Elexalde* hitza eliza nagusia dagoen gunea izendatzeko erabili ohi da Euskal Herriko mendebalde osoan. *Eliza* estandarrari dagokion *elixa* dialektalaren eratorria da, amaieran *alde* osagaia daramana eta, beraz, 'elizaren aldiria' esan nahi du. *Diccionario geográfico* hark *Elejalde* aipatzen zuenean Pereko San Tomas eliza zaharraren inguruko guneari ari bazen ere, gaur egun eliza nagusiak *Done Mikel Goiaingeruaren* adbokazioa du eta jatorrizko tenplua baino leku apalagoan dago kokatua, Madozek *San Miguel* bezala identifikatzen zuen auzoan, hain zuzen ere.

Como ya hemos dicho más arriba, en la actualidad se utiliza a menudo el nombre del concejo para designar el núcleo capital. También hemos citado allí (ver *Concejo de Beotegi*) que el núcleo antiguo, correspondiente al concejo que se denominaba Perea, se encontraba más cercano al monte Peregaña. Los topónimos *Perea* y *Santo Tomás* aún perviven en la ladera de este monte, sobre la pista que discurre por su ladera hacia el sur y más adelante del cementerio. Santo Tomás Apóstol era la advocación de la parroquia de aquella población, que además también debió de tener por feligreses a los vecinos de Erretes y otros barrios próximos. Quizá por esta razón, el santo titular se trasladó a la parroquia de Erretes. Con el



*Beotegiko gaurko Done Mikel Goiaingenuaren eliza*  
Iglesia actual de San Miguel Arcángel de Beotegi

traslado de la población de Beotegi a una zona más baja, en las inmediaciones de lo que hoy conocemos como Zaballa se construyó también un nuevo templo parroquial, bajo la advocación de San Andrés Apóstol, y se tiene noticia de su estado ruinoso ya hacia 1916. Seguramente debido a ello, en 1918 se inauguró la nueva parroquia de San Miguel Arcángel, en el lugar donde con anterioridad había habido una ermita dedicada a este santo.

Madoz (1845-1850) cita *Elejalde* y *San Miguel* entre los barrios de Beotegi. El término *Elexalde* es denominación común para los barrios parroquiales de todo el occidente del país, del euskera *elexa*, variante dialectal del estándar *eliza* 'iglesia', y *alde* 'zona, proximidad', con el significado literal 'junto a la iglesia'. Aunque el *Diccionario geográfico* se refería al antiguo núcleo en torno a la parroquia de *Santo Tomás de Perea*, la actual parroquia está dedicada a *San Miguel Arcángel* y se halla emplazada algo más abajo que el templo original, en el lugar que Madoz identificaba precisamente como *San Miguel*.

## Juncal

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494900, Y.4770125, alt. 280 m.

Kontzejuko alderik iparraldekoenean geratzen da auzo hau, zehazki, Amurriro aldetik gatzela A-624 errepidean dauden lehenengo lau etxez osatua. Menagarai aldera goazela Ibaguengo bidegurutzea igarota, lehenengoa eskuinetara dago eta beste hirurak ezkerretara. Etxeetara joateko bide-adarrak daude aipaturiko errepide nagusi horretatik.

Erromantzezko toponimo moderno honen esanahia oso argia da: ‘ihitokia’.

Se trata de una barriada situada en la zona más septentrional del concejo, compuesta concretamente por las cuatro primeras casas que se ubican junto a la carretera general A-624 viniendo de Amurrio. Una vez pasado el cruce de Ibaguen en dirección a Menagarai, hallamos la primera a la derecha y las otras tres a la izquierda. Se accede a ellas desde la citada carretera por pequeños ramales.

El significado de este moderno topónimo en lengua romance es con toda claridad ‘lugar de juncos’.

## Larrintza

Etxea / Casa: ED50 30T X.494149, Y.4770648, alt. 350 m.

Beotegiko gunearen ondo-ondoan, hego-ekialdera dagoen etxe bat da, Kexaara doan errepidearen ezkerreko hegian. Lautadan dago, Ibaguen ibarrera ematen duen balkoi polit baten gainean, hain zuzen, eta seguruenik izenarekin zerikusia izango du kokapen horrek.

Ahozko hizkeran *Larrínza* esaten dute. Bitxia bada ere, *Mapa Topográfico Nacional* delakoan<sup>5</sup> *Rinza* ageri da, dirudienez, toponimoaren hasierako *La-* zatia gaztelaniazko *la* artikularekin nahastu ondoren, artikulua hori guztiz arbitrarioki ez jartzea erabakita. Madozek ere (1845-1850) *Larrinza* forma aipatzen du eta hala ageri da egungo udal kartografian ere. Euskarazko toponimo konposatua da, batetik *larrain* hitza daukana eta, bestetik, ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzizkia. Kasu honetan *larrain* hitzeko *-ai-* diptongoa *-i-* bihurtu da, euskaraz askotan *-baita* gaur egun ere gertatzen den fenomeno. Oso toponimo deskribatzailea da lautada batean baitago, auzo nagusiko gunetik gertu, eta baliteke garai batean *larrain* gisa erabili izana.

Se trata de una casa al sureste del núcleo de Beotegi e inmediata a este, a la vera izquierda de la carretera de Quejana (Kexaa). Su posición sobre un llamativo llano y en una bonita balconada que da vista a la vega de Ibaguen, tiene seguramente que ver con el topónimo que la designa.

Oralmente el nombre se recoge como *Larrínza*. Curiosamente el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>6</sup> rotula *Rinza*, nombre en que, tras confundir el comienzo del topónimo con el artículo determinado castellano *La*, se prescinde de él de forma absolutamente arbitraria. Madoz (1845-1850) también cita la forma *Larrinza* y así figura también en la cartografía municipal actual. El topónimo es un compuesto eusquérico que contiene el nombre *larrain* ‘era de trillar’, con reducción del diptongo *-ai-* a *-i-*, fenómeno frecuente en euskera incluso en la actualidad, más el sufijo abundancial *-tza*. Significa, por tanto, ‘las eras’, lo que resulta muy descriptivo a

<sup>5</sup> 1997, 86-I.

<sup>6</sup> 1997, 86-I.

juzgar por su ubicación en un llano y cercano al núcleo de la capitalidad, posiblemente utilizado como tal en épocas pretéritas.

## Mimena

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494199, Y.4770513, alt. 340 m.

Kontzejuaren auzoburutik Kexaara jaisten den errepidearen ezkerrean dagoen auzoa.

Auzo honen izenaren osagai nagusia *mimen* (*Salix viminalis*) substantiboa dela dirudi, eta horri *-a* euskal artikulua erantsi zaiola. Hortaz, ‘zumea’ esan nahi du. Aiaran gehiagotan gertatzen den bezala, eta iraganean euskara erabili izanaren ondorioz, *Mimena* ahoskatzen da, azentua espero zitekeena baino silaba bat lehenago daramala. Grafia horrekin berarekin jasotzen du Ricardo Becerro de Bengoak 1877ko *El Libro de Álava* liburuan. Amaitzeko, ez litzateke harritzekoa amaierako *-a* hori aurreko *-aga* baten hondarra izatea (\**Mimenaga* ‘zume tokia’).

Barriada que se ubica al lado izquierdo de la carretera que del núcleo del concejo descende hacia Quejana (Kexaa).



*Beotegiko eliza nagusia*  
Iglesia parroquial de Beotegi

El nombre de este barrio parece componerse del sustantivo *mimen* 'mimbre' (*Salix viminalis*) y el artículo eusquérico *-a*, y significa, por tanto, 'el mimbre'. Al estilo propio de Ayala (Aiara), y como residuo del uso del euskera en el pasado, se pronuncia con el acento una sílaba antes de lo que cabría esperar: *Mímena*. Con esa grafía lo recoge también en 1877 Ricardo Becerro de Bengoa en el *Libro de Álava*. Por último, no sería extraño que la *-a* final fuese la forma reducida de un *-aga* anterior (\**Mimenaga* 'lugar de mimbres').

## Perea

Lehengo auzoburua / Antigua capitalidad: ED50 30T X.493625, Y.4770650, alt. 455 m.

Peregaña mendiaren ipar-mendebaldean dagoen eremu honetan belardiak, basoak eta mendia dira nagusi. Hemen egon zen jatorrizko San Tomas Apostoluaren eliza, kontzejuko parroquia nagusia, lehenengoz 1095ean aipatzen dena. Hemen zegoen, halaber, Perea leinuaren dorretxea ere. Alderdira heltzeko, batetik, hilerrira doan basabidetik abia daiteke, hilerria igarotakoan eskuinera hartuta edo, bestela, Zaballa aldetik Erretesera doan pistatik ere hel daiteke, mendi-lepo apalean bidea utzi eta Peregañeko magalean barna.

Badirudi toponimoaren hasieran *Pere-* 'Pedro' pertsona izena daukagula, atzean *-aga* atzizkia erantsita zeramana, ondoren sinplifikatu eta *-a* bihurtuko zena, bere garaian Alfonso Irigoien (1997) hizkuntzalari eta euskaltzainak proposatu bezala. Hala ere, izen honetatik eratorritako *Peregaña* eta *Perekoarana* toponimoek hipotesi horren kontra egiten dute, amaiera hori euskal mugatzaile hutsa (*-a*) dela baitirudi, konposaketan nahiz deklinazioan galdu egiten dela erakusten dutelako: *Pere-gaña* 'Perea auzoaren gaineko mendia', *Pere-ko-arana* 'Perea auzoko ibarra'. Ameriketara badira izen bereko herri bi, bata Kuban eta besta Kolonbian. Azken honen izen osoa *Secundino Perea* da, herriaren sortzailearen ohorez jarrita. Madozek (1845-1850) ez du *Perea* auzoa aipatzen, baina eliza nagusiari *Santo Tomás de Perea* esaten dio.

Zona de prados, bosque y monte en la ladera nororiental del pico Peregaña, donde estuvieron emplazadas la iglesia original de Santo Tomás Apóstol, parroquia del concejo, que aparece citada por primera vez el año 1095, y la casa-torre del linaje de Perea. Se puede acceder a la zona desde la pista forestal que conduce al cementerio y una vez pasado este a su derecha, o bien desde la pista que saliendo de Zaballa se dirige hacia Erretes, dejándolo a la altura del modesto collado, para internarse en la ladera de Peregaña.

El topónimo parece sugerir la presencia del nombre de persona *Pere-* 'Pedro', con un final en *-aga* posteriormente simplificado en *-a*, tal y como propusiese en su día el lingüista y académico de Euskaltzaindia, Alfonso Irigoien (1997). Sin embargo, sus topónimos derivados *Peregaña* y *Perekoarana* contradicen dicha hipótesis y parecen confirmar que estamos ante el artículo vasco *-a*, pues se omite en composición o declinación: *Pere-gaña* 'alto de Perea', *Pere-ko-arana* 'la vaguada de Perea'. Existen dos localidades americanas de este nombre, una en Cuba y otra en Colombia, denominada esta última *Secundino Perea* en memoria de su funda-

dor. Madoz (1845-1850) no cita el barrio *Perea*, pero identifica la parroquia como *Santo Tomás de Perea*.

## Perekoarana

Etxea / Casa: ED50 30T X.493775, Y.4770875, alt. 380 m.

Etxe garrantzitsua izana da, agiri ugaritan aipatzen baita. Zaballa aldetik Errete-sera doan bidegurutzetik abiatuta, bada bide bat kontzejuko hilerrira eta garai batean Perea herria egon zen tokira doana, Peregaña mendiko magalean gora iparralderantz. Perekoarana etxea bide honen eskuinean dago, hilerrira heldu baino lehen.

Toponimo honetan *Perea* herriaren antzinako izena daukagu, *-ko* desinentzia eta *haran* substantiboa erantsita daramatzana, baita *-a* partikula ere. Hortaz, haren esanahia ‘Perea herriko ibarra’ izango litzateke. Gorago esan den legez, *Perea* hitzaren amaierako *-a* hori artikulua da segur aski eta deklinatzean kasu batzuetan galdu egiten da. Izenaren *-e* bokala *-i* bihurtu izana ere ez da harritzekoa, ohikoa baita ahozko euskararen *-ea* amaitzen diren hitzak *-ia* ahoskatzea. Baina daitekeena da herri etimologiak izen horren jatorrian *Perico* txikigarria zegoela uste izatea ere, hemen baino beste eskualde batzuetan ohikoagoa litzatekeena. Hala ere, *-i* hori bera ageri zaigu *Peregaña* mendiaren izenean ere, ahozko hizkeran *Perigaña* esaten baitute. Lehen esan dugun bezala, Madozek (1845-1850) *Beotegui* sarreran generikodun *Casapericoarana* forma bitxia dakar, baina halako bokalisorik gabeko *Casaperecoarana* ere aipatzen du aparteko sarrera gisara eta, horregatik, uste dugu forma normalizatu gisa azken hau proposatzea dela egokiena.

Se trata de una casa de indudable importancia a juzgar por la cantidad de documentación en que se cita. Partiendo del cruce que de Zaballa se dirige a Erretes, un camino asciende al norte por la ladera de Peregaña para llevar al cementerio del concejo y a la zona donde se ubicó la antigua población denominada Perea. La casa Perekoarana se halla a la vera derecha de este camino antes de alcanzar el citado cementerio.

En el topónimo, se halla el nombre del antiguo pueblo *Perea*, al que se ha añadido la desinencia *-ko* ‘de’ y el sustantivo común *haran* ‘vaguada, valle’ con la partícula *-a*. Sería, por tanto, ‘la vaguada de Perea’. La *-a* final de *Perea*, como ya hemos dicho más arriba, es seguramente el artículo, por lo que al declinarse en ciertos casos es obligatoria su omisión. El cambio de *-e* a *-i* puede deberse al fenómeno oral común en euskera por el que las terminaciones *-ea* se pronuncian *-ia*, o simplemente a la etimología popular que ha querido imaginar en el origen del nombre el diminutivo *Perico*, más propio de otras comarcas. Sin embargo, también vemos esa *-i* en el nombre del monte *Peregaña*, que oralmente suele recogerse *Perigaña*. Madoz (1845-1850), como ya hemos citado, da la curiosa forma con genérico *Casapericoarana* en la entrada *Beotegui*, pero también cita como entrada propia *Casaperecoarana*, sin el vocalismo citado, lo que nos impulsa a proponerla como forma normalizada.

## Zaballa

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493791, Y.4770981, alt. 370 m.

Kontzejuko auzorik mendebaldarrena da eta bertako gune nagusitik gertu dago. Parrokiatik Erretes aldera dauden etxeak dira auzo honetakoak, errepideak zeharkatzen duen mendi-lepotik hurbil. Parrokiatik Zaballa aldera doan errepidearen eskuinean, Perekoaranerako bidegurutzea baino lehenago dagoen etxeari *Torre* esaten zaio, eta bere izen osoa *Zaballatorre* da, auzoaren izenaren jatorria izanik.

Euskarazko jatorri gardeneko izena da, *zabal* 'lautada, ordoki' hitz arruntari *-a* artikulua erantsita sortu baita. *Zaballa* izena eman duen *-l- > -ll-* aldaketa ere oso ohikoa da Euskal Herriaren mendebaldeko toponimian, eta seguruenik garai batean inguru honetan hitz egiten zen euskararen hondarren bat izango da. Hala gertatzen da *Ollabarre*, *Ullibarri* etab. bezalako izenetan ere. Euskal toponimoetan *-ll-* hotsa aurkitzea ohikoa da Somorrostrotik hasi (*Gallarta*, *Zaballa*...), segi Araba (*Ollávarre*...) eta Errioxan zehar Nafarroako Orbaibarreraino (*Olleta*...). Dirudenez, gaztelaniarekin muga egiten zuten eskualde hauetan euskal *L* bortitzak eta latineko *-l.l-* fonemak (*l* geminatuak) eboluzio berdina izan zuten eta gaztelaniako *-ll-* hotsa ekarri zuten. Bada Aiaran *Zaballa* izeneko mendi ezagun bat, Soxo eta Opellora gainean, Artziniegako mugatik gertu, eta Barakaldo elizatean ere dokumentatuta dago *Zaballa* izeneko kale ezaguna.

Se trata del barrio más occidental del concejo, próximo al núcleo capitalidad del mismo. Componen Zaballa las casas que encontramos al dirigirnos desde la iglesia parroquial hacia Erretes, próximas al collado por el que pasa el carril. La casa que hallamos a la derecha del camino que de la iglesia parroquial se dirige a Zaballa, inmediatamente antes de llegar al cruce de Perekoarana, es conocida como *Torre*, siendo su nombre completo, *torre de Zaballa*, origen de la denominación del barrio.

Es un nombre de étimo eusquérico diáfano, pues procede del vocablo de uso común *zabal* 'llano' más el artículo *-a*, significando, por tanto, 'el llano'. La modificación de *-l-* a *-ll-* que da origen a la forma *Zaballa* es muy propia de la toponimia de la zona más occidental del País Vasco, siendo seguramente un residuo de algún fenómeno fonético propio del euskera de la zona, como ocurre en *Ollabarre*, *Ullibarri*... Esta presencia del sonido *-ll-* en topónimos vascos es común en un arco que va desde Somorrostro (*Gallarta*, *Zaballa*...) hasta la Valdorba navarra (*Olleta*...), pasando por Álava (*Ollávarre*...) y la Rioja. Según parece en estas zonas limítrofes con el castellano la *L* fuerte vasca, tuvo la misma evolución que la *-l.l-* (*l* geminada) latina y dio lugar a *-ll-* castellana. Hay un conocido monte de nombre *Zaballa* en Aiara, sobre Soxo y Costera (Opellora), próximo al límite con Artziniega, y también se documenta una popular calle de nombre *Zaballa* en la anteiglesia vizcaína de Barakaldo.

## Erbi



1932



2000

Erbi kontzejuaren iparraldean Erretes dago, ekialdean Luxo, hegoaldean Añes eta Lexartzu, eta mendebaldean Soxo. Madozek (1845-1850) honako auzo hauek aipatzen ditu haren barruan: Lujatea, Ibarra, Gotara, la Cerrada, Albiturrita (sic), la Iglesia, Uria, Solallana eta Lallana. 1877ko *Libro de Álava* lanean, Ricardo Becerro de Bengoak hurrengo auzoak aipatzen ditu Erbin: Albiturria, La Cerrada, Gotara, Ibarra, Lujatea, San Juan eta Uria. Kontzeju hau da biztanleria gehien galdu dutenatariko bat: 1950ean 54 biztanle zituen, 1970ean 23ra jaitsi ziren eta 2000ko erroldan 5 besterik ez zegoen.

Dakigula, toki honen lehenengo agerpen dokumentala 864koa da, San Felix de Ocarí Aiara eta Menako eliza batzuk eman zitzaizkionekoa. Horien artean Añesko San Bizente monasterioa zegoen eta hor aipatzen da *Ervico* izena: *Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia et Salbantonne*. Ondoren, *Herbi* grafia zabaldu zen eta XIX. mendera arte iritsi zaigun bakarra dela esan daiteke. Hasierako *h-* letra ez da aspirazio arkaiko baten isla<sup>1</sup>, baizik eta gaztelaniaz *er-* hasiera duten hitzei *h-* jartzeko dagoen ohituraren ondorioa, hala izen arruntekin nola toki-izenekin: *ermita-hermita*, *Ermua-Hermua*, *Ermani-Hernani* etab. Izen honen inguruko etimologia gehienek bide bi hartu dituzte, biak F. Barrenengoak (1990) aipatuak: batzuen iritziz ‘erbi’ animalia izenarekin lotuta dago eta iritzi hau genuke zabalduena baina, beste zenbaiten esanetan, ‘herri bi’ litzateke jatorria. Dena dela, kontuan izan behar da lehenengo aipu dokumentalean *-ico* amaierarekin jasotzen dela, hau da, *Ervico*, ondoan datorren *Urzaniko* bezala (Añes), eta Julio Caro Barojak hizki

<sup>1</sup> Oribe, 2001.



hori latinezko *-icum* amaierarekin lotzen du, aurrekoa izen bereziren bat ez ote den pentsatzera bultzatzen gaituena. Hori dela eta, F. Mugurutzak<sup>2</sup> dokumentatutako lehen forma horretan oinarrituta, pertsona izenaren alde egiten du, (*H*)*erbius* agian, baina segurtasunez ematen ez duena. Baina egile berak iradokitzen digu toponimo hau *hierba* hitzarekin lotuta egon daitekeela. Izan ere, herriaren lehenengo forma dokumentatua, *Erviso* (864), bat letorke Erdi Aroko auzo edo monasterioek ustiatzen zituzten larre komunalen orduko izenarekin: *herbicum*. Historikoki ez litzateke harritzekoa Erdi Aroan herriak Aiarako lurren jabe egiten hasi zirenean, horietako bat lehendik belarretarako erabiltzen zen eremu batean eraikitzea. Dena dela, azkenengo silaba desagertu izana deigarria eta bitxia da, dokumentatutako *Erviso* formatik ondorengo *Erbi* honetara igarotzea, alegia. Azken fenomeno hori errazago ulertuko litzateke, *-ko* amaiera hau leku-genitibotzat hartuz gero.

El concejo de Erbi limita al norte con Erretes, al este con Luxo, al sur con Añes y Lexartzu, y al oeste con Soxo. Madoz (1845-1850) le asigna los barrios de Lujatea, Ibarra, Gotara, la Cerrada, Albiturrita (sic), la Iglesia, Uria, Solallana y Lallana. En el *Libro de Álava* de 1877, Ricardo Becerro de Bengoa cita en Erbi los caseríos de Albiturria, La Cerrada, Gotara, Ibarra, Lujatea, San Juan y Uria. Es uno de los concejos que más agudamente ha sufrido la despoblación: en 1950 contaba con 54 habitantes, en 1970 habían descendido a 23 y en el censo del año 2000 ya solo había 5.

La primera cita conocida de este lugar es del año 864, en el que con motivo de la donación a San Félix de Oca de varias iglesias de Ayala (Aiara) y Mena, entre las que se hallaba el monasterio de San Vicente de Añes, se menciona este concejo con el nombre *Erviso*: *Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Erviso et Desolio et Dobaltia et Salbantone*. Posteriormente, la grafía *Herbi* tuvo gran difusión y es prácticamente la única existente hasta el siglo XIX. La *h-* inicial no es reflejo de un arcaico sonido aspirado<sup>3</sup>, sino consecuencia de la costumbre castellana de añadir una *h-* a palabras con *er-* inicial, tanto en léxico común como en nombres de lugar: *ermita-hermita*, *Ermua-Hermua*, *Emani-Hernani*, etc. Las etimologías comúnmente dadas al nombre de esta población han apuntado preferentemente hacia el euskera *erbi* 'liebre', la más extendida popularmente, o *herri bi* 'dos pueblos' recogidas ambas por F. Barrenegoa (1990). En cualquier caso, no hay que olvidar que se documenta por primera vez con un final en *-ico*, como también sucede con *Urxaniko* (Añes), una terminación que Julio Caro Baroja relaciona con el latín *-icum* por lo que cabe pensar que se trate de un nombre propio. Por ello F. Mugurutzak<sup>4</sup>, a la vista de las formas primeramente documentadas (*Erviso*), apuesta por la presencia de algún nombre de persona, quizá (*H*)*erbius*, pero que no identifica. El mismo autor, llega también a sugerir la posible relación del topónimo con el término *hierba*, dado que la primera forma documentada del pueblo, *Erviso* (864), coincide con la denominación que solía darse a los pasturajes comunales explotados por aldeas o monasterios medievales contemporáneos a la forma documentada: *herbicum*. No sería his-

<sup>2</sup> 2000, *Zaraobe*, 73.

<sup>3</sup> Oribe, 2001.

<sup>4</sup> 2000, *Zaraobe*, 73.

tóricamente extraño que, en una época en que las aldeas medievales empiezan a ocupar las tierras ayalesas, una de ellas lo hiciese sobre un terreno dedicado previamente al herbaje. En cualquier caso, es tan llamativa como desconcertante la extraña desaparición de la última sílaba de aquel nombre, que pasa de la forma documentada *Ervico* al *Erbi* posterior y actual. Este último fenómeno se explicaría fácilmente interpretando este *-ko* como desinencia vasca de genitivo *-ko* 'de'.

## Albiturria

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490994, Y.4769455, alt. 310 m.

Auzo nagusiaren ekialdera dago etxe-talde txiki hau, Pudiarrango ibarraren beste aldean hain zuzen. Gune nagusitik hona joateko, ibarrean barna sartzen den bidea hartu behar da eta, erreka igarota, auzoraino mendi magalean zehar abiatu. Bide honetatik gertu La Cerrada izeneko etxearena izandako txabola baten arrastoak daude oraindik ere. Garai batean etxe hau apur bat beherago zegoen.

Ahozko hizkeran auzo hau *Abiturria*, *Albiturria* edota *La Biturria* ere izendatzen den arren, seinaleetan *Erbiturri* ageri da eta herriko kartografian *Erbiturria*. Dirudienez etimologia hau *Albi* eta *Erbi* nahastu zirelako sortu zen. Madozek (1845-1850) *Albiturrita* forma dakar, baina aldaera baino gehiago akatsa dela esan dezakegu. 1930ean *Albiturria* ageri da oraindik, eta horrela dago dokumentatuta 1586az geroztik. Urte horretan ageri zaigu izen hau lehenengo aldiz, jabetza bati buruzko auzi baten inguruko agirian:

«la mitad de la rueda de Inorza y de un castañal sito en Ureta, bienes que el demandante recibió en donación de su madre Francisca de Biergol y que reclama Marina de Cirión alegando haberle sido concedidos como dote, saliendo al pleito Catalina de Albiturria, que también solicita la posesión de dichos bienes por haberle sido donados para liberar una tierra perteneciente a su legítima paterna del censo [...], por sí y como curadora de sus hijas, contra Marina de Cirión, su hermana, vecina del valle de Llantenno, y su marido en su nombre y contra Catalina de Albiturria, hermana de madre de los anteriores, y su marido, vecinos de Inorza».

Elgeamendin ere (Barrundia) bada *Albiturri* toponimoa. Daitekeena da jatorrian \**Albi* pertsona izena egotea, izan ere, *Albio* eta *Albia* antroponimoak askotan dokumentatzen baitira. Nafarroan *Albi* pertsona izen moduan ageri da etxe izen batean baino gehiagotan, hala nola *Albinea* izenean 'Albiren etxea' (Ituren, Doneztebe, Oronoz...). Bigarren osagaia *iturri* da, noski, eta ondoren *-a* artikulua darama, 'Albiren iturria' izan daiteke, beraz.

Pequeño grupo de casas situado al este de la capitalidad y frente a esta al otro lado de la vaguada de Pudiarran. Se accede desde la capitalidad por un carril que entra en la vaguada para cruzar el arroyo y flanquear la ladera opuesta hasta la barriada. En las proximidades de este camino existen aún hoy restos de una cabaña que perteneció a la casa denominada La Cerrada, situada antaño más abajo.

Aunque este barrio se conoce oralmente como *Abiturria*, *Albiturria* o, incluso, *La Biturria*, en la señalización figura *Erbiturri* y en la cartografía local *Erbiturria*, lo que parece una falsa etimología popular por confusión de *Albi* con *Erbi*. La forma *Albiturrita* que da Madoz (1845-1850) parece más una errata que una variante real. Aún en 1930 figuraba como *Albiturria*, forma en que documentamos el nombre desde 1586, año en que figura en el extracto de catálogo correspondiente a un documento en torno a un pleito sobre la propiedad...

«de la mitad de la rueda de Inorza y de un castañal sito en Ureta, bienes que el demandante recibió en donación de su madre Francisca de Biergol y que reclama Marina de Cirión alegando haberle sido concedidos como dote, saliendo al pleito Catalina de Albiturria, que también solicita la posesión de dichos bienes por haberle sido donados para liberar una tierra perteneciente a su legítima paterna del censo [...], por sí y como curadora de sus hijas, contra Marina de Cirión, su hermana, vecina del valle de Llanteno, y su marido en su nombre y contra Catalina de Albiturria, hermana de madre de los anteriores, y su marido, vecinos de Inorza».

También en Elgeamendi (Barrundia) hallamos el topónimo *Albiturri*. Es posible que en origen se trate del nombre de persona \**Albi*, pues los antropónimos *Albio* y *Albia* se documentan abundantemente. En Navarra hallamos recurrente el antropónimo *Albi* en *Albinea*, 'la casa de Albi' (Ituren, Doneztebe, Oronoz...). El componente final es evidentemente *iturri* 'fuente', seguido del determinante *-a*, de modo que podría significar 'la fuente de Albi'.

## Arbileta

Errota / Molino: ED50 30T X.491080, Y.4770225, alt. 290 m.

Antzinako errota txiki bat da –eskualdean 'molinchín' esaten zaie halakoei–, Ibaizabal ibaiaren eskuinean dagoena. Oraindik ere arrastoak ikus daitezke Erretetik Lexartzu, Añes eta Angulora doan A-3630 errepedearen eskuinera, ezkerreko adarra hartuta Erbira doan bidegurutzea baino apur bat lehenago.

Izenak euskal konposatu baten antza du, lehen osagaia *ar-* lukeena, *harri* izen arruntak (*h*)*ar-* forma hori hartzen baitu gehienetan hitz konposatuetan. Ondoren *bil* dator, *biribil* hitzaren aldaera dugu eta toponimian askotan agertzen da. Amaitzeko, tokia adierazten duen *-eta* atzizkia dago, maiztasun handikoa. 'Harri biribilen edo harribolen lekua' esan nahiko luke, beraz, eta ibaiaren zolan nahiz bazterretan dauden harriekin erlazioan egongo litzateke izena. Ia gehienek onartzen dute interpretazio hori eta hala aurkeztu zuen F. Mugurutzak ere<sup>5</sup> nahiz eta F. Barrenengoak (1990) 'Erbiko olak' proposatu zuen toponimo berarentzat.

Se trata de un antiguo y pequeño molino o «molinchín», como se denominan en la comarca, situado a la orilla derecha del río Ibaizabal. Aún pueden verse sus restos a la derecha de la carretera A-3630 que procedente de Erretes se dirige a Lexartzu, Añes y Angulo, poco antes de alcanzar el cruce que por ramal a la izquierda conduce a Erbi.

El nombre parece un compuesto eusquérico de *ar-* 'piedra', forma que habitualmente adquiere el vocablo común *harri* en composición, *bil* variante de *biribil* 'redondo', también frecuen-

<sup>5</sup> 2000, *Zaraobe*, 73.



*Erbiko eliza ondotik Eskutxi mendia. Lehen planoan, Santi Kurutze ermita zaharraren oroimenezko gurutzeara*

*El monte Eskutxi desde las inmediaciones de la iglesia de Erbi.*

*En primer plano, la cruz que recuerda la antigua ermita de la Santa Cruz*

te en toponimia, y el abundante sufijo locativo *-eta*. Significaría, por tanto, ‘lugar de piedras redondas o cantos rodados’, en probable relación con los cantos rodados que ocupan el lecho y orillas del río, opción comúnmente aceptada, y presentada por F. Mugurutzá<sup>6</sup> frente a la solución ‘las ferrerías de Erbi’ que planteaba F. Barrenengoa (1990) para el mismo topónimo.

## Gotara

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491439, Y.4768993, alt. 345 m.

Gaur egun ez da inor bizi auzo honetan, baina zutik daude oraindik ere etxe bat eta txabola bat. Auzoburuaren hego-ekialdean dago, Pudiaran erreka beste aldean.

Izen hau ahoskera lauan esan ohi da (*Gotára*) eta, zenbaitetan amaierako *-n* batekin agertzen den arren, (*Gotáran*), Madozek (1845-1850) eta Becerro de Bengoak (1877) hura gabe idatzi zuten: *Gotara*. Amaierako *-n* hori kontuan izanez gero, izenaren amaierako osagaia *haran* dela esango genuke, eta eskualdean sarritan ageri da forma hori ibai arroko generiko gisa. Baina jatorrizko forman eta dokumentatuenetan ez da amaierako *-n* hori ageri, eta horregatik pentsatzen dugu herri etimologia hutsa

<sup>6</sup> 2000, *Zaraobe*, 73.

izango dela, toponimo hau antzeko amaiera duten beste batzuekin lotu nahi zuena. Nolanahi ere, hasierako osagaia *goto* etnonimoa litzatekeela pentsa dezakegu, ‘godoa’<sup>7</sup> edo, bestela berriz, *Goto* emakume-izena, Erdi Aroan askotan dokumentatua eta *Andregoto* aldaera ere baduena.

Barrio hoy deshabitado pero que aún conserva en pie una casa y una cabaña, y que se sitúa al sureste de la capitalidad, al otro lado del arroyo Pudiaran.

El nombre, pronunciado siempre de forma llana (*Gotára*), aunque en ocasiones puede hallarse con *-n* final (*Gotáran*), aparece citado sin ella por Madoz (1845-1850) y por Becerro de Bengoa (1877): *Gotara*. El último componente del nombre, si tenemos en cuenta esa *-n*, parecería ser el sustantivo eusquérico *haran* ‘valle’, muy habitual en la zona como genérico de vaguadas. Sin embargo, la forma original y la más documentada carece de *-n*, lo que nos hace pensar que no sea sino una etimología popular que relaciona este topónimo con otros de parecido final. De uno u otro modo, cabe pensar que el componente inicial fuese el etnónimo *goto* ‘godo’<sup>8</sup> o, simplemente un nombre propio de mujer *Goto*, abundantemente documentado en la Edad Media además de su variante *Andregoto*.

## Ibarra

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491277, Y.4769609, alt. 370 m.

Erdi erorita dauden etxe bi dira, erdigunearen ipar-ekialdean eta Pudiaran erre-karen beste aldean daudenak, Erbitik Luxatera doan bidearen ezkerrean, lehen herri horretara begira.

*Ibar* hitzari amaieran *-a* artikulua erantsi zaio kasu honetan eta esan beharra dago hitz hau maiz erabili dela eskualdean, baita gaztelaniaz ere, duela gutxira arte. Hala adierazten digute agirik, besteak beste, *Ybarra de San Sebastian* bezalako esapideak dakartzatelako, eta hala komentatu da gorago, Arespalditzako Zubialdea auzoaz aritzean. Orain iruzkintzen ari garen *Ibarra* tokiari erreferentzia egiten diote toponimo txiki batzuek ere, hala nola *Soibarra* eta *Barrera de Ibarra* izenek.

Se trata de dos casas en ruinas situadas al nordeste del núcleo y al otro lado del arroyo Pudiaran, a la vera izquierda del camino que va a Luxatea desde Erbi, a cuyo núcleo se asoma.

*Ibar* significa en euskera ‘vega’, con el artículo *-a* añadido: ‘la vega’. Curiosamente la palabra vasca *ibarra* ha sido de uso común en la zona, incluso en castellano, hasta época muy reciente, como puede deducirse de la documentación, donde hallamos expresiones como *la Ybarra de San Sebastian*, es decir, ‘la vega de San Sebastián’, según se ha visto al tratar el barrio Zubialde en Arespalditza. Al lugar de *Ibarra* que nos ocupa hacen referencia algunos topónimos menores como *Soibarra* y *Barrera de Ibarra*.

<sup>7</sup> Mugurutza, 2000, *Zaraobe*, 73.

<sup>8</sup> Mugurutza, 2000, *Zaraobe*, 73.

## Linares

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490108, Y.4768582, alt. 295 m.

Ibaizabal errekaaren ondoan dauden hiru txalet dira, Lantenotik Añes eta Angulo loko gainera doan A-3630 errepidearen eskuinera, Lexartzuko gunera iritsi baino apur bat lehenago, hegoaldean doi. Apur bat goraxeago, ibaiaren ezkerreko magalean, Añesko Urzaniko baserriaren aurrez aurre, errota bat egon zen eta *La Rueda* toponimoak gordetzen du horren memoria.

Gaztelaniazko izen honek ‘lihoa ereiteko lurrak’ izendatzen ditu.

Se trata de tres chalets situados a orillas del arroyo Ibaizabal, a la vera derecha de la carretera A-3630 que de Lanteno se dirige a Añes y al puerto Angulo, justo al sur y antes de llegar a la altura del núcleo de Lexartzu. Algo más arriba, en la ladera izquierda del río, frente al caserío Urzaniko de Añes, hubo un molino cuyo recuerdo aún vive en el topónimo *La Rueda*.

El nombre procede del castellano *linares*, ‘campos dedicados al cultivo del lino’.

## Llana, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490347, Y.4768886, alt. 275 m.

Ibaizabalen eskuineko ertzean dago auzo hau, ibarrean, erreka eta Lantenotik Añes eta Anguloko gainera doan A-3630 errepidearen artean. Erbiko auzo nagusiaren hego-mendebaldean dago. Etxearen ondoan zubi bat dago, erreka zeharkatu eta Buzentiko bidean gora Oribe dorrea egon zen hegaleria joatea ahalbidetzen duena.

Ikusi dugunez, Madozek (1845-1850) hitz bakarrean idazten du: *Lallana*. Oso modu deigarrian, *Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>9</sup> *Lallesa* jarri du, huts nabarmena izanik. Herriko kartografian idazkera bitxiarekin *Caserío Laliana* agertzen da. *La Llana* izena euskarazko ‘Zabala’ren parekoa litzateke. Auzoaren beheko aldean *Sollallana* izeneko baserria dago, hitzez-hitz ‘Llanaren azpikoa’ esan nahi duena, izan ere, duela ez horrenbestera arte gaztelaniazko *so-* preposizioa ‘azpiko’ esanahiarekin erabiltzen baitzen.

Barrio situado en la vega del arroyo Ibaizabal a la orilla derecha del río, entre este y la carretera A-3630 que de Lanteno va hacia Añes y puerto Angulo. Su emplazamiento se halla al suroeste del núcleo capital de Erbi. Junto a la casa, un puente permite cruzar el cercano arroyo para acercarse por el camino del Buzentí a la ladera en que estuvo emplazada la torre de Oribe.

Como ya hemos visto, Madoz (1845-1850) lo cita con el artículo junto: *Lallana*. Llamativamente, el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>10</sup> rotula aquí el nombre *Lallesa*, evidente errata. La

<sup>9</sup> 1997, 86-III.

<sup>10</sup> 1997, 86-III.

cartografía local lo hace figurar con curiosa grafía *Caserío Laliana*. El nombre *La Llana* equivaldría al vasco 'Zabala'. En la parte más baja del barrio se halla el caserío denominado *Solallana*, esto es, 'debajo de la Llana', puesto que hasta no hace tanto, la preposición castellana *so-* era de uso generalizado para indicar tal ubicación, 'debajo de'.

## Luxatea

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491252, Y.4769895, alt. 370 m.

Erbiko auzo hau Luxora pasatzeko erabiltzen den mendi-lepoaren azpian dago. Erbiko auzoburuaren ipar-ekialdean dago, Ibarra auzoa baino apur bat aurrerago, errepide berean eta Luxo dagoen muinoaren mendebaldeko magalean. Ibarra auzoaren altuera berean dago eta talaia horretatik hego-mendebaldera Erbi ikusten da. Gaur egun aparte samar dagoen auzo honetan dorretxe bat egon zen, Ibaizabal erreken beste aldeko Oribe izenekoarekin batera, Aiara eta Mesetaren arteko bidea mendean zeukatenak.

Toponimoa euskarazko konposatu argia da, eta ondoko *Luxo* kontzejuaren izena *ate* hitza eta *-a* artikulua dira haren osagaiak. 'Luxoko atea' esanahia du, beraz. Duela gutxira arte agirietan *Luxatea* ageri izan da, baina gaztelaniaz galdu egin da *-x-* horrek adierazten zuen hotsa eta *Lujatea* forma orokortu zen hizkuntza horretan.

Se trata del barrio del concejo de Erbi situado debajo del cuello que da paso a Luxo. Se ubica más precisamente al nordeste de la capitalidad de Erbi y un poco más adelante del barrio Ibarra, en la misma carretera y en la ladera oeste de la colina en la que se ubica Luxo. Desde su situación, a similar altitud que Ibarra, se domina Erbi al suroeste. En este barrio hoy en día apartado, existió una casa-torre que con la vecina de Oribe, justo al otro lado del valle del arroyo Ibaizabal, dominaba los caminos entre Ayala (Aiara) y la Meseta.

El topónimo es un evidente compuesto eusquérico del nombre del concejo vecino, *Luxo*, la palabra común *ate* 'puerta' y el artículo *-a*, significando 'la puerta de Luxo'. Hasta no hace tanto tiempo, en la documentación ha figurado siempre *Luxatea*, pero con la pérdida en castellano del sonido representado por esa *-x-*, se generalizó en ese idioma la forma *Lujatea*.

## San Juan

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.490831, Y.4769415, alt. 310 m.

Kontzejuko auzoburua da eta Ibaizabal eta Pudiaran errekek elkartzen diren tokiaren gainean dago, Erretestik Encima Angulon zehar Lexartzu, Añes eta Anguloko gainera doan errepidearen ezkerreko muino xume batean. Gorago aipatu dugu kon-

tzejuko biztanleak nabarmen gutxitu direla eta seguruenik horregatik garai batean Done Joan Bataiatzailearen parrokia zena, gaur egun ermita huts bat bezala ageri zaigu. Haren atzean kontzejuko etxea dago eta apur bat urrutirago hilerria. Elizaren ondoan Madozek Santi Kurutz «ermita muy famosa» aipatu zuen, agirietan Santa Cruz de Pando izenarekin ageri dena. Gaur egun bertako biztanleek ez dute horren oroitzapenik, baina badakigu 1883an eskola bihurtu zutela eta gure egunetan erorita dago. Hala ere, tenplutik gertu han dago oraindik ere gurutze bat, eta maiatzaren hiruan Gurutze Santuaren jaieguna ospatzen da, gauza biak aipatutako elizarekin erlazio argi eta garbian daudenak. Ermitaren izenaren ondoan ageri den Pando toponimoa, seguru asko Aiarako lehen aipuarekin batera 864ko dokumentuan ageri den berbera izango da.

Auzo hau izendatzeko modurik hedatuena parrokia izandakoaren adbokazioa den arren, zenbaitetan *La Iglesia* forma simplea ere aurkitu ahal da.

Se trata del barrio capital del concejo ubicado en un pequeño altozano sobre la confluencia de los arroyos Ibaizabal y Pudiaran, a la izquierda y sobre la carretera que de Erretes se dirige a Lexartzu, Añes y puerto Angulo por Encima Angulo. Debido seguramente al severo despoblamiento citado más arriba, la antigua iglesia parroquial del concejo, bajo la advocación de San Juan Bautista, figura hoy en día como simple ermita. Tras ella se encuentra la casa del concejo y algo más alejado el cementerio. Contigua a la iglesia, Madoz (1845-1850) cita además la «ermita muy famosa» de Santa Cruz, documentada como Santa Cruz de Pando, que aunque no vive ya en la memoria de los habitantes del concejo, en 1883 fue convertida en escuela y actualmente se halla en ruina. Sin embargo, aún existe un crucero próximo al templo y el día tres de mayo se celebra la festividad de la Santa Cruz, ambos hechos en relación evidente con aquel templo. El topónimo Pando que acompaña al nombre de la ermita, es con toda seguridad el mismo que figura en el documento del año 864, junto a la primera cita documental de Ayala (Aiara).

La forma más habitual de denominar este barrio principal es la misma advocación de la que fuera iglesia parroquial, si bien en ocasiones puede también hallarse la forma simple *La Iglesia*.

## Uria

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490826, Y.4768966, 300 m.

Gaur egun erorita dauden etxe bi dira, Erbiko auzoburutik hegoalderantz Ka-reaga errekaaren –ahoz *Káriga* deitua– ibarrean barna doan bidearen ondoan. Gerra hasi baino urte batzuk lehenagora arte bizi izan zen jendea etxeotan eta, gaur egun ere, auzora doan bideari *Camino de Uria* ‘Uriko bidea’ esaten zaio.

Izenak berak adierazten digu zein antzinakoa den. Izan ere, euskaraz ohiko *etxe* eraren ordeztu ‘etxaldea’ edo oro har ‘biztanledun lekuak’ izendatzeko *uri* erabiltzea arkaikoa da. Gainera *-a* artikulua ere badarama. Gure egunetan, ordea, *uria* hitzaren esanahia murriztu egin da, ‘hiribildua’ edo ‘ziutatea’ adierazteko erabiltzeraino, nahiz eta gauza jakina den, gaztelaniazko *villa* ere adiera bietan erabil daitekeela.



Son dos casas actualmente en ruinas ubicadas en el camino que de la capitalidad de Erbi en dirección sur, se dirige al fondo de la vaguada del arroyo Kareaga, oralmente conocido como *Káriga*. Las casas estuvieron habitadas hasta pocos años antes de la guerra. El camino que se dirige al barrio, aún en la actualidad se denomina *camino de Uria*.

El propio nombre es indicador de su antigüedad, ya que la utilización de la forma occidental eusquérica *uri* como 'casería' o 'lugar habitado en general', en lugar del más común *etxe*, es arcaica. El topónimo lleva además el determinante *-a*, significando, por tanto, 'la villa'. Su uso actual está más restringido al de 'villa' en el sentido de 'ciudad', si bien es sabido que el vocablo castellano *villa* también puede usarse en ambas acepciones.

## Erretes



1932



2000

Aiarako mendebaldean dago kontzeju hau, Lantenoren hegoaldean, Zaballa eta Peregaña mendien artean Ibaizabal errekarri bidea egiteko irekitzen den ibarrean. Iparraldean aipatutako Lanteno eta Opellora ditu, mendebaldean Soxo, hegoaldean Erbi eta Luxo, eta ekialdean Beotegi eta Menagarai. Madozen *Diccionario* delakoan (1845-1850) honako auzo hauek aipatzen dira: Retes de Suso, Axpuru, Palomar, Campo-hiza, El Puente, Repilla, Urtiaga eta la Tejera. 1877an, ordea, Becerro de Bengoak Retes de Suso besterik ez du aipatzen. Kontzeju honetan ere biztanleriak behera egin du pixkanaka baina etengabe. Madozen arabera, XIX. mendearen erdi aldera 160 biztanle zituen. 1950ean 82 zituen, 1970ean 90era heldu zen eta 2000ko erroldan 63 besterik ez dira ageri.

Bitxia bada ere, Madozek (1845-1850) kontzejuaren auzobururako *Retiz* sarrera dakar, guk hemen *Repilla* izenaz ematen dugun berbererako, alegia. *Retes de Llanteno* izen konposatua *Retes de Tudela (Erretes Tudela)* herri izenkidetik bereizteko sortu zen, biak kuadrilla berean baitzeuden, eta honako herri hauek osatzen zuten kuadrilla: *Quejana, Menagarai, Retes junto a Llanteno, Costera, Llanteno, Mendieta, Santa Koloma, Retes junto a Tudela y Sojoguti*. Antolaketarako behar horrek ekarri zuen denborarekin *de junto a Llanteno* edo *Tudela* erabiltzen hastea, handik hurbileko leku ezagunagoekiko erreferentzian, nahiz eta Erretesek ez duen zerikusirik Lantenorekin.

Aiarako etimologietan sakondu nahi izan dutenen artean, zalantzarik handiena sortu duten toponimoetako bat izan da *Retes* izena. Gehien zabaldu den bertsioak *erreta* hitzarekin alderatzen du 'erre egin dena', baina oztopo linguistiko ugari du aukera horrek eta ez da aintzat hartzeko modukoa, anekdota huts bezala ez bada. F.

Barrenengoa (1990) ere saiatu da hitz honen nondik norakoak argitzen, baina hasieratik garbi utzi zuen zalantzak zituela. Hala eta guztiz ere, *arrate* hitzarekin lotu zuen ‘harrirako pasalekua’, aurrekoa baino are onargaitzagoa. Beste egile batzuek *red* ‘sarea, bidegurutzeari’ hitzarekin lotzen dute, *Redecilla del Camino* (León) toponimoaren antzeko zerbait delakoan. F. Mugurutzarentzat<sup>11</sup>, *retes* hori beste toponimo batzuetan ere ageri da, aipatu dugun Artziniegako *Retes de Tudelan*, esaterako (Erretes Tudela), eta badirudi gaztelaniazko *red* hitzarekin zerikusia duela, ‘sarioia’ edo ‘korta’ esan nahiko lukeena<sup>12</sup>. Antzeko hipotesiak erabili dituzte beste toki batzuetan eta beste iker-tzaile batzuek ere<sup>13</sup>. Mugurutzaren esanetan, *Retes* osagaia duen aurkintza bat baino gehiago dago, adibidez, ondoko Audio herrian eta horregatik pentsa dezakegu, toki-izena barik, antzinako substantibo generikoren bat izango dela, garai batean ohikoa. Baldintza horiekin, errazago uler daiteke hain eremu geografiko txiki batean izen bereko toki bat baino gehiago egotea, eta bereizi ahal izateko *de Llanteno* eta *de Tudela* eransgarriak gehitu behar izatea.

Gai etimologiko erakargarri horiek alde batera utzita, bada beste zalantza bat ere: nola arautu behar den toponimo horren erabilera euskaraz, hizkuntza hori aspaldi desagertu zen eremu hauetatik eta hizkuntza horretan idatzitako agiririk ez dugunean. Argi dago *R*- letraz hasten den hitzik euskaraz egotea ez dela historikoki posible. Horregatik, segurtasunez dakigu hitzaren hasieran beste soinuren bat eraman behar zuela. Gauzak horrela, Euskaltzaindiak *Erreta Lantenu* planteatu zuen bere garaian euskararako. Baina denborarekin jarrera zuhurragoa hartzea erabaki zuen erakunde horrek. Ondorioz, datu frogagarri ez zegoenez, *Retes Llanteno* aldaera proposatu zuen atzera ere, agiritan euskarazko formaren ebidentziaren bat agertu arte. Euskarazko eraren lehenengo susmoa, 1745ean Urduñako *Yerro* kalean *Juan de Herretes* izeneko auzokidea bizi zela aurkitzea izan zen. Esan behar da izen honi *h*- gehitzea oso ohikoa zela gaztelaniaz *er*- hasiera zuten izenekin, *Erbi* herriaren izenaz mintzatzean argitu dugun bezala. Geroago egindako ikerketek egiaztatu dute antzina Aiarerriko herri biak izendatzeko *Erretes* izena erabili ohi zela. Horrez gainera, deitura arrunta izan zen *Erretes* Aiaratik kanpo eta azken testigantza Fontecha herriko parrokiaren aurkitzen dugu 1864an. Pixkanaka *Erretes* deitura horiek *Retes* bihurtuz joan ziren, jatorrizko aldaera gure artean desagertu zen arte. Salbuespena Amerikan dugu, hasierako bokala duen erak bizirik baitirau oraindik ere bertan. Aurreko datuen argira, nahiko garbi baieztatu daiteke *Erretes* izan zela aiarrak herri hau izendatzeko erabiltzen zuten aldaera.

Concejo situado en la parte occidental de Ayala (Aiara), al sur de Lanteno, en la vaguada que se abre entre los picos Zaballa y Peregaña para dar paso al río Ibaizabal. Limita al norte con el citado Lanteno y con Costera (Opellora), al oeste con Soxo, al sur con Erbi y Luxo,

<sup>11</sup> 2003, *Zaraobe*, 94.

<sup>12</sup> Euskaraz kontzeptu hori adierazteko *sare*, *saroi*... erabiltzen dira. Erromantzez, berriz, latinezko *maculata* hitzetik heldu den *majada* eta *red* hitzetik datorren *redil* erabiltzen dira adiera horretan.

<sup>13</sup> Echevarría, 1999.

y al este con Beotegi y Menagarai. El *Diccionario* de Madoz (1845-1850) le cita los barrios de Retes de Suso, Axpuru, Palomar, Campo-hiza, El Puente, Repilla, Urtiaga y la Tejera. Sin embargo Becerro de Bengoa en 1877, solo le asigna el caserío Retes de Suso. El progresivo despoblamiento también se ha dejado notar en este concejo. A mediados del siglo XIX Madoz le asignaba 160 almas. En 1950 tenía 82 habitantes, manteniendo hasta 90 en 1970. En el último padrón del año 2000 sin embargo, había censados solo 63 habitantes.

Curiosamente Madoz (1845-1850) también trae la entrada *Retiz* para hacer referencia a la capitalidad del concejo, que aquí denominamos *Repilla*. El nombre compuesto *Retes de Llanteno*, surgió por la necesidad de diferenciar este pueblo de su homónimo *Erretes Tudela*, también perteneciente a la Cuadrilla de Lanteno, compuesta por *Quejana, Menagarai, Retes junto a Llanteno, Costera, Llanteno, Mendieta, Santa Koloma, Retes junto a Tudela y Sojoguti*. Aquella necesidad organizativa hizo que se comenzasen a denominar con el sobrenombre de *de junto a Llanteno o Tudela*, en referencia a los lugares próximos más conocidos. Con el tiempo pasó a convertirse en *de Llanteno*, a pesar de que Erretes nada tenga que ver con Lanteno.

Sin duda, el topónimo *Retes* es uno de los que más ha desconcertado a quienes han pretendido ahondar en las etimologías ayalesas. Una de las versiones populares más extendidas ha sido la de compararlo con *erreta*, 'quemado', si bien, parece que plantea obstáculos lingüísticamente tan insalvables que no merece ser tomada en cuenta más allá de la anécdota. También sin demasiadas pretensiones y advirtiendo de la duda, F. Barrenengoa (1990) sugiere una relación con *arrate* 'pasada a la peña', que presenta mayores dificultades aún para resultar aceptable. Otros autores pretenden relacionarlo con *red*, 'red, cruce de caminos', similar a nombres como *Redecilla del Camino* (León). Para F. Mugurutz<sup>14</sup>, el genérico *retes* se puede encontrar en otros topónimos como el citado *Retes de Tudela (Erretes Tudela)* en la vecina Artziniega y parece referirse al nombre castellano *red*<sup>15</sup>, en su acepción de 'corral' o más propiamente 'redil', continuando una vía etimológica que ya había sido apuntada en otros lugares y por otros investigadores<sup>16</sup>. Corroborando la hipótesis de que realmente se trate de una palabra común, el mismo autor apunta que la existencia de más de un término con el nombre *Retes* en, por ejemplo, el municipio de Llodio (Laudio), hace pensar más en un antiguo sustantivo genérico, otrora habitual, que en un nombre específicamente propio de lugar. Sobre esta base resultaría más fácil explicar la impactante duplicidad de denominaciones en un área geográfica no muy extensa y que obligó al uso de los añadidos *de Llanteno* o *de Tudela* para poder diferenciarlos.

Al margen de las siempre atractivas cuestiones etimológicas, se nos plantea la gran duda, más acuciante aun si cabe, por la desaparición histórica del euskera en el lugar y por la inexistencia de documentación escrita en dicha lengua, de cómo normativizar el uso de dicho topónimo en euskera. No cabe duda de que un comienzo en *R* ha sido históricamente inviable en lengua vasca. Por ello sabemos a ciencia cierta que hubo de llevar un sonido de acompa-

<sup>14</sup> 2003, *Zaraobe*, 94.

<sup>15</sup> En euskera se utilizan en esa acepción *sare, saroi...*, derivados de *sare* 'red'. En romance, *majada*, del latín *maculata* y *redil*, de *red*, todas ellas con idéntico significado.

<sup>16</sup> Echevarría, 1999.



*Erretesko gune nagusiaren ikuspegia*  
Vista del núcleo principal de Erretes

ñamiento al inicio de la palabra. Así las cosas, la Academia planteó en su día como forma eusquérica *Erreta Lantenu*. Sin embargo, con el paso del tiempo, dicha institución optó por una postura más cautelosa y prudente. En consecuencia, ante la falta de datos fehacientes, volvió a proponer la forma *Retes Llanteno* en tanto no encontrase evidencias documentales de la forma eusquérica. El primer indicio de la forma eusquérica fue constatar que en 1745 un vecino de la calle *Yerro* de Orduña (Urduña) figura como *Juan de Herretes*. Cabe señalar que el hecho de añadir una *h*- al inicio de este nombre corresponde a la costumbre de hacerlo con las palabras que comenzaban por *er*, tal y como ya se ha explicado al tratar el nombre del pueblo *Erbí*. Posteriores investigaciones en los archivos de la zona han testimoniado el uso común de *Erretes* para llamar a los dos pueblos de la antigua Tierra de Ayala. Además, en el siglo XVI *Erretes* aparece como apellido habitual fuera de Ayala y el último testimonio es de 1864 en la parroquia de Fontecha. Paulatinamente aquellos apellidos *Erretes* fueron convirtiéndose en *Retes*, hasta desaparecer la forma original. La excepción la encontramos en América, en donde aún se encuentra vigente la forma con vocal inicial. Todo esto nos reafirma en la idea de que, efectivamente, *Erretes* fue el nombre común usado por los vascohablantes para denominar este pueblo.

## Aspuru

Etxea / Casa: ED50 30T X.492150, Y.4771275, alt. 210 m.

Ia erorita dagoen etxe batek eta jendearen oroimenean dirauen txabola batek osatzen dute auzo hau. Zubiaga (El Puente bezala ere ezagutzen dena) auzotik gertu

daude, Ibaizabalen eskuinaldean. Handik gertu txalet bat egin eta zubi berri bat erai-ki dute hara heltzeko. Lantenotik etorrita, eta Campoiza auzoa pasatu ondoren, A-3630 errepidearen ezkerrean dagoen adar batetik joaten da, bide nagusiak Ibaizabal zehar-katu eta auzoburura iritsi aurretik hartu beharrekoa. Izoriako kontzejuan ere bada izen bereko auzo bat.

1779an aurkitzen dugu dokumentatuta *Axpuru* forma eta horixe bera aipatzen du Madozek ere (1845-1850). Euskarazko toponimo honetan, batetik *atx* daukagu, (*h*)*aitz* estandarren mendebaldeko forma dena, eta bestetik, *buru* substantiboa. Hor-taz, 'harrizko tontorra' esan nahiko luke. Baina etxea zegoen lekua Ibaizabalen arroa-ren sakonean egonda, deskriptiboa baino gehiago, seguru asko jatorriz abizen bat izango zen.

Se reduce a una casa un tanto ruinoso y una cabaña cuya ubicación todavía se recuerda cerca del barrio Zubiaga (también conocido como El Puente), al lado derecho del río Ibaizabal. Además, cerca se ha construido un chalet, para cuyo acceso hay un puente nuevo. Se llega a él por un ramal a la izquierda de la carretera A-3630, viniendo de Lanteno y después de superar el barrio Campoiza, justo antes de que la vía principal cruce el río Ibaizabal para llegar a la capital del concejo. Existe barrio homónimo en el concejo de Izoria.

En 1779 se documenta en la forma *Axpuru*, que es también la que cita Madoz (1845-1850). Es topónimo vasco compuesto de *atx*, forma occidental del estándar (*h*)*aitz*, que significa 'peña', más el sustantivo *buru*, indicando 'cabeza' o 'prominencia', como también se dice al tratar el barrio del mismo nombre en el Concejo de Izoria. Vendría a significar, por tanto, 'prominencia rocosa' que, a juzgar por el lugar en que se ubicaba la casa, en el fondo del valle del río Ibaizabal, más que un descriptivo, sería seguramente en origen un apellido.

## Campoiza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492063, Y.4771623, alt. 210 m.

Kontzejuko gune nagusiaren iparraldean dago auzo hau, Erretestik Lantenora doan errepidearen ezkerrean. Ibaizabal errekaaren ertzean daude etxeak, zubi txiki batetik gertu, eta hori zeharkatuta, eskuinaldera auzoko beste etxe bat dago. Are behe-rago, Lantenoko bidegurutzetik gertu eta errepidearen eskuinean, *La Ibarra* izeneko etxe berri bakartua dago (ikus *Ibarra* Izorian).

1779an *Campo de Iza* aurkitzen dugu idatzita, baina Madozek (1845-1850) aipa-tzen digun *Campo-hiza* formak jadanik preposizioaren galeraren berri ematen digu. *Campo* gaztelaniazko hitza da eta esanahi argia du edozein hiztunentzat 'landa, larre'. Gainera, auzo horretatik gertu dauden izen txikiagoetan ere ageri da, hala nola *Cam-po* eta *Campolaria* izenetan. *Iza*, ordea, euskal izena dela dirudi, *ih*i landarea eta uga-ritasuna adierazten duen *-tza* atzizkiak osatua, 'ihitokia'. Daitekeena da haren jaberren baten abizenari erreferentzia egitea ere, *Iza* ohikoa baitzen eskualdean. Baina horren

berririk ez dugu eta hori horrela ote zen ondoko ikerketek argituko dute. Dena dela, hizkuntza bietako hitzak dituen toponimo hau gaztelaniaz eratu zela dirudi eta hizkuntza horretako ortografiaren arabera idatzi behar da. Hipotesi mailan, pentsa daiteke euskarazko forma *\*Itzazelaia* izango zela.

Se trata de la barriada ubicada al norte de la capitalidad del concejo, a la orilla izquierda de la carretera A-3630 que de Erretes se dirige a Lanteno. Las casas se emplazan a orillas del río Ibaizabal y en las proximidades de un pequeño puente que permite cruzar a su orilla derecha, donde se levanta una casa del barrio. Aún más abajo, próximo al cruce de Lanteno y a la derecha de la carretera, hallamos aislada la casa nueva conocida como *La Ibarra* (ver *Ibarra* en Izoria).

En 1779 figuraba como *Campo de Iza*, pero ya Madoz (1845-1850) nos da noticia de la pérdida de la preposición en la forma *Campo-hiza*. *Campo* es genérico castellano de significación diáfana para todo hablante, que además aparece en otros nombres menores cercanos al barrio, como *Campo* y *Campolaria*. *Iza* parece ser sin embargo nombre vasco compuesto de *ihi* 'junco' y el conocido sufijo abundancial *-iza*, significando, por tanto, 'junquera' o 'juncal'. También pudiera hacer referencia al apellido de uno de sus antiguos poseedores, *Iza*, común en la comarca. Sin embargo es este un aspecto que desconocemos y que habrá de resolverse con la labor investigadora. En cualquier caso, parece que la gestación del topónimo híbrido, con su preposición originaria, se dio en lengua castellana, por lo que debe escribirse conforme a la ortografía de esta lengua. Hipotéticamente se podría pensar que la forma eusquérica fuese *\*Itzazelaia*.

## Erretesuso

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492458, Y.4771384, alt. 270 m.

Gune nagusitik ipar-ekialdera dago auzo hau, Peregaña mendiaren mendebaldeko magaleko bizkar batean. Erretestik magal horretan gora doan bide batetik heltzen da auzora eta, bide horretatik jarraituz gero, Beotegira ere iristen da.

1779an *Retes de Suso* bezala ageri da eta forma hori bera aipatzen du Madozek (1845-1850) ere. Toponimian ohikoa den *de Suso* osagarri kokatzailea, erromantze arkaikoan 'goikoa' esan nahi zuen eta argi dago, beraz, kontzejuko auzo nagusiarekiko duen kokapena adierazten duela. Beste kasu batzuetan bezala, ez dugu euskarazko formaren lekukotzarik, baina eskualdeko ohiko erabilerak kontuan hartuta, *\*Erretesgotxi* edo antzeko zerbait izan zitekeen.

Barriada compacta que se sitúa al nordeste de la capitalidad, en una loma de la ladera occidental del pico Peregaña. Se accede a la barriada mediante un carril local que trepa por dicha ladera desde Erretes y que después continúa su ascenso hasta Beotegi.

Ya desde 1779 figura como *Retes de Suso*, forma también citada por Madoz (1845-1850). El ubicador *de Suso*, muy común en toponimia, significa en romance arcaico 'de arriba', lo que indica con evidencia su posición sobre el barrio principal del concejo. Como



*Erretesko etxe multzoa Palomar izenekoaren inguruan*  
*Grupo de casas de Erretes en torno a la denominada Palomar*

en otras ocasiones no disponemos de testimonios de la forma usada en euskera para llamar a este barrio, pero siguiendo los usos de la zona podría haber sido algo así como \**Erretesgotxi*.

## Repilla

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.491940,  
 Y.4771181, alt. 220 m.

Kontzejuko etxe-talderik garrantzitsuen da, San Andres Apostoluaren parrokiaren inguruan kokatua. Ibaizabalen ibilbidea segiturik Lantenotik Erbira zein Lexartzura doan A-3630 errepidearen ezker aldean dago. Campoiza auzoa eta eskuinetik Opellorara doan bidegurutzea igaro ondoren, zubi bat zeharkatu eta Repillako lehenengo etxeak izango ditugu aurrean. Auzoak hegoaldeko maldan gora jarraitzen du eta errepidea, ordea, ibaiaren ondotik hego-mendebalderantz doa.

1779ko agirietan *Repilla* bezala ageri da auzo honen izena eta Madozek ere (1845-1850) forma hori bera ematen du. Gaur egun bertakoek ez dute izen hori ezagutzen eta *Revilla* erabiltzen dute *La Iglesia* forma arruntagoarekin batera. *Repilla* forma (*h*)*arri* eta *pilla* hitzez osatutako euskal toponimoa izan liteke, ondoren, *Revilla* forma modernoagora mudatuko zena *-p-* ezpainbikaria *-b-* ozen bilakatuta, seguruenik herri etimoiaren oinarrituta, erdal *villa* 'hiribildua' hitzaren eratorria den gaztelaniazko *Revilla*



toponimo ugariarekin identifikatuko zuelako jendeak. Guztiarekin ere, ez litzateke harritzekoa izango, jatorriz \**Larrepilla* edo antzekoren bat izatea ere, eta hitzaren hasierako *larre* hori eskribauek *La Re-...* bihurtu izana, *La Rea* (Larrea), *La Rinaga* (Larrinaga), *La Reineta* (Larraineta) eta halako kasuetan bezala.

Se trata del grupo de casas más importante del concejo, que se agrupa en torno a la iglesia parroquial de San Andrés Apóstol. Se halla emplazado al lado izquierdo de la carretera A-3630 que de Lanteno se dirige hacia Erbi y Lexartzu siguiendo el curso del río Ibaizabal. Después de pasar el barrio Campoiza y el cruce que a la derecha sube hacia Costera (Opellora), un puente permite pasar el río para topar con las primeras casas de Repilla. El barrio trepa luego por una ladera hacia el sur, dejando que la carretera continúe junto al río en dirección suroeste.

Este barrio se documenta como *Repilla* en 1779 y también Madoz (1845-1850) da esta forma, si bien hoy en día es desconocido entre los vecinos, que utilizan comúnmente *Revilla*, además del más coloquial y sencillo *La Iglesia*. La forma *Repilla* bien pudiera ser topónimo eusquérico derivado de *(h)arri* 'piedra' y *pilla* 'montón', mudando modernamente a *Revilla* por simple sonorización de la bilabial -p- a -b-, como consecuencia del étimo popular que lo identificaría con el abundante topónimo castellano *Revilla*, derivado de *villa*. Tampoco sería extraño que antiguamente hubiera sido \**Larrepilla* o similar, con un *larre* 'pastizal' que, los escribanos convirtieran en *La Re-...*, como ocurre en *La Rea* (Larrea), *La Rinaga* (Larrinaga), *La Reineta* (Larraineta), etc.



*Erretesko Repilla eta Urteaga auzoez osatutako gune nagusia, Done Andres elizaren inguruan bilduak*  
Núcleo principal de Erretes, formado por las barriadas de Repilla y Urteaga, agrupados en torno a la iglesia de San Andrés

## Urteaga

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491942, Y.4771073, alt. 225 m.

Bost etxe dira, Repilla izeneko kontzejuko auzo nagusiaren goialdean daudenak, parrokiaren gainean hain zuzen ere. Garai batean iturri bat egon omen zen hor eta *Fuente de Urteaga* esaten zitzaiola gogoratzen dute bertako nagusiek. Etxe horietara joateko Erretesko gunera joateko bide bera segitu behar da, Lantenotik Erbi eta Lexartzura doan A-3630 errepidea, alegia. Zubia gurutzatu ondoren, Repillan sartzen den bidea hartuko dugu eta eliza nagusia igarota erdietsiko dugu auzoaren goialdea.

Jadanik 1779an gaurko ahozkoaren moduko *Urtiaga* forma dokumentatzen da eta Madozek (1845-1850) ere horrela eman zuen arren, herriko kartografian *Urteaga* ageri da, agian era etimologikoagoa. Mitxelenaren iritziz<sup>17</sup> euskarazko hitz eratorria da, batetik, *ur* duena eta, *-te* atzizkia jasota ‘uholdea’ esan nahia hartzen duena. Ondoren, hainbestetan erabiltzen den *-aga* toki-atzizkia ere jaso du. ‘Uholdeen tokia’ esan nahiko luke, beraz.

Se trata de un grupo de cinco casas que forman parte del núcleo principal del concejo llamado Repilla, concretamente las ubicadas en la zona más elevada del mismo, sobre la iglesia parroquial. Aún se recuerda una fuente que hubo en el lugar y que se conocía como *Fuente de Urteaga*. Se accede a estas casas igual que a la capitalidad de Erretes, desde la carretera A-3630 que viniendo de Lanteno se dirige a Erbi y Lexartzu. Tras cruzar el puente, tomamos a nuestra izquierda el cruce que entra en Repilla y sobrepasamos la iglesia parroquial para alcanzar la zona alta del barrio.

Se documenta ya en 1779 en su forma oral actual *Urtiaga* y aunque también Madoz (1845-1850) lo cita en esta forma, la cartografía local rotula, quizá más etimológicamente, *Urteaga*. Según Mitxelena<sup>18</sup> se trata de un derivado eusquérico de *ur* ‘agua’ que con sufijo *-te* significa ‘avenida, inundación’, y que además portaría el abundantísimo sufijo locativo *-aga*. Significaría, por tanto, ‘lugar de avenidas o inundaciones’.

## Zubiaga

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491660, Y.4771275, alt. 210 m.

Campoizatik Erretesko auzo nagusira doan errepidearen ondoko bizpahiru etxeak dira, zehazki, Ibaizabalgo zubia igaro eta berehala aurkitzen ditugunak, errepidearen alde bietan eta elizara nahiz haren inguruko etxe-multzora hurreratzen gaituen bidegurutzearen ondoan. Apur bat urrunago, ibaiaren ertzean eta gure eskuinean, etxe-errota ikusgarri bat dago.

<sup>17</sup> 1997, 582, 157. or.


<sup>18</sup> 1997, 582, pág. 157.

Gaztelaniaz beti *El Puente* esaten zaion arren, modu bitxian *Zubiaga* toponimoa oraindik ere erabiltzen da Ibaizabal zeharkatu eta kontzejuko auzo nagusira joateko igaro behar den zubia pasatu aurretik, errepidearen eskuinean dauden larre eta soroak izendatzeko. *Zubiaga* euskal izen konposatuak zati nabarmen bi ditu: *zubi* substantiboa eta *-aga* leku-atzizkia.

Se trata del grupo de dos o tres casas ubicadas junto a la carretera que de Campoiza se dirige hacia la capitalidad de Erretes, concretamente aquellas que encontramos nada más cruzar el puente sobre el río Ibaizabal, a ambos lados del carril y junto al cruce que deja la vía principal para acercarse a la iglesia parroquial y al núcleo que la arropa. Algo más lejos, a la vera del río a nuestra derecha, hay una casa-molino.

Aunque la forma oral actual para designar al barrio es invariablemente *El Puente*, resulta curioso que el topónimo *Zubiaga* aún siga en uso para denominar los pastizales y fincas a la derecha de la carretera y cerca del cementerio, antes de pasar el puente próximo que cruza el río para dar acceso a la capitalidad del concejo. *Zubiaga* es en euskera un compuesto del sustantivo *zubi* 'puente' y el sufijo locativo *-aga*, pudiéndose traducir con toda literalidad por 'el puente'.

## Etxegoien



1932



2000

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.498171,  
Y.4765722, alt. 310 m.

Udalerriko kontzejurik txikienetakoa da. Madozek bere *Diccionario* ezagunean (1845-1850) zehazki kokatzen du *entre dos montes muy elevados*, eta mendi horiek mendebaldean dagoen Babio eta ekialdean dagoen Burubio izango dira seguruenik. Urduñako Mendeika kontzejutik Amurrio aldera datorren ibaiaren arro horretan dago kontzejua. Madozek ez du auzorik aipatzen, baina bai suak kiskalitako etxe bat: *una casa quemada que llaman de Arriaga*. Aldiz, 1877ko *Libro de Álava* delakoan, Arecha eta Arregoico etxaldeak aipatzen dira. Hegoaldean aipatutako Mendeika kontzeju bizkaitarra dauka, mendebaldean Izoria, iparraldean Olabazar eta ekialdean Amurrio. Biztanleriari dagokionez, asko jaitsi zen 1850 eta 1870 artean. Izan ere, 1850ean 31 biztanle zituen eta 1870ean 10 besterik ez. 2000ko erroldan, ordea, 21 zituen eta badirudi Amurriotik gertu egoteak zerikusia izan duela hazkunde horrekin, herri horren zabalkunderako eremu egokia baita. XVIII. mendean Lezamako kuadrillan zegoen kontzeju hau gertuko Izoriarekin batera. Amurrio, Larrinbe, Saratxo eta Olabezarrekin batera, Armuruko batzarrean ere egon zen. San Antón de Armuru ermitagatik deitzen zen batzar hori horrela eta ermita hori Amurrioko Landako auzoan zegoen. Kontzejua Etxegoien den arren, errearen ezkerrean dagoen auzoburuari ere izen berbera ematen zaio. Zubia igaro eta ibaiaren beste aldera, Burubio mendiaren magalean etxeetatik gora bakartua, Done Mikel Goiaingeruaren ermita dago. Madozek aipatzen zuenez, ermita hau Amurriokoari atxikitako parrokia zen eta, jadanik ordu-rako (1845-1850) zerbitzu gutxi eskaintzen omen zituen. Ermita horretatik gertu,

muino baten gainean, oraindik zutik daude antzinako hilerriaren horma batzuk eta etxe bat ere bazen hor. Ermita horrek balio arkitektoniko handirik ez duen arren, badu balio historikoa, landa eremuetako garai bateko parrokiaren adibide eredugarria delako. Parrokia horiek gehienak desagertu ziren eraikin berri eta dotoreagoak egin eta ordezkatuak izan zirenean.

Aipaturiko Madozen *Diccionario* delakoan (1845-1850), egungo formaz gain, *Echegoyan* aldaera ere ageri da eta, gaur egun ere, forma hau erabiltzen dute bertakoek giro laxoan hitz egitean. Hala eta guztiz ere, zaharrena eta hizkuntzaren aldetik egokiena *Etxegoien* era da. Euskal toponimo honen osagaiak argiak dira, *etxe* izen, *goi* kokaeraren adierazle eta *-en* atzizki superlatiboa, alegia. Horren arabera, 'goren dagoen etxea' edo 'etxerik altuena' litzateke, beraz. Ameriketara –Mexikora batik bat– *Chagolla* deitura aurkitzen dugu (baita haren *Chagoll* aldaera ere), auzo honetatik Santo Domingora XVI. mendean joan eta bertan itxuraldatu zena.

Se trata de uno de los concejos más pequeños del municipio. Madoz en su célebre *Diccionario* (1845-1850) ubica el lugar *entre dos montes muy elevados*, que no son sino Babio al oeste y Burubio al este. El concejo ocupa aproximadamente esta vaguada del arroyo que desciende del concejo orduñés de Mendeika hacia Amurrio. Madoz no le cita barrios, pero sí *una casa quemada que llaman de Arriaga*. Por el contrario, el *Libro de Álava* de 1877 le asigna los caseríos de Arecha y Arregoico. Limita al sur con el citado concejo vizcaíno de Mendeika, al oeste con Izoria, al norte con Olabezar y al este con Amurrio. La población del concejo sufrió un acusado descenso entre los años 1850, en que contaba con 31 habitantes, y 1870 en que descendió hasta solo 10. En el censo del año 2000 tiene sin embargo 21, lo que puede indicar su idoneidad como zona de expansión del cercano Amurrio. En el siglo XVIII este concejo aparece en la cuadrilla de Lezama junto con el vecino Izoria. Formó parte de la Junta de Armuru con Amurrio, Larrinbe, Saratxo y Olabezar. Esta Junta tomaba su nombre de la ermita de San Antón de Armuru, sita en el barrio amurriano de Landako. Además del propio concejo en su totalidad, también se conoce por Etxegoien a la capitalidad del mismo, ubicada a la vera izquierda del arroyo. Cruzado el puente sobre el río y aislada en la ladera de Burubio sobre el núcleo de casas, se emplaza la ermita de San Miguel Arcángel, que Madoz cita como parroquia aneja a la de Amurrio y ya entonces (1845-1850) con servicios pastorales deficientes. Próximo a esta antigua iglesia, hoy ermita, sobre un altozano, aún hoy pueden verse los restos del muro del antiguo cementerio, junto al que también hubo una casa. Aunque el edificio de la ermita no tiene gran valor arquitectónico sí lo tiene histórico, pues es un ejemplo de las antiguas parroquias rurales, que en su mayoría desaparecieron al ser sustituidas por nuevas edificaciones más grandes y majestuosas.

El citado *Diccionario* de Madoz (1845-1850) utiliza junto a la forma actual, la variante *Echegoyan*, que además es habitual en el habla local en la actualidad. Sin embargo, la forma más antigua documentada y la que lingüísticamente parece más adecuada es *Etxegoien*. El topónimo eusquérico se compone claramente de *etxe* 'casa', *goi* 'arriba' y el sufijo superlativo *-en*. Significa por lo tanto 'la casa más alta' o 'de más arriba'. En América –México sobre todo– hallamos el apellido *Chagolla* (y su variante *Chagoll*), originario de este lugar y emigrado inicialmente a Santo Domingo en el siglo XVI, donde sufrió esa transformación.



*Done Mikel Goiaingeruaren ermita Etxegoienen*  
Ermita de San Miguel Arcángel en Etxegoien

## Arriagagoiko

Etxea / Casa: ED50 30T X.498487, Y.4766346, alt. 330 m.

Babio mendiaren ekialdeko magalean dago etxe hau, auzoburuaren iparraldean kokatua.

1877an Becerro de Bengoak aipatzen duen *Arregoico* forma guztiz bat dator gaur egun ahozko hizkeran erabiltzen denarekin. Hala ere, egungo idatzizko iturri guztien arabera, hasiera *Arri-* da. Madozek suak kiskalitako *Arriaga* izeneko etxe bat aipatzen du eta segur aski izen horrekin erlazioan dago. Horrenbestez, (*h*)*arri* izena, *-aga* leku-atzizkia ‘harrien lekua’, eta ondoren *-goiko* kokatzailea izango lirateke osagaiak. Eta *-aga* atzikiaren galera, ondoren *-goiko* osagaian antzeko hotsa egoteak ekarriko zuen, hori kakofonia bezala hartu eta modu honetan saihestuko baitzuten: *Arriagagoiko* > *Arriagoiko* > *Arriagoiko*.

Se trata de una casa en la ladera oriental de Babio, situada al norte del núcleo capitalidad del concejo.

Citada por Becerro de Bengoa en 1877 en la forma *Arregoico*, coincidente con el uso oral actual, todas las fuentes actuales coinciden en el comienzo *Arri-*. Está sin duda en relación con la casa *Arriaga* que Madoz indica como quemada, de modo que su origen se explica por *Arriaga* de (*h*)*arri* y el sufijo locativo *-aga*, significando ‘lugar de piedras’, más el ubicador *-goiko* ‘de arriba’, en definitiva ‘Arriaga de arriba’. La supresión del *-aga*, pudiera ser consecuencia de la proximidad de otro sonido consonántico similar en *-goiko*, que sería percibido como cacofonía y evitado de ese modo: *Arriagagoiko* > *Arriagoiko* > *Arriagoiko*.

## Intxaurzabala

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498750, Y.4766375, alt. 285 m.

Arriagatik Etxegoienera doan errepidearen eskuinean dauden hiru etxeek osatzen dute auzoa, zehazki, Los Yerros izeneko eraikinak atzean utzita, bidearen ondoan lerroz-lerro daudenak, Amurriora doan bidegurutzea baino lehen.

Ahozko hizkeran *Txozabála* esaten zaio eta herriko kartografian ere aurkitzen dugu forma hau, jatorrizko era nahiko itxuragabetuta ematen duena. Mendebaldeko euskalkietan ohikoa da *au* > *o* diptongoaren sinpletzea. Gauzak hala gertatu badira, toponimoa *intxaur* (*Juglans regia*) izenaren eratorria izango litzateke, *zabala* adjektiboa ere eramango lukeena. Duela gutxi, Arriagako bidegurutzetik Etxegoienera doan errepide honi izena aldatu eta *Paseo de Babio* eztabaidatua ezarri diote, tradizioz eta erabilerarik gabea eta, seguru asko, posta zerbitzuaren beharrek eraginda.

Se trata de tres casas situadas a la vera derecha de la carretera que de Arriaga se dirige hacia Etxegoien, concretamente aquellas que dejando atrás las edificaciones conocidas como Los Yerros, se encuentran alineadas con la carretera hasta el cruce del carril que baja a Amurrio.

El uso oral es *Txozabála*, variante bastante deformada del original que hallamos en la cartografía local. La reducción del diptongo *au* > *o*, no es extraña en las variedades occidentales del euskera. De ser así, el topónimo sería un compuesto eusquérico de *intxaur* 'nogal', (*Juglans regia*), y *zabala* 'ancho', que significaría, por tanto, 'nogal ancho'. Recientemente esta ruta asfaltada, que abarcaría desde el cruce de Arriaga hasta el propio Etxegoien, ha sido bautizada con el controvertido nombre de *Paseo de Babio*, más motivado por necesidades postales, que por tradición o uso alguno.

## Yerros, Los

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498675, Y.4766825, alt. 285 m.

Auzo honetan zenbait etxe daude, tradizionalki Los Yerros izenaz ezagutzen dena ez ezik, azken denboretan eraikitako beste berri batzuk ere. Arespalditzatik Amurriora doan A-624 errepidetik goazela, Arriaga auzora helduta, Etxegoienerrantz doan eskuineko adarra hartuko dugu. Eskuineko lehenengo etxea Olabezarko dermioan dago, baina hurrengoak dira –betiere gure eskuinean– Los Yerros auzoa osatzen dutenak. Auzoak Amurriorekin egiten du muga, banalerroak errepidearen ondotik segitzen baitu, ezkerreko bazterretik beti.

*Mapa Topográfico Nacional* delakoan<sup>1</sup> *Los Hierros* forma ageri da, izen horretako etxeari dagokiona. Herriko kartografian, ordea, *Los Yerros* idatzi da, bertako erabile-

<sup>1</sup> 1997, 86-IV.

rarekin bat datorrena. Arriagako bidegurutzetik Etxegoien aldera doan errepideari izena aldatu diote eta orain *Paseo de Babio* da, kontzejuaren hegoaldean dagoen mendiari erreferentzia egiten diona.

Conforman esta barriada varias casas, concretamente la tradicionalmente conocida con este nombre y alguna otra de reciente construcción. Se accede a ellas desde la carretera A-624 que procedente de Arespalditza se dirige a Amurrio, tomando el carril a nuestra derecha a la altura del barrio Arriaga para dirigimos por él a Etxegoien. Una primera casa a la derecha aún se halla en término de Olabazar, siendo las dos siguientes, siempre a nuestra derecha, las que conforman esta barriada, lindante con el término de Amurrio, cuya muga discurre paralela al carril pero por su orilla izquierda.

En el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>2</sup> figura la forma *Los Hierros* asignada a la casa tradicionalmente conocida por este nombre. Sin embargo, en la cartografía local se ha rotulado *Los Yerros*, más acorde con el uso local. La ruta asfaltada que del cruce de Arriaga se dirige hacia Etxegoien, se ha denominado recientemente *Paseo de Babio*, en referencia al monte que se levanta sobre el concejo al sur.

---

<sup>2</sup> 1997, 86-IV.



## Izoria



1932



2000

Babio mendiaren mendebaldeko arroan dago kontzeju hau, hura eta Pico de Asnos mendien artean. Madozek Bagaza izena ematen dio azken honi. Ibaiak ere kontzejuaren izen bera du: Izoria. Iparraldean Arespalditza eta Murga ditu; ekialdean Amurrio, Etxegoien eta Olabezar; hegoaldean Maroño eta Urduñako Belandia kontzejua, eta mendebaldean Menoio. Madozen *Diccionario* delakoan (1845-1850), lau auzo bakarrik aipatzen dira: Ibarbuen (sic), Izoria, Echevarría eta Puente de Arechavala. Becerro de Bengoak, aldiz, 1877an dio kontzeju honetakoak direla Aguirre, Aspuru, Bechi, Chavarri, Lárrabe, Mendívil, Ripa eta Ullíbarri. XVIII. mendean kontzeju hau Lezamako kuadrillan agertzen da Etxegoienekin batera. Azkenengo mende erdian biztanle kopuruan ez da gorabehera handirik egon. Izan ere, 1950ean 121 biztanle zituen, 1970ean 128 eta 2000ko erroldan 126 ageri dira. Hau baino lehenago, Madozen esanetan, 1850 aldera 143 biztanle zituen. Izoria izena maiz erabiltzen da auzo nagusia izendatzeko ere, baina elizaren ondoko etxe taldeari Erripa ere esaten zaio, baita San Julian ere, elizaren adokazio bietako bat horixe baita: San Julian eta Santa Basilisa.

*Izoria* toponimoa ongi dokumentatuta dago eta intereseko aldaerarik ez du. Jatorria eta etimoa zeintzuk diren seguru ez dakigunez, ez gara ausartzen oinarri gutxi-ko hipotesirik plazaratzen. Dena dela, merezi du toki honi buruzko lehenengo aipua-  
ren sinopsia egitea, Valladolideko Errege Entzutegiaren eta Kantzelaritzaren agiritegian aurkitu duguna<sup>1</sup> eta 1560ko data daramana:

<sup>1</sup> Pleitos civiles, Escribanía Taboada, Pleitos olvidados, C, L 206, 30, CA, folioak.

«Acusar a los demandados de hacer ligas y monopodios para se alzar y hacerse señores de los dichos oficios (de república). Nombran a personas idiotas y de baja manera que no tienen ciencia ni suficiencia alguna para administrar y usar los dichos oficios por ser como son personas muy ignorantes y simples, todos arrieros y mulateros, personas que no saben leer ni escribir. Los concejos de Llantenno, Menagaray, Zuaza, Izoria, Aguiñiga y Salmantón, contra Diego Ortiz de Urrutia, Hernando Ortiz de Ugarte y consortes, alcaldes, diputados y electores de oficios de justicia de la Tierra de Ayala».

Concejo situado en la vaguada que desciende al oeste del monte Babio, entre este y el pico de Asnos, que Madoz denomina Bagaza, y cuyo río toma el nombre del concejo. Limita al norte con Arespalditza y Murga; al este con Amurrio, Etxegoien y Olabezar; al sur con Maroño y el concejo orduñés de Belandía, y al oeste con Menoio. En el *Diccionario* de Madoz (1845-1850), tan solo se le citan cuatro barrios: Ibarbuen (sic), Izoria, Echevarría y Puente de Arechavala. En cambio, Becerro de Bengoa en 1877 le asigna los caseríos de Aguirre, Aspuru, Bechi, Chavarri, Lárrabe, Mendivil, Ripa y Ullíbarri. En el siglo XVIII este concejo aparece en la cuadrilla de Lezama junto con el vecino Etxegoien. La población no ha sufrido grandes cambios en el último medio siglo, ya que en 1950 tenía 121 habitantes, en 1970 128 y en el censo del año 2000 se le asignaban 126. Con anterioridad, Madoz le asignaba hacia 1850 143 almas. El nombre Izoria se utiliza también a menudo para denominar a la capitalidad del mismo, si bien el grupo de casas junto a la iglesia se conoce también como Erripa, además de San Julián, que no es sino la primera parte de su doble advocación: San Julián y Santa Basilisa.

El topónimo *Izoria*, bien documentado y sin variantes de interés, es de origen y étimo incierto, por lo que no nos atrevemos a especular con hipótesis poco fundamentadas. Merece citarse, sin embargo, la sinopsis de la primera cita de este lugar, que hemos hallado en el archivo de la Real Audiencia y Chancillería de Valladolid<sup>2</sup> y que data de 1560:

«Acusar a los demandados de hacer ligas y monopodios para se alzar y hacerse señores de los dichos oficios (de república). Nombran a personas idiotas y de baja manera que no tienen ciencia ni suficiencia alguna para administrar y usar los dichos oficios por ser como son personas muy ignorantes y simples, todos arrieros y mulateros, personas que no saben leer ni escribir. Los concejos de Llantenno, Menagaray, Zuaza, Izoria, Aguiñiga y Salmantón, contra Diego Ortiz de Urrutia, Hernando Ortiz de Ugarte y consortes, alcaldes, diputados y electores de oficios de justicia de la Tierra de Ayala».

## Agirre

Etxea / Casa: ED50 30T X.496274, Y.4766732, alt. 280 m.

Izoriatik Sopenña aldeko auzoetara doan A-3618 errepidearen eskuinean dago, Iburguen auzora heldu aurretik eta Belandiara joateko erreka zeharkatzen duen bidegurutzea baino lehenago. Etxea duela gutxi eraberritu dute eta errepidea baino gorago dago, Izoria ibaiaren ibarrera begira.

<sup>2</sup> Pleitos civiles, Escribanía Taboada, Pleitos olvidados, C, L 206, 30, CA, folios.

Etxeak daraman *Agirre* izenak ‘toki nabarmena’ edo ‘agerikoa’ esan nahi du eta Euskal Herriko toponimorik ohikoenetarikoa da eta, horregatik, abizen bezala ere oso ohikoa da. Izoriako baserri legez aipatu zuen Ricardo Becerro de Bengoak 1877an, *Aguirre* gaztelaniazko grafia erabili zuen arren. Aurreko beste adibide batzuetan esan den moduan, izen honen lekukotzarik mendebaldarrena Enkarterriko Artzentalesen daukagu, Santa Cruz auzoan, eta hortik aurrera erraz dokumentatuko dugu Zuberoako Iruri herriraino. Ahoz oso ohikoak dira *Agarre*, *Agerre* edo *Agerri* aldaerak.

Se encuentra a la vera derecha de la carretera A-3618 que de Izoria se dirige a los barrios de la sopeña, antes de alcanzar el barrio Ibarquen y el cruce que pasa el río para dirigirse a Belandia. La casa, recientemente remozada, se alza por encima de la carretera dominando la vega del río Izoria.

El nombre de esta casa, *Agirre*, viene a significar ‘lugar prominente o expuesto’ y es probablemente uno de los topónimos más comunes en toda Euskal Herria, siendo, por tanto, también frecuente su uso como apellido. Aparece citado como caserío de Izoria, en la grafía castellanizante *Aguirre*, por Ricardo Becerro de Bengoa en 1877. Como ya se ha dicho en ejemplos anteriores, el testigo más occidental de este nombre lo tenemos en el barrio de Santa Cruz de Artzentales, en las Encartaciones (Enkarterri), desde donde se puede documentar hasta Trois Villes (Iruri) en Zuberoa. Oralmente es común el cambio a *Agarre*, *Agerre* o *Agerri*.

## Aretxa

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496736, Y.4767717, alt. 295 m.

Auzoburutik mendebaldera dagoen auzo bildua da, haren gainean eta Pico de Asnos edo Bagatza mendiaren magalean.

*Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>3</sup> *Arotxa* dakarren arren, akatsa izango da seguruenik. *Arretxabe* toponimo txikiagoa ere akatsa delakoan gaude, eta horrez gain gaizki kokatuta dago, argi baitago izen horrek auzoaren azpian dagoen magalari egiten diola erreferentzia, euskaraz *Aretxa-be* ‘Aretxa azpian’ delako. Argi dago *Aretxa* izena *aretx* hitzetik datorrela, mendebaldeko euskalkietan ohikoa dena (Bizkaian, Araban eta Gipuzkoako mendebaldean) eta euskara estandarreko *haritz* hitzaren ordaina. Berez, zuhaitz mota baten izena bada ere (*Quercus robur*), zentzu zabalagoan toponimian ‘zuhaitz’ ere esan nahi ei du. Gure leku-izenean amaieran *-a* artikulua erantsita darabala dirudi. Daitekeena da, ordea, haren atzean jatorrizko *-aga* amaiera (leku-atzizkia) ezkutatzea, izenaren esanahia antzekoa izango zelarik.

<sup>3</sup> 1997, 86-III.

Barriada concentrada al oeste de la capitalidad del concejo y un poco elevada sobre esta en la ladera del Pico de Asnos o Bagatza.

El *Mapa Topográfico Nacional*<sup>4</sup>, seguramente por errata, rotula *Arotxa* y también por errata el derivado menor *Arretxabe*, que además está mal ubicado, pues designa con toda evidencia la zona de ladera bajo el barrio, toda vez que *Aretxa-be* es en euskera ‘debajo de Aretxa’. El nombre *Aretxa* procede claramente de *aretx*, palabra común propia del euskera occidental (Bizkaia, Álava y oeste de Gipuzkoa), equivalente del estándar *haritz* y que significa ‘roble’ (*Quercus robur*), si bien, en sentido más amplio, en toponimia también parece significar ‘árbol’. En nuestro topónimo aparece seguido del artículo *-a*, significando por tanto ‘el roble’ o ‘el árbol’. Aunque no debemos olvidar que este resultado puede ocultar un final en *-aga* (sufijo locativo) con similar significado.

## Aretxabala

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497496, Y.4768270, alt. 245 m.

A-3618 errepidearen inguruko etxeak dira. Errepide hori Izoriako auzoburura doa Amurrio eta Artziniega lotzen dituen A-624 nagusiagotik abiatuta. Auzo hau errepide nagusiaren eta kontzejuko hilerriaren artean dago. Madozek (1845-1850) kontzejuko auzoen artean Puente de Arechavala aipatu zuen. A-624 errepidean bada Izoria ibaiaren gainean zubi bat eta seguruenik zubiaren inguruko etxeak izango dira auzo horretakoak, baita errekaen beste aldean Olabazarren nahiz Murgan daudenak ere. Apur bat gorago, errepidea zeharkatu ondoren, iparraldeko hegia Murgakoa da eta eremuari Los Olmos izena eman ohi zaio.

Izenak zati bi ditu: *aretx*<sup>5</sup> eta *zabal*. ‘Haritz zabala’ edo ‘Aretxako lautada’ litza-teke, beraz.

Se trata del grupo de casas situadas en las inmediaciones de la carretera A-3618 que del cercano cruce de la carretera general A-624 de Amurrio a Artziniega, se dirige a la capitalidad de Izoria, precisamente entre dicho cruce y el cementerio del concejo. Madoz (1845-1850) cita entre los barrios del concejo el Puente de Arechavala que, casi con toda seguridad se refiere al grupo de casas próximas al puente por el que la carretera A-624 cruza el río Izoria, y que sin duda también se perciben como parte de esta barriada aunque estén en Murga o en Olabazar. Un poco más arriba y al otro lado de la carretera, la zona al norte pertenece a Murga y se conoce con el nombre de Los Olmos.

El nombre se compone de *aretx* ‘roble’ o ‘árbol’<sup>6</sup> y *zabal* ‘ancho, extenso’ o ‘llanada’. Sería por lo tanto ‘el roble ancho’ o ‘la llanada de Aretxa’.

<sup>4</sup> 1997, 86-III.

<sup>5</sup> Ikus *Aretxa*.

<sup>6</sup> Véase *Aretxa*.

## Aspuru

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497330, Y.4767305, alt. 290 m.

1877ko *Libro de Álava* lanean grafia honekin aipatzen da auzo hau. Babioren ipar-mendebaldeko pare bat etxe dira, auzoburutik Larrabera doan bidean daudenak.

Izen honen osagaietan, batetik *atx* daukagu, (*h*)*aitz* estandarren mendebaldeko forma dena, eta kontsonante aurrean *as-* bilakatu ohi dena (*Aspe*, *Astxiki*...); eta bes-tetik, *buru* substantiboa. Hortaz, ‘harrizko tontorra’ esan nahiko luke. Izen bereko etxea egon zen Erretesen.

Barrio citado con esta grafía en el *Libro de Álava* de 1877 y que en la actualidad designa un par de casas en la ladera noroccidental del Babio, en el camino que de la capitalidad sube hacia Larrabea.

El nombre se compone del sustantivo *atx* ‘peña’ palabra propia del euskera occidental, en euskera estándar *haitz*, que ante consonante se simplifica en *as-* (*Aspe*, *Astxiki*...), más *buru* ‘cabeza’. Viene a significar, por tanto, ‘peñasco, punta rocosa’. Existió casa del mismo nombre en Erretes.

## Betxi

Etxea / Casa: ED50 30T X.496850, Y.4767767, 285 m.

Gaur egun jadanik desagertua den etxe hau Aretxa auzoaren beheko aldean omen zegoen, Erripara artez jaisten den bidearen eskuinean.

Izenaren jatorrian *beiti* dago ‘behekoa’, eta Aiara forma hori *betxi* ahoskatu izan da, amaierako *-ti* guztiak *-txi* bihurtzeko ohitura zegoelako eta eskualdeko antzinako euskararen aztarna dugu, segur aski. Non zegoen kontuan izanik, baliteke \**Aretxabetxi* formaren laburdura izatea, hori izan baitzitekeen ondoko Menagarai kontzejuko *Aretxabajo* auzoaren euskal izena.

Casa hoy desaparecida y que se ubicó en la parte baja del barrio Aretxa, a la derecha del camino que baja directamente a Erripa.

El nombre procede del común *beiti* ‘abajo’, que en Ayala (Aiara) da lugar invariablemente a *betxi* debido a la extendida costumbre local de convertir los *-ti* finales en *-txi*, probable residuo de la antigua variedad eusquérica ayalesa. Dada su ubicación, pudiera tratarse en origen de una forma abreviada de \**Aretxabetxi*, ‘Aretxa de abajo’, probable nombre eusquérico de *Aretxabajo*, barrio del vecino concejo de Menagarai.

## Erripa

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.497120, Y.4767830, alt. 250 m.

Kontzejuko gune nagusia da eta etxeak ez daude beste auzoetan bezain sakabainatuta. Haren erdian San Julian eta Santa Basilisari eskainitako parrokia dago, eta elizaren aurrean kontzejuko aretoa. Herriko jaiak urtarrilaren 7an izaten dira, San Julian egunean. Herria Izoria ibaitik gertu dago, haren ezkerredera.

Normalean auzo hau izendatzeko kontzejuaren izena erabiltzen da: *Izoria*. Madozek ere (1845-1850) *Izoria* izen bereko kontzejuaren auzoa dela dio eta aparteko sarrera ematen dio bere *Diccionario* delakoan. Baina *Libro de Álava* delakoak *Ripa* aipatzen du kontzejuko etxaldeen artean. Gaztelaniaz *Ripa* esan ohi zaio eta euskarazko *erripa* hitzetik dator ‘erreka bazterra, erribera’. Oso ohikoa da hasierako bokala galtzea, administrazioek bokal hori kendu egiten baitzuten ondoren *-r-* dardarkari anitza zegoenean, eta hala gertatu da adibide hauetan ere: *Errekalde* > *Recalde*, *Errigoitia* > *Rigoitia* etab. Administrazioak moztutako forma hori ohiko bihurtu zen Aiaran euskarara galtzearekin batera.

Se trata de la barriada más concentrada del concejo y capitalidad del mismo. En su centro se emplaza la iglesia parroquial bajo la advocación de San Julián y Santa Basilisa, y frente a la iglesia la sala del concejo. La fiesta local es el 7 de enero, día de San Julián. El núcleo se encuentra próximo al río Izoria en su orilla izquierda.



*Erripa Izoriako auzo nagusia*  
*Erripa barrio capital de Izoria*

Habitualmente suele darse a esta barriada capital el nombre del concejo: *Izoria*. Así hace Madoz (1845-1850) al citar *Izoria* como barrio del lugar homónimo, y dándole además entrada diferenciada en su *Diccionario*. Sin embargo el *Libro de Álava* sí nombra *Ripa* entre los caseríos del concejo. En castellano el nombre usual es *Ripa*, procedente del euskera *erripa* 'ribera', y la pérdida de la vocal inicial es consecuencia de la costumbre de las administraciones de suprimir esta en los casos en que va seguida de la vibrante múltiple *-rr-*, como ocurre en *Errekalde* > *Recalde*, *Errigoitia* > *Rigoitia*, etc. La forma mutilada propuesta por la administración pasó a ser de uso común con la pérdida del euskera en Ayala (Aiara).

## Etxabarri

Antzinako auzoa / Antiguo barrio: ED50 30T X.496625, Y.4767500, alt. 280 m.

Gaur egun lursail soila den arren, garai batean baserri bat egun zela atxikitzen dute gogoan bertakoek. Hala ere, Madozek (1845-1850) hiru etxeko auzo bezala aipatzen du. Aretxa aldetik hegoaldera doan errepidean zegoen, Ibaguendik Maroñora doan A-3618 errepideko bidegurutzea baino lehen.

Izen honen osagaiak argiak dira: batetik, *etxe* daukagu eta, bestetik, *barri*, euskara estandarreko *berri* formaren mendebaldeko aldaera. Lehen ere aipatu dugunez<sup>7</sup>, *Etxebarri* forma *Uribarri* aldaera zaharragoaren era moderno dugu, 'biztanledun lekua' adiera zabalean. 1475ean *Bienandanzas e Fortunas* liburuan *Echavarria* idazkeran ageri da. Pascual Madozen *Diccionario* ezagunean (1845-1850) oraindik *Echevarria* forma osoa ageri da, amaierako *-a* ez ezik, gaur egun zeharo galdu den hasierako *E-* bokala ere daramala, erabileran entzun daitekeen formarik hedatuena *Txabarri* baita. Oso ohikoa, zaharra eta dokumentatua da hitz konposatuetan *etxe-* hitza *etxa-* bihurtzea eta, beraz, modu horretan arautu daiteke.

En la actualidad se trata tan solo de un terreno en el que aún se recuerda que hubo un caserío, pero que Madoz (1845-1850) cita como barrio con tres casas. Se hallaba emplazado a lo largo del camino que de Aretxa se dirige hacia el sur y antes de alcanzar la confluencia del carril con la carretera A-3618 que de Ibaguen se dirige a Maroño.

El nombre es un compuesto de *etxe* 'casa' y la forma propia del euskera occidental *barri* 'nueva', significando, por tanto, 'casa nueva'. Como ya hemos comentado en otros casos<sup>8</sup>, en realidad *Etxabarri* viene a ser el equivalente moderno de *Uribarri* en su sentido de 'villa nueva'. Lo hallamos en 1475 escrito *Echavarria* en las *Bienandanzas e Fortunas*. En el *Diccionario* de Pascual Madoz (1845-1850) todavía figura la forma completa *Echevarria*, sin la pérdida de *e-* inicial que ha dado lugar al *Txabarri* actualmente extendido en uso, y que además porta aún el artículo *-a*. El vocalismo por el que en compuestos *etxe-* pasa a *etxa-* es muy frecuente, antiguo y atestiguado en euskera, por lo que puede normalizarse en esa forma.

<sup>7</sup> Ikus, adibidez, *Uria* Erbiko kontzejuan.

<sup>8</sup> Véase, por ejemplo, *Uria* en el concejo de Erbi.

## Ibarguen

Baserría / Caserío: ED50 30T X.496275, Y.4766725, alt. 280 m.

Izoriako azkenengo baserría da, hemendik Maroñora doan errepedearen ezkerrean dagoena, ezkerretik Urduñako Belandia kontzejura eramango gintuzkeen bidegurutzea baino apur bat lehenago. Hemen zegoen izen bereko dorrea ere eta oinetxearen orube berean dago gaur egun baserría. Ibarguengo dorrea Aiarerriko ahaide nagusi batzuen zen. Hartaz aurkitzen dugun lehen testigantza 1475eko *Bienandanzas e Fortunas* liburukoa da eta *Ibargoen* moduan ageri da, 1419an Murgako baten heriotzak ekarri zituen mendeku katea azaltzean:

«Despues mataron estos de Murga e de Ibargoen en tregua malamente a Juan Perez de Norrieza e a Lope de Lavarrieta e a Martin Ferrero a las puertas de sus casas; e despues mataron los de Largacha a Palacio a Diego d'Echavarria e a Furtuno de Rio de Ayega e a Diego de Mimetis e fezieron morir al fraire de Ibargoen, que lo corrieron dos leguas por montes e rios fasta Mena e morio del cansançio luego».

1514an Mencia de Ibarguen zen dorre honen eta Lantenoko Zubietekoaren jabea. Aroko gainetik Mesetara doan bidean eta errearen ondoko kokapena bereziki estrategikoa zen.

Madozek *Diccionario* delakoan 1850 inguruan *Ibarbuen* grafiarekin aipatu zuen eta akats huts bat izan liteke, edo informazioa eman zuen norbaitek egiatan horrela ahoskatztea. Izenaren osagaiak *ibar* eta *guen* dira. Azken elementu hau beste toponimo batzuetan ere agertzen da, hala nola *Etxaguén*, *Uríguen* edo Aiarako *Ibarguen* toponimoetan. Dirudienez, *goien* hitzean du jatorria 'goiko aldea', eta ez *guren* forman 'muga' edo 'ederra'<sup>9</sup>. Dena dela, *-goien* > *-guen* aldaketa nahiko arkaikoa dela dirudi, *Refranes y Sentencias* (1596) lanean *Ibarguen* abizena era honetan agertzen baita. Hala izatekotan, gure toponimo honek 'ibarraren goiko aldea' esan nahiko luke eta Izoriako auzoburua erreferentzia puntu bezala hartuta, benetan toponimo deskribatzailea da oso, Salmantón, Madaria, Agiñaga eta Belandiatik datozen urak elkartu eta Izoria ibaia hasten den eremuan baitago.

Se trata del último caserío de Izoria, que se sitúa al lado izquierdo de la carretera que de este concejo se dirige al vecino Maroño, poco antes del cruce que a mano izquierda nos conduciría al concejo orduñés de Belandia. En este lugar se hallaba la torre de su nombre, cuyo solar ocupa hoy el caserío. La torre de Ibarguen perteneció a una de las familias de parientes mayores de la Tierra de Ayala (Aiarerria). Los primeros testimonios que hallamos son de las *Bienandanzas e Fortunas* (1475) donde aparece como Ibargoen al narrar la cadena de venganzas que se produjo en 1419 tras la muerte de uno de Murga:

«Despues mataron estos de Murga e de Ibargoen en tregua malamente a Juan Perez de Norrieza e a Lope de Lavarrieta e a Martin Ferrero a las puertas de sus casas; e despues mataron los de Largacha a Palacio a Diego d'Echavarria e a Furtuno de Rio de Ayega e a Diego de Mimetis e fezieron morir al fraire de Ibargoen, que lo corrieron dos leguas por montes e rios fasta Mena e morio del cansançio luego».

<sup>9</sup> Mitxelena, 1997, 295, 98. or.



En 1514, Mencia de Ibarquen aparece como propietaria de esta torre y de la de Zubiete en Lanteno. La ubicación a la orilla del río en el Camino Real de la Sopeña que va a la Meseta por el Portillo de Aro era especialmente estratégica.

Curiosamente Madoz hacia 1850 lo cita con la grafía *Ibarbuen*, que puede ser una simple errata o representación real de la pronunciación de algún informante. El nombre es un compuesto de *ibar* 'vega o valle' y *guen*. Este último elemento, presente también en otros topónimos como *Etxaguen*, *Urighuen* o el también ayalés *Ibaguen*, parece más bien proceder de *goien* 'parte superior' que de *guren*, 'límite' o 'hermoso'<sup>10</sup>. En cualquier caso, dicha modificación *-goien > -guen* debe de ser bastante arcaica ya que en los *Refranes y Sentencias* (1596), el apellido *Ibarquen* aparece ya en tal forma. De ser así, nuestro topónimo, indicaría por lo tanto 'parte alta de la vega' o 'del valle', lo que tomando como punto de partida y referencia el propio núcleo capital de Izoria, resulta realmente descriptivo, ya que este paraje se halla en la zona en que el río Izoria se forma como reunión de los arroyos que vienen de Salmantón, Madaria, Agiñaga y Belandia.

## Ibarra

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497060, Y.4767500, alt. 250 m.

Erripa izeneko auzoburuari eutsitako auzoa da, haren azpian kokatzen dena, Maroñorako A-3618 errepidearen eta Izoria ibaiaren artean.

Euskal toponimo honen esanahia argia da *ibar* euskal substantiboaz eta *-a* mugatzai-leaz osatua. Izenaren esanahiari gagozkiola, komeni da gogoratzea Okondoko Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) euskaltzaleak *Valle de Llodio* esamoldea *Laudioco Ybarra* itzuli zuela bere garaian<sup>11</sup>. Auzoa Izoria ibaiaren ezkerreko ordoki batean dagoela kontuan hartuta, oso toponimo egokia da izen deskribatzaile bezala. *Ibarra* euskal izena den arren, Aiara erromantzean ere asko erabili izan da, eta horren adibide dugu *La Ybarra de San Sebastian* adierazpidea, Arespalditzako Zubialde auzoaren iruzkinean aipatu dena.

Barrio anejo a la capitalidad del concejo conocida como Erripa y que se ubica bajo esta, entre la carretera de Maroño A-3618 y el río Izoria.

Se trata de un topónimo en el que se aprecia diáfano el sustantivo eusquérico *ibar* 'vega' y el artículo *-a*, significando, por tanto, 'la vega', e incluso 'el valle' si nos atenemos a la forma en que el vascofilo de Okondo José Pablo Ulibarri (1775-1847) traduce la expresión *Valle de Llodio* por *Laudioco Ybarra*<sup>12</sup>. Vista la ubicación del topónimo en un llano a la orilla izquierda del río Izoria, resulta absolutamente ajustado como nombre descriptivo. *Ibarra* es palabra vasca pero ha sido común en el habla ya romance de Ayala (Aiara), y así debe deducirse de la existencia de expresiones como la *Ybarra de San Sebastian*, referida al tratar el barrio Zubialde de Arespalditza.

<sup>10</sup> Mitxelena, 1997, 295, pág. 98.

<sup>11</sup> 1975, 38-39. or.

<sup>12</sup> 1975, pág. 38-39.

## Larrabea

Auzo nagusiaren hego-ekialdean apur bat sakabanatuta dauden etxeek osatzen dute auzo hau, Babio mendiaren iparraldeko magalean. A-624 errepide nagusiaren eta Izoriako auzoburura doan A-4610 errepidearen bidegurutzean, Ulibarrin, ezkerrean doan adarra hartu behar da eta hartan gora ailegatzen da auzoko etxeetara eta ibarraren gainean dagoen talaia bikaina suertatuko zaigu.

*Larrabe* izena 1551tik dator agiritan eta azentu lauarekin *Larrábe* edo *Larrabéa* ahoskatzen da. Becerro de Bengoak 1877an aipaturiko Izoriako etxaldean artean dago. Izen konposatua da eta lehen osagaia *larra* dugu, hau da, ‘pentze bezala erabiltzen den landu gabeko saila’. Bigarrena *-be* da eta esanahi bi izan ditzake: batetik, ‘behe, azpi’ eta, bestetik, ‘txiki’, azken hau toponimian baizik aurkituko ez dugun adiera. Horrenbestez, ‘beheko larrea’ nahiz ‘larre txikia’ izan daiteke. Zenbaitetan amaieran *-a* artikulua erabiltzen da eta, gure ustez, eutsi beharko litzaioke amaiera horri.

Barriada algo dispersa situada al sureste de la capitalidad del concejo, en plena ladera norte del pico Babio. Se accede a ella desde el cruce de la carretera general A-624 con la A-4610 que se dirige a la capitalidad de Izoria, para tomar un ramal a la izquierda en Ulibarrin y subir por él hacia las casas que conforman el barrio, que resulta ser una bonita atalaya sobre el valle.

Se documenta el nombre *Larrabe* desde 1551, y se pronuncia con acentuación llana *Larrábe* o *Larrabéa*. Aparece entre los caseríos de Izoria citados por Becerro de Bengoa en 1877. El nombre es un compuesto de *larra* ‘dehesa’, esto es, ‘terreno no cultivado que se usa para pasto’, y *-be*, que tiene la doble significación de ‘debajo’, común hoy en día, y ‘pequeño’, solo presen-



*Larrabea* auzoa, *Babio* mendiaren magalean  
Barriada *Larrabea* en la ladera del pico *Babio*

te en la toponimia. Puede tratarse, por tanto, de 'dehesa pequeña' o 'bajo la dehesa'. Algunos informantes lo dan con artículo determinado -a al final que, a nuestro juicio, debiera conservarse.

## Mendibil

Etxea / Casa: ED50 30T X.496686, Y.4768191, alt. 325 m.

Gaur egun etxe hau desagertua dago, baina Aretxa auzoaren iparraldean egon zen, hura eta Izoriako auzoburuaren gaineko aldean, Bagatza edo Pico de Asnos mendia-riaren ekialdeko magalean. Izen hau oso zaharra da, 1475eko *Bienandanzas e Fortunas* liburuan aurkitzen dugu eta:

«En este tiempo mas o menos mataron los de Mendivil, que eran del solar de Murga a Pero Ospina, fijo de Furtud Ospina de Mariaca, sobre palabras en una misa nueva, por donde sucedio primeramente malquerencia entre los de Murga e los Ospines, aunque eran parientes los Ospines de los mayores de Murga, porque sostovieron aquellos de Mendivil que eran suyos. E por esta muerte sucedieron entre ellos mucha enemistad».

1877ko *Libro de Álava* lanean *Mendivil* idazkeraz ageri da. Sarritan aurkitzen den euskal leku-izen konposatu honen lehen osagaia *mendi* da eta, bigarrena, *bil*, hau da, *biribil* hitzaren forma sinkopatua. Hortaz, 'mendi biribila' esan nahi du. Ohiko izena da Euskal Herri osoan, Barakaldon hasi eta Zuberoaraino aurkituko duguna bai mendiak, herriak nahiz baserriak izendatzeko, eta bai, ondorioz, abizen gisa ere, guztiz hedatua eta ezaguna baita.

Casa desaparecida en la actualidad, que se ubicó al norte de la barriada Aretxa y un poco más elevada que ella sobre el barrio capital de Izoria, en la ladera oriental de Bagatza o Pico de Asnos. Es topónimo de gran antigüedad, ya que aparece en 1475 en las *Bienandanzas e Fortunas*:

«En este tiempo mas o menos mataron los de Mendivil, que eran del solar de Murga a Pero Ospina, fijo de Furtud Ospina de Mariaca, sobre palabras en una misa nueva, por donde sucedio primeramente malquerencia entre los de Murga e los Ospines, aunque eran parientes los Ospines de los mayores de Murga, porque sostovieron aquellos de Mendivil que eran suyos. E por esta muerte sucedieron entre ellos mucha enemistad».

En el *Libro de Álava* de 1877 figura con la grafía *Mendivil*. El étimo eusquérico muestra un compuesto frecuente y evidente de *mendi* 'montaña' y *bil*, forma sincopada de *biribil* 'redonda', significando por lo tanto 'montaña redonda'. Este nombre puede documentarse de forma abundante a lo ancho de todo Euskal Herria, desde Barakaldo hasta Zuberoa, tanto para designar montes como para poblaciones o caseríos, por lo que ha dado lugar a un conocido y extendido apellido.

## Ulibarri

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497603, Y.4767499, alt. 275 m.

Auzo buruaren ekialdean dauden sakabanatutako etxeek osatzen dute auzoa, Babio mendia-riaren iparraldeko magalean eta Larrabea izeneko etxe multzoaren azpian.

A-624 eta Izoriako auzo nagusira doan A-4610 errepedeen bidegurutzetik gertu dago, ehundaka metro batzuetara. Izoriako auzoburutik etorrira, kontrako norabidea segituz hel daiteke errepide honetatik bertatik.

Euskarazko toponimo argia da eta osagai bi ditu: *uri* eta *barri*, gaztelaniazko *Villanueva* toponimoaren ordaina litzatekeena. Gogoan izan behar dugu hala euskarazko *uri* nola gaztelaniazko *villa*, hiriak eta herriak izendatzeko erabiltzeaz gain, oro har jendea bizi zen tokiez aritzeko ere erabiltzen zirela garai batean, baita etxe sinpleei buruz aritzeko ere. Auzoari sarritan *Ulibarri* ez ezik, *Ullibarri* izena ere eman zaio, eta halaxe izendatzen du Becerro de Bengoak 1877an. *Ulibarri*, *Ullibarri* edo *Uribarri* erak txandaka agertzea, bai hiztunek eta bai administrazioak askotan *r-l* hots likidoak nahas-tetik dator eta, azkenik, *-l*-dun aldaera gailenduko zen.

Barrio algo disperso situado al este de la capitalidad del concejo en la ladera norte del pico Babio y bajo las casas denominadas Larrabea. Se ubica próximo al cruce de la carretera general A-624 con la A-4610 que se dirige a la capitalidad de Izoria, alcanzando las casas de Ulibarri en unos centenares de metros. Procedentes de la capitalidad del concejo, también se puede acceder a Ulibarri por este mismo carril en sentido opuesto.

El topónimo claramente eusquérico se compone de *uri* 'villa' y *barri* 'nueva', lo que vendría a equivaler al topónimo usual castellano *Villanueva*. Hay que tener en cuenta que tanto el sustantivo vasco *uri* como el castellano *villa*, además de las ciudades, villas o pueblas (lugares dotados de carta puebla como Artziniega), designan también lugares habitados en general que, en otras épocas, podían referirse incluso a simples casas. El barrio figura denominado normalmente como *Ulibarri* e incluso *Ullibarri*, como lo cita Becerro de Bengoa en 1877. La razón de esta vacilación *Ulibarri*, *Ullibarri* o *Uribarri*, es la frecuente confusión de los sonidos líquidos *r-l* por parte de los hablantes y por la administración, que priorizarían la forma con *-l*.



*Izoria herriaren sakonean Iturrigorri eta Menerdigako ataka*  
Al fondo de Izoria Iturrigorri y el portillo de Menerdiga

## Kexaa / Quejana



1932



2000

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.494108,  
Y.4769527, alt. 340 m.

Aiararen erdi-erdian dago kontzeju hau eta iparraldean Menagarai eta Zuhatzako mugak ditu, ekialdean Arespalditza, hegoaldean Menoio eta Ozeka, eta mendebaldean Beotegi. Aipatu dugun erdi-erdiko kokaleku hori ez zen Aiarako jaunentzat oharkabean pasatu, bertako Done Joan Bataiatzailearen eliza nagusian eragin baitzituzten euren hilobiak eta horrek iradokitzen du garai batean leku hau Aiarako auzo nagusi bezala hartzen zela. Kontzejuari izena eman dion dorre ederrean interes handiko museo etnografikoa dago. Gaur egun kontzejuko aretoa, bolatokia, gizarte zentroa eta eskola Vállodas eta parrokiaren artean, errepidearen eskuinean dauden arren, guk gunerik aurreratuena hartu dugu auzoburutzat, hain zuzen ere, aipatutako eliza nagusia, komentua<sup>1</sup>, dorre deigarria eta haren inguruko etxeak. Bertakoek, oro har, Quejana edo La Torre esaten diote auzo horri. 1877ko *Libro de Álava* delakoan etxalde hauek aipatzen dira leku honetan: Carrascal, Iza, Robina eta Vállodas. Biderik garrantzitsuenetik aparte dauden beste tokietan bezala, Kexaan ere biztanle kopuruak izugarri egin du behera. 1950ean 132 biztanle zituen, 1970ean oraindik 107 zituen, baina 2000ko erroldan 59 besterik ez.

<sup>1</sup> 1997ko *Mapa Topográfico Nacional*ean (1:25000, 86-III orria), komentuz gain, *Convento de San Juan* ageri da parrokia aipatzeko. Toki honetako lekameen bizitzari buruzko gorabehera gehiago jakin nahi izanez gero, interesgarriak dira Madozen oharrak. Ohar horietan lekame domingotarren zereginak aipatzen dira baita 1800an nola kanporatu zituzten ere.



*Kexaa eta Peregaña mendia*  
*Quejana y monte Peregaña*

Lehen ere esan dugu parrokiaren eta dorrearen inguruari jendeak *La Torre* esaten diola, baina guk nahiago dugu guneko horri kontzejuaren izen bera eman, kartografia gehienetan hala agertzen baita. Jatorrizko izena *Kexana* da eta *-ana* amaierak iradokitzen duenez, badirudi antzinako jabego edo ‘hiriren’ bati egiten diola erreferentzia, amaiera hori maiz pertsona izenei erantsita agertzen delako (*Antoñana*, *Markijana*, *Semproniana*...), baita beste edozein izen adjektibo bihurtzeko ere (*americana*, *africana*...). Hori kontuan izanda, M. Lourdes Albertosek (1970) *Caeliana* pertsona izenetik etor zitekeela proposatu zuen, agian J. Caro Barojak hainbat urte lehenago (1945) esandakoan inspiratuta: *Caelius* > *Caeliana* > *Quejana*, hau da, ‘Caeliusen hiria’. Nolanahi ere, hala izatekotan, garaiko euskal testuinguruari esker izango zuen eboluzio hori, erromantze hiztunen artean \**Cejana* izango baitzatekeen emaitza, *caelis* > *cielo* kasuan gertatu bezala<sup>2</sup>. Beranduagoko proposamen bihurriago batek *kerex* ‘gerezia’ (*Prunus*

<sup>2</sup> Oribe, 2001.

*avium*) edo *quejo* ‘erkametz’ (*Quercus faginea*) hitzetatik datorrela iradokiko du<sup>3</sup>. Antzinako antroponimoetara itzuliz, eta azken ekarpen moduan, beste izen latino batzuetatik etor liteke, adibidez *Cisius* –irakur bedi *Kisius*– edo, zergatik ez? *Casius*, Hispanian erruz erabili baitzen izen hau, 913ko agiri batean *Cassiera* dokumentatzen den Arabako *Quijera* izeneko eremuaren kasuan ikus daitekeen legez<sup>4</sup>.

Esandakoaren frogagarri, izen horren bertsio maskulinoa ere badaukagu: *Quijano*, Miguel de Cervantes paregabeak bere pertsonaiarik ezagunena izendatzeko aukeratu zuena: *Alonso Quijano* edo *On Kixote Mantxakoa*. Hala ere, egileak modu fantasiatsu samarrean izen hori *quijada* ‘masailezur’ hitzetik zetorrela komentatu zuen. Hori guztia gutxi balitz, Gaubea haranean ere bada *Quejo* izeneko herri bat, eta erro berbera izan lezake toponimoak. Nolanahi, duen jatorria duela ere, -x- hotsak gaztelaniaz -j- eman zuen eta letra horrekin finkatu zen haren grafia XIX. mendean. Euskaraz, aldiz, jatorrizko hots hura mantendu zen arren, beste hainbat kasutan bezala, bokal arteko -n- hotsa erori egin zen. Euskarazko *Kexaa* aldaerak bizirik dirau oraindik gaur egun Bizkaiko euskaldunen ahotan, herri horretan Done Joan Bataiatzailearen aurreko astean –ekainaren 24an ospatzen da santuaren jaiotza– urtero egin ohi zen ganadu feria ospetsuari esker. Garrantzi handikoa izan omen zen feria hura, eta hala jasotzen da dokumentazioan<sup>5</sup>, 1756an komentuko historiagilea zen Lalastra abadeak kontaturik, feria hauek hamabost egunetako iraupena zutela eta ba omen ziren «tan abundantes y copiosas de mercaderías y ganados, que a no verlo es imposible de creer el que se junte tanta gente en un desierto y que a él vengan tantos géneros para venderse y comprarse (...) de las tres provincias, de Navarra, de Aragón, de Castilla, de las Montañas, Asturias y otras partes». 1800. urtean berrogeita bat saltoki jarri omen ziren.

Concejo muy céntrico que limita al norte con Menagarai y Zuhatza, al este con Arespalditza, al sur con Menoio y Ozeka, y al oeste con Beotegi. El lugar central que ocupa no pasó desapercibido a los señores de Ayala (Aiara), que tuvieron sepultura en su iglesia parroquial de San Juan Bautista, lo que parece indicar que otrora se percibió este lugar como capital de Ayala (Aiara). Resulta de gran interés el museo etnográfico ubicado en la hermosa torre que da nombre al concejo. Aunque la sala del concejo, la bolera, el centro social y la escuela se encuentran actualmente entre Villodas y la iglesia parroquial a la derecha de la carretera, citamos como capitalidad del concejo el núcleo más adelantado que conforman la citada iglesia parroquial, el convento<sup>6</sup>, la llamativa torre y las viviendas anejas, y que suele denominarse simplemente Quejana o La Torre. El *Libro de Álava* de 1877 asigna a este lugar los caseríos de Carrascal, Iza, Robina y Villodas. Quejana ha sufrido en extremo la despoblación propia de los barrios que quedan fuera de las rutas carretilas más importantes. Así en 1950

<sup>3</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>4</sup> Mugurutz, 2000, *Zaraobe*, 74.

<sup>5</sup> Micaela Portillak jasotako aipamena (1967, VI. liburukia, 765. or.).

<sup>6</sup> El *Mapa Topográfico Nacional* 1:25000, hoja 86-III de 1997 rotula *Convento de San Juan*, para lo que además de convento es la iglesia parroquial citada. Sobre algunos avatares referentes a la vida monástica del lugar, pueden resultar interesantes las notas de Madoz acerca de la ocupación y expulsión de monjas dominicas en el año 1800.



*Kexaako dorreak, monasterioak eta elizak osatutako konplexua*  
Complejo formado por la torre, monasterio e iglesia de Quejana

contaba con 132 habitantes, en 1970 aún tenía 107 y en el censo del año 2000 ya solo eran 59.

Aunque, como ya hemos dicho, la zona alrededor de la torre e iglesia parroquial se conoce habitualmente como *La Torre*, nosotros preferimos asignar al núcleo la denominación del concejo como, por otra parte, hacen la mayoría de las fuentes cartográficas. Por el final en *-ana*, el nombre original *Kexana* parece hacer referencia a una antigua propiedad o 'villa', ya que es terminación característica que suele añadirse a nombres de persona (*Antoñana*, *Marquijana*, *Semproniana*...), o para adjetivar cualquier nombre (*americana*, *africana*...). Con dicho objetivo M. Lourdes Albertos (1970) propuso hacerlo derivar del nombre de persona *Caeliana*, quizá inspirada en lo que ya sugiriese muchos años antes J. Caro Baroja (1945): *Caelius* > *Caeliana* > *Quejana*, es decir, 'la villa de Caelius'. En cualquier caso, de ser así, lo es gracias al ambiente eusquérico, ya que entre hablantes romances hubiese dado \**Cejana*, como *caelis* > *cielo*<sup>7</sup>. Más forzada parece una propuesta posterior que pretende derivarlo de *kerex* 'cerezo' (*Prunus avium*) o *quejo*, 'quejigo' (*Quercus faginea*)<sup>8</sup>. De vuelta al camino de los antiguos antropónimos y como última aportación, también se plantea la posibilidad de derivarlo de nombres como el latino *Cisius* –léase *Kisius*– o, ¿por qué no?, *Casius*, muy usado en Hispania, a la vista de la forma del despoblado alavés *Quijera*, documentado en el año 913 como *Cassiera*<sup>9</sup>.

<sup>7</sup> Oribe, 2001.

<sup>8</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>9</sup> Mugurutz, 2000, *Zaraobe*, 74.



Como prueba de lo expuesto, disponemos de la versión masculina, *Quijano*, nombre que fue adoptado por el incomparable Miguel de Cervantes para denominar a su más célebre personaje *Alonso Quijano* o *Don Quijote de la Mancha*, si bien el autor, fantasiosamente, lo hacía proceder del término *quijada*, 'mandíbula'. Por si ello fuera poco, en el valle de Valdegobía encontramos el pueblo denominado *Quejo*, cuya raíz bien pudiera ser la misma. En cualquier modo, sea cual fuere su origen, el sonido -x- derivó en castellano a -j-, cuya grafía fue fijada con esa letra en el siglo XIX. En euskera, por el contrario, se mantuvo el sonido original, si bien cayó, como en tantos otros casos, la -n- entre vocales. La forma vasca *Kexaa* ha pervivido hasta la actualidad entre los vascohablantes vizcaínos, gracias a la afamada feria de ganado, que solía celebrarse en dicho pueblo la semana anterior a San Juan Bautista, cuya natividad se celebra el 24 de junio. Dicha feria fue de gran importancia y, así se documenta<sup>10</sup> que, según el padre Lalastra, historiador del convento en 1756, duraban estas ferias quince días y eran «tan abundantes y copiosas de mercaderías y ganados, que a no verlo es imposible de creer el que se junte tanta gente en un desierto y que a él vengan tantos géneros para venderse y comprarse (...) de las tres provincias, de Navarra, de Aragón, de Castilla, de las Montañas, Asturias y otras partes». En el año 1800 se colocaron cuarenta y un puestos.

## Carrascal, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494727, Y.4769830, alt. 325 m.

A-3626 errepidearen ondoan sakabanatutako etxe batzuk dira, auzoburura iritsi baino apur bat lehenago, eskolaren eta kontzejuko aretoaren beste aldean, baita La Parra izeneko etxearen parean ere.

Hala herriko kartografian, nola *Mapa Topográfico Nacional* delakoan<sup>11</sup> artikulua eta guzti dator toponimoa: *El Carrascal*. Becerro de Bengoak (1877), orde, hura gabe ematen du eta hori ere aipatzekoa da. *Carrascal* erromantzezko hitza da eta 'artadia' esan nahi du arteari (*Quercus ilex*) esaten baitzaio *carrasca*, batez ere lahar itxura duen aldaerari.

Se trata de varias casas dispersas al lado izquierdo de la carretera A-3626 poco antes de llegar al núcleo capital, y que se encuentran al otro lado de la escuela y de la sala del concejo, así como de la casa denominada La Parra.

Tanto la cartografía local como el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>12</sup> citan el topónimo con determinante: *El Carrascal*. Sin embargo, hay que hacer constar que Becerro de Bengoa (1877) lo da sin él. *Carrascal* es vocablo romance que significa 'bosque de carrascas', denominándose así a la encina (*Quercus ilex*), sobre todo en su variedad arbustiva.

<sup>10</sup> Cita recogida por Micaela Portilla (1967, tomo VI, pág. 765).

<sup>11</sup> 1997, 86-III.

<sup>12</sup> 1997, 86-III.

## Ibaguen

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495241, Y.4770858, alt. 270 m.

Auzo bildu samar hau gune nagusiaren ipar-ekialdean eta errepidearen hegoaldean dagoen etxe talde batek osatzen du, Amurriotik Artziniegara doan A-624 errepide nagusiaren eta Zuhatzatik Okondora doan A-3641 elkartzen diren bidegurutzean bertan. Zuhatzako kontzejuarekin muga egiten du eta Madozen esanetan (1845-1850)<sup>13</sup> auzoko etxe bat kontzeju horretakoa da. Itzalde ibaiaren ondoko ordoki txiki batean aurkitu du auzoak kokaleku egokia.

Toponimoa euskal izena da eta seguruenik *ibi* nahiz *ibar*, eta *guen* 'goienekoa' izango dira osagaiak, bigarren honetan *goi* forma eta *-en* atzizki superlatiboak aurkitzen ditugula. 'Goian dagoen ibarra' edo 'igarobiderik goienekoa' esan nahi du, beraz. Esanahi horrek, dirudenez, Itzalde ibaia zeharkatzeko toki egokiari egiten dio erreferentzia, gaur egun A-624 errepideak zeharkatzen duen zubi arrunta, auzotik nahiz bidegurutzetik metro gutxi batzuetara dagoena.

Barriada concentrada compuesta por el grupo de casas que se ubica al nordeste del núcleo principal y al sur de la carretera, en el cruce de la general A-624 que de Amurrio va a Artziniega, con la A-3641 que se dirige a Zuhatza y Okondo. Se encuentra ya en la linde con el concejo de Zuhatza, al que según Madoz (1845-1850)<sup>14</sup> pertenece una de sus casas. El barrio aprovecha para su ubicación un pequeño llano junto al río Itzalde.

El topónimo es un nombre vasco posiblemente compuesto de *ibi* 'vado' o *ibar* 'vega' y *guen* 'superior', de *goi* más el superlativo *-en*. Significa por lo tanto 'vado superior' o 'vado de arriba'. Este significado parece hacer referencia al lugar de paso del río Itzalde, que en la actualidad consiste en un puente sobre el que cruza la carretera A-624 y que se encuentra a escasos metros al este del cruce y barrio.

## Ibarra, La

Etxea / Casa: ED50 30T X.493781, Y.4769590, alt. 330 m.

Done Joan Bataiatzailearen eliza eta Kexaako dorrea atzean utzita, Ozeka eta Luxora doan errepidearen eskuinean dago etxalde hau, parrokiatik kilometro eskas batera eta ibaiaren beste aldean. Zubi bat igaro ondoren, alde honetatik malkartsu samarra dirudien Peregaña mendiaren ekialdeko magalean daude etxaldea osatzen duten eraikinak.

<sup>13</sup> Ikus *Ibaguen* sarrerak bere *Diccionario Histórico-Geográfico-Estadístico* lanean (1845-1850). Horregatik, guk halaber Zuhatzako kontzejuan ere aipatzen dugu izen horretako auzoa.

<sup>14</sup> Véanse las entradas *Ibaguen* en su *Diccionario Histórico-Geográfico-Estadístico* de 1845-1850. En consecuencia nosotros también citamos barriada de este nombre en el concejo de Zuhatza.

Toponimo hau *ibar* substantibo arruntaz eta *-a* artikuluz osatua dago, nahiz eta ondoren gaztelaniazko *La* mugatzailea ere hartzen duen. Eta hala gertatzen da, segur aski, *ibarra* euskal hitza izanik ere, Aiarako mintzaira jada erromantzean erruz erabili izan delako gaur egunera arte. Horrela ikusten dugu, adibidez, Arespalditzan dokumentatutako *la Ybarra de San Sebastian* esapidean. Era berean, *haran* hitzaren sinonimo gisara ere erabili da, Izoriako *Ibarra* auzoaren iruzkina egitean esan zen legez. Herriko kartografian aipatu den gaztelaniazko determinante femeninoarekin ageri da eta bertakoek ere hala esaten dute: *Caserío de la Ibarra*.

Se trata de un caserío ubicado a la vera derecha de la carretera que dejando atrás la iglesia de San Juan Bautista y la torre de Quejana (Kexaa), se dirige hacia Ozeka y Luxo, a menos de un kilómetro de la parroquia y al otro lado del río. Tras cruzar un pequeño puente, las edificaciones que conforman el caserío se ubican en la ladera oriental del pico Peregaña, que muestra un aspecto un tanto escarpado por este lado.

El nombre *La Ibarra* está formado por el usual sustantivo eusquérico *ibar* 'vega' y el artículo determinado *-a*: 'La vega', lo que no obsta para que en castellano haya tomado también el determinante correspondiente *La*. Esto se debe, seguramente, a que *ibarra* es palabra de origen eusquérico que ha sido común en el habla ya romance de Ayala (Aiara) hasta nuestros días, como puede verse en la expresión *la Ybarra de San Sebastian* documentada en Arespalditza. También se ha usado como sinónimo de *haran*, 'valle' tal y como ya se comentó al tratar el nombre del barrio *Ibarra* en Izoria. En la cartografía local figura efectivamente con este determinante castellano femenino, que también puede oírse a los lugareños: *Caserío de la Ibarra*.

## Itza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493572, Y.4769401, alt. 335 m.

Kontzejuko gunetik Ozeka eta Luxora igotzen den A-4619 errepidearen ezkerreko hegian dauden baserri bi dira, eliza nagusitik eta dorretik kilometro eskas batera. Itzalde ibaiaren meandro txiki bat dute kokalekua, haren ezkerreko erriberan.

Ricardo Becerro de Bengoaren *Libro de Álava* delakoan (1877) ageri da bere ohiko idazkera gaztelaniartzailan emana: *Iza*, eta halaxe dator herriko kartografian ere. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, gaztelaniaz ez da *-tz-* hotsik erabiltzen eta hizkuntza horretara egokitzerakoan ahalik eta hotsik antzekoenaren grafia erabiltzen dute, gehienetan *-z-*. Euskal toponimoa da izen hau, Euskal Herri osoan maiz aurkitzen dena, eta *ih*i substantiboa gehi ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzikia dira haren osagaiak. Hortaz, 'ihi asko dagoen lekua, ihitokia' esan nahi du.

Se trata de dos caseríos ubicados a la vera izquierda de la carretera A-4619 que del núcleo del concejo sube a Ozeka y Luxo, a poco menos de un kilómetro de la iglesia parroquial y la torre. Ocupan un pequeño meandro del río Itzalde a su orilla izquierda.

Aparece citado en el *Libro de Álava* de 1877 por Ricardo Becerro de Bengoa en su grafía castellanizante habitual *Iza* y así figura también en la cartografía local, lo que no es extraño, pues el sonido *-tz-* no se utiliza en castellano, por lo que su grafía suele adaptarse en esta lengua a lo más próximo posible, normalmente *-z-*. El nombre es un topónimo eusquérico frecuente en el todo el país, compuesto de *ihí* 'junco' y el abundancial *-za*. Significa, por tanto, 'juncal'.

## Robina

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494203, Y.4769991, alt. 320 m.

Ohikoan La Torre deitzen den auzo nagusiaren iparraldean dago Rubina, Itzalde ibaiaren ertzean, Kexaatik Beotegira doan errepedeko zubia igaro eta berehala. Gaur egun Los Avellanos etxea eta Los Arcos hotelaren eraikina besterik ez dago auzo honetan.

Gaur egun auzoaren izena den arren, 1709an *monte de Rubina* forma dokumentatzen dugu. Abizena ere bada, eta *Rubina* da ezagutzen zaion forma bakarra. 1745eko errolda edo *Fogueración* delakoan *Prudenzió de Rubina* bat aurkitzen dugu Urduñako *Calle Vieja* izenekoan. Gaurko ahozko erabileran, lehen bokala irekiago ebakitzen da: *Robina*, eta 1877ko *Libro de Álava* delakoan ere halaxe ageri da. Etimoa ilun samarra da, baina euskaraz seguruenik bokalen bat egongo zen hasierako *r-* horren aurretik: \**Arrubina* edo \**Errubina*. Hipotesi honetatik abiatuta, daitekeena da toponimoak hemendik gertu elkartzen diren Itzalde eta Barranco del Molino erreken batze puntuari erreferentzia egitea, haien arroak errepedeak zeharkatzen duen zubiaren azpian elkartzen baitira. Euskarazko osagaiak *arro* izen arrunta, 'ibarra, ibaibidea', eta *bi* zenbakia direlako, azken hau era honetako toponimo deskribatzaile gehiagotan agertzen dena, hala nola *Urbi* edo *Urbieta*, *Pagobieta* etab. Hala eta guztiz ere, ez da guztiz baztertu behar antroponimoren bati erantsita, amaierakoa *-ina* partikula izatea (*Paternina*, *pater* 'aita' hitzetik...) edo adjektibo bihurtutako substantiboren bat izatea, bide horrek eskaintzen dituen aukera guztiekin. Eta zergatik ez da etorriko *rubeus* 'urregorriaren kolorekoa' adjektibotik? Goitizena izan daiteke *-ikus Gorri(a)*, *Bal(t)za...* euskal abizenak— edo toponimoa ere bai. Toponimoetan gogoan izan behar ditugu Bartzelonako *Rubí* (*rivu rubeu* 'ibai gorri') eta *Fontrubí*, baita Penintsulan antzeko esanahia duten *Fontoria*, *Hontoria*, *Fontoira* edo *Fontoura* ere, eta halakoetarik ehunka *-font aurea-tik* eratorriak 'iturri gorriska, urre kolorekoa'—, baita euskal eremuko *Iturrigorri* ugariak ere.

Se trata de una barriada al norte del núcleo capital comúnmente denominado La Torre, ubicada a orillas del río Itzalde, poco después del puente por el que lo cruza la carretera que de Quejana (Kexaa) se dirige a Beotegi. En la actualidad Robina se reduce a la casa Los Avellanos y las edificaciones pertenecientes al hotel Los Arcos.

Aunque hoy designa un barrio, en 1709 se documenta el *monte de Rubina*. También *Rubina* es la única forma histórica conocida del apellido. Así, hallamos un *Prudenzió de Rubina* instalado en la *Calle Vieja* de Orduña, según la *Fogueración* o censo de 1745. En la actualidad el uso oral es con la primera vocal más abierta: *Robina*, abertura con la que ya figura en el *Libro de Álava* de 1877. El étimo es oscuro, pero posiblemente en euskera hubiese una vocal ante la *r* hoy inicial: \**Arrubina* o \**Errubina*. Partiendo de esta hipótesis, bien pudiera hacer referencia a la confluencia cercana de los dos arroyos Itzalde y Barranco del Molino, cuyas vaguadas se juntan prácticamente bajo el puente por el que pasa la carretera. Y es que en euskera *arro* es sustantivo común que significa ‘cuenca’ o ‘vaguada’, y *bi* es el numeral ‘dos’, presente en muchos topónimos descriptivos de este tipo, como *Bidebieta* ‘dos caminos’, *Urbi* o *Urbieta* ‘dos aguas’, *Pagobieta* ‘dos hayas’, etc. A pesar de ello, no podemos desdeñar la opción de resolver su significado a través de la partícula final *-ina*, unida a antropónimos (*Paternina*, de *pater* ‘padre’...) o a sustantivos a adjetivar, con las posibilidades que ello ofrece. ¿Y por qué no hacerlo derivar sin más del adjetivo *rubeus*, ‘rubio’? bien a modo de apodo personal –compárese con los apellidos vascos *Gorri(a)*, *Bal(t)za*, etc.– o como topónimos, al igual que observamos en *Rubí* (Barcelona) contracción de *rivu rubeu* ‘río rojo’, *Fontrubí* (Barcelona) similar en significado a las innumerables *Fontoria*, *Hontoria*, *Fontoira* o *Fontoura* de la Península –de *font aurea*, ‘fuente dorada, rojiza’–, o los *Iturrigorri* del ámbito eusquérico.

## Robinarriba

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493951, Y.4770000, alt. 370 m.

Robina auzotik abiatuta, Peregaña mendiaren magalean gora mendebalderantz igotzen den bide batetik San Jose etxera hel daiteke lehenik, eta hau ere auzokotzat har daiteke. Ondoren, Robinarriba izenaz ezagutzen zen antzinako beste baserri baten kokalekura helduko gara, jadanik 380 metroko altitudera.

Udaletxe zaharreko bilera aretoan dagoen 1930eko mapan *Robina* eta *Robinarriba* ageri dira aipatuak, etxalde nahiz herri bezala. Hasierako *Robina* osagaiaz, ikus auzo horretan esandakoa. Haren izenari *arriba* adverbiala eransten zaio hemen, era horretan erreferentziazko auzotik duen kokaera adieraziz. Esanahia, beraz, ‘goiko Robina’ edo ‘Robina gainean’ izango litzateke.

Partiendo del barrio Robina, un camino trepa por la ladera del pico Peregaña en dirección oeste. Conduce además en primera instancia a la casa San José, que también puede incluirse en el barrio, y después al antiguo emplazamiento de otro caserío que fue conocido como Robinarriba, ya a unos 380 m de altitud.

Tanto *Robina* como *Robinarriba* se recogen como aldeas o caserías en el mapa de 1930 que preside el salón de plenos de la antigua casa consistorial. Respecto al inicial *Robina*, véase lo dicho para dicho barrio, a cuyo nombre se le añade aquí el adverbial *arriba*, indicando su situación respecto al referente. Vendría a significar, por tanto, ‘Robina de arriba’ o ‘sobre Robina’.

## Serna, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494150, Y.4769752, alt. 300 m.

Kexaako gune nagusitik Beotegira joateko, A-4620 errepideak Itzalde ibaia zeharkatzen du eta zubi horren inguruan dauden etxe sakabanatuek osatzen dute izen hori daraman auzoa. Etxeak zubia pasatu eta berehala aurkitzen ditugu, Robina auzora heldu baino lehen.

Erromantzezko leku-izen argia da, ‘ereiteko egokia den lur zatia’ adierazten duena.

Con ese nombre se conocen las casas dispersas próximas al puente por el que la carretera A-4620 cruza el río Itzalde para dirigirse del núcleo central de Quejana (Kexaa) hacia Beotegi. Las casas se encuentran nada más cruzar el puente y antes de alcanzar el barrio Robina.

Se trata de un topónimo claramente romance que significa ‘pieza de tierra adecuada para sembrar’.

## Sologuren

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494845, Y.4769989, alt. 320 m.

Villodastik Kexaara doan A-3626 errepidearen eskuinean dauden baserria eta txaleta dira, Elurretako Andra Mariaren ermita baino metro batzuk aurrerago, eta estrata xume batetik erdiesten direnak.

Euskaraz oso ohikoa da izen hau eta lehen osagaia *solo* izena da, ‘soro’ estandarren mendebaldeko aldaera. Bigarrena, ordea, *guren* da, ‘ederra’ edo ‘garaia’ adierak eduki ditzakeena. Hortaz, ‘soro ederra’ edo ‘goiko soroa’ esan nahi du.

Caserío y chalet ubicados a mano derecha de la carretera A-3626 que de Villodas se dirige a Quejana (Kexaa), unos metros más adelante de la ermita de Nuestra Señora de las Nieves, y a los que se accede por una pequeña estrada.

Nombre muy habitual en euskera, compuesto de *solo* ‘huerta, pieza’, variedad occidental del estándar *soro*, y *guren* ‘hermosa’ o ‘alta’: ‘huerta hermosa’ o ‘huerta de arriba’.

## Tabor, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494283, Y.4769467, alt. 350 m.

Kexaatik Menoiora igotzen den errepidearen ezkerrean dagoen auzoa da, baserri batez eta txalet biz osatua, eliza nagusitik datorren Camino del Campanario<sup>15</sup> ezagunaren bidegurutzetik gertu, baita hilerrira doanetik hur ere.

<sup>15</sup> Bidegurutzearen ondoan elizakoa den kanpandorre bereizi bat dago eta horregatik esaten diote horrela bideari.

Jatorriz auzoko etxerik zaharrenaren izena den honek Biblian aipaturiko mendi mitikoarena dakarkigu gogora, tradizio kristauaren arabera, Kristoren Antzaldatzea gertatu zenekoa. Mendia Lur Santuan dago, Esdreloa lautadaren ipar-ekialdean, Tiberiades lakutik 20 kilometrotara, Nazaretetik 7 tara eta itsas mailatik 588 metrotara. Espainiak Marokon zuen protektoratuan ere erabili izan da *tabor* hitza, armada espainiarreko tropa erregular indigenaren unitate bakoitza izendatzeko, «mía» edo konpainia batzuek osatua. Azken adiera honetan jatorri turkiarreko hitza da.

Se trata de un caserío y dos chalets emplazados a la izquierda de la carretera que de Quejana (Kexaa) sube hacia Menoio, en las inmediaciones del cruce del conocido Camino del Campanario<sup>16</sup>, que viene de la iglesia parroquial, y cerca del que lleva al cementerio.

Es en origen el nombre de la casa más antigua del barrio, que nos recuerda al mítico nombre de monte referido en la Biblia donde según la tradición cristiana tuvo lugar la Transfiguración del Señor. Está situado en Tierra Santa, al nordeste de la Llanura de Esdreloa, a 20 km al suroeste del lago Tiberiades, a 7 km al sureste de Nazaret y a 588 m sobre el nivel del mar. Conviene apuntar que el término *tabor* también se ha usado en el antiguo protectorado español de Marruecos, para designar cada unidad de tropa regular indígena perteneciente al ejército español y compuesta por varias «mías» o compañías. En esta última acepción es una palabra de origen turco.

## Víllodas

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495000, Y.4770003, alt. 335 m.

Kexaako auzo hau A-624 errepide nagusia eta kontzejuko gune nagusira, Menoiora nahiz Ozekara doan A-3626 errepidea elkartzen diren bidegurutzetik oso gertu dago, bidearen ezkeraldera eta Ungila edo Eskorieta mendiaren azpiko ordoki batean. Etxe taldearen aurrean, errepidearen eskuinaldean bidexka batek eramango gaitu Elurretako Andra Maria eta Santa Luzia ermitara, jadanik Madozek (1845-1850) aipatzen zuena.

Auzo honen izena *V*- letraz idatzi izan da gehienetan, gaztelaniazko *villa* hitzarekin eduki dezakeen balizko erlazioagatik. Aiarako auzo honen izena 1519an ageri da honako dokumentu honetan: «ejecutoria del pleito sobre acusar al demandado de agredirle y herirle. Lope Lopez de Rabina, vecino de Orduña, contra Juan de Elorzo, vecino de Villodas». Becerro de Bengoak 1877an *V*- grafiarekin eta *-i-* letran tildea zuela idatzi zuen izena: *Víllodas*, eta bat dator gaur egun bertakoek ematen dioten ahoskerarekin. Grafia berberarekin baina tilderik gabe ageri da *Mapa Topográfico Nacional* delakoan ere<sup>17</sup>. Bada izen bereko herri bat Iruña Oka udalerrian eta badakigu

<sup>16</sup> Junto al cruce se levanta un campanario exento, correspondiente a la cercana iglesia parroquial, razón que justifica el nombre de este camino.

<sup>17</sup> 1997, 86-III.

haren izena amaierako -s gabe idatzi izan dela euskaraz: *Billoda*<sup>18</sup>. Era berean, amaierako -s gabe dokumentatzen dugu abizen moduan, *Villoda*, Urduñan (1631) eta Orozkon (1829).

Barrio de Quejana (Kexaa) que se ubica en la zona más próxima al cruce de la carretera general A-624 con la A-3626, que conduce al núcleo capital del concejo, a Menoio y a Ozeka, al lado izquierdo de esta y en un llano al pie del pico Ungila o Eskorieta. Frente al grupo de casas, al lado derecho de la carretera, un pequeño ramal nos conduce a la cercana ermita de Nuestra Señora de las Nieves y Santa Lucía, ya citada por Madoz (1845-1850).

Nombre de barrio que habitualmente se ha escrito con V- inicial, debido a su posible relación con el castellano *villa*. El nombre de este barrio ayalés se documenta en 1519 en el resumen documental de la «ejecutoria del pleito sobre acusar al demandado de agredirle y herirle. Lope Lopez de Rabina, vecino de Orduña, contra Juan de Elorzo, vecino de Villodas». Becerro de Bengoa en 1877 hace figurar el nombre con V- inicial y con acento gráfico en la -i-: *Villodas*, lo que coincide con la pronunciación local actual. De igual manera pero sin tilde figura en el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>19</sup>. Existe pueblo homónimo en el municipio de Iruña Oka, cuyo nombre nos consta que fue utilizado en euskera sin -s final: *Billoda*<sup>20</sup>. Igualmente, documentamos el apellido sin -s final en Urduña (1631) y en Orozko (1829).


<sup>18</sup> *Billodabidea* eta *Billodabidia* (1547, 1596, 1691, 1696, 1707 eta 1698. urteetan, hurrenez hurren), *Billodabidagana* eta *Bilodabidegaña* (1584. eta 1621, 1717. urteetan hurrenez hurren), *Billodamendi* eta *Billodamendia* (1830 eta 1556, 1577, 1606. urteetan, hurrenez hurren), *Billodamendigana* (1579. urtean), *Billodagirre* (1608, 1939. urteetan), *Billodasolo* eta *Billodasoloa* (1704 eta 1573. urteetan, hurrenez hurren).

<sup>19</sup> 1997, 86-III.

<sup>20</sup> *Billodabidea* y *Billodabidia* 'Camino que lleva a Billoda' (años 1547, 1596, 1691, 1696, 1707 y 1698 respectivamente), *Billodabidagana* y *Bilodabidegaña* 'El alto del camino hacia Billoda' (años 1584 y 1621, 1717 respectivamente), *Billodamendi* y *Billodamendia* '(El) monte de Billoda' (años 1830 y 1556, 1577, 1606 respectivamente), *Billodamendigana* 'El alto del monte de Billoda' (año 1579), *Billodagirre* 'A la vista de Billoda' (años 1608, 1939), *Billodasolo* y *Billodasoloa* '(El) campo de Billoda' (años 1704 y 1573 respectivamente)...



## Lanteno



1932



2000

Aiarako kontzejurik zabalena da eta udalerriko ipar-mendebaldeko muturrean dago. Iparraldean Okondo udalerria eta Bizkaiko Gordexola ditu, ekialdean Menagarai, hegoaldean Erretes, Opellora eta Soxo, eta mendebaldean Artziniegako udalerria. Madozek (1845-1850) honako 21 auzo hauek aipatzen ditu: Lablanca, Ureta, Lezalde, Chabarri, Abiega, La Cabaña, Mimenza, Chabes, Inorza, Piguersa (sic), Ulierte, La Serna, Puente de la Tabla, Pizparruchi, Yoregui, La Mota, Satia, Petiz, Basabru, Garavilla eta Opetarache. Becerro de Bengoak (1877), berriz, etxalde hauek ematen dizkio: Abiega, La Barrieta, Basáburu, Basualdu, La Blanca, Cabaña, Chabarri, Chave, Garavilla, Lezalde, La Mota, La Petafache (sic), Pizparruchi, Satia eta Ureta. *Nomenclátor de las ciudades, villas y lugares* lanean, 1854 eta 1930 artean, honako auzoak aipatzen dira: Satia, Petiz, Zubiete, La Mota, Olabarrieta, Pizparruchi, Basaburu, Garavilla, Puente de la Tabla, La Serna, Inoriza, Piquereza, Chaves, Mimenza, Abiega, La Petareche, La Blanca, Chávarri, Lejalde eta Ureta. Gainera, 1930ekoan La Cabaña etxea eta Ibaizabal auzoa ere aipatzen dira. Beste kontzejuetan bezala biztanleriak behera egin du hemen ere nabarmen. Madozen *Diccionario* entzutetsuan (1845-1850) 220 biztanle zituela aipatzen da eta mende bat geroago, 1950eko *Nomenclátor* lanaren arabera 260raino igo zen kopurua. 1970ean 226ra jaitsi eta 2000ko erroldan bakarrik 137 ageri dira.

Lekukotza dokumentalik zaharretan, Nafarroako erregearen 1040ko agiri batean honakoa aipatzen da: *et Mena vel Tutela et Lanteno cum omni pertinentia eorum*. Leireko monasterioko agirietan aipatzen da berriro 1047an: *Senior Galindo Berascoiz dominator Lanteno confirmas*. 1050ean, Naiarako Gartzia Nafarroako erregearen Este-

fania emaztearentzako ezkontza-erresen emate dokumentuan ere izen hauek aipatzen dira: *Mena, Tutela et Lanteno*. Lehenik dokumentatutako forman *L-* soila ageri da eta forma hori proposatu zuen Euskaltzaindiak ere, euskaraz ez baita ohikoa hitzaren hasierako hots hori *Ll-* bihurtzea. Izen honentzat etimologia bakarra proposatu dela esan daiteke eta, horren arabera, latineko *plantago*, *-aginis* hitzean dago toponimoaren jatorria. Horrek gaztelaniaz *llantén* eman du eta belar mota bat da ‘plantain handia’ (*Plantago maior*). F. Barrenengoak (1990) planteatu zuen hori eta ondorengo ikerlariek ere ontzat eman dute. Beste kasu askotan bezala, Aiaraldetik joan zirenen deiturretan gorde zen euskal izena eta XVII nahiz XVIII. mendeetan *Lanteno* sarri ageri da Bilbao eta Arabako Errioxako parrokiako artxiboetan. Denborarekin *Lanteno* horiek *Llanteno* bihurtu ziren aldaera herrikoï hura desagertu zen arte.

Se trata del concejo más extenso de Ayala (Aiara), ubicado en el extremo noroccidental de su término. Limita al norte con Gordexola en Bizkaia, y con el municipio de Okondo, al este con Menagarai, al sur con Erretes, Costera (Opellora) y Soxo, y al oeste con el vecino municipio de Artziniega. Madoz (1845-1850) le cita nada menos que 21 barrios, a saber, Lablanca, Ureta, Lezalde, Chabarri, Abiega, La Cabaña, Mimenza, Chabes, Inorza, Piguera (sic), Ulierte, La Serna, Puente de la Tabla, Pizparruchi, Yoregui, La Mota, Satia, Petiz, Basaburu, Garavilla y Opetarache. Becerro de Bengoa (1877) le asigna los caseríos de Abiega, La Barrieta, Basáburu, Basualdu, La Blanca, Cabaña, Chabarri, Chave, Garavilla, Lezalde, La Mota, La Petafache (sic), Pizparruchi, Satia y Ureta. En el *Nomenclátor de las ciudades, villas y lugares* entre los años 1854 y 1930 se le asignan las siguientes barriadas: Satia, Petiz, Zubiete, La Mota, Olabarrieta, Pizparruchi, Basaburu, Garavilla, Puente de la Tabla, La Serna, Inorza, Piquereza, Chaves, Mimenza, Abiega, La Petareche, La Blanca, Chávarri, Lejalde y Ureta. Además en el de 1930 aparecen citadas la casa de La Cabaña y el barrio de Ibaizabal. Como en otros concejos, la evolución de la población también en este caso muestra una tendencia negativa clara. En el *Diccionario* de Madoz (1845-1850) se le asignan 220 almas, censo que un siglo más tarde, según el *Nomenclátor* de 1950, había ascendido a 260 habitantes. En 1970 descendió a 226 y en el padrón correspondiente al año 2000, eran tan solo 137.

Entre los testimonios más antiguos, un documento del rey de Navarra del año 1040 cita: *et Mena vel Tutela et Lanteno cum omni pertinentia eorum*. En 1047 aparece nuevamente en la documentación del monasterio de Leire: *Senior Galindo Berascoiz dominator Lanteno confirmas*. En el año 1050, en la donación de las arras del rey navarro García de Nájera a su esposa la reina Estefanía, también se citan los nombres *Mena, Tutela et Lanteno*. La forma con *L-* simple, primera documentada, fue propuesta para su normalización por la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia), ya que en euskera no es común que tal sonido inicial se convierta en *Ll*. Prácticamente el único origen etimológico dado para este nombre es del latín *plantago*, *-aginis* o del equivalente castellano *llantén* que de aquel se deriva, haciendo referencia a un tipo de hierba (*Plantago maior*). Es solución planteada por F. Barrenengo (1990) y compartida por los estudios posteriores. Como en otros casos, la forma eusquérica se ha mantenido en los apellidos de aquellos que se alejaron de Ayala y en los siglos XVII y XVIII aparece con relativa frecuencia *Lanteno* en los archivos parroquiales de Bilbao y en la Rioja Alavesa. Con el paso del tiempo aquellos *Lanteno* se fueron convirtiendo en *Llanteno*, hasta la total extinción de aquella popular denominación.

## Abiega

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492102, Y.4775032, alt. 165 m.

Inorritzaren iparraldean dagoen auzoa da, Odoibaltza mendiaren hego-mendebaldeko magalean. Satiatik Ureta eta Gordexolara doan errepidetik ailegaten da. Inorritza eta Mimentza auzoak atzean utzi eta eskuinean dagoen adar batetik errepide nagusia utzi, erreka zeharkatu eta berehala erdiesten dira auzoko etxeak.

Auzo honen izena jadanik 1551n dokumentatzen da bere horretan. Seguruenik euskal hitza izango da, *ahabi* (*Vaccinium myrtillus*) eta *-aga* leku-atzizkiak osatua<sup>1</sup>. Hala balitz, ‘ahabi tokia’ esan nahiko luke, baina daitekeena da mendebaldeko euskalki edo bizkaiera arkaikoko (*h*)*abe*, ‘zutabea, zuhaitza’ izatea ere. *Abiaga* eratik *Abiega* erara pasatzea, *i-* edo *u-* ondoren bokalak ixteko joeragatik gertatzen da ( $a > e$ ,  $o > u$  etab.), oso bokalismo hedatua delako mendebaldeko euskara mintzatuan. *Abiega* forma abizen bezala zabaldu izanak, ordea, txandakatze bokaliko hutsa baino zerbait gehiago dela pentsarazten die ikertzaile batzuei<sup>2</sup>. Kasu horretan, *Abbius* antroponimotik etor liteke izena, amaieran *-iega* partikula arkaikoa jasota gaur egungo forma emango lukeena eta, egituran, itxuran eta aipatu txandakatzean *Artziniega* izenaren antzekoa izango litza-teke.

Se trata de una barriada situada al norte de Inorritza, ubicada en la ladera suroccidental del pico Odoibaltza. Se accede a ella desde la carretera que de Satia se dirige a Ureta y Gordexola, abandonando el carril poco después de dejar atrás los barrios de Inorritza y Mimentza, por un ramal a la derecha que cruza el río y nos lleva hasta los caseríos cercanos.

El nombre de este barrio se documenta en 1551 como *Abiaga*. Muy probablemente se trata de un compuesto eusquérico de *ahabi* ‘arándano’, *Vaccinium myrtillus*, y el sufijo locativo *-aga*<sup>3</sup>. Indicaría, por tanto, ‘lugar de arándanos’, o incluso podría pensarse en el euskera vizcaíno u occidental arcaico (*h*)*abe*, ‘columna, árbol’. La modificación de *Abiaga* a *Abiega* puede deberse a la tendencia a cerrar las vocales ( $a > e$ ,  $o > u$ , etc.) cuando van precedidas de *i-* o de *u-*, siendo un vocalismo habitual en el euskera occidental hablado. Sin embargo, el hecho de que la forma *Abiega* haya sido transmitida como apellido, hace pensar a algún autor<sup>4</sup> que en realidad se trate de algo más que una vacilación vocálica. Cabe sugerir entonces como posibilidad resolutive, que derive, por ejemplo, del antropónimo *Abbius*, que con la partícula final y arcaica *-iega* nos daría el resultado actual, similar en estructura, aspecto y vacilación citada, al nombre *Artziniega*.

<sup>1</sup> Mitxelena, 1997, 8 eta 10, 36-37. or.

<sup>2</sup> Mugurutza, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>3</sup> Mitxelena, 1997, 8 y 10, pág. 36-37.

<sup>4</sup> Mugurutza, 2001, *Zaraobe*, 77.

## Basaburu

Etxe talde txiki bat da Inorritza auzoaren gaineko bizkar batean, mendebaldetik hari begira dagoena. Pizparrutxetik heltzen da etxeetara, aipatutako bizkarrean gora doan bide zut batetik, baita Lantenotik Artziniegara doan A-624 errepidetik ere, mendi-lepo batean iparrerantz Garabilla eta Basaburu auzoetara heltzeko abiatzen den adarra hartuta.

1779an eta 1850ean auzo honen izena *Basábru* eran dokumentatzen da. Forma hori ohikoa da gaur egun ahozko hizkeran, baina jatorrizko *Basabururen* laburtzapena besterik ez da. Izen hauek guztiek azentuazio proparoxitona dute, Bizkaiko Enkarterritik Arabako Lautadaraino mendebaldeko euskal toponimo askok duten legez. Ohikoa den bezala, ahoskera jatorrak azentua duen silabaren ondoko bokala galtzea ekarri zuen: *Basáburu* > *Basabru*, *Gallárraga* > *Gallarga* etab. Dena dela, oraindik 1930ean *Basaburua* zen forma ofiziala eta datu interesgarria da euskal -a determinatzailearen presentzia. Toponimo konposatua da, batetik *baso* hitza duena, konposatuetan ohikoa den legez *baso*- bihurtua, eta, bestetik *buru* ‘kasko, gainean’. Horrenbestez, ‘basoaren gaina’ edo ‘basoaren goiko aldea’ esan nahi du. Euskal Herri osoan aurki daiteke izen hau, ekialdeko muturrean, *Basabürüa* Zuberoako eskualde historiko bat ez ezik, Nafarroan ere *Basaburua* izeneko ibar historiko bi izendatzen baititu.

Se trata de un pequeño grupo de casas situado en una loma que domina el barrio de Inorritza por el oeste. Se accede a él desde Pizparrutxi por un ramal empinado que supera la citada loma, o bien desde la carretera A-624 que une Lanteno con Artziniega, por el ramal que en un collado se desprende hacia el norte para llevar a Garabilla y Basaburu.

El barrio se halla documentado en 1779 y 1850 como *Basábru*. Esta forma, habitual en la actualidad en el uso oral, es una reducción del original *Basaburu*, consecuencia de la acentuación esdrújula propia de los topónimos vascos de la zona occidental del país, desde las Encartaciones vizcaínas hasta la Llanada Alavesa. La pronunciación castiza hizo que se perdiera la vocal posterior a la sílaba acentuada, como suele ser habitual: *Basáburu* > *Basabru*, *Gallárraga* > *Gallarga*, etc. De todas formas, es interesante indicar cómo todavía en 1930 la forma oficial era *Basaburua*, completa y con artículo final vasco -a. El topónimo es un compuesto de *baso* ‘bosque’, que en palabras compuestas suele pasar a *baso-*, y *buru* ‘cabeza, sobre’, significando, por tanto, ‘sobre el bosque’ o ‘parte alta del bosque’. Este nombre puede encontrarse a lo largo y ancho de todo Euskal Herria, dándose la circunstancia de que también designa a una de las comarcas históricas de Zuberoa, *Basabürüa*, en su extremo más oriental, así como dos valles históricos de Navarra.

## Basoaldu

Etxea / Casa: ED50 30T X.492399, Y.4775074, alt. 240 m.

Abiega auzoaren goialdeko etxea da, iparraldean dagoen Inorritza auzoari begira. Abiega auzotik joaten da Basoaldura, A-3634 errepidetik Mimentzako etxeak igaro eta berehala eskuinera aurkitzen dugun adar bat harturik.

Izenaren jatorrizko forma *Basoaldu* da eta amaierako *-u* eta guzti dokumentatzen da oraindik 1930ean. Euskal hitza da, osagai bi dituena: *baso* izena eta latinetik hartutako *altu* izenondo mailegatua, gaur egungo euskaraz ere erabiltzen dena. Euskaraz ohikoa den *-oa-* > *-ua-* bokalismoaz gainera, oraindik ere kartografia batzuetan amaierako bokala aldatuta aurkitu ohi den *Basualdo* forma administrazioaren ohitura bati zor zaio, *-o* letraz amaitutako hitzak zuzenagotzat eta gaztelaniazkoagotzat hartzen baitziren, *-u* amaiera zabartzat jotzen zen bitartean. Horregatik dauzkagu era horretako izen bikoteak dituzten hainbeste herri Araban, hala nola *Guereño / Gereñu*, *Luco / Luku* etab. Gure kasuan, *Basualdo / Basualdu* modu bietan gorde da abizen bezala eta 1609ko odol garbitasuna frogatzeko, Lantenoko *Juan da Basualdo* delako batek eskatutako ziurtagiri batean jadanik halaxe dokumentatzen dugu. Bada izen bereko auzo bat ere Aiaratik gertu dagoen Okondo udalerrian.

Se trata de una casa situada sobre la barriada de Abiega, dominando al norte el barrio de Inorritza. Se accede a Basoaldu desde el citado barrio de Abiega, a partir de la carretera A-3634 por un ramal a la derecha que encontramos tras haber superado las casas de Mimentza.

La forma original del nombre es *Basoaldu*, que se documenta con *-u* final todavía en 1930. Procede del euskera *baso* 'bosque' y *altu*, préstamo latino aún hoy utilizado en euskera y que significa 'alto, elevado'. Además del vocalismo *-oa-* > *-ua-*, muy habitual en euskera, el cambio de vocal final que produjo la forma *Basualdo*, aún frecuente en muchas cartografías, se debe a la costumbre de la administración de pretender más castellanas y correctas las formas en *-o*, suponiendo vulgares las populares en *-u*. Consecuencia de ello son los frecuentes dobles que podemos encontrar en nombres de pueblos alaveses como *Guereño / Gereñu*, *Luco / Luku*, etc. En nuestro caso, el doblete *Basualdo / Basualdu* se ha conservado como apellido en las dos formas, documentándose ya como tal en un expediente de limpieza de sangre de 1609, a requerimiento del vecino de Lanteno, *Juan de Basualdo*. Hay también una barriada de este nombre en el vecino municipio de Okondo.

## Blanca, La

Etxea eta ermita / Casa y ermita: ED50 30T X.493579, Y.4774415, alt. 280 m.

Izenak adbokazio bereko ermitari eta ondoan dagoen etxeari egiten die erreferentzia. Izan ere, Madozek (1845-1850) auzoaz gain, Odoibaltza mendiaren hegoaldeko magaletan eta Inorritzaren ekialdean dagoen santutegi ospetsua aipatzen zuen: «famoso santuario de Nuestra Señora de Lablanca (sic)». Bada bitxikeria bat ere: 1708an Burgosko artzapezpikuak bai serora –ermita zaintzeaz arduratu eta ondoko etxean bizi zen andrea– eta bai honen neskamea *muy mozas*, 'oso neska gazteak' zirela ikusita, santutegia inor bizi ez zen eremuan egonik, arrisku handia zegoela ondorioztatu zuen. Horregatik agindu zuen zerbitzua utzi eta, bekaturako tentazioak saiheste aldera, handik aurrera serorak gutxienez berrogeita hamar urtetik gorakoak izan zitezten. Ermi-



*Andra Maria Zuria ermita*  
Ermite de la Blanca

tara joateko Inorritzatik Itzara doan errepide asfaltatua hartu behar da eta Itzara heldu baino lehen aurkituko dugu bidearen ondoan. Menagaraitik ere joan daiteke ermitarra, Itza auzoa igarota.

Andra Maria Zuria Ama Birjinaren adbokazioetako bat da, Erroman behin batean abuztu erdian elurra egin omen zuela gogorarazi nahi duena. Ama Birjinaren izen hau Nafarroako errege Antso VI. «Jakintsua»k zabaldu omen zuen, debozio handia baitzion. Horregatik aurkitu ahal dugu izen hau, besteak beste, Gasteiz eta Trebiñu hirietan, biak fundatu baitzituen aipatutako erregeak. Madozek (1845-1850) iruzkintzen ari garen ermitaz gain, *Lablanca* (sic) auzoa ere aipatzen du, Becerro de Bengoak (1877) ortografia zuzenagoz *La Blanca* idatzi zuena. Gaztelaniazko izena da, elurraren kolorea adierazten duena. Adbokazioa denez, zilegi da beste hizkuntza ofiziala den euskarara ere itzultzea eta, hala eginez gero, *Andra Maria Zuria* erabili behar da. Bitxikeria gisa, aipatu behar dugu ermitak beste santu zaindari batzuk izan zituela lehenago, gauza jakina baita Justo eta Pastor santuei eskainia egon zela behiala. Horren ondorioz, haren erromeria abuztuaren 6an izaten da, orduan izaten baita santu horien eguna, eta ez abuztuaren 5ean, santutegiaren arabera Andra Maria Zuriari eskainitako eguna. Honez gainera, Artziniegan esaten denez, ermita Menagarain eraiki nahi izan zutenean, materialak jatorrizko tokira itzultzen ziren eta ezinezkoa izan zen lanak aurrera jotzea. Antzeko kasu askotan kontatzen da gauza bera, hala ere. Garai batean Andra Mariari ume jaioberrien pisua garitan eskaintzeko ohitura egon zen.

El nombre hace referencia a la ermita de esta advocación y a la casa aneja a la misma. En efecto, ya Madoz (1845-1850) cita además del barrio, el «famoso santuario de Nuestra Señora de Lablanca (sic)», que se ubica en una zona de montaña en las faldas meridionales del pico Odoibaltza y al este de Inorritza. Como curiosidad, merece la pena señalar que en 1708, el arzobispo de Burgos vio que tanto la serora –mujer encargada de cuidar el templo y que vivía en una casa anexa al mismo– como su criada eran «muy mozas» y estaban expuestas a peligros por hallarse el santuario en despoblado. Por ello les ordenaba que dejaran de servir y que, para evitar tentaciones pecaminosas, en lo sucesivo las seroras fuesen mayores de cincuenta años. Se accede al santuario por carretera asfaltada que de Inorritza trepa por la ladera para dirigirse a la barriada de Itza, antes de llegar a estas casas y a la vera del carril. Igualmente puede llegarse al templo procediendo de Menagarai por la barriada de Itza.

Nuestra Señora de la Blanca, Santa María la Blanca o la Virgen Blanca (Andra Maria Zuria) es una advocación de la Virgen María que conmemora el hecho milagroso de que, en cierta ocasión, nevara en Roma en pleno mes de agosto. La difusión de este nombre de la Virgen parece estar ligada al rey navarro Sancho VI «El Sabio» que le tenía gran devoción. Por esta razón aparece hoy esta advocación, entre otras, en las villas de Vitoria (Gasteiz) y Treviño (Trobiñu), ambas fundadas por dicho rey. Madoz (1845-1850) cita además del templo que nos ocupa, el barrio de *Lablanca* (sic), mientras Becerro de Bengoa (1877) lo escribe de una manera más ortográfica: *La Blanca*. Es denominación castellana, derivada del vocablo que indica el color de la nieve. Como advocación que es, cabría traducirla a la otra lengua oficial, el euskera, en cuyo caso ha de utilizarse *Andra Maria Zuria*. Como curiosidad, diremos que el templo tuvo con anterioridad otros patrones, pues consta haber estado dedicada antaño a los santos Justo y Pastor. Como consecuencia de ello la romería se celebra el 6 de agosto, festividad de estos santos y no el día 5, correspondiente según el santoral a la Virgen de las Nieves. Además, una tradición de Artziniega dice que se pretendió erigir el eremitorio en término de Menagarai pero, como se cuenta en muchos otros casos similares, no fue posible debido a que los materiales volvían misteriosamente a su lugar de origen. En otra época existió la tradición de ofrecer a la virgen el peso de los recién nacidos en grano.

## Cabaña, La

Etxea / Casa: ED50 30T X.491899, Y.4775427, alt. 185 m.

Segur aski jatorriz eraikin osagarri bat izango zen etxe bat besterik ez da. Garondo gainaren azpiko mendi magal batean bakarturik dago, Abiega auzoaren ipar-mendebaldean, eta handik hel daiteke etxe honetara, mendiaren magalean zehar doan errepidetik.

Izena gaztelaniazkoa da eta esanahia ere garbia du: ‘etxola, txabola, borda’, eta lehen esan dugun legez, izenak haren jatorriaren berri ematen digu segur aski, inguruan egongo zen etxeren baten mendi-etxola lagungarria izango baitzen.

Se trata de una simple casa que seguramente en origen no fue sino una construcción auxiliar. Se encuentra aislada en una ladera bajo el alto de Garondo, al noroeste de la barriada Abiega, de donde puede accederse por carril que discurre por la ladera de este monte.

El nombre es claramente castellano con significado evidente que, como ya hemos dicho, seguramente informa de su origen inicial como cabaña auxiliar montaraz asociada a alguna casa de las inmediaciones.

## Doñobe

Etxea / Casa: ED50 30T X.492359, Y.4773607, alt. 205 m.

Satia izeneko gunearen iparraldean dago etxe hau, Inorritzara doan bidearen ezkerrean. Baina Artziniegara doan A-624 errepidetik ailegatzen da bertara, hilerriko bidegurutzetik gertu, bidez beste aldean eta nahiko behean eskuinera abiatzen den adar xume bat hartuta, hain zuzen ere.

1661ean *Denobe* forma dago dokumentatuta eta 1754an *Donobe*. Hala ere, herriko kartografia ofizialak *Dañobe* izendatzen du. Etimoa batere argia izan ez arren, bigarren osagaia sarri aurkitzen dugun *-be* atzizkia izan daiteke, euskaraz ‘azpian, beheko aldean’ esan nahi duena.

Es una casa situada al norte del núcleo denominado Satia, a la izquierda de la carretera que conduce a Inorritza. Sin embargo el acceso ha de realizarse desde la A-624 que lleva a Artziniega, para descender por un pequeño ramal a la derecha que se inicia próximo al cruce del cementerio pero al otro lado de la carretera y bastante abajo.

Documentamos la forma *Denobe* en 1661 y *Donobe* en 1754. Sin embargo la cartografía local oficial lo denomina *Dañobe*. Aunque el étimo no es claro, el segundo componente pudiera ser el frecuente sufijo eusquérico *-be*, ‘debajo’.

## Etxabarri

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491628, Y.4775128, alt. 190 m.

Inorritzaren ipar-mendebaldean dagoen auzo bildua dugu hau, handik Uretara eta Gordexolara doan A-3634 errepidearen ezkerrean. Bertara joateko, errepide hori utzi behar da, Mimentzako etxeak igaro eta berehala, ezkerrean dagoen adar bat hartuta. Hegoaldetik ere joan daiteke, A-624 errepidea Lapetaratzeko gainean utzi, muiño baten albotik zeharkatu eta ibar batean behera ekialdera jaitsita.

Ahozko hizkeran auzoari *Txábarri* esaten zaio, azentua lehen *-a-* bokalean, eta Aiaran nahiz Bizkaiko Enkarterrin toponimoetan maiz gertatzen den fenomeno berezi batez: hasierako *E-* galdu egin da. Gehienetan bokal hori hitzaren aurretik doan determinante nahiz preposizioen baten parte dela uste izaten da, oker, eta horregatik



tik galtzen da. Gauzak horrela, *de Etxabari* esatetik *de Txabari* esatera pasatzen da, eta denborarekin izena *Txabari* huts bihurtzen da. Eskribauiek hala erabiltzen zutelako bihurtu zen ofizial laburtutako forma hori, baina agirietan *Echavari* forma ageri da gutxienez XVIII. mendera arte. Esanahia argia da, *etxe* hitza konposatuetan *etxa-* bihurtzen dena, eta *berri* estandarren mendebaldeko ordaina den *barri* osagaiak dituela.

Se trata de una barriada compacta situada al noroeste de Inorritza, a la izquierda de la carretera A-3634 que se dirige del citado barrio a Ureta y a Gordexola en Bizkaia. Para acceder al mismo, hay que dejar esta carretera por un ramal que asciende hacia nuestra izquierda poco después de superar las casas de Mimentza. También puede accederse desde el sur, dejando la carretera A-624 en el alto de Lapetaratxe para flanquear una pequeña colina por su ladera oriental y descender después por una vaguada hacia el este.

La denominación oral del barrio es *Txábarri*, con acento en la primera *-a-*, y con un fenómeno común en los topónimos de Ayala (Aiara) y de la Encartación vizcaína: la pérdida de la *E-* inicial. Esta se debe generalmente a la consideración errónea de que esa vocal forma parte de un determinante o preposición antepuesta, y no al nombre. Así de la expresión *de Etxabari* se pasa a *de Txabari* y luego el nombre se queda en *Txabari*. Aunque la extensión de este uso por los escribanos llevó a dar carácter oficial a la forma mutilada, la documentación nos muestra invariablemente la forma *Echavari* al menos hasta el siglo XVIII. Su significado es diáfano, del euskera *etxe* 'casa', en compuestos *etxa-*, y *barri* 'nueva' en dialecto occidental, equivalente al estándar *berri*.

## Etxabe

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492238, Y.4774488, alt. 165 m.

Etxe talde txiki bat da, Inorritzatik Uretara nahiz Gordexolara doan A-3634 errepidearen ondoan, Inorritzatik irten eta Mimentzako etxeetara iritsi baino lehen, hain zuzen ere. Oso toki baxuan dago, ia Ibaizabal ibaiaren ertzean.

Auzo hau izendatzen duen toponimoa euskarazko konposatu bat da, osagai bi dituena: *etxe* hitzaren konposaketa-aldaera den *etxa-*, eta *-be* 'azpian, beheko aldean'. Hortaz, 'etxearen azpian' esan nahi du. Era berean, *-be* atzizkiak 'txikia' esanahia ere izan dezake eta, horrenbestez, daitekeena da 'etxe txikia' adierazi nahi izatea. Salmantongo kontzejuan bada *Etxabe* izeneko beste auzo bat eta han bezala, agiri historikoe-tan hasierako *E-* hori agertzen da, Barrenengoak XVII. mendera arte dokumentatua, baina ahozko hizkeran gehien erabiltzen diren formak *Txábe* eta *Txábes* dira. Seguruenik, hortik datoz administrazioak erabili dituen *Chaves*<sup>5</sup> bezalako aldaerak. Hasierako *E-* hori galtzeari dagokionez, ikus *Txabari* aldaerarako *Etxabari* auzoaren iruzkinean esandakoa.

<sup>5</sup> Horrela dokumentatuta dago, esate baterako, 1930eko *Nomenclátor* lanean.

Se trata de un pequeño grupo de casas emplazadas junto a la carretera A-3634 que de Inorritza se dirige a Ureta y Gordexola, concretamente a la salida de Inorritza y antes de llegar a las casas de Mimentza. Su ubicación es bastante baja, prácticamente a orillas del río Ibaizabal.

El topónimo que designa este barrio es un compuesto eusquérico de *etxe* 'casa', en compuestos *etxa-*, y *be* 'abajo'. Significa, por lo tanto, 'bajo la casa'. También es posible explicar el nombre a partir de *-be* en el significado de 'pequeña', con lo que sería 'casa pequeña'. Igual que en el barrio *Etxabe* del concejo de Salmantón, aunque la documentación histórica sustenta la propuesta con *E-* inicial, documentada por Barrenengoa hasta el siglo XVIII, el uso oral más frecuente es *Txábe* o *Txábes*, de donde seguramente proceden algunos testimonios administrativos castellanizantes como *Chaves*<sup>6</sup>. Respecto a la caída de esa *E-* inicial, véase lo dicho en *Etxabarri* para la variante *Txabarri*.

## Garabilla

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491821, Y.4774129, alt. 250 m.

Zaballa mendiaren ipar-ekialdeko adarretan dago auzo txiki hau, Lantentik Artziniegara doan A-624 errepidearen eskuinean. Errepide nagusi hori lehenengo mendi-lepoan utzi eta iparraldera doan adar xume bat segitu behar da baserriak dauden to-kira heltzeko. Leku honetan 1419an murgatarren, ibarguendarren eta Gordexolako largatxatarren arteko gudu bat izan zen eta, amaieran, Garabillako Lopek Buegeko Pero murgatarra hil zuen.

Izen hau *-v-* kontsonantearekin idatzi izan da, gaztelaniazko *villa* hitzetik zeto-rrelakoan, baina ez dirudi hala denik, inguru honetan duela gutxira arte euskaraz hitz egin baita. Seguruenik hitz konposatua izango da eta osagaiak izango dira *gara(i)* 'gaina, muinoa' eta toponimian oso ohikoa den *bil* 'biribil' en era laburtua<sup>7</sup>. Gero horri *-a* artikulua erantsiko zitzaion. Horrenbestez, 'gain biribila' esan nahiko luke eta, diru-dienez, auzoa kokatzen den muinoaren forma ongi deskribatzen du.

Es un pequeño barrio situado en las estribaciones nororientales del pico Zaballa, a la derecha de la carretera A-624 de Lanteno a Artziniega, dejando el carril principal justo en el primer collado, para seguir un pequeño ramal hacia el norte hasta el lugar donde se emplazan los caseríos. En 1419 hubo una lucha en este lugar entre los de Murga y los de Largatxa (Gordexola) e Ibarquen y, finalmente, Lope de Garabilla mató a Pero de Buege, que era de Murga.

Aunque este nombre se ha escrito con *-v-* presuponiendo su relación con el sustantivo castellano *villa*, esta interpretación parece muy improbable en una zona de habla vasca hasta hace poco tiempo. La explicación más posible es que se trate de un compuesto de *gara(i)* 'alto'

<sup>6</sup> Documentado así, por ejemplo, en el *Nomenclátor* de 1930.

<sup>7</sup> Ikus bedi era sinkopatu honetaz (*biribil* > *bil*) Izoria kontzejuko *Mendibil* auzoan esandakoa.

y *bil*, contracción de *biribil* 'redondo', muy común en toponimia<sup>8</sup>, más el artículo -a. Vendría, por tanto, a significar 'el alto redondo', lo que además parece coincidir con la forma de la colina en que se ubica.

## Ibaizabal

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492441, Y.4772771, alt. 190 m.

Satiako hegoaldean dauden etxeek osatzen dute auzoa, Menagaraitik Artziniegara doan A-624 errepidearen inguruan kokatuak, errepide nagusi horretatik Erretes, Erbi eta inguruetara doan adarra (A-3630) abiatzen den bidegurutzetik gertu. Etxerik gehienak bidegurutze horren iparraldera daude, ibaiaren ondoan eta A-624 errepideko 52. puntu kilometrikoaren inguruan. Auzoko etxe batzuk Opellorakoak dira eta haietako bat Menagaraikoa. Horregatik, kontzeju horietan ere aipatzen da auzo hau.

Auzoaren izena euskal konposatu gardena da, osagai bi dituena: *ibai* eta *zabal*. *Ibai* hitza oso antzinakoa da eta toponimian ezaguna den arren, ez da oso ohikoa, ur-ibilguak izendatzeko *ur* edo *erreak* maizago erabiltzen baitira. Aiarako azentuazio berezkoa eta zuzena *Ibáizabal* da eta, *Ibaizábal* eraren indarraren aurrean desagertzeko zorian badago ere, oraindik erabiltzen da.

Se trata del grupo de casas ubicado al sur de Satia, en torno a la carretera A-624 que viene de Menagarai y se dirige a Artziniega, próximo al cruce que de la citada carretera principal lanza un ramal (A-3630) al sur para dirigirse a Erretes, Erbi, etc. El grupo más numeroso de casas se ubica algo al norte de este cruce, junto al río y en torno al punto kilométrico 52 de la citada A-624. El barrio tiene algunas casas pertenecientes al concejo de Costera (Opellora) y una en Menagarai, por lo que figura también en esos concejos.

El nombre de este barrio es un diáfano compuesto vasco de *ibai* 'río' y *zabal* 'ancho'. Aunque *ibai* es una palabra muy antigua y conocida en toponimia, no aparece frecuentemente, pues para designar cursos de agua, son más comunes los vocablos *ur* 'agua' o *erreak* 'regato'. La acentuación correcta, propia de Ayala (Aiará) y todavía en uso, aunque en trance de desaparición, es *Ibáizabal* y no *Ibaizábal*.

## Inorritza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492435, Y.4774460, alt. 170 m.

Satiaren iparraldean dago auzo ezagun eta garrantzitsu hau, Lantenotik Ureta nahiz Gordexolara doan A-3634 errepidean. Ibaizabalen ertzean, honen ezker aldean dagoen meandro batean dago kokatua. Hainbat urtez auzo honetako eskola zaharretan egin ziren kontzejuko bilkurak eta horrek argi uzten du Lantenoko auzo garran-

<sup>8</sup> Véase lo dicho sobre esta forma sincopada (*biribil* > *bil*) en Mendibil, barrio del concejo de Izoria.

tzitsua dela. Gaur egun, ordea, kontzejuko aretoa Satiatik gertu dago, elizaren ondoan, eta eskola, berriz, Pizparrutxi auzora eraman da. Puente de la Tabla delakoan ere egin izan dira kontzejuak, La Serna izeneko eremutik hurbil, nahiz eta dokumentatuta dagoenez, zenbait mendez bilerak *en el campo de junto a Señor Santiago* ‘Jaun Done Ja-kueren ondoko landan’ egin izan ziren tradizionalki, Satiako parrokiatik gertu.

*Inorritza* euskal toponimoa da eta honako osagai hauek ditu: *inorri* (*Erica sp.*), hau da, (*g*)*inar* estandarren tokiko aldaera, eta *-tza* ugaritasun atzizkia. Gaur egun Aiare-rrian *inarra* edo *iñarra* erabiltzen dira landare hori izendatzeko, euskaraz ohikoa den bezalaxe. Baina dokumentatutako lehenengo formetan *Inurriza* (1586) ageri da, eta horregatik daitekeena da lehen osagai hori *inurri* izatea, toponimian maiz erabili izan delako izen hori, eta horren adibide ditugu *Iñurrieta* edo erromantzeko *Formigal* toponimoa, latinezko *formica* ‘inurri’ hitzetik datorrena. Duela ia mende bat arte izen hau *Inurriza* edo *Inorritza* idazten zen agirietan –1930ean oraindik *Inoriza* ageri da–, baina ordutik aurrera *Inorza* bihurtu zen. Erabilera horretan oinarri hartuta, gaur egungo maparen batean *Inortza* aldaera normalizatu nahi izan da, baina egokiagoa dirudi *Inorritza* era osoa hobestea. Argi dago *-i-* bokala galtzearen arrazoia, tokirik ahulenean egoteari zor zaiola, hau da, azentu nagusiaren ondoren. Horrek esan nahi du izenaren azentuazioa *Inórritza* dela eta inola ere ez *Inorritza*. Azentua duen silabaren ondoko bokala kasu gehiagotan ere galtzen da, eta hala gertatzen da *Basáburu* auzoa- ren kasuan ere, Lantenon bertan, jendeak *Basábrú* esan ohi baitu ahoskera zabarrean. Gaur egun *Inorza* esaten zaio auzoari, inguru honetan euskara desagertzean *-tz-* soinua ere galdu egin baitzen. Antzinako agirietan soinu hau transkribatzeko *-ç-* erabiltzen zen: 1514an *Ynorriça* forma dago dokumentatuta. Izenarentzat ezagutzen dugun tes- tificantzarik zaharrena, ohi bezala, Lope García de Salazarri zor diogu, bere *Bienandan- zas e fortunas* liburuan, 1419an Lantenon izandako borroka bat kontatzen baitu, Ga- rabillako Lope Buegekok Pero murgatarra hil zueneko. Gertakari honen osteko mendeku hurrenkeran murgatarrek, besteak beste, Juan Perez de Norrieza (*Inorritza*) eta Lope de Lavarrieta hil zituzten.

Se trata de un conocido e importante barrio situado al norte de Satia, en la carretera A-3634 que de Lanteno se dirige a Ureta y Gordexola en Bizkaia. A orillas del río Ibaizabal, ocupa un meandro en su margen izquierda. El hecho de que durante años los concejos se celebraron en las viejas escuelas que se ubicaban en esta barriada, sugiere que es sin duda la más importante de Lanteno. Hoy sin embargo, la sala del concejo se encuentra cerca de Satia, junto a la iglesia parroquial, y la escuela también ha sido desplazada al barrio Pizparrutxi. Curiosamente, también se celebraron concejos en el Puente de la Tabla, en el paraje próximo conocido como La Serna, aunque se documenta que el lugar tradicional de reunión fue durante siglos *el campo de junto a Señor Santiago* cerca del templo parroquial en Satia.

*Inorritza* es un topónimo eusquérico compuesto de *inorri* ‘brezo’, (*Erica sp.*), variedad local del estándar (*g*)*inar*, más el sufijo abundancial *-tza*, y significa, por tanto, ‘brezal’. Aún hoy en la Tierra de Ayala suele llamarse comúnmente *inarra* o *iñarra* al brezo, del mismo modo que suele usarse en euskera. Sin embargo, las formas primeramente documentadas lo hacen

como *Inurriza* (1586) lo que nos obliga a tener también presente la opción de la palabra *inurri*, ‘hormiga’, presente en nombres similares como *Inurrieta* o el romace *Formigal*, del latín *formica* ‘hormiga’. El nombre en cuestión se documenta como *Inurriza* o *Inorriza* hasta prácticamente hace un siglo –todavía en 1930 figura *Inoriza*–, momento en que pasa a convertirse en el actual *Inorza*. Basándose en este uso, algunos mapas modernos han pretendido normalizar la grafía *Inortza*, pero parece más justo respetar la forma completa *Inorrítza*. No cabe duda de que la pérdida de la vocal -i se produce por encontrarse en la posición de máxima debilidad posible: después del acento principal. Es decir, la acentuación del nombre ha de articularse como *Inórrítza* y jamás *Inorrítza*. Este caso de pérdida de la vocal posterior a la sílaba tónica o acentuada es similar al del barrio *Basáburu* también en Lanteno, pronunciado *Basábrv* en el habla vulgar. La actual pronunciación *Inorza* es además consecuencia de la pérdida del euskera y la desaparición del sonido que hoy escribimos en esta lengua -tz-, aunque en la documentación antigua suele figurar transcrito -ç-: en 1514 se documenta con la grafía *Ynorriça*. El testimonio más antiguo del nombre es, como ocurre tan a menudo, de Lope García de Salazar que en sus *Bienandanzas e Fortunas* relata una batalla que tuvo lugar en Lanteno en 1419, en la que Lope de Garabilla mató a Pero de Buege de Murga. En la sucesión de venganzas los de Murga mataron a Juan Perez de Norrieza (Inorrítza), a Lope de Larrieta y a otros.

## Lapetaratxe

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491202, Y.4774456, alt. 225 m.

Etxe talde txiki bat da, Artziniegako mugatik gertu, Lantenotik datorren A-624 errepidearen ondoan dagoena, hiri hurbil horretarako jaitsiera hasi eta berahala. Ipar-ekialdera begira dagoen gain txiki batean eta Etxabarri alderako ibarrera so dagoen lekua mendi-lepo xume bat da eta Alto de Lapetaratxe ‘Lapetaratxeko gaina’ esaten zaio.

Auzo izen honen etimoa ilun samarra da. Madozek (1845–1850) *Opetarache* idatzi zuen. Orobat Becerro de Bengoaren (1877) *Libro de Álava* delakoan *La Petafache* aldaera arraroa ageri da. 1854ko eta 1930eko agiritan *La Petareche* ageri da, seguruenik, hasierako silaba gaztelaniazko *La*<sup>9</sup> artikuluaekin nahastu izanaren ondorioz. Forma hori kontuan hartzen badugu, toponimoaren azken osagaia *etxe* izan daitekeela bururatzen zaigu. Leku-izen honetarako ezagutzen den formarik zaharrena *Lopetarache* (1495) da, eta orain arte emandako etimologia sinesgarri bakarra planteatu zen hartan oinarrituta. Horren arabera, agian *Lope* pertsona izena eta *etxe* hitza izango genituzke osagaiak<sup>10</sup>. Aurrez beste aukera batzuk ere eman izan dira, hala nola, ‘la-rreren beheko aldeko hariztia’<sup>11</sup>, baina linguistikoki defendaezinak dira. Agiritan

<sup>9</sup> Honi buruz, ikus kontzeju honetako *Olabarrieta* auzoaren *Olabarrieta* > *La Barrieta* deformazioari buruz adieraziko duguna.

<sup>10</sup> Mugurutza, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>11</sup> Barrenengoa, 1990.

dauden lehenengo formei kasu eginik, *Lopetaratxe* forma proposatu beharko genuke, baina ikerketa dokumental zehatzagorik egiten ez den bitartean, nahiko arriskutsua dirudi gaur egun erabiltzen den forma alde batera uzteak, forma hau ere ondo dokumentatuta baitago.

Se trata de un pequeño grupo de casas que, cercano al límite de Artziniega, se emplaza junto a la carretera A-624 que procedente de Lanteno, comienza ya el descenso hacia la cercana villa vecina. Su emplazamiento en un pequeño alto que mira al nordeste, a la vaguada que se asoma hacia Etxabarri, es un modesto collado conocido también como Alto de Lapetaratxe.

El nombre de este barrio es en cuanto al étimo ciertamente opaco. Madoz (1845-1850) transcribe *Opetarache*. Otrótanto puede decirse del *Libro de Álava*, en el que Becerro de Bengoa (1877) transcribe la extraña forma *La Petafache*. En documentación de los años 1854 y 1930 figura *La Petareche*, seguramente confundiendo la sílaba inicial con el artículo castellano *La*<sup>12</sup>. Esta forma parece además sugerir que el último componente del topónimo fuera el sustantivo eusquérico *etxe* 'casa'. La forma documental más antigua conocida para este topónimo, *Lopetaratxe* (1495), hizo plantear la única etimología factible dada al mismo, explicándola por el nombre de persona *lope* y quizá la palabra *etxe*<sup>13</sup>. Otras opciones ofrecidas con anterioridad, tales como 'roblechal en las partes bajas del pastizal'<sup>14</sup> no son lingüísticamente defendibles. Haciendo caso a las primeras formas documentadas, debiéramos sin duda proponer la forma *Lopetaratxe* pero, hasta no llevar a cabo una investigación documental más exhaustiva, parece algo arriesgado pretender desterrar la forma usada actualmente e igualmente bien documentada.

## Lezalde

Ingurua (antzinako auzoa) / Paraje (antigua barriada): ED50 30T X.491371, Y.4776076, alt. 145 m.

Auzo honetako azkenengo etxea sute baten ondorioz desagertu zen arren, XVIII. mendeaz geroztik ageri da Lezalde izeneko errota bat agirietan, Ureta auzoaren hegoaldeetik gertu, ibaiaren ondoan. Suak kiskalitako etxearen aztarnak ikus daitezke oraindik ere Bizkaiko Gordexolara doan A-3634 errepidearen eskuinean. Gainera, etxe hori baino apur bat beherago errepidearen ondoan burdinola bat egon zen.

Etxea egon zen alderdiaren ondoan bada gaur egun oraindik ere *Las Cuevas* izeneko toponimoa, are gehiago indartzen duena balizko euskal etimoa, *leze* 'haitzuloa' eta *alde* 'ondoan' osagaiez konposatua izango baikenuke, hau da, 'haitzuloaren ondoan'.

<sup>12</sup> Sobre esta cuestión véase además lo dicho respecto a la deformación *Olabarrieta* > *La Barrieta* en el barrio *Olabarrieta* de este concejo.

<sup>13</sup> Mugurutz, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>14</sup> Barrenengoa, 1990.

Aunque la última casa de este barrio desapareció como consecuencia de un incendio, hallamos en la documentación desde el siglo XVIII un molino de nombre Lezalde en la zona próxima al río, inmediatamente al sur del barrio Ureta. La zona donde pueden verse los restos de la casa quemada se halla a la vera derecha de la carretera A-3634 que se dirige a Gordexola en Bizkaia. Además, algo más abajo de esta casa hubo también junto a la carretera una ferrería.

En las inmediaciones del lugar que ocupó la casa, aún hoy existe el topónimo *Las Cuevas*, lo que viene a apoyar el claro étimo eusquérico, según el cual se trata de un compuesto de *leze* 'cueva' y *alde* 'zona cercana', es decir, 'junto a la cueva'.

## Mimentza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492078, Y.4774637, alt. 160 m.

Auzo txiki hau Inorritzatik Uretara nahiz Bizkaiko Gordexolara doan A-3634 errepidearen ondoan dago, zehazki, Inorritza igaro eta 500 bat metrotara, Ibaizabalen ezkerreko hegian, ibar txiki batean.

Seinale ofizialetan eta ohiko kartografian *Mimeza* agertu izan den arren, *Mimentza* forma gutxienez 1626tik gaur egunera arte dokumentatzen da, eta ahozko hizkeran oraindik bizirik dago. Etimoa garbia da, *mimen* (*Salix viminalis*) substantiboaz eta *-tza* ugaritasun atzizkiaz osatua dago eta, 'zume tokia, zumadia'.

Es una pequeña barriada situada en las inmediaciones de la carretera A-3634 que de Inorritza se dirige hacia Ureta y Gordexola en Bizkaia, concretamente unos 500 m después de Inorritza, sobre una pequeña vega del río Ibaizabal y a la orilla izquierda del mismo.

Aunque en la señalización oficial y en la cartografía más habitual ha venido figurando *Mimeza*, la forma *Mimentza* se documenta al menos desde 1626 hasta la actualidad, estando aún viva en el uso oral. Además el étimo es diáfano, componiéndose del sustantivo vasco *mimen* 'mimbre' (*Salix viminalis*), más el sufijo abundancial *-tza*, significando 'lugar de mimbres, mimbrera'.

## Mota, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492808, Y.4773548, alt. 200 m.

Satia auzoaren ekialdean dago etxe talde hau, Ibaizabalen eskuinaldera, eta ibarra mendean hartzen duen magalean apur bat gora. Satiatik abiatzen den adar batetik heltzen da auzo honetara, Inorritzara doan errepidea utzi, ekialdera jo, ibaia igaro eta etxeetara igotzen dena.

*Mota* ohiko toponimoa da Araban eta Bizkaian, batzuetan *La* artikularekin eta besteetan gabe agertzen dena. 'Toki garaia' edo 'mendi nabarmena' esan nahi du eta, garai batean, gotorleku txikiren bat altxatzeko erabiltzen zen edo eraikitzen zen lu-

beta ere izendatzen zuen. Berba hori frantsesetik hartu zuen gaztelaniak, baina jatorriz alemana da. Gure kasuan, artikularekin erabiltzen dute bertakoek: *La Mota*.

Se trata de un grupo de casas ubicado al este del barrio denominado Satia, al lado derecho del río Ibaizabal y un poco elevado en la ladera que domina el valle. Se accede al barrio por un ramal que procede de Satia y que se desgaña de la carretera que se dirige a Inorritza para dirigirse al este, cruzar el río y subir directamente hacia las casas.

*Mota* es un topónimo frecuente en Álava y Bizkaia con o sin el artículo castellano *La*, que viene a significar 'sitio elevado' o 'monte prominente' y, anteriormente, un terraplén, a menudo artificial, sobre el que se levantaba una pequeña fortificación. Se trata de un término introducido en el castellano a través del francés y, en su origen, alemán. En nuestro caso, el uso local es con artículo: *La Mota*.

## Olabarrieta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492176, Y.4773671, alt. 220 m.

Gaur egun auzo txiki bat da eta Lantenotik Artziniegara (A-624) eta Inorritzara (A-3634) doazen errepideen artean dago, oraindik Satiatik aldendu gabe. Sakabana-tuta dauden etxeetara heltzeko, aipatutako Artziniegako errepidetik adar bat hartu behar da, ibar markatuan behera ipar-ekialderantz abiatzen dena, nahiz eta bide honek beherago Inorritzarako errepidea ere erdiesten duen.

*Olabarrieta* auzoa 1650ean eta 1707an ageri zaigu dokumentatua<sup>15</sup>, eta 1930ean ere hala agertzen da Instituto Geográfico Estadístico delakoaren *Nomenclátor de las ciudades, villas, lugares y aldeas* lanean. Euskal etimoa argia da, *ola* 'burdinola' edo 'kortabaso', *barri* eta leku-ugaritasunezko-*eta* atzizkiak osatua. Hortaz, 'burdinola berrien lekua' edo 'kortabaso berriak' esan nahi du. Ohikoa da gure toponimian hasierako O- galtzea eta horregatik dauzkagu *La Barrieta* bezalako deformazioak. Hala gertatu zen, eskuartean dugun kasu honetan ez ezik, Sopuertan eta Trapagaranen ere (Bizkaia). Euskal hizkuntza galtzarekin batera, hiztunak toponimoaren esanahi gardenaren kontzientzia ere galtzen du eta, berez bigarren silaba zena, gaztelaniazko *la* artikulutzat hartu, berrinterpretatu eta izena deformatu egiten du. Toponimo honetarako ezagutzen dugun lekukotzarik zaharrena, ohi bezala, Lope García de Salazarri zor diogu, 1419an Lantenon izandako borroka bat kontatzean, Garabillako Lopek Buegeko Pero murgatarra hil zuela aipatzen dueneko. Gertakari honen osteko mendekuetan murgatarrek Juan Perez de Norrieza, Lope de Lavarrieta eta Martin Ferrero hil zituzten.

Se trata en la actualidad de una exigua barriada ubicada entre las carreteras que de Lanteno se dirigen respectivamente a Artziniega (A-624) y a Inorritza (A-3634), todavía próxima al barrio Satia. Se accede a las dispersas casas por un ramal que, procedente de la cita

<sup>15</sup> Barrenengoa, 1990.



da carretera de Artziniega, desciende hacia el nordeste por una marcada vaguada, si bien este carril también alcanza más abajo la carretera de Inorritza.

El barrio *Olabarrieta* está documentado de esta forma en 1650 y en 1707<sup>16</sup> y todavía aparece así en 1930 en el *Nomenclátor de las ciudades, villas, lugares y aldeas* del Instituto Geográfico y Estadístico. Su étimo vasco es claro, tratándose de un compuesto de *ola* 'ferrería' o 'sel', *barri* 'nuevo' y el sufijo locativo-abundancial *-eta*. Significa por lo tanto 'lugar de ferrería(s) nueva(s)' o 'sel(es) nuevo(s)'. La pérdida de la *O* inicial es fenómeno común en nuestra toponimia y puede originar la deformación *La Barrieta* como ocurrió, además del caso que nos ocupa, en Sopuerta y en Trapagaran (Bizkaia). Con la pérdida de la lengua vasca, el hablante pierde la conciencia del significado diáfano del topónimo, de modo que identifica la segunda sílaba con el artículo castellano *la*, y reinterpreta el nombre deformándolo. El testimonio más antiguo de este topónimo es, como ocurre tan a menudo, de Lope García de Salazar, quien narra una batalla que tuvo lugar en Lanteno en 1419, en la que Lope de Garabilla mató a Pero de Buege de Murga. En venganza los de Murga mataron a Juan Perez de Norrieza, a Lope de Labarrieta y a Martin Ferrero.

## Petiz

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492184, Y.4773135, alt. 230 m.

Satia izeneko etxe multzotik gertu dago auzo hau eta horregatik zenbait mapatan harekin nahastu eta, dena Lanteno izen zehaztugabearekin identifikatzen da. Egia esan, Satia baino gorago dago, hego-mendebaldera. Auzora joateko Satiatik abiatu behar da, bihurgune handi bat eginik goraka doan errepidea segiturik.

Auzoaren izena jadanik 1660an dokumentatuta dago gaur egungo forma berean: *Petiz*<sup>17</sup>. Amaiera *-iz* da eta hari erreparatuta, jatorrian patronimikoa izan daitekeela dirudi, \**Pet(i)us* pertsona izenetik eratorria eta antzekotasun handiak dituena Lapurdiko *Petez* abizenarekin<sup>18</sup>. 'Maldako ihitokia' bezalako beste aukera batzuk<sup>19</sup> ezin dira zuzentzat eman. Lehen aipatu dugu askotan nahastu egiten dituztela auzo hau eta Satia, eta horren ondorioz *Mapa Topográfico Nacional* delakoan<sup>20</sup> *Llanteno* izen hutsarekin ageri da.

Barriada cercana al grupo de casas denominado Satia y que algunos mapas incluyen en esta, bajo la imprecisa denominación de Lanteno. Se encuentra en realidad por encima de Satia, más al suroeste. Se llega a la barriada desde el citado Satia, por una carretera que gana altura mediante una pronunciada curva, para alcanzar el barrio.

<sup>16</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>17</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>18</sup> Mugurutz, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>19</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>20</sup> 1997, 86-I.

El nombre ha sido documentado ya en 1660 en su forma actual *Petiz*<sup>21</sup>. A juzgar por su terminación *-iz*, bien pudiera tratarse en origen de un patronímico derivado del nombre de persona \**Pet(i)lus*, y que guarda gran similitud con el apellido labortano *Petez*<sup>22</sup>. Otras opciones como 'juncal de la cuesta'<sup>23</sup> son insostenibles. Debido seguramente a la confusión con Satia antes citada, el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>24</sup> lo denomina simplemente *Llanteno*.

## Pikeretza

Etxea / Casa: ED50 30T X.492463, Y.4774600, alt. 160 m.

Inorritza auzoaren goiko aldean dagoen baserri bat da, Ibaizabalen beste aldeko bizkar xume batean. Auzo horretatik joaten da baserrira, Itzara doan errepidea hartu eta ibaiko zubia igaro ondoren, ezkerrera dagoen bide bat hartuz.

Toponimo bitxi honen etimología ez da batere argia, nahiz eta *piko* hitzarekin erlaziona daitekeen<sup>25</sup>. Dirudienez, ahozko hizkeran *Pikeze* era laburtua ere entzun ohi da, bokal arteko *-r-* hotsa galdu eta bokalen harmonia edo berdintzea eginik (*-e-e-a > -e-e-e*), *-e* letraz amaitzen dena. Fenomeno bi horiek oso ohikoak dira Euskal Herriaren mendebaldeko egungo euskaran.

Se trata de un caserío situado sobre la barriada de Inorritza, en un pequeño lomo al otro lado del río Ibaizabal. Se accede a él desde el citado barrio, siguiendo la carretera que se dirige a Itza, para dejarla por un carril secundario a nuestra izquierda, nada más haber cruzado el puente sobre el río.

El étimo de este curioso topónimo no resulta nada claro, aunque podría relacionarse con *piko* 'higuera'<sup>26</sup>. Parece existir también la forma oral abreviada *Pikeze*, con caída de *-r* intervocálica y armonía o imitación de vocales (*-e-e-a > -e-e-e*), que la hace terminar en *-e*, siendo ambos fenómenos muy comunes en el euskera hablado actualmente en la zona occidental de Euskal Herria.

## Pizparrutxi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492453, Y.4774143, alt. 165 m.

Lantenotik Inorritzara doan A-3634 errepidearen inguruan sakabanatutako etxeek osatzen dute auzo zabal hau, Inorritza auzo ezagunera heldu aurretik, hain zuzen ere.

<sup>21</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>22</sup> Mugurutz, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>23</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>24</sup> 1997, 861.

<sup>25</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>26</sup> Barrenengoa, 1990.



*Pizparrutxiko ikastetxea*  
*Escuela de Pizparrutxi*

Pizparrutxin daude kontzejuko eskolak eta kultur etxea, dena Ibaizabalen ertzean. Auzo honetan halaber, ibaiaren eta errepidearen ezkerraldean, Madozek ere (1845-1850) aipatu zuen San Roman eliza dago.

Ezagutzen dugun agiriarik zaharrena 1650ekoa da eta auzoaren izena -s- letraz idatzirik ageri da, -z- duen lehen lekukotza 1741ekoa izanik. Ahozko hizkeran -s- erabiltzea da ohikoena, baina azken aldian -z- ere entzun daiteke, agian izena ageri den kartelaren eraginez. Izenaren etimologia ez da argia, baina pentsa daiteke amaiera *barrutxi* dela, euskaraz ‘barrendegi’ edo ‘hesitutako alorra’ esan nahi duen *barruti* estandarraren ahoskera lokala. Era berean, ez litzateke arraroa toponimoaren lehen osagaia *Petiz* izatea, Ibaizabalen gora dagoen kontzeju honetako beste auzo bat baita. Hala balitz, auzo honen izenaren adiera ‘Petizko barrutia’ litzateke.

Se trata de una extensa barriada de casas dispersas en las inmediaciones de la carretera A-3634 que de Lanteno se dirige a Inorritza, precisamente antes de llegar a este conocido barrio. En Pizparrutxi se ubican las escuelas del concejo, así como su centro cultural, todo ello a la orilla del río Ibaizabal. También en esta barriada, a la orilla izquierda del río y de la carretera, justo antes de llegar a Inorritza, se halla la ermita de San Román, citada por Madoz (1845-1850).

La documentación más antigua datada en 1650, nos muestra el nombre de este barrio con -s-, mientras que el primer testimonio con -z- es de 1741. La forma oral más habitual es con -s-, si bien, últimamente puede también escucharse con -z-, tal vez por influencia del cartel señalizador. El étimo del nombre no es claro, aunque cabe suponer que el componente final sea *barrutxi*, una pronunciación local de *barruti*, voz que en euskera significa ‘enclave’ o ‘finca cerrada’. Asimismo, no sería extraño que el primer componente del topónimo fuese *Petiz*, barrio del mismo concejo situado aguas arriba del Ibaizabal. En tal caso, el nombre del barrio significaría ‘enclave o cerrada de Petiz’.

## Satia

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492310, Y.4773348, alt. 220 m.

Auzo honetan egiten dira gaur egun kontzejuko bilerak, nahiz eta mapa batzuek auzoburua Petiz hurbilean kokatu, apur bat hego-mendebalderago eta Satiaren goiko aldean. Jaun Done Jakue Apostoluaren eliza nagusia eta batzarrak egiten diren kontzejuaren egoitza Satian daude, nahiz eta gaur egun auzoburu bezala ulertzen ez den. Bitxia den arren, Madozek (1845-1850) Elejalde auzoa ematen du aparteko sarrera batean, baina ez du kontzejuari dagokion sarreran aipatzen<sup>27</sup>. Menagaraitik Artziniagara doan A-624 errepidean dago, Inorritatik Ureta eta Bizkaiko Gordexolara joateko adarra hasten den bidegurutzearen inguruan. Parrokia eta ondoko hilerria etxe taldearen gaineko aldean daude, ipar-mendebaldera, eta errepide bat dago horietara heltzeko.

Izena azentu laua eta amaierako diptongoz ahoskatzen da: *Sátia*. Jatorria eta etimologia ezagunak ez badira ere, jadanik 1660an bere horretan dokumentatu du Federico Barrenengoa, hots, *Satia*<sup>28</sup>. Ikertzaile honek berak dio *zattia* izango dela jatorria ‘atala, saila’, baina beste batzuen iritziz antroponimo bat egongo litzateke oinarrian, latinez *Sattius* izena eta *Satariz*, *Sataro* nahiz antzeko abizenak ere badaudelako<sup>29</sup>.

Es la barriada donde en la actualidad se celebran las reuniones del concejo, aunque algunos mapas ubican la capitalidad en el cercano barrio de Petiz, algo más al suroeste y sobre Satia. Tanto la iglesia parroquial de Santiago Apóstol, como la sala del concejo, sede de las citadas reuniones, se ubican en Satia, si bien esta no es percibida actualmente como capitalidad. Aunque resulte curioso, Madoz (1845-1850) da como entrada aparte el barrio Elejalde, pero no lo cita en la entrada correspondiente al concejo<sup>30</sup>. Se halla en la carretera A-624 que de Menagarai se dirige a Artziniaga, justo en torno al cruce origen del ramal que pasará por Inorritza para ir a Ureta y Gordexola en Bizkaia. La parroquia y el cementerio cercano se ubican sobre el grupo de casas, al noroeste, disponiendo de un carril para su acceso.

El nombre suele pronunciarse con acentuación llana y diptongo final, *Sátia*. De origen y étimo incierto, ha sido documentado por Federico Barrenengoa ya en 1660 en su forma actual *Satia*<sup>31</sup>. Este mismo autor le daba el significado de ‘parcela, trozo’, del euskera *zattia*, mientras otros apuestan por algún antroponimo a la vista de nombres latinos como *Sattius* o los apellidos *Satariz*, *Sataro*, etc.<sup>32</sup>.

<sup>27</sup> Daitekeena da *Lezaldere*n akatsa izatea, era hori bai baitator kontzejuko auzoen zerrendan.

<sup>28</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>29</sup> Mugurutza, 2001, *Zaraobe*, 77.

<sup>30</sup> Pudiera ser también errata de *Lezalde*, que por el contrario sí figura en su listado de barrios del concejo.

<sup>31</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>32</sup> Mugurutza, 2001, *Zaraobe*, 77.



*Satia aldea eta eliza*  
Zona de Satia y la iglesia

## Udote

Eroritako etxea / Casa en ruinas: ED50 30T X.492819, Y.4775752, alt. 321 m.

Mendian erdi erorita dagoen etxe bakartu bat besterik ez da, eta mende bat baino gehiago da bertan inor ez dela bizi. Inorritzaren iparraldean dago, Odoibaltza mendiaren beheko adarretan dagoen mendi-lepo xume batean, hura eta Garondo izeneko muino apala bereizten dituena. Toki honetara ailegatzeko, errazena Inorritzatik oinez joatea da, Abiega baserria igaro eta aipatutako Garondo muinoaren ipar-mendebaldeko saihesta zeharkatuta, mendi-lepoa maldan gora leunean erdiesteko.

Izen berezia da eta etimoaren arrastorik ez dugu. Kartografia moderno batzuek *Ugate* aipatzen dute haren ondoan, eta izen hau erraz azaltzeko modukoa den arren (*ur-ate*), ez dugu dokumentatuta aurkitu.

Se trata simplemente de una solitaria casa ya ruinosa en el monte, y que está deshabitada desde hace más de un siglo. Se emplaza al norte de Inorritza, en un pequeño collado al pie del pico Odoibaltza, y que separa este de la humilde cumbre de Garondo. Para acceder al lugar, lo más sencillo es caminar desde el núcleo de Inorritza, pasando por el caserío Abiega y flanquear el citado alto de Garondo por su vertiente noroeste, alcanzando así el collado en suave ascenso.

Es un nombre curioso cuyo étimo desconocemos. Algunas cartografías modernas rotulan en sus inmediaciones el nombre *Ugate*, que aun siendo más fácilmente explicable (*ur-ate* 'compuerta'), no hallamos documentado.

## Ureta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491353, Y.4776423, alt. 150 m.

Kontzejuaren eta Aiararen iparraldeko muturrean daude etxe hauek, Artziniegako mugan eta Enkarterriko Gordexola ibarraren mugetatik ere gertu. Egia esan, auzoaren mendebaldeko puntako etxeak Artziniegako dermioan daude. Etxeak dauden bizkar xumea Zaballa mendiaren azken adarra da, Aspuruiko gainaren ondoren Gordexolarantz jaisten doana, Artziniega eta Ibaizabal ibaien arroak bananduta. Ibai bi horiek Uretako etxeen ondoan elkartzen dira eta jadanik batera abiatzen dira Bizkai-ko mugarainoko tarte labur horretan behera. Auzoko azkenengo etxea errepidearen ezkerrean dago, Artziniega ibaiko zubiari eutsita, eta Uretako dorrea da. Seguruenik etxearen historia muga ondoan duen kokapenarekin estu lotuta egongo da.

Auzoa ibai biak elkartzen diren tokian dago eta izenak kokapen horri egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere. Euskal toponimoak osagai bi ditu: *ur*, toponimian batez ere 'ibai' adierazteko erabiltzen dena, eta tokia nahiz ugaritasuna adierazten duen *-eta* atzizkia. 'Ibaien tokia' esan nahi du, beraz. Bertakoek *Úreta* ahoskatzen dute, inguruko beste euskal toponimo guztiak bezalaxe.

Ureta es el grupo de casas situado en la zona más septentrional del concejo y de Ayala (Aiará), en la linde con Artziniega y cerca del límite con el valle encartado de Gordexola. De hecho, las casas más occidentales de la barriada se emplazan ya en término de Artziniega. El pequeño ramal en que se hallan las edificaciones es el último estribo del pico Zaballa, que después del alto de Aspuru no hace sino descender hacia Gordexola separando las cuencas de los ríos Artziniega e Ibaizabal, las cuales se juntan precisamente al pie de las casas de Ureta, prosiguiendo ya unidos el corto camino que queda hasta el límite de Bizkaia. La última de las casas del barrio, situada al lado izquierdo de la carretera y pegada al puente que cruza el río Artziniega, es conocida como Torre de Ureta, cuya historia seguramente está ligada a esa posición fronteriza.

El nombre de este barrio, situado en la confluencia de dos ríos, hace mención precisamente a esa ubicación. El topónimo tiene su origen en el euskera *ur* 'agua', que en toponimia indica generalmente 'río', y el sufijo locativo-abundancial *-eta*, significando, por tanto, 'lugar de ríos'. La pronunciación local, acorde a la acentuación propia de los topónimos eusquéricos de la zona, es esdrújula: *Úreta*.

## Zalduerte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492488, Y.4773635, alt. 180 m.

Auzo honetako etxeak sakabanatuta daude Satiatik iparraldera, Inorritzara doan errepidearen eskuinean eta Doñobeko etxeen azpian. Informatzaile batzuen iritziz, izenak inguruari egiten dio erreferentzia eta ez balizko auzo bati. Nolanahi ere, errepidearen eta Ibaizabalen arteko ibar txiki batean kokatua dago.

Auzo honen izena *Zalduarte* ageri da dokumentatua 1699az geroztik, nahiz eta herriko kartografian *Zalduerte* agertzen den, bokalen harmonia edo berdintzea pairatu duen aldaera. Bertako erabileran, askotan, euskarazko *ibarra* generiko eta guzti gauzatzen da: *La Ibarra de Zalduerte*. Euskal toponimo gardena da, *zald*u ‘ibarbasoa’ eta *arte* ‘tarteana’ osagaiak dituena eta, beraz, ‘ibarbaso arteana’ esan nahi duena. Eskualdean ohikoa da abizen gisa *Zalduerte* era garatua eta, beraz, ez dugu *Zalduarte* jatorrizkoa berreskuratzeko saiorik egingo.

Se trata del grupo disperso de casas ubicadas al norte de Satia, a la vera derecha de la carretera que se dirige a Inorritza y bajo las casas de Doñobe. En opinión de algunos informantes hace referencia a una zona y no a un barrio propiamente dicho. De cualquier modo, ocupa una pequeña vega entre la carretera y la ribera occidental del río Ibaizabal.

El nombre de este barrio se documenta *Zalduarte* desde 1699, si bien en la cartografía local aparece *Zalduerte*, con armonía o imitación vocálica. El uso local lleva a menudo el sustantivo genérico eusquérico *ibarra* ‘vega’: *La Ibarra de Zalduerte*. Se trata de un topónimo eusquérico diáfano, compuesto de *zald*u ‘soto’ y *arte* ‘entre’, significando por lo tanto ‘entre sotos’, siendo un *soto* la zona cercana a un río, generalmente arbolada, donde suele pacer el ganado. En la comarca es frecuente como apellido la forma evolucionada *Zalduerte*, de modo que desistimos de intentar la recuperación de la original *Zalduarte*.

## Zubiete

Dorrea / Torre: ED50 30T X.492610, Y.4773434, alt. 175 m.

Izenak Ibaizabalen ertzean dagoen dorre eder bat identifikatzen du, Inorritzara joateko Satia auzoa utzi eta berehala, A-3634 errepidetik irten, zubia zeharkatu eta La Mota auzora igotzen den adar xumearen ondoan dagoena. Dorrea zubia zeharkatu aurretik dago, bidearen ezker aldean.

Jatorrizko izen zaharra *Zubiate* zen eta argi dago euskarazko toponimo konposatua dela, *zubi* eta *ate* osagaiak dituena. Zubitik igarotzen zirenak zaintzea zen, beraz, haren zeregina eta gauza bera esan dezakegu Baranbion dagoen izen bereko tokiaz ere<sup>33</sup>. *Zubiate* izenarekin ageri da, adibidez, 1514ko salerosketa agiri batean, Mencia de Velasco eta Mencia de Ibarguen andreen artekoa<sup>34</sup>. Geroago, berriz, *Zubiete* forma ere ageri da, esaterako, Valladolideko Errege Kantzelaritzan gordetzen den 1757ko auzi batean. Aldaera hau bokalen harmonia edo berdintze fenomeno arrunt baten ondorio da (*a-e* > *e-e*), baina hain aspaldikoa izanik, aldaketa errespetatzea eta jatorrizkora ez itzultzea da zuhurrena. Noiz edo behin, Nafarroako eta Gipuzkoako herri ezagunekiko eta horri dagokion abizenarekiko analogiaz *Zubieta* ere idatzi izan da.

<sup>33</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>34</sup> Goio Bañalesek transkribatu eta adeitsuki eskuratutako dokumentua.



*Zubieteko dorrea*  
Torre de Zubiete

Este nombre hace referencia a una hermosa torre situada a orillas del río Ibaizabal, en el pequeño ramal que se desprende de la carretera A-3634 nada más dejar el barrio Satia para dirigirse a Inorritza, y que cruza un puente para subir al barrio denominado La Mota. La torre se encuentra justo antes de cruzar dicho puente, a mano izquierda del carril.


Su nombre original fue *Zubiate*, compuesto eusquérico de *zubi* 'puente' y *ate* 'puerta', haciendo referencia con toda evidencia al lugar que ocupa vigilando el paso del puente, tal como cabe suponer para el lugar homónimo existente en el pueblo de Baranbio<sup>35</sup>. Con este nombre de *Zubiate* figura en un documento de compraventa del año 1514, entre doña Mencia de Velasco y doña Mencia de Iburguen<sup>36</sup>. También se encuentra la forma *Zubiete* documentada, por ejemplo, en un pleito conservado en el archivo de la Real Chancillería de Valladolid datado en 1757. Esta forma se debe a un fenómeno común de armonía o imitación vocálica (*a-e* > *e-e*), pero al ser en este caso un fenómeno tan antiguo, parece más prudente respetar dicho cambio sin retrotraernos al nombre originario. En ocasiones también se ha escrito *Zubieta*, seguramente por analogía con el nombre de las conocidas localidades de Navarra y Gipuzkoa, y con el apellido correspondiente.

<sup>35</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>36</sup> Documento transcrito y facilitado gentilmente por Goio Bañales.



## Lexartzu



1932



2000

Auzoa eta kontzejua / Barrio y concejo: ED50 30T X.490141, Y.4767690, alt. 400 m.

Gorobel mendilerroko gailurrik garaiena den Eskutxi mendiaren beheko magaletan dago kontzeju hau, haren iparraldeko adarretan. Mendebaldean Añesekin egiten du muga, iparraldean Erbirekin, ekialdean Salmantonekin eta hegoaldean aipaturiko mendilerro horrekin. XVIII. mendean kontzeju hau eta ondoko Añes elkartuta zeuden alkate eta diputatu ofizioetarako eta hamar urtetik behin txandakatu egiten ziren karguan. Madozek (1845-1850) dio 26 biztanle zituela eta datua ez da asko aldatu XX. mendean, nahiz eta zerbitzuetatik urrun dauden landa-guneetan gertatu bezala, hemen ere behera egin duen kopuru horrek. Horrela, bada, 1950ean 22 biztanle zituen, 1970ean 16raino jaitsi zen eta 2000ko erroldan 15 besterik ez. Ez Madozek, ez Ricardo Becerro de Bengoak (1877) ez diote auzorik aipatzen, auzoburua ere kontzejuaren izenarekin identifikatzen delarik. Auzoa Ama Sortzez Garbiaren parrokiaren inguruan bildutako etxe batzuek osatzen dute. Erretestik Anguloko gainera Añes eta Encima Angulon zehar doan A-3630 errepidetik ailegatzen da Lexartzura, Añes baino apur bat lehenago errepidea utzi eta ezkerrean, gunera doan asfaltatutako maldan gora.

Kontzejuaren izenaren berezko forma *Lexartzu* da eta oso ongi dokumentatuta dago. Mendebaldeko euskaran ohikoa den *lexar* 'lizar' (*Fraxinus excelsior*) hitza dugu hasieran eta horri ugaritasuna adierazten duen *-zu* atzizkia erantsi zaio. Atzizki hori *-r*-ren ondoren dagoenez, *-tzu* bihurtu da, beste askotan bezala. *Lizar-lexar* bikoiztasunaren jatorria antzinako *leizar* forman dago, ondoren aldaera bi horiek eman zituen. Euskara estandarrean *lizar* erabiltzen da, hala ere. Aldaera hauei buruzko informa-

zio gehiago nahi izanez gero, ikus *Arespalditzako* kontzejuan esandakoa. Guk dakigunez, kontzeju hau 864an agertzen da aipatua lehenengo aldiz, Aiarako eta Menako zenbait eliza San Félix de Ocari eman zitzaizkioneko dokumentuan. Eman-dako elizen artean Añesko San Bizente monasterioa zegoen: «Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia et Salbantone». Ondoren, 1114an, *Didaco López de Liszarzu* pertsona izena ere dokumentatzen dugu. Martín Gil lizentziatuak XVI. mendearen erdi aldean ibarrari egin zion bisitaren kontakizunean<sup>1</sup> *Lexarçu* ageri da idatzita, garai hartan Aiarako hizkuntza arrunta euskara zenean. Gogoan izan behar dugu gaur egun euskaraz *-tz-* idazten dugun hotsa antzina letra desberdinez idatzi izan zela: *-s-*, *-ç-*... Euskararen gainbeherarekin, erdaldunen iritzian dotoreagoa zelakoan, izenari amaierako *-u* aldatu eta *-o* jarri zioten, eta arau horrekin bat bihurtu zen izena ofizial. Madozen *Diccionario* delakoan ere (1845-1850) *Lejarzo* ageri da kontzejuari buruz ari denean baina, bitxia bada ere, 'barrio' bezala sailkatzen duen auzoburuari *Lejarzu* izena ematen dio. Antzeko zerbait gertatu zen Madrilgo Tomas López geografoak Aiara deskribatu zuenean ere, herri hau izendatzeko *Lexarzu* forma erabili baitzuen. Ikus daitekeenez, grafia gaztelania modernora ere egokitu zen eta ohiko *-x-* haren ordezkari *-j-* hedatu zen, jatorrizko hotsa ere galtzarekin batera. Egokitzapen grafiko honek duen salbuespen ezaguna *México* da, garai bateko grafia zaharra mantentzen duena, gaur egun *-j-* ahoskatzen den arren. Honen ondoren, inguru honetan euskara galdu eta erdal hiztunak baino geratu ez zirenean, *Lejarzo* forma nagusitu zen. Bitxikeria bat ere bada. Izan ere, Beamorekin muga egiten duten Euskal Herriko azken muturrean, Zuberoako Santa Grazin, izen bereko tokia aurkitzen dugu.

Concejo situado al pie del pico Eskutxi, la cima más elevada de la sierra Salvada o Gorobel, ubicada en su estribación norte. Limita al oeste con Añes, al norte con Erbi, al este con Salmantón y al sur con la citada sierra. En el siglo XVIII este concejo y el vecino Añes se consideraban uno para los oficios de alcalde y diputado, alternándose cada diez años. Madoz (1845-1850) le asignaba 26 almas y su población no ha variado mucho en el siglo XX, sufriendo moderadamente el descenso habitual en los núcleos rurales alejados de centros importantes de servicios. Así en el *Nomenclátor* de 1950 tenía 22 habitantes, en 1970 había descendido a 16 y en el censo del año 2000 solo tenía 15. Ni el citado Madoz ni Ricardo Becerro de Bengoa (1877) le asignan barriadas, siendo el núcleo capitalidad conocido por el nombre del propio concejo, que se agrupa en torno a la curiosa iglesia parroquial de la Inmaculada Concepción de Nuestra Señora. Se llega a Lexartzu por la carretera A-3630 que de Erretes se dirige al puerto Angulo por Añes y Encima Angulo, para dejarla poco antes de llegar a Añes y ascender a nuestra izquierda la cuesta asfaltada que conduce al núcleo.

La forma propia y perfectamente documentada del nombre del concejo es *Lexartzu*, del euskera *lexar* 'fresno', (*Fraxinus excelsior*), en la variedad eusquérica del occidente del país, y el sufijo abundancial *-zu*, que tras *-r-* se transforma a menudo en *-tzu*. La dualidad *lizar-lexar* tiene su origen en la lengua común que dio lugar a ambas formas a partir del primitivo *leizar*.

<sup>1</sup> Díaz Bodegas, 1998.



*Añesko etxalde apala*  
Sencillo caserío de Añes

En euskera estándar se utiliza, sin embargo, *lizar*. Para más información sobre estas variantes, véase lo dicho al tratar el concejo de *Arespalditza*. La primera cita conocida de este concejo es del año 864, figurando en el documento de donación a San Félix de Oca de varias iglesias de Ayala (Aiara) y Mena, entre ellas el monasterio de San Vicente de Añes: «Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia et Salbantone». Posteriormente documentamos en 1114 el nombre de persona *Didaco López de Liszarzu*. En el relato de la visita que el licenciado Martín Gil realizó al valle a mediados del siglo XVI<sup>2</sup>, época en la que la lengua habitual del lugar era todavía el euskera, figura escrito *Lexarçu*. Hay que recordar que el sonido que hoy en día representamos en euskera con *-tz-*, en la antigüedad se ha venido escribiendo de diferentes formas: *-s-*, *-ç-*... Con la desaparición de la lengua vasca, el nombre se oficializó siguiendo la norma castellana de cambiar la *-u* final considerada vulgar, por *-o*, más elegante a oídos castellanos. Curiosamente aún en el *Diccionario* de Madoz (1845-1850) la entrada correspondiente al concejo, 'lugar' en su terminología, es *Lejarzo*, pero la referida a su capitalidad, 'barrio', es *Lejarzu*. Algo similar parece suceder en la información que el geógrafo madrileño Tomás López recoge al describir Ayala, valiéndose de la forma *Lexarzu* para denominar a este pueblo. Como puede verse, también se adaptó la grafía en castellano moderno mudando la tradicional *-x-* por *-j-*, tras haber perdido aquel sonido. Excepción a esta adaptación normativa gráfica es *México*, que conserva su grafía anterior a pesar de pronunciarse actualmente *-j-*. Posteriormente la forma oficial *Lejarzo* fue imponiéndose en el uso de los habitantes del lugar, ya castellanohablantes. Curiosamente, en el confín de Euskal Herria, ya en al frontera con el Bearne, en término zuberotarra de Santa Grazi, también encontramos este nombre de lugar.

<sup>2</sup> Díaz Bodegas, 1998.

## Luiaondo



1932



2000

Aiarako kontzejurik zabalenetakoa ez ezik, biztanlerik gehien duena ere bada. A-625<sup>1</sup> errepidearen luzetara dago, Laudio eta Amurrio artean. Iparraldean Laudio udalerriko muga dauka, ekialdean Bizkaiko Orozko, hego-ekialdean Amurrio udalerrria, hegoaldean Murga eta Olabazar, eta mendebaldean Arespalditza. XVIII. mendean kontzeju hau Amurrioko kuadrillan zegoen Murga eta Olabazarrekin batera. Biztanleria nahiko kontzentratuta dago Nerbioi ibaiaren eta aipaturiko errepide horren ertzean, baina Madozek (1845-1850) sakabanaturiko etxalde batzuk aipatzen ditu: Panabarra, Urquetavaso, Hayo eta Austio. 1877ko *Libro de Álava* delakoan Becerro de Bengoak etxalde edo auzo hauek aipatzen ditu: Austio, Ayo, Barrutxi, Iturruchu, Mendivil, Quinto, San Lorenzo, Santo Domingo eta Urquetabuso (sic). 1910eko *Nomenclátor* delakoan, aldiz, beste hauek ageri dira: Bidebarrico (zortzi etxe), Calle Barrena (bost), Padura (hiru), Estartaco (hiru), La Iglesia (hiru), Landaburu (zortzi), Mendarte (bost), Mendivil (lau), La Piedad (hiru) eta Restergero (bi). 1835eko urtarrilaren 23an Baldomero Esparteroaren tropek gune nagusiko etxeak arpilatu eta su eman zioten herriari, lehen Gerrate Karlistan jeneral espainiarraren errepresalia pertsonal gisara. Aipatuko ditugun auzo edo kale batzuk «hiritarrak» dira, hau da, kontzejuaren gaurko auzo nagusiaren barruan daude. Normalean auzoburuari ere Luiaondo esaten zaio eta Nerbioiren ezker aldeko ibar txiki luzanga batean dago. Biztanleriaren eboluzioak argi uzten du hutsik geratzeko arriskurik ez duela kontzejuak. Aitzitik, Arabako herriarik garrantzitsuenetako bitara joateko bidean dago –Laudio eta Amurrio–, eta horri esker

<sup>1</sup> Gaur egun saihesbidea du Luiaondok herriaren mendebaldean, trafikoa handia baita eta lehen herriaren erditik igarotzen baitzen trafiko hori guztia.

herri bi horien hedatze eremu bezala etorkizun interesgarria duela ematen du. XIX. mendearen erdian Madozek 360 biztanle zituela zioen, 1950ean 452 zituen, 1970ean 645 eta 2000ko erroldan 529. 2004ko erroldan, berriz, 853 zenbatzen ziren.

*Luyando*, *Luxaondo* eta era horretako forma bat baino gehiago dokumentatzen bada ere, zalantzarik ez dago *Luiaondo* dela forma jatorrizko eta egokiena ere. XV. mendeko *Bienandanzas e Fortunas* lanean forma hori ageri da: *E siguieron el alcançe matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el árbol de Luyando*. Abizena oso-osorik gorde zen askoz ere beranduagora arte eta 1642an *Cristóbal de Luyando* Done Jakueko Ordenaren Zalduna dokumentatzen dugu. Herriko eliza-agirietan XIX. mendean *Luyando* eta *Luxaondo* aldaera biak txandaka ageri dira, baina azkenengo hau da hala Madozek (1845-1850) nola Becerro de Bengoak (1877) aipatzen dutena, eta gutxienez 1373tik dago dokumentatuta. Aiarerriak ere *Luxaondo* izendatzen du hau bere herrien artean<sup>2</sup>, eta pentsatzekoa da forma hau izango zela erabiliena. Haren etimoiari dagokionez, bertakoa den Felix Mugurutzak ikertzaileak 1997an argitaratutakoa transkribatzea da bidezkoena:

«Su origen etimológico es de ‘al lado (*ondo*) del barrizal (*\*luia(g)a*)’, algo muy apto para un terreno de origen pantanoso y cuyo relieve tiene pruebas de haberse realizado por medio de rellenos. El primer componente, *luia*, no es sino una acomodación entre *lur* ‘tierra’ y un arcaico *i* ‘agua’ (dicho componente parece haber pasado desapercibido para los grandes lingüistas pero se evidencia en infinidad de nombres como *ihintz*, *ibai*, *iturri*, *ibar*, *elur* (< *ilur?*), *itokin*, *ibi*, *izuri*, *itsaso*, *idoi*...). De la evolución de los componentes *lur* e *i* tenemos el actual término eusquérico *lohi* ‘barro’».

F. Barrenengoaren (1990) iritiz izena ‘Luxa ondo’ da, Laudion izen horretako baserri batzuk baitaude. Baina baserri horiek urrun samar daude –sei bat kilometrotara, tartean mendiak eta ibarrak dituztela– eta ez dirudi azaltzeko bide hori egokia denik. *Luxaondo* aldaera 1760an dokumentatu izanagatik, Barrenengoak oker ondorioztatzen du horixe dela *la forma antigua del nombre de este pueblo* ‘herri honen izenaren antzinako forma’. Horregatik zenbait urtetan uste izan zen –oker, esan dugun legez– *Luxaondo* zela herriaren euskal izen egokia. Itxuraz tesi horren alde, Bizkaiko Foruan (1452) *Lujaondo* forma agertzen da idatzita, bere bosgarren legean Bizkaiko azken muga zen *Aretx Malatu* ospetsuari erreferentzia egitean. Baina gaur egun zalantzarik ez dugu izenaren jatorrizko forma *Luiaondo* dela, agirietan maiz aurkitzen dena, bestalde. Kontuan hartu behar da bokal arteko *-i-* hotsa ia guztiz kontsonante bihurtzen dela eta horren ondorioz honako eboluzioa izan duela  $i > x > j$ . Eboluzio hori ongi finkatuta geratu da zenbaitetan eta horregatik dauzkagu lehen aipaturiko *Luxaondo* eta *Lujaondo* aldaerak. Antzeko adibideak ere baditugu, esate baterako, *Goain* > *Gojain*, *Goienuri* > *Gojenuri*, *Okondogoiena* > *Okondojena*...<sup>3</sup>. Nolanahi ere, eboluzio hori gaztelaniaz gertatzen da eta ez euskaraz.

<sup>2</sup> Horrela ageri da Portillak aipaturiko XVIII. mendeko agiri batean (1967, VI. liburukia, 427. or.).

<sup>3</sup> Mugurutzak, 2001, hitzaldia.

Itsasoaz beste aldera *Luyando* izeneko gutxienez hiru herri daude: bat Perun, Huanuco departamenduan; beste bat Puerto Ricoko mendebaldeko kostaldean eta, azkenik, hirugarrena *Santa Fe de Luyando*, Argentinako herria, izena Buenos Aires hiria sortu zuen Juan de Garairi zor diona, gure kontzeju honetako Aio baserrian jaioa baitzen.

Se trata de uno de los concejos más extensos y poblados de Ayala (Aiara). Ubicado a lo largo de la carretera A-625<sup>4</sup> entre Llodio (Laudio) y Amurrio, su jurisdicción limita al norte con el término municipal de Llodio, al este con Orozko en Bizkaia, al sureste con el municipio de Amurrio, al sur con Murga y Olabezar, y al oeste con Arespalditza. En el siglo XVIII este concejo pertenecía a la cuadrilla de Amurrio, junto con Murga y Olabezar. La población se encuentra bastante concentrada a la orilla del río Nervión y de la citada carretera, pero Madoz (1845-1850) le asigna los caseríos dispersos Panabarra, Urquetavaso, Hayo y Austio. En el *Libro de Álava* de 1877, Becerro de Bengoa cita los caseríos o barrios Austio, Ayo, Barrutxi, Iturruchu, Mendivil, Quinto, San Lorenzo, Santo Domingo y Urquetabusu (sic). El *Nomenclátor* de 1910 cita los barrios de Bidebarrico (ocho casas), Calle Barrena (cinco), Padura (tres), Estartaco (tres), La Iglesia (tres), Landaburu (ocho), Mendarte (cinco), Mendivil (cuatro), La Piedad (tres) y Restergo (dos). El núcleo de casas fue saqueado e incendiado por las tropas de Baldomero Espartero el 23 de enero de 1835, como represalia personal del general español durante la primera Guerra Carlista. Algunos de los barrios o calles que citaremos a continuación tienen carácter «urbano», es decir, se hallan al interior del núcleo capitalidad actual del concejo, que normalmente se conoce con el nombre de este y que podemos ubicar en la pequeña vega alargada que el Nervión deja a su izquierda. La evolución de la población no augura en absoluto un futuro despoblamiento del concejo. Antes bien, su situación en una interesante vía de comunicación hacia dos de los pueblos más importantes de Álava como son Llodio y Amurrio, parece reservarle un futuro interesante como zona de expansión de ambos. A mediados del siglo XIX, Madoz le asignaba 360 almas, en 1950 contaba con 452 habitantes, en 1970 eran 645 y en el censo del año 2000 contaba con 529. El padrón del año 2004 contabiliza 853 habitantes.

Aunque pueden documentarse formas como *Luyando*, *Luxaondo*, etc., no cabe duda de que la forma original y más apropiada es *Luiando*. En las *Bienandanzas e Fortunas* del siglo XV ya aparece con esta forma: *E siguieron el alcançe matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el árbol de Luyando*. Como apellido se mantiene completo hasta mucho más tarde, de modo que en 1642 documentamos el nombre del Caballero de la Orden de Santiago *Cristóbal de Luyando*. En la documentación eclesiástica del pueblo, aún en el siglo XIX se alternan las formas *Luyando* y *Luyando*, siendo esta última la que citan tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877) y que ya se documenta desde al menos 1373. También la Tierra de Ayala denomina *Luyando* a uno de sus pueblos<sup>5</sup>, por lo que suponemos que el uso de esta forma sería mayoritario. En lo que respecta a su étimo parece justo transcribir lo que en su día publicase Felix Mugurutzza (1997), vecino del lugar:

<sup>4</sup> En la actualidad Luiando cuenta con una vía de circunvalación sobre el pueblo al oeste, para evitar que el intenso tráfico de la carretera circule por el núcleo.

<sup>5</sup> Así figura en un documento del siglo XVIII citado por Portilla (1967, tomo VI, pág. 427).



*Luiaondoko San Domingo ermita*  
Ermita de Santo Domingo en Luiaondo

«Su origen etimológico es de 'al lado [ondo] del barrizal (\**luia(g)a*)', algo muy apto para un terreno de origen pantanoso y cuyo relieve tiene pruebas de haberse realizado por medio de rellenos. El primer componente, *luia*, no es sino una acomodación entre *lur* 'tierra' y un arcaico *i* 'agua' (dicho componente parece haber pasado desapercibido para los grandes lingüistas pero se evidencia en infinidad de nombres como *ihintz*, *ibai*, *iturri*, *ibar*, *elur* (< *ilur?*), *itokin*, *ibi*, *izuri*, *itsaso*, *idoi*...). De la evolución de los componentes *lur* e *i* tenemos el actual término eusquérico *lohi* 'barro'».

Autores como F. Barrenegoa (1990) sugirieron que el nombre provenía de 'al lado de Luxa', en referencia a unos caseríos del municipio de Llodio (Laudio), pero geográficamente tan alejados –unos seis kilómetros en línea recta, con montes y valles intermedios–, que parece inviable dicha vía etimológica. Ello y, sin duda, la forma *Luxaondo* que dice haber documentado en 1760, hace que Barrenegoa la identifique equivocadamente como *forma antigua del nombre de este pueblo*. Por esta razón, durante varios años, se tuvo por eusquérica, equivocadamente como señalamos, esta forma *Luxaondo*. También parecía apoyar dicha tesis el hecho de que el nombre del pueblo aparezca escrito *Lujaondo* en el Fuero de Bizkaia (1452), al hacer en su ley quinta referencia al famoso *Aretx Malatua*, el Árbol Malato límite de Bizkaia. Sin embargo, no cabe duda de que la forma original del nombre es *Luiaondo*, por otra parte sobradamente documentada. Sucede que el sonido *-i* intervocálico tiende a adquirir cualidades prácticamente consonánticas, y ello deriva en una evolución *i* > *x* > *j* que en ocasiones quedó bien fijada y que explican sobradamente las variantes *Luxaondo* y *Lujaondo* antes citadas. Son ejemplos similares los de *Goiaín* > *Gojain*, *Goienuri* > *Gojenuri*, *Okongogoiena* > *Okondojena*...<sup>6</sup>. En cualquier caso, es una evolución que atañe al castellano y no al euskera.

<sup>6</sup> Mugurutza, 2001, conferencia.

Más allá del mar existen al menos tres localidades denominadas *Luyando*: una en Perú, en el departamento de Huanuco; otra en la costa occidental de Puerto Rico y, finalmente, Santa Fe de Luyando, población argentina que debe su origen a Juan de Garai, fundador de Buenos Aires y originario del caserío Aio de este concejo.

## Estartako

Kalea / Calle: ED50 30T X.500355, Y.4771990, alt. 180 m.

Egia esan, San Lorentzo izeneko kalearen amaieratik ibai aldera jaisten den kale perpendikularra da, berez herria luzetara segitzen zuen errepede zaharraren zati bat.

Seinaleetan eta zerrenda ofizialetan *Tartako* ageri da, osagaiak *estarta* eta *-ko* dituen euskal jatorriko formaren desitxuraketa dena eta, gutxi gorabehera, ‘bidekoa’ esan nahi duena. Genitibo egitura argiak segituan substantibo bat egotea iradokitzen du eta, kasu honetan, *kalea* izango litzateke seguruenik. Hala ere, ez da arraroa era honetako toponimoen erabilera (cf. Deustun *Larrako*, *Sarriko*, *Ugazko...*), eta horregatik *Estartako* aldaera bakarra proposatzen dugu, 1910eko *Nomenclátor* delakoan ageri den *Estartaco* erarekin bat datorrena.

Se trata en realidad de una calle que desciende perpendicularmente hacia el río desde el final de la calle denominada San Lorentzo, que no es sino un tramo de la antigua carretera general que seguía linealmente el pueblo.

El nombre de esta barriada figura en la señalización y en los listados oficiales como *Tartako*, siendo una deformación de la forma eusquérica formada por *estarta* ‘estrada’ y *-ko* ‘de’, que viene a significar ‘de la estrada’. Su estructura de genitivo, sugiere que el nombre vaya seguido de un sustantivo, que en este caso parece pertinente sea *kalea* ‘calle’. Sin embargo, no es inusual el uso de topónimos de este tipo (cf. en Deusto *Larrako*, *Sarriko*, *Ugazko...*), por lo que proponemos la forma única *Estartako*, de acuerdo con la forma *Estartaco* que aparece en el *Nomenclátor* de 1910.

## Kallebarrena

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.500373, Y.4772719, alt. 170 m.

Biziguneko eraikinak Bilbo-Burgos A-625 errepidearen inguruan metaturik daude eta, historikoki bat eta bakarra da bide hori. Gaur egun, ordea, kale bakar hori zazpi zatitan banatuta dago modu arbitrario samarrean, hurrenez hurren, Padura, Restergo, San Lorentzo, Torre, Magdalena, Barrena eta Otazu. Tradizioan Kallebarrena auzoa herriaren erdi bat izan da, laugarren tarteari izena ematen dion Torre delakoan hasi eta Laudiorako irteerarainokoa. Gaur egun, ordea, Barrena Santa Maria Magdalena eliza igaro ondoren hasi eta Otazu izena hartzen duten herriko azken etxeetan amaitzen da.



*Callebarrena* eta *Callegoyena* ‘beheko auzoa’ eta ‘goiko auzoa’, 1842an eta 1798an agertzen dira hurrenez hurren iturri dokumentaletan, eta Luiaondoko auzo historiko biak izendatzeko erabili ziren<sup>7</sup>. Kale-izendegian substantiborik gabeko *Barrena* forma soila erabili da, baina badirudi beti erabili behar dela *kal(l)e* izenari lotuta. Euskaraz uste den baino sarriago erabili izan da *kalle* forma, eta horregatik hobetsi dugu haren erabilera toponimo honetan, nahiz eta gaurko era estandarra *-kale* den. Forma honek ‘auzoa, etxeak bata bestetik gertu dituen gunea’ esan nahi du, baita ‘herria’ edo ‘herri barruko bidea’ ere, betiere *baserriari* ‘basoko etxeak’ edo ‘sakabanatutako etxeei’ kontrajarrita. Elgoibarren *Kalegoien* eta *Kalebarren* ziren, hurrenez hurren, hiriaren goiko eta beheko aldeak.

La vía de comunicación en torno a la que se agrupan las edificaciones del núcleo es históricamente solo una: la carretera A-625 Bilbao-Burgos. En la actualidad esta calle única se halla dividida arbitrariamente en siete tramos, a saber Padura, Restergo, San Lorenzo, Torre, La Magdalena, Barrena y Otazu. Tradicionalmente el barrio Kallebarrena ha sido la mitad del pueblo, desde la torre que da nombre al cuarto de los tramos citados, hasta la salida hacia Llodio (Laudio), pero en la actualidad Barrena solo designa el tramo que comienza una vez rebasada la iglesia parroquial de Santa María Magdalena hasta las últimas casas del pueblo, denominadas Otazu.

*Callebarrena* y *Callegoyena* ‘barrio de abajo’ y ‘barrio de arriba’ aparecen en la documentación en 1842 y 1798 respectivamente, para designar los dos barrios históricos de Luiaondo<sup>8</sup>. Aunque el callejero oficial ha optado por la forma sin sustantivo *Barrena*, parece que este debe figurar siempre unido al nombre *ka(l)le*. El uso en euskera de la forma *kalle* es más habitual de lo que suele admitirse y, por esta razón, hemos priorizado su uso en el topónimo, a pesar de que la forma estándar es actualmente *kale* ‘barrio concentrado’ y, en ocasiones, ‘villa’ o ‘calle’, normalmente en contraposición a *baserria* ‘casería, zona rural’, o ‘forma dispersa de población en general’. En Elgoibar recibían los nombres de *Kalegoien* y *Kalebarren* las zonas situadas sobre y debajo de la villa respectivamente.

## Kallegoiena

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.500110, Y.4771854, alt. 180 m.

Kallebarrenari kontrajarrik, Kallegoiena da herriko eremurik altuena eta hegoaldekoena. Historikoki Amurrio aldeko sarreran hasi eta Torre izeneko tartean dagoen dorreraino helduko zen. Gaur egungo San Domingo, Restergo eta San Lorentzo izeneko kaleak har litzake, beraz. Auzoaren erdian Zubibarri kalearekin elkartzen da.

<sup>7</sup> Mugurutz, 2001, hitzaldia. Arana-Murillo familiaren dokumentazioan (1842ko urriaren 23): «del sitio y paredes viejas de la caseía quemada titulada Vega-Landaburu, notoria en dicho Luyando en Callebarrena pegante al camino real».

<sup>8</sup> Mugurutz, 2001, conferencia. Documentación de la familia Arana-Murillo (23 de octubre de 1842): «del sitio y paredes viejas de la caseía quemada titulada Vega-Landaburu, notoria en dicho Luyando en Callebarrena pegante al camino real».

Gutxienez 1798ra arteko agiri historikoetan, *Callegoyena* izena ageri da<sup>9</sup>. Gogoan izan behar da *kale* hitza, maiz gaztelaniatik hurbilago dagoen *kalle* forman, bizkaieraren eremuan ‘auzo’ren sinonimo gisa erabili dela eta oraindik ere bizirik dagoela Elgoibarren hasi eta Ugaoraino. Ikus honi buruz *Kallebarrena* sarreran egindako iruzkinak. *Kallegoiena*, beraz, ‘goiko auzoa’ litzateke argi eta garbi, aurkakoa adierazten duen *Kallebarrena* delakoari kontrajarrita, agirietan *Callebarrena* grafian agertu ohi dena gutxienez 1842ra arte, eta ‘beheko auzoa’ izango litzatekeena. Izen bereko auzoak dokumentatzen ditugu Bermeon, Ordizian, Ziordian<sup>10</sup>..., eta Zuberoko Santa Grazi herriko auzo nagusia, berriz, *Kalla* deitu ohi da.

En contraposición a Kallebarrena, Kallegoiena es la zona más alta y meridional del pueblo. Históricamente abarcaría desde la entrada del pueblo viniendo de Amurrio, hasta la torre ubicada en el tramo llamado hoy Torre. El nombre se podría asignar al barrio que abarcase las actuales calles de Santo Domingo, Restergo y San Lorenzo. El centro del barrio sería aproximadamente la intersección con la calle Zubibarri.

En la documentación histórica, al menos hasta 1798, figura el nombre *Callegoyena*<sup>11</sup>. Hay que recordar que el vocablo *kale*, a menudo en su forma más cercana al castellano *kalle*, ha sido utilizado y aún está vivo en la zona de habla vizcaína, desde Elgoibar hasta Miravalles (Ugao), como sinónimo de ‘barrio’. Véanse a este respecto los comentarios hechos a *Kallebarrena*. *Kallegoiena* sería con bastante evidencia ‘el barrio de arriba’, en oposición a *Kallebarrena*, documentado *Callebarrena* al menos hasta 1842, que sería ‘el barrio de abajo’. Documentamos barrios homónimos en Bermeo, Ordizia, Ziordia<sup>12</sup>..., y *Kalla* se denomina también el barrio principal de Santa Grazi en Zubercoa.

## Magdalena

Kalea / Calle: ED50 30T X.500285, Y.4772536, alt. 175 m.

Andra Maria Magdalena parrokiaren eta hilerriaren parean dago kale nagusiaren zati hau<sup>13</sup>. Kontzejuko jaiak uztailearen 22an izaten dira, izan ere, eliza nagusiaren ad-

<sup>9</sup> Mugurutz, 2001, hitzaldia. Arana-Murillo familiaren dokumentazioa (1798): «cuenta de lo que se ba baluando o tasando la casa que vive Eguiluz en Callegoyena de Luyando, por mí Manuel de Esnarriaga perito nombrado».

<sup>10</sup> Bermeo: «el vergel que es mio y esta en Gojencale de esta villa» (1566, Allika & Uriarte, 2007, 322. or.). Ordizia: «en esta villa de Villafranca la una en la calle llamada Eleyzcale y la otra en la que llaman Goyencale» (1578, Etxaniz & Zaldúa, 2010, s. v. *Goenkale*); Ziordia: «una casa sita en el barrio de Goyencalea, llamada de Mozonecoa» (1803, Carasatorre, 2013, s. v. *Ziordia*).

<sup>11</sup> Mugurutz, 2001, conferencia. Documentación de la familia Arana-Murillo (1798): «cuenta de lo que se ba baluando o tasando la casa que vive Eguiluz en Callegoyena de Luyando, por mí Manuel de Esnarriaga perito nombrado».

<sup>12</sup> Bermeo: «el vergel que es mio y esta en Gojencale de esta villa» (1566, Allika & Uriarte, 2007, pág. 322). Ordizia: «en esta villa de Villafranca la una en la calle llamada Eleyzcale y la otra en la que llaman Goyencale» (1578, Etxaniz & Zaldúa, 2010, s. v. *Goenkale*); Ziordia: «una casa sita en el barrio de Goyencalea, llamada de Mozonecoa» (1803, Carasatorre, 2013, s. v. *Ziordia*).

<sup>13</sup> Zatitutako kale nagusi honi buruzkoetarako, ikus *Kallebarrena* sarreran esandakoak.

bokazioaren eguna data horretan ospatzen baita. Izen honetako kalea parrokiaren behealdean dago, Torre eta Barrena izeneko tarteen artean.

Adbokazio honek inguruko beste toponimo batzuk ekarri ditu, hala nola ahoz *Malabaso* izendatzen den *Magdalenabaso* hurbila, eta bertakoek ongi identifikatzen dute izenaren jatorria<sup>14</sup>. Gaztelaniaz nahiz euskaraz ahozko erabileran *-gd-* kontsonante-taldea sinplifikatu eta *-d-* ahoskatzeko joera dago. Oso herrikoia eta hedatua den arren, ez dugu uste jatorrizko *Magdalena* forma baztertuta, *Madalena* arautzea gomendatu behar denik. Gaztelaniaz, gainera, badirudi mugatzailea jasotzea zilegi dela: *La Magdalena*.

Se trata del tramo de calle principal<sup>15</sup> que queda a la par de la iglesia parroquial de Santa María Magdalena y el cementerio cercano. La fiesta del concejo tiene lugar el 22 de julio en honor precisamente de la santa titular de la parroquia. La calle de este nombre se ubica bajo la iglesia parroquial, entre los tramos denominados actualmente Torre y Barrena.

Esta advocación ha dado lugar además a otros topónimos como *Magdalenabaso* 'bosque de la Magdalena', vulgarmente conocido como *Malabaso*, aunque los lugareños identifican perfectamente su origen<sup>16</sup>. El uso oral tanto en castellano como en euskera tiende a simplificar el problemático grupo consonántico *-gd-*, pronunciando solo la *-d-*. A pesar de su popularidad y difusión, creemos que no es recomendable la normativización de la forma *Madalena* en perjuicio de la original completa *Magdalena*. En castellano, además, parece susceptible de aceptar el artículo: *La Magdalena*.

## Oloste

Kalea / Calle: ED50 30T X.500058 e Y.4771302, alt. 180 m.

Nerbioi ibaiaren eskuinaldean dagoen kale bakarra da Luiaondon. Ibaiaren eta trenbidearen artean dago, haien norabide berbera jarraituz, harik eta Zubibari izeneko zubia gainditzen duen arte. Kalearen hasieran Bilbo-Miranda trenbidearen geralekua dago. Mendiko bide batean gora iparralderantz, gure eskuinera dagoen aurkintza garai batean, Aio baserriaren aztamak bereiz daitezke oraindik ere. Baserri hori Madozek (1845-1850) eta Becerro de Bengoak (1877) aipatu zuten eta zutik egon da duela gutxira arte.

Izen konposatu honen osagai biak argiak dira: *ola* eta *oste*, eta 'burdinolaren atzean' esan nahi du, beraz. Zalantzarik gabe, garai batean inguru hauetan zegoen ola nagusiari egiten dio izenak erreferentzia. Herriaren hegoaldeko muturrean zegoen ola hori

<sup>14</sup> Esan beharra dago *Andra Maria* «*Magdalena*» izenak *Magdala* herriari egiten diola erreferentzia. Gaur egun *Migdal* deitzen da herri hori eta horkoa zen *Andra Maria Magdalena*. Beste modu batera esanda, adjektibo jentilizio bat da eta esan nahi du *Andra Maria* hau *Magdalakoa* edo *magdalarra* dela.

<sup>15</sup> Sobre la división de esta calle principal en tramos, véase lo dicho en *Kallebarrena*.

<sup>16</sup> Cabe aclarar que el nombre de *Santa María* «*la Magdalena*», hace referencia al pueblo de *Magdala*, en la actualidad *Migdal*, de donde era originaria. Dicho de otro modo, se trata de un adjetivo gentilicio que viene a especificar que la *Santa María* de que hablamos es la *de Magdala* o la *magdalena*.

eta bere azken garaietan irin-lantegi bihurtuta iraun zuen. XIX. mendetik aurrera bertan behera geldituko zen ola gisa, 1813ko errolda batean haren ekoizpena aipatzen delako, baina mende erdirako jadanik ez omen zebilen, halaxe baitio Pascual Madozek (1845-1850). Hala ere, ola horri *Padura* esaten zitzaion eta gaur egun inguruko auzo batek hartu du izen hori.

Se trata de la única calle de Luiaondo que hay al lado derecho del río Nervión, y que discurre paralela a este y a las vías del tren, aproximadamente entre ambas, hasta superar el puente denominado Zubibarrí. Al principio de la calle se ubica el apeadero de la línea ferroviaria Bilbao-Miranda. Siguiendo un camino de montaña hacia el norte, en paraje algo elevado en la ladera a nuestra derecha, aún se pueden identificar las ruinas del caserío Aio citado por Madoz (1845-1850) y por Becerro de Bengoa (1877), que ha estado en pie hasta no hace tanto tiempo.

El nombre es un transparente compuesto de *ola* y *oste*, significando por lo tanto ‘tras la ferrería’. Hace sin duda referencia a la antigua ferrería mayor existente en las cercanías, en el extremo meridional del pueblo, y que en sus últimas épocas sobrevivió reconvertida en fábrica de harinas. Sabemos que dejó de funcionar como tal en el siglo XIX, ya que se habla de su producción en un censo de 1813, pero no funcionaba ya a mediados de siglo, a tenor de lo publicado por Pascual Madoz (1845-1850). En cualquier caso, la ferrería, bien documentada, era conocida con el nombre de *Padura*, hoy adoptado por otro nuevo y cercano barrio.

## Otazu

Kalea / Calle: ED50 30T X.500425, Y.4772904, 170 m.

Herriguneko kale nagusiaren azkenengo zatia da, Laudiorako irteerari dagokionna alegia<sup>17</sup>. Auzo honetan dago Otazu izenaz ezagutzen den Erdi Aroko zubi konkorduna ere, Nerbioi ibaia zeharkatzen dutenetan zaharrena.

Euskarazko izen honen osagaiak *ote* izena (*Ulex sp.*) eta *-zu* ugaritasun atzizkia dira, oso maiztasun handikoa landare izenekin. Toponimoaren esanahia, beraz, ‘otadia, otea dagoen lekua’ da. Bitxia bada ere, gaur egun ere Aiaran ahozko erdal hizkeran *otaka* euskal hitza erabiltzen da *-ote* eta *-ka* partikula txikigarria– landare hau identifikatzeko.

Se trata de la calle principal del núcleo en su último tramo, es decir en la salida dirección a Llodio (Laudio)<sup>18</sup>. En dicho barrio se encuentra el alomado puente medieval también llamado Otazu, el más antiguo de los que cruzan el Nervión.

El nombre es un compuesto de la palabra vasca *ote* ‘argoma’ (*Ulex sp.*) y el sufijo abundancial *-zu*, profusamente utilizado con nombres de plantas. El significado del topónimo es, por tanto, claramente ‘el argomal’. Es interesante señalar que en Ayala (Aiara) todavía se usa

<sup>17</sup> Ikus *Zubibarrí* eta kale nagusiaren zatiak *Kallebarrena* atalean.

<sup>18</sup> Véanse la entrada *Zubibarrí*, y la división de la calle principal en tramos citada en la entrada *Kallebarrena*.



*Otazuko zubi erromanikoa*  
Puente románico de Otazu

oralmente la palabra eusquérica *otaka* –compuesta por *ote* y la partícula diminutiva *-ka-* para designar a la argoma.

## Padura

Kalea / Calle: ED50 30T X.499871, Y.4771476, alt. 180 m.

Luiaondoko kale nagusiak tartea batean hartzen duen izena da, euskarazko hitz arrunta, herriaren sarreratik San Domingo kalea elkartzen zaion lekuraino, hain zuzen ere<sup>19</sup>. Hemen altxatzen da ospe handiko Aretx Malatua egon zen tokia gogoratzen duen gurutzeta. Zuhaitz hori Lope García de Salazarrek aipatu zuen *Bienandanzas e Fortunas*<sup>20</sup> lanean eta, tradizioaren arabera, bizkaitarrek horraino joaten ziren euren jaunaren atzetik lurren defentsan. Gaur egun aipatutako gurutze xumeak ematen digu horren berri.

Toponimo hau euskal hitz arrunta da ‘leku urtsua, istinga’ adiera duena edo, Azkueren arabera, ‘itsasoaren nahiz ibaien urak gora egitean, urez betetzen diren lur baxuak’. Arabako lautadan *Madura* edo *Matura* forma erabiltzen da eta beste leku batzuetan *Fa-*

<sup>19</sup> Ikus kale nagusiaren zatiak *Kallebarrena* atalean.

<sup>20</sup> Ikus Luiaondoko kontzejua.

*dura*, Getxon esaterako<sup>21</sup>. Ibaitek gertu dagoenez, jatorrian izen deskriptibo arrunta izango zen seguru asko, baina denborarekin esanahi hori galdu egin du, besteak beste, ibaiaren ibilbidea ondo egokitu delako. Herri honetako *Oloste* izenaren iruzkina egitean aurreratu dugunez, leku horretan egondako ola nagusiari ere *Padura* esaten zitzaion.

Es el nombre que toma la calle principal de Luiaondo desde la entrada del pueblo hasta que confluye con ella la calle Santo Domingo (San Domingo)<sup>22</sup>. En este tramo se encuentra la cruz que recuerda la ubicación del célebre Árbol Malato que citara Lope García de Salazar en las *Bienandanzas e Fortunas*<sup>23</sup>. Se trata del punto hasta el que, según la tradición, los vizcaínos seguían a su señor en defensa de sus tierras y cuya memoria hoy se guarda con esta modesta cruz.

El topónimo es palabra vasca común que significa ‘pantano, zona pantanosa’ o, según Azkue, ‘terreno bajo que se inunda con las aguas que rebosan del mar o de los ríos’. En la llanada alavesa adopta la forma *Madura* o *Matura* y en otros lugares *Fadura*, como ocurre en Getxo (Bizkaia)<sup>24</sup>. Dada su proximidad al río, es más que probable que en origen fuese un nombre común descriptivo que ha perdido su significación, entre otras cosas, debido al adecuado encauzamiento de aquel. Como ya se ha adelantado al hablar del nombre *Oloste* de este pueblo, por *Padura* se conoció también la ferrería mayor allí existente.

## Pagonabarrabekoa

Antzinako etxea / Antigua casa: ED50 30T X.498375, Y.4774000, alt. 475 m.

Antzinako baserri hau Pagonabarra gailurretik gertu zegoen. Arespalditzako kontzejuan ere bazen Pagonabarragoikoa izeneko baserri bat, gaur egun eroria. Biak bereizi ahal izateko, esku artean dugunari Pagonabarrabekoa esaten zitzaion. Laudioko Izardui (gaur egun Isardio) auzoaren aurrez aurre zegoen baserria, herri bien arteko muga segitzen duen ibarraren beste aldean. Instituto Geográfico y Catastral delakoaren 1954ko kartografian, hiru eraikin ageri dira oraindik eta, beraz, duela gutxira arte zutik egon direla pentsa daiteke.

*Pagonabarra* toponimo ederra, laburtuta, *Panabarra* esan ohi da ahozko hizkeran eta euskal toponimo konposatua da, *pago* (*Fagus sylvatica*) substantiboaz, *nabarra* adjektiboaz, ‘arrea, marroi kolorekoa’, eta *-a* artikuluz osatua. Datu gehiago nahi izanez gero, ikus Arespalditzako kontzejuko *Pagonabarragoikoa* etxe-izena eta *Pagonabarra* mendia.

Era un antiguo caserío cercano a la cima del monte conocido por Pagonabarra. Hallamos también casa en ruinas llamada Pagonabarragoikoa, ‘Pagonabarra de arriba’ en término del

<sup>21</sup> Euskaraz ohikoa da *p-m* ezpainbikariak nahastea, baita *f-p* soinuen alternantzia ere. Oraindik ere Bizkaiko toki batzuetan behintzat nahastu egiten dira.

<sup>22</sup> Véase la división de la calle principal en tramos, en la entrada *Kallebarrena*.

<sup>23</sup> Véase Concejo de Luiaondo.

<sup>24</sup> La confusión de bilabiales *p-m* es bastante habitual en euskera, así como la alternancia de los sonidos *fp*, todavía hoy confusa al menos en ciertas zonas de Bizkaia.

concejo de Arespalditza, denominándose la que nos ocupa Pagonabarrabekoa, 'de abajo', con el fin de discriminarlas. El paraje donde se ubicó el caserío se encuentra frente al barrio laudioarra de Izardui (actualmente Isardio), al otro lado de la vaguada por la que discurre el límite entre ambos municipios y bastante cercano al mismo. En la cartografía del Instituto Geográfico y Catastral de 1954, aún figuran tres edificaciones, por lo que cabe deducir que han estado en pie hasta tiempos recientes.

El bonito topónimo *Pagonabarra*, oralmente *Panabárra*, es un claro compuesto eusquérico de *pago* 'haya' (*Fagus sylvatica*), y el adjetivo *nabar* 'parda' más el artículo *-a*, y que viene, por tanto, a significar 'el haya parda'. Para más datos, véanse la casa *Pagonabarragoikoa* en el concejo de Arespalditza y el monte *Pagonabarra*.

## Restergo

Kalea / Calle: ED50 30T X.500025, Y.4771775, alt. 180 m.

Luiaondoko kale nagusiaren tarte bat da, Padura eta San Lorentzo izeneko zatien artean dagoena<sup>25</sup>. Erdiko kale hori mendebaldean San Domingo kalea elkartzen zaion bidegurutzean hasi eta ekialdean Nerbioira jaisten den Zubibarri kalearen bidegurutzeraino heltzen da. Dirudienez, ipar-mendebaldetik San Lorentzo gainaren eta Austio baserriaren artean jaisten diren ibarra eta erreka ere izendatzen ditu, Zubibarri izeneko zubia baino metro batzuk gorago Nerbioira isurita bukatzen direnak.

Etimoari dagokionez, zinez iluna da *Restergo* izena, baina erabilera bizi-bizia du.

Es el tramo de la calle principal de Luiaondo situado entre los tramos denominados Padura y San Lorentzo<sup>26</sup>. Abarca el carril central desde su confluencia con la calle Santo Domingo (San Domingo) por su lado oeste, hasta el cruce con la calle Zubibarri que desciende hacia el Nervión por el este. También parece designar la vaguada y arroyo que descienden del noroeste, entre el alto de San Lorentzo y el caserío Austio, para tributar al Nervión unos metros más arriba del puente de Zubibarri.

El nombre *Restergo* es ciertamente oscuro en cuanto al étimo, pero goza de mucha vitalidad en el uso.

## San Lorentzo

Kalea / Calle: ED50 30T X.500176 e Y.4771955, alt. 185 m.

San Lorentzo izenak gaur egun Restergo eta Torre bitarteko kale nagusiaren zatia izendatzen du<sup>27</sup>. Erliebeari begiratuta, ondo konpondutako Done Laurendi Mar-

<sup>25</sup> Kale nagusiaren zatiei buruz, ikus *Kallebarrena* atala.

<sup>26</sup> Sobre la división de esta calle principal en tramos, véase lo dicho en *Kallebarrena*.

<sup>27</sup> Ikus kale nagusiaren zatiak *Kallebarrena* atalean.



*Luiaondoko baserri ederra*  
Hermoso caserío de Luiaondo

tiria<sup>28</sup> ermita txukuna dagoen gain apalaren oinetan dago eta hari zor dio izena. Santu titularren eguna abuztuaren 10ean denez, jaia eta herri bazkaria ospatzen da ermita inguruko landetan. Ekitaldi hau da kontzejuko jai guztien artean jende gehien biltzen duena. Garai batean ermitaren inguruan, haren jabegopeko hariztia egon zen. 1789an ermita eraitsi nahi izan zuten, herritik urrun zegoelako eta erromeria arrisku-tsua zelako «para la moralidad y las buenas costumbres», ‘moraltasunerako eta ohitura onetarako’ alegia.

*San Lorenzo* forma euskaratzean aldaketaren bat egin beharra dago eta, herriak erabiliko lukeen *San Lorentzo* forma erabil daiteke, edota *Done Laurendi* aldaera kanonikoagoa eta serioagoa. Hala ere, ermita baten adbokazioaz ari garenez, egokiagoa dirudi kalea izendatzeko toponimo bat bakarra erabiltzea hizkuntza ofizial bietan.

El nombre San Lorenzo designa en la actualidad un tramo de calle principal situado entre Restergo y Torre<sup>29</sup>. Orográficamente queda justo al pie del modesto alto donde se ubica la hermosa y bien arreglada ermita de San Lorenzo Mártir<sup>30</sup>, a la que debe el nombre. El día 10 de agosto, festividad del santo titular, se celebra fiesta con comida popular en las campas que circundan la ermita, siendo de un tiempo a esta parte el festejo más concurrido del conejo. En otros tiempos el templo estuvo rodeado de un robledal de su propiedad. En 1789 se

<sup>28</sup> Ermitaren koordenatu zehatzak hauek dira: ED50 30T X.499636 eta Y.4772455. Altitudeari dagokionez, 285 m ingurura dago.

<sup>29</sup> Sobre la división de esta calle principal en tramos, véase lo dicho en *Kallebarrena*.

<sup>30</sup> La ubicación precisa de la ermita se ajusta a las coordenadas ED50 30T X.499636 e Y.4772455, a unos 285 m sobre el nivel del mar.



pretendió la demolición de esta ermita debido a la distancia al pueblo y a los peligros de sus romerías «para la moralidad y las buenas costumbres».

La forma *San Lorenzo* requiere en euskera alguna modificación, al estilo del popular *San Lorentzo* o el más canónico y serio *Done Laurendi*. Sin embargo, dado que se trata de la advocación de una ermita, parece preferible denominar a la calle con un topónimo único para ambas lenguas oficiales.

## Torre

Kalea / Calle: ED50 30T X.500279, Y.4772200, alt. 180 m.

Kale nagusiaren erdiko gunea da, Kintobidean hasi eta Laudio-Amurrio saihebidetik etorrita, herriaren sarrerako bidegurutzeraino hartzen duena<sup>31</sup>. Tartearen erdi aldean eta mendebaldera dagoen dorre deigarriari zor dio izena. Dorre hori zen garai batean *Kallegoiena* eta *Kallebarrena* auzoak bereizten zituen puntua.

Euskara estandarreko forma *dorrea* den arren, mendebaldeko euskalkietan gaur egun oraindik ere *torrea* erabiltzen da eta *Luiaondon* ere hala dokumentatuta dago, *Torreco* ageri baita. Segurua da duela mende bat arte euskaraz aritu ziren luiaondoarrek eraikin horri *Torre* esango ziotela.

Se trata del tramo de calle principal más céntrico, que abarca desde la confluencia de Kintobidea hasta el cruce de entrada al pueblo viniendo de la circunvalación Llodio (Laudio)-Amurrio<sup>32</sup>. Debe su nombre a la llamativa torre que se ubica en su zona central y al lado oeste. La torre a la que hace referencia el nombre era antaño la divisoria entre los barrios 'de arriba' o *Kallegoiena* y 'de abajo' o *Kallebarrena*.

Aunque la forma estándar del sustantivo en euskera es *dorre*, en el dialecto vasco occidental se usa aún hoy la forma *torre* y así se documenta en *Luiaondo*, donde figura *Torreco* 'de la torre'. Sin duda, los vascohablantes que existieron en Luiaondo hasta hace un siglo, debieron referirse a dicho elemento constructivo como *Torre*.

## Zubibarri

Kalea / Calle: ED50 30T X.500224, Y.4771770, alt. 175 m.

Kale nagusitik Nerbioi ibaira perpendikular jaisten den kale bat da, ondoren zubi bat igarota hura zeharkatzeko. Gaur egun Restergo eta San Lorentzo zatiak bereizten diren tokian hasi eta erreka besterik aldean Oloste kalearekin bat egitean amaitzen da.

<sup>31</sup> Ikus kale nagusiaren zatiak *Kallebarrena* atalean.

<sup>32</sup> Sobre la división de esta calle principal en tramos, véase lo dicho en *Kallebarrena*.

Izen hau zubia eta ondoko ola izendatzeko erabiltzen zen. Dakigunez, 1771n Nerbioi ibaiaren *aguaduchu* 'uholde' batean kalte handiak pairatu zituzten inguru hauek. Bertako batzuek, ahoskera zabarez, *Sulibárrri* edo *Solibárrri* esaten dute, nahiz eta denek onartzen duten forma zuzena *Zubibarri* dela. Izenaren etimoa argia da, euskarazko osagai bi dituena: *zubi* eta *barri*. Bigarren osagai hau *berri* forma estandarren mende-baldeko aldaera da, eta seguruenik, Otazun dagoen Erdi Aroko zubi zaharagoari kontrajarrita sortuko zen izen hau.

Se trata de una calle que, perpendicular a la principal, desciende desde la misma hasta el río Nervión para cruzarlo por un puente. Tiene su origen en el punto en que actualmente se discriminan los tramos Restergo y San Lorenzo y al otro lado del río termina desembocando en la calle Oloste.

Este nombre designaba originalmente al puente y a la ferrería que existía junto a este, del que sabemos que resultó muy dañado en un *aguaduchu* –inundación–, del Nervión el año 1771. Algunos lugareños, en pronunciación descuidada, dicen *Sulibárrri* o *Solibárrri*, si bien todos reconocen la mayor corrección de la forma *Zubibarri*. El étimo del nombre es claramente eusquérico, siendo un compuesto de *zubi* 'puente' y *barri*, forma occidental del estándar *berri* 'nuevo', significando por lo tanto «puente nuevo». Probablemente, dicho nombre surge como contraposición al puente medieval, más antiguo, de Otazu.

## Luxo



1932



2000

Luxoko kontzejua Peregaña mendiaren hego-mendebaldeko magalean dago, garai batean Sopeñako kuadrilla zenaren barruan. Iparraldean Erretes dauka, mendebaldean Erbi eta hegoaldean Ozeka. Ez Madozek (1845-1850), ez Becerro de Bengoak (1877), ez diote auzorik aipatzen, jendea bizi den etxeak nahiko bilduta daudelako. Herri txiki honetan hargintza oso garrantzitsua izan da, eta morfologian nabari da hori. Gainera, oraindik ere mia daiteke Peregaña inguruko eremu batean harria nondik ateratzen zuten. Biztanleriaren eboluzioari dagokionez, udalerriko negatiboenetakoa izan da. Izan ere, Madozek XIX. mendearen erdialdera 30 biztanle zituela zioen, 1950ean 24 zituen, 1970ean 7 besterik ez, eta 2000ko erroldan bakarrik 3 ageri dira.

Herri hau lehen aldiz 864an<sup>1</sup> agertzen da aipatua eta agiritik *Fluiso* grafia transkribatu ohi da. Kontuan izan behar da, ordea, Erdi Aroko *fl-* grafia, zenbaitetan, egungo *ll-* grafiaren parekoa dela. Jatorrizko forma, gaur egun *ko-*ofiziala, *Luxo* da. Hala ageri da dokumentu historikoetan eta XX. mendera arte ia beste formarik ez daukagu. Jatorrizko *-x-* hori *-j-* bihurtzeari dagokionez, ikus *Lexartzuko* kontzejuan esandakoa. XX. mendearen erdian, artean, burdina bat erabiltzen zuten, Gorobel mendilerroa eraman aurretik kontzejuko behien adarrak markatzeko, eta burdina horretan ere *Luxo* idazkera ageri zen. Felix Mugurutzaren arabera<sup>2</sup>, izenaren etimologia iluna da, nahiz eta lan-hipotesi gisara zer edo zer mentura daitekeen. Daitekeena da *\*lu(h)i* hitzaren (gaur egun, *lohi*) eratorria izatea eta horri ugaritasuna adierazten duen *-zu*

<sup>1</sup> Ikus adibidez Lexartzuko kontzejua.

<sup>2</sup> 2001, *Zaraobe*, 82.

atzikia erantsi izana. Ikus, halaber, ikertzaile honek Luiaondo izenerako adierazten duen etimologia ere. *Lu(h)i-za* izen paraleloa litzateke eta esanahi bera izango luke. Aiarako kuadrillan hainbat *Luja* daude eta hori izango litzateke guztien jatorria, baita Luxoko kontzejuko *Loiza* izenarena ere.

El concejo de Luxo se halla emplazado en la ladera suroeste del pico Peregaña, en lo que antaño fuera la cuadrilla de Sopeña. Limita al norte con Erretes, al oeste con Erbi y al sur con Ozeka. Ni Madoz (1845-1850) ni Becerro de Bengoa (1877) le asignan barrios, pues las casas pobladas se encuentran bastante concentradas. La gran tradición que la cantería ha tenido en este pequeño pueblo, ha quedado patente en su morfología. Además, aún se aprecia la zona del cercano Peregaña de donde se extraía la piedra. La evolución de la población es una de las más negativas del municipio, pues Madoz a mediados del siglo XIX le asignaba 30 almas, en 1950 contaba con 24 habitantes, en 1970 solo eran 7, y en el censo del año 2000 figuran solo 3.

La primera mención de este pueblo es del año 864<sup>3</sup> donde se transcribe *Fluiso*, aunque debe tenerse en cuenta que la grafía medieval *fl-* equivale en ocasiones a una *ll-* actual. La forma original y hoy en día co-oficial es *Luxo*, tal como figura en la documentación histórica, donde esta es casi única hasta el siglo XX. Sobre la causa del cambio de *-x-* a *-j-*, véase lo ya dicho en el Concejo de *Lexartzu*. Todavía a mediados del siglo XX se utilizaba un hierro para marcar los cuernos de las vacas del concejo antes de subirlas a la Sálvada (Gorobel), en el que aparecía la grafía *Luxo*. Según Felix Mugurutza<sup>4</sup>, la etimología de este nombre es oscura,



*Luxo herriaren kokaleku ederra eta Zaballa mendia*  
 Hermosa ubicación del pueblo Luxo y el monte Zaballa

<sup>3</sup> Véase por ejemplo el concejo de Lexartzu.

<sup>4</sup> 2001, *Zaraobe*, 82.

aunque se podría aventurar como hipótesis de trabajo, que sea un derivado de \**lu(h)i* (actualmente, *lohi*) 'barro' y *-zu*, sufijo que suele denotar abundancia. Véase también la etimología que este investigador indica para *Luiaondo*. Nombre paralelo sería *lu(h)i-za*, con idéntico significado y posible origen de los varios *Luja* que aparecen en la cuadrilla de Ayala, así como del nombre *Loiza* existente en Luxo.

## Okendo

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.492273, Y.4769759, alt. 450 m.

Auzo hau iparralderantz luzatzen den Gorobelgo mendi adar xume batean dago. Kontzejuaren auzoburua da eta askotan honi ere Luxo izen hutsa ematen zaio. Beheko aldean Andra Mariaren Jasokundeko parrokia dago eta haren jaia abuztuaren 15ean ospatzen da. Auzoko batzarrak elizako atarian egin ohi dira, gaur egun ez baitago kontzeju etxerik. Madozek (1845-1850) Elejalde auzoa ematen du elizaren ondoko etxe biak identifikatzeko, nahiz eta kontzejuaz ari denean ez duen auzo hori aipatzen.

Berez *Okendo* izan arren, Aiararen iparraldean dagoen ibarra eta udalerria ofizialki *Okondo* dira<sup>5</sup>. Aiarako auzo honen izenak forma bereko abizen bati egiten omen dio erreferentzia<sup>6</sup>, eta abizenak ez du horrelako aldaerarik eman. Horrenbestez, nahia-go izan dugu abizen horren jatorrizko forma arauzko bezala proposatzea: *Okendo*.

Barriada encaramada en un pequeño estribo secundario de la sierra Sálvada o Gorobel que apunta hacia el norte. Se trata del núcleo capitalidad del concejo, a menudo denominado simplemente Luxo, en cuya zona baja se emplaza la iglesia parroquial de la Asunción de Nuestra Señora, festividad que se celebra el 15 de agosto. Las reuniones vecinales suelen celebrarse en el pórtico de la iglesia, pues no hay casa del concejo. Curiosamente Madoz (1845-1850) da como entrada el barrio Elejalde para identificar las dos casas más próximas a la iglesia, si bien en la entrada correspondiente al concejo no lo cita.

Aunque a pesar de tener origen en la forma *Okendo*, el vecino valle y municipio al norte de Ayala (Aiara) se llama oficialmente *Okondo*<sup>7</sup>, la denominación de este barrio de Ayala (Aiara), hace referencia a un apellido<sup>8</sup> que no conoció tal variante, por lo que se prefiere proponer como normalizada la forma original de apellido en cuestión: *Okendo*.

<sup>5</sup> Egia esan, *Okondo* herri izenaren jatorrian *Okendo* forma dago, halaber. Herri horren izena aldatu egin da harmonia bokalikoagatik (o-e-o > o-o-o). Horrelakoak arautzeko, beharrezkoa izaten da antzinatik dokumentatuta egotea, eta hala gertatzen da kasu horretan. Ez, ordea, Luxoko kontzejuaren izenean.

<sup>6</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>7</sup> En realidad el nombre del vecino pueblo de *Okondo*, tiene también su origen en la forma *Okendo*, siendo la modificación una simple armonía o imitación vocálica (o-e-o > o-o-o), que sólo cabe normativizar si, como en este caso, se documenta desde antiguo. No ocurre así en el nombre que nos ocupa en el concejo de Luxo.

<sup>8</sup> Barrenengoa, 1990.



*Okendoko eliza eta plaza bitxia, lauzez estalitako larrain zaharra*  
Iglesia y curiosa plaza de Okendo, antigua era enlosada

## Olabarte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492356, Y.4769831, alt. 450 m.

Kontzejuaren erdiko gunetik gertu dauden etxe batzuk dira, apur bat ipar-ekialdera, Peregaña menditik gertu. XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik ez da bertan inor bizi eta parrokiako gunearen aurrez aurre daude, iparraldera, Erretes aldera jaisten den ibar baten beste aldean.

Izena seguruenik euskarazko konposatua izango da, eta badirudi hiru osagai dituela: *ola*, *bi* eta *arte*, 'burdinola biren artean' edo, seguruago, 'kortabaso biren artean' esan nahiko lukeena. Beste aukerarik ere bada, ordea. Esate baterako, *olabe* 'olaren beheko aldea'<sup>9</sup> edota 'ola txikia' ere<sup>10</sup>.

Se trata de las casas cercanas al núcleo central del concejo ligeramente separadas al nordeste, más próximas al pico Peregaña. Deshabitadas desde los años setenta del siglo XX, las casas se encuentran frente al núcleo de la iglesia parroquial, al otro lado de una vaguada que desciende al norte hacia Erretes.

El nombre es probablemente un compuesto eusquérico de *ola* 'ferrería' o 'sel', *bi* 'dos' y *arte* 'entre', significando 'entre dos ferrerías' o, más probablemente, 'entre dos seles'. Otras opciones son las que pasan por interpretar *olabe* como 'parte baja de la ferrería'<sup>11</sup> o, incluso, 'ferrería pequeña, fragua'<sup>12</sup>.


<sup>9</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>10</sup> Mugurutzza, 2001, *Zaraobe*, 82.

<sup>11</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>12</sup> Mugurutzza, 2001, *Zaraobe*, 82.

## Madaria



1932



2000

Gorobel mendilerroaren iparraldeko adarretan dago Madaria izeneko kontzeju txiki hau, zehazki Ungino mendi lerdinarean iparraldeko magalean. Iparraldean Maroñoko muga dauka, mendebaldean Salmantón, hegoaldean aipatutako Gorobel mendilerroa eta ekialdean Agiñaga. Ez Madozek, ez Becerro de Bengoak ez dute auzorik aipatzen Madarian. Guk emango ditugun biak elkarretatik oso gertu daude eta ohikoan ez dira auzo bereizitzat ere hartzen, bertakoen aldetik ez bada. Madozen *Diccionario* ezagunean (1845–1850) XIX. mendearen erdi aldera 38 biztanle zituela aipatzen zen. 1950eko *Nomenclátor* delakoan 20 zituen, 1970ean 16 ziren eta 2000ko erroldan 11 besterik ez. Aiararen erdialdean ez dauden kontzeju guztietan bezala, hemen ere biztanleria gutxitzen ari da etengabe duela mende eta erditik hona.

Madozek (1845–1850) eta Becerro de Bengoak (1877) *Madaria* forma darabilte, eta aipatu ditugun auzo biek osatzen duten gunea izendatzeko ere forma hori bera erabili ohi da. Euskal toponimo argia da, *madari* hitza erabiltzen baita mendebaldean *Pyrus sp.* arbola nahiz beronen fruitua izendatzeko. Amaieran *-a* mugatzailea jaso eta ‘udareondoa’ esan nahi du, beraz. San Klemente eta Santa Zezilia adbokaziopeko parrokia gerra zibilean suntsitu zuten. Aspaldiko denboretan Obaldiako priorerria izan zen eta XIX. mendeko desamortizazioak gauzatu arte Donemiliaga Kukulako monasterioaren mende egon zen. Hala adierazten du Tomás López geografoak bildutako informazioak ere –eta, adierazten duenez, 1748a baino lehenagoko baten kopia da–:

«Madaria, de 11 vecinos. Confina con los dos lugares precedentes –Agiñagaz eta Maroñoz ari da–, con el de Salmantón y la misma Peña. Es de la jurisdicción del Real Monasterio de San Millán de la Cogulla (sic) de donde hace las veces de cura un monge de él, sin intervención del obispo de Calahorra, y con igual distancia a los antecedentes».

Vatikanoko agirietan, 1119an Aviñonen (Frantzian) idatzitako dokumentu batean honakoa irakur daiteke: *Ovalliam cum omnibus pertinentiis suis*<sup>1</sup>...

El pequeño concejo de Madaria se ubica en las estribaciones septentrionales de la sierra Sálvada o Gorobel, en la ladera norte del esbelto pico Ungino. Limita al norte con Maroño, al oeste con Salmantón, al sur con la citada sierra y al este con Agiñaga. Ni Madoz ni Becerro de Bengoa le asignan barriada alguna. Las dos que nosotros citamos se encuentran tan cercanas que no suelen percibirse como tales más que por los habitantes del lugar. En el *Diccionario* de Madoz (1845-1850), a mediados del siglo XIX se le contaban 38 almas. En el *Nomenclátor* de 1950 tenía 20 habitantes, en 1970 eran 16 y en el censo correspondiente al año 2000 ya solo eran 11. Vemos que, como la mayoría de los concejos no céntricos de Ayala (Aiará), el despoblamiento viene siendo imparabable desde hace siglo y medio.

Tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877) lo denominan *Madaria*, que además suele aplicarse también al núcleo que forman las dos barriadas que citamos. Se trata de un topónimo claramente eusquérico, pues el sustantivo *madari* designa tanto al peral *Pyrus sp.* como a su fruto en la zona occidental del País Vasco, que con el artículo -a viene a significar, por tanto, 'el peral'. La iglesia parroquial de San Clemente y Santa Cecilia fue destruida durante la guerra civil. Anteriormente se llamó Priorato de Obaldia y era dependiente del monasterio de San Millán de la Cogolla hasta las desamortizaciones del siglo XIX. Así parece también reflejarlo la información recogida por el geógrafo Tomás López –y que según él indica es copia de otra anterior de 1748–, cuando dice:

«Madaria, de 11 vecinos. Confina con los dos lugares precedentes –hace referencia a Agiñaga y Maroño–, con el de Salmantón y la misma Peña. Es de la jurisdicción del Real Monasterio de San Millán de la Cogolla (sic) de donde hace las veces de cura un monje de él, sin intervención del obispo de Calahorra, y con igual distancia a los antecedentes».

En la documentación Vaticana, en un documento escrito en Aviñón (Francia) en 1119 se lee: *Ovalliam cum omnibus pertinentiis suis*<sup>2</sup>...



*Madaria Gorobel mendilerroaren oinetan*  
*Madaria al pie de la sierra Sálvada*

<sup>1</sup> Sainz Ripa, 2000, 142. or.

<sup>2</sup> Sainz Ripa, 2000, pág. 142.





*Aiarako baserri tipikoa Madarian*  
*Típico caserío ayalés en Madaria*

## Etxabbarri

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493021, Y.4765922, alt. 465 m.

Guneko tokirik garaienean daude etxe hauek, elizatik kilometro pasatxora eta Ungino menditik iparraldera luzatzen den bizkar garai batean. Dirudenez, izen horretako dorre bat egon zen herrian eta hari zor dio izena. Errepidearen eskuinean gaur egun ikus daitekeen azken etxe orubean egongo zen dorrea, izan ere *La Torre* esaten baitzaio etxeari.

Izenaren ahozko erabileran berriz ere aurkitzen dugu hasierako bokala galtzearen fenomeno: *Txabbarri*. Horri buruz, ikus Lantenoko kontzejuan bertako *Etxabbarri* izenaz esandakoa. Euskal toponimoa da eta osagai bi ditu: *etxe* eta *barri*, esanahi argikoak.

Se trata de la zona más elevada del núcleo, a poco más de un kilómetro de la iglesia parroquial y que se ubica en una loma elevada que se desprende del citado pico Ungino al norte. Al parecer debe su denominación a la torre que con ese nombre existió en el lugar y que debió de emplazarse donde hoy se halla la última casa al lado derecho de la carretera, que se conoce precisamente con el nombre *La Torre*.

En la forma oral del nombre de este barrio vemos nuevamente el fenómeno de pérdida de vocal inicial: *Txabbarri*. Sobre ello, véase lo dicho para *Etxabbarri* en el concejo de Lanteno. Se trata de un compuesto eusquérico evidente de *etxe* 'casa' y *barri* 'nueva', significando, por tanto, 'casa nueva'.

## Obaldia

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.493469, Y.4765964, alt. 425 m.

Gaur egun ere kontzejuaren erdiko guneari ematen zaion izena da Obaldia. Auzoa osatzen duten etxeak San Klemente parrokiatik Etxabarrira igotzen doan errepi-dearen ondoan daude. Herriko jaiak azaroaren 23an izaten dira, orduan ospatzen baita santu titularren eguna. Auzora joateko, Izoriatik datorren A-3618 errepidea hartu behar da eta , Maroñora eta Agiñagara doazen bideak atzean utzita, Salmantona iritsi baino lehen dagoen bidegurutze batean, ezkerrera jo (A-4615).

Dirudienez hau da auzoaren berezko izena eta IX. mendetik XIX.era arte dago dokumentatuta, herriko eliza nagusia izendatzeko: *San Clemente de Obaldia en el lugar de Madaria*. Modu desberdinetan dokumenta daiteke: *Dobaltia* (964), *Obaldia* (1095), *Ovalliam* (1119)..., eta 1199az geroztik hasten da *Madaria* izena aipatzen mende luzeetan irauteko. Agian biztanleria tokiz aldatu izanak ekarriko zuen izen aldaketa. Gaur egun auzoaren beheko muturrean dagoen etxeari *Obaldia* esaten zaio. Gorago aipaturiko lekukotzan bezala, 1520an *Juan de Madaria, vecino de Obaldia* ere dokumentatu dugu eta, dirudienez, izen biak batera erabili ziren denbora luzez. Gaur egun *Obaldia* kontzejuaren auzoburua izendatzeko erabiltzen da, nahiz eta batzuek *La Iglesia* generikoaz izendatzen duten. Etimologia oso iluna da. Baliteke euskal konposatu bat izatea eta konposatu horren osagaiak *oma*, ustez ‘mendi-lepoa’ esan nahi duena, eta *aldea* ‘ondoan, gertu’ izatea. Esanahia, beraz, ‘mendatearen ondoan’ izango litzateke. Hala balitz, *-m- > -b-* ezpainbikarien nahastea eta amaierako *-ea > -ia* bokalismoa egongo lirateke, euskaraz biak maiztasun handikoak. Koldo Mitxelena<sup>3</sup>, aldiz, argi eta garbi dio *oma* osagaiari ‘mendi-lepoa’ adiera emateko oinarririk ez dagoela. Gainera, euskaraz *-ea > -ia* aldaketa gertatzen den arren, aipaturiko agiri horiek baino geroagoko gertakaria da. Federico Barrenengoaren (1990) iritziz, berriz, amaieran *alde* egongo litzateke ‘alderdi hurbila’ eta lehenengo osagaia *oba* ‘larrea, belardia’, nahiz eta azken adiera hau ez den egiaztatu. Ingrid Horch (1992) ikerlari alemaniarrek beste irtenbide bi proposatu zituen. Lehenengoaren arabera, *Ubaldea* (*ur + alde + a*) ‘alderdi urtsua’ litzateke eta, bigarren aukeraren arabera, *Ubaldu* edo antzeko pertsona izen bat edukiko genuke. Pertsona izenen bidez saiatu zen Mugurutzta ere toponimoa argitzen<sup>4</sup>, baina oraingoan *\*Ob-* erroarekiko elazioa proposatuz, erro hori bera agertzen delako *Obekuri* ‘Obekoren hiria’ eta era horretako beste zenbait izenetan. Bertakoen azentuazioa *Obaldía* da, hau da, lau silabatan eta azentua azkenaurrekoan jarrita. Panamáñ bada izen hau gogora ekartzen digun *Puerto Obaldía* herria (edo *Ovaldía*, grafia honekin ere agertzen baita), dirudienez, XV. mendean leku horretan bizi omen

<sup>3</sup> 1997, 487, 138. or.

<sup>4</sup> 2002, *Zaraobe*, 83.



*Obaldia, Ungino eta Eskutxi*  
*Obaldia, Ungino y Eskutxi*

zen Juan Núñez de Ovaldiarekin erlazionatua. Era berean gogoratu behar dugu José Domingo de Obaldía Panamako Errepublikaren bigarren lehendakaria izan zela.

Se trata del nombre que aún hoy se aplica a la zona más centrica del núcleo concejil. Las casas que conforman este núcleo se ubican a lo largo de la carretera que desde la iglesia parroquial de San Clemente va subiendo en dirección a Etxabarri. La fiesta local se celebra el día del santo titular, 23 de noviembre. Se accede al barrio desde Izoria por la carretera A-3618, tomando un cruce a la izquierda antes de llegar a Salmantón (A-4615), tras haber dejado atrás los ramales que llevan a Maroño y a Agiñaga.

Al parecer este fue el primitivo nombre de la barriada, documentado desde el siglo IX hasta el XIX para citar a la iglesia parroquial de *San Clemente de Obaldia en el lugar de Madaria*. Documentamos *Dobaltia* (964), *Obaldia* (1095), *Ovalliam* (1119)..., y es a partir de 1199 cuando irrumpe el nombre *Madaria*, con el que ha de convivir durante siglos. Es probable que el cambio de denominación se deba a un desplazamiento de la población. Hoy también se conoce con el nombre *Obaldia* la casa situada en la posición más inferior del barrio. Igual que en el testimonio citado más arriba, en 1520 también hallamos citado a *Juan de Madaria, vecino de Obaldia*, lo que parece indicar que ambos nombres convivieron durante largo tiempo. En la actualidad el nombre designa al núcleo capital del concejo, que al parecer algunos también identifican simplemente con el genérico *La Iglesia*. La etimología es extremadamente oscura. Pudiera ser un compuesto vasco de *oma* presuntamente 'collado' y *aldea* 'próximo a', en cuyo caso significaría 'próximo al puerto', con confusión de bilabiales *-m-* > *-b-* y vocalismo final *-ea* > *-ia*, ambos fenómenos frecuentes en euskera. Sin embargo, Luis Mitxelena<sup>5</sup> manifiesta claramente que el significado 'collado' atribuido a *oma* tiene muy poca

<sup>5</sup> 1997, 487, pág. 138.

credibilidad. Además, el cambio *-ea > -ia* es en euskera posterior a las fechas de la documentación citada. Por su parte, Federico Barrenengoa (1990) plantea su resolución con un final en *alde* 'zona' y un *oba* 'pastizal' no constatado por el momento. La investigadora alemana Ingrid Horch (1992) plantea, además, dos nuevas soluciones para el mismo: una de *Ubaldea* (*ur + alde + a*), 'la zona acuosa' y, la otra, de un nombre de persona, *Ubaldu* o similar. Esta vía resolutive a través de los nombres de persona, fue también seguida por Mugurutzá<sup>6</sup>, aunque en dicha ocasión relacionándolo con la raíz \**Ob-* que parece figurar en otros nombres como *Obekuri*, 'la villa o aldea de Obeko'. La acentuación popular de este topónimo es *Obaldía*, es decir, articulada en cuatro sílabas y con el mayor peso del acento en la penúltima de ellas. En Panamá tenemos el recuerdo de este nombre en la localidad de *Puerto Obaldía* (u *Ovaldía*, grafía con la que también puede hallarse) que parece estar relacionada con Juan Núñez de Ovaldía, residente en dicho lugar en el siglo XV. Igualmente hay que recordar que José Domingo de Obaldía fue el segundo presidente de la República de Panamá.

<sup>6</sup> 2002, *Zaraobe*, 83.

## Maroño



1932



2000

Ibar txiki batean dago kontzeju hau, alde batetik Gorobel mendilerroa eta, bestetik, Ungila edo Eskorieta eta Bagatza edo Asnos mendiak dituena. Iparraldean Meñoio du, ekialdean Izoria, hegoaldean Urduñako Belandia kontzejua eta Agiñaga, eta mendebaldean Madaria eta Salmantón. Gaur egun ibarraren erdian urtegi bat dago eta kontzejuko auzo batzuk auzoburutik aparte samar gelditu dira. Becerro de Bengoak 1877an Ulizar eta Zuliaga (sic) etxaldeak aipatu zituen. Biztanleriaren eboluzioari dagokionez, kopurua mantendu egin dela esan daiteke. Izan ere, 1850ean 39 biztanle zituela zioen Madozek, 1970eko *Nomenclátor* delakoan 31 aipatzen dira eta 2000ko erroldan 40 biztanle zeuden.

*Maroño* toponimoaren forma, dirudienez, ez da historian zehar aldatu. Madozek halaxe aipatu zuen (1845-1850) eta Becerro de Bengoak (1877) ere bai. Etimoa ez da argia, baina latineko *marum*-ekin lotu izan da. Hitz horrek gaztelaniaz *maro* 'orbela' eman du. Sinesgarriagoa da, hala ere, toponimoaren atzean pertsona izenen bat egotea, hala nola agiri askotan ageri den *Baronius* izena<sup>1</sup>. Dena dela, Mugurutzak berak dio erromantzezko generikoren bat ere izan daitekeela, jatorri ezagunik gabekoa. Antzinako pertsona izenen baten aukera aztertua zuen lehenago María Lourdes Albertosek ere (1970) eta, bere iritziz, *Maro* izenaren eratorria da *Maroño*. Kontzeju honetako leku-izen guztiak euskarazkoa dira *La Plazuela* eta *La Rueda* izan ezik eta, hortaz, pentsatzekoa da azken bi hauek euskal izenen itzulpen berriak izan daitezkeela. Honi buruz, gogoan izan behar dugu *La Rueda* deitzen den errotaren azpian dagoen

<sup>1</sup> Mugurutza, 2002, *Zaraobe*, 86.

lekuari *Baikorrota* esaten zaiola eta, berez, *Bekoerrota* dela izen horren jatorria, hau da ‘beheko errota’.

Concejo que ocupa el pequeño vallejo situado entre la sierra Sálvada o Gorobel y los picos de Ungila o Eskorieta y Bagatza o de Asnos. Limita al norte con Menoio, al este con Izoria, al sur con el concejo orduñés de Belandia y con Agiñaga, y al oeste con Madaria y Salmantón. En la actualidad la zona central del valle está ocupada por un embalse que separa algunas de las barriadas del núcleo capitalidad del concejo. Becerro de Bengoa en 1877 le cita los caseríos de Ulizar y Zuliaga (sic). La evolución de la población parece bastante mantenida, pues hacia 1850 Madoz le asignaba 39 almas, el *Nomenclátor* de 1970 le da 31 y en el padrón del año 2000 tenía 40 habitantes.

El topónimo *Maroño*, citado ya en esta forma por Madoz (1845-1850) y por Becerro de Bengoa (1877), es de étimo incierto, si bien se ha relacionado con el latín *marum* que ha dado lugar al castellano *maro* ‘hojarasca inservible’ o, más probablemente, con algún nombre de persona, por ejemplo el bien documentado *Baronius*<sup>2</sup>. Sin embargo, el propio Mugurutza advierte de la posibilidad de que se trate de un antiguo genérico romance cuyo origen desconocemos. La línea resolutive de los antiguos nombres de persona, ya había sido explorada con anterioridad por María Lourdes Albertos (1970), que apuesta por un derivado del nombre *Maro*. Todos los topónimos de este concejo son eusquéricos excepto *La Plazuela* y *La Rueda*, lo que puede deberse a que sean traducciones modernas de los originales en euskera. Al respecto, hay que recordar que el topónimo conocido como *Baikorrota* y situado debajo del molino llamado *La Rueda* es en realidad *Bekoerrota*, esto es, ‘el molino de abajo’.



*Maroño gainean Etxaurren santutegia, Ungila edo Eskorieta eta Bagatza edo Asnos mendiak*  
Sobre Maroño el santuario de Etxaurren y los montes Ungila o Eskorieta y Bagatza o Asnos

<sup>2</sup> Mugurutza, 2002, *Zaraobe*, 86.

## Aranguren

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495069, Y.4765655, alt. 340 m.

Urtegiaren hego-ekialdean dago auzo txiki hau. Agiñagara doan A-4613 errepi-detik heltzen da etxeetara, Zubiaga auzoa igaro eta ezkerreko adar bat segiturik. Idas erreka zubi batetik zeharkatu eta, urtegian bildutako uren hegitik ehun bat metroz ezkerretara bira emanda erdietsiko dugu auzoa.

Auzo izena euskal toponimo konposatua da eta osagai bi ditu: *(h)aran* eta *guren*. Bigarren osagai honi esanahi bat baino gehiago eman zaio: ‘ederra, muga’ edo, agian, ‘gorena’ dira aipatuenak. Euskal Herria oso menditsua da eta, horrenbestez, toki askotan aurkituko dugu toponimo hau, Bizkaiko Zallan hasi eta Iruñetik gertu dagoen izen bereko ibar nahiz herriraino.

Pequeña barriada que se ubica en la orilla suroriental del embalse. Se accede a las casas partiendo de la carretera A-4613 que se dirige a Agiñaga, dejándola por un carril a la izquierda poco después de pasar el barrio Zubiaga. Cruzamos por un puente el arroyo Idas y giramos un centenar de metros a la izquierda sobre lo que ya son aguas embalsadas, para alcanzar el barrio.

La denominación de este barrio es un topónimo vasco compuesto de *(h)aran* ‘valle’ y *guren* ‘hermoso, límite’ o, quizá incluso, ‘superior’. En un país tan montañoso como Euskal Herria este topónimo se repite con mucha frecuencia, al menos desde Zalla en Bizkaia hasta el valle y localidad de dicho nombre junto a Pamplona.

## Arrotxaburu

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495071, Y.4766175, alt. 340 m.

Auzo txiki hau Idas eta Salmantón errekek elkartzen ziren tokiaren gaineko mui-noan zegoen, baina gaur egun Maroñoko urtegiaren ertzean gelditzen da, auzoburu-tik hego-mendebaldera eta ibarraren beste aldeko hegalean. Izoriatik Salmantonera doan A-3618 errepidetik erdiets daiteke auzoa, Agiñagara doan bidegurutzean bide hura utzi eta ezkerrean A-4613 adarra hartuz, kilometro eskas batean, bidearen ezker-aldean dauden Arrotxaburuko etxeetara heltzeko.

Auzoaren izenak gaztelaniaz hasierako bokala galdu du, gaur egungo ahozko hizkeran *Rocháburu* edo *Rochábru* erabiltzen baitute bertakoek, azken aldaeran azentua galdu duen bokala ere erorita. Euskaraz *arotxa* substantiboak ‘haitz’ esan nahi du eta *buru* hitzak ‘gainean’. Hortaz, auzoak haitz baten gainean zuen kokapenari egin lekiok erreferentzia, gaur egun haitz hori urpean gelditu bada ere. Iruñean *Arrotxapea* auzoa dugu, ‘haitzaren azpian’ esanahiduna, eta hiria eraikita dagoen haitzari erreferentzia egiten diona.

Pequeña barriada situada en una loma que dominaba la confluencia de los arroyos Idas y Salmantón, pero que actualmente queda a orillas del embalse de Maroño, al suroeste del núcleo capital del concejo en la ladera opuesta del valle. Se accede al barrio por la carretera

A-3618 que de Izoria lleva a Salmantón, dejándola en el cruce hacia Agiñaga, para tomar a la izquierda la A-4613 que en un kilómetro llega a las casas de Arrotxaburu, a la vera izquierda del carril asfaltado.

El nombre de esta barriada ha perdido en castellano la vocal inicial, siendo la forma oral en la actualidad *Rocháburu* o *Rochábru*, con caída también de la vocal que ha perdido el acento. El sustantivo *arrotxa* significa en euskera 'roca' y *buru* 'cabeza' o 'encima de'. Podría pues hacer referencia a su ubicación 'sobre una peña', que hoy queda bajo las aguas del embalse. En Pamplona tenemos el barrio *Arrotxa*, 'debajo de la roca' en referencia a la peña sobre la que está la ciudad.

## Oruro

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495274, Y.4766843, alt. 385 m.

La Plazuela auzotik oso gertu dagoen etxe multzoa da, hura bezala, kontzejuko parrokiatik hurbil. Ulzarrera doan aldaparen hasieran dagoen hondatutako oinetxeak ere Oruro du izena. Jatetxe ezagun bat ez ezik, eraiki berri dituzten txalet batzuk ere auzoa berpizten ari direla dirudi.

Gaur egun bertakoek *Ururu* esaten dute hizkera zabarrean. Bizkaiko Urduña hiri hurbilean ere bada izen bereko toponimo bat. Etimoa ez da gardena, baina lehen osagaia *oru* dela dirudi, euskara estandarreko *orube* hitzaren parekoa eta, agian, latinezko *forum* hitzarekin erlazioan legokeena<sup>3</sup>.

Se trata de un conjunto de casas junto al barrio denominado La Plazuela, muy próximo como este a la parroquia del concejo. Al comienzo de la cuesta que conduce a Ulizar, una hermosa casa solariega en ruinas también ostenta el nombre Oruro. Además de un conocido restaurante, algunos nuevos chalets parecen estar revitalizando el núcleo.

En la actualidad, la forma oral vulgar de este topónimo es *Ururu*. El nombre se repite en el cercano término municipal de la ciudad vizcaína de Urduña. El étimo no es diáfano, pero el primer término pudiera ser *oru*, que en euskera equivaldría al estándar *orube* 'solar', quizá en relación con el latín *forum*<sup>4</sup>.

## Plazuela, La

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del Concejo: ED50 30T X.495330, Y.4766751, alt. 370 m.

Kontzejuko auzoburua da eta hemen dago Done Petri Apostoluaren eliza nagusia. Parrokiatik gertu dago San Antonio Abadearen ermita ere, apur bat leku apalagoan. Herriko jaiak urtarrilaren 17an izaten dira, ermita honen santu titularraren egunean,

<sup>3</sup> Mitxelena, 1997, 504, 143. or.

<sup>4</sup> Mitxelena, 1997, 504, pág. 143.



hain zuzen. Auzora heltzeko Izoriatik Salmantonera doan A-3618 errepidetik joanda, urtegiko presa pasatu eta eskuinera desbideratu behar da A-4612 segitzeko.

Dirudienez, *La Plazuela* izena parrokiaren aurrean dagoen baserri bati ere ematen zaio, Menoiora doan bidearen eskuinean dagoena, hain zuzen ere. Gaztelaniaz esanahi argia du toponimoak, *plaza* izenaz eta *-uela* atzizki txikigarriaz osatua, euskaraz ‘plazatxo’ edo ‘enparantzatxo’ren ordaina dena.

Se trata de la barriada capitalidad del concejo, donde se ubica la iglesia parroquial de San Pedro Apóstol. Próxima a la parroquia, en situación algo más baja, se halla también la ermita de San Antonio Abad. La fiesta local se celebra el día 17 de enero, en honor al titular de esta ermita. Se accede al barrio por la carretera A-3618 que viene de Izoria con dirección a Salmantón, desviándose a la derecha por la A-4612 poco después de sobrepasar la presa del embalse.

El nombre *La Plazuela* también parece asignarse a un caserío concreto que se halla frente a la iglesia a la derecha del camino que se dirige a Menoio. Su significado es diáfano en castellano, con sufijo diminutivo *-uela* añadido al sustantivo común *plaza*.

## Rueda, La

Antzinako errota / Antiguo molino: ED50 30T X.495250, Y.4766200, alt. 300 m.

Idas eta Salmantón errekek elkartzen ziren tokiaren ondoan omen zegoen errota hau, baina gaur egun erreka bi haiek elikatzen duten Maroñoko urtegia egin zenean, urpean geratu zen.

Izenak aipatutako errotari egiten dio erreferentzia. Izan ere, gaztelaniazko *rueda* substantiboak ‘errota’ esan nahi baitu kasu honetan. Hala gaztelaniazko *rueda*, nola euskarazko *errota* hitzak latineko *rotam* hitzetik datoz eta gaztelaniaz adiera bat baino gehiago har dezakeen arren, euskaraz bakarra du.

Parece referirse a un antiguo molino que se hallaba cerca de la confluencia de los arroyos Idas y Salmantón, que alimentan actualmente el pantano de Maroño. Tras la construcción de este, su ubicación ha quedado bajo el nivel de las aguas.

El nombre hace referencia al citado molino. El sustantivo castellano *rueda*, en euskera ‘errota’, tiene aquí el significado de ‘molino’, única acepción que ha adoptado su correspondiente eusquérico, a pesar de proceder del mismo origen latino *rotam*. Hace referencia a la muela o rueda que gira en estos mecanismos.

## Ulizar

Auzo / Barrio: ED50 30T X.495286, Y.4767175, alt. 415 m.

Auzo hau gune nagusitik Ungila edo Eskorieta mendirantz igotzen den bizkar batean dago. Plazuelatik hel daiteke Ulizarrera, Oruro baserri deigarriaren ondotik pasatuz.



*Ulizar auzo txikia*  
Pequeña barriada de Ulizar

Izen honen osagai argiak *uri* eta *za(ha)r* dira, esanahi gardenekoak, eta badirudi kontzejuko auzorik zaharrena izanik, horri egiten diola izenak erreferentzia, ‘hiri zaharra’ esan nahi baitu. Izan ere, 1652an eskualdeko jabego batzuegatiko auzian, Agiñagako *Ortiz de Ulizar* herritarra aipatzen baita. 1662an ere, kaparetasun-txosten bat egin zen Maroñoko *Juana de Ulizar García de Madaria López de Ibarra Ortiz de Iturricha* andrearen alde. Euskal toponimian ezaguna da *r-l* kontsonante likidoen nahastea. Grafia arautua erabakitzean *-r-* grafiaren alde egin ohi bada ere, egungo ahozko erabilera eta, batez ere, *-l-* duten lekukotzak antzinakoak direla kontuan hartuta, egokia goa dirudi azken idazkera hau errespetatzea.

Compacta barriada ubicada en una loma que desde el núcleo capital del concejo trepa en dirección al pico Ungila o Eskorieta. Se accede a ella desde La Plazuela, pasando junto al llamativo caserío Oruro.

El nombre de esta barriada procede con cierta evidencia del sustantivo eusquérico *uri* ‘villa’ y *za(ha)r* ‘vieja’, y al parecer hace referencia al hecho de ser el barrio más antiguo del concejo. En 1652 documentamos como demandado en un pleito por unas posesiones en la zona, el nombre *Ortiz de Ulizar* vecino de Agiñaga. En 1662 hay también un expediente de Hidalguía a favor de *Juana de Ulizar García de Madaria López de Ibarra Ortiz de Iturricha*, natural de Maroño. La confusión de consonantes líquidas *r-l* es fenómeno conocido en la toponimia vasca. Aunque lo habitual es priorizar la normalización de la *-r-*, en atención al uso oral actual y, sobre todo, a la antigüedad de los testimonios con *-l-*, parece más adecuado dejarlo en esta última forma.

## Zubiaga

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495067, Y.4765679, 340 m.

Izoriatik etorrita, ezkerrera desbideratu eta Agiñagara doan A-4613 errepidearen ezker aldean dago, Maroñoko urtegiaren mendebaldeko hegia ibilita. Bidegurutzetik pare bat kilometrora daude Zubiagako etxeak, Arrotxaburu auzoa atzean utzita. Auzo garrantzitsua izan zen nonbait, zenbait mendetan inguruko herrien maila bera ematen baitzaio agiritan.

Becerro de Bengoak (1877) *Zuliaga* izendatzen du, baina segur aski akatsa izango da. Izenaren etimoa argia da, osagai ezagun bi ditu eta: euskarazko *zubi* substantibo ezaguna eta *-aga* leku-atzizkia. Alegia, ‘zubia dagoen tokia’ esan nahi du. Badaiteke izenak Aranguren auzora joateko handik hurbil dagoen zubiari erreferentzia egitea, nahiz eta urtegiak paisaiaren itxura nabarmen aldatu duen. Erretesen ere bada *Zubiaga* izeneko auzo bat, gaur egun *El Puente* deitua.

Barriada que se sitúa al lado izquierdo de la carretera A-4613 que viniendo de Izoria y desviándose a la izquierda, se dirige a Agiñaga recorriendo la ribera occidental del embalse de Maroño. En un par de kilómetros tras el cruce, se agrupan las casas de Zubiaga, después de haber dejado atrás el barrio de Arrotxaburu. Zubiaga debió de ser barrio de cierta importancia, ya que durante siglos es citado en la documentación con una categoría similar a la de los pueblos que le rodean.

Becerro de Bengoa (1877) lo denomina, quizá por errata, *Zuliaga*. El étimo del nombre es claro: se trata de un compuesto eusquérico de *zubi* ‘puente’ y el sufijo locativo *-aga*. Significa por lo tanto ‘lugar del puente’. Es posible que el nombre haga referencia al puente que

en sus proximidades cruza el arroyo Idas para alcanzar en la ladera opuesta el barrio Aranguren, si bien el embalse ha cambiado mucho el aspecto del paisaje. También existe un barrio de nombre *Zubiaga*, llamado hoy *El Puente*, en Erretes.



*Maroñoko urtegia*  
Embalse de Maroño

## Menagarai



1932



2000

Aiarako kontzejurik zentralena da hau. Iparraldean Bizkaiko Gordexola du, ekialdean Zuhatza, hegoaldean Beotegi eta mendebaldean Erretes eta Lanteno. Kontzejuko auzo historikoak honako hauek dira: Jauregi, Itza, Aretxa, Aretxabala, Iturribarria, Mendieta eta Arana. Madozen *Diccionario ezagunean* (1845-1850) Mendieta auzoa ez ezik, etxalde hauek ere aipatzen dira: Iza el monte, Méndico (sic), Janduri (sic), Los Riberos, Chirigoa, Arechavala eta Jauregui. Becerro de Bengoak 1877an honako etxalde hauek aipatu zituen: Arana, Arechavala, Chirigoba, Iturribarria, Iza, Jáuregui eta Palacio. Menagarai esan izan zaio kontzejuko auzoburuari ere, auzo hori baita biztanle gehien duena, baina berez zehazkiago Mendieta du izena. Madozen esanetan, XIX. mendearen erdi aldera kontzejuak 146 biztanle zituen. 1950ean 220 ziren, 1970ean 210 eta 2000ko erroldaren arabera 147. Ikusten denez, jendeak pixkanaka alde egin du auzotik, zerbitzu eta komunikabide hobeak dituen gune hurbilen bila.

Toponimoaren lehenengo erreferentzia 1114ko agiri batean aipatzen den *Senior Sancio Ennecoz de Menagari* (sic) izenean daukagu, gaur egun ‘Antso jauna, Enekoren semea, Menagarai herrikoa’ esan nahiko lukeena. Toponimoaren esanahiari dagokionez, teoriarik onartuenaren arabera, osagai bi edukiko lituzke: batetik *Mena*, hemendik gertu dagoen Burgosko haran baten izena eta, bestetik, *garai* adjektiboa. ‘Mena goikoa’ litzateke, beraz. Mitxelena<sup>1</sup>, *me(n)a* ‘minerala’ hitzaren eratorria dela dio. Murgutzak<sup>2</sup> iradoki du jatorrian izen orokor ezezagunen bat egon daitekeela, edo antro-

<sup>1</sup> 1997, 437, pág. 127.

<sup>2</sup> 2002, *Zaraobe*, 84.

ponimoren bat agian, eta etimologikoki lotuta dagoela Aiarako *Menardo*, *Menerdiga* edo *Menoio* izenekin, baita Aiaratik kanpoko beste batzuekin ere, hala nola *Meana*, *Menario* etab. Martín Gil lizentziatuak 1551n egindako bisita pastoralaren kronikan<sup>3</sup>, *Menegarai* aldaera aurkitzen da, toponimo bezala dokumentazioan errepikatuko dena, baina deitura gisara XIX. mendetik aurrera bakarrik aurkitzen duguna, eta oso gutxitan. Nolanahi ere, aldaera horrek beste etimologiaren bat iradoki lezake izenerako. Gainerakoan, ez dirudi oso zentzuzkoa –1975ean Oliver Asinek idatzi zuen legez– *Mena'a* bereber (jatorria Argelian duen giza-talde baten izena) eta euskal *garai* osagaien hibridoa dela defenditzeak. Gaztelaniaz izen hau -y amaieraz idatzi da, hitz amaierako beheranzko diptongoak hizkuntza horretan hala emateko arau konbentzionala dagoelako. Arau hori jatorri erromantzea ez duten toponimoei aplikatzeak, ordea, berezkoak ez diren idazkera gaztelaniartzailak sortzea ekarriko luke, eta halakoen normalizazioa, oro har, saihestu behar da. Horregatik, eta toponimoak idazteko nazioartean indarrean dauden gomendioei jarraituz, izen bakoitzaren jatorrizko hizkuntzaren arau akademikoetara egokitutako formari emango diogu lehentasuna, kasu honetan, beraz, euskaraz idatziz.

Se trata del concejo más céntrico del valle, que limita al norte con Gordexola en Bizkaia, al este con Zuhatza, al sur con Beotegi y al oeste con Erretes y Lanteno. Los barrios históricos del concejo son Jauregi, Itza, Aretxa, Aretxabala, Iturribarria, Mendieta y Arana. En el *Diccionario* de Madoz (1845-1850), además del barrio Mendieta se citan los caseríos de Iza el monte, Méndico (sic), Janduri (sic), Los Riberos, Chirigoa, Arechavala y Jauregui. Becerro de Bengoa en 1877 cita los caseríos de Arana, Arechavala, Chirigoba, Iturribarria, Iza, Jáuregui y Palacio. El nombre Menagarai a menudo se usa también en referencia al barrio más poblado que conforma la capitalidad del concejo, y que más precisamente se conoce como barrio Mendieta. Según Madoz, a mediados del siglo XIX el concejo contaba con 146 almas. En 1950 había 220 habitantes, que en 1970 habían descendido a 210. Según el padrón del año 2000 en Menagarai se hallaban censados 147 habitantes, lo que muestra cierto despoblamiento en favor de núcleos cercanos mejor servidos y comunicados.

Documentamos el topónimo por primera vez en 1114, en el nombre *Senior Sancio Ennecoz de Menagari* (sic), lo que hoy equivaldría a 'señor Sancho, hijo de Eneko, del pueblo de Menagarai'. La solución más comúnmente aceptada para interpretar este topónimo ha sido la de descomponerlo en el nombre *Mena*, vecino valle burgalés, y el eusquérico *garai* 'alto', viniendo en dicho caso a significar 'Mena de arriba'. Sin embargo, Mitxelena<sup>4</sup> lo hace derivar de *me(n)a*, 'mineral, mina, vena'. Mugurutz<sup>5</sup> sugiere incluso la interrelación etimológica de este nombre con *Menardo*, *Menerdiga* o *Menoio*, todos en Ayala (Aiara), y con otros como *Meana*, *Menario*, etc., siempre pensando en un nombre genérico desconocido o, preferentemente, un antropónimo. En la crónica de la visita pastoral realizada por el licenciado Martín Gil en 1551<sup>6</sup> se encuentra la forma *Menegarai*, recurrente como topónimo en la documentación, pero que

<sup>3</sup> Díaz Bodegas, 1998. Roberto González de Viñasprek jakinarazitako datua.

<sup>4</sup> 1997, 437, pág. 127.

<sup>5</sup> 2002, *Zaraobe*, 84.

<sup>6</sup> Díaz Bodegas, 1998. Dato facilitado por Roberto González de Viñaspre.

como apellido sólo hallamos, y en contadas ocasiones, a partir del siglo XIX. De cualquier modo, esta variante podría sugerir alguna otra etimología para el nombre. Por lo demás, carece de sentido pretender –como escribió en 1975 Oliver Asín– que se trate de un híbrido bereber y vasco, compuesto de *Mena'a* (nombre de un grupo originario de la actual Argelia) y *garai*. La terminación en *-y* presente en la versión castellanizante del nombre, obedece a una norma convencional de la lengua castellana por la que se escriben así, acabados en *-y*, todos los diptongos descendentes en final de palabra. Sin embargo, aplicar esa norma a topónimos que no son de origen romance, significa acuñar grafías castellanizantes impropias, cuya normalización debe, en general, evitarse. Por tanto, y siguiendo las recomendaciones internacionales generales existentes para la escritura de la toponimia, daremos preferencia a aquella forma adecuada a las normas académicas propias de su lengua de origen, en este caso, el euskera.

## Arana

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493454, Y.4772503, alt. 270 m.

Kontzejuko auzoburuaren ipar-mendebaldean dagoen etxe multzo txiki bat da, Menagaraitik Lantenora jaisten den A-624 errepidearen eskuinean. Auzo honetara heltzeko errepide honetatik joan daiteke, 51. puntu kilometrikora heldu baino lehen irteten den bide adar bat hartuta. Baina auzoburutik ere joan daiteke, Iturribarria auzoa igaro eta haraino heltzen den herri errepide batetik. Kartografia batzuetan Arana toponimoa erabiltzen dute Billarkudi auzoa izendatzeko, baina Billarkudi iparralde-rago dago, Los Bolos edo Juegabolos muino apaletik gertu dagoen mendi-lepo batean. Kontrara, Arana izeneko baserria iruzkintzen ari garen eremuan dago.

Toponimo hau ohiko izena da eta esanahi argia du euskaraz, *haran* substantiboa eta *-a* artikuluz osatua. Zeharo gardena eta, toponimo nahiz abizen bezala hain maiztasun handikoa izan arren, gure artean ohikoak diren etimologia fantasiatsuetarik zenbaitetan euskarazko *haran* ‘ibar’ eta *aran* ‘okaran’ nahastu egin dira eta bigarren esanahiari atxiki nahi izan zaio.

Es un pequeño grupo de casas ubicadas al noroeste del núcleo capitalidad del concejo, en una ladera a la derecha de la carretera A-624 que de Menagarai desciende ya hacia Lanteno. Se puede acceder al barrio desde esta carretera, por un ramal que se desprende poco antes del punto kilométrico 51, o desde la misma capitalidad por carretera local que llega a Arana tras cruzar el barrio Iturribarria. Algunas cartografías asignan erróneamente el nombre Arana a la barriada llamada Billarkudi, algo más al norte en un pequeño collado cercano al modesto alto de Los Bolos o Juegabolos. Por el contrario, el caserío de nombre Arana se halla emplazado en la zona que describimos.

Este nombre es un topónimo muy frecuente de significado claro en euskera, pues *(h)aran* ‘valle’, con el artículo *(h)arana*, significa hoy incluso en euskera estándar ‘el valle’. A pesar de su diafanidad y su extraordinaria frecuencia como topónimo y como apellido, en alguna de las habituales etimologías fantásticas tan comunes en el país, se ha pretendido traducir como ‘ciruela’, confundiendo los vocablos comunes eusquéricos *haran* ‘valle’ y *aran* ‘ciruela’.



*Menagaraiko ikuspegia: Arana, Iturribarria, Aretxabajo, Aretxa, San Pedro eta Mendieta*  
*Vista de Menagaraí: Arana, Iturribarria, Aretxabajo, Aretxa, San Pedro y Mendieta*

## Aretxa

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494065, Y.4772131, alt. 330 m.

Auzoburuaren iparraldean dagoen etxe multzo sakabanatua da, gunetik kilometro erdira. Kanpirio muino xumearen hegoaldeko magalean dago, auzo nagusira begira. Auzoko lehenengo etxea Ibarra izeneko jauregi ederra da.

*Arespalditzaz* aritu garenean sakon samar aztertu den legez, *aretx* hitza mendebaldeko euskaran erabiltzen da, estandarreko *haritz* (*Quercus robur*) ohikoaren ordain. Dena dela, zentzu zabalagoa ere izan dezake eta 'zuhaitz' hitzaren pareko gertatu. Gure toponimoaren amaieran artikulua daramala dirudi<sup>7</sup>. Baliteke, ordea, amaierako *-a* hori galdutako *-aga* leku-atzizkiaren aztarna izatea, baina horren frogarik ez dugu aurkitu. Hala balitz ere, esanahiari dagokionez ez litzateke alde handirik egongo.

Grupo disperso de casas situadas al norte del núcleo capitalidad del concejo, a medio kilómetro escaso del mismo. Se ubica en la ladera meridional de la pequeña colina de Kanpirio mirando al cercano barrio principal. La primera casa del barrio es el hermoso palacio de Ibarra.

*Aretx* es palabra propia del euskera occidental –Bizkaia, Álava y oeste de Gipuzkoa– equivalente al estándar *haritz* y que significa 'roble' (*Quercus robur*) tal y como ya se vio con

<sup>7</sup> Ikus Izoriako kontzejuko *Aretxa* ere.

más profundidad al hablar del nombre *Arespalditza*. En un sentido más amplio también puede significar 'árbol'. En nuestro topónimo la palabra va seguida del artículo *-a*, luego debe traducirse como 'el roble' o 'el árbol'<sup>8</sup>. También pudiera ser que el final *-a* fuese una reducción de un antiguo sufijo locativo *-aga* pero no tenemos pruebas de ello. Aun así, no variaría sensiblemente el significado del nombre.



*Aretxabala auzoko etxe ederra*  
Hermosa casa en la barriada de Aretxabala

## Aretxabala

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494145, Y.4772858, alt. 315 m.

Garai batean lau etxe zeudela gogoratzen den arren, gaur egun hiru baino ez dira auzoan ikusten direnak. Horietako baten ataria deigarria da, arku eder biz hornitua baitago. Etxeak Menagaraiko auzo nagusitik aparte samar dagoen Itza auzora doan herri errepidearen ondoan daude. Los Linares izeneko etxea ere Aretxabalekoa da.

*Mapa Topográfico Nacional*<sup>9</sup> nahiz beste kartografia batzuetan gaizki transkribatutako *Aretxabela* irakur daiteke. Toponimoa euskarazko konposatua da eta osagai bi ditu. Lehenengoa *aretx* da, euskara estandarreko *haritz* (*Quercus robur*) hitzaren men-

<sup>8</sup> Véase también *Aretxa* en el concejo de Izoria.

<sup>9</sup> 1997, 86-I.



debaldeko euskarari –Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako mendebaldea– dagokion aldea-ra, esanahi zabalean ‘zuhaitz’ ere esan nahi duena. Bigarrena *zabal* ‘zelaia, ordokia’ nahiz ‘handia, eskerga’. Esanahiari dagokionez, beraz, adiera bi eman daitezke: ‘Aretxa aldeko ordokia’ edo ‘haritz (nahiz zuhaitz) zabala’. Ikus halaber Izoriako kontzejuko *Aretxabala* auzoan esandakoa.

Aunque se le recuerdan hasta cuatro casas, la barriada está compuesta actualmente solo por tres de ellas. Llama la atención una de las edificaciones cuya puerta consta de dos hermosos arcos. Se ubican a lo largo de la pequeña carretera local que une el núcleo capital de Menagarai con la apartada barriada de Itza, y que se aleja de aquel hacia el norte, siguiendo aproximadamente la loma que separa las vertientes de Zuhatza al este y de Inorritza al oeste. Forma parte de Aretxabala la casa denominada Los Linares.

Algunas cartografías como el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>10</sup>, transcriben el nombre erróneamente *Aretxabela*. El topónimo es un compuesto eusquérico de *aretx*, que en euskera occidental –Bizkaia, Álava y oeste de Gipuzkoa– equivale al estándar *haritz* significando ‘roble’ (*Quercus robur*) o, en sentido más amplio, ‘árbol’, y *zabal* ‘llano’ o ‘ancho, extenso’. Por tanto, el nombre puede tener dos interpretaciones: ‘el llano de Aretxa’ o ‘el roble (o árbol) ancho’. Véase también lo dicho para el barrio *Aretxabala* en el concejo de Izoria.

## Aretxabajo

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493820, Y.4772156, alt. 295 m.

Aretxa auzoaren azpian dagoen etxe talde txikia da, kontzejuren auzoburutik Iturribarrira ipar-ekialderantz doan errepidearen ezkerreko hegian.

Dokumentazioan ez dugu izen honetan euskarazko aldaera sustatzeko daturik aurkitu, baina toponimoak daraman *-abajo* hori euskaraz emateko *-barrena*, *-bekoa* edo *-beitia* erabili ohi dira eta Aiaran nahiz haren inguruan hirugarrena izan da erabiliena. Horretan oinarrituta, beharbada *\*Aretxabetxi* izango zatekeen euskaraz erabilitakoa, eskualdean *-beitia* hori *-betxi* ahoskatu ohi baita. Esan beharra dago, gainera, parrokiatik gertuago eta *Aretxa* auzoaren azpiko magala izendatzeko *Soaretxa* toponimo hibridoa dokumentatzen dela, esanahi bera lukeena, ‘Aretxaren azpian’, latinezko *sub-* aurrizkitik datorren gaztelaniazko *so-* preposizio zaharkitua duela.

Se trata de un pequeño grupo de casas situadas bajo el barrio denominado Aretxa, a la vera izquierda del carril que de la capitalidad del concejo conduce al barrio Iturribarría en dirección noroeste.

No conocemos documentación que avalase una forma eusquérica para esta denominación, pero ese ‘abajo’ suele corresponderse comúnmente con el euskera *-barrena*, *-bekoa* o *-beitia*. En la zona de Ayala (Aiará) y sus límites, la más frecuente de las soluciones parece ser la tercera, a menudo en pronunciación local *-betxi*, por lo que probablemente la forma

<sup>10</sup> 1997, 861.

utilizada en euskera fuese \**Aretxabetxi*. Cabe añadir que más próximo a la iglesia parroquial e inmediatamente debajo del barrio *Aretxa*, se documenta también el topónimo híbrido *Soaretxa* para designar la ladera, con idéntico significado, ‘debajo de Aretxa’, y que consta de la preposición arcaica castellana *so-*, derivada del latín *sub-*.

## Billarkudi

Etxea / Casa: ED50 30T X.493635, Y.4772925, alt. 295 m.

Auzoburutik ipar-mendebaldera aparte samar dagoen baserria da. Los Bolos edo Juegabolos mendiaren azpiko mendi-lepo xume batean dago, Menagaraitik iparraldera doan adarrean. Menagaraitik joan daiteke herri errepide batetik, Aretxa auzoan zehar eta, oinez joan nahi izanez gero, Iturribarria eta Araneko bide zaharretik ere bai. *Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>11</sup> leku honi Arana izena ematen dio, gaizki kokatutako errotuloa izanik, izen horretako tokia hegoalderago baitago.

Bertakoek ahoz *Biguri* esaten duten arren, jabeak esan digunez *Biguri* bere abizena da eta ez toponimoaren aldaera bat. Higiezin jabetza agiritan *Billárcudi* forma ageri da, baina *Billarcuri* eta *Billacurdi* formak ere dokumentatzen ditugu. Nolanahi ere, herritarren ahoskeran hitz esdrújuloa da. Badirudi toponimoaren azken zatia *-uri* dela, oro har ‘biztanledun lekua’ adierazten duen *hiri* estandarren parekoa. Horren aurretik, *agian*, *-ko* atzizki genitiboa egon liteke, ondoko *-u*-rekin elkartzean bere amaierako *-o* galduko zuena. Bestalde, *billar* erromantzezko *villa* hitzetik etorriko litzateke *agian*, eta hala balitz toponimo hibridoia eta errepikakorra genuke *-villar-ko-uri* ‘hiriko hiria’-. Baina hori guztia hipotesi hutsa da eta hala ote den egiaztatzeko, dokumentazioa aztertzea beste biderik ez dago.

Se trata de un caserío algo alejado del núcleo capital hacia el noroeste. Se ubica en un modesto collado al pie del alto de Los Bolos o Juegabolos, en el cordal que de Menagarai se dirige hacia el norte. El acceso es posible por carril local desde Menagarai pasando por Aretxa, mientras el viejo camino de Iturribarria y Arana solo es útil para caminantes. El *Mapa Topográfico Nacional*<sup>12</sup> asigna a este lugar por error de localización el nombre Arana, que en realidad debiera figurar más al sur.

Aunque oralmente suele denominarse *Biguri*, según información facilitada por el propietario, *Biguri* es simplemente su apellido, que tiene cierto parecido casual con el nombre de la casa. Las escrituras del inmueble documentan la forma *Billárcudi*, aunque también documentamos las formas *Billarcuri* y *Billacurdi*. En cualquier caso, la pronunciación local es efectivamente esdrújula. El topónimo parece contener al final el término eusquérico occidental *-uri*, equivalente al estandar *hiri*, que significa ‘villa’ o ‘lugar habitado’, quizá precedido del sufijo genitivo *-ko*, que ha perdido la vocal final al contacto con la *-u* subsiguiente. Por su parte *billar*, pudie-

<sup>11</sup> 1997, 86-I.

<sup>12</sup> 1997, 86-I.

ra ser un derivado romance de *villa*, lo que daría un topónimo híbrido y un tanto redundante –*villar-ko-uri* ‘villa del villar’–, siendo todo ello simple hipótesis que habría que verificar con el estudio de la documentación.

## Calzada, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494434, Y.4771565, alt. 305 m.

Etxe multzo xume bat da, gehienak berriak eta auzoburutik 300 bat metrotara kokatuak, A-624 errepidearen alde bietan. Las Encinas gainera doan errepide lokaletik heltzen da auzora.

Hemendik gertu *kaltzada* edo ‘errege bide’ bat dago eta horri zor dio auzoak izena. Euskaraz substantibo honen forma estandarra *galtzada* den arren, bizkaiera edo mendebaldeko euskalkiaz *kaltzada* erabiltzen da maizago eta Aiaran ere halaxe aurkitzen dugu *Kaltzadako* (Saratxo) edo *Kaltzarabe* (Izoria) bezalako toponimoetan, azken hau *Kaltzadabe* eratik eratorria. Gaztelaniazko *calzada* eta euskarazko era hain antz handikoak izanik, batetik besterako urratsa automatikoki ematen da bai Aiaran eta bai Euskal Herriko beste leku askotan. Ondorioz, bertakoek *Kaltzada* edo *Kaltzaa* erabiltzeko zuten arren, forma ofiziala gaztelaniazko *Calzada* izan da beti. Euskarazko eraren erabilera, beraz, guztiz zilegi izan liteke.

Se trata de un pequeño grupo de casas, en su mayoría nuevas, a unos 300 m del núcleo central del concejo, a ambos lados de la carretera A-624 en dirección a Arespalditza, accediéndose a ellas por un carril local que se dirige al cercano alto de Las Encinas.

El barrio toma su nombre de la *calzada* o *camino real* que pasa cerca del lugar. Aunque la forma estándar de este sustantivo en euskera es *galtzada*, en el dialecto occidental o vizcaíno se utiliza más normalmente *kaltzada*, tal y como observamos en topónimos como *Kaltzadako* (Saratxo) o *Kaltzarabe* (Izoria), sin duda este último a partir de *Kaltzadabe*. Por la similitud con el castellano *calzada*, el cambio de una a otra es automático, tanto en Ayala (Aiar) como en otras zonas del país, donde aunque la forma en uso fuera *Kaltzada*, o incluso *Kaltzaa*, la forma oficial ha sido siempre la castellana *Calzada*. El uso de la forma eusquérica, por tanto, sería perfectamente aceptable.

## Ibaizabal

Etxea / Casa: ED50 30T X.492525, Y.4772650, alt. 190 m.

Auzo hau A-624 eta A-3630 errepideen bidegurutzean dago. Lehenengoa Menegaraitik Lantenora doa eta bestea Erretesera, Lexartzura etab. Auzo honetan Ope-llora, Lanteno eta Menagaraiko jurisdikzioak elkartzen dira, eta Erretesko muga ere oso gertu dago. Etxe bakarra da Menagaraikoa, eta auzoburutik etorrita errepidearen eskuinean aurkituko dugu, Ibaizabal ibai zeharkatu baino lehen. Gainerako guztiak

Opellorakoak nahiz Lantenokoak dira eta horregatik aipatzen dugu Ibaizabal auzoa kontzeju horietan ere.

Izenari eta ahoskerari buruz, ikus Opellorako kontzejuan hartaz esandakoa.

Este barrio se ubica en torno al cruce de la carretera A-624 que procede de Menagarai y se dirige a Lanteno, con la A-3630 que se dirige a Erretes, Lexartzu, etc. En este barrio se juntan las jurisdicciones de Costera (Opellora), Lanteno y Menagarai, quedando próxima además la muga de Erretes. La única casa del barrio que pertenece a Menagarai es la que viniendo de la capitalidad del concejo, hallamos a la derecha de la carretera justo antes de cruzar el río Ibaizabal y alcanzar el citado cruce de carreteras. El resto de las casas son de Costera (Opellora) y de Lanteno, por lo que también se cita el barrio en estos concejos.

Acerca del nombre y su pronunciación, véase lo dicho en torno a él en el concejo de Costera (Opellora).

## Iturribarria

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493623, Y.4772326, alt. 290 m.

Auzo xume hau gune nagusitik gertu dago eta Lantenora doan A-624 errepidearen bide paralelo hurbil batetik ipar-mendebalderantz hel daiteke handik abiatuta. Aretxabajoko etxeak igaro eta kilometro eskas batera erdietsiko dugu auzoa eta deigarria egingo zaigu MacCrohon jauregi ederra.

Izenak euskarazko jatorri gardena du, haren osagaiak *iturri* izena, *barri* izenondoa eta *-a* artikulua izanik. Toponimo zein abizena da eta kasu bietan *Tolibarría* ahoskatzen da bertakoen hizkera laxoan. Antzeko aldaketa bitxia dugu *Iturrigorri* mendiaren izenean ere, jatorrizko era osoa ondo dokumentatu arren, erabilera erlaxatuan *Tologórrri* esan ohi dena. Gorobel mendilerroaren goiko eremuetan dago mendi hau, Aiara eta Urduña udalerrietako mugan.

Pequeño barrio próximo a la capitalidad del concejo, al que se accede desde esta en dirección noroeste, por un carril que corre paralelo a la cercana carretera A-624 que lleva a Lanteno. Tras dejar atrás las casas de Aretxabajo, en poco menos de un kilómetro alcanzamos esta barriada, donde llama la atención el palacio de MacCrohon.

El nombre muestra un diáfano origen eusquérico, siendo un compuesto de *iturri* 'fuente', *barri* 'nueva' más el artículo *-a*, 'la fuente nueva'. Esta palabra, tanto siendo topónimo como a modo de apellido, se pronuncia en el uso oral relajado local *Tolibarría*, curiosa modificación también presente en el nombre del cercano pico *Iturrigorri* que, aunque se documenta profusamente en su forma original, se pronuncia más relajadamente *Tologórrri*. Esta cima se halla en lo alto de la Sálvada (Gorobel), en el límite entre los municipios de Ayala (Aiara) y Orduña (Urduña).



*Itza auzoko etxea eta Zaballa mendia*  
Casería del barrio Itza y monte Zaballa

## Itza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494101, Y.4774065, alt. 310 m.

Pare bat etxe dira eta auzoburutik nahiko urrun daude, iparraldean, Garondo mendiaren hegoaldeko magalean dagoen irtengune batean kokatuak, mendebaldera Inorritza auzora jaisten hasi baino lehen. Itzara joateko Menagaraitik abia daiteke Aretxabala auzoa zeharkatuta heltzeko. Inorritzatik ere joan daiteke, ordea, La Blanca (Andra Maria Zuria) izeneko santutegiaren ondotik pasatuta, bide kaskar samarra badago ere. Itzako etxe hauen ondoan San Nikolas ermita dago, Antonio de Etxabarriren aginduz, aurretik egondako beste baten ordeztan 1763an eraikia. Jai xume bat ospatzen da ermitaren ondoan santuaren egunean, abenduaren 6an.

Ohikoena erromantzezko *Iza* bada ere, gaur egun bertakoek *Izar* ahoskatzen dute, baina amaierako *-r* horren eransketa fenomeno berri samarra dirudi, udaletxe zaharreko bilera aretoan dagoen 1930eko mapan, oraindik ere *Iza* agertzen baita. Era berean Barrenengoak *Iza* dakar<sup>13</sup>, 1678an auzoaren izena halaxe agertzen zela gainerturik. Euskarazko toponimoa eta abizena da berez, maiztasun handikoa. Osagai bi ditu: *ihi* substantiboa eta *-tza* ugaritasun atzizkia. Beraz, ‘ihitokia’ esan nahi du.

Se trata de un par de casas bastante alejadas del núcleo capital hacia el norte, ubicadas en un pequeño resalte de la ladera meridional del pico Garondo, antes de comenzar el descenso hacia el oeste al barrio de Inorritza. Se accede a Itza desde Menagarai a través del barrio Aretxabala, o por un carril bastante deteriorado desde Inorritza, pasando por el santua-

<sup>13</sup> 1990, II. liburukia, 244. or.

rio de La Blanca (Andra Mari Zuria). Junto a las casas de Itza se encuentra la bien conservada ermita de San Nicolás, mandada construir por don Antonio de Etxabarri en 1763, en sustitución de otra anterior. Se celebra una modesta fiesta local el día del santo, 6 de diciembre.

Aunque lo habitual en romance es *Iza*, actualmente la pronunciación local es *Izar*, si bien la adición de la *-r* final parece fenómeno reciente, ya que en el mapa de 1930 que preside el salón de plenos de la antigua casa consistorial, aún figura como *Iza*. Igualmente, *Iza* recoge Barrenengoa<sup>14</sup>, indicando además que así figuraba ya la denominación del barrio en 1678. Es un topónimo y apellido frecuente en el país, compuesto del nombre *ih* 'junco' y el abundancial *-za*, significando, por tanto, 'junquera' o 'juncal'.



*Jauregiko etxe zahar bateko detaile heraldikoa*  
Detalle heráldico en una vieja casa de Jauregi

## Jauregi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495113, Y.4772500, alt. 315 m.

Auzo hau Menagaraiko gune nagusitik ipar-ekialdera urrun samar dago, Zuhatza kontzeju hurbilera pasatzeko mendi-lepo txiki baten gainean. Menagaraitik datorren errepidea erabiliz joan daiteke auzora eliza nagusiaren ondotik igarota edo, bestela, ekialdeko maldan gora Zuhatzatik datorren bide beretik ere. Auzo honetan egon zen Jauregiko San Jose ermita, izenik eman gabe Madozek (1845-1850) aipatua.

<sup>14</sup> 1990, Tomo II, pág. 244.

Auzoa identifikatzen duen izena erruz erabilitako euskal hitza da. Osagai bi ditu izen honek ere: *jaun* eta *(t)egi* ‘jaunaren tokia’. Askok erabiltzen dela esan dugu eta horren adibide da Euskal Herrian izen honetako 40 etxe baino gehiago egotea ekialdetik Nafarroa Behereko Bunuzen hasi eta mendebaldean Menagarai honetara, baita oso abizen ezagun bat eman duena ere. Gogoan izan behar da Euskal Herriaren mendebaldeko herri ahoskerak [y] hotsaz egin ohi dela, *yáuregi*. Auzo-izen hau dago Zuhatzako kontzejuan iruzkintzen dugun *Jauregibengo* toponimoaren jatorrian ere.

Es una compacta barriada algo alejada del núcleo capital de Menagarai, al nordeste de la misma, ubicada sobre un pequeño collado que se asoma al vecino concejo de Zuhatza. Se llega al barrio por carretera procedente de Menagarai tras pasar junto a su iglesia parroquial, o por el mismo carril desde Zuhatza subiendo por la ladera oriental. En este barrio se ubicaba la ermita particular de San José de Jauregi, que cita Madoz (1845-1850) sin dar su advocación.

El topónimo que designa esta barriada es palabra vasca de uso común, con significado de ‘palacio’, y que procede a su vez de *jaun* ‘señor’ y *(t)egi* ‘lugar, casa’. Como muestra de la frecuencia con que aparece a lo largo de Euskal Herria, digamos que existen más de 40 casas de dicho nombre desde Bunuze en la Baja Navarra hasta esta de Menagarai, dando lugar además a un conocido apellido. Hay que recordar que su pronunciación popular en el occidente de Euskal Herria es con sonido [y], *yáuregi*. En esta denominación tiene origen el topónimo *Jauregibengo* que citamos en el concejo de Zuhatza.

## Maldai

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494117, Y.4771923, alt. 315 m.

Kontzejuaren auzoburuari atxikitako pare bat etxe dira. Lehenengoa gunetik irten eta Aretxa aldera doan bidearen ondoan dago, Ibarra jauregira heldu baino lehen. Bestea apur bat beherago dago, Artziniegarako bide zaharraren ondoan jada.

Bide zati hau izendatzeko *cuesta de Maldai* lokuzioa dago eta, horren arabera, toponimoa *malda* hitzaren eratorriren bat dela pentsa genezake, ondoko eboluzioa *alde* hitzetik *aldai* ‘alboa, malda’ eman duenaren antzekoa izanik, edo *gara* zaharkitu batetik *garai* ‘altua’ eman duenaren modukoa.

Se trata de un par de casas anejas al núcleo capital del concejo. La primera de ellas se ubica a la orilla del camino que saliendo del núcleo lleva al barrio Aretxa, antes de alcanzar el palacio de Ibarra, y la otra algo más abajo, ya cerca de la antigua carretera de Artziniega.

La existencia de la locución *cuesta de Maldai* para denominar este tramo de camino, parece indicar que el topónimo sea un derivado del euskera *malda* ‘cuesta’, con una evolución similar a la que sucede con *aldai* ‘lado, cuesta’, a partir de *alde*, o con *garai* ‘alto’ procedente a su vez de un arcaico *gara*.



*Menagaraiko Mendieta eta San Pedro auzo nagusiak*  
*Mendieta y San Pedro principales barrios de Menagarai*

## Mendieta

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.494095, Y.4771532, alt. 320 m.

Kontzejuko auzo nagusian biztanlerik gehien duen gunea izendatzen du, zehazki, Arespalditzatik etorri eta kontzejua zeharkatuta, Lantenora doan A-624 errepide nagusiaren ezkerrean dauden etxeak. Ibaizabal eta Itzalde ibaien arroak banatzen dituen mendi-lepo zabal batean dago auzoa. Lehengo errepide nagusiaren ondoan Aita Kurutzekoaren ermita dago, auzoaren sarreran. Gaur egun, A-624 errepidea aipatutako mendi-lepoaren azpiko tunel batetik doa, eta horri esker trafikoak ez du auzoa zeharkatzen.

Auzoa identifikatzen duen toponimoa oso ezaguna da Euskal Herri osoan maiz agertzen delako, hala leku-izen gisa, nola abizen bezala. Artziniega hiri hurbilean ere bada izen bereko auzo bat. Osagai bi ditu euskal toponimo honek: *mendi* izena, eta ugaritasuna nahiz tokia adierazten duen *-eta* atzizkia.

Viene a designar la parte más habitada del núcleo capitalidad del concejo, concretamente las casas que se hallan a la izquierda de la carretera general A-624 que, viniendo de Arespalditza, atraviesa el concejo para dirigirse a Lanteno. La barriada ocupa el amplio collado que divide las cuencas de los ríos Ibaizabal e Itzalde. Junto a la antigua carretera general se halla emplazada la ermita del Santo Cristo, dando entrada al barrio. En la actualidad, el carril A-624 discurre por un túnel bajo el citado collado, evitando así el paso del tráfico por la población.



El topónimo que denomina este barrio es muy conocido por su abundancia en todo el país tanto para designar lugares como para apellido. Hay barrio de este nombre en la cercana villa de Artziniega. Es un compuesto eusquérico de *mendi* 'monte, montaña' y el sufijo locativo-abundancial *-eta*: 'lugar del monte' o 'los montes'.

## Mendikoarduri

Etxea / Casa: ED50 30T X.493069, Y.4772068, alt. 270 m.

Peregaña mendiaren iparraldeko muino baten magalean bakaturik dagoen etxea da, Menagaraiko gunen nagusiaren mendebaldean. Hartara heltzeko, A-624 errepide nagusiko adar bat hartu behar da Menagarai igaro ondoren eta Lantenorako norabidean goazela, hain zuzen ere Iturribarria auzoaren azpian doi eta 51. puntu kilometrikoa baino apur bat lehenago.

Baserria dagoen mazelari *Mendikoárduri* edo *Mendiko(ú)rduli(z)* esaten diote ahoz eta herriko kartografian *Mendikourduli* ageri da handik goragoko aurkintza batean. Izen honen osagaietan *mendi* substantiboa aurkitzen dugu batetik, eta *-ko* atzizkia bestetik. Azken hau gaur egun ez da ia erabiltzen txikigarri gisa, baina garai batean oso arrunta zen. Hala ikus daiteke toponimian ez ezik, zenbait hitz bakanetan ere. Horren adibide ditugu haurren ipuinetan halako animaliak izendatzeko agertu ohi diren *otso-ko* eta *axelko*, besteak beste. Hala balitz, toponimoaren esanahia 'menditxo' izango litzateke. Daitekeena da, ordea, *-ko* hori deklinabide-atzizkia izanik, etxearen kokapena baino ez adieraztea. Hasieran *Mendikoa* izango zen etxearen izena eta ondoren *-a* artikulua galduko zuen. Baserriaren kokapena eta inguruko paisaia kontuan hartuz, azken hau hipotesi egokia dela dirudi. Madozek (1845-1850) ematen duen Menagaraiko baserrien zerrendan koma bidez bereizita ageri dira *Méndico*, *Janduri* etab., nahiz eta gero *Mendico Jarduri* izen konposatuari dagokion sarrera ere ematen duen, Menagaraiko etxe bi direla azaltzen duena. *Mendiko* baserriaren hegoaldean *Mendikourduli* eta *Arduri* ageri dira herriko kartografian eta, dirudienez, *Mapa Topográfico Nacional* delakoan<sup>15</sup> aipatzen den 377 metroko *Mendiko gain* tontorra izendatzen dute, jatorrian, gure toponimoan ageri den *mendi* bera izango dena. Nolanahi ere, toponimo biz osaturiko leku-izena da: *Mendiko* eta *Arduri*.

Se trata de una casa aislada en la ladera norte de la cima que se desprende del pico Peregaña en esta dirección. Se encuentra al oeste del núcleo capital de Menagarai y se accede a ella por un carril que procede de la carretera general A-624 tras haber pasado Menagarai en dirección a Lanteno, prácticamente bajo la barriada de Iturribarria, poco antes del punto kilométrico 51.

Oralmente se denomina *Mendikoárduri* o *Mendiko(ú)rduli(z)* a la ladera donde se emplaza el caserío, figurando en la cartografía local el nombre *Mendikourduli* en zona ya muy elevada de

<sup>15</sup> 1997, 86-I.

aquella. El nombre de esta casa es un derivado de *mendi* 'montaña' al que se ha añadido el sufijo *-ko*. Este último tiene hoy en día cierto uso restringido como indicador de diminutivo, si bien en otra época era más común, como puede verse tanto en la toponimia como en algunas palabras sueltas como *otsoko* 'lobito' o *axelko* 'raposillo', que designa esas alimañas en los cuentos infantiles tradicionales. En este caso, el significado podría ser 'montecillo'. También pudiera ser el sufijo declinativo *-ko*, que indicase la posición de la casa denominada inicialmente *Mendikoa* 'la del monte', y que perdiera el artículo *-a*. Esta hipótesis parece la más ajustada a su ubicación y al paisaje que la rodea. Aunque en el listado de caseríos de Menagarai Madoz (1845-1850) cita separados por comas *Méndico*, *Janduri*, etc., da después aparte una entrada compuesta *Mendico Janduri* que describe como un caserío formado por dos casas de Menagarai. Al sur del caserío *Mendiko*, se documentan en la cartografía local los topónimos menores *Mendikourduli* y *Arduri*, para designar, al parecer, a la cima de 377 m que el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>16</sup> denomina *Mendiko Gain*, y que seguramente es en origen el *mendi* 'monte' que figura en el topónimo. En todo caso, parece un topónimo compuesto de los nombres de lugar: *Mendiko* y *Arduri*.

## Riberos, Los

Etxea / Casa: ED50 30T X.494403, Y.4773194, alt. 320 m.

Aretxabala auzoko etxe bat baino ez da, Kukutza izena daraman mendiaren hegoaldeko magalean, Menagaraitik etorrita Itzara doan errepidean ikus daitekeen azkena, hain zuzen ere.

Izena jatorri erromantzekoa da, nahiz eta ez dakigun zergatik edo nola heldu zen etxe hau izendatzera. Agian, inguruan hain ohikoa den *ribero* generikoari egiten dio erreferentzia 'soroetako ertz maldatsua', alegia. Jatorrian latinezko *ripa* hitzarekin du erlazioa eta hortik dator, adibidez, *Erripa* toponimoa ere, Izoriako auzoez aritzean aipatua.

Se trata de una casa del barrio Aretxabala, concretamente aquella que se asienta en la ladera sur de la cima denominada Kukutza, última que traspone la carretera que viene de Menagarai y se dirige a Itza.

El nombre es de claro origen romance, si bien desconocemos cómo y por qué llegó a designar esta edificación. Quizá haga referencia al genérico tan común en la zona, *ribero* 'borde en pendiente de las piezas de labranza'. Su origen tiene que ver con el vocablo latino *ripa* que genera formas como el topónimo *Erripa*, ya citado al tratar los barrios de Izoria.

## San Pedro

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494425, Y.4771875, alt. 351 m.

Kontzejuko auzoburuaren goialdeko gune honetan daude Done Petri Apostolua-ren parrokia, kontzejuko aretoa eta eskola zaharra. Horiek horrela, auzoburu bezala ere

<sup>16</sup> 1997, 861.



*Ibaguen aldea eta haren gainean Menagaraiko San Pedro eliza*  
*Zona de Ibaguen y sobre ella la iglesia de San Pedro de Menagarai*

konsidera genezake. Ordea, Mendietan askoz ere jende gehiago bizi denez, badirudi ez zela hain egokia izango. Elizaren inguruan dauden etxerik gehienak berriak dira.

Izena parrokiaren adokazio hutsa da. Baliteke garai batean gunek *Elexalde* izena izatea eta ikus hartaz Añesko *La Iglesia* auzoan esandakoak. Menagaraiko toki honetan egon zen behiala Done Petriren madariondoa delakoa, kanpaiaren deia dela medio, auzotarren batzartoki tradizionala. Beste herri batzuetan legez, garai batean santuaren jaiegunean ‘mayo’ izeneko zuhaitza jartzeko ohitura zegoen, jatorri zehatz ezezaguneko erritual batean.

Zona elevada sobre el conjunto de la población capital del concejo, en la que se ubican la iglesia parroquial de San Pedro Apóstol, la sala del concejo y la vieja escuela. Por esta razón cabría identificarla como capitalidad, pero el evidente protagonismo de Mendieta en cuanto a población se refiere, parece indicar que no ha de ser así. La mayoría de las casas que rodean la iglesia son modernas.

El nombre es simplemente la advocación de la iglesia parroquial. Puede que en otro tiempo se denominase este núcleo *Elexalde*, nombre respecto al cual puede verse lo dicho para el barrio *La Iglesia* de Añes. En este lugar de Menagarai estuvo situado el Peral de San Pedro, donde a toque de campana se reunían todos los vecinos. En la fiesta del santo existió la tradición de colocar el árbol o «mayo», como en otros pueblos del país, en un ritual cuyo origen no se conoce a ciencia cierta.

## Txirigoa

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492897, Y.4772475, alt. 220 m.

Gaur egun auzoa biztanledun bizpahiru etxez osatua dago. Lantenora doan A-624 errepidearen alde bietan daude etxe horiek, Menagaraiko gunetik kilometro eta erdi batera eta Ibaizabal auzora heldu baino apur bat lehenago, hain zuzen. Inguru honetan arroak iparraldetik Billarkudin behera datorren errekaaren urak jasotzen ditu eta erreka horri zenbait mapatan Txirigoa izena ematen zaio ere.

*Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>17</sup> ez du auzoaren izenik ematen, baina errepidearen hegoaldean *Txiribea* toponimoa dakar. Azken toponimo hau ez dugu beste inon aurkitu, baina bai *Chiriboa*<sup>18</sup>. Akatsen bat dela dirudien arren, daitekeena da *Txirigoa-Txiribea* bikotearen berri ematea ere. Hala balitz, *-goa* forma hori *-goia* eratik helduko litzateke, eta bestea *-be(he)a* genuke, ‘goikoa’ eta ‘behekoa’ alegia. Aipatutakoak beste oinarririk ez duenez, ordea, espekulazioen mailan utzi behar dira hipotesi hauek. Toponimoaren esanahia argitzeko, beste azalpen batzuk ere eman dira<sup>19</sup> eta mendebaldeko euskalki edo bizkaiera arkaikoan ‘taberna’ adiera zuen *txiriboga* hitza erabili da horretarako. Bizkaiko Lemoa herrian *Txiribogeta* auzoa eta *Txiriboga* etxea daude.

Se trata de una barriada formada en la actualidad por un par de casas habitadas que se sitúan a ambos lados de la carretera A-624 en dirección a Lanteno, a kilometro y medio del núcleo de Menagarai y poco antes de alcanzar el barrio Ibaizabal. En esta zona la vaguada recibe por el norte las aguas del arroyo que procede de Billarkudi y que algunos mapas también denominan Txirigoa.

El *Mapa Topográfico Nacional*<sup>20</sup> no rotula el nombre del barrio, pero sitúa al sur de la carretera el topónimo *Txiribea*, que no documentamos en ninguna otra fuente, aunque sí *Chiriboa*<sup>21</sup>. A pesar de que aparenta ser una simple errata, también pudiera desvelarnos la existencia del juego topónimo *Txirigoa-Txiribea*, donde *-goa* procediese de *-goia* ‘arriba’ y *-be(he)a* fuese ‘abajo’. Sin embargo no se trata sino de especulaciones sin más base que la citada. Se han dado otras explicaciones<sup>22</sup> al significado del topónimo a través del término *txiriboga*, que en el euskera vizcaíno u occidental arcaico tenía el valor de ‘taberna’. Existen *Txiribogeta* y *Txiriboga*, respectivamente barrio y casa de Lemoa (Bizkaia).

<sup>17</sup> 1997, 86-I.

<sup>18</sup> Becerro de Bengoa, 1877.


<sup>19</sup> Mugurutza, 2002, *Zaraobe*, 84.

<sup>20</sup> 1997, 86-I.

<sup>21</sup> Becerro de Bengoa, 1877.

<sup>22</sup> Mugurutza, 2002, *Zaraobe*, 84.

## Menoio



1932



2000

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.494186, Y.4768761, alt. 480 m.

Aiara erdian dago kontzeju txiki hau, Kexaaren gaineko eremu garaian kokatua. Kontzejuak kokaleku dituen muinoak, Gorobel mendilerroaren paraleloan ipar-mendebaldetik hego-ekialderantz lerrokatzen diren gain apal batzuk dira, hurrenez hurren Zaballa, Peregaña, Ungila edo Eskorieta, Pico de Asnos edo Bagatza, Babio eta Burubio lotzen dituen marra osatuz. Zehatzago esateko, Peregaña eta Ungila mendien artean dago Menoio. Iparraldean Kexaako muga du, mendebaldean Ozeka, Lexartzu eta Añes, Gorobelgo eremu garaietan Eskutxi tontorreraino helduta; hegoaldean Salmantón, Madaria eta Maroño, eta ekialdean Izoria eta Arespalditza. Becerro de Bengoak, *Libro de Álava* delakoan (1877), Butarte, El Campo, Chaurren eta Mendía izeneko etxaldeak ematen dizkio. Etxaurren izan ezik, hemen aipatuko ditugun gainerako auzo guztiak (Barrutxi, Butarte, Mendia, El Pico eta La Plazuela) «hiri barrukoak» dira, hau da, Menoio edo El Campo izenaz ezagutzen den gunea osatzen dute. Gune honetan daude San Pedro ad Vincula parrokia eta eskola zaharra –gaur egungo gizarte zentroa–, eta hemen amaitzen da Kexaatik datorren A-4618 errepidea ere, gaur egun Menoiora heltzeko bide arrunta dena. Biztanleriaren eboluzioari dagokionez, Aiarako bazterreko beste toki batzuetan bezala, hasieran behera egin zuen eta gaur egun geldirik dagoen zentsua daukagu Menoion. Madozek (1845–1850) 58 biztanle aipatzen zituen, 1950ean 61 zituen, 1970ean 41 besterik ez eta 2000ko erroldan 42 ageri dira.

Aiarako beste herri batzuk bezala, Menoio ere 1114ko agiri batean aipatu zen lehenengo aldiz, Donemiliagari Obaldiako (Madaria) monasterioa eman zitzaionekoan,

gaur egun ofiziala den grafia berean: *Senior Alvar López de Menoio*. Hala Madozek (1845-1850), nola Becerro de Bengoak (1877) gaztelaniazko grafiarekin idatzi zuten, hiatoaren ordezkontsonantea idatziz: *Menoyo*, baina idazkera hau hots berberen egokitze grafikoa baino ez da. Argi dago izena euskaraz ere erabiltzen zela, gutxienez euskal toponimo bitan ageri zaigulako: *Menoiaran* ‘Menoioiko ibarra edo harana’ (Salmantón) eta *Menoiobaso* ‘Menoioiko mendia edo basoa’ (Menoio), hurrenez hurren, trokarte txiki bat eta herri baso bat izendatzen dutenak.

Beste askotan gertatzen den bezala, *Menoio* izenaren esanahia iluna da. Badaude nekez defenda daitezkeen interpretazio batzuk, hala nola ‘mendiaren hegala’<sup>1</sup>, baina argitze saio gehienek *Mena*<sup>2</sup> hitzarekin lotu dute. Beste batzuen iritzi<sup>3</sup> izen generikoa ere izan daiteke, Artziniegan *Las Menoyas* toponimoa baitauekagu. Hau berrestera dator, adibidez, Santa Koloman (Artziniegan) aurkitu dugun *La Menoya* izeneko dermioa<sup>4</sup>. Hala ere, Ingrid Horch hizkuntzalari alemaniarrek berak beste aukera bat ere iradoki zuen, *Menoio* izena antroponimo –pertsone izen– batetik etor zitekeela esanez, zein izan zitekeen esan barik, ordea. Beste etimologista batzuek ere<sup>5</sup> antroponimoen bidea hartu dute, uste edo iritzi batzuetan oinarrituta, izen hau *Menerdo*, *Menerdiga* eta halakoekin lotuz. Den legez dela, eta gorago esan den moduan, esanahia ez da argia eta ez du irtenbide errazik.

Se trata de un pequeño concejo situado en la zona central de Ayala (Aiara), emplazado en zona elevada sobre Quejana (Kexaa). Los altos sobre los que se ubica son aquellos que corren de noroeste a sureste paralelos a la sierra Sálvada (Gorobel) pero con más modesta altitud, y que unen las cimas de Zaballa, Peregaiña, Ungila o Eskorieta, Pico de Asnos o Bagatza, Babio y Burubio. Concretamente Menoio se emplaza entre Peregaiña y Ungila. El concejo limita al norte con Quejana (Kexaa), al oeste con Ozeka, Lexartzu y Añes, alcanzando las cumbres de la sierra en Eskutxi; al sur con Salmantón, Madaria y Maroño, y al este con Izoria y Arespaldiiza. En el *Libro de Álava* de 1877 Becerro de Bengoa le asigna los caseríos de Butarte, El Campo, Chaurren y Mendía. Sin embargo, salvo Etxaurren, las barriadas que citamos aquí (Barrutxi, Butarte, Mendía, El Pico y La Plazuela) son de carácter «urbano», es decir, conforman el núcleo que comúnmente se conoce como Menoio o El Campo. Se trata del núcleo formado por la iglesia parroquial de San Pedro ad Víncula y la antigua escuela, –hoy centro social– donde desemboca la carretera A-4618 que, procedente de Quejana (Kexaa), constituye el acceso normal a Menoio. La evolución de la población muestra, como en otros lugares apartados de Ayala (Aiara), un despoblamiento y posterior estancamiento del censo. Madoz (1845-1850) contaba 58 almas, en 1950 tenía 61 habitantes, en 1970 solo 41 y en el padrón del año 2000 figuran 42.

<sup>1</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>2</sup> Ikus *Menagari* kontzejuari eta izenari buruz hitz egitean esandakoa.

<sup>3</sup> Horch, 1992.

<sup>4</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>5</sup> Mugurutza, 2002, *Zaraobe*, 88.



***Menoio eta Ungila edo Eskorieta mendia***  
*Menoio y la cima de Ungila o Eskorieta*

Como ocurre en otros pueblos de Ayala, la primera mención documentada de este lugar se data en 1114, donde con motivo de la donación del monasterio de Obaldia (Madaria) a San Millán, ya se cita el nombre con la grafía que hoy en día es oficial: *Senior Alvar López de Menoio*. Tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877), dan la grafía castellanzante con consonante en vez de hiato: *Menoyo*, que no es sino una adaptación gráfica de la misma cadena de sonidos. Su uso en euskera queda atestiguado al menos en los topónimos *Menoiaran*, ‘valle de Menoio’ (Salmantón) o *Menoiobaso* ‘monte de Menoio’ (Menoio), que dan nombre a una pequeña barrancada y a un monte comunal, respectivamente.

El significado del nombre *Menoio*, como nos sucede en otros muchos casos, es oscuro. Al margen de interpretaciones difícilmente defendibles como ‘ladera de la montaña’<sup>6</sup>, la mayoría de las explicaciones han pretendido relacionarlo con el nombre de *Mena*<sup>7</sup>. Otras opciones<sup>8</sup> advierten de la posibilidad de que se trate de un genérico, a la vista del topónimo *Las Menoyas* de Artziniega. En esta línea, y además del ejemplo dado, constatamos en Santa Koloma (Artziniega) otro término denominado *La Menoya*<sup>9</sup>. Sin embargo, la lingüista alemana Ingrid Horch sugirió como segunda alternativa, que tras el nombre *Menoio* existiese un antropónimo –nombre de persona–, sin apuntar ninguna opción. Dicha vía de los antropónimos es

<sup>6</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>7</sup> Véase lo dicho al hablar del concejo de *Menagarai* y su nombre.

<sup>8</sup> Horch, 1992.

<sup>9</sup> Barrenengoa, 1990.

la sugerida por otros etimologistas<sup>10</sup> que relacionan el nombre con los de *Menerdo*, *Menerdiga*, etc. a través de varias suposiciones. En cualquier caso, como ya se dijo más arriba, es un nombre con significado enigmático y al que difícilmente se puede dar solución contundente.

## Barrutxi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494136, Y.4768798, alt. 480 m.

Kontzejuaren guneko azkenengo etxeek osatutako auzoa da, hain zuzen ere, herritik irten eta ekialderantz Gorobel mendilerorako norabidea hartzen duen errepidearen ezkerrean ikusten direnak. Bide hau Sopeñako errepide ezaguna da, ‘camino real de la Sopeña’, eta gaur egun Salmantón, Lexartzu eta Añesera joateko erabiltzen da.

Izena *Barruti* hitzetik etorriko da, seguru asko ‘gune hesitua, barrendegia’. Aiarako toponimian ohikoa da *-oti*, *-uti* amaiera duten hitzek *-utxi* bilakatzea, eta hala gertatzen da *Eskuti* > *Eskutxi*, *Belandiaurruti* > *Belandiaurrutxi*, *Mugaburugoiti* > *Mugaburugotxi*, *Zabalbeiti* > *Zabalbetxi*... Ahozko hizkeran azentu laua darama: *Barrútxi*.

Es la barriada conformada por las últimas casas del núcleo del concejo, concretamente las ubicadas a la vera izquierda de la carretera que, una vez atravesado el pueblo, va a salir del mismo en dirección este para enfilarse la ruta hacia la sierra Sálvada (Gorobel). Ese es el conocido camino real de la Sopeña que hoy también nos acerca a Salmantón, Lexartzu y Añes.

El nombre procede con toda seguridad del euskera *Barruti* ‘espacio limitado, enclave, vallado’. En la toponimia de Ayala (Aiarra) es habitual que las terminaciones en *-oti*, *-uti* deriven a *-utxi*, como ocurre con *Eskuti* > *Eskutxi*, *Belandiaurruti* > *Belandiaurrutxi*, *Mugaburugoiti* > *Mugaburugotxi*, *Zabalbeiti* > *Zabalbetxi*... En el uso oral lleva acentuación llana: *Barrútxi*.

## Butarte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494173, Y.4768670, alt. 465 m.

Kontzejuko auzoburuaren azpiko aldean dagoen etxe multzo trinkoa da, Kexaatik igotzen den errepidearen eskuinean, Barranco del Molino delakoaren goialdera begira.

Seinale ofizialetan *Bularte* ageri den arren, agirietan eta ahozko hizkeran argi ikusten da auzoaren izena *Butarte* dela, azentu laua *-a-* hotsean jarrita: *Butárte*. Izenaren etimoaren berririk ez dugu, baina litekeena da azken osagaia *arte* izena izatea, postposizio bezala euskaraz oso erabilia, erreferentziatzeko beste objektu batzuen erdian dagoela adierazteko: *Atxarte* ‘haitzen erdian’, *Etxarte* ‘etxeen erdian’, *Urarte*, *Ugarte* edo

<sup>10</sup> Mugurutz, 2002, *Zaraobe*, 88.



*Uharte* ‘uren edo ibaien artean’, *Uriarte* edo *Iriarte* ‘hirien artean’... Dena dela, ez dakigu hasierako *But-* horren atzean zer ezkuta daitekeen.

Se trata del compacto grupo de casas situado bajo del núcleo del concejo, a la derecha de la carretera que asciende desde Quejana (Kexaa), prácticamente asomándose al Barranco del Molino en su cabecera.

Aunque en la señalización oficial puede leerse *Bularte*, tanto la documentación como el uso oral indican claramente que el nombre del barrio es *Butarte*, con acento grave, sobre la *-a*: *Butárte*. Desconocemos el étimo del nombre, pero el último componente bien pudiera ser el sustantivo eusquérico *arte*, muy utilizado en posposición para indicar situación ‘entre’ otros objetos referenciales: *Atxarte* ‘entre peñas’, *Etxarte* ‘entre casas’, *Urate*, *Ugarte* o *Uharte* ‘entre aguas’ o ‘ríos’, *Uriarte* o *Iriarte* ‘entre villas’... Sin embargo, no desvelamos qué pueda ocultarse tras ese *But-* inicial.

## Etxaurren

Santutegia / Santuario: ED50 30T X.495090, Y.4768124, alt. 540 m.

Etxaurrengo Andra Maria da Aiarako patroiz zaindaria eta hau dugu haren santutegia<sup>11</sup>. Iraileko lehen astean ospatu ohi da hemengo jaia, Andra Mariaren Jaiotzari dagokion egunarekin batera. Santutegi honetan, beste askotan bezala, Ama Birjinari haur jaioberrien pisua garitan eskaintza gisa eramateko ohitura zegoen, era horretan umeak haren zaintzapean gera zitezten. Tenplu eder hau Ungila edo Eskorieta mendia hegoaldeko belardi zabal batzuen erdian dago bakartua. Dirudenez, Etxaurrengo tenpluaren inguruan etxe batzuk egon ziren eta duela berrogeita hamar bat urtera arte biztanleak ere egon ziren bertan.

Gaztelaniaz eskribauk hasierako *E-* hori kentzeko joera izan dute, euskal protesia zelakoan edo. Hori dela eta, bai Madozek 1850 inguruan, eta bai Becerro de Bengoak 1877an ere, *Ntra. Sra. de Chaurren* eta *Chaurren* aipatu zituzten, hurrenez hurren. Era berean, inguruko larre eta basoei ere *Chaurren* esaten zaie askotan. Ohikoa da euskal toponimoetan hasierako bokal hori galtzea, baina gauza segurua da euskara galtzarekin lotutako kontua dela. Fenomeno honi buruzko datu gehiago nahi izanez gero, ikus Opellorako kontzejuko *Etxabarri* sarreran esandakoa, kasu hartan ere *Txabarri* erabiltzen baita. *Etxaurren* toponimoa euskal konposatu ederra da eta osagai bi ditu: *etxe* izena, konposatuetan askotan *etxa-* bihurtua, eta *urren* ‘hurbil, hurkoa’ edo *aurren* ‘aurreko hurbilena, lehenengoa’<sup>12</sup>. Herri etimologiak, ordea, beste bide bat proposatu du. Oso ezaguna den arren, hizkuntzaren aldetik bitxi samarra da eta *intxaurren* hitzarekin (*Juglans regia*), lotzen du toponimoa, izan ere, tradizioaren arabera, Ama

<sup>11</sup> Dirudenez, hemen aipatzen dugun zaindaritza hau ez da «ofiziala».

<sup>12</sup> Barrenengoa, 1990.



*Etxaurrengo Andra Maria santutegia*  
Santuario de Nuestra Señora de Etxaurren

Birjina intxaurrondo baten gainean agertu baitzen. Gaur egun izen hau hautatu da udalerriko ikastetxe bakarra izendatzeko, alegia, Zuhatzako kontzejuko Ibaguen auzoan dagoen Aiarako ikastola.

Se trata del santuario de Nuestra Señora de Etxaurren que ostenta el patronato de Ayala (Aiara)<sup>13</sup>. Su festividad suele celebrarse la primera semana de septiembre, con motivo del día de la Natividad de la Virgen. En este santuario, al igual que en otros muchos, fue costumbre donar el peso de los niños recién nacidos en trigo como ofrenda a la Virgen para que así quedaran bajo su protección. El hermoso templo se ubica aislado en medio de unos extensos pastizales en la ladera sur del pico Ungila o Eskorieta. Al parecer, en las inmediaciones del templo de Etxaurren hubo varias casas que estuvieron habitadas hasta hace poco más de medio siglo.

En castellano los escribanos han tendido a suprimir la *E*- inicial, quizá por considerarla protética vasca. Así tanto Madoz hacia 1850 como Becerro de Bengoa en 1877, citan la ermita de *Ntra. Sra. de Chaurren* y el caserío *Chaurren* respectivamente. Del mismo modo, a menudo se denomina la zona de pastos y bosques como monte *Chaurren*. La caída de la vocal inicial que da origen a esta forma es fenómeno frecuente en topónimos vascos, pero con toda certeza está ligado a la pérdida del euskera. Para más datos sobre este fenómeno véase lo dicho en *Etxabari* del concejo de Costera (Opellora), que también ha dado *Txabari*. El topónimo *Etxaurren* es un bonito compuesto eusquérico de *etxe* 'casa' que, en compuestos, aparece a menudo *etxa-*, y *urren* 'próximo, siguiente' o *aurren* 'primera'<sup>14</sup>. La etimología popu-

<sup>13</sup> Según parece, el patronato que aquí citamos no tiene carácter «oficial».

<sup>14</sup> Barrenengoa, 1990.

lar, sin embargo, apostó por una resolución muy conocida aunque extraña desde el punto de vista lingüístico, relacionándolo con *intxaur* 'nogal' (*Juglans regia*), árbol sobre el que, según la tradición, se apareció la Virgen. En la actualidad se ha elegido este nombre para denominar con él el único centro educativo del municipio, la ikastola de Ayala (Aiara), ubicada en la zona del barrio Ibaguen del concejo de Zuhatza.

## Mendia

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494237, Y.4768766, alt. 475 m.

Kontzejuko auzoburuaren barruan, ipar-ekialdean dauden etxeak dira, eliza nagusiaren burualdean hain zuzen. Haien artetik igarotzen da calleja Mendia izeneko bidea, ipar eta ipar-mendebalderantz goraka, gunetik irten eta kontzejuaren gainean dagoen 493 metroko mendi hurbilera igotzen dena.

Auzo honen izena oso ohiko toponimoa da Euskal Herrian eta, euskara arruntean 'gailurra' esan nahi badu ere, toponimian oro har toki garaiak izendatzeko erabili da. Beste horrenbeste gertatzen da Agiñagako kontzejuko *Mendieta* izenarekin ere. Gure kasuan, aipatu dugun 493 metroko mendi horrekin izan dezake zerikusia. Gaur egun, mendi horri *El Pico* edo *Alto de Menoio* esaten zaio.

Es el grupo de casas que incluidas en el núcleo del concejo se sitúan en la zona nordeste del mismo, a la cabecera de la iglesia parroquial. A través de ellas discurre el camino, denominado calleja Mendia, que ascendiendo hacia el norte y noroeste, permite abandonar el núcleo para ascender a la cumbre cercana de 493 m que preside el concejo.

El nombre de esta barriada es un topónimo muy común en el país que, aunque en el habla común eusquerica actual significa 'el monte, la montaña', en toponimia suele designar cualquier lugar prominente. Así mismo sucede en el concejo de Agiñaga, donde también aparece el nombre *Mendieta*. En nuestro caso, bien pudiera estar en relación con la cumbre de 493 m citada más arriba y que ahora suele denominarse simplemente *El Pico* o *Alto de Menoio*.

## Pico, El

Etxea / Casa: ED50 30T X.494176, Y.4768853, alt. 485 m.

Menoioiko gunearen punturik gorenean dago izen honetako etxea, elizako plaza igarota, herritik irten eta mendi aldera doan bidearen eskuinean. Berez, El Pico edo Alto de Menoio lehen aipatu dugun 493 metroko tontorra da, eta etxe hau da handik gertuen dagoena.

Etxe honek daraman izena erromantzezko toponimo arrunta da eta, esanahiari dagokionez, euskarazko *Mendia* izenaren ordain zehatza litzateke, 'goialdeko tokia' alegia. Kokaerak ikusita, badaiteke jatorriz izen biek leku bakar bat izendatzea.

Con este nombre se diferencia la casa del núcleo de Menoio que se sitúa en la zona más elevada del mismo, una vez pasada la plaza de la iglesia, a la derecha del camino que sale del pueblo para dirigirse a la sierra. Propiamente, El Pico o Alto de Menoio es la cumbre de 493 m citada más arriba, siendo esta casa la más cercana a ella.

El topónimo que designa esta casa es nombre común romance que, en cuanto a significación, podemos hacer análogo al *Mendia* vasco también citado, es decir, 'lugar prominente'. Sin embargo, cabe pensar que por su situación, se tratase originalmente de la misma denominación.

## Plazuela, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.494183, Y.4768685, alt. 465 m.


Menoioiko gunearen alderik hegoaldekoenean dauden etxeak dira, eskola zaharretik ibarraren hondora doan hegalean kokatuak, hain zuzen.

Esanahi argia du gaztelaniaz, *plaza* substantiboaren txikigarri arrunta baita. Auzoaren beheko aldean dagoen etxe deigarriari *Santa Kasilda* esaten zaio, hor egon zen izen bereko ermita baten oroigarri.

Se trata del grupo de casas más meridionales del núcleo de Menoio, precisamente aquellas situadas en la ladera que bajo la antigua escuela desciende hacia el fondo de la vaguada.

El significado de este nombre es claro en castellano, pues se trata de un diminutivo común del sustantivo *plaza*. La llamativa casa situada en la parte inferior del barrio se conoce como *Santa Casilda*, recordando su nombre una ermita que hubo en el lugar.

## Murga



1932



2000

Kontzeju hau haranaren ekialdean dago, Pico de Asnos edo Bagatza mendiaren iparraldeko azken adarretan. XVIII. mendean Amurrioko kuadrillakoa zen Murga, Luiaondo eta Olabezar kontzejuekin batera. Iparraldean Luiaondo dauka, mendebaldean Arespalditza, hegoaldean Izoria eta ekialdean Olabezar. Madozek (1845-1850) haren barruan Marquijana eta Los Olmos auzoak aipatzen zituen bakarrik. Becerro de Bengoak, aldiz, 1877an Araquio, Marquijana eta Ugarte etxaldeak ematen zituen. 1850ean kontzejuak 174 biztanle zituen, Madozen *Diccionario* izeneko lanaren arabera. 1950eko *Nomenclátor* delakoan 163 ziren eta 1970ean 115. 2000. urteko eroldaren arabera, beheraka jarraitzen du biztanle kopuruak, 107 besterik ez baitira zenbatzen.

Toki hau 1095ean aipatu zen lehenengo aldiz Calahorrako gotzain Pedro Nazarrrek aiararrekin egindako hitzarmenean<sup>15</sup>. *Murga* ondo zabaldutako abizena ere bada. Izen bereko etxe eta mendi ezagunak daude Arratia ibarrean eta Enkarterrin, berriaz, hirutan ageri zaigu izena<sup>16</sup>. Baliteke lehenengo zatian ageri dena *mur*- substantiboaren hondarra izatea, askotan agertzen baita toponimo nahiz abizenetan, eta Koldo Mitxelena zioenez<sup>17</sup>, ‘harresia, pareta’ edo ‘pila’ adiera izan lezake. Beste ikertzaile batzuek ere<sup>18</sup> *mur* terminoa identifikatu, baina ‘muino’ esanahi bitxia ematen diote. Harago joanda, zenbait ikertzailearen iritziz, *mur* hitzak ‘mendi-lepoa’ adiera hartzen omen

<sup>15</sup> Llorente, 1806-1808, 3. liburukia, 461. or.

<sup>16</sup> Oribe, 2001.

<sup>17</sup> 1997, 460, 131. or.

<sup>18</sup> Barrenengoa, 1990.

du batzuetan<sup>19</sup>. Hala ere, beste batzuek<sup>20</sup> nahiago dute *burg* erroarekin artez lotu, ‘herrixka, gotorlekua’, *Murgia* izenarekin gertatzen den bezala<sup>21</sup>.

Concejo situado en la zona oriental del término municipal, en las últimas estribaciones septentrionales del Pico de Asnos o Bagatza. En el siglo XVIII Murga pertenecía a la cuadrilla de Amurrio junto con los concejos de Luiaondo y Olabazar. Limita al norte con Luiaondo, al oeste con Arespalditza, al sur con Izoria y al este con Olabazar. Madoz (1845-1850) citaba en su radio solamente los barrios de Marquijana y Los Olmos, mientras Becerro de Bengoa en 1877 daba los caseríos de Araquio, Marquijana y Ugarte. La población del concejo era en 1850 de 174 almas según el *Diccionario* del citado Madoz. En el *Nomenclátor* de 1950 eran 163 habitantes, que en 1970 habían descendido a 115. Según el censo del año 2000 el descenso continúa, pues en este año se registran solo 107 habitantes.

La primera cita de este lugar es del año 1095, en el célebre convenio suscrito por Pedro Nazar, obispo de Calahorra, con los ayaleses<sup>22</sup>. El nombre *Murga* es apellido de cierta extensión, conociéndose casa y monte homónimos en el valle de Arratia y en tres ocasiones en las Encartaciones<sup>23</sup>. En el primer término podemos especular con la posible presencia del sustantivo *murru*, muy abundante en topónimos y apellidos y al que Luis Mitxelena<sup>24</sup> asigna el significado ‘muralla, pared’ o ‘montón’. Otros autores<sup>25</sup> se sirven del mismo término *murru* pero al que extrañamente dan el significado de ‘colina’, quizá por similitud con el constatado de ‘montón’. Yendo más allá, para algunos autores la palabra *murru* adquiere en ocasiones el significado de ‘collado’<sup>26</sup>. Sin embargo, otros<sup>27</sup> prefieren relacionarlo directamente con la raíz *burg* ‘poblamiento, fortificación’ como sucede con el nombre *Murgia*<sup>28</sup>.

## Arakio

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498882, Y.4769563, alt. 205 m.

Auzo txikia da –pare bat etxe besterik ez, eta horietako batean baino ez da bizi jendea modu iraunkorrean–, auzoburuaren ekialdean dagoena, Izoria ibaiaren ezkerreko ibar zabal batean. Izoria eta Los Olmostik Luiaondora doan A-3620 errepidetik

<sup>19</sup> Mitxelena, 1997, 460, 131. or.

<sup>20</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 89.

<sup>21</sup> Gorostiaga, 1954, 68 eta Mitxelena, 1997, 460, 131. or. eta 175, 77. or.

<sup>22</sup> Ilorente, 1806-1808, tomo 3, pág. 461.

<sup>23</sup> Oribe, 2001.

<sup>24</sup> 1997, 460, pág. 131.

<sup>25</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>26</sup> Mitxelena, 1997, 460, pág. 131.

<sup>27</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 89.

<sup>28</sup> Gorostiaga, 1954, 68 y Mitxelena, 1997, 460, pág. 131 y 175, pág. 77.



*Arakioko ikuspegia*  
Vista de Arakio

joaten da auzora. Ugarte auzoan bidea utzita, eskuinean dagoen adar bat hartu behar da, bidegurutzean bertan dagoen kontzeju etxea baino 250 bat metro lehenago.

*Catálogo de la Diócesis de Vitoria* lanean *Aranquio* (sic) eta *Araquio* formak ageri dira, eta gaur egun ere grafia erromantze hori dago seinalaztapen ofizialetan. Gaur egun ahoz jaso ez dugun aipaturiko lehen aldaera sinestekotan, amaierako elementua *-angio* izan liteke, Mitxelenaren arabera<sup>29</sup>, ‘bazkalekua, larrea’ esan nahi duena, eta kasu horretan *Arangio* toponimo nahiz abizenaren aldaera litzateke. Aramaion ere bada toponimo hori. Mugarutzak<sup>30</sup> izen hau antroponimo arkaiko batekin edo antzeko zerbaitekin lotzen du baina, nolana ere, beste izen batzuekin harremanetan jarriz, hala nola *Araka*, *Aramaio*, *Arakistain*, *Arakil*...

Se trata de una pequeña barriada –un par de casas de las que solo una se encuentra hoy permanentemente habitada– situada al este del núcleo capitalidad, en una extensa vega a la orilla izquierda del río Izoria. Se accede al barrio desde la carretera A-3620 que viniendo de Izoria y Los Olmos se dirige hacia Luiaondo. Dejamos el carril por un ramal a la derecha en el barrio Ugarte, unos 250 m antes de sobrepasar la sala del concejo que se halla en el mismo cruce.

<sup>29</sup> 1997, 56, 49. or.

<sup>30</sup> 2003, *Zaraobe*, 89 eta, bereziki, 2004, *Aunia*.

En el *Catálogo de la Diócesis de Vitoria* este barrio figura como *Aranquio* (sic) y *Araquio*, grafía romance que también puede leerse actualmente en la señalización oficial. De ser fiable la primera variante citada, que no hemos hallado en el uso oral, pudiera contener el término final *-angio*, que según Mitxelena<sup>31</sup> es 'dehesa, lugar de pasto acotado', siendo en ese caso variante del topónimo y apellido *Arangio*, que también hallamos en Aramaio. Mugurutza<sup>32</sup> relaciona el nombre con un antropónimo o similar arcaico pero, en cualquier caso, poniéndolo en relación con otros nombres como *Araka*, *Aramaio*, *Arakistain*, *Arakil*...

## Arespexueta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498141, Y.4769875, alt. 225 m.

Zerralde errekaen bazterrean daude etxe hauek, Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidean lerro-lerro. Izan ere, La Iglesia auzora doan bidegurutzetik gertu, eta apur bat aurrerago, San Martin auzora heldu baino lehen.

Auzo honen jatorrizko izena *Arespexueta* da eta halaxe dokumentatzen da 1566ko auzi baten agirian, nahiz eta XVII. mendean jadanik egungo *Aspexueta* forma laburtua ageri den. Gernikako batzar etxean gordetzen den 1756ko kaparetasun-espediten batean aurkitzen dugu, abizen legez ez ezik, oinetxe bezala ere:

«Expediente de Hidalguía de Tiburcio de Isasi Ugarte Echevarría Aspechueta. Natural de Barambio. Residente en Arrancudiaga. Contiene noticia de los solares de Isasi y Pagaondo en Barambio, Ugarte en Amurrio y Aspechueta en Murga».

1930ean *Saspichueta* izen akastuna ere aurkitzen dugu. Egungo herriko kartografian *Aspituéta* aldaera dator eta *Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>33</sup> *Galpichuela* toponimo desitxuratua dakar zehaztu gabeko eremu horretan. Euskal izen konposatua da eta haren osagaiak *aretx* 'haritz' (*Quercus robur*) edo 'zuhaitza' oro har, eta *-pe* 'behe' dira, eta elkarketa horri *-txu* atzizki txikigarria gehi ugaritasuna edota tokia adierazten duen *-eta* erantsi zaizkio.

Se trata de un grupo disperso de caseríos situados a orillas del arroyo Zerralde y a lo largo de la carretera A-3622 que de Arespalditza se dirige a Luiaondo. Concretamente se trata de las casas que se hallan próximas al cruce de la carretera que se dirige al barrio La Iglesia, y algo más adelante, antes de alcanzar el barrio San Martin.

La forma original del nombre de este barrio es *Arespexueta*, documentada en un pleito de 1566, aunque ya en el siglo XVII aparece la forma abreviada actual *Aspexueta*. En un expediente de hidalguía datado en 1756 que se halla depositado en la casa de juntas de Gernika, el nombre figura también además como solar:

<sup>31</sup> Mitxelena, 1997, 56, pág. 49.

<sup>32</sup> 2003, *Zaraobe*, 89 y, especialmente, 2004, *Aunia*.

<sup>33</sup> 1997, 86-III.



«Expediente de Hidalguía de Tiburcio de Isasi Ugarte Echevarría Aspechueta. Natural de Barambio. Residente en Arrancudiaga. Contiene noticia de los solares de Isasi y Pagazaondo en Barambio, Ugarte en Amurrio y Aspechueta en Murga».

En 1930 el barrio se denominó erróneamente *Saspichueta*. En la cartografía local actual se utiliza la variante *Aspitxuéta*, mientras el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>34</sup> rotula con cierta imprecisión en los alrededores el topónimo desfigurado *Galpichuela*. El nombre es un compuesto eusquérico de *aretx* 'roble' (*Quercus robur*) o 'árbol en general' y *-pe* 'debajo de', a los que se añaden el sufijo diminutivo *-txu* y el sufijo locativo-abundancial *-eta*.

## Aretxazar

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498588, Y.4769469, alt. 215 m.

Aretxazar izeneko baserria eta auzoa Murgako kontzejuko auzo nagusiaren ekialdean daude, Izoriatik Ugartera eta Luiaondora doan A-3620 errepidearen ezkerrean. Errepide horren eta Izoria ibaiaren artean industrialde bat dago, eta handik kilometro eskas batera kokatzen da auzoa. Etxe multzoari izena ematen dion baserria, berriz, Murgako dorrerako bidegurutzetik gertuen dagoena da, baina errepidearen beste aldean.

Toponimo honetan *aretx* osagaia argi eta garbi bereizten da, euskara estandarreko 'haritz' hitzaren mendebaldeko aldaera eta gaur egun *Quercus robur* espeziea identifikatzen duen arren, garai batean oro har 'zuhaitza' esan nahi zuena, agian, gure mendietan haritza zelako zuhaitzik ugariena, harik eta basoen orde zoroak eta larreak orokortu ziren arte. Den legez dela, haritz hau bikaina izango zen, toponimian bere aztarna utzi baitigu. Esanahia, beraz, 'haritz zaharra' izango litzateke, baina osagai bien artean *-a-* artikulua mantendu egin da eta hori ez da normala eta ohikoena *\*Aretxar* (*aretx* + *zar*) edo antzeko formaren bat ematea izango zen. Horregatik pentsa daiteke *-a-* temati horren atzean lehenagoko *\*Aretxagazar* formaren *-aga-* partikula egon litekeela. Azalpen hau, hala ere, dokumentuen bidez egiaztatu beharko litzateke ontzat eman aurretik. Gaur egun ahozko hizkeran azken silaban darama azentua: *Aretxazár*, baina horrek ez du esan nahi ezinbestez historikoki hala ahoskatuko zenik.

El barrio y caserío Aretxazar se encuentran al este del núcleo capital del concejo de Murga, al lado izquierdo de la carretera A-3620 que viniendo de Izoria se dirige hacia Ugarte y Luiaondo, concretamente algo menos de un kilómetro después de pasar la zona industrial ubicada entre la citada carretera y el río Izoria. El caserío que da nombre al barrio, es el que se halla más próximo al cruce que se dirige a la cercana torre de Murga, pero al otro lado de la carretera.

En el topónimo aparece con toda evidencia el nombre vasco *aretx*, que aunque hoy en día significa 'roble', *Quercus robur*, variante vizcaína del estándar *haritz*, en tiempos pretéritos también se utilizaba para designar 'árboles en general', tal vez por ser el roble el más común

<sup>34</sup> 1997, 86-III.

en nuestros montes hasta que las zonas antes pobladas de ellos fueron convertidas en huertas y prados. En cualquier caso, este roble debía de ser notable para que nos haya dejado su recuerdo, ya que *za(ha)r* significa 'viejo'. Pudiera significar, por tanto, 'roble viejo', si bien el mantenimiento del artículo *-a-* en la zona de contacto de los componentes resulta un tanto anómalo, debiéndose esperar como más regular algo parecido a *\*Aretxar* (de *aretx* + *zar*). Por ello, cabe pensar que detrás de esa *-a-* pertinaz se oculte la partícula locativa *-aga-* de un anterior *\*Aretxagazar*, extremo este que debería constatarse documentalmente antes de darlo por válido. En la forma oral actual, lleva el acento en la última sílaba: *Aretxazár*, aunque ello no ha de suponer forzosamente que esa sea la forma de articulación histórica.

## Cruz, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498239, Y.4769296, alt. 220 m.

La Iglesia izenaz ezagutzen den auzoburutik hego-ekialdera gertu dago gunetxiki hau, haren kokalekua den muinoaren azpiko ibartxoan. Izoriatik Luiaondora doan A-3620 errepidetik joaten da, industrialdea atzean utzi eta ezkerrera abiatzen den adar batetik.

Ahoz etxe hauek izendatzeko ohiko forma *Barrio de la Cruz* da, herrialde osoan toponimo gisa oso erabilia den izen erromantzea. Euskaraz *cruz* esateko gehien erabiltzen den forma *gurutze* da eta euskara estandarrean ere forma hori hobesten da, baina Euskal Herriko mendebaldean hasierako kontsonante ahoskabea duen *kurtze* forma erabiltzen da askotan toponimian, *kurutze* aldaeraren laburdura dena. Ez da oso urrutira joan behar, Laudio herri hurbilean bertan *Bidekurtze* toponimoa dokumentatzen baitugu.

Exigua barriada que se sitúa próxima al sureste del núcleo capital conocido como La Iglesia, en la vaguada al pie de la loma donde se enclava esta. El acceso se realiza por la carretera A-3620 que viene de Izoria y se dirige hacia Luiaondo, por un pequeño ramal a nuestra izquierda tras haber dejado atrás el polígono industrial.

La forma oral habitual para designar este grupo de casas es *Barrio de la Cruz*, nombre romance de gran uso como topónimo en todo el país. La forma eusquérica de *cruz* más extendida y propia del euskera estándar es *gurutze*, pero en la zona occidental de Euskal Herria se utiliza mucho en toponimia la variante con inicial sorda *kurtze*, forma reducida de la variante *kurutze*. Sin ir más lejos, en la vecina localidad de Llodio (Laudio) se documenta el topónimo *Bidekurtze*.

## Iglesia, La

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.498026, Y.4769445, alt. 245 m.

Izenak berak dioten legez, auzo honetan dago kontzejuko eliza nagusia, Done Joan Bataiatzailearen adbokaziokoa, eta herriko jaia horregatik ospatzen da ekainaren



*Murgako eliza*  
*Iglesia de Murga*

24an. Elizatik gertu dago kontzejuko areto modernoa, Ugarten zegoenaren ordez eraikia. Etxe taldea Zarandona menditik hego-mendebaldera aldentzen den bizkar baten 328 metroko gain nabarmen batean dago. Auzora ailegatzeko Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidean, Arespexueta auzotik abiatzen den eskuinerako adarra hartu behar da, ondoren magalean gora parrokiaraino heltzeko. Ugartetik eta industrialdetik joatea ere badago.

1930eko *Nomenclátor* delakoan *Barrio de San Juan* ageri da, eliza nagusiaren adbokazioa horixe delako. Dena dela, herri erabileran *La Iglesia* generikoaren bidez identifikatu ohi da auzoa. Euskararen mendebaldeko euskalkian, eliza nagusia dagoen auzoari *Elexalde* esan ohi zaio tradizionalki, eta kasu honetan ere forma hori berreskura liteke euskaraz erabiltzeko, gorago esan dugun legez<sup>35</sup>, behin baino gehiagotan agertzen baita izen hori Aiaran bertan Beotegin, Lantenon, Luxon..., baita Amurrión eta abarretan ere.

Como su nombre indica, se trata de la barriada en que se ubica la iglesia parroquial del concejo, bajo la advocación de San Juan Bautista, razón por la cual la fiesta local se celebra el 24 de junio. Próxima a la iglesia se halla la moderna sala del concejo, que sustituyó a la anterior situada en Ugarte. El grupo de casas se halla en lo alto de una loma que se desprende del alto de Zarandona, marcada cima de 328 m al suroeste. Se accede al

<sup>35</sup> Ikus Añesko kontzejuan izen bereko auzoari buruz esandakoa.

barrio desde la carretera A-3622 que viniendo de Arespalditza se dirige a Luiaondo, tomando a la derecha la desviación que parte del barrio Arespexueta para ascender por la ladera hasta la iglesia parroquial. También es posible el acceso desde el barrio Ugarte y desde el polígono industrial.

Aunque en el *Nomenclátor* de 1930 aparece como *Barrio de San Juan* debido a la iglesia de su nombre, popularmente se suele denominar con el genérico *La Iglesia*. En el dialecto occidental del euskera, la forma tradicional para designar el barrio donde esté ubicada la parroquia suele ser *Elexalde*, forma que bien pudiera ser recuperada para su uso en euskera, y que como hemos dicho anteriormente<sup>36</sup>, también aparece en repetidas ocasiones en Ayala (Aiara) en Beotegi, Lanteno, Luxo..., así como en Amurrio, etc.

## Irabien

Antzinako etxea / Antigua casa: ED50 30T X.497725, Y.4770125, alt. 245 m.

Etxe huts bat zen, Arespexueta auzoaren iparraldeko bizkar txiki batean zegoena. Lekura heltzeko, auzo horretatik ipar-mendebalderantz abiatuta, jada Arespalditzako dermiokoak diren Isasiko etxeetara doan basabide kaskar samar batetik joan behar da. Gaur egun ez dago etxearen arrastorik, baina badakigu XX. mendearen erdi aldera arte zutik iraun zuela. Etxe honen ekialdera Amirola izeneko beste bat egon zen, Arespalditzako kontzejuari zegokion barrendegi edo 'koto' baten barruan eta, horregatik, Irabien ere maiz jurisdikzio horretan kokatzen da oker.

Bizkaiko zenbait etxetan errepikatzen den eta, bereziki, Okondoko auzo nagusia ere izendatzen duen izen hau XV. mendeaz geroztik aurki daiteke agiritan. Izan ere, garai hartan kontatu zuen Lope García de Salazarrek bere *Bienandanzas e Fortunas* lan ospetsuan, nola Okondoko auzo horretan erail zuten Sancho de Anuntzibai bere aspaldiko areriok, hots, Audio aldeko Ugarteko ospindarrek. Dirudienez, *ira* 'garo' hitzaren eratorria da, baita abizen ezaguna ere. Amaierako *-ien* osagaia maiz errepikatzen da euskal toponimian (*Arrien, Labaien, Urabaien, Urien...*), baina haren esanahia iluna da.

Se trataba simplemente de una casa que se ubicaba en una pequeña loma al norte del barrio Arespexueta. Se accede al lugar desde este barrio por una pista bastante deteriorada, que del mismo se dirige hacia el noroeste en dirección a las casas de Isasi, ya en jurisdicción de Arespalditza. En la actualidad no se hallan ya restos de la edificación que estuvo en pie hasta mediados del siglo XX. Al este de esta casa, hubo otra denominada Amirola, situada en un enclave o 'coto' que pertenece al concejo de Arespalditza, por lo que a menudo se asigna erróneamente Irabien a esa jurisdicción.

El nombre, que se repite en algunas casas de Bizkaia y, especialmente, en el nombre del principal barrio de Okondo, documentado ya desde el siglo XV, cuando Lope García de Sa-

<sup>36</sup> Véase lo dicho en el barrio homónimo del concejo de Añes.

lazar relata en su celebrada obra *Bienandanzas e Fortunas*, el asesinato de Sancho de Anuntzibai a manos de sus seculares rivales los *Ospines* de Ugarte (Llodio (Laudio)), ocurrido en dicho barrio de Okondo. El nombre en cuestión parece un derivado de la palabra *ira* 'helecho' y es, además, un conocido apellido. El segundo componente *-ien* es recurrente en toponimia vasca (*Arrien, Labaien, Urabaien, Urien...*), pero su significado es oscuro.

## Iturria

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495853, Y.4769597, alt. 225 m.

La Iglesia auzotik ipar-mendebaldera dagoen etxe multzo txiki bat da, Zerralde erreka beste aldean, Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidearen eskui-neko hegian, errepide honen eta erreka artean, hain zuzen ere. Iturria izeneko etxea nolabaiteko lantegia da gaur egun.

Aiarako auzo gutxik dute honek bezain etimo argia, izan ere, euskarazko *iturri* substantibo arrunta da, *-a* artikulua erantsita daukana edo, agian, lehenagoko *-aga* baten azken aztarna ere izan litekeena. Azentua bigarren silaban daramala ahoskatzen da: *Itúrria*.

Se trata de un pequeño grupo de casas situado al noroeste del núcleo La Iglesia, al otro lado del arroyo Zerralde, a la vera derecha de la carretera A-3622 que de Arespalditza se dirige a Luiaondo, precisamente entre esta y el arroyo citado. La casa de nombre Iturria está convertida hoy en alguna suerte de taller.

Pocos barrios de Ayala (Aiara) tienen un nombre de étimo tan claro como este, pues se trata del sustantivo común vasco *iturri* 'fuente' más el artículo *-a*, quizá reducto de un anterior *-aga*. Significa, por tanto, con toda evidencia 'la fuente'. Se pronuncia con el acento en la segunda sílaba: *Itúrria*.

## Lendika

Antzinako auzoa / Antiguo barrio: ED50 30T X.499310, Y.4770319, alt. 205 m.

Gaur zeharo desagertua dagoen etxe multzo bat zen, Arespalditzatik Luiaondo aldera doan A-3622 errepidean lerro-lerro zeudenak, Mendibil izenaz ezagutzen den muino apalaren hegoaldean, kontzejuaren iparraldean Zabalbetxi eta Markixa auzoen artean. Garai batean auzoa zegoen tokian, gaur egun oso deigarriak gertatzen dira errepidearen ezkerrean argindarraren azpiestazioa eta eskuinean industrialdea, Markixatik hurbilago.

Gutxienez 1647tik agertzen da dokumentuetan eta, dirudienez, amaierakoa maiztasun handiko *-ika* atzizkia da, Euskal Herriaren mendebaldeko toponimo nahiz abizen askotan agertzen dena: *Atxika, Amarika, Barandika, Gernika, Gerrika, Lekerika, Okamika, Totorika, Zenika* etab. Era honetako izenei eta horien interpretazioari bu-

ruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, oso interesgarriak dira Koldo Mitxelena<sup>37</sup> bildutako oharrak baita, oraintsu, Patxi Salaberri Zaratiegirenak ere (2011). Felix Mugurutzaren iritziz (1997), argi dago mota horretako hitzak pertsona izenekin lotuta egoten direla eskualde honetan. Are gehiago, *Lendika* izenaren jatorria eta Urduñako *Lendoño* herriarena lotu egin ditu \**Lentius* edo antzeko antroponimo baten bidez<sup>38</sup>. Eskualdearen usadioari jarraituz, ahoskera jatorrak azentua lehen silaban jartzen du: *Léndika*.

Se trataba de un grupo de casas, hoy totalmente desaparecido, situadas a lo largo de la carretera A-3622 que procedente de Arespalditza se dirige a Luiaondo, al sur de la modesta cima conocida como Mendibil, en la zona norte del concejo entre los barrios de Zabalbetxi y Marquijana (Markixa). En la zona donde se ubicó el barrio, llaman hoy la atención la subestación eléctrica a la izquierda de la carretera en la ladera del monte, y la zona industrial a la derecha, más próxima a Marquijana.

Se documenta al menos desde 1647 y parece contener el abundante sufijo *-ika*, que aparece en muchos topónimos y apellidos vascos del occidente del país como *Atxika*, *Amarika*, *Barandika*, *Gernika*, *Gerrika*, *Lekerika*, *Okamika*, *Totorika*, *Zenika*, etc. Para una información más detallada sobre este tipo de nombres y sus interpretaciones, pueden resultar de interés las consideraciones que reúne Luis Mitxelena<sup>39</sup> y, más recientemente, también Patxi Salaberri Zaratiegi (2011). En opinión de Felix Mugurutz (1997), queda probado que los nombres de ese tipo en la comarca están claramente relacionados con nombres de persona, e incluso llega a relacionar el origen del nombre *Lendika* con el de la localidad orduñesa de *Lendoño* a través de un antroponimo \**Lentius* o similar<sup>40</sup>. Se pronuncia castizamente con el acento en la primera sílaba, al estilo de la zona: *Léndika*.

## Markixa / Marquijana

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.499753, 4770400, alt. 190 m.

Kontzejuaren iparraldeko muturrean dauden etxeak dira izen hau daramatenak, Murga Luiaondoko kontzejuarekin eta Amurrio udalerriarekin elkartzen den mugarritik gertu. Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidearen ondoan dago, azken hau Bilbotik Burgosera doan A-625 errepide nagusian amaitu baino apur bat lehenago. Hemendik gertu isurtzen da Izoria erreka Nerbioi ibaian ere, Aiara eta Amurrio arteko mugan, hain zuzen ere.

Herriko kartografian eta seinaleztapan ofizialetan *Marquijana* forma ageri da, eta Becerro de Bengoak ere forma hori aipatu zuen 1877an. Auzo honetan egon zen urte

<sup>37</sup> 1977, 317, 103. or.

<sup>38</sup> 2003, hitzaldia.

<sup>39</sup> 1997, 317, pág. 103.

<sup>40</sup> 2003, conferencia.

askoan euskararen eta gaztelaniaren arteko muga, gutxi gorabehera Maroñotik datorren Izoria ibaiaren ibilgua jarraitzen omen zuena. Toponimoa jatorri erromantzekoa da antza, eta badirudi *Markio* pertsona izena edo horren eratorriren bat duela oinarrian, eta lur sail baten jabegoa adierazten duen *-ana* atzizkia gehitu zaiola. Hortaz, esanahia ‘Markioren hiria, jabegoa’ edo antzeko zerbait litzateke. Hala iradoki zuen Federico Barrenengoak (1990), baina azalpen bitxiago baten ondoan: ‘ibai ondoko ihi tokiak’. Garai batean, gaztelaniazko ortografian *-x-* kontsonatea *-j-* letrarekin idaztera pasatu zen, hizkuntza horretan hots hura galdu zenean. Antzinako *Marquijana* erarekin batera, gure proposamenean euskarazko *Markixa* aldaera berreskuratzeko proposamena gehitzen dugu. *Markixa* aldaera dakarren bokalen arteko *-n-* hotsaren galerari dagokionez, esan behar da hizkuntzaren ikuspuntutik horixe baizik ezin espero zitekeela euskaraz. Hala eta guztiz ere, *Marquija* era jaso dugu 1778ko dokumentu batean<sup>41</sup>.

Se conocen por este nombre las casas más septentrionales del concejo, situadas ya en el límite con la vecina jurisdicción de Luiaondo y el municipio de Amurrio. Se encuentran en las proximidades de la carretera A-3622 que procedente de Arespaldiiza se dirige a Luiaondo, justo antes de que esta desemboque en la A-625 de Bilbao a Burgos. También se halla próximo el punto en que el río Izoria tributa al Nervión, límite de Ayala (Aiara) con Amurrio.

En la cartografía local y la señalización oficial figura la forma *Marquijana*, que también es la que da Becerro de Bengoa en 1877. Este barrio, fue durante muchos años el límite entre el euskera y el castellano, que seguía aproximadamente el curso del río Izoria, procedente de Maroño. El topónimo de origen romance parece compuesto del nombre de persona *Markio*, o derivado de este, más el sufijo *-ana*, que indica propiedad de un terreno. Sería, por tanto, algo parecido a ‘villa, propiedad de Markio’, como ya sugiriese Federico Barrenengo (1990) junto a otra más extravagante explicación: ‘parajes de juncos junto al río’. La consonante *-x-* pasó a escribirse con la letra *-j-* en la ortografía castellana al perderse aquel sonido en esta lengua. Nosotros proponemos la recuperación de la forma eusquérica junto a la antigua *Marquijana*. Respecto a la pérdida de la consonante *-n-* que da lugar a *Markixa* hay que decir que es lo que había esperar en euskera desde un punto de vista lingüístico. Además, lo hallamos en la forma *Marquija* en un documento de 1778<sup>42</sup>.

## Olmos, Los

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497658, Y.4768493, alt. 240 m.

Ohikoan Los Olmos esaten zaion auzo honetakoak dira Amurriotik Arespaldi-tzara doan A-624 eta Izoriatik Ugarte nahiz Luiaondora doan A-3620 errepideen bidegurutzetik gertu dauden etxeak. Bidegurutze hori bera da Izoria kontzejuarekiko muga, eta Olabezarkoa ere han ondoan dago, baina kontzeju bi horien etxe hurbilei Aretxabala esan ohi zaie.

<sup>41</sup> Laudioko Larrazabalgo Fernando Ibarrolarena den agiria.

<sup>42</sup> Documento propiedad de Fernando Ibarrola de Larrazabal, Llodio (Laudio).

Dirudienez, auzoaren antzinako izena *Aretxabala* zen. XVIII. menderako aurki daiteke dokumentuetan bidegurutzea, benta eta haien ondoko zubia izendatzeko, eta gaur egun izen hori oraindik ofiziala da Olabezar eta Izoriako kontzeju mugakideetan. Gaztelaniazko *Los Olmos* izena Murgan erabiltzen hasi zen, alde horretan zumar batzuk zeudelako, *Ulmus carpinifolia*, eta oraindik ere adinik handieneko auzotarrek gogoan dituzte zumar haiek. Gaur egun Murgakoa den *Aretxabala* auzoko zatia izendatzeko hedatu da *Los Olmos* izena. Dena dela, ez dugu ahaztu behar bai Madozek (1845-1850) eta bai Becerro de Bengoak (1877) *Los Olmos* auzoa aipatu zutela.

Conforman la barriada comúnmente denominada Los Olmos, las casas próximas al cruce de las carreteras A-624 de Amurrio a Arespalditza y la A-3620 de Izoria a Ugarte y Luiaondo. El mismo cruce es límite con el concejo de Izoria y cerca, algo al este, se halla también la muga de Olabezar, si bien las casas próximas de estos dos concejos se denominan habitualmente Aretxabala.

Al parecer, el nombre antiguo de esta barriada era efectivamente *Aretxabala*, ya documentado en el siglo XVIII para designar el cruce, la venta y el cercano puente, y que todavía consideran oficial los colindantes concejos de Olabezar e Izoria. El nombre *Los Olmos* se comenzó a utilizar en la zona de Murga debido a unos ejemplares de olmo, *Ulmus carpinifolia*, que hubo en el lugar y cuya memoria aún pervive entre los vecinos de más edad. Sin embargo, no podemos olvidar que ya Madoz (1845-1850) y Becerro de Bengoa (1877) citan el barrio llamado *Los Olmos*.

## San Martin

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498680, Y.4769953, alt. 205 m.

Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidearen inguruan dago auzo txiki hau. Zehazki, Ugarte auzoaren iparraldean dago, auzo honetarako bidegurutzea baino apur bat lehenago.

Auzo honen izenak bertan egondako Toursko Done Martie Gotzainaren (317-387) ermita bati egiten dio erreferentzia, eta haren eguna azaroaren 11n ospatzen da. Micaela Portillak dioenez (1978), ermita XVIII. mendean berreraiki zuten, baina azkenean eraitsi eta haren harriak egungo hilerria egiteko erabili ziren.

Se trata de un pequeño barrio situado en las inmediaciones de la carretera A-3622 que de Arespalditza se dirige a Luiaondo. Se emplaza concretamente al norte del barrio Ugarte y poco antes del cruce que conduce a este.

El nombre de este barrio hace referencia a la ermita de San Martín Obispo de Tours (317-387), que hubo en el mismo, y cuya festividad se celebra el 11 de noviembre. Según recoge Micaela Portilla (1978), tras ser reedificada en el siglo XVIII, la ermita fue finalmente demolida y sus piedras se usaron en la edificación del cementerio actual.





*Murgako dorrea*  
Torre de Murga

## Torre

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498798, Y.4769191, alt. 205 m.

La Iglesia auzo nagusiaren ekialdean dagoen auzo txiki bat dugu, Izoria ibaiaren ertzean. Hemendik gertu dagoen Murgako dorreari zor dio izena, oinetxe horrek eman baitzion izena kontzejuari ere, eta ibaiaren eskuinaldean dago. Madozen *Diccionario* delakoan (1845-1850) identifikaziorik gabeko jauregi bat aipatzen da eta, seguruenik, dorre honetaz ari zen. Auzo honetara joateko, Aretxabaretik Ugartera doan A-3620 errepide ondoan, Aretxazar auzoan eskuinera aurkituko dugun adar bat hartu behar da, Ugarten bertan jadanik, kontzejuko aretoa pasatuta. Auzoko lehen base-ritik dorrera joateko, erreka zeharkatzen duen zubi bat igaro behar da.

Auzoari *Palacio-Murga* esan izan zaio askotan, baina lehen ere esan dugu horrelako izen generikoak sarritan itzuli izan direla administrazioak erabiltzen duen hizkuntza ofizialera, eta halaxe gertatu dela Euskal Herriko hainbat lekutan. Auzoaren gaurko *Torre* izena, beraz, *Murgako torrea* adierazpidearen aldaera laburtua baino ez da.

Euskarazko *dorre* aldaera estandar eta *torre* dialektalari buruz, ikus Luiaondoko *Torre* izeneko kalean esandakoa.

Se trata de un pequeño barrio situado al este del núcleo capital de La Iglesia, a orillas del río Izoria. Debe su nombre a la cercana torre de Murga, solar que también dio nombre al concejo y que se halla emplazada a la orilla derecha del río. Sin duda se trata del palacio que, sin identificar, cita Madoz en su *Diccionario* (1845-1850). Se accede al grupo de casas por un ramal procedente de la carretera A-3620, a la derecha viniendo de Los Olmos hacia Ugarte y que encontramos en la barriada denominada Aretxazar, antes de llegar a la sala del concejo ya en Ugarte. Del primer caserío del barrio a la citada torre se accede por un puente que cruza el río.

El barrio se ha denominado a menudo *Palacio-Murga*, pero hay que tener en cuenta que es muy común que nombres genéricos de este tipo se hayan traducido a la lengua oficial administrativa, como ocurre en multitud de lugares del país. La denominación actual del barrio, *Torre*, es una forma abreviada, pues, de la expresión *Torre de Murga*. Sobre las variantes estándar *dorre* y dialectal *torre*, véase lo dicho para la calle *Torre* en Luiaondo.

## Ugarte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498649, Y.4769604, alt. 210 m.

Auzo hau nahiko garrantzitsua da eta auzoburuaren ipar-ekialdean dago. Kontzejuko aretoa Ugarten egon zen, Jauregia eta Arakio artean, baina 2000. urtean eraitsi eta La Iglesia izena daraman auzoburuan eraiki zuten berria. La Iglesia auzoa dagoen bizkarraren oinetan dago etxe talde hau, Izoriatik eta Aretxabaletik datorren A-3620 errepidean, Luiaondora joateko dagoen bidegurutzetik gertu, eta ekialdera Arakio auzora nahiz mendebaldera La Iglesia auzora joateko ere erabil daitekeena.

*Ugarte* oso toponimo ohikoa da Euskal Herri osoan. Etimologia argia du: *ur* izenak toponimian 'ibai' esan nahi izaten duena, eta *arte* 'bitartean' adiera duena. Hortaz, 'ibaian artean, erreka bitartean' edo 'irla, uhartea' esan nahi du. Euskal Herriaren erdi-ekialdean aspirazioa ia galdu den arren, *Uharte* ere ohiko forma da han.

Se trata de un barrio de cierta importancia situado al nordeste del núcleo capitalidad del concejo. La sala del concejo se ubicó en Ugarte, entre El Palacio y Arakio, pero fue derribada en el año 2000, construyéndose la nueva en la capitalidad conocida como La Iglesia. En realidad este grupo de casas se sitúa al pie de la loma donde se halla La Iglesia y en las inmediaciones del cruce de carreteras que desde la A-3620 procedente de Izoria y Los Olmos para ir hacia Luiaondo, permite alcanzar el barrio Arakio al este y La Iglesia al oeste.

El nombre *Ugarte* es un topónimo muy común en el país. Se trata de un vocablo de clara etimología, compuesto de *ur* 'agua', que en toponimia equivale a 'río', y *arte* 'entre', con el significado de 'entre ríos' o 'isla'. En la parte centro-oriental del país, aunque prácticamente ha desaparecido la aspiración, es más habitual la forma *Uharte*.



*Zabalbetxi baserria*  
Caserio Zabalbetxi

## Zabalbetxi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498978, Y.4769983, alt. 205 m.

Kontzejuaren auzoburuaren ipar-ekialdean dagoen auzoa da, Arespalditzatik Luiaondora doan A-3622 errepidearen eskuineko hegian, Ugartera daraman bidegurutzea pasatuta, eskuinera abiatzen den adar batetik hura utzirik. Nerbioi ibaira isuri aurretik apur bat beheiago doan Izoria ibaiaren ondoko ordoki zabal batean dago etxe taldea, zenbait eraikin gehigarriekin batera.

Auzo honi ahoz *Zabalbetxi* edo *Zabalbetxe* esaten zaio. 1930ean oraindik *Zabalbechi* ageri da dokumentazioan, baina gaur egun seinaleztapen ofizialetan itxuragabeko *Zabaletxe* bat irakur daiteke. Herriko kartografiak *Zabaletxi* izendatzen du. Zalan-tzarik gabe, izena *Zabalbeiti* izenaren tokiko aldaera da, *-t-* hotsaren bustiduraren ondorio. Lehen ere esan dugunez, Aiaran *-t-* horiek palatalizatzeko joera nabarmen hori dago<sup>43</sup>. Izenak egoki deskribatzen du auzoa non dagoen, osagaiak *zabal* 'ordoki' eta *beiti* 'behekoa' izanik, toki zabal eta apal batean baitago. Bustidurarik gabeko eta amaieran *-a* artikulua daraman *Zabalbeitia* abizena ere badago, jatorria Murgako leku honetan duena.

<sup>43</sup> Fenomeno honi buruz, ikus Menoioko kontzejuko *Barrutxi* auzoan esandakoak.

Barrio situado al nordeste de la capitalidad del concejo, a la vera derecha de la carretera A-3622 que de Arespalditza se dirige a Luiaondo, dejando esta por un ramal a nuestra derecha justo tras pasar el cruce que lleva a Ugarte. El grupo de casas y sus edificios anejos se emplazan en un extenso llano en la vega del cercano río Izoria, que discurre un poco más abajo próximo a tributar al Nervión.

Este barrio es conocido oralmente como *Zabalbetxi* o *Zabalbetxe*. En 1930 se documenta aún *Zabalbechi*, mientras en la señalización oficial puede leerse un inapropiado *Zabaletxe*. La cartografía local lo denomina *Zabaletxi*. Se trata sin duda de una variante local del nombre eusquérico *Zabalbeiti*, con palatalización de la *-t-*, que como ya hemos dicho en otros casos, es un fenómeno propio de la zona de Ayala (Aiara)<sup>44</sup>. Se compone por lo tanto de *zabal* 'llano' y *beiti* 'abajo', significando 'llano de abajo', descriptivo acertado a juzgar por su emplazamiento, precisamente en una zona llana y baja. Existe apellido *Zabalbeitia*, sin palatalizar y con artículo final *-a* 'el', con origen en este lugar de Murga.

<sup>44</sup> Sobre este fenómeno véanse las notas en el barrio *Barrutxi* del concejo de Menciaio.

## Olabezar



1932



2000

Aiarako hego-ekialdeko muturrean dago kontzeju hau, San Pedro mendiaren inguruan kokatua. XVIII. mendean Amurrioko kuadrillakoa zen, Luiaondo eta Murgarekin batera. Babio mendiaren iparraldeko magal osoa hartzen duen Izoria dauka hego-mendebaldean. Etxegoiengo muga du hegoaldean Olabezarrek, Amurrio ekialdean, Luiaondo iparraldean eta Murga mendebaldean. Madozen *Diccionario* lanean (1845-1850) honako auzo hauek aipatzen dira: Arriaga, Echeguren, Garay, Belaunde, Mugaburu, Mugaburugoche eta Garriras (sic), baita Arregoico baserria ere. 1877ko *Libro de Álava* delakoan etxalde hauek ageri dira: Arecha, Arechavala, Arza, Arregoi-co, Arriaga, Echeguren, Garay, Garbiras, Ugarte, Uriarte eta Velaunde. XX. mendean, aldiz, Arriaga, Arza, Garbiras eta Mugauro (sic) auzoak besterik ez dugu jasotzen. Madozek dio 1850 inguruan 176 biztanle zituela. 1950eko *Nomenclátor* delakoan 140 ageri dira eta 1970ean 132. 2000ko erroldan 75 biztanle ageri ziren Olabezarren erroldaturik.

*Olábezar* ahoskatzen da eta izenaren lehen aipu historikoa 1095ekoa da, *Olhavezahar* grafia bitxia erakusten duena. Hainbeste *-h-* agertzeko arrazoia, seguruenik, garai hartan mendebaldeko euskaran oraindik hots hasperendunak egotea izango da, nahiz eta jakina denez, gaur egun Pirinioaz beste aldeko euskalkietan bakarrik gordezen diren fenomeno haren hondarrak, hots, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Gaztelaniak beste edozein jatorritako toponimoekin izaten duen arbitrariotasun grafikoaren froga bitxi gisara, XIX. mendean Madozek (1845-1850) *Olabezar* idatzi zuen eta Becerro de Bengoak (1877) *Olavezar*. Izenak honako osagai hauek ditu: *ola* ‘burdinola’ edo ‘kortabasoa’, *be* ‘azpian’ eta *zahar* ‘aspaldikoa, garai batekoa’. Beraz,

‘beheko kortabaso zaharra’ edo ‘beheko burdinola zaharra’ esan nahi du. Dena dela, egile batzuen iritziz<sup>45</sup> *olabe* hasierako osagaiaren esanahia ‘labea’ litzateke edo, besterik gabe, ‘burdinola’ hitzaren txikigarria, oso sarri agertzen baita hitz hori toponimian. Esate baterako, *Olabeagoiko* toponimoaren kasuan *be* horrek txikigarri zentzua edukiko du nahitaez.

Es el concejo más suroriental del municipio de Ayala (Aiara), que se halla emplazado en derredor del monte San Pedro. En el siglo XVIII este concejo pertenecía a la cuadrilla de Amurrio, junto con Luaiondo y Murga. Limita al suroeste con el concejo de Izoria, que posee la ladera norte del cercano pico Babio. Olabezar linda además al sur con Etxegoien, al este con Amurrio, al norte con Luaiondo y al oeste con Murga. Madoz en su *Diccionario* (1845-1850) le asigna los barrios de Arriaga, Echeguren, Garay, Belaunde, Mugaburu, Mugaburugoche y Garriras (sic), más el caserío Arregoico. El *Libro de Álava* de 1877 enumera los caseríos de Arecha, Arechavala, Arza, Arregoico, Arriaga, Echeguren, Garay, Garbiras, Ugarte, Uriarte y Velaunde. En el siglo XX se citan solo Arriaga, Arza, Garbiras y Mugauro (sic). Madoz le registra hacia 1850 una población de 176 almas. En el *Nomenclátor* de 1950 contaba con 140 habitantes y en 1970 132. En el censo del año 2000 tan solo había empadronados en Olabezar 75 vecinos.

Se pronuncia *Olábezar* y su primera cita es del año 1095, donde lo hallamos con la curiosa grafía *Olhavezahar*. La razón de tanta *-h-* es seguramente el hecho de que en aquella época todavía existía el sonido aspirado en el euskera occidental, si bien es sabido que en la actualidad solo se pronuncia residualmente en los dialectos de ultrapuertos, esto es, de Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa. Curiosamente en el siglo XIX, como prueba de la arbitrariedad gráfica castellana con topónimos de otros orígenes, Madoz (1845-1850) da la grafía *Olabezar* y Becerro de Bengoa (1877) *Olavezar*. El nombre se compone del vocablo vasco *ola* ‘ferrería, sel’ o ‘cabaña’, *be* ‘debajo’ y *zahar* ‘vieja’: ‘el viejo sel o ferrería de abajo’, aunque otros autores<sup>46</sup> sugieren que el término inicial *olabe* sea ‘horno’ o, sin más, un diminutivo de *ola* ‘ferrería’, a la vista de la frecuencia en toponimia de dicho término. En *Olabeagoiko* ‘Olabe de arriba’ esa terminación *be* debe tener, necesariamente, un significado diminutivo.

## Abo

Etxea / Casa: ED50 30T X.498900, Y.4768487, alt. 265 m.

Garbiras auzotik Garai eta Etxegurenera doan bidearen ezkerreko etxe bat besterik ez da, zehazki, eskuinetik Arana auzo nagusira eramango gintuzkeen bidegurutzearen ondoan.

Ahoz gutxitan erabiltzen den izen honek, mendebaldeko euskaran estandarreko *aho* arrunta esateko erabiltzen den forma gogorarazten digu. Kasu honetan, ordea, nekez onar daiteke esanahi hori duenik, eta are gutxiago toponimian hitz horrek no-

<sup>45</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 90.

<sup>46</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 90.



*San Pedro izeneko gaina Murgako industrialdetik*  
Alto de San Pedro desde el polígono industrial de Murga

lako isla izan duen ikusten badugu, hala nola, esaterako, *Ugao* izenean, *ur* eta *aho* el-karketaren emaitza dena eta *\*abo* erarik eman ez duena. Beste aukera batzuk ere iradoki dira, adibidez, ‘haritz zuria’ esanahia egotzen diona (Barrenengoa), baina ez dira aintzat hartzeko modukoak.

Se trata simplemente de una casa que se levanta a la izquierda del camino que del barrio Garbiras conduce a Garai y Etxeguren, concretamente cerca del cruce que por la derecha nos llevaría a la capitalidad del concejo en el barrio Arana.

El nombre, poco utilizado oralmente, nos recuerda a la forma occidental eusquérica del vocablo común *aho* ‘boca’, pero de dudosa aplicación al caso, más aún teniendo en cuenta su reflejo en toponimia, como pudiera ser el caso de *Ugao*, de *ur* ‘agua’ y *aho* ‘boca’, y que no ha dado *\*abo*. Tampoco son defendibles otras posibilidades dadas, como la de ‘roble blanco’ (Barrenengoa).

## Arana

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.498782, Y.4768650, alt. 240 m.

Auzo txiki honetan dago kontzejuko eliza nagusia, Done Petri Apostoluaren adbokazioa duena. Jatorrizko eliza gorago zegoen, gaur egun San Pedro izena daraman mendian, hain zuzen ere. Gure egunetan kokapen hura arraroa iruditzen zaigun arren, ohikoa zen lehenengo elizak toki nabarmenetan egotea. Napoleonek 1808an lur hauek hartu zituen su eman zioten eliza hari, eta handik hurbil dagoen San Babilas ermita erabili zen parrokia gisara, harik eta 1868an egungo tenplua inauguratu zen arte. Antzina, kontzejuko batzarrak elizan egiten ziren, baina gaur egun Mugaburugotxin

dagoen eskolako lokala erabiltzen da horretarako. Kartografian Olabezar izena eman ohi zaio, kontzejuko auzo nagusi bakar bat bezala ulertuta, guk bereizita ematen ditugun Arana, Belaunde, Mugaburu eta Mugaburugotxi auzoetako etxe barreiatuez osatutako multzoari. Kontzejuen auzo nagusia zehazteko irizpide tradizionala, ordea, parrokiaren kokalekua izan da eta, ondorioz, lan honetan auzo horiek jo izan ditugu oro har auzoburutzat. Amurriotik etorrita Arana aldera joateko A-4609 errepidea erabiliko dugu Gabiras auzoraino. Han gure ezkerrera aurkituko dugun Garai eta Etxegurenerako adarra hartuta utziko dugu bide nagusia, eta berehala berriro ere eskuinera joz, tenpluaren inguruko alderdira jaitsiko gara.

*La Iglesia* izen hutsa ere ematen bazaio ere, eremu horretako toponimorik eza-gunena *Arana* da. Euskarazko izen gardena da, hizkuntza estandarreko *haran*, eta *-a* mugatzailea daramana.

Pequeña barriada en la cual se emplaza la iglesia parroquial del concejo, bajo la advocación de San Pedro Apóstol. La iglesia original se encontraba más arriba, en el monte que hoy se denomina precisamente San Pedro. Tal ubicación puede hoy en día parecer extraña, pero era común en las primeras iglesias hallarse habitualmente en lugares relevantes. Fue incendiada durante la invasión napoleónica en 1808, utilizándose posteriormente como parroquia la cercana ermita de San Babilas, hasta que en 1868 se inauguró el actual templo. Antaño el concejo se reunía en la iglesia, pero ahora se utiliza para ello el local escolar sito en Mugaburugotxi. En la cartografía suele denominarse Olabezar, como capitalidad del concejo,



*Olabezarko eliza nagusia Arana auzoan*  
*Iglesia parroquial de Olabezar en el barrio Arana*



a toda una zona de edificaciones dispersas que agruparían las barriadas que aquí discriminamos como Arana, Belaunde, Mugaburu y Mugaburugotxi. Sin embargo la iglesia parroquial es la que tradicionalmente ha determinado la cabeza de los concejos, por lo que en este trabajo consideramos en general los barrios correspondientes como principales. Se accede a Arana desde la carretera A-4609, viniendo de Amurrio y abandonándola en el barrio Garbiras por el ramal que a nuestra izquierda se dirige a Garai y Etxeguren, para dejarlo en breve por la derecha y descender hasta las inmediaciones del templo.

Aunque también hay quien denomina la zona simplemente *La Iglesia*, Arana es el topónimo más reconocido de la zona. Se trata de un nombre eusquérico transparente, en lengua estándar *haran*, con el artículo *-a*, que significa claramente ‘el valle, la vega’.

## Aretxabala

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497891, Y.4768036, alt. 230 m.

Auzo honen zati bat Izoriako kontzejukoa da. Izoria eta Olabazarren kasuan, badirudi Izoria ibaiaren ertzari eta berau zeharkatzeko Amurriotik Arespalditzara doan A-624 errepidean dagoen ibiari egiten diela erreferentzia.

Auzo izen konposatua da, honako osagai hauek dituena: batetik, *aretx* izena, euskara estandarreko *haritz* (*Quercus robur*) hitzaren baliokidea mendebaldeko euskaran eta, zentzu zabalagoan, ‘zuhaitz’ esan nahi duena; bestetik, *zabal* hitzak ‘ordokia’ nahiz ‘handia, hedadura handikoa’ adierak izan ditzakeena; eta, azkenik, *-a* mugatzailea. Toponimoa, beraz, adiera bitan uler daiteke, alegia, ‘Aretxa aldeko ordokia’ edo ‘haritz zabala’.

Se trata de una barriada compartida con Izoria y con Murga, donde se denomina más comúnmente Los Olmos. En el caso de Izoria y Olabazar, parece hacer referencia a la ribera del río Izoria y al vado en que lo cruza la carretera A-624 que de Amurrio se dirige a Arespalditza.

Nombre de barrio compuesto de *aretx* palabra propia del euskera occidental (Bizkaia, Álava y oeste de Gipuzkoa) equivalente al estándar *haritz* que significa ‘roble’, *Quercus robur*, aunque en un sentido más amplio también quiere decir ‘árbol’. El segundo componente es *zabal* ‘llano’ o ‘ancho, extenso’, seguido del artículo determinado *-a* ‘el’. El topónimo puede tener, por tanto, dos acepciones en sentido de ‘el llano de Aretxa’ o ‘el roble ancho’.

## Arriaga

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498512, Y.4767285, alt. 280 m.

Amurriotik Arespalditzara doan A-624 errepidean aurkitzen dugu lerro-lerro auzo hau. Auzo barreiatuko lehenengo etxeak Saraubeko gaina igaro eta Izoria ibairako jaitsiera hastean daude. Amurriotik etorritz gero, Arriaga da aurkitzen dugun Aiarako lehenengo auzoa eta, beraz, muga izaera dauka.

Badirudi leku honen lehen aipamena 1114koa dela, Obaldiako monasterioaren emate ekitaldiko lekukoaren artean *Harriaga* forma ageri baita. Auzoaren jatorrizko izena *Arriaga* da dudarik gabe eta hala aipatzen dute bai Madozek (1845-1850) eta bai Becerro de Bengoak (1877). Ahoz ohikoan entzuten den *La Cadena* erak, edota herriko kartografian ageri den *La Cadena de Arriaga* konposatuak, garai batean mugako toki honetan egondako aduanako kateari egiten diote erreferentzia. Jatorrizko toponimo sekularraren ordezkari generikoa hedatzea saihestu beharra dago eta, beraz, ez da egokia seinaleztapen ofizialetan eta udaleko zerrendetan *La Cadena* hutsa erabiltzea. Hala eta guztiz ere, generikodun forma osoa ofizial bihurtu nahi izanez gero, elebitan eman beharko litzateke, hau da, *Arriagako katea / La Cadena de Arriaga*. *Arriaga* hitza euskal eratorria da, (*h*)*arri* izen arruntaz eta *-aga* leku-ugaritasunezko atzizkiaz osatua eta, beraz, ‘harriak dauden tokia’ edo, besterik gabe, ‘harria’ esan nahi du gutxi gorabehera. Arespalditzarantz beheara goazela, Izoria ibaitik gertuago errepidearen ezkeraldera, *Arriagabe* toponimo txikia aurkitzen dugu, eta ‘Arriaga azpian’ esan nahi du.

Es un barrio situado a lo largo de la carretera A-624 que procedente de Amurrio se dirige a Arespaldiza. Encontramos las primeras casas de la dispersa barriada, una vez superado el alto de Saraube y al comenzar el descenso hacia el río Izoria. Arriaga es el primer barrio de Ayala (Aiara) que encontramos procedentes de la citada localidad vecina, teniendo, por tanto, carácter fronterizo.

Es probable que la primera mención de este lugar sea del año 1114, puesto que entre los testigos de la donación del monasterio de Obaldia aparece la forma *Harriaga*. El nombre original de esta barriada es indudablemente *Arriaga*, como lo citan tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877). La forma oralmente usual *La Cadena*, o el compuesto *La Cadena de Arriaga* que figura en la cartografía local, hacen referencia a la cadena de fieltro que existió en dicho lugar fronterizo. Debe evitarse que el topónimo original y secular sea sustituido por un simple genérico, como ha ocurrido en la señalización oficial y en los listados del ayuntamiento, donde se hace figurar solo la forma *La Cadena*. Si pese a todo se deseara oficializar la forma entera con genérico, esta debería ser bilingüe: *Arriagako katea / La Cadena de Arriaga*. El nombre *Arriaga* es un compuesto eusquérico evidente de (*h*)*arri* ‘piedra’ y el sufijo locativo-abundancial *-aga*, que, por tanto, significa aproximadamente ‘lugar de piedras’ o, quizá, ‘(la) piedra’ sin más. Más cerca del río Izoria, bajando hacia Arespaldiza, a la vera izquierda de la carretera, hallamos el topónimo menor *Arriagabe*, que en euskera viene a significar ‘bajo Arriaga’.

## Artza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498386, Y.4768684, alt. 220 m.

Izoria ibaiaren ertzean dago auzo txiki hau, Murgako industrialdearen aurrean, eta bien artean zubia dago. Amurriotik industrialde horretara doan A-4609 errepideetik ailegatzen da, Belaunde auzoa igaro eta Izoria ibaia zeharkatzen duen zubia baino metro batzuk lehenago, ezkerrean doan adar bat hartuz. Zubia pasatu ondoren, bide

adar horrek Ugartera segitzen du eta, beraz, handik ere joan daiteke Artzara. Ibaiaren ondoan errota interesgarri bat dago, baina gaur egun nahiko egoera kaskarrean dago.

Auzo honi ahoz *Arzáa* esan ohi diote bertakoek, hau da, *-a* luze batekin, izen bereko Laudioko auzoarekin egiten den bezala. Izen konposatuak (*h*)arri substantibo eta *-tza* ugaritasun atzizkia ditu osagai. Hortaz, ‘harrizta, harri asko dagoen tokia’ esan nahi du. Ohikoa da *harri* hitzarekin hasten diren konposatuetan *-i* bokala galdu eta (*h*)ar- hasiera hutsa izatea: *hargin*, *harlandu*, *harraska*, *harresi* etab.

Se trata de un pequeño barrio situado a orillas del río Izoria frente al polígono industrial de Murga, al que lo une un cercano puente. Se accede a Artza por la carretera A-4609 que procedente de Amurrio se dirige al citado polígono, dejándola por un ramal a nuestra izquierda tras pasar el barrio Belaunde y unos metros antes del puente que cruza el río Izoria. Después de alcanzar el barrio, el carril continúa hacia Ugarte, por lo que también puede accederse desde allí. Junto al río hay un interesante molino, hoy algo deteriorado.

El nombre de este barrio suele pronunciarse *Arzáa*, con *-a* larga, al igual que sucede con el barrio homónimo de Llodio (Laudio). Su nombre es un compuesto de (*h*)arri ‘piedra’ y el sufijo abundancial *-tza*. Significa, por tanto, ‘pedregal’. La pérdida de la vocal *-i* es un fenómeno habitual en los compuestos de *harri*, que suelen comenzar con (*h*)ar-: *hargin* ‘cantero’, *harlandu* ‘piedra labrada’, *harraska* ‘fregadera de piedra’, *harresi* ‘muralla’, literalmente ‘cercado de piedra’, etc.

## Artzoste

Etxea / Casa: ED50 30T X.498628, Y.4768769, alt. 235 m.

Artza auzotik gertu dagoen etxea da. Amurriotik datorren A-4609 errepidean, Belaunde auzoa igaro eta, Izoria ibaira heldu baino lehen, ezkerrera dagoen lehenengo bidea hartu behar da. Era honetan helduko gara eraikin honetara, Artza baino apur bat gorago dagoena, auzoa aurrerago eta jadanik ibaiaren ertzean baitago.

Izenak argi eta garbi adierazten du Artza auzoarekiko etxeak duen kokalekua, *Artza* eta *oste* osagaiak ditu eta ‘Artza (auzoaren) ostean’ esan nahi du. Ahozko hizkeran, *Arzóste* forma ez ezik, *Astoste* ere entzun daiteke eta bikoiztasun horrek gogora ekartzen dizkigu Euskal Herriko ekialdeko euskaraz kontsonante talde horretan ere gertatzen direnak: *bost-bortz*, *beste-bertze*, *heste-hertze*<sup>47</sup> etab.

Casa situada cerca de Artza. También se accede a ella procediendo de Amurrio por la carretera A-4609 tras superar el barrio Belaunde y tomando el primer ramal que se abre a nuestra izquierda antes de llegar al río Izoria. De este modo alcanzamos la edificación que se alza unos metros por encima de Artza, esta más adelantada y ya a orillas del río.

<sup>47</sup> Fenomeno hau (*-rtz-*) batez ere lapurteran, goi-nafarreran eta behe-nafarreran gertatzen da baina, bitxia bada ere, zubereran ez (*-st-*).

El nombre del barrio nos indica claramente en euskera su ubicación con respecto al barrio *Artza*, puesto que se compone de *Artza* y *oste* 'detrás', significando, por tanto, 'detrás de *Artza*'. En el uso oral puede oírse además de *Arzoste*, la interesante variante *Astoste*, que recuerda las formas con dobles eusquéricos orientales en ese mismo grupo consonántico: *bost* 'cinco', oriental *bortz*; *beste* 'otro', oriental *bertze*; *heste* 'intestino', oriental *hertze*<sup>48</sup>, etc.

## Basatxi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.499434, Y.4768129, alt. 255 m.

Amurrio herri hurbileko mugan dagoen auzoa da eta herri hartatik hel daiteke, A-4609 errepidea segituta. Auzoko lehenengo etxe aiararra, nahiko modernoa, iparraldera begira dagoen ibar txiki batean dago, mugari berari dautsola ia.

Etimo iluneko auzo izena da, baina badirudi hasieran *basa-* osagaia dagoela, konposizioan erabili ohi den *baso* hitz estandarren aldaera. Bada Gorbeian *Basatxi* izeneko bide bat<sup>49</sup>, eskualdeko mendirik altuena magaletik zeharka saihesten duena.

Se trata de una barriada emplazada en el límite con la cercana localidad de Amurrio, desde la cual se accede por la carretera A-4609. La primera casa ayalesa del barrio, bastante moderna, se halla en una pequeña vaguada que mira hacia el norte, y pegada prácticamente al citado límite.

Nombre de barrio de étimo oscuro, cuyo componente inicial *basa-* parece la forma habitual del estándar *baso* en composición, significando 'bosque' o 'zona montaraz'. Hay un camino de nombre *Basatxi* en el cercano Gorbeia<sup>50</sup> y que salva por una de sus laderas la máxima elevación de la zona.

## Belaunde

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498819, Y.4768879, alt. 235 m.

Kontzejuaren erdiko alderdia osatzen duten auzoetako bat da, Mugaburu, Mugaburugotxi eta Arana auzoekin batera. Amurriotik Murgako industrialdera doan A-4609 errepidearen hegian dago, Izoria ibaiko zubia igaro baino apur bat lehenago.

Auzo honen izenaren etimologia ilun samarra gertatzen zaigu. Lehen osagaia *bele* (*Corvus corax*) izan daiteke. Baina baliteke *Bela-* pertsona izena ere izatea, Erdi Aroan ohikoa izan zena eta *Belasko* eraren osagaia dena. Madozek (1845-1850) *Belaunde* idatzi zuen eta Becerro de Bengoak, *Libro de Álava* (1877) lanean, kontrara, hain ohikoa

<sup>48</sup> Este fenómeno [rtz] se da fundamentalmente en los dialectos labortano, altonavarros y bajonavarros, pero curiosamente, no en suletino [-st].

<sup>49</sup> Gorbeiak 1482 m ditu eta Arabako zein Bizkaiko mendirik garaiena da.

<sup>50</sup> Gorbeia, con 1482 m, es la cima más elevada de Álava (Araba) y de Bizkaia.

ez den *V*- hasiera duen grafia bitxiarekin: *Velaunde*. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, besteetatik bereizi nahi hutsagatik, *Vela* edo *Velasco* bezalako idazkera gaztelaniartzai-leak hedatu egin dira, atzean gaztelaniazko argizarizko kandelak izendatzeko erabiltzen den hitzarekin erlazioan jarri nahi duen herri etimo faltsua –edo ez hain herrikoia–dutenak. Mitxelena<sup>51</sup> *Belaunde* abizena aipatzen du ustezko *-te* atzizkia daramatenen artean, baina toponimian egiantzekotasun gutxi onartzen dio atzizki horri. Gogoan izan behar da zaintza postuak izendatzeko *vela* hitza erabili izan dela batzuetan, gaztelaniazko *velar* aditzetik datorrena eta, aurreko urrats batean, *vigilar* aditzaren laburdura dena. Erromantzean baditugu esanahi horrekin lotutako hainbat toponimo: *Velilla*, *Miranda* ‘mirar’ aditzetik, *Espejo* ‘mirar’ esan nahi zuen ‘especular’ zahar bate-tik etab., baita, beharbada, euskarazko *Zaitegi* ere *zain(du)* aditzetik helduko zena. Penintsulan ezohiko abizena den arren, gaur egun *Belaunde* nahiko arrunta da Perun.

Se trata de una de las barriadas que componen la zona más céntrica del concejo, junto a Mugaburu, Mugaburugotxi y Arana. Belaunde se ubica a la vera de la carretera A-4609 que procede de Amurrio y se dirige hacia el polígono industrial de Murga, poco antes de alcanzar el puente que cruza el río Izoria.

El nombre de este barrio nos resulta de étimo incierto. El primer componente puede ser *bele* ‘cuervo’ (*Corvus corax*). *Bela*-también pudiera ser nombre de persona, que fue frecuente en la Edad Media y que aparece en *Belasko*. Al contrario que *Madoz*, que escribía *Belaunde* (1845-1850), Becerro de Bengoa en su *Libro de Álava* (1877), da la grafía en forma poco habitual, con *V*- inicial: *Velaunde*, lo que no es de extrañar, pues por simple afán de diferenciación se han difundido grafías castellanizantes del tipo *Vela* y *Velasco*, tras las que hay seguramente un falso étimo, popular –o no tanto–, que relaciona los citados antropónimos con la denominación castellana de las candelas de cera. Mitxelena<sup>52</sup> cita el apellido *Belaunde* entre los que portarían un hipotético sufijo *-te*, al que en toponimia otorga poca credibilidad. Tampoco hay de olvidar que con el término *vela*, procedente del verbo *velar* y este a su vez de *vigilar*, se designaban en ocasiones los puestos de vigilancia, algo parecido a lo que sucede con términos romances como las innumerables *Velilla*, *Miranda* de ‘mirar’, *Espejo* de ‘especular’, antiguamente ‘mirar’ y, probablemente, la eusquerica *Zaitegi*, de *zain(du)*, ‘cuidar, vigilar’. Aunque en la península es un apellido muy poco frecuente, *Belaunde* es común actualmente en Perú.

## Etxeguren

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498534, Y.4767781, alt. 305 m.

Amurriotik bereizten duten Letobe eta San Pedro gailurren arteko muinoaren mendebaldeko maldan dagoen irtengune batean kokatuta zegoen etxe multzo hau. Gaur egun etxe bakarra dago zutik, ondoan haren eraikin osagarri batzuk dituela.

<sup>51</sup> 1997, 553, 151. or.

<sup>52</sup> 1997, 553, pág. 151.

Etxeguren auzora heltzeko, Amurriotik Arespalditzara doan A-624 errepidea utzi behar da Aiarako dermioan sartzearekin batera, Saraubeko gainean bertan, handik gure eskuinera iparralderantz abiatu eta Letobe tontorra mendebaldetik zeharka saihesten duen adarra hartzeko. Dena dela, bide honek Gabiraseraino segitzen du ondoren eta, beraz, handik ere etor daiteke Amurriotik Murgara eta Olabezarko auzoburura doan A-4609 errepidetik abiatuta.

Euskarazko izen konposatu honek *etxe* ‘etxaldea’ eta *guren* ‘ederra’ osagaiak ditu eta, horrenbestez, seguru asko ‘etxe ederra’ bezala ulertu behar da. Mitxelena<sup>53</sup> eta beste ikertzaile batzuek ‘muga’ esanahia ere ematen diote *guren* erari eta, hala balitz, ‘etxearen muga’ adieraziko luke. Ohikoa da abizen bezala ere.

Era un exiguo grupo de casas situado en un pequeño resalte de la ladera occidental del montecillo que une las cumbres de Letobe y alto de San Pedro, y que lo separan de Amurrio. Hoy en día solo quedan una casa y sus edificaciones anejas. Para acceder a Etxeguren debemos dejar la carretera general A-624 que viene de Amurrio y se dirige a Arespalditza, nada más entrar en término de Ayala (Aiarara) en el alto de Saraube, para tomar un ramal que a nuestra derecha en dirección norte flanquea la cima de Letobe por el oeste. No obstante, esta ruta continúa luego hasta Garbiras, de donde también puede accederse desde la carretera A-4609 que de Amurrio se dirige a la capitalidad de Olabazar y a Murgara.

El nombre de este barrio es un compuesto del euskera *etxe* ‘casa’ y *guren* ‘hermosa’, de modo que significa seguramente ‘casa hermosa’. Mitxelena<sup>54</sup> y otros asignan además a *guren* el significado de ‘límite, linde’, significando en tal caso ‘el límite de la casa’. También es frecuente como apellido.

## Garai

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498493, Y.4768148, alt. 295 m.

Amurriotik bereizten duen San Pedro gainaren mendebaldeko magalean dagoen auzo txikia da. Izoria ibaiaren gaineko maldetan altxatzen da, erreka beste aldetik Murgako industrialdera begira. Amurriotik Olabezarko gunera nagusira eta Murgara doan A-4609 errepidetik hel daiteke Garaira, Gabiras auzoan ezkerrean dagoen adar bat hartu eta aipatutako San Pedro gaina zeharka hegoalderantz inguratuta. Garai igaror ondoren, bideak jarraitu egiten du, Etxeguren zeharkatu eta Saraubeko gaina erdiesten du Amurrio eta Arespalditza lotzen dituen A-624 errepidean. Beraz, hortik abiatuta hegoaldeko erate joan daiteke auzora.

Toponimoa ohiko adjektiboa da euskaraz, ‘altua, garaia’ esan nahi duena eta, dirudienez, *gara* forma arkaiko batean du oinarria eta, Menagaraiko Maldai auzoaren

<sup>53</sup> 1997, 295, 98. or.

<sup>54</sup> 1997, 295, pág. 98.

iruzkina egitean esan den bezala, *alde* hitzetik *aldai* hitzera eta halakoetan eman den eboluzio bera erakusten du. Gurea bezalako herrialde menditsu batean, normala da izen hau hainbat eta hainbat tokitan agertzea, hala auzo nahiz etxeak, nola aurkintza hutsak izendatzeko. Aiaratik urrunen aurkitzen dugun izen bereko lekua Azpildan dago, Bearmon, Zuberoatik ekialdera, eta euskal izena duen auzoa den arren, XIX. mendean ahitu zen euskara han. Olabezarko auzoaren izena *Garay* idatzi zuten hala Madozek (1845-1850) nola Becerro de Bengoak (1877), baina grafia gaztelaniartzaila da, hizkuntza horretan indarrean dagoen arau konbentzional baten ondorio hutsa. Izan ere, gaztelaniaz *-i* amaierako behehankoko diptongoak hitz bukaeran *-y* grafiarekin idazten dira. Logikoa denez, arau honek ez du eraginik izan behar euskarari, toponimoaren jatorrizko hizkuntzan.

Pequeña barriada ubicada en la ladera oeste del alto de San Pedro que la separa de Amurrio. Se yergue en la ladera que sobre el río Izoria da vista desde el otro lado al polígono industrial de Murga. Accedemos a Garai desde la carretera A-4609 que procede de Amurrio y se dirige a la zona céntrica de Olabazar y a Murga, para dejarla por un ramal a la izquierda en el barrio Garbiras e ir flanqueando el citado alto de San Pedro hacia el sur. El ramal continúa después de Garai para pasar por Etxeguren y alcanzar el alto de Saraube en la carretera A-624 que une Amurrio con Arespalditza, de modo que también puede accederse por el sur desde este punto.

El topónimo es un adjetivo común en euskera que significa ‘alto, elevado’ aparentemente a partir de un arcaico *gara* y con una evolución similar a la que sucede con *aldai* ‘lado, cuesta’, a partir de *alde*, etc., tal como ya se ha comentado al referirnos al nombre del barrio Maldai en Menagarai. En un país tan montañoso como el nuestro, es normal que tal denominación se repita en multitud de lugares, tanto para barrios o casas, como para simples parajes. El lugar homónimo más alejado de Ayala (Aiara) que documentamos, se halla en Azpilda (Espiate), en el Bearne, al este de Zuberoa, un barrio donde los últimos vascohablantes desaparecieron en el siglo XIX. La grafía *Garay* que tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877) dan para este barrio, es castellanizante y responde a la norma ortográfica convencional de esta lengua, por la que los diptongos finales descendentes en *-i* siempre se escriben con *-y* griega. Lógicamente, esta norma no es de aplicación en euskera, lengua originaria de nuestro topónimo.

## Garbiras

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.499230, Y.4768499, alt. 255 m.

Amurriotik Olabezarko auzo nagusira eta Murgako industrialdera doan A-4609 errepidearen ondoko zabalgunek batean dago auzo hau. Auzoko etxeak Basatxi pasatu eta Izoria ibaiko zubira doan malda hasi orduko aurkituko ditugu, geure ezkerrean, auzoburua erdietsi baino lehen.

Abizen bezala ere aurkitzen dugu auzo honen izena eta 1630etik ageri da modu horretan dokumentazioan. Etimoa zein den ez dakigu, hala ere. Egia esan, izen enig-

matiko samarra da, agiri guztietan inolako aldaketarik gabe forma bakar horretan dokumentatzen dena. Horregatik uste dugu garai hartako ohiko hitzen bat izango zela, baina gaur egun ez daukagu haren esanahiaren gaineko daturik. Beste izen batzuekin lotzea erraza izan daiteke, hala nola *Garbe*, *Garbera*, *Garbiso* etab.<sup>55</sup>, eta Mitxelenaen esanetan<sup>56</sup> haietako batzuk *garbi* hitzarekin erlazionatuta egon litezke. Zuhurtzia baino harago joatea da hori gure ustez, arriskutsu samarra. Beste etimologia batzuk ere eman dira, ‘gainaren azpiko iralekua’<sup>57</sup>, baina ez dira aintzat hartzeko modukoak.

Barriada que se ubica en un llano a la vera de la carretera A-4609 que procedente de Amurrio se dirige a la zona céntrica del concejo de Olabazar y al polígono de Murga. Encontramos las casas de Garbiras nada más iniciar el descenso que después de Basatxi conduce al puente sobre el río Izoria, y antes de alcanzar la capitalidad a nuestra izquierda.

El nombre de esta barriada, que también hallamos como apellido, se documenta ya en esta forma desde 1630. No acertamos a desvelar su étimo. En efecto, el nombre es enigmático ya que, por documentarse históricamente así, sin ninguna variación, debe ocultarnos algún término que fuera de uso común pero que hoy desconocemos. Resulta fácil intentar emparentarlo con otros como *Garbe*, *Garbera*, *Garbiso*, etc.<sup>58</sup>, algunos de los cuales Luis Mitxelena<sup>59</sup> relacionaba con *garbi* ‘limpio’. Pero ello supone arriesgar mucho más de lo que la sensatez nos permite. Otras opciones etimológicas dadas como ‘helechal de debajo del alto’<sup>60</sup> son insostenibles.

## Mugaburu

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498998, Y.4768844, alt. 230 m.

Kontzejuko auzoburua identifikatzeko, maiz Olabazar deitu ohi dena osatzen du auzo honek Belaunde, Arana eta Mugaburugotxirekin batera. Haietarik urrutien dagoen auzoa da, Amurriotik Murgako industrialdera doan A-4609 errepidearen eskuintean, baina bidetik apur bat aldendurik dago. Mugaburuko etxeetara doan bidea San Babilas ermitara doana baino apur bat aurrerago dago, Belaundera heldu baino lehen. Auzoko lehenengo etxeari La Ibarra esaten zaio jabearen abizenagatik, eta seguruenik Olabezarko etxerik zaharrena izango da.

Auzo honen izena euskal konposatua da, *muga* eta *buru* hitzez osatua eta, beraz, ‘mugaren gainean’ esan nahi duena. 1930ean *Mugauro* forma desitxuratua aurkitzen

<sup>55</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 90.

<sup>56</sup> 1997, 261, 93. or.

<sup>57</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>58</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 90.

<sup>59</sup> 1997, 261, pág. 93.

<sup>60</sup> Barrenengoa, 1990.



dugu. Azentua azken hirugarren silaban duela ahoskatzen da, *Mugáburu*. Horregatik, ahozko hizkeran azentudun silabaren ondoko bokala galduta entzun daiteke ere: *Mugábru*.

Barrio que junto a Belaunde, Arana y Mugaburugotxi conforma lo que comúnmente suele designarse Olabezar para identificar la capitalidad del concejo. Es de todos ellos el más alejado, pues se ubica a la vera derecha de la carretera A-4609 que procedente de Amurrio se dirige al polígono de Murga, pero algo alejada de aquella. El ramal que se dirige a las casas de Mugaburu se halla poco más adelante del que conduce a la ermita de San Babilas, antes de llegar a Belaunde. La primera casa del barrio, denominada La Ibarra por el apellido de su propietario, será seguramente la más antigua de Olabezar.

El nombre de este barrio procede de la composición eusquérica *muga* 'límite, frontera' y *buru* 'cabeza, sobre'. Significa por lo tanto 'sobre el límite'. En 1930 lo documentamos en la forma trastocada *Mugauro*. Se pronuncia con el acento en la antepenúltima sílaba, *Mugáburu*. Por esta razón es posible hallar en el uso oral formas sin la vocal posterior al acento: *Mugábru*.

## Mugaburugotxi

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498976, Y.4768656, alt. 255 m.

Eliza nagusitik gertu dagoen auzoa da, Belaunde, Arana eta Mugabururekin batera zenbait mapatan auzoburutzat hartzen dena, multzo bakar horri kontzejuaren izen bera ematen zaiola. Amurriotik Murgako industrialdera iparraldetik doan A-4609 errepidearen ezkerrean dago. San Babilasera doan adarraren parean hasten da auzo



*Ikuspegia Mugaburugotxi auzotik*  
Vista desde la barriada Mugaburugotxi

honetara joateko bidea, errepideaz beste aldetik ordea. Auzo honetako eskolan egiten dira gaur egun kontzejuko batzarrak, eta beheko solairuan gizarte zentro bat egokitu da.

Auzo honen izenak gorago iruzkindu den *Mugaburu* izenari egiten dio erreferentzia, euskal konposatu gardenean *Mugaburu* auzo izenari *goiti* kokatzailea erantsi baitzaio, ‘goikoa’ edo ‘altua’ adiera duena. Beraz, ‘Mugaburu goikoa’ litzateke izenaren esanahia. Seguru asko eskualdeko euskarazko ahoskera baten aztarna gisa, Aiara oso ohikoa da *-ti* amaiera duten euskal hitzen garapenak *-txi* ematea, eta hortik heldu zaigu *-goiti* > *-gotxi* aldaketa.

Barrio próximo a la iglesia parroquial y que junto a Belaunde, Arana y Mugaburu, suele rotularse en los mapas como capitalidad del concejo y con su mismo nombre. Se halla a la izquierda de la carretera A-4609 que procedente de Amurrio se dirige al polígono de Murga por el norte. El acceso es un carril a la izquierda, justo en el lado opuesto al que se dirige a San Babilas, habiendo dejado atrás el barrio de Garbiras y antes de llegar a Belaunde. En la escuela sita en esta barriada, se celebran en la actualidad las reuniones del concejo, y en el piso inferior se ha habilitado un centro social.

El nombre de este barrio hace referencia al *Mugaburu* citado anteriormente, pues es un diáfano compuesto vasco de ese nombre más *goiti* ‘de arriba’ o ‘alto’, significando por tanto ‘Mugaburu de arriba’. En Aiara es muy normal, seguramente como residuo de la pronunciación vasca local de antaño, que las palabras vascas acabadas en *-ti* evolucionen a *-txi*, de donde, *-goiti* > *-gotxi*.

## San Babilas

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.499189, Y.4768829, alt. 235 m.

Etxe bat eta ondoko santuaren ermitaz osatutako auzo txiki bat da. Ermita hori Bakearen Andra Mariari ere eskainita dago. Urtarrilaren 24an izaten da hemengo jaieguna, orduan ospatzen baita San Babilas Antiokiako (Turkia) gotzainaren eguna. Bitxikeria gisa, egun horretan goizeko bederatzietan sukaldarien omenezko meza ematen da. Halaber, eskualdean San Babilas amaginarreben zaindaritzat ere hartu ohi da eta, tradizioaren arabera, santu honengana jotzen dute inguruko emakumeek alabentzako senar egokien eske, honako esaera errezitaturik: «San Babilas, San Babilas, buen yerno me darás», hots, ‘San Babilas, San Babilas, suhi ona emango didazu’. Diotenez, behin batean Olabezarko emakume batek ez zuen suhia oso gustuko eta, nahigabeturik, ermitara itzuli zen santuari gaizki esaka beste errima batekin erasotzeko: «San Babilas cara de cuerno, como tienes la cara, me diste(s) el yerno», hau da, ‘San Babilas ezain zatar hori, aurpegia daukazun bezalakoa eman zenidan suhia’. Izoria ibairantz leunki jaisten den malda batean dago ermita, mendebaldeko magaleko ordoki batean. Amurriotik San Babilasera heltzeko Olabazar nahiz Murgara doan A-4609



*San Babilas ermita*  
Ermita de San Babilas

errepidetik joaten da. Garbiras auzoa igaro eta gero, eskuinera dagoen adar batetik desbideratu eta berrehun bat metrotara helduko gara ermitara.

Aiaran debozio handia izan zuen gotzain santu honen ermitari egiten dio izenak erreferentzia. Madozek (1845-1850) kontzejuko ermita bakarra omen zen tenplu txiki baten berri ematen digu, eta *San Babil* adbokazioa ematen dio. Bertakoek azentua azken silaban jarri ohi dute herri ahoskeran: *San Babilás*.

Pequeño barrio que conforman una casa bastante moderna y la próxima ermita del santo. La ermita también tiene por cotitular a Nuestra Señora de la Paz. La fiesta local se celebra el día 24 de enero, día de San Babilas obispo de Antioquía (Turquía). Curiosamente, a las nueve de la mañana de esta festividad suele celebrarse una misa en honor de las cocineras. Asimismo, San Babilas está considerado en la zona como el patrón de las suegras ya que, según la tradición, estas acuden a él en solicitud de un buen marido para sus hijas recitando el dicho «San Babilas, San Babilas, buen yerno me darás». Se cuenta que en cierta ocasión en que el yerno no resultó del agrado de una suegra de Olabezar, esta, contrariada, regresó a la ermita para increpar al santo con otro rimado: «San Babilas cara de cuerno, como tienes la cara, me diste(s) el yerno». El emplazamiento se dibuja en un llano de la ladera que mirando al oeste desciende suavemente hacia el río Izoria. Para acceder a San Babilas partiendo de Amurrio se ha de seguir la carretera A-4609 que se dirige a Olabezar y Murga, y dejarla tras superar el barrio Garbiras por un ramal a la derecha que en unos doscientos metros nos conduce al citado templo.

El nombre hace referencia a la ermita de este santo obispo que gozó de intensa devoción en Ayala (Aiara). Madoz (1845-1850) da noticia del pequeño templo, única ermita del concejo, a la que asigna la advocación de *San Babil*. Suele pronunciarse localmente con el acento en la última sílaba: *San Babilás*.

## Saraube

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498709, Y.4767213, alt. 295 m.

Amurriotik Arespalditzara A-624 errepidetik abiatuz gero, Aiara udalerriaren sarreran dagoen auzoa da. Barreiatutako etxeak 43. puntu kilometrikoa baino apur bat aurrerago daude. Auzo honetan daude, halaber, *Saraubeko mahaiko gaina* eta *Saraubeko zelaia*, antzina Aiarerriko Batzarra elkartzen zen lekua eta, gaur egun errepede horretan dagoen gain xume bat dena, Amurrio eta Aiara arteko mugan, hain zuzen ere.

Agiri historiko ugari dago eta duela mende bat baino gutxiagora arte ageri den forma bakarra *Saraube* da. Ahozko erabilera tradizionala ere halakoa da, *Saráube* azen-tuazioarekin. Hala ere, XX. mendeko lehen herenean *Zaraobe* aldaera modernoa hasi zen erabiltzen, eta ez dugu haren jatorriaren nahiz zergatiaren berririk. Tamalez, forma ez-zuzen honek ospe handia lortu zuen eta ofizial ere bihurtu zen, halako eran non jatorrizko toponimoaren desagerketa ia erdiesteraino heldu baitzen. Horregatik, izen horri buruzko irizpena eman beharraren aurrean, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak<sup>61</sup> jatorrizko *Saraube* forma zuzena, gaur egun bizia, lehenetsi zuen. Batzuetan auzo hau eta *La Serna* parekotzat jo dira, baina azken izen honek San Pedroren hegoaldeko gailurra den Letobe gainaren oinean kokatutako etxe bati egiten dio erreferentzia. Tokiak garrantzi historiko handia izan duenez, gomendagarria iruditzen zaigu *Saraube* toponimoari lehenetasuna ematea. Bere aldetik, *Serna* erromantzezko hitz generikoa da, ‘ereindako lursaila’ esan nahi duena. *Saraube* hitzaren etimoa, aldiz, ez da argia, baina *sarobe* hitzaren aldaera izan liteke ‘sarioa, artzain ola’<sup>62</sup>, edo honen aldaera den *saroi*, gehi *-be* atzizkia, ‘beheko sarioa’.

Es la barriada que da entrada al término municipal de Ayala (Aiara) viniendo de Amurrio por la carretera general A-624 que se dirige a Arespalditza. Las casas se encuentran dispersas poco después del punto kilométrico 43. En este barrio se encuentran el *Alto de la Mesa de Saraube* y la *Campa de Saraube*, lugar en que se reunían tradicionalmente las Juntas de la Tierra de Ayala (Aiarerria), y que hoy es un modesto alto en la citada carretera, límite en efecto entre los términos municipales de Amurrio y Ayala.

Hasta hace menos de un siglo, la única forma que aparece en la abundante documentación histórica es *Saraube*. Es así, acentuada *Saráube*, como se articula en el uso oral tradicional. Sin embargo, en el primer tercio del siglo XX irrumpe una modificación moderna del nombre, *Zaraobe*, cuyo origen y motivaciones desconocemos. Desgraciadamente, esta incorrecta opción adquirió gran popularidad e incluso oficialidad, haciendo prácticamente desaparecer el topónimo originario. Por esa razón, al tener que dictaminar sobre dicho nombre, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia)<sup>63</sup>, dio prioridad a la forma tradicional, correcta y aún en uso *Saraube*. En ocasiones, este barrio se

<sup>61</sup> Ziordian izandako bileran, 2006ko urtarrilaren 20an.

<sup>62</sup> Mitxelena, 1997, 539, 148. or.

<sup>63</sup> Sesión celebrada en Ziordia, el 20 de enero de 2006.

ha presentado como equivalente a *La Serna*, pero en realidad esta última denominación hace referencia a la casa que se halla al pie del pico Letobe, cima sur de San Pedro. En atención a la importancia histórica del lugar, creemos aconsejable priorizar el topónimo *Saraube*. Por su parte, *Serna* es un genérico romance que significa 'campo de tierra de sembradura'. El étimo de *Saraube* no resulta claro, pero podría tratarse de la palabra *sarobe*, 'majada'<sup>64</sup> o su variante *saroi* con el sufijo *-be* 'bajo'.

## Ugarte

Etxea / Casa: ED50 30T X.498082, Y.4768355, alt. 225 m.

Hiru etxebizitzako etxe bat da, Izoria ibaiaren ertzean eta Murgako industrialdearen aurrez aurre dagoena. Amurriotik datorren A-4609 errepidetik ailegatzan da auzora, kontzejuaren erdialdeko auzoak atzean utzi eta Izoriaren gaineko zubia zeharkatu baino lehen ezkerrean aurkituko dugun adarra hartuta. Artza auzotik igaro eta ehunka metro batzuk aurrerago helduko gara Ugartera. Herriko beste errepide apalago batzuetatik ere joan daiteke, Arriagatik Etxegurenen zehar, edo Mugaburugotxitik Abo eta Garai igarota. Lope García de Salazarrek zioenez (1475), auzo honetan eraiki zuen bere dorretxea Ospin leinuko ondorengoetako batek. Aiarerriko ospindarren leinu horretaz azalpen bitxia eman zuen aipatutako kronikagileak:

«El linaje de Ospines su fundamento fue de Urti Uspina, fijo vasterdo de don Furtud Sanchez de Salzedo, Señor de Ayala, que poblo en Mariaça, de donde sucedieron los Ospines. E ovieron este nonbre porque este Furtud Ospina era omne perverso e llamaronle de Ospina, que dize de vascuence vinagre. E d'estos, los que mas valieron e valen fueron los de Ugarte, que un escudero de Çumelcu de Arratia poblo en Ugarte. E caso con nieta d'este Furtud Ospina e fizo en ella a Juan Ferrandez de Ugarte, que fizo el solar e cadalso de Ugarte [...] E d'este linaje de Ospines e de Ugarte ay muchos buenos omes, que son juntos en el».

*Ugarte* oso ohiko toponimoa da Euskal Herrian. Etimologia argia da, eta bere osagaiak *ur* 'ura' edo 'ibaia', eta *arte* 'bitartean' dira, eta toponimian 'erreken artean' edo 'irla, uhartea' adieraz dezake. Euskal Herriaren erdi-ekialdean hasperenketaren hondar grafiko eta guzti erabili ohi da, *Uharte*, ahoz erabiltzen ez denean ere, eta mendebaldeko gure *-g-dun* aldaeraren baliokidea dena. *Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>65</sup> ez du auzoa izendatzen, baina handik gertu *Algarte* izena dakar, seguru asko transkribaketa, tipografia eta kokapen akats baten ondorio.

Se trata de una casa con tres viviendas, que se ubica a orillas del río Izoria frente al polígono industrial de Murga. Se accede desde la carretera A-4609 procedente de Amurrio, tras dejar atrás los barrios céntricos del concejo, por el ramal que encontramos a nuestra izquierda justo antes de cruzar el puente sobre el Izoria. Pasamos por el barrio Artza y unos cientos de metros más adelante llegaremos a Ugarte. También se puede acceder por carriles

<sup>64</sup> Mitxelena, 1997, 539, pág. 148.

<sup>65</sup> 1997, 86-III.

locales desde Arriaga por el barrio de Etxeguren, o desde Mugaburugotxi pasando por Abo y Garai. Según Lope García de Salazar (1475), en este barrio levantó su casa-torre uno de los descendientes del linaje de los Ospines, noble familia de Ayala de la que nos da una curiosa descripción el citado cronista:

«El linaje de Ospines su fundamento fue de Urti Uspina, fijo vastardo de don Furtud Sanchez de Salzedo, Señor de Ayala, que poblo en Mariaça, de donde suçedieron los Ospines. E ovieron este nombre porque este Furtud Ospina era omne perverso e llamaronle de Ospina, que dize de vascuence vinagre. E d'estos, los que mas valieron e valen fueron los de Ugarte, que un escudero de Çumelcu de Arratia poblo en Ugarte. E caso con nieta d'este Furtud Ospina e fizo en ella a Juan Ferrandez de Ugarte, que fizo el solar e cadalso de Ugarte [...] E d'este linaje de Ospines e de Ugarte ay muchos buenos omes, que son juntos en el».

*Ugarte* es un topónimo vasco muy común en el país. La etimología es clara, pues se trata de un compuesto de *ur* 'agua, río', y *arte* 'entre', que en toponimia significa por tanto 'entre ríos' o 'isla'. En la parte centro-oriental del país se usa sin el residuo oral, aunque sí gráfico, de la aspiración: *Uharte*, que es equivalente a nuestra forma occidental con -g-. El *Mapa Topográfico Nacional*<sup>66</sup> no rotula el barrio, pero hace constar cerca el nombre *Algarte*, segura-mente error de transcripción, tipografía y ubicación.

## Uriarte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.498299, Y.4767530, alt. 280 m.

Aretxabala eta Murgako industrialdera eta mendebaldera begira dagoen bizkar txiki batean luzetara sakabanatuta dagoen auzoa da. Amurriotik Arespalditzara doan A-624 errepidearen eskuinean dagoen zorbide batetik joaten da, bizkarraren gainetik abiatu eta haren bazterrean lerrokatzen diren etxeak erdiesteko. Bidegurutzte hau A-624 errepideko 44. puntu kilometrikotik gertu dago, Arriagako etxeak igaro eta IZoria ibairako jaitziera azkarrari ekin baino lehen.

Auzoaren izenean kontsonante likidoen nahastea ( $r > l$ ) eta palatalizazioa ( $l > ll$ ) gertatu eta *Ullarte* forman agertzen da maiz. Ahoz *Ullárte*, *Uliárte* eta *Uriárte* aldaerak entzun daitezke, nahiz eta agian azken biak seinaleztapen ofizialen ondorio izan daitezkeen. Hala ere, 1877an Becerro de Bengoak *Uriarte* forma aipatu zuen, eta ez dugu uste euskal era ortografikoago bat normalizatzeko asmoz egingo zuenik, garai hartan eta idazle horrengan harritzekoa bailitzateke. Euskal jatorri argiko izena da, mendebaldeko *uri* aldaera, 'hiri' estandarren baliokidea eta 'etxea, biztanledun lekua' ere esan nahi duena, gehi *arte* postposizioaz osatua dago: 'herrien edo etxeen artean' nahiz 'erdiko etxea'. Oñati (Gipuzkoa) eta Aiara bitartean, izen bereko 32 baserri dokumentatzen ditugu, denak bizkaiera edo mendebaldeko euskalkiari dagokion eremuan eta, gainera, Araban ere oso ohiko toponimoa da.

Barriada dispersa a lo largo de una pequeña loma que se asoma al oeste hacia Aretxabala y al polígono industrial de Murga. Se accede a ella por un ramal de servidumbre que de

<sup>66</sup> 1997, 86-III.

la carretera A-624 entre Amurrio y Arespalditza se desprende a la derecha para recorrer la loma y dar acceso a las casas que quedan a su orilla. El cruce se halla cerca del punto kilométrico 44 de la citada A-624, poco después de pasar las casas de Arriaga y antes de iniciar el decidido descenso hacia el río Izoria.

El nombre de este barrio aparece a menudo con confusión de líquidas ( $r > l$ ) y palatalización ( $l > ll$ ) en la forma *Ullarte*. Oralmente se pueden oír *Ullárte*, *Uliárte* y *Uriárte*, aunque es posible que las dos últimas formas sean consecuencia de la señalización oficial. Sin embargo, en 1877 Becerro de Bengoa le asignaba la forma *Uriarte*, sin que se pueda formular sospecha de intención de normalizar una forma vasca más ortográfica, poco probable en aquella época y en este autor. El nombre, de origen claramente eusquérico, pudiera ser un compuesto de la forma occidental *uri* 'villa' o 'casa, lugar habitado', que en euskera estándar es (*h*)*iri*, más *arte* 'entre': 'entre casas o aldeas' o 'la casa del medio'. Documentamos al menos 32 caseríos de este nombre desde Oñati (Gipuzkoa) hasta Ayala (Aiara), todos ellos dentro de la zona de habla vizcaína u occidental, siendo además un topónimo muy común en toda Álava (Araba).

## Opellora / Costera



1932



2000

Opellora edo Costera izeneko kontzejuak Zaballa mendiaren ekialde guztia hartzen du ia. Iparraldean Lanteno eta Artziniega ditu, mendebaldean Soxo, hegoaldean Erretes eta ekialdean Menagarai. Madozen arabera (1845-1850) honako auzo hauek bereiz zitezkeen haren dermioan: Ibaizabal, Chabarri, Norzagaray eta Mendico, denak sakabanatuta. Becerro de Bengoak 1877an Chabarri, Ibaizabal eta Mendico etxaldeak baino ez zituen aipatzen, seguruenik autore honentzat Inorritzagarai auzo nagusia zelako. 1514an Juan Martines de Sojo zen San Miguel de Opellora elizako apaiza, baita aldi berean Aiarako notarioa ere. Bada beste bitxikeria bat ere: Tomas López geografoari XVIII. mendean bidalitako herrien zerrendan Aiarako herri guztiak ageri dira, Opellora izan ezik. Badator, ordea, Tudelako bikariotzako herrien 1769ko erroldan, Opellona (sic) izendatzen bada ere. XIX. mendearen erdi aldera 46 biztanle zituela zioen Madozek. 1950eko Nomenclátor delakoan 49 zituen eta 1970ean 30 baino ez. 2000ko erroldan argi ikusten da biztanleriaren beherakada mantso baina etengabeak bere horretan jarraitzen duela, 25 biztanle baitzeuden Opelloran erroldaturik.

Kontzeju honen jatorrizko izena, gaur egun koofiziala, *Opellora* da. Nabarmentzekoa da 1643an Casilda de Agirrerren testamentuan *San Miguel de Opellora* eta *San Martín de Costera* biak agertzen direla aldi berean aipatuak, baina gero jatorrizkoari *Costera* gailendu zitzaion. Izen hau ageri da, adibidez, Federico Barrenengoaren *Onomástica de la Tierra de Ayala* lanean, eta izenaren historia laburra ere badakar:

«A partir de 1750, para designar al pueblo, se usa frecuentemente el nombre de 'La Costera', que hasta esta fecha figuraba como 'Opéllora'. Desde 1830 es siempre 'Costera', sin artículo. Sin embargo, el patrón de la parroquia sigue siendo San Miguel de Opéllora, por lo menos hasta 1899».





*Opellorako ermita eta Inorritzagarai auzo nagusia Zaballa mendiaren magalean*  
Ermita de Costera y barrio principal Inorritzagarai en la ladera del pico Zaballa

Erromantzezko *costera* substantiboa oso erabilia izan da eta sail malkartsuak izendatu ditu gehienetan. Kasu honetan kontzejuaren orografiarekin oso ongi letorke izena. Izan ere, lehen esan dugun bezala, Zaballa mendiaren ekialdeko magalean dago, Artziniegako mugan. Izenaren eboluzioa eta aldaketa azaltzeko, honako ibilbide hipotetiko hau formula liteke: *Opellora* > *La Costera de Opellora* > *La Costera* > *Costera*. Dena dela, *Opellora* izenak bizirik zirauen indartsu 1861ean, urte horretan ingurueta-ko haur abandonatu bati abizen hori jarri baitzitzaion. Gogoan izan behar dugu, gainera, *Costera* forma agian euskaraz ere erabili izan dela, eta hala uler daiteke 1770ean dokumentatzen den *Costeramendieta* toponimoagatik. Baina kasu honetan eskribauaren akatsa izan zela uste duenik bada<sup>1</sup>, eta daitekeena da berez entitate desberdin biren izena izatea: *Costera* eta *Mendieta*. Toponimoaren esanahia bereziki iluna da, eta zaila da zer esan nahi duen zehatz-mehatz argitzea. Balizko zenbait hipotesi bada eta, besteak beste, Ingrid Horchek (1992) iradoki zuen (*villa*) *superiora*-ren eboluzioa izan zitekeela. Zalantzas bada ere, F. Mugurutzak<sup>2</sup>, aldiz, *Opilius* pertsona izenetik eratorria izan daitekeela dio, eta *Opilius* horrek amaieran ohikoa den baina esanahi argirik ezagutzen ez zaion partikula bat eramango luke erantsita, *Gongora* eta *Ekora* bezalako izenetan ikusten dugun berbera, hain zuzen ere.

<sup>1</sup> Oribe, 2001.

<sup>2</sup> 2000, *Zaraobe*, 71.

El concejo de Costera u Opellora ocupa casi en su totalidad la ladera oriental del pico Zaballa. Limita al norte con Lanteno y Artziniega, al oeste con Soxo, al sur con Erretes y al este con Menagarai. Según Madoz (1845-1850) se distinguían en su término los barrios de Ibaizabal, Chabarri, Norzagaray y Mendico, «todos dispersos». Becerro de Bengoa en 1877 citaba los caseríos de Chavarri, Ibaizabal y Mendico, seguramente porque entendía que Inorritzarrai era la capitalidad. En el año 1514 Juan Martines de Sojo era cura y clérigo de San Miguel de Opellora, siendo a su vez notario de Ayala (Aiara). Curiosamente, en la relación de pueblos enviada al geógrafo Tomás López en el siglo XVIII, Costera (Opellora) es el único pueblo de la Tierra de Ayala que no figura. Sin embargo, sí aparece en la relación de pueblos de la vicaría de Tudela, datada en 1769 y donde se le llama Opellona (sic). A mediados del siglo XIX, Madoz le asignaba 46 almas. En el *Nomenclátor* de 1950 contaba con 49 habitantes, que en 1970 habían descendido a 30. En el padrón del año 2000, el lento e imparable descenso de la población continúa haciéndose patente, pues ya solo se censan en Costera (Opellora) 25 habitantes.

La denominación original y hoy en día cooficial de este concejo es *Opellora*. Es de destacar que en 1643 en el testamento de doña Casilda de Agirre aparecen citados simultáneamente *San Miguel de Opellora* y *San Martín de Costera*, pero posteriormente el nombre *Costera* se impuso sustituyendo al original. Así figura, por ejemplo, en la obra de Federico Barrenengoa, *Onomástica de la Tierra de Ayala* donde, entre otras cosas resume así la historia de la denominación:

«A partir de 1750, para designar al pueblo, se usa frecuentemente el nombre de 'La Costera', que hasta esta fecha figuraba como 'Opéllora'. Desde 1830 es siempre 'Costera', sin artículo. Sin embargo, el patrón de la parroquia sigue siendo San Miguel de Opéllora, por lo menos hasta 1899».

El sustantivo romance *costera* ha sido de uso habitual y designa normalmente terrenos en pendiente, lo que parece muy ajustado a la realidad orográfica del concejo que, como hemos dicho, ocupa la ladera oriental o costado del pico Zaballa, lindante con Artziniega. Cabría además formular la hipótesis de una evolución *Opellora* > *La Costera de Opellora* > *La Costera* > *Costera* para explicar la evolución y cambio de denominación. Sea como fuere, la vitalidad del nombre *Opellora* puede constatarse hasta 1861, año en que a un niño expósito de la zona se le dio ese apellido. También hay que recordar que la forma romance *Costera* pudiera haber sido igualmente usada en euskera, como demuestra el topónimo *Costeramendieta* documentado en 1770. Sin embargo, hay quien plantea<sup>3</sup> para este último caso un error del escribano, ya que pudiera hacer referencia a los nombres de dos entidades: *Costera* y *Mendieta*. El significado del topónimo es especialmente oscuro por lo que resulta difícil pronunciarse con rotundidad. Dentro del campo de las posibles hipótesis resolutivas, Ingrid Horch (1992) sugirió que pudiera tratarse de una evolución de *(villa) superiora*, mientras F. Mugurutza<sup>4</sup> sugería, no sin ciertos reparos, la opción de derivarlo del nombre personal *Opilius* al que se añadiría la partícula final, tan común como enigmática, que vemos presente en nombres como *Góngora*, *Yécora*, etc.

<sup>3</sup> Oribe, 2001.

<sup>4</sup> 2000, *Zaraobe*, 71.

## Etxabarri

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492113, Y.4772602, alt. 250 m.

Zaballa mendiaren magalaren erdian eta Inorritzagarai izeneko gunen nagusia baino beherago dago auzo hau, Lanteno kontzejuko auzoburutik nahiko gertu. Inorritzagaraitik bertatik joan daiteke zementuzko pista batean behera edo A-3630 errepi-detik, Lantenotik Erretesera goazela, kontzeju honetara doan bidegurutzea baino lehen eskuinera pista hura hartuz. Madozek (1845-1850) Ibaizabal eta Etxabarri arteko bidean San Balentin ermita zegoela zioen, baina seguruenik datua ez da zuzena, auzo honetara doan pistaren eskuinean San Martin toponimoa dokumentatzen baitugu herriko kartografian, eta jendeak adokazio hori gogoan du oraindik garai bateko ermita bat bezala.

Auzoaren izena *Chabarria* (1676) eta *Chabarri* (1696) bezala dokumentatuta dago eta *Etxabarriaren* aldaerak dira biak ere, hasierako *E-* galdu dutenak, seguru asko *de* preposizioarekin nahastu zutelako. Hasieran idatzizko dokumentuetan bakarrik ageri da nahaste hau, baina euskara galdu ahala, ahozkoan ere hedatzen hasiko zen. Ohikoa da euskaraz *-a* artikulua galtzeko joera, gehienetan deklinabideko atzizki batzuk erans-tean ezkutatu ohi delako: *Etxabarriko*, *Etxabarritik* etab. Esanahia argia da, *etxe* eta *barri* hitz arruntez osatua baitago, azken hau 'berri' estandarren mendebaldeko aldaera. Honi buruz ohartu behar da, *Mapa Topográfico Nacionalean*<sup>5</sup> *Txaberri* era akas-tuna ageri dela.

Se trata de una barriada emplazada a media ladera del pico Zaballa bajo la capitalidad llamada Inorritzagarai, y próxima al sur del barrio capital del concejo de Lanteno. Se puede acceder desde el propio Inorritzagarai bajando por pista de cemento, o desde la carretera A-3630, tomando aquel carril desde un cruce a la derecha según vamos de Lanteno a Erretes, poco después del cruce que se dirige a este concejo. Madoz (1845-1850) cita en el camino entre Ibaizabal y Etxabarri la ermita de San Valentín, pero seguramente se trata de un error, pues a la derecha de la pista que sube a este barrio, documentamos en la cartografía local el topónimo San Martín, advocación que aún se recuerda en la memoria popular como una antigua ermita.

El nombre de este barrio se documenta en la forma *Chabarria* (1676) y *Chabarri* (1696). Se trata de una variante de *Etxabarria* con pérdida de *E-* inicial, seguramente por confusión con la preposición *de*. Esta confusión se da inicialmente en la documentación escrita y con la extinción del euskera pasa a usarse también oralmente. La desaparición del artículo *-a* es un fenómeno común en la lengua vasca, normalmente inducido por su elisión al añadir ciertos sufijos declinativos: *Etxabarriko*, *Etxabarritik*, etc. El nombre significa con toda claridad 'casa nueva' de *etxe* 'casa' y *barri*, variante occidental del estándar *berri* 'nueva'. A este respecto cabe añadir que el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>6</sup> le rotula erróneamente la forma *Txaberri*.

<sup>5</sup> 1997, 86-I.

<sup>6</sup> 1997, 86-I.

## Ibaizabal

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492458, Y.4772759, alt. 190 m.

Ibaizabal ibaiaren ezkerrean dago auzo hau, eta seguru asko ibai horri egingo dio erreferentzia izenak. Ibaiaren meandro batek inguratzen duen ibar txiki batean dago, Arespalditzatik Artziniegara doan A-624 errepidearen ondoan, gutxi gorabehera 52. puntu kilometrikoaren aldirietan. Hemendik gertu, iparraldean, Satia izena duen Lanteno kontzejuko auzoburua dago. Ibaizabalgo etxe batzuk Lanteno kontzejukoak dira eta bat Menagaraikoa, eta horregatik aipatzen dugu kontzeju haietan ere. Bada Ibaizabalen errota bat eta agirien arabera Kexaako monasterioko lekaiameena zen, Fernán Pérez de Ayalak emanda eta gaur egun zaharberritzekotan dagoena.

Euskal izena da erabat eta osagai bi ditu: *ibai* eta *zabal*. Nahiz eta *ibai* oso antzinako hitza izan, ez da ohikoa toponimian aurkitzea, horren ordez *ur* edo *erreka* erabiltzen baitira maizago. Aiarako jatorrizko ahoskera zuzena *Ibáizabal* da eta gaur egun oraindik erabiltzen den arren, gero eta gehiagotan entzuten da zuzena ez den *Ibaizábal* azentuazioa.

Barrio situado a la orilla izquierda del río Ibaizabal, al que seguramente hace referencia el nombre. Se ubica en una pequeña vega formada por un meandro del río, junto a la carretera A-624, que de Arespalditza se dirige a Artziniega, aproximadamente en torno al punto kilométrico 52. Próxima al norte se halla la capitalidad del vecino concejo de Lanteno, conocida como Satia. Ibaizabal tiene algunas casas pertenecientes al concejo de Lanteno y una al de Menagarai, razón por la que también lo citamos allí. Existe en el lugar de Ibaizabal un molino que, según la documentación, poseían aquí las monjas del monasterio de Quejana (Kexaa) por cesión de Fernán Pérez de Ayala, y que en la actualidad se pretende restaurar.

El étimo del nombre es claramente eusquérico, siendo un compuesto de *ibai* 'río' y *zabal* 'ancho'. Aunque *ibai* es palabra muy antigua, no es frecuente hallarla en toponimia, siendo más común para designar los cursos fluviales *ur* 'agua' o *erreka* 'regato'. La pronunciación correcta propia en Ayala (Aiara) y todavía en uso, es *Ibáizabal*, no *Ibaizábal* como modernamente se ha empezado a utilizar.

## Inorritzagarai

Kontzejuko auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.491599, Y.4772434, alt. 350 m.

Kontzejuko auzorik garaiena da eta hemendik oso gertu, Erretesera jaisten den errepidearen ezkerreko hegian, Done Mikel Goiaingeruaren eliza nagusia dago, kokaleku ederrean. Eliza hori 1950ean berreraiki zuten. Gaur egun ingurua apur bat itxuraldatuta dagoen arren, hortik gertu kontzejuko hilerria zegoen, baina gaur egun Erreteskoa erabiltzen da. Ez dago kontzeju etxerik eta horregatik Satian egiten dira bilerak urtean bitan edo.



*Opellorako eliza eta Inorritzagarai auzoko etxeak*  
Iglesia de Costera y casas del barrio Inorritzagarai

Toponimo gardena da. Batetik, Lantenoko kontzejuko auzo baten izena den *Inorritza* daukagu eta, bestetik, *garai* izenondoa ‘Inorritza goikoa’ edo ‘Inorritzaren gainean’. Argi dago gaztelaniaz aritzean toponimoak hasierako eta azentuaren ondoko bokalak galdu egin dituela (> *Norzagarai*). Erreferentzia den auzoari edota etimologiari buruzko datu gehiago nahi izanez gero, ikus Lanteno kontzejuko *Inorritza* izenerako esandakoak. Azken urteetan, seinaleztapen okerraren ondorioz, kanpotarrek *Costera* deitu izan diote auzo honi, hemen baitago izen hori duen trafikoko seinalea. Konpondu beharreko akatsa da, ordea.

Se trata del barrio más alto del concejo, cerca del cual, a mano izquierda de la carretera que baja hacia Erretes, se encuentra la pequeña y bien ubicada iglesia parroquial de San Miguel Arcángel reedificada en 1950. Aunque hoy el paraje está un tanto desfigurado, próximo a ella se ubicó el cementerio del concejo, cuyo servicio cumple hoy el de Erretes. No hay casa del concejo, por lo que las reuniones, unas dos al año, se hacen en Satia.

Es un topónimo diáfano, compuesto de *Inorritza*, nombre de un cercano barrio de Lanteno, y *garai* ‘alto’, significando, por tanto, ‘Inorritza de arriba’ o ‘sobre Inorritza’. Parece claro que el topónimo ha perdido en el uso hablado en castellano sus vocales inicial y postónica (> *Norzagarai*). Para más datos acerca del barrio referente y su étimo, véase lo dicho para *Inorritza* del concejo de Lanteno. En los últimos años y como consecuencia de la deficiente señalización, los foráneos han tendido a llamar *Costera* a este barrio, por estar aquí la señal de tráfico con dicho nombre. Es a todas luces un error que se debe subsanar.

## Mendiko

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.491810, Y.4771633, alt. 260 m.

Erretestik Opellorara doan A-4621 errepidearen ertzean dauden etxe biak dira. Auzoa Erretestik gertu samar dago, Campoiza auzoaren gainean, hain zuzen ere, jandantik errepidean, Ibaizabalen hegian.

Izenari dagokionez, *mendi* substantiboa ikusten dugu eta, erantsirik, *-ko* partikula, leku-genitiboa adieraz dezakeena edo, bestela, txikigarria izan daitekeena. Gaur egun *-ko* txikigarri hori hain hedatua ez badago ere, beste garai batzuetan oso arrunta zela dirudi. Hala baieztatu daiteke toponimiari nahiz, esate baterako, *mutiko*, *otsoko* edo *axelko* bezalako hitzei kasu egiten badiegu, haur ipuin tradiziozkoetan animaliak izendatzeko maiz erabiliak. Hala balitz, ‘menditxo’ edo ‘gaintxo’ esan nahiko luke toponimoak. Aukera errazagoa litzateke leku-genitiboa dela pentsatzea. Horrek ondoren substantibo bat edo artikulua eskatuko luke eta berez litekeena da jatorrizko izena *Mendikoa* izatea eta gero amaierako *-a* hori galdu izana: *Mendikoa* > *Mendiko*. Artomañan badugu *Nuestra Señora de Mendiko* hagianimoa. *Mapa Topográfico Nacional* delakoak<sup>7</sup> *Mendeika* toponimoa dakar leku honetan, seguruenik auzo hau eta izen horretako Urduñako kontzejua nahastearen ondorio. Gaur egun Mexikon *Aldama de Mendico* abizena aurkitzen dugu.


Son un par de casas a la orilla de la carretera A-4621 que de Erretes sube a la capitalidad del concejo de Costera (Opellora). El barrio se encuentra muy próximo al propio Erretes y sobre su barrio denominado Campoiza, ya en la carretera a orillas del río Ibaizabal.

El nombre de este barrio se compone del sustantivo *mendi* ‘montaña’ más, quizá, la partícula *-ko* ‘de’, o tal vez el sufijo diminutivo *-ko*, cuyo uso hoy en día se halla un tanto restringido, a pesar de que en otra época debió de ser muy común. Así lo indican tanto la toponimia como algunas palabras sueltas del estilo de *mutiko* ‘muchacho’, *otsoko* ‘lobito’ o *axelko* ‘raposillo’, que designan tradicionalmente a estas alimañas en los cuentos infantiles. De ser así, el significado del topónimo sería por lo tanto ‘montecillo’ o ‘altillo’. Posibilidad más sencilla sería la ya citada del sufijo genitivo *-ko*, significando, por tanto, ‘del monte’, lo cual exigiría tras de sí un sustantivo o al menos un determinante, que bien pudiera haber sido en origen *-a*, y que conforme a tendencia general hubiese caído: *Mendikoa* > *Mendiko*. En Artomaña tenemos *Nuestra Señora de Mendiko*. El *Mapa Topográfico Nacional*<sup>8</sup> rotula en el lugar el topónimo *Mendeika*, que con toda evidencia confunde este barrio con el cercano concejo orduñés de este nombre. Hallamos actualmente en México el apellido *Aldama de Mendico*.

<sup>7</sup> 1997, 86-I.

<sup>8</sup> 1997, 86-I.

## Ozeka



1932



2000

Ozeka kontzeju txikia da eta Itzalde errekaaren arroaren goialdean dago, oraindik Aiarako Peregaña eta Ungila edo Eskorieta mendien arteko bidea urratu baino lehen, Gorobel mendilerroko punturik gorena den Eskutxi mendiaren oinetan. Iparraldean Luxo eta Beotegi ditu, ekialdean Kexaa eta Menoio, hegoaldean Salmantón, eta mendebaldean Lexartzu eta Erbi. XVIII. mendean Palacio eta Arraza auzoak ageri dira kontzejuan. Madozek (1845-1850) *Palacio*, *Ulibarri*, *Gorbea* eta *Arraza* auzoak aipatzen ditu. 1877an Becerro de Bengoak, berriz, *Gorbea*, *Palacio*, *Pozo-Portillo* eta *Ullibarri* etxaldeak ematen ditu. Madozen *Diccionario* delakoaren arabera, XIX. mendearen erdi aldera 50 biztanle zituen eta, mende bat beranduago, 1950eko *Nomenclátor* delakoan, 37. 1970ean 19 besterik ez zuen eta 2000ko erroldan, etengabeko despopulazioa 8 biztanleren kopururaino heldu da.

Agirietan idazkera gaztelaniartzailea jaso ohi da beti, eta hala idatzi zuten Madozek eta Becerro de Bengoak ere: *Oceca*. *Ozeka* da grafia ofiziala eta euskal jatorria duela onartzen duela dirudi. Ez litzateke harrizkeoa berez euskal hitza izatea, Aiaran euskal toponimia delako ugariena. Gainera, toponimo hau erromantzea nagusi zen eremuan egon izan balitz, espero behar zen emaitza *Ócega* izango zen, eta ez gaurko *Ozeka* aldaera, ezinbestez testuinguru euskaldun batean sortuko zena. Bide-seinaleetan *Oceca* (sic) ikusi da hainbat urtez, gaztelaniazko eta euskarazko idazkerak nahastuta, eta era hori ez da zuzena ez hizkuntza baterako eta ez besterako. Azentua lehen bokalean ahoskatzen da: *Ózeka*.

Esanahiari dagokionez, bereziki gardenak ez diren toponimo batzuen multzoan sailkatzea izaten da ohikoena, zehazki *oka* hitza edukitzen dutenen artean<sup>1</sup>. Baina Maria Lourdes Albertosek berak bere proposamenaz zalantza egiten du eta, zehaztasun handirik gabe iradokitzen du antroponimoren batekin zerikusia izan lezakeela. Interpretazio fantasiatsuagoak eta zorrotzasunik batere gabeak ere eman dira, hala nola '(haitzaren) gaineko malda'<sup>2</sup>. Agian interpretaziorik onargarriena, ondo dokumentatuta dagoen *Ocius* pertsona izenarekin lotzen duena da, *-ega* partikula arkaikoa erantsita eramango zuena. Partikula hau *-ika* atzizkiaren aldaera izango da seguruenik, eta *Artziniaga* bezalako beste toponimo batzuetan ere agertuko litzateke<sup>3</sup>. Mugurutzaren arabera, *Ozeka* erro bereko abizen eta toponimo ugariko multzo batean sailkatu behar da: *Ozio, Okariz, Okina...*

El pequeño concejo de Ozeka ocupa la vaguada por la que discurre el arroyo Itzalde en su cabecera, aún al pie del pico Eskutxi, cúspide de la sierra Sálvada o Gorobel, antes de abrirse paso entre las cimas ayalesas de Peregaña y Ungila o Eskorieta. Limita al norte con Luxo y Beotegi, al este con Quejana (Kexaa) y Menoio, al sur con Salmantón y al oeste con lexartzu y Erbi. En el siglo XVIII figuran en el concejo los barrios de Palacio y Arraza. Madoz (1845-1850) le asigna los barrios de Palacio, Ulibarri, Gorbea y Arraza. En 1877 Becerro de Bengoa cita los caseríos de Gorbea, Palacio, Pozo-Portillo y Ullibarri. En el *Diccionario* de Madoz se le contaban, a mediados del siglo XIX, 50 almas, que un siglo después, según el *Nomenclátor* de 1950, eran 37. En 1970 ya solo contaba con 19 habitantes y en el padrón del año 2000, el imparable despoblamiento ha llegado a la cifra de 8 habitantes.

La grafía castellanizante que es la que habitualmente se halla en la documentación, incluidos los citados Madoz y Becerro de Bengoa, es *Oceca*. La grafía oficial *Ozeka* le supone origen eusquérico, cosa más que probable, dada la abundancia de toponimia vasca en esta zona de Ayala (Aiara). Además, en caso de haber vivido dicho topónimo en un entorno mayoritariamente romance, el resultado esperado habría sido *Ócega*, y no la forma actual que implica un ambiente lingüístico eusquérico. En la señalización viaria ha figurado durante muchos años *Oceca* (sic), mezclando las grafías del castellano y euskera cuyo resultado, en consecuencia, no es correcto en ninguna de ambas lenguas. Se pronuncia con el acento en la vocal inicial: *Ózeka*.

Respecto a su significado, el supuesto más habitual consiste en incluirlo en un grupo de topónimos no muy claros, que tienen en común la palabra *oka*<sup>4</sup>, aunque la misma María Lourdes Albertos parece dudar de su propuesta y sugerir, con vaguedad y sin más precisión, una posible relación con algún antropónimo. También se han dado interpretaciones más fantasiosas y carentes de rigor como 'cuesta del alto (de la peña)'<sup>5</sup>. Quizá la más plausible sea la de un nombre

<sup>1</sup> Albertos, 1970.

<sup>2</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>3</sup> Mugurutz, 2003, *Zaraobe*, 92.

<sup>4</sup> Albertos, 1970.

<sup>5</sup> Barrenengoa, 1990.





*Ozekaren eta Gorobel mendilerroaren ikuspegi ederra*  
*Hermosa vista de Ozeka y de la sierra Salvada*

de persona *Ocius*, bien documentado al que se añadiera la partícula arcaica final adjetivizante *-ega*, probablemente variante de *-ika* y que sería la misma que aparece al final de topónimos como *Artziniega*, etc.<sup>6</sup>. Según Mugurutza, *Ozeka* formaría parte de un grupo amplio de apellidos y topónimos formados a partir de la misma raíz: *Ozio*, *Okariz*, *Okina*...

## Arratza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493050, Y.4768946, alt. 390 m.

Auzoburutik gertu, auzo hau antzinako eliza nagusiaren azpiko aldean dago, tenplua gaur egun Santa Eufemia ermita apaldua eta ia eroria den arren. Kexaatik Ozeka eta Luxora igotzen den A-4619 errepidearen eskuineko bazterrean dago, Itzalde ibaiaren ibilguaren ondoan. Bide-zorrarekin egondako arazo batzuk direla eta, auzotarrek tenplua inguruko beste leku batean berreraikitzea pentsatu dute, baina hilerri bat lekuz aldatzea nekeza eta konplexua da...

Auzoaren izenak euskal itxura du eta, seguruenik, amaierako osagaia ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzikia izango da. Lehenengo osagaien, berriz, *(h)arri* hitz arrunta dagoela pentsa daiteke.

<sup>6</sup> Mugurutza, 2003, *Zaraobe*, 92.

Es una barriada próxima a la capitalidad del concejo, situada bajo la antigua iglesia parroquial, hoy ermita de Santa Eufemia prácticamente en ruinas. Se emplaza junto al curso del río Itzalde y a la vera derecha de la carretera A-4619 que de Quejana (Kexaa) sube a Ozeka y a Luxo. Ciertos problemas de servidumbre de paso, han llevado a los vecinos a plantearse la posibilidad de su reconstrucción en algún lugar próximo, pero el traslado del cementerio no deja de ser una cuestión difícil de abordar...

El nombre de esta barriada tiene aspecto eusquérico y seguramente lleva pospuesto el sufijo abundancial *-tza*, mientras en la primera parte del nombre parece adivinarse el sustantivo común *(h)arri* 'piedra'.

## Gorbea

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493048, Y.4769622, alt. 495 m.

Kontzejuko auzorik garaiena da eta Ozekako gune nagusia atzean utzita, A-4619 errepidetik joaten da bertara, Peregañeko hegoaldeko magalean gora Luxorako bide-tik. Errepidearen bihurgune bortitz batean eskuinera dago Gorbea auzo bildu ederre-ra, ehun bat metrotan eramango gaituen adarra.

Auzoaren izena honela dator agiritan 1551z gero. Araba eta Bizkaiko mendirik garaiena *Gorbeia* da eta haren gaztelaniazko aldaera *Gorbea*. Hainbat etimologia ematen saiatu diren arren, bat bera ere ez da ziurra edo fidagarria eta, beraz, saihestuko dugu hipotesi horietako bakar bat hobestea. Izena oso ezaguna da aipaturiko mendi hari esker eta, arrazoi horrengatik, aspalditik idatzi da hari buruz eta etimologia bat baino gehiago eman da. Ezagunenak *gor-behia* interpretatu eta 'entzuten ez duen behia' dela iradokitzen du, baina ez du inolako sinesgarritasunik. Aurkitu ditugunen artean aldrebesenak 'ikus ezazu simaur hori' esan nahi duela dio eta Amerikako doktorego tesi batean argitaratua da.

Se trata del barrio más elevado del concejo, al que se accede desde la carretera A-4619, después de haber dejado atrás la capitalidad de Ozeka y continuando el ascenso por la vertiente sur de Peregaña que conduce a Luxo. En una curva de herradura, antes de superar la loma que da vista a este concejo vecino, un ramal que se escapa por la derecha conduce en un centenar de metros a la agrupada barriada de Gorbea.

El nombre de la barriada se documenta en esta forma desde 1551. Tiene su homónimo en la variante castellana del nombre de la cima más elevada de Álava (Araba) y Bizkaia, el *Gorbeia* o *Gorbea*. Aunque se le han intentado dar multitud de etimologías, ninguna de ellas ofrece un mínimo de certeza o fiabilidad, por lo que nos abstenemos de priorizar alguna de las hipótesis. El nombre es conocido por la montaña citada, de modo que desde antiguo se ha escrito sobre él y ha habido más de una etimología. La más conocida, aunque sea un sinsentido, es 'vaca sorda' de *gor* 'sordo' y *behi* 'vaca'. La más estrafalaria que hemos hallado, publicada en una tesis doctoral americana, lo traduce como 'vea usted tal estiércol'.

## Odega

Desagertutako etxeak / Casas desaparecidas: ED50 30T X.492990, Y.4768475, alt. 430 m.

Gaur egun desagertuak diren etxe bi ziren, Itzalde errekaaren arroaz beste aldean eta Arratza auzoaren hego-ekialdean zeudenak. Ematen dugun kokapen hau gutxi gorabeherakoa da. Izan ere, etxe hauek aspaldi eraitsi zituzten Palacio auzoko beste batzuekin batera, haien harriak Gorbeara daraman errepeidea eraikitzeko.

Bertakoen ahotan *Ódega* ahoskatzen da, azentua lehen bokalean daramala eta, horregatik, daitekeena da jatorrian *\*Odeaga* izatea. Euskal izen konposatua da, *odi* izenaz ‘zuloa, sakonunea’, eta *-aga* toki-atzizkiaz osatua eta, beraz, ‘hobiko edo zulo-ko lekua’ adieraziko luke. Orozkon eta Laudion ere badira izen honetako auzoak eta, horiez gain oinarri lexiko bereko beste batzuk ere aurkitzen ditugu: *Odieta*, *Odeibar...* Mitxelenak<sup>7</sup> dio *odi-* ‘tutua, haizpitartea, trokartera’ dela, baina zalantzak ditu eman zaion jatorriaren inguruan. Izan ere, latinezko *fodere* hitzaren eratorri batetik helduko zitzaigun, beharbada *fodina* hitzetik. Aldiz, aurreko paragrafoan inolako zalantzarik gabe dio (*h*)*obi* hitzak ‘sakonune, zulo’ esan nahi duela.

Se trataba de un par de casas hoy desaparecidas, que se ubicaban al otro lado de la vaguada del arroyo Itzalde, al sureste del barrio Arratza. La ubicación que damos es aproximada, pues las edificaciones fueron derribadas junto a algunas de Palacio, para utilizar su piedra en la construcción de la carretera de Gorbea.

La pronunciación popular es *Ódega*, con acento en la vocal inicial, lo que pudiera sugerir un original *\*Odeaga*. Su nombre es un compuesto eusquérico de *odi* ‘concauidad, fosa’ y el sufijo locativo *-aga*, significando por lo tanto ‘lugar de la hoya o del agujero’. Existe un topónimo idéntico para barriada en el cercano valle vizcaíno de Orozko y otro en Llodio (Laudio), además de otros con similar entroncamiento léxico: *Odieta*, *Odeibar...* Mitxelena<sup>8</sup> indica para *odi-* la traducción ‘caño, encañada, barranco’, pero duda del origen que se le ha asignado, de un derivado del latín *fodere*, posiblemente *fodina*. Por el contrario, en el párrafo anterior interpreta con toda lógica ‘concauidad, fosa’ para (*h*)*obi*.

## Palacio

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492303, Y.4767966, alt. 450 m.

Auzo hau erabat utzita dago eta Itzalde errekaaren sakanaren hondoan dago, Arratza baino gorago eta Pozoportillo baserriaren hegoaldean. Oraindik ere gogoan dute bertakoek auzo honetan San Balentin ermita zegoela. Auzoak hogeita hamar bat biztanle izan zituen garai batean eta etxe batzuk XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan

<sup>7</sup> 1997, 475, 135. or.

<sup>8</sup> 1997, 475, pág. 135.



*Palacio auzoaren aztarnak*  
Restos de la barriada Palacio

eraitsi ziren, haien harriak Arratzatik Gorbearako bide berria sendotzeko erabili zirelarik.

Ahoz *Palacios* esaten zaion arren, agiritan beti ageri da *Palacio* eta horregatik pentsa daiteke, garai batean etxe garrantzitsuren bat egongo zela. Euskaraz antzina, agian *Jauregi* ordain arrunta erabiliko zen, Euskal Herri osoan guztiz ohikoa baita.

Nombre de un barrio hoy abandonado que se sitúa en el fondo del barranco por el que discurre el arroyo Itzalde, más arriba de Arratza y al sur del caserío Pozoportillo. Aún se recuerda en este barrio la ermita de San Valentín. La barriada tuvo hasta treinta vecinos y algunas de las casas se derribaron hacia los años sesenta del siglo XX, contribuyendo sus piedras a engrosar el firme del nuevo carril de Arratza a Gorbea.

Aunque se conoce oralmente como *Palacios*, aparece siempre documentado *Palacio*, lo que parece indicar la existencia antaño de alguna casa principal. Tal vez en euskera se utilizase en su día la forma común equivalente *Jauregi*, muy común en todo el País Vasco.

## Pozoportillo

Benta / Venta: ED50 30T X.492137, Y.4768483, alt. 470 m.

Gaur egun baserri xume bat den arren, garai batean benta ospetsua izan zen. Aroko mendatetik eta Eskutxi erraldoia albotik saihesturik, Ozekan zehar Kexaara zihoan galtzadaren ondoan zegoen benta ezagun hura. Kontzejuko auzo nagusiaren hego-mendebaldean dago, mendi-lepo batean, eta hartara heltzeko Camino de la Sierra delakoa hartu behar da, ‘mendilerroko bidea’ alegia, modu erosoan Gorbea eta Luxo artean dagoen Gorbeako gainetik irteten dena.

Etxearen izena gaztelaniazko konposatua da, osagaiak *pozo* ‘putzu’, berdin ur putzu artifizial bat edo idoi natural txiki bat izenda zezakeena, eta *portillo* ‘mendate, mendi arteko pasalekua’ dituen. Seguruenik etxea dagoen tokia egiten zion erreferentzia izenak. Becerro de Bengoak 1877an marratxo eta guzti idatzi zuen: *Pozo-Portillo*.

Aunque hoy es un sencillo caserío, daba nombre a una conocida venta situada junto a la calzada que descendía del portillo de Aro y, tras flanquear el gigante Eskutxi, se dirigía a Quejana (Kexaa) a través de Ozeka. Se encuentra en un pequeño collado al suroeste de la capitalidad del concejo, al que se accede por el llamado Camino de la Sierra, que parte más cómodamente del alto de Gorbea, entre este barrio y la capitalidad del vecino Luxo.

El nombre de la edificación es un compuesto castellano de *pozo*, que puede designar tanto un pozo artificial de agua, como un pequeño estanque natural, y *portillo* ‘paso entre montes’, que hace referencia con toda seguridad al lugar en que se halla emplazada la casa. Ya hemos citado que Becerro de Bengoa lo escribía en 1877 con guión: *Pozo-Portillo*.

## Ulibarri

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.492693, Y.4768877, alt. 420 m.

Iturri kartografiko gehienetan auzo honi Ozeka izen hutsa ematen zaio. Auzoa Peregaña mendiaren hego-ekialdeko magalean dago, Itzalde erreka oraindik txikiak urratzen duen arroaren sakonetik hurbil. Auzora joateko biderik egokiena Kexaatik datorren A-4619 errepidea da, ibarrari jarraituz Arratza auzora heldu eta, berehala, eskuineko maldan gora abiatu eta laster Ulibarri erdiesteko. Egia esan garai bateko Santa Eufemia parrokia –gaur ermita– auzoa baino apur bat ekialderago dago, Arratzaren gaineko bizkar batean doi, datxekion hilerri txikiaren ondoan.

Agrietako erarik ugariena *Ulibarri* da, baina euskaraz *Uribarri* izango litzateke normalena eta bertako ahozko erabileran ere gorde da<sup>9</sup>. Dena dela, bertako ahoskerarik ohikoena *Ulibarri* da, betiere azentua *-i-*ren gainean daramala. 1782ko agiri batean,

<sup>9</sup> Lanaren egileek *in situ* jasotako datua 2002ko irailaren 30ean egindako ahozko inkestan.


gaur egun eraitsita dagoen Palacio auzoko baserri bat aipatzen da eta haren jabea *F[rancis]co José de Ulibarri* zela esaten da. Toponimoaren *r > l* txandakatzeari eta haren etimoiari dagokionez, ikus Izoriako kontzejuko auzo izenkidean esandakoa.

En la mayoría de las fuentes cartográficas este barrio aparece rotulado simplemente con el topónimo Ozeka. El barrio se halla emplazado en la ladera suroriental del pico Peregaña, muy cerca del fondo del valle por el que discurre el aún joven arroyo Itzalde. El acceso más cómodo consiste en seguir la carretera A-4619 que desde Quejana (Kexaa) sigue la vaguada para alcanzar Arratza e inmediatamente iniciar el ascenso por la ladera derecha y alcanzar enseguida Ulibarri. En realidad, la antigua parroquia –hoy ermita– de Santa Eufemia se halla emplazada un poco más al este que la barriada, en una loma justo sobre Arratza, junto al pequeño cementerio anejo.

En la documentación la grafía más frecuente de este barrio es *Ulibarri*, si bien la forma *Uribarri*, más común en euskera, se conserva aún en el uso oral local<sup>10</sup>. No obstante, la pronunciación local habitual es *Ulibarri*, siempre con el acento en la *-i-*. En documentación histórica de 1782 se hace referencia a un caserío situado en el barrio Palacio, hoy arruinado, que perteneció a *F[rancis]co José de Ulibarri*. Respecto a esta alternancia *r > l* y al étimo del topónimo, véase lo dicho en el barrio homónimo del concejo de Izoria.

<sup>10</sup> Dato recogido en encuesta oral *in situ* el 30 de septiembre de 2002 por los autores de este trabajo.

## Salmantón



1932



2000

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.492704, Y.4766810, alt. 440 m.

Kontzeju hau Aiarako menditsuenetakoa da, Gorobel mendilerroaren iparraldeko mazelatan baitago, Ungino gailur ikusgarriaren iparraldeko mendi-adarretan hain zuzen ere, Errekalde ibaiaren eskuinean. Iparraldean Ozeka eta Menoio ditu, ekialdean



*Salmantón eta Ungino*  
*Salmantón y Ungino*

Maroño, hegoaldean Madaria eta aipatutako Gorobel mendilerroa, eta mendebaldean Lexartzu eta Erbi. Becerro de Bengoak, 1877ko *Libro de Álava* izenekoan, Chave, Lumbarriaga eta Mendieta etxaldeak aipatzen ditu kontzejuan. Auzo nagusia ere Salmantón izendatu ohi da eta bertan dago eliza nagusia, Santa Marinaren adbokaziopean. Madozen *Diccionario* ezagunean (1845-1850) Santa María parrokia aipatzen da, baina seguru asko akatsa da, nahiz eta horrez gainera, Santa Marina ermita bat ere aipatzen duen. Egia esan, Andra Maria Magdalena ermita zaharra auzo erdiko bidegurutzean dagoen eraikin txiki bat da eta, zenbait urtetan kontzejuko areto bezala erabili zen. Gaur egun, ordea, batzar horiek eskolan egiten dira. *La Magdalena* izena ere erabiltzen da ondoko finka izendatzeko. Santa Marina herriko gunearen alderdi bat da, hari daxekezion eta Etxabe eta Mugaburu izenekin ezagutzen direnak pasatu ondoren. Beraz, Izoriatik datorren A-4614 errepidetik iristen da Santa Marinara, herrian barna elizako plazaraino sartuta. *Etxabe* eta *Mugaburu* auzoei jendeak ohikoan *Barrio Abajo* eta *Barrio Medio* esaten dien bezala, *Santa Marina* guneari *Barrio Arriba* esaten zaio. Bertakoek, gainera, *La Iglesia* ere esaten diote askotan. Esan dugun legez, ordea, ohikoa da kartografiarik hedatuenetan *Etxabe*, *Mugaburu*, *Santa Marina* eta *Lumbarriaga* auzoen multzoa izendatzeko *Salmantón* besterik ez agertzea. Izan ere, oso gertu daudenez, zaila da elkarretatik bereiztea. Madozek bere *Diccionario* ezagunean (1845-1850) 80 biztanle zituela esaten du. 1950ean kontzejuak 102 biztanle zituen, 1970ean 69 besterik ez, eta 2000ko erroldaren arabera 27. Aiara osoan despopulazioak eraginik handiena izan duen tokietako bat da.

Kontzeju honen izena 864ko agiri batean dokumentatu dugu lehen aldiz, *Salbaton* (*Saluatón*) eta *Salbantone* (*Saluantone*) formetan aipatua. Obaldiako monasterioa Donemiliagakoari eman zitzaioneko 1114ko agirian –azken monasterio horretako kartularioan gordea– *Salbantone* idazkera aurkitzen dugu, eta 1533an jadanik *Salmantón* era hasten da agertzen. Agirietako erak ikusita, Euskaltzaindiak lehen une batean *Salbantone* forma proposatu zuen euskaraz erabiltzeko. Ondoren, hala ere, zuhurtzia dela eta, proposamen hori zuzendu egin du. Agian toponimia xehea zehazkiago aztertu eta datu sendagoak agertuko dira etorkizunean euskaraz izan zuen izendapenaz.

Izenaren etimoa bereziki iluna da. María Lourdes Albertosek (1970), kontua argitze aldera, elementu bitan bereiztea proposatu zuen. Hala, lehenengoa *sala* izango litzateke, Europako hidronimo ugaritan agertzen dena. Bigarrena, berriz, *mantia* litzateke eta ildo beretik interpreta daiteke. Bestalde, antzekotasunean oinarrituta, zalantzarik gabe erlazionatzen du Aiarako herri honen izena egungo *Salamancaren* jatorria den *Salmantica* zaharrarenarekin. Ingrid Horchek (1992) hain bihurriak ez diren beste bide etimologiko batzuk hobetsi eta pertsona izen arkaikoren batetik abiatzea gomendatzen du, hala nola \**Salva(n)tus*. Izenaren jatorrian antropónimo bat egon zitekeela ez da ideia berria, oso aspaldian mahairatu baitzen aukera hau<sup>1</sup>. Felix Mu-

<sup>1</sup> Julio Caro Baroja, 1945.



gurutzaren iritiz<sup>2</sup> *Salbio* (Amurrio) toponimoarekin erlaziona liteke, eta seguru asko –hau bai– oso ezaguna eta ongi dokumentatuta dagoen *Salvius* pertsona izenetik etorriko litzateke. Erro horri zenbait partikula erantsiko zitzaizkion, izenak adjektibo bihurtzeko oso erabiliak eta arkaikotzat jo ohi diren toponimo ugaritan agertzen direnak: *-nt-* eta *-ona*. Ikertzaile honek berak *Salmantón* eta *Sálvada* toponimoen arteko antzekotasuna ere aipatzen du, aitortuz, hala ere, hipotesiaren oinarriak ez direla bateren finkoak. Guztiarekin ere, gogoratu behar da mendilerroaren eta herriaren lehenengo aipamena susmagarria dela oso (864): *ad illa uia publica qui discurret de Saluata apud Saluaton*. Beste etimologia batzuk ere eman dira, hala nola ‘larreen azpian’<sup>3</sup>, baina oinarririk gabekoak eta fantasiatsuak dira, eta ez dira aintzat hartzeko modukoak.

Este concejo es uno de los más montaraces de Ayala (Aiara), pues se sitúa en las laderas septentrionales de la sierra Sálvada o Gorobel, concretamente en las estribaciones norte del vistoso pico Ungino, a la vera derecha del arroyo Errekalde. Limita al norte con Ozeka y Mendoio, al este con Maroño, al sur con Madaria y la citada sierra Sálvada (Gorobel), y al oeste con Lexartzu y Erbi. Becerro de Bengoa, en el *Libro de Álava* de 1877 le cita los caseríos de Chave, Lumbarriaga y Mendieta. El núcleo principal del concejo donde se ubica la iglesia parroquial habitualmente se denomina Salmantón, pero también se identifica en ocasiones con el de la advocación del templo: Santa Marina. Sin duda por error, el *Diccionario* de Madoz (1845-1850) identifica la iglesia parroquial con Santa María, citando además una ermita de Santa Marina. En realidad, la antigua ermita de Santa María Magdalena es un pequeño edificio situado en el cruce central de caminos sito en el barrio, y que durante cierto tiempo se utilizó como sala de concejo. En la actualidad estas reuniones tienen lugar en la escuela. El nombre



*Santa Marina elizaren ondoan dagoen Iruega jauregia*  
El palacio de Iruega situado junto a la iglesia de Santa Marina

<sup>2</sup> Mugurutza, 2004, *Zaraobe*, 95.

<sup>3</sup> Barrenengoa, 1990.

*La Magdalena* pervive aún para designar la finca adyacente. Santa Marina es más exactamente la parte del núcleo urbano que hallamos tras superar los otros grupos de casas anejos al mismo y conocidos como Etxabe y Mugaburu. Se accede por lo tanto por la carretera A-4614 procedente de Izoria, penetrando en el pueblo hasta la plaza de la iglesia. Igual que *Etxabe* y *Mugaburu* se denominan popular y corrientemente *Barrio Abajo* y *Barrio Medio*, *Santa Marina* se conoce también como *Barrio Arriba*. También cabe señalar que los lugareños a menudo lo identifican simplemente con el genérico *La Iglesia*. Como ya hemos comentado, en las cartografías de mayor difusión, suele denominarse simplemente *Salmantón* al núcleo formado por *Etxabe*, *Mugaburu*, *Santa Marina* y *Lunbarriaga*, que al fin y al cabo son difícilmente discriminables por su proximidad física. Madoz contabiliza en Salmantón 80 almas en su célebre *Diccionario* (1845-1850). En 1950 el concejo tenía 102 habitantes, que en 1970 se habían reducido a 69. Según el padrón del año 2000, entonces ya solo había 27 habitantes. Es uno de los casos más agudos de despoblamiento de todo Ayala.

La primera cita que documentamos de esta población data del año 864, donde figura como *Salbaton* (*Saluaton*) y *Salbantone* (*Salvantone*). En el documento de donación del monasterio de Obaldia al de San Millán, del año 1114 —guardado en el cartulario de este monasterio— hallamos la grafía *Salbantone*, y en 1533 ya irrumpe la forma *Salmantón*. A la vista de las formas documentadas, en un primer momento la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) propuso la forma *Salbantone* para su uso en euskera. Sin embargo, por razones de prudencia, con posterioridad se ha rectificado aquella propuesta. Es posible que estudios más detallados de la toponimia menor nos den algún día datos más sólidos acerca de su denominación eusquerica.

El étimo de este nombre resulta especialmente oscuro. María Lourdes Albertos (1970) ha pretendido diseccionarlo en dos elementos para una posible resolución. Así, el primero de ellos, *sala* sería un elemento presente en numerosos hidrónimos europeos y, al segundo, *mantia*, le atribuye idéntico sentido. No duda en relacionar, por su similitud, el nombre del pueblo ayalés con el de *Salmantica*, origen de la actual *Salamanca*. Ingrid Horch (1992) apuesta por vías etimológicamente menos tortuosas y sugiere un origen a partir de algún nombre personal arcaico como \**Salva(n)tus*. El hecho de plantear el origen del nombre en un antropónimo no es algo nuevo, ya que había sido sugerido con mucha anterioridad<sup>4</sup>. En opinión de F. Mugurutzza<sup>5</sup> podría relacionarse con el topónimo *Salbio* (Amurrio), que ha de proceder de un nombre de persona *Salvius*, este sí, sobradamente conocido y documentado. A dicha raíz se le encadenarían diferentes partículas, probablemente adjetivizantes, bien conocidas y presentes en multitud de topónimos aparentemente arcaicos: *-nt-* y *-ona*. Este mismo autor apunta además la gran similitud existente con el topónimo *Sálvada*, aunque reconoce que la hipótesis se edifica sobre terreno inestable. Con todo, hay que recordar que la primera cita de la sierra y del pueblo es, cuando menos, sospechosa (864): *ad illa via publica qui discurrer de Saluata apud Saluaton*. Otras etimologías dadas, como “bajo los pastizales”<sup>6</sup> son fantasiosas e infundadas por lo que no han de tenerse en consideración.

<sup>4</sup> Julio Caro Baroja, 1945.

<sup>5</sup> Mugurutzza, 2004, *Zaraobe*, 95.

<sup>6</sup> Barrenengoa, 1990.

## Arrieta

Etxea / Casa: ED50 30T X.493185, Y.4767141, alt. 425 m.

Etxe eraiki berria da, aurretik ere Arrieta izena zeukan tokian. Kontzejuko gutetik apur bat bereizita dago, beherago eta hego-ekialderago, baina herria dagoen ibar eroso berebean. Etxe honetara Salmantongo auzoburutik joaten da, Etxabe auzoa atzean utzi eta eskuinera dagoen herri errepide batetik.

Euskal izen honek osagai bi ditu: *(h)arri* izena eta tokia nahiz ugaritasuna adierazten duen *-eta* atzizkia: 'harriak dauden lekua, harritza'.

Casa de nueva construcción ubicada en el término anteriormente ya denominado Arrieta. Se halla algo separada del núcleo central del concejo, más abajo y al sureste, pero aún sobre la vega que da cómodo emplazamiento al pueblo. Se accede a la casa desde la capitalidad de Salmantón por carril local que dejando atrás el barrio Etxabe, toma una desviación a derecha para llegar al lugar.

El nombre es un compuesto eusquérico de *(h)arri* 'piedra' y el sufijo locativo-abundancial *-eta*: 'lugar de piedras' o 'pedregal'.

## Etxabe

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.493064, Y.4766907, alt. 415 m.

Kontzejuko auzoburuari eutsitako auzoa da, zehazki Izoriatik Salmantonera etorriz gero, A-4614 errepidearen eskuinean aurkitzen dugun lehenengoa, plazara eta parrokiara iritsi aurretik.



*Salmantón herriko beheko etxeek zehazkiago Etxabe izena daramate  
Las casas más bajas de Salmantón se denominan más precisamente Etxabe*

Auzo honi gaur egun *Txabe* edo *Txabes* esaten zaio, baita *Barrio Abajo* herrikoi eta generikoagoa ere<sup>7</sup>. Jadanik ikusi dugu Becerro de Bengoa 1877an, hasierako bokalaren galeraren lekukoa izan zela, baina argi dago euskal izen konposatua dela eta lehenengo osagaia *etxe* dela, izen hori konposatuetan *etxa-* bihurtu ohi dela gauza jakina delako. Bigarren osagaia, berriz, *-be* dugu ‘beheko aldea’. Hortaz, ‘azpiko edo beheko etxea’ genuke esanahia, eta etimo egokia dirudi parrokiarekiko kokapenari erreparatuz gero.

Se trata de una barriada aneja al núcleo capital del concejo, concretamente aquella que al llegar a Salmantón por la carretera A-4614 procedentes de Izoria, hallamos en primer término a la derecha de la carretera, antes de alcanzar la plaza y la subsiguiente iglesia parroquial.

El barrio es conocido actualmente como *Txabe* o *Txabes*, además del más popular y genérico *Barrio Abajo*<sup>8</sup>. Ya hemos visto que Becerro de Bengoa en 1877 era testigo de la pérdida de esa vocal inicial, pues con toda claridad se trata de un compuesto vasco de *etxe* ‘casa’, que en compuestos es habitualmente *etxa-*, y *-be* ‘parte de abajo’. El significado ‘la casa de abajo’, parece bien ajustado a su ubicación con respecto al centro parroquial.

## Lanbarriaga

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.492665, Y.4766669, alt. 450 m.

Auzo hau –gaur egun etxe batean baino ez da bizi jendea– herriaren goialdean dago, gunetik irten eta mendilerroaren magaletatik zeharka Aroko gainera eta Angulo mendatera doan bidearen ezkerrean. Salmantón ibaiaren beste aldean, apur bat goraxeago, kontzejuko hilerria dago.

Auzoaren izena *Limbarriaga* jasotzen da ahoz, baina Becerro de Bengoak *Lumbarriaga* forma erabili zuen 1877an. Halaxe dakar Barrenengoak ere (1990), erreferentzia gisa 1738. urtea gaineratuz. Aldaeren artean, Becerro de Bengoaren *Lumbarriaga* ez ezik, 1732 eta 1738an dokumentaturiko *Linbarriaga* ere aipatzen du. Dokumentazioaren ekarpen aberatsago baten laguntzarik ez dugun bitartean, nekez igarriko dugu etimologia edo esanahi egokirik. Barrenengoak berak aipatzen duen bezala, balizko *lan* + *barri* + *-aga* ‘errotura, luberria’ konposizioarekin erlaziona liteke, baina era berean *ilun* edo *irun* ‘kastroa, gaztelua’ izena dagoela pentsa genezake, hari gaurko euskara estandarrean ‘berri’ren mendebaldeko *barri* aldaera gehituz eta, azkenik, *-aga* toki-atzizkia<sup>9</sup>. Era horretan, ‘gaztelu berriko lekua’ edo antzeko esanahia izango luke.

<sup>7</sup> Ikus, halaber, *Salmantón* izenaren iruzkinean, *Mugaburu* eta *Santa Marina* auzoez esandakoa, hurrenez hurren *Barrio Medio* eta *Barrio Arriba* bezala ezagutzen direnak.

<sup>8</sup> Véase también lo dicho en la entrada *Salmantón* sobre las barriadas *Mugaburu* y *Santa Marina*, conocidas respectivamente como *Barrio Medio* y *Barrio Arriba*.

<sup>9</sup> Mugurutz, 2004, *Zaraobe*, 95.

Se trata de una barriada –en la actualidad una sola casa habitada– situada en la parte superior del pueblo, a la izquierda del camino que saliendo del núcleo toma dirección hacia el portillo de Aro y el puerto Angulo flanqueando la sierra. Al otro lado del río Salmantón, queda algo más elevado el cementerio del concejo.

Barrio cuyo nombre se recoge oralmente *Limbarriága*, pero que Becerro de Bengoa cita en 1877 en la forma *Lumbarriaga*. Así lo recoge también Barrenengoa (1990), citando además el año 1738 como referencia. Entre las variantes cita, además del *Lumbarriaga* de Becerro de Bengoa, la forma *Linbarriaga* documentada en 1732 y 1738. Mientras un aporte documental más abundante no nos ayude a decidir cuál es la forma adecuada, difícilmente podremos atinar con su etimología o significado. Tal y como apunta Barrenengoa, podría relacionarse con *lan + barri + -aga*, ‘rotura’, aunque también podría pensarse en *ilun* o *irun* ‘castro, castillo’, la forma occidental *barri* ‘nuevo’, que en euskera estándar actual es *berri*, más el conocido sufijo locativo *-aga*, significando algo así como ‘lugar del castro nuevo’<sup>10</sup>.

## Mendieta

Etxea / Casa: ED50 30T X.493075, Y.4766775, alt. 422m.

Etxe bakartua da, gaur egun ondoan barrakoi bat duena, kontzejuko auzoburua-  
ren sarreran eta errepidearen ezkeraldera kokatua.

Gaur egun eraikin honi *Casa Blanco* esaten zaio. Izen tradizionala, ordea, 1771ko kaparetasun espediente batean ageri da: *Francisco Antonio de Ochoa de Mugaburu Mendieta de la Fuente Gorbea*, sortzez Salmantongoa eta Bilbon bizi zena. Agiri horretan zenbait oinetxeren berri ematen da, zehazki Salmantongo *Mugaburu* eta *Mendieta*, eta Ozekako *Fuente* eta *Gorbea*. Becerro de Bengoak ere aipatu zuen *Mendieta* Salmantongo auzo bezala 1877an. *Mendieta* toponimoa, abizen bezala ere oso ugaria, euskarazko izena da, *mendi* substantiboaz eta tokia nahiz ugaritasuna adierazten duen *-eta* atzizkiak osatua: dagokion lekuaren arabera ‘leku menditsua, gaina, muinoa’ edo ‘mendiak’ esan nahi du.

Se trata de una edificación solitaria, hoy con un barracón anejo, situada a la izquierda de la carretera a la entrada del núcleo capitalidad del concejo.

El edificio es conocido hoy en día como *Casa Blanco*. La forma tradicional figura en 1771 en el expediente de hidalguía de *Francisco Antonio de Ochoa de Mugaburu Mendieta de la Fuente Gorbea*, natural de Salmantón y residente en Bilbao, documento en el que se da noticia de los solares de *Mugaburu* y *Mendieta* en Salmantón, y de *Fuente* y *Gorbea* en Oze-ka. También Becerro de Bengoa cita *Mendieta* como barrio de Salmantón en 1877. El topónimo *Mendieta*, muy abundante también como apellido, es un nombre vasco compuesto de *mendi* ‘montaña’, o ‘lugar prominente’, más el sufijo locativo-abundancial *-eta*: ‘lugar montañoso, el alto’ o ‘los montes’, dependiendo del lugar.

<sup>10</sup> Mugurutz, 2004, *Zaraobe*, 95.

## Soxo



1932



2000

Soxo Aiarako kontzejurik mendebaldarrena da, toki menditsuan kokatua, Zaballa mendiaren hegoaldean eta Pandoren ekialdean. Auzoetako batzuk Soxo ibaiaren ibartxoan daude eta ibai horretako urak haranetik kanpora doaz, Artziniega aldera. Mendebaldean Burgosko Mena harana du, iparraldean Artziniega eta Opellorako kontzejua, ekialdean Erretes eta Erbi eta hegoaldean Añes eta Lexartzu. Madozek (1845–1850) honako auzo hauek aipatzen ditu Soxon: Sobrevilla, Villanueva, Orbillá, el Valle, Campijo, Gulpijeras, la Viña eta Urruela. Ricardo Becerro de Bengoak 1877ko *Libro de Álava* delakoan etxalde hauek aipatzen ditu: Campijo, La Iglesia, Orbillá, Orive, La Quintana, Urruela, El Valle, Vielpijérar (sic), Villanueva eta La Viña. Aipatutako Pascual Madozen esanetan, XIX. mendearen erdian 155 biztanle zituen. 1950eko *Nomenclátor* delakoan 118 ageri dira, 1970erako 85 besterik ez ziren eta 2000ko azken erroldan 52 biztanle zeuden kontzejuan zentsaturik. Joera horretan aldaketarik gertatzen ez bada, ez dirudi kontzejuaren etorkizun demografikoa oso itxaropentsua izango denik.

Toki hau 864. urtean aipatu zen lehen aldiz agiritan, *Desolio* aldaerarekin izendatuta agertzen baita Aiara eta Menako zenbait eliza San Felix de Ocari eman zitzaizkioneko testu batean, eta emandako elizetako bat Añesko Done Bikendi izan zen. Halaxe dio testu hark: *Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia et Salbantone*. Erromantzezko hitz barruko *-li-* hotsak eboluzionatu eta, beste zenbaitetan bezala, lehenik eta behin *-ll-* eman zuen, eta gero *-x-*. Azkenik hotsa *-g-* edo *-j-* bilakatu zen, *muliere* eratik *mujer* erara pasatzen den modu berean, eta horrek ekarri zuen *Soxo* aldaera. Garai berriagoetan, gaztelaniaz

azken hots hori desagertu eta oro har *-j-* hotsera eboluzionatu izanak, grafia ere letra honetara egokitzea ekarri zuen, eta hortik dator egungo *Sojo* idazkera. Azken fenomeno honi buruz, ikus *Lexartzuko* kontzejuaren izenaz esandakoa. Bestalde, *Desolio* formaren hasierako *De-* silaba gaztelaniazko *de* preposizioa izan daiteke, *Dobaltia* eran ikusten dugun berbera, alegia (*De-Obaldia*). Hala eta guztiz ere, ikertzaile askok toki honen izena Nafarroako *Desoio* herriarenarekin lotu nahi izan dute. Logikak argi samar iradokitzen digu izenaren antzinako forma *Sollo* izango zela eta, hurrean, euskarazko forma *Zollo*, gauza jakina baita hizkuntza honek hartzen zituen maileguetan *s-* > *z-* aldaketa egiteko joera zegoela (*saco* > *zaku*, *sopa* > *zopa*...). Horiek guztiak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak *Zollo* forma proposatu zuen, erromantzez *Sojo* eman zuen izenaren euskarazko aldaera bezala. Proposamena nahiko hedatu zen eta badago elizate izenkide bat Nerbioi ibarrean, gaur egun Arrankudiagako udalerriari erantsia. Baina agirietan halako testigantzarik aurkitu ez denez, Euskaltzaindiak duela gutxi nahiago izan du zuhurki jokatu eta euskaraz *Soxo* aldaera hobestea erabaki du, agiri askotan baitator forma hori. *Soxo* izena euskaraz erabili dela erakusten duen lekuko argia dugu Artziniegan dagoen ondoko *Soxoguti* auzoa, *Soxo* eta *guti* hitzez osatua. Azken honek euskaraz ‘txikia’ adiera du eta garrantzi handiagoa izango zuen Aiarako *Soxo* kontzejuari kontrajarrita geratuko litzateke *Soxoguti*: ‘Soxo txikia’.

Izen honen etimoa zein den jakitea ez da erraza eta interpretazio ugari eman daitezkeen arren, nekez aurki daiteke gutxieneko bermea duen aukerarik. Haietako bat –eta onargarria litzatekeen bakarra dela esan daiteke–, honako eboluzio honetan oinarritutakoa da: *desolium* > *desolio* > *solio* > *sollo* > *sojo*, agian ‘desolatua’ edo ‘biztanlerik gabea’ esan nahiko lukeena<sup>1</sup>. Hori horrela dela baieztatzeko, espekulazioa baino beste elementurik ez dugu, ordea. Mugurutzak berak<sup>2</sup> beste aukera bat ere aipatu zuen geroago, toponimoaren jatorria *Soius* edo \**Solius* pertsona izena izan zitekeela iradokiz, baina kontu handia gomendatzen zuen berak ere. Honekin batera, beste zenbait izen gogoan izan beharra ere aipatzen zuen, hala nola Arrankudiagako *Zollo*, Aiarako *Solloa* abizena edota gaurko izenean *Solloa* nahiz *Zolloa* aldaerak dituen Laudioko baserria.

Es Soxo el concejo más occidental de Ayala (Aiara), ubicado en paraje montañoso a la vertiente sur del pico Zaballa y al este del Pando. Algunos de sus barrios ocupan el vallejo del río Soxo, que desagua fuera del valle hacia Artziniega. Limita al oeste con el valle burgalés de Mena, al norte con Artziniega y el concejo de Costera (Opellora), al este con Erretes y Erbi, y al sur con Añes y Lexartzu. Madoz (1845-1850) le asigna los barrios de Sobrevilla, Villanueva, Orbilla, el Valle, Campijo, Gulpijeras, la Viña y Urruela. En el *Libro de Álava* de 1877, Ricardo Becerro de Bengoa le cita los caseríos de Campijo, La Iglesia, Orbilla, Orive, La Quintana, Urruela, El Valle, Vielpijérar (sic), Villanueva y La Viña. El citado Pascual Madoz, a mediados del siglo XIX le censaba 155 almas. En el *Nomenclátor* de 1950 tenía Soxo 118

<sup>1</sup> Mugurutza, 1997.

<sup>2</sup> Mugurutza, 2004, *Zaraobe*, 96.

habitantes, que para 1970 habían descendido a 85. En el último padrón del año 2000, se hallaban censados en el concejo 52 habitantes. De no producirse algún cambio en la tendencia, el futuro demográfico del concejo no parece, por tanto, muy halagüeño.

El primer testimonio documental del lugar data del año 864, donde aparece denominado con la variante *Desolio* en un texto con motivo de la donación a San Félix de Oca de varias iglesias de Ayala y Mena, entre ellas el monasterio de San Vicente de Añes, y que dice: *Angulo et Salbata et Eversa et Lixarso et Urzanico et Pando et Fluiso et Ervico et Desolio et Dobaltia et Salbantone*. Sin embargo, el sonido interior romance *-li-* evolucionó, como en otros casos, primeramente a *-ll-* y luego a *-x-*, antes de convertirse en *-g-* o *-j-*, como sucede con el paso de *muliere* a *mujer*, originándose la forma *Soxo*. Ya en épocas más recientes, con la desaparición de ese sonido en castellano y su evolución generalizada a *-j-*, se decidió adaptar la grafía a esta última letra, lo que dio lugar a la forma actual *Sojo*. Acerca de este último fenómeno, véase lo dicho sobre el nombre del concejo de *Lexartzu*. Por su parte, la sílaba *De-* inicial del testimonio *Desolio* bien pudiera ser la preposición castellana *de*, que también observamos en *Dobaltia* (*De-Obaldia*). A pesar de ello, muchos autores han querido relacionar el nombre de este lugar con el del pueblo navarro de *Desoio*. Toda lógica parece indicarnos que dicho nombre ha sido *Sollo* en la antigüedad y, muy probablemente también, *Zollo* fuera la forma eusquerica, pues es sabido que esta lengua tiende a realizar el cambio *s- > z-* en préstamos lingüísticos (*saco > zaku*, *sopa > zopa...*). Esta fue la razón que impulsó a la Academia a proponer la forma *Zollo* como versión eusquerica del nombre que en romance evolucionó a *Sojo*. La propuesta adquirió cierta difusión y tiene su homónimo en una anteiglesia vizcaína anexionada actualmente al municipio de Arrankudiaga, en el valle del Nervión. Pero ante la falta de evidencias documentales, la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) optó recientemente por la prudencia, dictaminando que dicho nombre sea en euskera *Soxo*, forma ampliamente documentada. Testimonio del uso del topónimo *Soxo* en euskera es el vecino barrio de *Soxoguti* en Artziniaga, compuesto de *Soxo* más *guti* que en euskera significa 'menor', quedando así *Soxoguti* 'Soxo menor' contrapuesto al concejo ayalés de *Soxo* que gozaría de mayor importancia.

Ante el amplio abanico de interpretaciones posibles resulta difícil dar prioridad con mínimas garantías a una u otra etimología. Una de ellas –y prácticamente la única aceptable– sería la de una evolución *desolium > desolio > solio > sollo > sojo*, con posible significado de 'desolado', es decir, 'no habitado'<sup>3</sup>, si bien no contamos al respecto con más elementos que la mera especulación. El mismo Mugurutzza<sup>4</sup> aventuró posteriormente la opción de que derivase del nombre de persona *Soius* o \**Solius*, si bien él mismo recomendaba cierta cautela, apuntando además la necesidad de tener presentes nombres como el vizcaíno *Zollo* en Arrankudiaga, apellidos ayaleses como *Solloa*, así como el caserío de Llodio (Laudio) que alterna en su denominación actual las formas *Solloa* y *Zolloa*.

<sup>3</sup> Mugurutzza, 1997.

<sup>4</sup> Mugurutzza, 2004, *Zaraobe*, 96.



## Berrones

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489631, Y.4771716, alt. 325 m.

Artziniegatik etorrita, Soxora heldzean dagoen auzo txiki bat da, A-4624 errepi-dearen ondoan. Auzoaren zatirik handiena Soxogutiko dermiokoa da eta, beraz, Artziniegako udalerrian dago. Udalen arteko mugaria errepidearen ezkeraldeko etxe baten ondoan dago eta, ondorioz, bakarrik azken eraikina altxatzen da Aiara udalerrian, aipatutako errepide horretako 60. puntu kilometrikora heldu baino apur bat lehenxeago.

Toponimian behin baino gehiagotan agertzen da *berrón* hitza. Ohikoan 'lehenengo landutako lurra, errotura' edo 'txaradia' esanahia ematen zaio. Enkarterriko Balmaseda hirian ere bada *El Berrón* izeneko auzoa, Mena haranarekiko muga-mugan.

Pequeña barriada ubicada en el acceso a Soxo desde la vecina localidad de Artziniega, a la vera de la carretera A-4624. La mayor parte del barrio se halla en jurisdicción de Soxoguti, siendo, por tanto, término municipal de Artziniega. El mojón divisorio se encuentra precisamente junto a una de las casas a la izquierda de la carretera, de modo que solo la última de las edificaciones se ubica en el municipio de Ayala (Aiara), algo antes de alcanzar el punto kilométrico 60 de la citada carretera.

El término *berrón* es bastante recurrente en toponimia. El significado atribuido suele ser el de 'terreno cultivado por primera vez, rotura' e, incluso, 'jaro'. En la villa encartada de Balmaseda, justo en el límite con el valle de Mena, también hay barriada de nombre *El Berrón*.

## Campijo

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489310, Y.4770075, alt. 440 m.

Bizkar nabarmen batean dago auzoa, kontzejuari dagokion haran osoa begi bistan duena. A-4624 errepidetik hel daiteke auzora, Artziniegatik etorri eta Soxoko auzoburua igaro ondoren. Ibaira jaitsi eta El Valle izen egokia duen auzoa pasatuta, bidea beste aldeko maldan gora abiatzen da, sigi-saga bortitz bat eginik, Campijoko etxetara heltzeko.

Izena *campo* hitzaren eratorria da eta *-ijo* atzizkiak ematen dio duen txikigarritasun kutsua. Atzizkia latinezko jatorrizko *-culu(m)* batetik heldu zaigu.

Barriada ubicada en una marcada loma que da vista al valle que ocupa el concejo. Se accede por la carretera A-4624, viniendo de Artziniega y sobrepasando la capitalidad de Soxo. Tras descender al río y pasar el barrio denominado propiamente El Valle, el carril se encarama a la ladera opuesta para superarla en un marcado zig-zag y alcanzar así las casas de Campijo.

El nombre es un derivado del término *campo*, con matiz diminutivo aportado por el sufijo *-ijo*, proveniente de su predecesor latino *-culu(m)*.



*Soxoko San Julian eliza*  
Iglesia de San Julián de Soxo

## Iglesia, La

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.489930, Y.4771031, alt. 405 m.

Auzo honetan daude San Julian parrokia eta kontzejuko aretoa. Gunera iristeko, Artziniegatik datorren A-4624 errepidea hartu behar da, ibarraren ekialdeko isurialdetik Soxo ibaiaren ibilbidea gutxi gorabehera segitzeko. 60. puntu kilometrikoa igarotakoan, Sobrevilla auzoa ezkerrean utzita, erreka igaro eta beste aldeko malda igo behar da. Malda horren gaineko bizkarrean daude eliza eta auzoburua osatzen duten gainerako eraikinak.

Mapa batzuetan gune hau, *Sobrevilla* edota bien elkartzea, *Sojo* izen soilaz identifikaturik agertzen da. Gunea bereiztea beharrezkotzat jotzen denean, herriko ahozko erabileran *La Iglesia* soila entzuten da, Becerro de Bengoak ere aipatua (1877), baina ez, aldiz, Madozek (1845-1850). Antzeko beste kasu batzuetan bezala, gune honen euskal izen gisa Euskal Herriaren mendebaldean parrokia dagoen auzoa izendatzeko erabili ohi den izena har liteke: *Elexalde*. Ikus Añes kontzejuko auzo izenki-deari buruz esandakoa.

Se trata de la barriada en que se ubica la iglesia parroquial de San Julián y también la sala del concejo. Se accede a ella por la carretera A-4624 que procede de Artziniega, siguiendo aproximadamente el curso del río Soxo por la vertiente oriental del valle. Pasado el punto kilométrico 60, se deja a la izquierda el barrio de Sobrevilla, para cruzar el arroyo y acometer el ascenso a la ladera opuesta, en cuya loma cimera se emplazan la iglesia parroquial y las demás edificaciones que conforman el barrio capitalidad del concejo.

En algunos mapas se denomina a este núcleo, así como a *Sobrevilla* o al conjunto de ambos, simplemente *Sojo*. El uso oral local cuando se hace necesario discriminarlo es simplemente *La Iglesia*, forma que cita Becerro de Bengoa (1877), pero no Madoz (1845-1850). Como en otros casos semejantes, creemos que en euskera podría identificarse este núcleo con el nombre habitual en el País Vasco occidental para los barrios donde se sitúa la parroquia: *Elexalde*. Véase lo dicho respecto al barrio homónimo del concejo de Añes.

## Orbilla

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490241, Y.4770973, alt. 435 m.

Kontzejuko gune parrokialetik gertu dagoen auzo bat da eta auzoburu hartatik irits daiteke, bizkarraren gainetik hegoalderantz igotzen den errepidea erabiliz. Auzoaren sarreran dorretxe bat egon zen eta gaur egun oraindik ere aztarna batzuk antzeman daitezke han. Bitxia bada ere, 1730ean *Soxo* bera auzo honen zati bezala agertzen zen.

Izenaren interpretazio etimologikoa zaila da eta aukera bat baino gehiago eskain daiteke. Herri mailan gaztelaniazko *-villa* hitzarekin lotu ohi den arren, euskal toponimoetan oso sarritan aurkitzen da *-billa* forma, *biribil* izenondo arruntaren era laburtu gisa. Aukera horretatik abiatuta, baliteke lehen osagaia mendebaldeko euskarazko *uri* aldaera izatea, euskara estandarrean ‘hiri’ esaten dena eta oro har ‘biztanledun lekua’ adieraziko lukeena. Era horretan, *\*uribiribilla* > *\*urbilla* > *orbilla* ‘hiri biribila’ izango litzateke. Beste aukeretako bat *orbe* euskal hitzarekin lotzea litzateke, Mitxelenaen iritziz<sup>5</sup>, euskarazko *orube* berbarekin erlazionatua, eta erantsirik gaztelaniazko *-illa* atzizki txikigarria eramango lukeena. Azkenik, Erbitik gertu dagoen *Oribe* dorretxearen izenaren eratorria ere izan liteke, eta haren txikigarria erabiliko zen eroritako dorretxea izendatzeko. Modu horretan, kontzejuko dorretxe bi horiek *Oribe* eta *Or(i)billa* pareta osatuko zuten.

Se trata de una barriada próxima al núcleo parroquial del concejo, a la que se accede desde el mismo por el carril que hacia el sur se encarama por la loma cimera. A la entrada del barrio existió una casa-torre cuyas ruinas aún hoy pueden distinguirse en el terreno. Curiosamente en 1730 este barrio figuraba como conteniendo a *Soxo*.

La interpretación etimológica del nombre es dificultosa y puede ofrecer más de una opción. Aunque popularmente puede relacionarse con el castellano *-villa*, en topónimos eusquéricos es muy frecuente la forma *-billa* como contracción del adjetivo común *biribila* ‘redondo’. Partiendo de esta posibilidad, podría especularse con la hipótesis de que el primer término del compuesto fuese *uri* ‘villa’ o ‘lugar habitado’, en su forma occidental y que en euskera estándar es *(h)iri*. De este modo *\*uribiribilla* > *\*urbilla* > *orbilla*, significaría ‘villarredonda’. Otra opción sería

<sup>5</sup> 1997, 504, 143. or.

vincular el nombre al vocablo eusquérico *orbe*, que Mitxelena<sup>6</sup> pone en relación con *orube* ‘solar’, al que se hubiese añadido el sufijo diminutivo castellano *-illa*. Por último, también pudiera derivar del nombre de la casa-torre de *Oribe*, próxima a Erbi, y cuyo diminutivo podría haber designado en origen a la casa principal actualmente en ruinas, siendo este par de torres del concejo en origen *Oribe* y *Or(i)bill*a.

## Oribe

Dorretxea / Casa-torre: ED50 30T X.490492, Y.4769781, alt. 345 m.

Dorretxe ezagun bat da nahiz eta gaur egun haren aztarnak baizik ikusterik ez dagoen. Angulotik Aiararako sarrera zaintzeko eraikia, dorretxea Soxoko haranetik urrun samar dago, ekialdera begira, Erbiko kontzejuko auzoburuaren aurrez aurre, beste aldeko magalean. Hortaz, alderdi honetan Erbi eta Soxo kontzejuen arteko muga den Ibaizabal erreka haren haranean dago. Oriberean esparruan, dorretxea ez ezik, erantsitako beste etxe bat, hau ere dorre izandakoa, eta errota bat ere egon ziren garai batean, errota beste eraikuntzen azpian eta aipatutako ibaiaren ezkerreko hegian kokatua. Dorretxera joateko biderik egokiena Erbiko La Llana baserritik abiatzen da, Buzenti izeneko bidean gora, hain zuzen, aipatutako malda gainditu ondoren dorrea dagoen lekura iristeko. Soxotik joanez gero, La Iglesia auzotik hego-ekialderantz joan behar da bizkarrara segiturik, Orbilla auzoa eta Cruz de Orbilla gaina igaro eta, mendatea zeharkatuta, beste aldeko magalean behera dorreraino jaitsi. 1535ean Urduñako Miguel Oribe untziratu zen Sevillan Ameriketara joateko. Litekeena da leku honen lehenengo aipamena



*Oribe dorretxearen aztarnak*  
Ruinas de la casa-torre de Oribe

<sup>6</sup> 1997, 504, pág. 143.

1475eko *Bienandanzas e Fortunas* liburukoa izatea, Gordexolako Largatxa, Angulo eta San Pelaio leinuez mintzatzen zaiguneko zatian, *los de Sant Pelayo de Mena e los de Uribe* aipatzen dituenen. 1957 inguruaz geroztik ez da inor bizi toki honetan.

Aurreko lekukotza ikusita, *Oribe* izenaren lehen osagaia *uri* izango litzateke, ‘hiria’ edo ‘biztanledun lekua’<sup>7</sup>, eta bigarrena *-be* atzizkia ‘behe, azpian’: ‘hiriaren azpian’. Bestela, *oru* ere izan liteke ‘beheko orubea’ adierarekin. Azpimarratu behar da Soxoko elizatik begiratuta duen kokaleku apalagoa eta, hortaz, toponimia azalpena erabat egokia litzateke. *Uribe*, gainera, Bizkaiko merindade zabal eta ezaguna da, oso hedatua dagoen abizen baten sortzaile.

Es una conocida casa-torre, de la que hoy en día solo quedan algunos restos, y que dominaba la entrada de Ayala (Aiara) desde Angulo. Se encuentra en lugar muy alejado del valle que ocupa Soxo, pues mira al este desde la ladera opuesta al vecino concejo de Erbi, justo frente a su capitalidad. Se halla, por tanto, en el valle del río Ibaizabal, que en esta zona es límite entre los concejos de Erbi y Soxo. El complejo de Oribe constaba, además de la casa-torre, de una casa aneja, también antigua torre, y un molino al pie de todo ello en la orilla izquierda del citado río. El acceso más cómodo a la torre se realiza desde el caserío La Llana de Erbi por el llamado camino de Buzenti, que supera la ladera citada para alcanzar el emplazamiento de la torre. Procedentes de Soxo, desde el barrio La Iglesia debe seguirse el camino que sigue la loma en dirección sureste, cruzar el barrio Orbilla y por el llamado alto de la Cruz de Orbilla, alcanzar el collado y descender por la ladera opuesta hasta la torre. En 1535 Miguel de Oribe de Urduña se embarcó en Sevilla con destino a América. Es posible que el primer testimonio de este lugar sea de las *Bienandanzas e Fortunas* en 1475, cuando nos habla de la estirpe de Largatxa (Gordexola), Angulo y San Pelayo y cita a *los de Sant Pelayo de Mena e los de Uribe*. El lugar fue despoblado hacia 1957.

Visto el anterior testimonio, *Oribe* sería un compuesto del euskera *uri* ‘villa, casa’ o ‘lugar habitado’<sup>8</sup> y el sufijo *-be* ‘debajo’: ‘bajo la villa’, o bien, de *oru* ‘solar’, con la significación de ‘solar de abajo’. Hay que remarcar su situación más baja con respecto a la iglesia de Soxo, por lo que las explicaciones toponímicas dadas serían perfectamente viables. *Uribe* es además la extensa y conocida merindad vizcaína que ha dado lugar a un extendido apellido.

## Sobrevilla

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490131, Y.4771161, alt. 410 m.

Kontzejuko auzorik handiena da, haren auzoburutik gertu dago eta Artziniegatik datorren A-4624 errepidetik iristen da. Berrones auzoa eta 60. puntu kilometrikoa igarota, errepidearen ezkerrean daude auzo honetako etxeak, maldan gora lerro-lerro jarriak. Kartografia batzuetan auzoburuko zati bezala agertzen da, errepidearen eskui-

<sup>7</sup> Honez gainera, Mitxelena (1997, 497, 141. or.) dio Mogelet eta Garatek *ori(o)* osagaia duten abizenak eta toponimoak *ur* hitzarekin lotu dituztela.

<sup>8</sup> Mitxelena (1997, 497, pág. 141) indica además que Moguel y Garate han relacionado los apellidos y topónimos en *ori(a)* con *ur* ‘agua’.

naldean eta bizkarrean bertan. Auzoaren goiko aldean Sobrevilla dorrea eta Madozek (1845-1850) aipaturiko Santa Barbara ermita daude.

Izena gatzelaniazkoa da eta esanahi argia du, batetik *sobre* ‘gain’ preposizioa baitu eta, bestetik, *villa* ‘hiri’ substantiboa, biak ala biak oso hitz arruntak hizkuntza horren edozein hiztunen erabileran, ‘hiriaren gainean’. Kartografia batzuetan auzo hau eta *La Iglesia* ez dira bereizten, eta *Sojo* izenarekin identifikatzen da bien multzoa.

Se trata del barrio más grande del concejo, cercano a la capitalidad del mismo y al que se accede por la carretera A-4624 procedente de Artziniega. Una vez pasado el barrio Berrones y el punto kilométrico 60, a la izquierda de la carretera trepan por la ladera unas casas en hilera que conforman la citada barriada. En algunas cartografías figura como parte del núcleo capital, situado en la loma a la derecha de la carretera. En lo alto del barrio se emplazan la torre de Sobrevilla y la ermita de Santa Bárbara, citada por Madoz (1845-1850).

El nombre es claramente castellano y de significado diáfano, pues contiene la preposición *sobre* y el sustantivo *villa*, ambos comunes en el uso de cualquier hablante de esta lengua. En algunas cartografías, al conjunto de este barrio y el llamado *La Iglesia*, se le asigna sin más el topónimo *Sojo*.

## Ubiarte

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489697, Y.4770165, alt. 380 m.

El Valle izena duen auzoko pare bat etxeri esaten zaie horrela, Soxo errekaaren ekialdeko maldan dauden horiei, hain zuzen ere. Kontzejuko auzo nagusitik joaten da haietara, bidean aurrera segituz ibaira jaisteko. Errepideak zubia zeharkatu eta El Vallera joateko eskuinera egiten duen tokian doi, guk ezkerrera hartuko dugu eta laster helduko gara Ubiarte auzoko eraikinik nagusienera.

Dokumentazioak *Ubiarte* aldaeraren egokitasuna erakusten du. Hau da, halaber, Federico Barrenengoak Aiarako toponimiaz egindako lanean (1990) jasotzen duen bakarra. Herri hizkerak gaur egun hedatua dagoen *Urbiete* aldaeraraino eraman du izena. Udaletxe zaharreko bilera aretoaren buruan dagoen 1930eko mapak, ordea, *Ubierte* aldaera dakar eta, beharbada, bitarteko urrats horrek lagunduko digu aldaketa hori ulertzen. Izenak euskal konposatu baten itxura du, lehen osagaia *ubi-* izango lukeena, (*h)obi* arruntaren aldaera ‘zuloa, sakonunea’, edo *ibi* formaren mendebaldeko aldera, eta edozein kasutan *arte* izenaren postposizioaz lagunduta. Horrenbestez, ‘hobien artean’ edo ‘ibien artean’ esan nahiko luke. Daitekeena da, ordea, herriak gaizki ahoskatutako *Uriarte* zahar baten desitxuraketa izatea ere, oso ohiko toponimoa baita hau Euskal Herriko mendebaldean. *Uriarte* izenari buruz, ikus Olabezarko kontzejuko auzo izenkideaz esandakoa.

Hace referencia a un par de casas pertenecientes al barrio denominado El Valle, concretamente las que se ubican al lado oriental del arroyo Soxo. Se accede a ellas desde la capi-

talidad del concejo, continuando por el carril para bajar al río. Nos desviamos a la izquierda justo en el momento en que la carretera quiebra a derecha para cruzar un puente y acceder a El Valle, llegando así inmediatamente a la edificación principal del barrio.

La documentación apunta hacia el nombre *Ubiarte*. Esta es también la única forma que recoge Federico Barrenegoa en su obra sobre la toponimia ayalesa (1990). La dicción popular lo ha hecho derivar hasta la forma *Urbiete*, generalizada en la actualidad. Quizá el eslabón necesario para entender dicha modificación, lo encontremos en la variante *Ubierte*, recogida en el mapa de 1930 que preside el salón de plenos de la antigua casa consistorial. El nombre parece compuesto del euskera *ubi-*, forma correspondiente al común *(h)obi* 'hoya, agujero', o también una variante occidental de *ibi* 'vado', que llevaría el sustantivo *arte* 'entre' pospuesto. Significaría, por tanto, 'entre hoyas' o 'entre vados', habiéndose cerrado la vocal *-a* > *-e* por influencia de la *i* anterior y por asimilación con la *-e* posterior. También pudiera ser corrupción popular de un anterior *Uriarte*, topónimo muy habitual en todo el occidente vasco. Sobre el nombre *Uriarte*, véase lo dicho para el barrio de este nombre en el concejo de Olabezar.

## Urruela

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.488833, Y.4769949, alt. 435 m.

Soxoko auzoburutik urrun samar dago auzo bildu hau, handik hego-mendebaldera, El Valle eta Campijo auzoen gaineko bizkar baten mukuruan. Kontzejuko auzo nagusitik hel daiteke, errepideari jarraituz El Vallera heldu eta han Urruelara doan ezkerreko bide adarra harturik, Vulpijeraserako bidegurutzea baino aurrerago.

Hala Madozek (1845-1850) nola Becerro de Bengoak (1877) era horretantxe ematen dute izena. Bada abizen berdin-berdina ere, seguru asko, eskualdean hain arrunta ez den *Orruela* paraleloa sortuko zuena. Beharbada, hasierako hots horrek erromantzearen eraginez eboluzionatuko zuen, Añesko kontzejuan *Urzaniko* izenaren iruzkina egitean esan zen bezala. Izenaren esanahia ez da argia, baina amaierak iradokitzen duenez, erromantzezko txikigarri baten aurrean egon gaitzke, *cabaña* hitzetik *cabañuela* era sortzen den antzera etab. Beste aukera bat litzateke *(h)ur* (*Corylus avellana*) hitzarekin lotutako euskal *\*Urrola* zahar bat izatea, eta *\*Urrola* horren eboluzioan, erromantzearen eraginez, azentua daraman silaban *o* > *ue* bihurtuko zen, halako bila-kaerak oso ugariak baitira erromantzean: *óseo* / *hueso*, *poder* / *puedo*, *óvulo* / *huevo* etab. Hala ere, aukera honekin historian oso atzera egin beharko genuke eta, beraz, kontu handiz hartu behar da.

Se trata de una barriada compacta situada a cierta distancia del núcleo capital de Soxo, concretamente al suroeste, encaramada en una loma sobre los barrios El Valle y Campijo. Se accede desde la capitalidad del concejo, siguiendo la carretera hasta El Valle para tomar allí una desviación a la izquierda que nos conduce a Urruela, más adelante del cruce de Vulpijeras.

Tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877) citan el nombre de esta forma. Existe además un apellido idéntico, que debió de generar además otro paralelo aunque menos común en la zona, *Orruela*, y que muy probablemente es consecuencia de una evolución de su primer sonido influenciada por el romance, tal como se explica al hablar del nombre *Urzaniko* en Añes. El significado de dicho nombre no es claro, aunque su parte final indica que bien pudiera ser un diminutivo romance, similar al que se aprecia en términos como *ca-bañuela*, a partir de *cabaña*, etc. Otra opción sería la de un primitivo y eusquérico \**Urrola*, relacionado con *(h)ur*, ‘avellano’ (*Corylus avellana*), en el que se hubiese dado la evolución romance *o > ue* en aquella sílaba sobre la que recae el peso del acento, como la que se aprecia en *óseo / hueso*, *poder / puedo*, *óvulo / huevo*, etc. En cualquier caso, esta opción supone un retrotraimiento histórico significativo, por lo que ha de tomarse con extrema cautela.

## Valle, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489672, Y.4770253, alt. 325 m.

Etxe talde txiki batez osatutako auzoa da, Soxo ibaiaren ertzean, auzoburutik datorren errepideak La Viña, Vulpijeras, Urruela eta Campijo auzoetara joateko, ibaia zubi batetik zeharkatzen duen tokian hain zuzen ere.

Izena deskribatzaile arrunta da eta esanahi argia du gaztelaniaz dakien edonoren-tzat. ‘Ibarra, harana’ esan nahi du eta, parrokiako gunetik aipaturiko auzo horietara ailegatzeko, haranaren hondoraino joan behar izateari egiten dio erreferentzia.

Constituye el barrio un pequeño grupo de casas ubicadas a orillas del arroyo Soxo, justo en el punto en que la carretera que procede de la capitalidad lo cruza por un puente, para dar así acceso a los barrios de La Viña, Vulpijeras, Urruela y Campijo.

El nombre es un descriptor común de significado claro para todo castellano hablante, que hace referencia precisamente a la necesidad de descender desde el núcleo parroquial al fondo del valle, para acceder a los barrios citados.

## Villanueva

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.490241, Y.4770976, alt. 420 m.

Sobrevilla auzotik gertu dagoen auzo txiki bat da, parrokiatik ekialdera eta ibar xumeaz beste aldera. Sobrevilla zeharkatzen duen maldaren erditik joan daiteke, hegoalderantz doan bidetik, edo Artziniegatik datorren A-4624 errepideak La Iglesia gunera iritsi aurretik eman behar duen azken bihurgune batetik, ibaia zeharkatu baino lehen.

*Villanueva* izena oso ohikoa da hala toponimo gisa nola abizen bezala, eta leku horretan lehenengoz etxeak eraiki ziren uneari egiten dio erreferentzia. Gogoan izan behar dugu *villa* hitzak ‘etxe taldea’ esan nahi duen arren, oro har ‘jendea bizi den tokia’ ere adieraz dezakeela. Bitxia bada ere, seinaleztapen ofizialetan hitz bitan ida-



tzirik ageri da: *Villa Nueva*, eta horrek esan nahiko luke hitz bakoitzak bere azentua eramane behar duela: *Villa Nuéva*. Ez da hau, ordea, ahozko hizkeran erabiltzen den forma normalizatua, eta ez da halakorik sustatu behar ere. Ondorioz, hitz bakarrean *Villanueva* idaztea gomendatzen da, Madozek (1845-1850) eta Becerro de Bengoak (1877) egin zuten bezala, eta ahoskerari dagokionez, *Villanuéva* esan behar da, azentua silaba bakar batean jarrita, egin ohi den bezala.

Es un pequeño grupo de casas cercano al barrio de Sobrevilla, al este de la iglesia parroquial y al otro lado de la exigua vaguada. Se accede al mismo desde la zona media de la cuesta que recorre Sobrevilla, por carril que se dirige hacia el sur, o desde la curva que la carretera A-4624 procedente de Artziniega ha de dar en última instancia para acceder al barrio La Iglesia, justo antes de cruzar el río.

El nombre *Villanueva* es un topónimo muy habitual también como apellido y hace referencia al momento en que allí se edificó por primera vez. Recuérdese que *villa* no significa solamente 'grupo de casas', sino también 'lugar habitado' en general. Curiosamente en la señalización oficial figura separado *Villa Nueva*, lo que indicaría que ambas palabras deberían acentuarse: *Villa Nuéva*. No es este el uso oral normalizado, ni debe propiciarse, por lo que ha de escribirse todo junto *Villanueva*, como hacen además Madoz (1845-1850) y Becerro de Bengoa (1877), y pronunciarse como se hace habitualmente, *Villanuéva*, con la fuerza del acento recayendo en una sola sílaba.



*La Viña auzoa eta Gorobel mendilerroa lainopear*  
*Barriada La Viña y sierra Sálvada bajo la niebla*

## Viña, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.489689, Y.4770918, alt. 375 m.

Auzo hau eliza nagusiaren mendebaldean dago, tenplutik oso gertu. Soxo ibaia-  
ren beste aldeko bizkar xume batean dago, La Iglesia auzoaren aurrez aurre. Etxe  
hauetara ailegatzeko Artziniegatik datorren A-4624 errepidea hartu behar da eta,  
kontzejuko auzoburura iritsi baino lehen, berau utzita, eskuinera doan adar batetik  
desbideratu. Auzo nagusiaren aldirietan, apur bat aurrerago, La Quintana dorrearen  
aurriak aurkituko ditugu.

Badirudi izenak lurzoruaren erabilera zaharrari egiten diola erreferentzia, dudarik  
gabe Aiaran txakolina ekoizteko tradizio zaharrarekin lotua.

Se trata de una compacta barriada situada al oeste de la iglesia parroquial y cercana a  
ella. Se ubica en una modesta loma al otro lado del río Soxo, justo frente al barrio La Iglesia.  
Se accede al grupo de casas siguiendo la carretera A-4624 procedente de Artziniega, para  
dejarla por un ramal a la derecha antes de alcanzar la capitalidad del concejo. En sus inme-  
diaciones, un poco más adelante, se hallan las ruinas de la torre de La Quintana.

El nombre parece hacer referencia al anterior uso agrario del terreno, relacionado sin  
duda con la tradición milenaria de producción de chacolí en Ayala [Aiar].

## Vulpjeras

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.488991, Y.4770305, alt. 430 m.

Kontzejuko auzoburutik aparte samar dagoen etxe multzo txiki bat da. Pando  
mendiaren ekialdeko magalean dago kokatua, El Valle auzoaren gainean eta Campi-  
joren aurrez aurre, ibarraren beste aldeko hegalean. Vulpjeras gunera joateko Artzi-  
niegatik Soxora doan A-4624 errepidea hartu behar da. Kontzejuko gunea nagusia  
pasatu ondoren, errepideak hegalean zeharka jarraitzen du eta errekaraino jaisten da  
El Valle aldean. Hemendik eskuinaldetik abiatzen den bigarren mailako adar batek  
eramaten gaitu Urruelara baina, auzo honetara iritsi aurretik, eskuinera dagoen zubi  
batetik Soxo ibaia zeharkatu eta maldan gora helduko gara Vulpjeras auzora.

XVIII. mendean *Bulpjeras* grafian ageri da eta 1634an *Gulpjeras* abizena ere do-  
kumentatzen dugu, Madozek ere (1845-1850) dakarren gisara. Baina  $b > g$  aldaketa  
hizkera zabarrari dagokion ohiko fenomeno da eta ez da normalizatutako grafietan  
aintzat hartu behar. Becerro de Bengoak (1877) eman zuen *Vielpijéar* formak akatsa  
dirudi aldaera baino gehiago. Etimo gardeneko toponimoa da, latinezko *vulpes* ‘azeri’  
(*Vulpes vulpes*, hain zuzen ere) hitzetik eratorria, eta ‘azeri zuloa’ esan nahi duena. Izan  
ere, piztia hori izendatzeko *vulpes* formak gaztelania zaharreko *vulpeja* ekarri zuen,  
baina hitz hau baztertuta, *garcía*, *raposo* (*raboso* ‘buztanduna’ hitzetik), edo *zorra* beza-  
lako hitzak erabiltzen hasi ziren, azken hau portugasetik mailegatua, eta hizkuntza

horretan berez ‘andre narrasa, emagaldua’ esan nahi duena. Animalia hau izendatzeko goitizen ugari aurkituko dugu. Izan ere, Europa osoan hedatutako uste baten arabera, azeriaren izena aipatze soilak haren berehalako agertzea ekartzen du. Euskaraz ere saihestu egiten da haren izenaren aipamena, eta pertsona izen batzuk ematen zaizkio haren ordeztuz, hala nola latinezko *Lucius* izenetik datorren *luki* edo *Acenarius* izenetik (*Aznar* izen berezi edota deituraren jatorria, halaber) heldu den *azeri*. Orobat egin ohi da frantsesez ere azeriari *Renard* etab. esatean. Aztertzen ari garen auzoari dagokionez, hizkera arruntetan *Voltijeras* forma entzun daiteke sarritan, seguruenik herri etimologia oker baten ondorioz, jendeak toponimoaren barruan *tijeras* hitza, ‘artaziak’, ikusten duelako.

Se trata de un pequeño grupo de casas bastante alejado del núcleo capitalidad del concejo. Se ubica en la ladera oriental del pico Pando, sobre el barrio de El Valle y frente al de Campijo, en la ladera opuesta de la vaguada. Se accede a Vulpijeras por la carretera A-4624 que de Artziniega lleva a Soxo. Una vez pasado el núcleo central del concejo, la carretera continúa a media ladera, para descender al río en las inmediaciones de El Valle. De aquí un ramal secundario por la derecha nos encamina hacia Urruela, pero antes de llegar a este grupo de casas, un puente a la derecha nos permite cruzar el río Soxo y trepar por la ladera hasta Vulpijeras.

En el siglo XVIII figura como *Bulpijeras* y en 1634 documentamos el apellido *Gulpijeras*, forma que también da Madoz (1845-1850). Sin embargo, el cambio *b > g* es frecuente como vulgarismo y no debe adoptarse en grafías normalizadas. La forma *Vieipijéar* que da Becerro de Bengoa (1877) parece más una errata que una variante real. Se trata de un topónimo de étimo diáfano, derivado del latín *vulpes* ‘zorra’ (precisamente *Vulpes vulpes*) y significa, por tanto, ‘zorrera, madriguera de zorras’. Para denominar esta alimaña, la forma *vulpes* dio *vulpeja* en castellano, pero esta palabra fue arrinconada por otras como *garcía*, *raposo* (de *raboso* ‘rabudo’), o *zorra*, préstamo del portugués que en origen significaba ‘arrastrada’ o ‘prostituta’. La abundancia de apodos para esta alimaña se debe a la creencia popular, común en toda Europa, de que el hecho de mentar al zorro por su nombre, invocaba su presencia indeseada. En euskera también se evita su nombre, asignándole otros propios de persona, como *luki*, del latín *Lucius*, o *azeri*, del latín *Acenarius* (origen también del nombre propio y apellido *Aznar*). Otro tanto se hace en francés cuando se le llama *Renard*, etc. Respecto al barrio que nos ocupa, en el habla local es frecuente escuchar el uso de la forma *Voltijeras* y seguramente se debe a una errónea etimología popular que ve en ella el vocablo común *tijeras*.

## Zuhatza



1932



2000

Aiarako iparraldean dagoen kontzeju zabal samarra da, Itzalde ibaiaren ibarra hartzen duena. Iparraldean Okondo ibar hurbila du; ekialdean Laudio udalerrria, Luiaondo eta Arespalditza; hegoaldean Kexaa eta Beotegi, eta mendebaldean Menagarai. Pascual Madozen *Diccionario* lanean (1845-1850) honako etxalde hauek ageri dira: Gamuriarte, Lequisima (sic), Magdalena, Ibageñ, La Cuadra, Cerrabe, Mendivil eta Jaureguibengo. Becerro de Bengoak 1877an etxalde hauek aipatzen ditu: Cالدالسو, Cerrabe, El Cristo, Ibagüen, Iruleta, Jauri-vengo, Leguizima, La Magdalena, Mendivil, Negorta, Ojiasco, Olaorta, Undio eta Urieta. XIX. mendearen erdi aldera Madozek dio 181 biztanle zituela kontzejuak. 1950ean 274 zituen, 1970ean 203 eta 2000ko erroldan, zentsatutako 145 biztanle zenbatzen ziren. Duen kokalekua oso periferikoa izan ez arren, Zuhatzako biztanleria ere nabarmen ari da gutxitzen.

*Zuhatza* euskal toponimoa da eta osagai hauek ditu: *zuhatz*, estandarreko ‘zuhaitz’ hitzaren aldaera, eta ugaritasunezko *-tza* atzizkia. Horrenbestez, esanahi gardena ‘zuhaiztia’ da. Inoiz esan izan da<sup>1</sup> toponimoaren oinarrian dauden osagaiak *zuhaitz* eta *-a* direla. Bestalde, izenaren euskal grafian *-h-* letra erabiltzea ez da mendebaldean oso ongi etorria, baina Euskal Herri osoan ageri den toponimoa denez gero, kasu honetan hobetsi egin da, izen hori daramaten leku guztietan forma bakar bat eta berbera arauzteari egokiagoa iritzi zaiolako.

Extenso concejo ubicado en la zona septentrional de Ayala (Aiara) que abarca el valle del río Itzalde. Limita al norte con el vecino valle de Okondo; al este con el municipio de Llodio

<sup>1</sup> Oribe, 2001.



*Zuhatza kontzejua kokatzen den ibar luzea*  
Amplio valle donde se sitúa el concejo de Zuhatza

(Laudio), Luiaondo y Arespalditza; al sur con Quejana (Kexaa) y Beotegi, y al oeste con Menagarai. En el *Diccionario* de Pascual Madoz (1845-1850), se le asignan los caseríos de Gamuriarte, Lequisima (sic), Magdalena, Ibageñ, La Cuadra, Cerrabe, Mendivil y Jauregui-bengo. Becerro de Bengoa en 1877 le cita los caseríos de Cadalso, Cerrabe, El Cristo, Ibagüen, Iruleta, Jauri-vengo, Leguizima, La Magdalena, Mendivil, Negorta, Ojiasco, Olaorta, Undio y Urieta. A mediados del siglo XIX Madoz contaba en el concejo 181 almas. En 1950 tenía 274 habitantes, en 1970 eran 203 y en el padrón del año 2000 había en el concejo 145 habitantes censados. A pesar de su situación no extremadamente periférica, el despoblamiento también es notorio en Zuhatza.

*Zuhatza* es un topónimo euskérico compuesto de *zuhatz* 'árbol', variante del estándar *zuhaitz*, y el sufijo abundancial *-tza*, con el significado bastante evidente de 'arboleda'. Se ha sugerido en alguna ocasión<sup>2</sup>, que el topónimo también pudiera proceder de *zuhaitz* y *-a*, es decir, 'el árbol'. Por otra parte, el uso de la letra *-h-* en la grafía eusquérica del nombre, poco popular en el occidente de Euskal Herria, se debe al hecho de que es un topónimo muy frecuente en todo el país, considerándose conveniente la normativización de una única forma para todos los lugares así denominados.

<sup>2</sup> Oribe, 2001.

## Armintza

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497008, Y.4774695, alt. 210 m.

Andra Maria Sortzez Garbiaren ermitatik gertu dauden sakabanatutako etxeek osatzen dute auzoa, eta ahoz ermita horri Armintzako Kontzepzioa esaten zaio. Tenplu xumea Zuhatzako auzoburutik iparraldera, ondoko Okondo haranera doan A-3641 errepidearen eskuineko bazterrean dago, 53. puntu kilometrikoaren aldirian. Ermita Itzalde ibaiaren ondoko bide bazterrean dagoen arren, etxerik gehienak errepidearen beste aldean daude.

*Armintza* izena errepikatu egiten da Bizkaiko Lemoiz elizateko auzo arrantzale batean ere<sup>3</sup> eta etimo ilunekoa da. Dena dela, ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzizkia duela dirudi. Gaur egun toponimoa aipatutako ermitari lotua erabili ohi da, eta inguruko auzoa izen horren bidez identifikatzeko usadioa galduta, ermitaren adbokazioa erabiltzen da ohikoan horretarako, hau da, auzoari askotan *Kontzepzioa* esaten diote. Ohikoa izan da Euskal Herrian toponimoen ordez hagianimoak (santuen izenak edo adbokazioak) erabiltzea eta joera hori areagotu egin da euskara galdu den heinean. Hala ere, bakoitzari berea zor zaionez, hagianimoa ermita edo hari dagokion jaia izendatzeko erabili behar da eta auzoa izendatzeko, aldiz, toponimoa.

La barriada corresponde a las casas diseminadas que se hallan cercanas a la ermita de la Inmaculada Concepción de Nuestra Señora, conocida como la Concepción de Armintza. El pequeño templo se halla a la orilla derecha de la carretera A-3641 que del núcleo capitalidad de Zuhatza se dirige hacia el norte al vecino valle de Okondo, concretamente en las inmediaciones del punto kilométrico 53. Aunque la ermita se halla al lado de la carretera cercano al río Itzalde, la mayor parte de las casas del barrio se ubican al lado contrario.

El nombre *Armintza* tiene su doblete en un barrio pesquero de la anteiglesia de Lemoiz en Bizkaia<sup>4</sup> y es de étimo opaco. Sin embargo, sí parece contener el sufijo abundancial *-tza*. El topónimo actualmente se utiliza asociado a la ermita citada más arriba, habiéndose perdido en el uso su extensión al barrio que la rodea, que normalmente se designa mediante la advocación de aquella, es decir, que suele llamarse *Concepción* al barrio. Este fenómeno de sustitución de topónimos por hagianimos (nombres de santos o advocaciones), ha sido muy frecuente en el país y se ha acentuado con el retroceso del euskera. Sin embargo, parece que lo más correcto es utilizar cada denominación para su objeto: la advocación para la ermita y su fiesta correspondiente, y el topónimo para la barriada.

<sup>3</sup> Jaime Kerexetak (1992) dio Bizkaiko toponimo honen jatorria *Aurmentza* dela eta, egia esan, *Aurmenza* eta *Arumenza* formak dira agirietan aurki daitezkeenak.

<sup>4</sup> Jaime Kerexeta (1992) indica el origen *Aurmentza* para este topónimo vizcaíno que, efectivamente, se documenta *Aurmenza* y *Arumenza*.



*Enegorta edo El Valle dorretxea*  
Casa-torre de Enegorta o El Valle

## Enegorta

Antzinako auzoa / Antiguo barrio: ED50 30T X.496391, Y.4775415, alt. 395 m.

Gaur Enegorta izenaz ezagutzen den dorrea Okondora doan A-3641 errepidearen ondoan dago, Armintzako Kontzepzio ermita baino apur bat aurrerago eta errepidearen beste aldean. Gaur egun izena dorrea eta haren gaineko mendia izendatzeko erabiltzen da, baina garai batean auzo bat ere izan zen, eta etxeak dorrearen ondoan Itzalderra isurtzen den errekaostoen ibarraren goialdeko mendi-leporik gorenean zeuden, XX. mendearen erdiko kartografietan oraindik ere agertu bai, baina garai hartan bertan hustu baziren ere.

Dokumentazio zaharrean *Enegorta* eran ageri da auzoaren izena, eta halaxe hedatu da abizen bezala ere. *Negorta* aldaera, beraz, berri samarra da. Hori gutxi balitz, dorrea ez zen sekula izen horrekin identifikatu, *El Valle* 'harana' bezala baizik, duen kokalekuari zor diona. *Enegorta* izenaren esanahia ez da argia. Inoiz, euskarazko *a(ha)bi* (*Vaccinium myrtillus*) hitzetik heldu dela esan da, aurreko *Abigorta* baten bitartez. Ego-kiagoa dirudi, ordea, dokumentuetan ageri den jatorrizko erarekin bat datozen azalpenak hobestea. Adibidez, *Enegorta* formaren oinarrian *Eneko* antroponimoa egon

daiteke eta bigarren osagaia, aldiz, argi eta garbi *gorta* substantiboa dela ematen du, 'kortabaso, eskorta', euskal toponimian oso ugaria.

La torre hoy conocida como de Enegorta se halla junto a la carretera A-3641 que se dirige a Okondo, pocos metros más adelante de la ermita de la Concepción de Armitza y al otro lado del carril. Aunque hoy día el nombre se asigna a la conocida torre y al monte situado sobre ella, hubo casas que conformaron un barrio de este nombre en el collado más elevado de la vaguada que vierte al Itzalde cerca de la torre, y que aún figuraban en la cartografía de mediados del siglo XX, época en que quedó despoblado.

Dicho barrio, se documenta siempre en las épocas más antiguas como *Enegorta*, forma transmitida además a través de los apellidos. La denominación *Negorta* es, por tanto, moderna. Por si ello fuera poco, la torre nunca se conoció con estas denominaciones, sino como de *El Valle*, debido a su ubicación. El significado del nombre no es claro. En alguna ocasión se ha apostado por hacerlo derivar de *a(ha)bi* 'arándano' (*Vaccinium myrtillus*), presuponiendo un origen desde *Abigorta*. Parece más lógico, sin embargo, optar por otras opciones más acordes a la forma documental original. Así, tras este nombre podría ocultarse el antropónimo *Eneko*, mientras el segundo componente parece con toda evidencia el sustantivo *-gorta* 'sel' o 'corral', muy abundante en la toponimia vasca.

## Etxebarria

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495800, Y.4771807, alt. 245 m.

Pare bat etxe baino ez dira eta Zuhatzako auzoburutik hegoaldera, Ibaguengo bidegurutzearen bila doan A-3641 errepidearen eskuinean daude, Jauregibengo auzo igaro eta gero.

Euskaraz esanahi gardena duen izena da eta, gainera, hizkuntza horren eremu osoan ohiko toponimoa nahiz abizena ere bada. Osagaiak *etxe*, *barri* eta *-a* artikulua dira. Euskara estandarrean, mendebaldeko aldaera den *barri* orde, 'berri' erabiltzen da eta hortik dator erdialdeko eta ekialdeko euskalkietako *Etxeberria* forma. Mapa batzuetan, segur aski akats batengatik, *La Llana* esaten zaio auzo honi, baina herriko kartografiaren eta lan honen arabera, *La Llana* izena, berez, auzoburuaren iparraldeko zatiari dagokio.

Se trata de un par de casas a la vera derecha de la carretera A-3641 que de la capitalidad de Zuhatza se dirige hacia el sur en busca del cruce de Ibaguen, una vez pasado el barrio Jauregibengo.

Es un nombre de significado diáfano en euskera, siendo además un topónimo y apellido muy habitual en todo el ámbito de esta lengua. Se compone de *etxe* 'casa', *barri* 'nueva', variante occidental del estándar *berri*, del que se deriva su equivalente central y oriental *Etxeberria*, más el artículo *-a*. Significa, por tanto, 'la casa nueva'. Algunos mapas lo denominan, seguramente por error, *La Llana*, nombre que según la cartografía local y el presente trabajo corresponde a la parte norte del núcleo capitalidad del concejo.



## Garabilla

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496965, Y.4774638, alt. 215 m.

Auzo hau osatzen duten etxeak Zuhatzatik ondoko Okondo herrira doan A-3641 errepidean zehar kokatzen dira, Armintzako basilizara heldu baino lehen doi eta errepideaz beste aldera.

*Garabilla* izenari buruz, ikus Lantenoko kontzejuan izen bereko auzoaz egindako iruzkina.

Conforman esta barriada las casas situadas a lo largo de la carretera A-3641 que de Zuhatza se dirige al vecino pueblo de Okondo, justo antes de alcanzar la ermita de Armintza y en el lado opuesto de la carretera.

Sobre el nombre *Garabilla*, véase lo dicho en el barrio de ese nombre en el concejo de Lanteno.

## Ibagueen

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495281, Y.4770871, alt. 270 m.

Kexaarekin partekatutako auzoa denez gero, kontzeju hartan ere aipatu egin dugu. Ibarrean oso ondo komunikatutako lekuan daude etxe hauek, Arespalditzatik Menagaraira doan A-624 eta Okondora doan A-3641 errepideen bidegurutzearen aldirietan. Bidegurutze horretan hasten da, hain zuzen, A-3641 errepidea eta Okondo aldera joateko, Itzalde ibaiaren ibilgua jarraitzen du Zuhatzako kontzejuak hartzen duen ibararren sakonetik. Seguru asko Aiarako hain toki zentrolean egoteagatik, bidegurutzearen ondoan udalerriko neska-mutil asko eta asko joaten diren Etxaurren ikastola dago.

Auzo honen izena euskal konposatua izan liteke eta haren osagaiak *ibi* edo, agian, *ibar*, eta *guen* izango lirateke, azken hau 'garaiena' esan nahiko lukeena eta *goi* hitzaz gehi *-en* atzizki superlatiboaz osatua dagoena. 'Ibarrik altuena' edo 'ibirik garaiena' esan nahiko luke, beraz. Ikus Kexaako kontzejuan izen honi buruz esandakoak.

Se trata de una barriada compartida con Quejana (Kexaa), y que también citamos en dicho concejo. El grupo de casas ocupa un lugar del valle muy bien comunicado, pues se emplaza en las inmediaciones del cruce de la carretera A-624 entre Arespalditza y Menagarai, con la A-3641 que de este punto se dirige a Okondo siguiendo el curso del río Itzalde hacia el norte, por el fondo del valle que ocupa el concejo de Zuhatza. Seguramente por hallarse en este lugar tan céntrico de Ayala (Aiara), junto al cruce se emplaza la ikastola Etxaurren, a la que acuden muchos de los niños y niñas del municipio.

El nombre que designa este barrio pudiera ser un compuesto eusquérico de *ibi* 'vado' o quizá incluso *ibar* 'vega', y *guen* 'superior', compuesto a su vez de *goi* 'arriba' y el sufijo superlativo *-en*. Significaría, por tanto, 'el vado (o vega) de más arriba, superior'. Véase lo dicho en el concejo de Quejana (Kexaa) respecto a este nombre.

## Ibarra

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495680, Y.4771584, alt. 250 m.

Ibaguengo bidegurutzetik kontzejuko auzoburura goazela, A-3641 errepidea hartuta, ikusiko ditugun lehenengo etxeak dira izen honekin ezagutzen direnak. Menagaraitik datorren eta Itzalde ibaian amaitzen den Eskorreka errekatik gertu dagoen ordoki zabal batean daude etxeak. Baserrietako bati izen hori bera ematen zaio. Seinaleztatuta dagoen arren, ez da Udaleko zerrendetan auzo bezala ageri.

*Ibarra* auzoa identifikatzen duen izena, euskal toponimo gardena da, *ibar* eta *-a* artikulua osatua. Eskualdean 'ibai ondoko ordokia' ez ezik 'harana' ere esan nahi du eta hala aipatu dugu Izoriako *Ibarra* izenaz aritzean. *Ibarra* euskal hitza den arren, Aiarrako gatzelarian ere arrunta izan da eta horren adibide dugu *la Ybarra de San Sebastian* esapide toponimikoa. Are gehiago, gaur egun izen horrekin identifikatutako baserriari *La Ibarra* esan ohi zaio, artikulua femenino eta guzti. Auzo honetako etxeak Itzalde ibaiaren eta Eskorreka errekaaren arteko ordokian daude, eta badirudi izenak horri egiten diola erreferentzia.

Con este nombre se conocen las primeras casas de Zuhatza que encontramos al tomar la carretera A-3641 en el cruce de Ibaguen en dirección al núcleo del concejo. Se ubican en un extenso llano cerca del curso del arroyo Eskorreka, que procedente del alto de Menagarai llega pronto a tributar al río Itzalde. Uno de los caseríos también se conoce con este nombre. Aunque el barrio está señalizado, no figura como tal en los listados del Ayuntamiento.

El nombre que designa al barrio *Ibarra* es un toponimo eusquérico diáfano compuesto de *ibar* 'vega' y el artículo *-a*: 'la vega', aunque ha de tenerse en cuenta el uso como 'valle' que se le ha dado en la comarca, tal y como se comentó al hablar del nombre *Ibarra* de Izoria. La palabra *ibarra* aunque de origen eusquérico, ha sido común en el habla ya castellana de Ayala (Aiara), como puede verse en la expresión toponímica *la Ybarra de San Sebastian*. Efectivamente, en la actualidad el caserío conocido por este nombre suele citarse con artículo femenino: *La Ibarra*. El topónimo parece hacer referencia al llano en que se emplazan las casas, a orillas del río Itzalde y del arroyo Eskorreka.

## Intzier

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497409, Y.4775747, alt. 185 m.

Zuhatzako kontzejuko iparraldeko muturrean dagoen etxe pare da, Okondoko mugatik hurbil. Askotan izena generiko eta guzti erabiltzen da, Molino Inzier, agian garai batean errota izango zen eraikin bat baitago, auzoaren erdiko baserriaren ondoan. Pagolar mendiaren azpian eta haren mendebaldeko magalean dago auzoa, Itzalde ibaiaren ertzean, ibaiaren eta Zuhatzatik Okondora doan A-3641 errepidearen artean. Errotara iritsi aurretik, 54. puntu kilometrikoaren inguruan, presa txiki bat dago eta daitekeena da errotaren garai bateko antepara hor hastea.

Izen honen etimologia zaila da zinez, eta horregatik, nahiago dugu inolako hipotesirik ez menturatu, agirietako informazio ugariagoa eta zehatzagoa izan arte. Udaletxe zaharreko bilera aretoan dagoen 1930. urteko mapan *Incier* irakurtzen da eta bide seinaleztapenean *Molino de Incier*. *Incier* jaso da, halaber, ahozko lekukotzetan. Hala ere, *Mapa Topográfico Nacional* bezalako iturri batzuetan<sup>5</sup>, amaieran *-l* duela transkribatzen dute: *Inciel*.

Se trata de un par de edificaciones situadas en la zona más septentrional del concejo de Zuhatza, ya próximas al límite con Okondo. A menudo se utiliza la forma con genérico *Molino Inzier*, debido a un edificio que debió de ser tal y que se ubica junto al caserío central del barrio. Se halla este al pie del pico Pagolar, bajo su ladera occidental y a orillas del río Itzalde, entre su curso y la carretera A-3641 que de Zuhatza se dirige a Okondo. Poco antes de llegar al molino, a la altura del punto kilométrico 54, hay una pequeña represa que pudiera ser el comienzo de la antigua antepara del molino.

La etimología de este nombre es realmente dificultosa, por lo que es preferible no aventurar nada hasta contar con referencias documentales más precisas y abundantes. En el mapa de 1930 que preside el salón de plenos del antiguo ayuntamiento figura la forma *Incier* y en la señalización viaria *Molino de Incier*. También es *Incier* la forma recogida en testimonios orales. No obstante, algunas fuentes como el *Mapa Topográfico Nacional*<sup>6</sup>, lo transcriben con *-l* final: *Inciel*.

## Iruleta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497306, Y.4776073, alt. 185 m.

Kontzejuaren iparraldeko muturrean dauden azken etxe biak dira, Zuhatzatik artez Okondo herri hurbilera doan A-3641 errepidearen ezkerrean. Izan ere, etxeak pasatu eta metro gutxi batzuk aurrerago zeharkatuko dugu muga, kasu honetan Urkixu errekek marrazten duen lerroa baita, Odoibaltza aldetik mendebaldera ibar sakon batetik datorrena, eta toki apalenean dagoen etxearen ondoan Itzalderra isurtzen dena.

Auzo honen izena itxuraz *inura* hitzaren euskarazko eratorria da, ‘ibarra, ibai ondoko ordokia’, lekuzko *-eta* atzizkia gehituta daramana, eta halaxe azaldu zuen Koldo Mitxelenak<sup>7</sup> honen antzeko *Irureta* izena. Hortaz, ‘ibarreko tokia’ esan nahiko luke. Barrenengoak (1990) beste aukera bat aipatzen du, *hiru* zenbakia, *ola* izena ‘burdino-la’ eta aipatutako *-eta* atzizkia osagaiak lituzkeena, alegia ‘hiru ola’ esanahiduna. Ohiko da *-r- > -l-* kontsonante likidoak nahastea. Nafarroako Bera eta Sunbilla artean, bada izen hau berau duen mendia.

Son las dos casas más septentrionales del concejo, ubicadas a la vera izquierda de la carretera A-3641 que de Zuhatza se dirige ya decididamente hacia el vecino pueblo de

<sup>5</sup> 1997, 86-l.

<sup>6</sup> 1997, 86-l.

<sup>7</sup> 1997, 336, pág. 107.

Okondo. Las casas se encuentran precisamente unos metros antes de traspasar el límite municipal, que en este punto es el marcado por el arroyo Urkixu que desciende de la zona de Odoibaltza al oeste por una profunda vaguada, y que vierte al Itzalde junto a la casa en situación más baja.

Barrio cuyo nombre parece un derivado vasco de *irura* 'vega, valle' y el sufijo locativo *-eta*, si nos atenemos a la explicación dada por Luis Mitxelena<sup>8</sup> para el similar topónimo *Irureta*. Significaría 'lugar de la vega'. Barrenengoa (1990) apunta la también factible posibilidad de que provenga de *hiru* 'tres', *ola* 'ferrería' y el citado sufijo *-eta*, es decir 'las tres ferrerías'. La confusión de consonantes líquidas *-r- > -l-* es fenómeno corriente. Entre Bera y Sunbilla, en Navarra, hay una montaña con este mismo nombre.

## Jauregibengo

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495888, Y.4771905, alt. 250 m.

Kontzejuko La Llana auzo nagusiaren sarreran dauden hiruzpalau etxeek osatzen dute auzo trinko hau. Ibaguendik Zuhatzara doan A-3641 errepidearen ezkerreko hegian aurkituko ditugu, errepide hori eta apur bat aurrerago maldan gora leunean Legizama aldera doan bide adarraren artean.

Argi eta garbi dago euskal izen konposatu honen osagaiak *Jauregi*, Menagaraiko, auzo hurbil baten izena, eta *-bengo* 'behekoa' direla, eta auzoaren kokapenarekin bat dator izena. Izan ere, *Jauregi* mendebaldean dago, *Jauregibengo* ondoan isurtzen den ibarraren goiko aldean, hain zuzen. Esan beharra dago 1877an Becerro de Bengoak *Jauri-vengo* forma eman zuela, eta *Jauri* gaur egungo herri ahoskeraren isla zehatza da, oraindik ere euskarak bizirik dirauen izen horretako leku askotan halaxe esaten baita. Herri etimologia bitxia dabil, kontzejuan nahiko sustraituta eta, horren arabera, «de Jauregi vengo» ('Jauregitik nator') esamoldea dago toponimoaren oinarrian. Esan gabe doa, ez dela aintzat hartzeko moduko azalpena.

Se trata de un grupo compacto de tres o cuatro casas ubicadas a la entrada de La Llana, capitalidad del concejo. Las hallamos a la vera izquierda de la carretera A-3641 viniendo de Ibaguen hacia Zuhatza, entre esta carretera y el ramal secundario que de un poco más adelante arranca en suave ascenso hacia Legizama.

El nombre de este barrio es un compuesto vasco evidente de *Jauregi*, cercano barrio de Menagaraí, y *bengo* 'de abajo', lo que parece acorde con su ubicación sobre el terreno, pues *Jauregi* se halla al oeste en lo alto de la vaguada que vierte cerca de *Jauregibengo*. Cabe mencionar que en 1877 Becerro de Bengoa daba la forma *Jauri-vengo*, donde *Jauri* es fiel reflejo de la pronunciación popular, hoy aún vigente en multitud de lugares de ese nombre y habla vasca. También resulta curiosa la etimología popular, con cierto arraigo en el lugar, que lo hace derivar de la expresión «de Jauregi vengo», que obviamente carece de fundamento.

<sup>8</sup> 1997, 336, pág. 107.

## Legizama

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495354, Y.4771676, alt. 280 m.

Kontzejuaren hego-mendebaldean dagoen auzo txiki bat da, Menagaraitik Jauregiara doan errepidearen azpian kokatua. Zuhatzako auzoburutik auzoa osatzen duten etxe bietara heltzeko, Ibaguenera doan A-3641 errepidea hartu behar da eta, Jauregi-bengoko etxeetara heldu baino lehen, gure eskuinean dagoen adar batetik abiatuko gara, maldan gora diagonalean, Legizama auzora iristeko.

Izena 1514ko agiri batean dator *Leguyçama* idazkerarekin, eta forma hori izan zen ohikoa gutxienez XIX. mendera arte. Baina Madozek (1845-1850), seguru asko akats eta guzti, *Lequisima* transkribatu zuen, eta Becerro de Bengoak (1877), berriz, *Leguizima*. Eta horixe da gaur egungo ahoskera, betiere azentuazio proparoxitonoaz: *Legízima*. Seinaleztapenetan *-j-* grafiarekin ageri da, baina tokiko ahoskeran *-g-* esaten dute eta ez dago inolako zalantzarik. Etimoa iluna da, baina Bizkaiko Etxebarri elizatean, Bilbotik gertu, *Legizamon* izeneko auzo ezaguna dago, baita bertako jatorria duen deitura hedatua ere, eta horiekin erlazionatua egon daiteke.

Pequeña barriada situada en la zona suroccidental del concejo, bajo la carretera que une Menagarai con Jauregi. Procedentes del núcleo de Zuhatza, se accede a las dos casas que conforman el núcleo, por la carretera A-3641 que de la capital del concejo se dirige al cruce de Ibaguen hacia el sur. Saliendo de La Llana y antes de alcanzar las casas de Jauregi-bengo, un ramal a nuestra derecha asciende en diagonal por la ladera en dirección a Menagarai, para alcanzar el barrio Legizama.

El nombre se documenta en 1514 como *Leguyçama*, forma que fue común hasta por lo menos el siglo XIX. Sin embargo, ya Madoz (1845-1850) transcribe, seguramente con errata, *Lequisima*, y Becerro de Bengoa en 1877 *Leguizima*. Y tal es la forma oral actual, pero invariablemente esdrújula: *Legízima*. En la señalización figura con *-j-*, pero la pronunciación local con *-g-* suave no deja lugar a dudas. El étimo es oscuro, pero pudiera estar en relación con el nombre *Legizamon*, conocido barrio y extendido apellido con origen en la anteiglesia vizcaína de Etxebarri, cerca de Bilbao (Bilbo).

## Llana, La

Auzoburua / Capitalidad del concejo: ED50 30T X.496046, Y.4772043, alt. 250 m.

Zuhatzako kontzejuko auzoburuari eman ohi zaio izen hau eta toki lauan dago, Ibaguengo bidegurutzetik Okondo aldera artez doan A-3641 errepidearen ondoan lerrokaturik, Menagaraiko Jauregi auzora igotzen den bidegurutzetik gertu hain zuzen ere. Santa Marinaren eliza nagusia –seguru asko akatsez, Madozek (1845-1850) Santa Mariari dagokiola dio– auzo luzangaren hegoaldean dago.



*Zuhatzako auzo nagusi La Llana-ren kokaleku ederra*  
*Hermoso emplazamiento del barrio La Llana capitalidad de Zuhatza*

Izena esanahi gardeneko gaztelaniazko deskribatzailea da, ‘laua’, eta kokalekuaren orografiari egiten dio erreferentzia. Latinezko *plana* hitzetik dator eta gaztelaniaz hasierako *pl-* kontsonante taldea *ll-* bihurtu ohi zen. Era honetan eratuko zen *Llana*, *Llanteno* izenarekin gertatzen zitzaigun antzera, kasu horretan *llantén* hitzaren eratorria eta hau, halaber, *plantaginus*-etik heldu dena. Dena dela, kartografia gehienetan auzo-burua aipatzeko kontzejuaren izena erabili ohi dute: *Zuhatza* edo *Zuaza*. Zuhatzako kontzejuan erromantzezko toponimo bakar biak *La Llana* eta *El Valle* dira, gaztelaniaz biak arrunt-arruntak, eta horrek iradokitzen digu ez ote diren izango, hurrenez hurren, antzinako *Zabala* eta *Arana* euskarazko baliokideen itzulpenak.

Con este nombre suele designarse a la capitalidad del concejo de Zuhatza, que se ubica en una zona llana a lo largo de la carretera A-3641 que del cruce de Ibaguen se dirige decididamente al norte hacia el vecino valle de Okondo, concretamente en torno al cruce que asciende al barrio Jauregi del concejo de Menagarai. La iglesia parroquial de Santa Marina –que Madoz atribuye (1845-1850), seguramente por errata, a Santa María– se encuentra en la zona sur del alargado barrio.

El nombre es un descriptor castellano de significado diáfano y que hace referencia a la orografía de su emplazamiento. Procede del latín *plana* cuyo grupo consonántico inicial, *pl* pasa a convertirse en *ll* en castellano. Así obtenemos *Llana*, de una manera similar a lo que nos sucedía con el nombre *Llanteno*, que procede de *llantén* y este a su vez de *plantaginus*. En la mayoría de las fuentes cartográficas suele denominarse a la capitalidad con el nombre del concejo: *Zuhatza* o *Zuaza*. El hecho de que los dos únicos topónimos romances del concejo de Zuhatza sean *La Llana* y *El Valle*, ambas palabras de uso común en castellano, podría indicar que se tratase en origen de la traducción de sus equivalentes eusquéricos anteriores *Zabala* y *Arana* respectivamente.



*Zuhatzako eliza La Llana auzoan*  
*Iglesia de Zuhatza en el barrio La Llana*

## Magdalena, La

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496358, Y.4772954, alt. 242 m.

Zerrabe auzo ezagunagoaren aurrez aurre dago etxe multzo xume hau. Magdalena hertzeko Zuhatzatik Okondora doan A-3641 errepidetik abiatu behar da. Arespalditzarako bidegurutzea gure eskuinean utzita, Itzalde ibaiaren harana estutzen hasi baino apur bat lehenago, bada ezkerrean adar bat Piquillo gaineko magalean gora igo eta Magdalenako etxetara heltzen dena. Bide berean aurrera jarraituz gero, gorago, Madozek aipaturiko (1845-1850) La Cuadra baserria dago.

Badirudi izenak *Andra Maria Magdalena* hagianimoari egiten diola erreferentzia, eta gehienetan adbokazio horretako tenpluren bati lotuta egoten da. Izenari dagokio-

nez, ikus Luiaondoko *Magdalena* sarreran esandakoa. Andra Maria Magdalenaren ermita hau parrokia bezala erabili zen XVIII. mendean, gaur egungo Santa Marina eliza nagusia eraikitzen ari zen bitartean, baina 1791n eraitsi egin zen, Calahorrako gotzainak aginduta, ia erorian zegoelako. Ahozko hizkera laxoan -g- kontsonantea ahoskatzen ez den arren, badirudi *Madalena* grafia normalizatzea ez dela egokia, aldaera zabartzat hartu ohi baita.

Se trata de un pequeño barrio situado al frente del más conocido Zerrabe. Se accede a La Magdalena desde la carretera A-3641 que del núcleo de Zuhatza se dirige a Okondo. Pasado el cruce de Arespalditza a nuestra derecha, poco antes de que la vega del río Itzalde se estreche, un ramal a mano izquierda asciende por la loma del alto del Piquillo para alcanzar las casas de La Magdalena. A mayor elevación siguiendo el mismo carril se encuentra el caserío La Cuadra, citado por Madoz (1845-1850).

El nombre parece hacer referencia a *Santa María Magdalena*, y normalmente va asociado a algún templo de esa advocación. Respecto a su nombre, léase lo explicado al tratar sobre el nombre *La Magdalena* en Luiaondo. La ermita de Santa María Magdalena que se utilizó como templo parroquial en el siglo XVIII mientras se construía la actual de Santa Marina, fue derruida en 1791 por orden del obispo de Calahorra debido a su ruinoso estado. Aunque en el uso oral relajado no suele pronunciarse la -g-, no parece conveniente la normalización de la grafía *Madalena*, que se considera vulgar.

## Mendibil

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.495449, Y.4772472, alt. 300 m.

Kontzejuko auzoburuaren goialdean kokatutako etxe multzo trinko txikia da, haren ipar-ekialdean eta jadanik Menagaraiko mugatik hurbil, kontzeju horretako Jauregi auzotik oso gertu baitago. La Llanatik irits daiteke auzo honetara, Jauregira igo eta ondoren Menagaraiko auzobururaino segitzen duen bidetik, hain zuzen.

Toponimoa konposatua da, osagaiak *mendi* eta *bil* dituenak, azken hau *biribil* hitzaren era sinkopatua: 'mendi biribila'. Ahozko hizkeran *Mindibil* esaten dute, harmonia edo imitazio bokalikoaren ondorioz. Euskal Herrian ohiko hitza da eta toki-izen arrunta denez gero, deitura bezala ere oso hedatua dago. Madozek (1845-1850) eta Becerro de Bengoak (1877) -v- grafiarekin idatzi zuten XIX. mendean, baina grafia horiek ez dute inolako funtsik, ez baitira «etimologikoak».

Pequeño grupo compacto de edificaciones situado sobre la capitalidad del concejo, al noroeste del mismo ya en las proximidades del límite de Menagarai, pues se halla muy cerca el barrio Jauregi de ese concejo. Se accede desde La Llana por el ramal que sube a Jauregi y luego continúa a la capitalidad de Menagarai.

El topónimo es un compuesto de *mendi* 'montaña' y *bil* 'redondo', forma sincopada de *biribil*: 'monte redondo'. En el uso oral se utiliza *Mindibil*, por armonía o imitación vocálica. Es nombre bastante frecuente en todo el país para designar lugares, razón por la que también



es apellido común. Las grafías con *v* que dan tanto Madoz (1845-1850) como Becerro de Bengoa (1877) en el siglo XIX carecen de fundamento, pues evidentemente no son «etimológicas».

## Mugaola

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496726, Y.4773345, alt. 240 m.

Aita Kurutzekoaren ermita ezagunaren inguruko etxeak dira, Zuhatzatik Okondora doan A-3641 errepidearen bazterrean kokatua. Zerrabe auzoa atzean utzi ondoren ermitara helduko gara eta, errepidearen eta Itzalde ibaiaren artean, apur bat aurrerago aurkitzen dira auzoa osatzen duten etxe biak.

Ohikoan *El Cristo de Mugaola* izenaz ezagutu bada ere, egokiagoa da tokia izendatzeko *Mugaola* toponimoari lehentasuna ematea, eta adokazioa ermita identifikatzeko propio uztea. Dena dela, adokazioa mantendu edo erabili nahi izanez gero, forma osoak, hurrenez hurren euskaraz eta gaztelaniaz, honako hauek liriateke: *Mugaolako Aita Kurutzekoa / Cristo de Mugaola*. Ahoz erabiltzen diren *Mugaola* eta *Mugoula* formek bokalak aldatu egiten dituzte diptongoa egin eta talde bokalikoa silaba bakarrean ahoskatu ahal izateko: *gao* > *gau*, *gou*. Euskal toponimoa da, *muga* eta *ola* osagaiak dituen eta, seguruenik, ‘mugan dagoen ola’ esan nahi du.

Se trata de las casas próximas a la conocida ermita del Santo Cristo, situada a la orilla de la carretera A-3641, que procedente de Zuhatza se dirige hacia Okondo. Tras dejar atrás el barrio de Zerrabe, llegamos a la ermita y en situación idéntica, entre la carretera y el río Itzalde, poco más adelante se hallan las dos edificaciones que conforman el barrio.

Aunque se ha conocido como *El Cristo de Mugaola*, lo correcto es dar preferencia al topónimo *Mugaola* para denominar el lugar, dejando la advocación para denominar más propiamente la ermita. En caso de querer mantener o utilizar esta advocación, la forma completa sería en euskera y castellano respectivamente *Mugaolako Aita Kurutzekoa / Cristo de Mugaola*. Las formas orales *Mugaola* y *Mugoula* alteran las vocales para poder diptongar y pronunciar en una sola sílaba el grupo *gao* > *gau*, *gou*. El topónimo es un compuesto vasco de *muga* ‘frontera, linde’ y *ola* ‘ferrería’ o ‘sel’, significando probablemente ‘la ferrería o el sel de la linde’.

## Undio

Auzoa / Barrio:

Etxea / Casa: Undiobekoa - ED50 30T X.497816, Y.4775478, alt. 300 m.

Etxea / Casa: Undiogoikoa - ED50 30T X.498250, Y.4775242, alt. 350 m.

Kontzejuaren iparraldeko muturrean dauden baserri bi eta horien eraikin osagarriak dira, Okondoko eta Laudioko mugetatik gertu. Pagolar mendi ezagunaren

mendebaldeko magalean daude baserri hauek, Intzier errotaren gaineko aldean, eta hona ailegatzeko Zuhatzatik Okondora doan A-3641 errepidea hartu behar da. Konzepzioko ermita igaro eta Armintzako azken etxeak ezkerrera atzean utzi ondoren, eskuinean abiatzen den adar batek Itzalde ibaia zeharkatzen du zubi batetik eta beste aldeko hegalaria ekiten dio maldan gora, harik eta lehendabizi Undiobekoa eta ondoren Undiogoikoa erdietsi arte. Gaur egun, bertako erabilera Undio Abajo eta Undio Arriba da.

Gogora ekarri behar da, auzo honen izena *Undío* ahoskatzen dutela bertakoek eta horixe dela ahoskera zuzena. Etimologia iluna da, baina hipotesirik onartuenek *Fundius* pertsona izenarekin lotzen dute, nahiz eta amaierari dagokionez ikertzaileak ez diren ados jartzen. Seguru asko, jatorrizko forma *\*Fundi(an)o* izango zen eta hala balitz, jatorrizko populatzailearen izenari *-ano* amaiera erantsi izango zitzaion toponimo honetan, Euskal Herrian ohikoa den bezala. Euskaraz horrelako toki-izenek bokal arteko *-n-* hotsa galdu (*-iano > -iao*) eta talde bokalikoa sinplifikatu zuten (*-iao > -io*). Honen ondorioz, erromantze-euskara izendapen bikoitza eratu zen eta halaxe gertatu da *Undiano / Undio* (Nafarroako Zizur zendea), *Catadiano / Katadio* (Bizkaiko Orozkon), *Uzquiano / Uzquio* (Trebiñu konderrian) etab. Administrazioak *-n-* duten formei lehentasuna eman izan dien arren, zenbaitetan ez da hala gertatu eta horren adibide dugu Bizkaiko *Zeberio* ibarra (*Ceberiano* izenetik datorrena). Gure proposamenaren babesteko, izenaren azentuazioa erabili dugu, baina hipotetikoa da, oraingoz ez baita ukatu ustezko jatorria frogatzen duen agiririk.

Se trata de dos caseríos y sus edificaciones anejas, que se hallan en la zona más septentrional del concejo, ya cerca del límite con Okondo y Llodio (Laudio). Situados en la ladera occidental del conocido monte Pagolar, sobre el molino de Intzier, se accede a los caseríos desde la carretera A-3641, que viene de Zuhatza y se dirige a Okondo. Pasada la ermita de la Concepción y dejadas a la izquierda las últimas casas de Armintza, un ramal a la derecha va a cruzar un puente sobre el río Itzalde para ascender decididamente por la ladera del otro lado y alcanzar primero el caserío Undiobekoa y después Undiogoikoa, denominados hoy localmente Undio Abajo y Undio Arriba.

Hay que recordar que la pronunciación correcta y local del nombre de este barrio es *Undío*. Aunque la etimología es oscura, las hipótesis más extendidas lo relacionan con un nombre de persona *Fundius*, aunque no hay unanimidad al tratar su terminación. Así, parece probable que la forma original fuese *\*Fundi(an)o*, en cuyo caso estaríamos ante el fenómeno muy común en Euskal Herria en el que un topónimo recoge el nombre del poblador original más la terminación *-ano*. En euskera, estos nombres de lugar perdieron la *-n-* entre vocales (*-iano > -iao*) y simplificaron el grupo vocálico (*-iao > -io*), lo que originó la doble denominación romance-euskera, como ocurre en el homónimo *Undiano / Undio* (Cendea de Zizur en Navarra), *Catadiano / Katadio* (Orozko en Bizkaia), *Uzquiano / Uzquio* (Condado de Trebiñu), etc. Aunque habitualmente la Administración ha priorizado las formas oficiales con *-n-*, hay ejemplos en que no ha sido así, como el valle de *Zeberio* en Bizkaia (con origen en *Ceberiano*). Nuestra propuesta se ve apoyada por la acentuación del nombre, pero no deja de ser hipotética, pues no hemos hallado por ahora documentación que avale la forma original.

## Urieta

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496800, Y.4774227, alt. 225 m.

Zuhatzatik Okondo herri hurbilera doan A-3641 errepidearen ezkeraldera dauden etxe batzuk dira. Odoibaltza mendiaren hegoekialdeko magaletatik behera datorren Arrugarai erreka gaintitzeko errepideak zeharkatzen duen zubitxoaren aldirietan dago auzoa. Pagonabarra eta Piquillo mendiarte estutik pasatu ondoren, Itzalde ibaiak Okondorako arroan behera bidea urratu eta ibarra nabarmen zabaltzen den eremua da.

*Urieta* izena oso errepikatua da mendebaldeko Euskal Herri osoan antzinetatik populatutako lekuak izendatzeko. Dirudienez, *uri* hitzaz osatua dago, *hiri* estandarraren mendebaldeko aldaera, eta beroni lekuzko *-eta* atzizkia erantsi zaio.

Es un grupo de casas situadas a la vera izquierda de la carretera A-3641 que de Zuhatza se dirige a la vecina localidad de Okondo. La barriada se emplaza en los alrededores del puentecico por el que el carril cruza el arroyo Arrugarai, que desciende de las vertientes surentales del pico Odoibaltza. Es la zona en que el río Itzalde se abre paso en su descenso hacia Okondo, y el valle se ancha notablemente tras pasar entre las montañas conocidas como Pagonabarra y el Piquillo.

El nombre *Urieta* es muy recurrente en todo el País Vasco occidental como denominación de lugares poblados desde antiguo. Parece contener el vocablo *uri* 'villa, lugar poblado', variante occidental del estándar *hiri*, al que se le ha añadido el sufijo locativo *-eta*.

## Valle, El

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.497008, Y.4774874, alt. 210 m.

Itzalde ibaiaren ibilgua segitzen duen ibar luzearen alderik zabalenean dago auzo hau, Arroyo izeneko etxeetan hasi eta gaur egun ENEGORTA deitzen duten dorreraino. Kontzejuko auzoburutik iparrera, Okondo aldera doan A-3641 errepidean zehar sakabanatuta daude etxeak, behin Mugaola auzoa atzean utzi eta dorre ezagunera heldu arte. El Valle auzoko lehenengo hiru etxeek El Arroyo edo El Royo izenaz ezagutzen den auzoa osatzen dute. Ondoren, deigarri gertatzen da Cadalso baserri ederra, Artzaren sakanaren ahoan dagoena, errepidearen eskuinean apur bat iparralderago.

Federico Barrenengoak *Onomástica de la Tierra de Ayala* (1990) lanean aipatzen dituen euskal toponimoen itzulpenen antzeko beste bat dugu auzo honen izenean. Gil lizentziatuak 1551n egindako ikustaldian *Arana* izena aipatzen duenez gero, badirudi logikoa dela pentsatzea euskara galtzarekin batera, euskaldunentzat zeharo gardena izango zen *Arana* toponimoaren orde<sup>9</sup>, gaztelaniazko itzulpena erabiltzen hasiko zela. Dena dela, gaur egungo aiararrek ez dute auzoaren jatorrizko izen honen berririk.

<sup>9</sup> (*H*)*arana* ohiko substantiboa da euskaraz eta 'ibarra' esan nahi du.

Barrio que ocupa la zona más ancha del alargado valle que, siguiendo el curso del río Itzalde, abarca desde las casas llamadas del Arroyo hasta la torre que hoy llaman de Enegorta. Las casas se sitúan dispersas a lo largo de la carretera A-3641 que de la capitalidad del concejo se dirige al norte hacia Okondo, una vez dejado atrás el barrio de Mugaola y hasta las inmediaciones de la conocida torre. Las tres primeras casas de El Valle conforman la barriada conocida con el nombre de El Arroyo o El Royo. En segundo término llama la atención el vistoso caserío Cadalso, en la desembocadura del barranco Artzaren a la derecha de la carretera, un poco más al norte.

Este nombre es un ejemplo más de traducción de topónimos vascos como los que cita Federico Barrenengoa en su libro sobre la *Onomástica de la Tierra de Ayala* (1990). Dado que en la visita realizada por el Licenciado Gil en 1551 cita el nombre *Arana*, parece lógico pensar que al perderse el euskera, el topónimo *Arana*, de significado transparente para los vascohablantes<sup>10</sup>, fuera sustituido por su equivalente castellano. Sin embargo este nombre original de la vaguada es desconocido en la actualidad para los ayaleses.



*Zuhatzako etxeak Okondora doan bidearen hegian*  
Casas de Zuhatza a la orilla de la carretera de Okondo

## Zerrabe

Auzoa / Barrio: ED50 30T X.496493, Y.4772901, alt. 230 m.

Kontzejuko auzoburutik irten eta iparrera Okondora doan A-3641 errepidearen ondoan dagoen auzoa da. Auzo trinko samarra da eta kokaleku zehatza errepide horretako 51. puntu kilometrikoa baino lehen du, Mugaolako Aita Kurutzekoa ermita

<sup>10</sup> El sustantivo común (*h*)*arana* significa en euskera literalmente «el valle».

pasatu ondoren hasita. Errepidearen eta Itzalde ibaiaren artean, gure eskuinean, La Torre izeneko baserri ikusgarria dago, eta seguru asko haren jatorrizko izena Zerrabe izango zen.

Daitekeena da toponimo honen osagaiak *zerra* eta *-be* izatea, ondorioz 'zerrategiaren azpian' esanahia izango lukeena. Dirudenez, antzina zerrategi bat bazen La Torre izeneko eraikinari eutsirik eta gaur egun ere dabilen zerrategi bat dago auzoan. Hitzaren hasieran *z-* hotsa egoteak esan nahi du jatorrian euskarazko *zerra* hitza daukagula, eta ez erromantzeko *sierra*, era horretan toponimoa eraiki zeneko euskal giroa agerian utziz.

Se trata de la barriada situada a la vera de la carretera A-3641 que dejando el núcleo capital del concejo de Zuhatza se dirige al norte hacia Okondo. Es un barrio bastante compacto, cuyo emplazamiento concreto se encuentra antes de alcanzar el punto kilométrico 51 de la citada carretera y la posterior ermita del Cristo de Mugaola. Entre la carretera y el río Itzalde, a nuestra derecha, se encuentra el llamativo caserío denominado La Torre, seguramente de nombre original Zerrabe.

Pudiera tratarse de un compuesto de *zerra* 'sierra, serrería' y *-be* 'debajo', que significaría, por tanto, 'bajo la serrería'. Al parecer, en este lugar se ha ubicado tradicionalmente una serrería aneja al edificio conocido como La Torre. Todavía en la actualidad existe en funcionamiento una serrería en el lugar. El mantenimiento del sonido inicial *z-* solo puede explicarse por su origen en el vocablo eusquérico *zerra*, no en el romance *sierra*, delatando así el medio vascófono en que fue gestado el topónimo.

## Aiarako mendiak / Montañas de Ayala

---

Aiarerria mendiek inguratu eta babestutako lurraldea da eta, hein handi batean, oso paisaia berezkoa ematen diote eskualdeari. Horren ondorioz, bertakoek oso bizi-modu bereziak garatu zituzten. Euskal Herri osoaren moduan, nahi den lekutik begiratuta ere, Aiara oso lurralde menditsua da. Baina, lurralde horretan goza daitezkeen mendi eta muino guztien artean, bereziki esanguratsuak dira Gorobel mendilerroan penintsulako goilautadaren mugan daudenak, Aiarako lurretako punturik gorena ez ezik, lurraldearen barruko mundu txiki bat ere osatzen baitu, nahiz eta behiala agertoki horretan garatu ziren bizimodu tradizionalak gaur egun desagertze bidean dauden.

La tierra de Ayala (Aiara) es un territorio dominado por las montañas que la cercan y protegen y que, en gran medida, le dotan de un paisaje particular que generó igualmente unos modos de vida muy propios. Como la práctica totalidad de Euskal Herria, Ayala (Aiara) es un territorio montañoso se mire por donde se mire. Sin embargo, entre todos los montes y colinas que pueden disfrutarse en esta tierra, son especialmente significativos los que marcan el límite de la meseta peninsular en la célebre sierra Sálvada (Gorobel) que, además de constituir el techo de la tierra ayalesa, constituye un pequeño mundo dentro del territorio, si bien los modos de vida tradicionales que en otro tiempo se desarrollaron en este escenario, están en la actualidad en práctica extinción.

## Gorobel / Sálvada



*Gorobel mendilerroaren ikuspegi panoramiko ederra*  
*Hermosa vista panorámica de la sierra Sálvada*

Mendilerroa / Sierra: ED50 30T X.483971-498686, Y.4758586-4766110, alt. 700-1185 m.

Jakina denez, Gorobel mendilerroa Aiara ibarraren eta gaur egun Burgosko probintziakoa den Lauza Merindadearen artean dago kokatua. Mendilerro horretako alderdirik handiena Aiarako herrien eremu banaezina da, Aiarako antzinako ermandadeko beste zenbait herrik ere jurisdikzioa duten arren –Amurriok ez ezik, Arrastaria eta Lezama udalerrri desagertuek ere–, baita Bizkaiko Urduña hiriak ere. Mendilerroaren hegoaldeko magalak Lauza haranekoak dira, muga zehatzak ezartzeko XV. mendetik hona etengabe auzitan ari direla gogoratu behar badugu ere.

Aipatutako mendilerroaren lehen aipu ezaguna 864. urtekoa da, San Félix de Oca-ri Aiara eta Menako zenbait eliza eman zitzaizkionekoa, haien artean Añesko Done Bikendi monasterioa zegoela. Dokumentu horretan zenbait aldiz ageri da mendilerroaren izena:

«... et pergit ipso termino ad Pennaforata, deinde per medium monte de Mannata usque ad illa ciconia de Salbata et ad illa Ponnata. [...] et in Barcena, id est de roio de Salbata per suma ripa de barcena. [...] per suma ripa de Barcena usque ad illa via publica qui discurrit de Salvata apud Salvanto. [...] et meas villas prenominatas cum suas decanias ad

ipsos deserviant, id est, Angulo, et Salbata, et Eversa, et Lixarzo, et Urzanico, et Pando, et Fluiso, et Ervico, Desolio, et Dobaltia, et Salbantone»<sup>1</sup>.

Honen ondoren, 1434 urtean berriz ere, Aiarerriak irabazitako *Real Carta Ejecutoria de la Sierra Salvada* delakoan agertzen da<sup>2</sup>. Aiarako udal artxibategiko ondoko dokumentazioan, *Salbada* eta *Salvada* idazkerak txandakatzen dira behin eta berriro, harik eta XIX. mendearen amaieran -v- duen era gailentzen den arte.

Bizkaiko lehen kronikagile Lope García de Salazarrek ere, XV. mendean Gorobel mendilerroaren gaineko zenbait lekukotza utzi zigun. Aiarako izena eta lurraldea jorratzean aipatu baziren ere, toponimiaren eta etimologiaren aldetik duten interes handiagatik hona ekarriko ditugu ostera ere. Haren lanik ezagunena den *Bienandanzas e Fortunas* delakoan, gutxienez birritan aurkitzen dugu mendilerroaren izena. Aiara leinuaren hastapenari erreferentzia eginez, aurrerantzean izen hori eramango zuen lurraldea on Alonso erregeak aurkitu zueneko kontakatzen digunean dioenez, erregeak lurraldea populatzea erabaki baitzuen, hain zuzen ere, mendilerroaren gainetatik hain ederra ikustean:

«E andando este rey don Alonso a correr monte sobre las peñas de Mena, vio d'ençima la tierra donde es agora Ayala, que no era poblada, que se llamava la Sopena; estando el Rey sobre la Peña de Sálvada, dixiéronle los cavalleros que por qué no poblava aquella tierra e díxoles que la poblaría, si oviese quien lo poblase».

Lan horretan bertan, Lope García de Salazarrek berriro ere aipatzen du mendilerroaren izena, gaztelaniazko *salvar* aditzarekin erlazioan jarriz eta,aldi berean, lehenago zeukan *Gorobel* izenaren berri ere ematen digu. Padurako gatazkaz ari den pasarte ezaguna da eta Bizkaiko *Arrigorriaga* toponimoaren etimologia ematen ausartzen da halaber:

«E siguieron el alcançe matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el arbol de Luyaondo; e porque se tomaron de alli, pesandoles, llamaron el arbol gafo [árbol malato]. E los leoneses que escapar podieron salieron por la Peña Gorobel, que es sobre Ayala; e como ençima de la sierra dixieron 'a salvo somos' por esto le llaman Salvada. E porque en Padura fue derramada tanta sangre llamaron Arigorriaga, que dize en vascuence 'Peña Viciada de Sangre', como la llaman agora».

Era berean Lope García de Salazarri egotzi ohi zaion 1454ko *Crónica de Vizcaya* delakoan, gertaera hau berau aipatzen da antzeko moduan:

«E ovieron allí su pelea muco porfiada e resia, e fue vençido e muerto el fijo del rey de León e muchos de los suyos, y yasen enterrados en Arrigorriaga, e por la mucha sangre que allí fue vertida llamónla Arrigoriaga, que quiere desir en vascuence Peña vermeja ensangretada; e fueron en el alcançe fasta el árbol gafo de Luyaondo, e porque non pasaran más adelante en el alcançe le llamaron árbol gafo [...] E los leoneses quando fueron encima de la Peña de Salvada dixieron 'en salvo somos'. E por esso le llaman Salvada, ca de primero le llamaban Peña Gorobel».

<sup>1</sup> Llorenteren transkripzioa erabili dugu (1806-1808), 3. lib., 95. or. Ubietoren edizioan (1976) *Salvata* ageri da.

<sup>2</sup> Barrenengoaren (1990) lanetik hartutako datuak.



Dena dela, Sálvada toponimoaren jatorria Arrigorriagan garaituak izan ondoren leondarrek egindako ihesean dagoela defenditzea, mitologia hutsa da zeren, gorago ikusi den legez, mendilerroaren izena 864. urtean dokumenta baitaiteke eta ustezko borrokaren bertzio desberdinek Padurako gatazka 870 edo 888. urte inguruan kokatzen baitute.

Hala ere, komenigarria da jakinaraztea, halaber, Erdi Aroko iturri bietan ageri den izena *Gorobel* dela, eta ez *Garobel*, azken hau urte askoan giro mendizaleetan erruz erabilia eta, seguru asko, irakurketa akats baten ondorio edo, besterik gabe, aurretiaz erabakitako etimologiara egokitzeko behartutako aldaera izango da. Izan ere, euskaraz *garo* hitza dugu ‘ira’ izendatzeko eta *bel* maiz aurkituko dugu hitz konposatueta *beltza* adierarekin, ondorioz, toponimoak ‘ira iluna’ esanahia izan lezakeelarik. Alabaina, ustezko etimologia hori ez litzateke Aiaran gertagarria, *garo* hitza ez dagokiolako mendebaldeko euskarari eta, gainera, *beltza* estandarren ordeaz, Bizkaiko *bal(tza)* tradiziozkoa espero beharko genukeelako.

Beste alde batetik, Sálvada leku-izenaren azentuzio proparoxitonoa oso ezaguna da aspalditik eta oraindik ere bizirik dirau herri erabileraren «ez-ilustratua». Oso da esanguratsua Federico Barrenengoak bere lanik ezagunenean ematen duen aipua: *por otra parte, se ha venido pronunciando como esdrújula por los ayaleses que han hecho uso de sus pastos*<sup>3</sup>. Ahoskera horren isla dira XX. mendearen hasieran gaztelaniaz idatzitako testuak, batez ere mendizale elkarteenak, *Sálvada* ugaria ez ezik, zenbaitetan *Sálbada* ere ekartzen dutenak. Halaber, herrietako agirietan mugarriz, artzaintzarako baimenez eta halakoez aritzean, *Sálvada* dugu era dokumentaturik ohikoena. Era berean halaxe jasotzen du bere aipu guztietan Aiarako udal idazkaria izandako Santiago de Mendiak *El Condado de Ayala* lanean. Tamalez, izen hau *salvar* aditzaren partizipioarekin erlazioan jartzen duen etimologia errazagatik, ahoskera jatorria herri giroan baizik ez dugu adituko eta *Salvada* era okerra –ahoskera laua eta tilderik gabeko idazkera– izenaren erabilerarik ohikoena da. Horrez gainera, ustezko giro jakintsuetatik kontzienteki bultzatzen da era akastun hori. 2003. urtean lan honetarako Aiaran egindako landa lanean zehar, pertsona adinduenek argi eta garbi *Sálvada* ahoskatzen zutela frogatu ahal izan zuten egileek, gazteagoek *Salvada* esateko joera zutela egiaztatzeaz batera. Oso esanguratsua da galdekatutako zenbait adinekok, leku-izenaz itaun zuzena luzatuta, batzuetan ahoskera laua ematen zutela, nahiz eta jarraian, elkarrizketa libre eta erlaxatuan, modu espontaneoan era proparoxitonoa erabiltzen zuten. Deustuko Unibertsitateko DEIKER institutuak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat 2003an eta 2006an egindako ahozko inkestetan ere, berretsi egin ziren datuok. Amaitzeko, komeni da gehitzea ahoskera proparoxitono horri dagokion *Sálvada* idazkera dela, azentu grafiko eta guzti, gaztelaniazko era ofizial bakarra, Euskaltzaindiak eta Real Academia Españolak aldeko txostena emanik –azken honek

<sup>3</sup> Barrenengoa (1990), 2. lib., 409. or.



*Ungino eta Eskutxi mendiak, Gorobel mendilerroko garaienetakoak*  
*Montes Ungino y Eskutxi, máximas elevaciones de sierra Salvada*

Español al día izeneko sailaren bidez-, Instituto Geográfico Nacional delakoak aldeko irizpena eman baitzuen.

Como es de sobra conocido, la sierra Salvada (Gorobel) se sitúa entre el Valle de Ayala (Aiara) y la Merindad de Losa, esta última en la actual provincia de Burgos. La mayor parte de dicha sierra es un pro-indiviso de los pueblos de Ayala, aunque también tienen jurisdicción algunos otros pueblos de la antigua Hermandad de Ayala –Amurrio y los desaparecidos municipios de Arrastaria y Lezama–, así como la ciudad vizcaína de Orduña (Urduña). Las laderas meridionales de la sierra pertenecen al Valle de Losa, si bien hay que recordar que se viene pleiteando por el establecimiento del límite al menos desde el siglo XV.

La primera mención conocida del nombre de dicha sierra es del año 864, con motivo de la donación a San Félix de Oca de varias iglesias de Ayala (Aiara) y Mena, entre las que se encuentra el monasterio de San Vicente de Añes. En dicho documento se cita la sierra en varias ocasiones:

«... et pergip ipso termino ad Pennaforata, deinde per medium monte de Mannata usque ad illa ciconia de Salbata et ad illa Ponnata. [...] et in Barcena, id est de roio de Salbata per suma ripa de barcena. [...] per suma ripa de Barcena usque ad illa via publica qui discurrit de Salvata apud Salvanto. [...] et meas villas prenomintas cum suas decanias ad ipsos deserviant, id est, Angulo, et Salbata, et Eversa, et Lixarzo, et Urzanico, et Pando, et Fluiso, et Ervico, Desolio, et Dobaltia, et Salbantone»<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Hemos usado la transcripción de Llorente (1806-1808), vol 3, pag. 95. En la edición de Ubieta (1976) figura *Salvata*.

Con posterioridad, también aparece en el año 1434, en la *Real Carta Ejecutoria de la Sierra Salvada* ganada por la tierra ayalesa<sup>5</sup>. En documentación posterior procedente del archivo municipal de Ayala (Aiara) se puede comprobar que la alternancia de las grafías *Salbada* y *Salvada* es constante hasta finales del siglo XIX, cuando se impone la forma con -v-.

Lope García de Salazar, el primero de los cronistas vizcaínos, también nos dejó en el siglo XV varios testimonios acerca de la sierra Sálvada (Gorobel). Aunque ya fueron citados al hablar del nombre y territorio de Ayala (Aiara), los volvemos a traer aquí por su especial interés toponímico y etimológico. En su obra más conocida, las *Bienandanzas e Fortunas*, hallamos el nombre de la sierra al menos en dos ocasiones. En referencia al origen de la casa de Ayala, el cronista relata el descubrimiento de la tierra que en adelante se llamaría de ese modo por el rey don Alonso, que concibió la idea de poblarla, precisamente, al contemplarla extasiado desde lo alto de la sierra:

«E andando este rey don Alonso a correr monte sobre las peñas de Mena, vio d'ençima la tierra donde es agora Ayala, que no era poblada, que se llamava la Sopeña; estando el Rey sobre la peña de Sálvada, dixiéronle los cavalleros que por qué no poblava aquella tierra e díxoles que la poblaría, si oviese quien lo poblase».

En esta misma obra, Lope García de Salazar vuelve a mencionar el nombre de la sierra, relacionándolo con el verbo castellano *salvar* y, además, nos da noticia del topónimo *Gorobel*, con el que anteriormente se la conocía. Se trata del famoso pasaje en el que habla de la batalla de Padura donde también se aventura a dar la etimología del topónimo vizcaíno *Arrigorriaga*:

«E siguieron el alcançe matando en ellos, que no dexavan ninguno a vida, fasta el arbol de Luyaondo; e porque se tomaron de alli, pesandoles, llamaron el arbol gafo [árbol malato]. E los leoneses que escapar podieron salieron por la peña Gorobel, que es sobre Ayala; e como ençima de la sierra dixieron 'a salvo somos' por esto le llaman Salvada. E porque en Padura fue derramada tanta sangre llamaron Arrigorriaga, que dize en vascuence 'Peña Viciada de Sangre', como la llaman agora».

En la *Crónica de Vizcaya* de 1454 atribuida igualmente a Lope García de Salazar, se cita este mismo suceso de modo parecido:

«E ovieron allí su pelea mucu porfiada e resia, e fue vençido e muerto el fijo del rey de León e muchos de los suyos, y yasen enterrados en Arrigorriaga, e por la mucha sangre que allí fue vertida llamáronla Arrigorriaga, que quiere desir en vascuence peña vermeja ensangretada; e fueron en el alcançe fasta el árbol gafo de Luyaondo, e porque non pasaran más adelante en el alcançe le llamaron árbol gafo [...] E los leoneses cuando fueron encima de la peña de Salvada dixieron 'en salvo somos'. E por esso le llaman Salvada, ca de primero le llamaban peña Gorobel».

Sin embargo, la pretensión de que el topónimo *Sálvada* tiene su origen en la huida de los leoneses tras su derrota en Arrigorriaga, no deja de ser pura mitología pues, como se ha visto más arriba, el nombre de la sierra se documenta ya en el año 864, mientras que las variadas versiones de la legendaria batalla de Padura, sitúan esta en torno al año 870 u 888.

Conviene hacer constar también que la denominación que figura en ambas fuentes medievales es *Gorobel* y no *Garobel*, utilizada en ambientes montañosos durante muchos años y que, seguramente, se deba a un error de lectura o a un simple intento de doblegar el topónimo para hacerlo encajar en una etimología previamente decidida. Ciertamente, en euskera existe

<sup>5</sup> Datos tomados de Barrenegoa (1990).

el vocablo *garo* para designar el ‘helecho’ y *bel* suele formar parte de compuestos con el sentido de *beltza* ‘negro’, lo que daría al topónimo el sentido de ‘helecho oscuro’. Sin embargo, la presunta etimología no sería viable en Ayala, pues la palabra *garo* no es propia del euskera occidental donde, además, cabría esperar la variante tradicional vizcaína *bal(tza)* en vez del estándar *beltza*.

Por otra parte, la acentuación esdrújula del topónimo *Sálvada* también es sobradamente conocida desde antiguo, además de seguir viva en el uso popular «no ilustrado». Resulta significativa la cita que al respecto da Federico Barrenengoa en su obra más conocida: *por otra parte, se ha venido pronunciando como esdrújula por los ayaleses que han hecho uso de sus pastos*<sup>6</sup>. Reflejo de esta pronunciación son los textos escritos en castellano, fundamentalmente de clubes de montaña de principios del siglo XX, en los que se usó *Sálvada* y en menor medida *Sálbada*. También *Sálvada* es la forma documentada habitual en documentos locales de delimitaciones, permisos de pastoreo, etc. Igualmente así lo recoge en todas sus citas el que fuera secretario del municipio de Ayala, Santiago de Mendia, en su obra *El Condado de Ayala*. Lamentablemente, a causa de la fácil etimología que relaciona este nombre con el participio del verbo *salvar*, la pronunciación genuina solo puede actualmente oírse en ambientes populares, mientras la forma incorrecta *Salvada* –pronunciación llana y grafía sin tilde– no solo es el uso más habitual del nombre, sino que además es impulsada conscientemente desde ambientes presuntamente cultos. Durante el trabajo de campo realizado en Ayala para este trabajo en el año 2003, los autores pudieron constatar que las personas de mayor edad decían de forma clara e inequívoca *Sálvada*, mientras los más jóvenes tendían a pronunciar *Salvada*. También resulta significativo el caso de algunos encuestados de edad que, al ser inquiridos directamente por el topónimo lo daban en ocasiones con pronunciación llana, pero que seguidamente, en conversación libre y relajada, usaban espontáneamente la forma esdrújula. Los datos fueron además corroborados por las encuestas orales que realizó el instituto DEIKER de la Universidad de Deusto para la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco en los años 2003 y 2006. Para concluir, también conviene decir que la grafía de esa pronunciación esdrújula, *Sálvada* con acento gráfico, es la única oficial en castellano tras el dictamen del Instituto Geográfico Nacional, a la vista de los informes favorables de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca y de la Real Academia Española, esta última a través de su departamento Español al día.

## Aro

Mendatea / Portillo: ED50 30T X.488692, Y.4764280, alt. 999 m.

Gorobel mendilerroko eta Aiarako lekurik ezagunenetako bat da, ipar isurialdeko lur apaletatik mendilerrera bertara pasatzeko igarobiderik erabilienetako bat izategatik. Mendatera heltzeko, Burgosko Mena haraneko Encima Angulo izeneko auzunetik irten ohi da, ekialdera zuzen igoz ibartxo baten hondooan nabarmen agerituen mendi-lepoa erdiesteko. Aiarako lurretatik, Añestik abia daiteke artez baina, edo-

<sup>6</sup> Barrenengoa (1990), tomo 2, pág. 409.



*Aro mendatea*  
Portillo de Aro

nola ere, mendilerroaren magal osoa malkarren azpitik zeharka ibiltzen duen *Camino Real de la Sopeña* izeneko bidera hurreratu beharra dago. Aro haizpuntaren azpitik pasatutakoan, ekialderantz bihurtzen da bidea eta aipatutako ibartxoan barna sartzen da azken maldak gainditu eta mendatea erdiesteko.

Izen hau 864. urteko agiri ezagunean ere dokumentatzen dugu, hasierako *F*-kontsonantea daramala: *uia publica qui discurrer de Saluata apud Saluaton, et per illo semitario qui discurrer de Faro ad Coronellas*. Hasierako *F*-horren galera oso gertakari arrunta da, garai zaharretan hasperenketa ahul bat eman eta, azkenik, berau ere galdu egin baitzen. Errioxako *Haro* hiri ezaguna ere hasierako *F*-duela dokumentatzen da: *Bilibium cum Faro et cum sua pertinencia* (1040). Pentsa liteke jatorria *faro* hitzean duela, hain pasaleku garrantzitsu hau zaintzeko balizko talaia bati erreferentzia egingo liokeena, hegoaldeko lurretatik Aiarara pasatzeko Aroko mendatea eta aipatutako Sopeña aldeko bidea jadanik erabiltzen omen baitziren erromatarren garaian.

Se trata de uno de los lugares más conocidos de la sierra Sálvada (Gorobel) y de Ayala (Aiarra), por ser uno de los pasos más utilizados entre las tierras bajas de la vertiente norte y la propia sierra. Se accede al portillo desde la barriada llamada Encima Angulo, en el valle burgalés de Mena, subiendo directamente hacia el este, hasta el collado que se abre evidente al fondo de un pronunciado vallejo. Desde tierras ayalesas, puede accederse desde Añes pero, en todo caso, acercándose al llamado *Camino Real de la Sopeña*, que viene flanqueando toda la sierra por debajo de sus escarpes. Al pasar bajo el Pico de Aro, gira hacia el este y enfila el vallejo para vencer las últimas pendientes y alcanzar el portillo.

Documentamos el nombre también en el conocido documento del año 864, donde aparece con consonante inicial *F*: *uia publica qui discurrer de Saluata apud Saluaton, et per illo semitario qui discurrer de Faro ad Coronellas*. La pérdida de la *F*-inicial es un fenómeno común, pues dio tempranamente una débil aspiración y, con el tiempo, esta también se perdió. La conocida ciudad de *Haro* en la Rioja también se documenta con *F*-inicial: *Bilibium cum Faro*



*Aro haitza*  
Pico de Aro

*et cum sua pertinencia* (1040). Podría pensarse que el origen es la palabra *faro*, en referencia a una atalaya de vigilancia de este paso tan importante, pues el acceso a Ayala (Aiar) desde tierras del sur por el portillo de Aro y el citado camino de la Sopeña ya debía de estar en uso en tiempo de los romanos.

## Eskutxi

Gailurra / Cima: ED50 30T X.490191, Y.4765450, alt. 1185 m.

Gorobel mendilerroaren punturik gorena dugu, baita Aiarako lurraldeena ere. Haren gailurraren ingururaino heltzen dira alderdi horretan mendilerroaren oinetan dauden Aiarako kontzeju guztien jurisdikzioak, zenbaitetan oso lur zerrenda estuen bitartez bada ere. Lur aldapatsu horiei etekin zuzena atera baino gehiago, horren helburua mendilerroaren goialdeko alderdietako erabilera eta ustiaketarekin zerikusia izango zuten kontu guztietan kontzeju horien eskuhartzea bermatzea litzatekeela dirudi. Eskutxiko iparraldeko magalean gora heltzen dira Añes, Lexartzu, Erbi, Oze-ka, Menoio eta Salmantongo eremuak eta mugak.

Izena 864. urteko emate dokumentu ezagunean jasotzen da lehenengoz eta *Ezquti* eran ageri da: *coua de Ezquti, et ad illa Ponnata*. Agerikoa da euskarazko hitz konposatua dela, (*h*)aitz izenaren gainean osatua, mendebaldeko euskalkietan oso antzina *atx* aldaera bustia eman zuena. Izen horren atzean *guti* hitza ageri da 'txikia, xumea'. Osagai bien elkarketak euskaraz oso ohikoak diren egokitze fonetiko batzuk ekarri



*Gorobel mendilerroa eta erdian punturik gorena den Eskutxi mendia*  
Sierra Sálvada y en el centro el monte Eskutxi cúspide de la misma

zituena: *haitz-guti* > *aiz-guti* > *ez-kuti* > *es-kuti* > *es-kutxi*. Aipatutako lehen hiru urratsak euskaraz oso ohikoak diren fenomenoak dira eta Euskal Herriko hainbat toponimotan aurki daitezke, hala nola *Aizkorri*, *Axkorri* eta *Askorri* (< *haitz-gorri*), *Jaizkibel* eta *Eskibel* (< *haitz-gibel*), *Astobitza* (< *haitz-hobi-tza*)... Amaierako *-txi* horren garapena, ordea, lokalagoa da. Aiarerrian arrunt samarra da *-ti* amaierak *-txi* aldaerara pasatzea, *barruti*, *goiti* eta *beiti* bezalako osagaietan aurkitzen den fenomeno, eskualdean *barrutxi*, *gotxi* eta *betxi* bilakatu zituena. Honi buruz ikus bitez beste zenbait izenez aritzean egindako iruzkinak: *Betxi* (Izoria), *Pizparrutxi* (Lanteno), *Aretxabajo* (Mena-garai), *Barrutxi* (Menoio), *Zabalbetxi* (Murga) eta *Mugaburugotxi* (Olabezar).

Se trata del punto culminante de la sierra Sálvada (Gorobel) y también del territorio de Ayala (Aiara). Alcanzan las proximidades de su cima las jurisdicciones de todos los concejos ayaleses situados al pie de la sierra en esa zona, con franjas de terreno en ocasiones muy estrechas que, más que una voluntad de aprovechamiento de esos terrenos pendientes, parecen pretender garantizar la presencia de esos concejos en toda cuestión que tuviese que ver con el uso y disfrute de la zona alta de la sierra. Trepan por esa ladera norte de Eskutxi los términos y límites de Añes, Lexartzu, Erbi, Ozeka, Menoio y Salmantón.

El nombre se documenta por primera vez en el conocido documento de donación del año 864, donde figura como *Ezquti: cova de Ezquti, et ad illa Ponnata*. Se trata con cierta evidencia de un compuesto del euskera *(h)aitz* 'peña', que ya tempranamente dio en los dialectos occidentales la forma palatalizada *atx*. A este nombre se le pospone el término *guti*

'pequeño, menor'. El ensamble de ambos componentes trae algunas acomodaciones fonéticas muy comunes en euskera: *haitz-guti* > *aiz-guti* > *ez-kuti* > *es-kuti* > *es-kutxi*. Los tres primeros pasos indicados obedecen a fenómenos bastante habituales en euskera y se pueden rastrear en multitud de topónimos del país como *Aizkorri*, *Axkorri* y *Askorri* (< *haitz-gorri*), *Jaizkibel* y *Eskibel* (< *haitz-gibel*), *Astobitza* (< *haitz-hobitza*)... La gestación del final *-xi* es, sin embargo más local. En la tierra de Ayala es común la evolución de la terminación *-ti* a *-txi*, presente en componentes del estilo de *barruti*, *goiti* y *beiti*, que en la comarca dieron *barrutxi*, *gotxi* y *betxi*. Véanse al respecto los comentarios hechos al tratar de nombres como *Betxi* (Izoria), *Pizparrutxi* (Lanteno), *Aretxabajo* (Menagarai), *Barrutxi* (Menoio), *Zabalbetxi* (Murga) y *Mugaburugotxi* (Olabezar).

## Iturrigorri

Gailurra / Cima: ED50 30T X 494136, Y 4763007, alt. 1073 m.

Gorobel mendilerroan dagoen 1073 metroko mendia da, iparraldetik miresten dutenei eskaintzen dien soslai lerdengatik oso ezaguna. Aiarako Sopeñako lur apalek bat-batean mendietarantz gora eginda, Angulo eta Barrerilla mendateen artean mendilerroak marrazten duen malkar saila osatzen dute. Iturrigorri malkar sail horretako punturik deigarrienetako bat dugu, eta horregatik neurri izugarrietako berezko mugarrizat hartu ohi da. Agian arrazoi horregatik, bost lur-barruti desberdin elkartzen dira ia-ia gailurrean bertan: Aiarako Agiñaga kontzejua, Urduñako Belandia eta Lendoñogoiti kontzejua, Ponata izeneko barrendegi amankomuna eta Gorobel mendilerroan dauden erabilera amankomuneko belardiak. Hara heltzeko abiapuntu ohikoenan Lendoñogoitin dago, Senda Negra izeneko ibilbide harrigarrian gora Barrerilla mendi-lepora heltzen dena, baina Agiñagatik ere joan daiteke Menderdiga mendi-lepoa zeharkatuta edo, ez hain ibilbide ederrean, hegoaldeetik Burgosko Llorengez herriatik abiatuta.

Etimologia gardeneko euskarazko toponimoa da, *iturri* izena, *gorri* izenondoa eta, antzina, *-a* mugatzailea ere eraman zuena. Duen esanahiak, beharbada Barrerilla mendi-lepotik gertu dagoen iturburu xumeari egin diezaioke erreferentzia. Eskualdeko erabileran ohikoa da *Iturri* > *Tolo* aldaketa egitea eta hortik dator *Tologorri* herri aldea, nahiko hedatuta dagoena. Baina ez da kasu bakarra, Menagarai kontzejuko *Iturribarria* auzoaren iruzkina egitean jadanik aipatu genuen bezala, oso bilakaera errekurentea baizik, herri hartan deitura kidea ere *Tolibarria* esaten delarik gainera. Era berean, Aiaratik hurbil dagoen Laudioko Olarte auzoko *Iturrigorri* izeneko iturrirako, ahoz *Tulugurri* eta *Turrugurri* aldaerak erabili ohi dira. Euskararen galerari eutsitako fenomeno dirudi, baina ez da hedatu Aiara osora eta *Tologorri* era modernoa ezagutu arren, hiztun askok jatorrizko *Iturrigorri* aldaera erabiltzen dute oraindik ere. Izen osoa dokumentatzen dugu 1452an artikulua eta guzti: *puede e deben pascer las yerbas e veber las aguas e comer la grana e cortar los montes en las Sierras de Salbada e Iturrigorria como ata-*



ja el Pico de Iturrigorria<sup>7</sup>. Era berean, mendilerroaren erabilerari buruzko epaiaren 1514ko data daraman kopia batean, eremu honetako zenbait leku-izen dokumentatzen dugu:

«Otrosy, mandamos que los vezinos de la çerca de / Vylanno, que son vezinos de la dicha çibdad de Orduna, que / pueden paçer e pascan las yerbas con sus ganados / en la syerra de Cobata e Yturrigorria e veban las agu / as de sol a sol e no mas, e que puedan cortar los montes / e comer la grana en las syerras de Yturrigorria con los / de la dicha çibdad de Orduna, e que en la dicha syerra / de Cobata»<sup>8</sup>.

Askoz ere beranduago aurki daiteke artikuluko hori, hala ere, zeren 1893. urteko dokumentazio ofizialean *Iturrigorria* eraren lekukotzaren bat edo beste aurkitu baitugu. Den legez dela, ahozko erabileran *-a* mugatzaile horren aztarnarik ez aurkitzean, uste dugu ez dela berreskuratzeko ahaleginik egin behar.

Montaña de 1073 metros en la sierra Sálvada (Gorobel), conocida por el esbelto perfil que ofrece a quienes lo admiran desde el norte. Las tierras bajas de la Sopeña ayalesa se yerguen bruscamente hacia la montaña y conforman así la serie de cantiles rocosos que conforma la sierra entre los puertos de Angulo y la Barrerilla. Iturrigorri es uno de los puntos más llamativos de este cantil, razón por la que es también un mojón natural de proporciones colosales. Seguramente por ello, prácticamente en su cima se reúnen un total de cinco territorialidades: el concejo ayalés de Agiñaga, los concejos orduñeses de Belandia y Lendoñogoiti, el enclave común denominado Ponata y los pastos de uso mancomunado de la sierra Sálvada (Gorobel). Los accesos más habituales suelen ser desde Lendoñogoiti por el espectacular itinerario conocido como Senda Negra y el portillo de la Barrerilla, desde Agiñaga por el portillo de Menerdiga o, en itinerario menos vistoso, desde el pueblo burgalés de Llorengez por el sur.

Es un topónimo eusquérico de étimo transparente, compuesto por el nombre *iturri* 'fuente' y el adjetivo *gorri* 'roja' y que antaño, además llevó artículo *-a* 'la'. Significa, pues, 'la fuente roja', en probable referencia al modesto manantial próximo al portillo de la Barrerilla. En el uso local es frecuente el cambio *Iturri* > *Tolo*, de donde procede la variante popular y bastante extendida de *Tologorri*. Pero no se trata de un caso único, sino de un fenómeno recurrente que ya citamos al tratar el barrio *Iturribarria* del concejo de Menagarai donde, además, el apellido homónimo también se dice *Tolibarria*. Igualmente, como denominación de la conocida fuente *Iturrigorri* del barrio Olarte de Llodio (Laudio), próxima a Ayala (Aiara), se utilizan habitualmente las variantes orales *Tulugurri* y *Turrugurri*. Parece un fenómeno ligado a la pérdida del euskera, pero que no ha llegado a extenderse a la totalidad de Ayala (Aiara), de modo que hay hablantes que siguen usando la forma original *Iturrigorri*, aunque conozcan la versión moderna *Tologorri*. Documentamos el nombre completo con artículo en 1452: *puede e deben pascen las yerbas e veber las aguas e comer la grana e cortar los montes en las Sierras de Salvada e Iturrigorria como ataja el Pico de Iturrigorria*<sup>9</sup>. Igualmente, en una copia de la sentencia sobre el uso de la sierra, datada en 1514, documentamos varios topónimos de la zona:

«Otrosy, mandamos que los vezinos de la cerca de / Vylanno, que son vezinos de la dicha çibdad de Orduna, que / pueden paçer e pascan las yerbas con sus ganados / en la syerra de Cobata e

<sup>7</sup> Salazar, 1989, 126. or.

<sup>8</sup> Enríquez, 1994, II. lib., 38. dok., 394-395. or.

<sup>9</sup> Salazar, 1989, pág. 126.


Yturrigorria e veban las agu / as de sol a sol e no mas, e que puedan cortar los montes / e comer la grana en las syerras de Yturrigorria con los / de la dicha çibdad de Orduna, e que en la dicha syerra / de Cobata»<sup>10</sup>.

También se encuentra con artículo bastante tardíamente, pues en documentación oficial de 1893 hallamos algún testimonio puntual de la forma *Iturrigorria*. Sin embargo, el hecho de que en el uso oral no hayamos encontrado restos de este determinante *-a*, nos hace desistir de intentar su recuperación.

## Kobata

Saroia / Majada: ED50 30T X.489448-490276, Y.4763104-4763848, alt. 1050 m.

Mendilerroaren bihotzean kokaturiko alderdia, Eskutxi eta Somo gailur gorenetatik hegoaldera. Gaur egun oso ezaguna da aurkintza hau, bertan dauden artzain txabola ugariengatik. Aparte samar gelditzen den lekua den arren, garai batean han zehar pasatzen zen Aiara eta Gaztela arteko biderik nagusiena, eta horregatik ageri da maiz dokumentuetan aipatua IX. mendetik aurrera. *Cocinos* izenez ezagutzen ziren abereak eradateko leku garrantzitsuak zeuden bertan eta arau batzuk zeuden haien



*Kobatako iturria*  
Fuente de la Kobata

<sup>10</sup> Enríquez, 1994, tomo II, doc 38, págs. 394-395.

erabilera erregulatzeko. 1403. urtean *Cobata de Iturrigorria* bezala dokumentatzen dugu izena Aiarako Udal Artxibategian. Eskualdean artzaintzak izugarrizko atzerakada pairatu duen arren, antzina lekuak izan zuen garrantzia herri jai baten bitartez gogoratzen da urtero irailaren lehenengo igandean, Aiarako auzotar ugari bertan elkartzen direlarik. Lauza haranean *las chaulas* ‘txabolak’ izen generikoa ematen zaio lekuari.

Erromantzea baino gehiago, jatorri latinoko toponimoa dela dirudi, *cova* ‘haitzu-loa’ eta partizipioak osatzeko *-ata* atzizkiak osatua, eta espero zitekeenaren kontra, ez du gaztelaniaz erregularra zatekeen *Covada* aldaera eman. Amaieran *-t-* horrek temati irautea, seguru asko euskarazko testuinguru batean erabili izanaren ondorio izango da eta handik hurbil dagoen *Ponata* lekuaren izenean ere aurkitzen dugun fenomeno da. Alderdi hau betidanik izan da Aiararen parte eta, horrenbestez, duela ez hainbestera arte euskal hiztunen eremuan egon da. Bokalen arteko *-p-*, *-t-*, *-k-* leherkari ahoskabeen iraupena euskararen ezaugarri berezkoa da, gaztelaniaz erregularri ahostun bilakatzen diren bitartean, hurrenez hurren *-b-*, *-d-*, *-g-* emanez. Horregatik euskaraz *zapatu* edo *katea* esaten ditugu, gaztelaniaz *sábado* eta *cadena* direnen ordainak. Garapen hau toponimian ere ematen da eta horrexek argitzen du, adibidez, Mena haraneko *Tutela* gaur egun *Tudela* izatea, baita mendilerroari zegokion *Salvata* zaharrak *Sálvada* eman izana ere. Aldi berean, ordea, *Ponata* eta *Kobata* toponimo txikiak beren jatorrizko hotsa gorde dute, seguru asko sarriago euskarazko testuinguruan erabili izan direlako.

Zona localizada en el corazón de la sierra, al sur de las cimas más elevadas de Eskutxi y el Somo. Hoy día es muy conocida por las numerosas cabañas de pastores allí enclavadas. Aunque se trata de un lugar actualmente apartado, en otras épocas por allí discurría la ruta principal de comunicación entre Ayala y Castilla, y como tal se documenta desde el siglo IX. Los *cocinos* o abrevaderos de ganado allí enclavados fueron de gran importancia y su uso estaba regulado por diversas leyes. En 1403 documentamos el nombre como *Cobata de Iturrigorria* en el archivo municipal de Ayala (Aiara). Aunque el pastoreo ha sufrido un importante retroceso en la zona, la importancia que el lugar tuvo en el pasado sigue reivindicándose con una fiesta popular que congrega a numerosos vecinos de Ayala en este paraje, el primer domingo de septiembre todos los años. En el valle de Losa se conoce el lugar con el genérico *las chaulas* ‘chabolas’.

Se trata de un topónimo de origen latino, más que romance, compuesto de *cova* ‘cueva’ y el sufijo de participio *-ata* que, contra lo que cabía esperar, no ha dado su evolución regular castellana *Covada*. La causa de esta conservación de la *-t-*, que también se observa en el nombre del cercano enclave de *Ponata*, se deberá seguramente al hecho de haber sido utilizado en contexto eusquérico. Esta zona ha pertenecido siempre a Ayala (Aiara) y, por lo tanto, ha estado en zona vascófona hasta no hace tanto tiempo. Es rasgo propio del euskera el mantenimiento de las oclusivas sordas *-p-*, *-t-*, *-k-* entre vocales, mientras que en castellano se sonorizan regularmente, dando respectivamente *-b-*, *-d-*, *-g-*. Así en euskera decimos *zapatu* o *katea* mientras que en castellano son *sábado* y *cadena*. Este cambio también se da en la toponimia y explica, por ejemplo, que el original *Tutela* en el valle de Mena, sea hoy en día *Tudela*, y que el primitivo *Salvata* correspondiente a la sierra haya dado *Sálvada*. Simultáneamente, los topónimos menores *Ponata* y *Kobata* han mantenido su sonido original, seguramente debido a haber sido más frecuentemente utilizados en contexto eusquérico.

## Ungino

Gailurra / Cima: ED50 30T X. 491842, Y.4764625, alt. 1099 m.

Gorobel mendilerroko gailur hau Aiarako garaienetako eta bisitatuenetako bat da. Mendilerroaren iparraldeko malkarren gainean dago, Sopeña aldera begira, eta ondoko Iturrigorri bikiarekin batera mendilerroko gailurrik lerden eta ikusgarrienetako bat dugu. Izan ere, Agiñaga, Madaria eta Salmantón kontzeju aiararren gainera aurreratzen da haren gailurra, itsasuntzi baten brankaren gisara, eta haien mugak ton-toretik gertu elkartzen dira. Mendizaleentzako abiapunturik interesgarriena Madaria izaten da, mendilerroko goilautada Atatxa izeneko atakatik erdietsi eta handik gailurrera heltzeko. Kobata aldetik ere joan daiteke modu errazean, Aro mendi-lepoa zeharkatzen duen bidea erabiliz.

Mendilerroaren ustiapen eta erabileraren gaineko 1480ko epai batean Aiarari zegozkion dermioak ezarri ziren, eta testuinguru honetan ageri zaigu izena hasieran O- duela<sup>11</sup>:

«mojón del Costil de Herranes a orillas de los montes al costil de Onguino al moscadero de Villaño que es a oxo de Onguino al mojón que está encima la Peña a las partes de Ayala y de Angulo».



*Ungino Ponata aldetik  
Ungino desde Ponata*

<sup>11</sup> Garayo, 1990, 64. or., 13 eta 15 oharra.

Hasierako bokalean ikus daitekeen txandakatzea fenomeno desberdin biren ondorio izan daiteke. Alde batetik, *Onguino* erromantzeko aldaera izan liteke eta idatziko dokumentazioan lehenetsua emango zitzaion, zabartzat hartzen ziren euskal aldaerak baztertzeko ohiko joeragatik. Hortaz, *Urduña* izenaren antzeko kasua izango litzateke, euskaraz hala ibili arren, dokumentazio ofizialean oso gutxitan aurki baitaiteke. Hitz arruntetan ere gertatzen da *o > u* aldaketa (*ursus > oso*, *urtica > ortiga*, *urina > orina...*), eta eskualdeko toponimian ere aurki dezakegu (*Urduña > Orduña*, *Urzaniko > Orzaniko*, *Utxati > Otxati...*). Hala ere, hasierako *O-* duen aldaera jadanik 1480an dokumentatu denez gero, beste aukera bat da jatorrizko izena *Ongino* izatea eta *O-* > *U-* aldaketa ondoko *-n-* horren ondorioz gertatzea.

Es otra de las cimas ayalesas más elevadas y visitadas de la sierra Sálvada (Gorobel). Se encuentra en los farallones septentrionales de la sierra, mirando hacia la Sopeña y constituye con el cercano Iturrigorri, una de las cimas más esbeltas y fotogénicas de la sierra. En efecto, su cima se asoma como proa de barco a los concejos ayaleses de Agiñaga, Madaria y Salmantón, cuyos límites confluyen cerca de la cumbre. El acceso montañoso más interesante parte de Madaria para alcanzar la meseta serrana por el portillo de Atatxa y subir de allí a la cima. También puede accederse desde la zona de Kobata, utilizando el portillo de Aro.

En sentencia de 1480 sobre aprovechamiento y uso de la sierra, se fijaron los términos de la misma correspondientes a Ayala (Aiara), y es en ese contexto donde aparece el nombre con *O-* inicial<sup>12</sup>:

«mojón del Costil de Herranes a orillas de los montes al costil de Onguino al moscadero de Villaño que es a oxo de Onguino al mojón que está encima la Peña a las partes de Ayala y de Angulo».

La alternancia que se observa en esa vocal inicial, se puede deber a dos fenómenos distintos. Por una parte, *Onguino* pudiera ser la forma romance a la que se dio preferencia en la documentación escrita, tendente siempre a no usar formas vascas consideradas vulgares. Sería, pues, caso análogo al de *Urduña*, utilizado en euskera pero poco común en la documentación oficial. El cambio *o > u* es un fenómeno que se da en léxico común (*ursus > oso*, *urtica > ortiga*, *urina > orina...*) y que podemos hallar también en otros topónimos de la zona (*Urduña > Orduña*, *Urzaniko > Orzaniko*, *Utxati > Otxati...*). Sin embargo, dado que ya en 1480 se documenta la forma con *O-* inicial, otra posibilidad sería que *Ongino* fuese el nombre original y el cambio de *O-* a *U-* fuese debido a la *-n-* subsiguiente.

<sup>12</sup> Garayo, 1990, pág. 64, notas 13 y 15.

## Aiarako beste mendi batzuk / Otras montañas de Ayala

---

Aiaratik mugitzen denak, dagoen tokian dagoela, ezin saihestuko du Gorobel mendilerroaren betiereko itzala, baina badaude mendilerrotik kanpo aipamena merezi duten gailur apalago batzuk ere. Gorobel iparraldeko malkarren oinetan, hegoekialdetik ipar-mendebaldera lerratzen den mendikate txikiak bata bestearen antzeko gailur sail bat eskaintzen digu. Sopeñako mendiak dira eta haren gailurrik nabarmenenak Babio, Eskorieta edo Ungila, Peregaña eta Zaballa dira. Aiarako iparraldeko muturrean, jadanik Okondoko nahiz Gordexolako (Bizkaia) mugetatik gertu, Bortaun eta Odoibaltza tontorrak ere aipatu beharra dago. Azkenik, Aiarako ipar-ekialdeko alderdian Pagonabarra izeneko gailurra aurkituko dugu, are apalagoa, Laudioko udalerritik hurbilago. Aiarako gailur hauen garrantzi orografikoa dela eta, Euskal Mendizale Federazioaren *Mendien katalogoa* delakoan ageri dira.

Aunque la sempiterna sombra de la sierra Sálvada (Gorobel) resulta omnipresente para cualquiera que se mueva por Ayala (Aiara), hay otras cimas más modestas fuera del término de la sierra que también merecen ser citadas. Al pie de los escarpes septentrionales de Sálvada, una pequeña cordillera que corre de sureste a noroeste ofrece una serie de cimas muy parecidas entre sí. Se trata de los montes de la Sopeña, cuyas cimas más importantes son Babio, Eskorieta o Ungila, Peregaña y Zaballa. En el confín septentrional de Ayala, ya próximas al límite de Okondo y Gordexola (Bizkaia), Bortaun y Odoibaltza son también cimas dignas de mención. Por último, más modesta, la cima de Pagonabarra se sitúa en la zona nororiental de Ayala, más próxima al término municipal de Llodio (Laudio). En atención a su importancia orográfica, estas otras cimas ayalesas también figuran en el *Catálogo de cimas* de la Euskal Mendizale Federazioa.

### Babio

Gailurra / Cima: ED50 30T X.497725, Y. 4766599, alt. 583 m.

Mendi honen ondoan elkartzen dira Aiarako Etxegoien, Izoria eta Olabezar kontzejuen jurisdikzioak. Urduñako Belandia eta Mendeika herrixkak ere ailegutzen dira Babio mendiaren hegoaldeko magaletara, baina ez tontorrera. Gailurra oso erraz erdiets daiteke Etxegoien kontzeju hurbiletik Senda del Contrabandista izeneko bi-dean gora. Izoriatik ere badago heltzeko modu eroso.

Izena azentuzio lauaz ahoskatu behar da, Bábio. Mendiaren izena jatorri eta esanahi ezezaguneko da, baina jadanik Madozek (1845-1850) aipatzen du amezti

mendi bezala. ‘Ametz zurien lekua’ bezalako etimologia zailak aparte utzirik<sup>13</sup>, *-io* amaierak euskarazkoa ez den etimologia bat iradokitzen digu, beharbada latinezko *Babius* pertsona izenaren eratorria eta formalki *Babia*, *Babieca*... bezalakoekin erlaziona litekeena<sup>14</sup>. Etxegoiengo *Babiobidea* eratorri ezaguna ez ezik, toponimia txikian *Babioiturrieta* ere aurkitzen dugu ‘Babioko iturriak’, gaur egun *Babitúrta* gisara ahoskatua.

En las proximidades de esta cima de la Sopeña confluye la jurisdicción de los concejos ayaleses de Etxegoien, Izoria y Olabazar. Las aldeas orduñesas de Belandia y Mendeika también alcanzan las laderas meridionales de Babio, si bien no su cima. La cumbre se alcanza fácilmente desde el cercano concejo de Etxegoien por la llamada Senda del Contrabandista. Desde Izoria también hay buenos accesos.

El nombre se pronuncia con acentuación llana *Bábio*. El nombre del monte es de origen y significado incierto, pero ya lo cita Madoz (1845-1850) como monte robledal. Al margen de etimologías difícilmente explicables como ‘sitio de robles blancos’<sup>15</sup>, el final en *-io* nos sugiere una etimología no eusquérica, posiblemente un derivado del nombre de persona latino *Babius* en relación formal con *Babia*, *Babieca*...<sup>16</sup>. Además del conocido derivado *Babiobidea* de Etxegoien, en toponimia menor hallamos también *Babioiturrieta* ‘Las fuentes de Babio’, en la actualidad conocido como *Babitúrta*.

## Bortaun

Gailurra / Cima: ED50 30T X.494294, Y.4776141, alt. 705 m.

Mendi hau Aiarak Okondorekin eta Bizkaiko Gordexola ibarrarekin egiten di-tuen mugetatik gertu dago. Tontorra Aiarako Menagarai kontzejuko jurisdikzioan dago, baina mendebaldera Lantenoko jurisdikzioaren mugarri bat dago handik oso hurbil. Bortaunera Okondotik igo daiteke Jandiola auzoan zehar, Menagaraitik Gairondo izeneko aurregailurretik pasatuta, edo Ureta izeneko auzotik, Lantenotik nahiz Artziniegatik iritsi daitekeena. Askoz ezagunagoa eta bisitatuagoa izaten da Odoibaltza izeneko ipar-mendebaldeko aurregailurra, altitude apalagokoa, baina tontorrean erpin geodesikoa duena<sup>17</sup>.

*Bortaun* leku-izenak *-(g)un* atzizkia duela ematen du, ‘eremu mugatua’, baina hasierako *Borta-* hori ilun samarra gertatzen zaigu. Izenak batez ere mendiaren ekialdeko magal osoa hartzen duen eremu zabala izendatzen duela dirudi. Kartografia

<sup>13</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>14</sup> Mugurutza, 2000, *Zaraobe*, 72.

<sup>15</sup> Barrenengoa, 1990.

<sup>16</sup> Mugurutza, 2000, *Zaraobe*, 72.

<sup>17</sup> UTM ED50 30T X.493671 Y.4776612, alt. 691 m.

batzuek tontorrari *Pico de los Soldados* irizten diote, baina gaurko erabilerak erabilera, moderno samarra dirudi izen horrek. Gailurrik ezagunena eta bisitatuena ipar-mendebaldekoa da, eta haren iparraldeko lepoan elkartzen dira Aiara, Okondo eta Gordexola. Azken honen dermioan, *Odoibaltza* izeneko baserri etxea egon zen, haren aurriak duela zenbait urte oraindik begi bistan zituena. Bertako erabilera betiere *Dubalza* bada ere, 1931ko herriko kartografian oraindik ere *Idubalza* irakur zitekeen, hasierako bokal eta guzti. Kartografia askok *Idubaltza* izendatzen dituzte hala baserri etxearen aurriak nola aipatutako aurregailurra. Ustez, izenaren osagaiak *idoi* eta *baltz* izango lirateke, azken hau *beltz* estandarraren mendebaldeko aldaera, eta konposatuari *-a* mugatzailea gehituko litzaioke, ‘zingira beltza’. Hala ere, dokumentaturiko aldaerarik zaharrena *Odoibaltza* da, eta haren lehen osagaia ez da hain gardena. Baliteke *hedoi* izatea, *hodei* estandarraren mendebaldeko aldaera zaharra.

Cumbre situada próxima al límite de Ayala (Aiara) con Okondo y con el valle vizcaíno de Gordexola. La cima se halla en jurisdicción del concejo ayalés de Menagarai, pero muy cercano al oeste se emplaza un mojón divisorio con Lanteno. Puede accederse a Bortau desde Okondo por el barrio de Jandiola, desde Menagarai por la antecima denominada Garondo, o desde la barriada de Ureta, accesible de Lanteno o de Artziniiega. Más conocida y visitada suele ser su antecima noroccidental denominada Odoibaltza, de menor altitud, pero en la cual se emplaza un vértice geodésico<sup>18</sup>.

El topónimo *Bortau* parece contener el sufijo *-{g}un* ‘espacio delimitado’, pero el inicial *Borta-* nos resulta opaco. El nombre parece identificar un paraje extenso que abarca sobre todo la ladera oriental del monte. Algunas cartografías denominan la cima *Pico de los Soldados*, nombre que, a pesar de contar con cierto uso actual, parece ser relativamente moderno. La cima más conocida y visitada es la noroccidental en cuyo collado norte se reúnen los tres municipios de Ayala (Aiara), Okondo y Gordexola. En término de este último, hubo un caserío de nombre *Odoibaltza*, cuyos restos aún podían distinguirse hace pocos años. Aunque el uso local es invariablemente *Dubalza*, en la cartografía municipal de 1931 aún puede leerse *Idubalza*, con vocal inicial. Numerosas cartografías denominan *Idubaltza* tanto las ruinas del caserío como antecima citada. Supuestamente, el nombre se compondría de *idoi* ‘balsa, estanque’ y *baltz*, variante occidental del estándar *beltz* ‘negro’, más el determinante *-a* ‘la’, significando en tal caso ‘la balsa negra’. Sin embargo, la forma más antiguamente documentada es *Odoibaltza*, cuyo primer componente no parece tan claro, tal vez de *hedoi*, variante occidental arcaica del estándar *hodei* ‘nube’.

## Eskorieta / Ungila

Gailurra / Cima: ED50 30T X.495499, Y.4769204, alt. 642 m.

Sopeña aldeko mendi honetan elkartzen dira Arespalditza, Kexaa eta Menoio kontzejuen jurisdikzioak. Izenik hedatuena *Eskorieta* da, baina mendiaren hegoaldeko

<sup>18</sup> UTM ED50 30T X.493671 Y.4776612, alt. 691 m.



magal zabalaren beheko aldean dagoen Maroño inguruan *Ungila* izena ere jaso dugu. Gailurrera heltzeko, inguruan dauden herrietatik edozein izan daiteke abiapuntu egokia, hots, Kexaa, Arespalditza, Izoria, Maroño edo Menoio. Agian ibilibiderik interesgarriena, ordea, Kexaa nahiz Menoiotik irtenda, Etxaurrengo santutegi ederra bisitatu eta punturik gorenera hegoaldeko malda erosoan gora heltzen dena izan daiteke.

*Eskorieta* era euskarazko konposatu argia da, *eskoria* izena ‘mea urtu ondoren sobratzen diren hondarrak’ gehi lekuzko *-eta* atzikiak osatua. Mailegu erromantze hori maiz errepikatzen da Euskal Herriko toponimian, *Eskoriatza* (Gipuzkoa), *Eskauriatza* (Barakaldo)... aurkitzen ditugularik. Gaztelaniazko ‘escorial’ eraren euskal ordaina izango litzateke beraz, bere horretan toponimo gisa ere ezaguna. Herri ahoskeran *Eskorítas* nahiz *Eskolítas* entzun daitezke. Hiatoaren laburtzea (*-ie-* > *-i-*) oso fenomeno arrunta da, batez ere euskararen galerari atxikia, eta orobat esan daiteke gaztelaniazko plural faltsu baten *-s* marka gehitzearen ohituraz, oso hedatua, adibidez, Bizkaiko Uribe Kosta eskualdean, han oro har *Salsidus*, *Illetas*, *Aldapas* eta halakoak esaten baitira. Izenak antzinako mendi-arrago edo haizeola batekin izan lezake erlazioa, meategietatik gertu zeuden leku haizetsuetan kokatutako labe lantzaka hauei esker, lehen urtze bat egin eta metalean aberatsagoa zen mea garraiatzen baitzen. Haren soberakinak edo hondarrak izango ziren ‘eskoriatzen’ jatorria. Ez du oso egokia ematen ‘haiztxoko burdinolak’ etimologiak, duela zenbait urte plazaratua. *Ungila* toponimoaren analisi etimologikoa, ordea, erraza ez bada ere, agian handik hurbil dagoen *Ungino* mendiaren izenarekin erlazioan egon liteke

En esta cumbre de la Sopeña se juntan las jurisdicciones de los concejos de Arespalditza, Quejana (Kexaa) y Menoio. La denominación más extendida es *Eskorieta*, pero en la zona de Maroño, que se sitúa al pie de su amplia ladera sur, hemos recogido también el nombre *Ungila*. Puede accederse a la cima desde cualquiera de los concejos que la rodean: Quejana (Kexaa), Arespalditza, Izoria, Maroño o Menoio, pero tal vez el itinerario más interesante sea el que, saliendo indistintamente de Quejana o Menoio, visita el bonito santuario de Etxaurren y accede al punto culminante por la cómoda ladera meridional.

La forma *Eskorieta*, es un claro compuesto eusquérico de *eskoria*, ‘residuos sobrantes tras la fundición del mineral’, al que se ha añadido el sufijo locativo *-eta*. El préstamo romance es bastante recurrente en la toponimia del país, donde hallamos *Eskoriatza* (Gipuzkoa), *Eskauriatza* (Barakaldo), etc. Sería por tanto equivalente al término castellano ‘escorial’, también conocido como topónimo. La pronunciación popular es *Eskorítas* y *Eskolítas*. La reducción del hiato (*-ie-* > *-i-*) es un fenómeno común ligado sobre todo a la pérdida del euskera, igual que la costumbre de añadir una *-s* de falso plural castellano muy común, por ejemplo, en la comarca vizcaína de Uribe Kosta, donde se dice generalmente *Salsidus*, *Illetas*, *Aldapas*, etc. El nombre parece estar relacionado con alguna antigua ferrería de montaña, o *haizeola*, toscos hornos que solían situarse en zonas bien venteadas y próximas a las zonas de extracción de mineral, a fin de realizar una primera fundición para trasladar así un mineral más rico en metal. El sobrante sería el que daba lugar a los ‘escoriales’. No parece adecuada la etimología ‘ferrerías

de la peñica' que se propuso hace unos años. Por su parte, no resulta sencilla la interpretación etimológica del topónimo *Ungila*, si bien pudiera ponerse en relación con el nombre del cercano monte *Ungino*.

## Pagonabarra

Gailurra / Cima: ED50 30T X.497715, Y.4773190, alt. 606 m.

Aiararen iparraldean kokatua dagoen gailurra da. Arespalditzako jurisdikzioan badago ere, haren mendebaldeko magalean zehar pasatzen da Zuhatzako muga ere. Tontorra erdiesteko Arespalditzatik nahiz Zuhatzatik abia daiteke, baita Zuhatzatik Okondora doan A-3641 errepidearen ondoan dauden auzo barreiatuetako edozeinetatik ere.

*Pagonabarra* toponimo ederra, laburtuta, *Panabarra* esan ohi da ahozko hizkeran eta euskal toponimo konposatua da, *pago* (*Fagus sylvatica*) substantiboaz, *nabar* adjektiboaz, 'arrea, marroi kolorekoa', eta *-a* artikulua osatua. Datu gehiago nahi izanez gero, ikus Arespalditzako *Pagonabarragoikoa* eta Luiaondoko *Pagonabarrabekoa* etxe izenen iruzkinak.

Cumbre situada al norte de Ayala (Aiara) en jurisdicción de Arespalditza, si bien por su ladera occidental discurre el límite con Zuhatza. Puede alcanzarse la cima desde Arespalditza o desde Zuhatza, o bien desde alguna de las barriadas dispersas a lo largo de la carretera A-3641 que de Zuhatza se dirige a Okondo.

El bonito topónimo *Pagonabarra*, oralmente *Panabarra*, es un claro compuesto eusquérico de *pago* 'haya' (*Fagus sylvatica*), y el adjetivo *nabar* 'parda' más el artículo *-a*, y que viene, por tanto, a significar 'el haya parda'. Para más datos, véanse las casas *Pagonabarragoikoa* y *Pagonabarrabekoa* en Arespalditza y Luiaondo respectivamente.

## Peregaña

Gailurra / Cima: ED50 30T X.493200, Y.4770750, alt. 628 m.

Sopeña aldeko mendi honetan elkartzen dira Erretes, Ozeka eta Beotegiko jurisdikzioak. Oso hurbil geratzen dira, halaber, Luxo mendebaldean eta Kexaa ekialdean. Aipatutako leku hauetatik guztietatik igo daiteke gailurrera, baina beharbada igobiderik interesgarriena Beotegitik abiatzen dena da, mendiaren ekialdeko magala gainditu eta goilautada erdietsirik, amezti ederrean iparralderantz ibilita tontorrera heltzeko.

*Perea* izenaren konposatu bat da, toponimo hori ematen baitzitzaion Beotegiko antzinako auzo nagusiari. Leku-izen horri *gain* 'altuera, mendia' eta *-a* mugatzailea gehitu zaizkio eta, beraz, 'Perea auzoko mendia' esan nahi du argi eta garbi. Izen honi



*Peregaña mendia Opelloratik*  
*Monte Peregaña desde Costera*

buruz eta haren eratorri xumeez, ikus Beotegiko kontzejuari dagokion iruzkinean esandakoak. Biztanle gunea itzali zen arren, *Perea* abizenean ere utzi zuen bere memoria, nahiko hedatua baitago eskualdetik harago ere.

Cumbre de la Sopeña en la que se reúnen las jurisdicciones de Erretes, Ozeka y Beotegi. Quedan próximos también los límites de Luxo al oeste y de Quejana (Kexaa) al este. Se accede a la cima desde cualquiera de estos lugares, pero el acceso quizá más ameno sea desde Beotegi, superando su ladera oriental para encaramarse a la meseta superior y alcanzar por esta la cima caminando hacia el norte por el bonito carrascal.

El nombre es un compuesto de *Perea*, topónimo que identificaba la antigua capitalidad de Beotegi, y el genérico eusquérico *gain* 'altura, monte', más el artículo *-a*. Significa, por tanto, con toda claridad 'el alto de Perea'. Respecto al topónimo y sus derivados menores, véase lo dicho en el comentario correspondiente al concejo de Beotegi. A pesar de que la población se extinguió, dejó su memoria también en el apellido *Perea*, de cierta extensión incluso más allá de la comarca.

## Zaballa

Gailurra / Cima: ED50 30T X.490774, Y.4772699, alt. 643 m.

Aiarako Sopeña delakoaren gailurrik mendebaldekoena da. Haren tontorrean Lanteno, Opellora eta Soxo kontzejuak elkartzen dira. Metro apur batzuk mendebaldeko dago Artziniegako muga ere. Abiapunturik ohikoena Soxoko Sobrevilla auzoa

izaten da, baina ibilbide pikoago eta basatiago batzuetan gora ere irits daiteke mendira Opelloratik nahiz Erretestik irtenda, baita Artziniegatik bertatik ere.

*Zaballa* leku-izena oso errepikatua da Euskal Herriko mendebaldean eta ohikoa da halaber abizen gisara. Euskarazko *zabal* hitz arrunta baino ez da, izenondo gisa 'handia' esan nahi duena, baina izen bezala 'ordokia' edo 'soila' adierazteko ere erabiltzen dena. Atxikita *-a* mugatzailea darama eta argi eta garbi 'ordokia, soila, arrasoa' esan nahi du. *Zaballa* era, *-ll-* daramala, Euskal Herriaren mendebaldean aurki daiteke, Aiaran edo Barakaldon adibidez. Badago *Zaballa* izeneko auzoa Beotegi kontzejuan ere, leku honetatik urrun samar eta, beraz, ezin harekin erlaziona litekeena. Hala ere, izenari buruz han esandakoak berdín balio dezake honetarako ere. Baliteke, ordea, mendi nagusi honen *Pico Zaballa* 'gain zabala' izena, bigarren mailakoa eta ahoz *Gantzorros* deitu ohi den *Gantzorrotz* 'gain zorrotza' menditik bereizteko helburuaz sortu izana. Gailurra izendatzeko usadiorik hedatuena, hala ere, *Pico de Sojo* da, inguruko herri guztietan erabiltzen den erreferentzial xumea baina, noski, Soxon bertan ez dena entzuten.

Se trata de la cumbre más occidental de la Sopeña ayalesa. En su cima se juntan los concejos de Lanteno, Costera (Opellora) y Soxo. Pocos metros al oeste se encuentra también la muga de Artziniega. El acceso más habitual suele hacerse desde el barrio de Sobrevilla en Soxo, pero también es posible acceder por rutas más pendientes y salvajes desde Costera, Erretes o, incluso, Artziniega.



*Zaballa mendia Peregañetik, azpian Erretes eta magalean Opellora dituela*  
Monte Zaballa desde Pereña, con Erretes al pie y Costera en su ladera

El topónimo *Zaballa* se repite mucho en la zona occidental del país, y también es frecuente como apellido. Se trata de la palabra genérica vasca *zabal* que como adjetivo significa 'ancho, grande', pero que sustantivado adquiere la acepción de 'explanada' o 'raso'. Lleva también el artículo *-a*, de modo que significa con toda evidencia 'el raso, la explanada'. *Zaballa* con *-l-* es una forma que aparece en el occidente del país, tanto en Ayala (Aiara) como en Barakaldo. Hay también barrio *Zaballa* en el concejo de Beotegi, algo alejado de este lugar y, por tanto, difícilmente asociable al mismo. Sin embargo, también es válido lo dicho allí acerca del nombre. Sí resulta posible, en cambio, que el topónimo se generase como un descriptivo a fin de distinguir esta cumbre principal *Pico Zaballa* 'el pico ancho' de la secundaria conocida oralmente como *Ganzorros*, es decir *Ganzorrotz* 'el alto afilado'. El uso más extendido para denominar la cima es, sin embargo, *Pico de Sojo*, sencillo nombre referencial utilizado en todos los pueblos de alrededor pero, lógicamente, no en el propio Soxo.

## Bibliografía / Bibliografía

---

- AGUIRRE GANDARIAS, Sabino (1986) *Las dos primeras crónicas de Vizcaya*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao.
- ALBERTOS FIRMAT, María Lourdes (1970) «Álava prerromana y romana, estudio lingüístico» in *Estudios de arqueología alavesa* n° 4, pág. 107-223, Instituto Alavés de Arqueología, Vitoria.
- ALLIKA AZPEITIA, Iruñe & URIARTE ANASAGASTI, Bitor (2007) *Bermeoko toponimia*, Bermeoko Udala, Bermeo.
- BARRENA OSORO, Elena (1989) *La formación histórica de Guipúzcoa*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- BARRENENGOA ARBERAS, Federico (1990) *Onomástica de la Tierra de Ayala* (3 tomos), Diputación Foral de Álava, Vitoria.
- (1997) «Godos en la Tierra de Ayala» in *Aztarna* n° 6, diciembre 1997, pág. 3-6, Grupo Etnográfico de Amurrio, Amurrio.
- BECERRO DE BENGOA, Ricardo (2000) *El libro de Álava*, El Txoko de Josetxo, Roger editor, Donostia [1ª edición (1877) Hijos de Manteli, Vitoria].
- BELASKO ORTEGA, Mikel (1999) *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, Pamiela, Iruñea.
- CARASATORRE VIDAURRE, Rafael (2013) *Textos históricos navarros*, documentanavarra.blogspot.com.
- CARO BAROJA, Julio (dir.) (1980) *Historia general del País Vasco* (14 tomos), La Gran Enciclopedia Vasca & Luis Haranburu, San Sebastián.
- CARO BAROJA, Julio (1990) *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, San Sebastián [1ª edición (1945) Universidad de Salamanca, Salamanca].
- DÍAZ BODEGAS, Pablo (1998) *Libro de visita del licenciado Martín Gil*, Diócesis de Calahorra y la Calzada, Logroño.
- ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, Isabel (1999) *Corpus de toponimia carranzana*, tesis doctoral, Universidad del País Vasco, Vitoria.

- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier (1991) *Colección documental de los archivos municipales de Guericaiiz, Larrabezúa, Miravalles, Ochandiano, Ondárroa y Villaro*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 31, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier et al. (1994) *Colección documental del archivo municipal de Orduña (1511-1520), de la Junta de Ruzábal y de la aldea de Belandia* (tomos I y II), Fuentes documentales medievales del País Vasco 52 y 53, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián.
- ETXANIZ IRAOLA, Ainitze & ZALDUA ORTIZ DE GUZMAN, Irati (2010) *Ordiziako leku-izenak*, Ordiziako Udala, Ordizia.
- FLORIDABLANCA, Conde de [MOÑINO Y REDONDO, José] (dir.) (1789) *España dividida en provincias e intendencias*, tomo I, Ministerio de Estado, Madrid.
- GALÉ GARCÍA, Patxi & DOMINGO URIARTE, Luis Ignacio «Txomin Uriarte» (1999) *Catálogo de cimas de Euskal Herria*, Euskal Mendizale Federazioa - Eusko Jaurlaritza, Vitoria / Gasteiz.
- GARAYO URRUELA, Jesús María (1990) «Sierra Salvada: conflictos entre alaveses, burgaleses y vizcaínos» in *Vasconia, cuadernos de historia-geografía* 17, pág. 55-86, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- GARCÍA CAMINO, Iñaki (2005) «La formación de un territorio. Ayala en la Alta Edad Media (siglos VIII-XI)» in *Aunia* 12, pág. 22-34, Aunia kultura elkarte, Luiaondo.
- GARCÍA DE CORTÁZAR RUIZ DE AGUIRRE, José Ángel (1969) *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla (siglos X a XIII). Introducción a la historia rural de Castilla altomedieval* (tesis doctoral) Universidad de Salamanca, Salamanca.
- GARCÍA DE SALAZAR, Lope (1967) *Las bienandanzas e fortunas*, código del siglo XV transcrito, anotado y anexado por Ángel Rodríguez Herrero, Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao.
- GARIBAI Y ZAMALLOA, Esteban de (1596) *Ilustraciones genealógicas de los cathólicos reyes de las Españas* [Puvill, Barcelona, 1974].
- GOROSTIAGA BILBAO, Juan (1954) «Toponimia de Vizcaya» in *Zumárraga, revista de estudios vascos* III, pág. 55-76, El noticiero bilbaíno, Bilbao.
- GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI, Patxi (2001) *Euskal izendegia, Ponte izendegia*. Euskaltzaindia & Eusko Jaurlaritza, Vitoria / Gasteiz.
- GUERRA, Juan Carlos de (1911) «Ilustraciones genealógicas de los linajes bascongados contenidos en las grandezas de España compuestas por Esteban de Garibay fielmente copiadas de sus manuscritos inéditos que se conservan originales

- en la Real Academia de la Historia y anotadas con adiciones por el Académico correspondiente Juan Carlos de Guerra (continuación)» in *RIEVV* (1911), pág. 58-85.
- HORCH, Ingrid (1992) *Zur toponymie des Valle de Mena/Castilla und des Valle de Ayala/Álava*, Pierre Lang, Frankfurt [(1991) tesis doctoral, Universidad de Bonn].
- Instituto Geográfico y Catastral & Servicio Geográfico del Ejército (1954, 2ª edición) hoja 86 *Orozko*, mapa escala 1:50000, Dirección General del Instituto Geográfico y Catastral, Madrid.
- Instituto Geográfico Nacional (1997) *Mapa Topográfico Nacional*, escala 1:25000, hojas 86-I *Artziniega*, 86-II *Llodio*, 86-III *Arespalditza/Respaldiza* y 86-IV *Amurrio*, Instituto Geográfico Nacional, Madrid.
- IRIGOIEN ETXEBARRIA, Alfonso (1997) *Opera selecta*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1997.
- JIMENO JURÍO, José María (1985) «Sustitución de topónimos por hagiónimos en Navarra» in *Euskera* XXX, pág. 619-626, Euskaltzaindia, Bilbao.
- KEREXETA GALLASTEGI, Jaime (1992) *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Instituto Labayru & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao.
- LAFON, René (1953) «Basque et ibérique» in *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 49, pág. 160-163.
- LLORENTE, Juan Antonio (1806-1808) *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya* (5 tomos), Imprenta de don Luciano Vallín, Madrid.
- MADOZ IBÁÑEZ, Pascual (1845-1850) *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar* (16 tomos), Establecimiento literario-tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti, Madrid [(1989) *Álava-Araba*, Juntas Generales de Álava & Ámbito Ediciones, Vitoria-Valladolid].
- MENDIA ELEXALDE, Santiago (1892) *Historia del condado de Ayala* [ed. facsímil (1994) *El condado de Ayala*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz].
- MITXELENA ELIZALT, Koldo / Luis (1997) *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia [Primera edición (1953) Biblioteca Vascongada de Amigos del País, San Sebastián; primera edición en la editorial (1971) Txertoa, Donostia].
- MUGURUTZA MONTALBÁN, Felix (1997) *Laudioko 200 izen: luces y sombras de nuestra toponimia*, BAI 17, Diputación Foral de Álava & Ayuntamiento de Llodio & Vital Kutxa, Ludio.



- (1999) «Agiñaga: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 66, otsaila-martxoa, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (1999) «Añes: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 67, apirila-maiatza, pág. 24-25, Aiarako Udala, Aiara.
- (1999) «Arespalditza: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 68, ekaina-abuztua, pág. 24-25, Aiarako Udala, Aiara.
- (1999) «Beotegi: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 70, azaroa-abendua, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Costera: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 71, urtarrila-otsaila, pág. 22-23, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Etxegoien: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 72, martxoa-apirila, pág. 26-27, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Erbi: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 73, maiatza-ekaina, pág. 26-27, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Kexaa: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 74, uztaila-abuztua, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Izoria: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 75, iraila-urria, pág. 26-27, Aiarako Udala, Aiara.
- (2000) «Lanteno-I: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 76, azaroa-abendua, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2001) *Luiaondo eta bere izenen zergatia*, hitzaldia, Luiaondoko kontzejua, Luiaondo.
- (2001) «Lanteno-II: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 77, urtarrila-otsaila, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2001) «Lexartzu: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 78, martxoa-apirila, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2001) «Luiaondo: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 79, maiatza-ekaina, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2001) «Luxo: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 82, azaroa-abendua, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2002) «Madaria: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 83, urtarrila-otsaila, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2002) «Menagarai: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 84, martxoa-apirila, pág. 30-31, Aiarako Udala, Aiara.

- (2002) «Maroño: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 86, uztaila-abuztua, pág. 4-5, Aiarako Udala, Aiara.
- (2002) «Menoio: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 88, azaroa-abendua, pág. 32-33, Aiarako Udala, Aiara.
- (2003) *Qué podemos descubrir a través de nuestra toponimia: El caso de Lendoño*, conferencia, Junta Administrativa de Lendoñobeiti, Lendoñobeiti (Urduña).
- (2003) «Murga: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 89, urtarrila-otsaila, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2003) «Olabezar: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 90, martxoa-apirila, pág. 30-31, Aiarako Udala, Aiara.
- (2003) «Ozeka: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 92, uztaila-abuztua, pág. 6-7, Aiarako Udala, Aiara.
- (2003) «Retes Llanteno: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 94, azaroa-abendua, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2004) «Etimologías: los nombres en versión original» in *Aunia* 8, pág. 6-24, Aunia kultura elkarte, Luiaondo.
- (2004) «Salmantón: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 95, urtarrila-otsaila, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2004) «Soxo: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 96, martxoa-apirila, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2004) «Zuhatza: herri eta bere auzo izenen ikerketa etimologikoa» in *Zaraobe* aldizkaria 97, maiatza-ekaina, pág. 28-29, Aiarako Udala, Aiara.
- (2012) *Aiara udalerriko mapa / Mapa del municipio de Ayala*, 1:20000 eskala, Dunba argitalpen lanak & Aiarako Udala & Arabako Foru Aldundia & Eusko Jaurlaritza.
- MUGURUTZA MONTALBÁN, Felix & ZALBIDE ETXEBERRIA, Xabier (2006) «Euskara Aiaraldean», hitzaldia, Aiarako Udala, Arespalditza, 2006ko maiatzaren 31.
- ORIBE FERNANDEZ, Alfredo (2001) «Aiarako herrien etimologiak» in *Boletín de la Institución Sancho el Sabio* XV, pág. 159-184, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria.
- OLIVER ASÍN, Julio (1975) *En torno a los orígenes de Castilla: su toponimia en relación con los árabes y los bereberes*, Real Academia de la Historia, Madrid.
- PASTOR DÍAZ DE GARAYO, Ernesto (1997) *Castilla en el tránsito de la antigüedad al feudalismo: poblamiento, poder político y estructura social del Arlanza al Duero (s. VII al XI)*, Consejería de Educación y Cultura, Junta de Castilla y León, Valladolid.

- PORTILLA VITORIA, Micaela Josefa (1967) *Catálogo monumental de la Diócesis de Vitoria* (7 tomos), Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, Vitoria.
- PORTILLA VITORIA, Micaela Josefa (1978) *Torres y casas fuertes en Álava* (2 tomos), Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, Vitoria.
- Real Academia Española (1989) *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*, Espasa Calpe, Madrid.
- SAINZ RIPA, Eliseo (2000) «El patrimonio emilianense según la bula de protección del Papa Inocencio III de 1199» in *Investigación humanística y científica en La Rioja: homenaje a Julio Luis Fernández Sevilla y Mayela Balmaseda Aróspide*, págs. 137-148, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (2011) «Sobre el sufijo occidental -ika y otras cuestiones de toponimia vasca» in *FLV*, año XLIII, número 113, pág. 139-174, Institución Príncipe de Viana & Gobierno de Navarra, Pamplona.
- SALAZAR ARECHALDE, José Ignacio (1989) *La Comunidad de aldeas de Orduña, la Junta de Ruzabal s. XV-XIX*, Ayuntamiento de Orduña, Bilbao.
- UBIETO ARTETA, Antonio (1976) *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Instituto de Estudios Riojanos & Anubar ediciones, Valencia.
- ULIBARRI GALINDEZ, Jose Paulo (1975) *Gutunliburua* (edición facsímil), Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Álava, Vitoria.
- VV.AA. (1967-2007) *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria* (9 tomos), Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, Vitoria.

## Toponimoen aurkibidea / Índice de topónimos

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Abiega	Auzoa / Barrio	Lanteno	146
Abo	Etxea / Casa	Olabezar	245
Agiñaga	Kontzejua / Concejo	Agiñaga	49
Agirre	Auzoa / Barrio	Arespalditza	64
Agirre	Auzoa / Barrio	Beotegi	86
Agirre	Etxea / Casa	Izoria	121
Aiara	v. Ayala / Aiara		27
Albiturria	Auzoa / Barrio	Erbi	97
Amirola	Antzinako etxea / Antigua casa	Arespalditza	65
Añes	Kontzejua / Concejo	Añes	55
Arakio	Auzoa / Barrio	Murga	229
Arana	Auzoa / Barrio	Menagarai	205
Arana	Auzoburua / Capitalidad	Olabezar	246
Aranguren	Auzoa / Barrio	Maroño	198
Arbiletta	Errota / Molino	Erbi	98
Arenal, El	Etxea / Casa	Arespalditza	66
Arespalditza	Kontzejua / Concejo	Arespalditza	62
Arespexueta	Auzoa / Barrio	Murga	231
Aretxa	Baserría / Caserío	Arespalditza	66
Aretxa	Auzoa / Barrio	Izoria	122
Aretxa	Auzoa / Barrio	Menagarai	206
Aretxabajo	Auzoa / Barrio	Menagarai	208
Aretxabala	Auzoa / Barrio	Menagarai	207
Aretxabala	Auzoa / Barrio	Izoria	123
Aretxabala	Auzoa / Barrio	Olabezar	248
Aretxazar	Auzoa / Barrio	Murga	232
Armintza	Auzoa / Barrio	Zuhatza	301
Aro	Mendatea / Portillo	Gorobel / Sálvada	323
Arratza	Auzoa / Barrio	Ozeka	272
Arriaga	Auzoa / Barrio	Olabezar	248
Arriagoiko	Etxea / Casa	Etxegoien	117

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Arrieta	Etxea / Casa	Salmantón	282
Arrotxaburu	Auzoa / Barrio	Maroño	198
Artza	Auzoa / Barrio	Olabezar	249
Artzoste	Etxea / Casa	Olabezar	250
Aspuru	Etxea / Casa	Erretes	108
Aspuru	Auzoa / Barrio	Izoria	124
Ayala / Aiara	Udalerría		27
Babio	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	333
Bardal, El	Auzoa / Barrio	Añes	58
Barretxeguren	Etxea / Casa	Arespalditza	67
Barrutxi	Auzoa / Barrio	Menoio	223
Basaburu	Auzoa / Barrio	Lanteno	147
Basatxi	Auzoa / Barrio	Olabezar	251
Basoaldu	Etxea / Casa	Lanteno	147
Belaunde	Auzoa / Barrio	Olabezar	251
Bengo / Esquinabajo	Auzoa / Barrio	Arespalditza	68
Beotegi	Kontzejua / Concejo	Beotegi	83
Beotegizaballa	Etxea / Casa	Beotegi	87
Berrones	Auzoa / Barrio	Soxo	288
Betxi	Etxea / Casa	Izoria	124
Billarkudi	Etxea / Casa	Menagarai	209
Blanca, La	Etxea eta baseliza / Casa y ermita	Lanteno	148
Bortaun	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	334
Butarte	Auzoa / Barrio	Menoio	223
Cabaña, La	Etxea / Casa	Lanteno	150
Calzada, La	Auzoa / Barrio	Menagarai	210
Campijo	Auzoa / Barrio	Soxo	288
Campillo, El	Auzoa / Barrio	Añes	58
Campoiza	Auzoa / Barrio	Erretes	109
Carrascal, El	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	136
Cerrajería	Auzoa / Barrio	Arespalditza	69
Costera	v. Opellora / Costera	Opellora / Costera	263
Cruz, La	Auzoa / Barrio	Murga	233
Done Bikendi	Auzoa / Barrio	Arespalditza	69
Doñobe	Etxea / Casa	Lanteno	151
Elexalde	Auzoburua / Capitalidad	Beotegi	88
Enegorta	Antzinako auzoa / Antiguo barrio	Zuhatza	302

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Erbi	Kontzejua / Concejo	Erbi	95
Erretes	Kontzejua / Concejo	Erretes	105
Erretesuso	Auzoa / Barrio	Erretes	110
Erripa	Auzoburua / Capitalidad	Izoria	125
Eskorieta / Ungila	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	335
Eskutxi	Cima / Monte	Gorobel / Sálvada	325
Esquinabajo	v. Bengo / Esquinabajo	Arespalditza	68
Estartako	Kalea / Calle	Luiaondo	175
Etxabarri	Antzinako auzoa / Antiguo barrio	Izoria	126
Etxabarri	Auzoa / Barrio	Lanteno	151
Etxabarri	Auzoa / Barrio	Madaria	192
Etxabarri	Auzoa / Barrio	Opellora / Costera	266
Etxabe	Auzoa / Barrio	Lanteno	152
Etxabe	Auzoa / Barrio	Salmantón	282
Etxaurren	Santutegia / Santuario	Menoio	224
Etxeandia	Auzoa / Barrio	Arespalditza	70
Etxebarria	Auzoa / Barrio	Zuhatza	303
Etxegoien	Kontzejua eta haren auzoburua / Concejo y su capitalidad	Etxegoien	115
Etxeguren	Auzoa / Barrio	Olabezar	252
Garabilla	Auzoa / Barrio	Lanteno	153
Garabilla	Auzoa / Barrio	Zuhatza	304
Garai	Auzoa / Barrio	Olabezar	253
Garbiras	Auzoa / Barrio	Olabezar	254
Goikosolo	Auzoa / Barrio	Arespalditza	71
Gorbea	Auzoa / Barrio	Ozeka	273
Gorobel / Sálvada	Mendilerroa / Sierra	Gorobel / Sálvada	318
Gotara	Auzoa / Barrio	Erbi	99
Guziesko	Auzoa / Barrio	Arespalditza	71
Ibaguen	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	137
Ibaguen	Auzoa / Barrio	Zuhatza	304
Ibaizabal	Auzoa / Barrio	Lanteno	154
Ibaizabal	Etxea / Casa	Menagarai	210
Ibaizabal	Auzoa / Barrio	Opellora / Costera	267
Ibarguen	Baserría / Caserío	Izoria	127
Ibarra	Auzoa / Barrio	Erbi	100
Ibarra	Auzoa / Barrio	Izoria	128
Ibarra	Auzoa / Barrio	Zuhatza	305
Ibarra, La	Etxea / Casa	Kexaa / Quejana	137

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Iglesia, La	Auzoburua / Capitalidad	Añes	59
Iglesia, La	Auzoburua / Capitalidad	Arespalditza	72
Iglesia, La	Auzoburua / Capitalidad	Murga	233
Iglesia, La	Auzoburua / Capitalidad	Soxo	289
Inartza	Auzoa / Barrio	Arespalditza	73
Inorritza	Auzoa / Barrio	Lanteno	154
Inorritzagarai	Auzoburua / Capitalidad	Opellora / Costera	267
Intxaurzabala	Auzoa / Barrio	Etxegoien	118
Intzier	Auzoa / Barrio	Zuhatza	305
Irabien	Antzinako etxea / Antigua casa	Murga	235
Iruleta	Auzoa / Barrio	Zuhatza	306
Isasi	Auzoa / Barrio	Arespalditza	74
Iturran	Auzoa / Barrio	Arespalditza	74
Iturria	Auzoa / Barrio	Murga	236
Iturribarria	Auzoa / Barrio	Menagarai	211
Iturrigorri	Cima / Monte	Gorobel / Sálvada	327
Itza	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	138
Itza	Auzoa / Barrio	Menagarai	212
Izoria	Kontzejua / Concejo	Izoria	120
Jauregi	Auzoa / Barrio	Menagarai	213
Jauregibengo	Auzoa / Barrio	Zuhatza	307
Juncal	Auzoa / Barrio	Beotegi	89
Kallebarrena	Auzoa / Barrio	Luiaondo	175
Kallegoiena	Auzoa / Barrio	Luiaondo	176
Kexaa / Quejana	Kontzejua eta haren auzoburua / Concejo y su capitalidad	Kexaa / Quejana	132
Kobata	Sarria / Majada	Gorobel / Sálvada	329
Lanbarriaga	Auzoa / Barrio	Salmantón	283
Landeta	Auzoa / Barrio	Arespalditza	75
Lanteno	Kontzejua / Concejo	Lanteno	144
Lapetaratxe	Auzoa / Barrio	Lanteno	156
Larrabe	Auzoa / Barrio	Agiñaga	51
Larrabea	Auzoa / Barrio	Izoria	129
Larrea	Auzoa / Barrio	Arespalditza	76
Larrintza	Etxea / Casa	Beotegi	90
Laurel	Etxea / Casa	Arespalditza	76
Legizama	Auzoa / Barrio	Zuhatza	308
Lendika	Antzinako auzoa / Antiguo barrio	Murga	236
Lexartzu	Kontzejua eta haren auzoburua / Concejo y su capitalidad	Lexartzu	168

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Lezalde	Ingurua (antzinako auzoa) / Paraje (antigua barriada)	Lanteno	157
Linares	Auzoa / Barrio	Erbi	101
Llana, La	Auzoa / Barrio	Arespalditza	77
Llana, La	Auzoa / Barrio	Erbi	101
Llana, La	Auzoburua / Capitalidad	Zuhatza	308
Lugar, El	Auzoa / Barrio	Agiñaga	51
Luiaondo	Kontzejua eta haren auzoburua / Concejo y su capitalidad	Luiaondo	171
Luxatea	Auzoa / Barrio	Erbi	102
Luxo	Kontzejua / Concejo	Luxo	186
Madaria	Kontzejua / Concejo	Madaria	190
Magdalena	Kalea / Calle	Luiaondo	177
Magdalena, La	Auzoa / Barrio	Zuhatza	310
Maldai	Auzoa / Barrio	Menagarai	214
Markixa / Markijana	Auzoa / Barrio	Murga	237
Maroño	Kontzejua / Concejo	Maroño	196
Marquijana	v. Markixa / Marquijana	Murga	237
Menagarai	Kontzejua / Concejo	Menagarai	203
Mendia	Auzoa / Barrio	Menoio	226
Mendibil	Etxea / Casa	Izoria	130
Mendibil	Auzoa / Barrio	Zuhatza	311
Mendieta	Auzoburua / Capitalidad	Agiñaga	52
Mendieta	Auzoburua / Capitalidad	Menagarai	215
Mendieta	Etxea / Casa	Salmantón	284
Mendiko	Auzoa / Barrio	Opellora / Costera	269
Mendikoarduri	Etxea / Casa	Menagarai	216
Menoio	Kontzejua / Concejo	Menoio	220
Mimena	Auzoa / Barrio	Beotegi	91
Mimentza	Auzoa / Barrio	Lanteno	158
Mota, La	Auzoa / Barrio	Lanteno	158
Mugaburu	Auzoa / Barrio	Olabezar	255
Mugaburugotxi	Auzoa / Barrio	Olabezar	256
Mugaola	Auzoa / Barrio	Zuhatza	312
Muñezkan	Auzoa / Barrio	Arespalditza	77
Murga	Kontzejua / Concejo	Murga	228
Obaldia	Auzoburua / Capitalidad	Madaria	193
Odega	Desagertutako etxeak / Casas desaparecidas	Ozeka	274



Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Okendo	Auzoburua / Capitalidad	Luxo	188
Olabarrieta	Auzoa / Barrio	Lanteno	159
Olabarte	Auzoa / Barrio	Luxo	189
Olabazar	Kontzejua / Concejo	Olabazar	244
Olmos, Los	Auzoa / Barrio	Murga	238
Oloste	Kalea / Calle	Luiaondo	178
Opellora / Costera	Kontzejua / Concejo	Opellora / Costera	263
Orbilla	Auzoa / Barrio	Soxo	290
Oribe	Dorretxea / Casa-torre	Soxo	291
Oruro	Auzoa / Barrio	Maroño	199
Otazu	Kalea / Calle	Luiaondo	179
Ozeka	Kontzejua / Concejo	Ozeka	270
Padura	Kalea / Calle	Luiaondo	180
Pagonabarra	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	337
Pagonabarrabekoa	Antzinako etxea / Antigua casa	Luiaondo	181
Pagonabarragoikoa	Eroritako baserria / Caserío en ruinas	Arespalditza	78
Palacio	Auzoa / Barrio	Ozeka	274
Perea	Lehengo auzoburua / Antigua capitalidad	Beotegi	92
Peregaña	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	337
Perekoarana	Etxea / Casa	Beotegi	93
Petiz	Auzoa / Barrio	Lanteno	160
Pico, El	Etxea / Casa	Menoio	226
Pikeretza	Etxea / Casa	Lanteno	161
Pizparrutxi	Auzoa / Barrio	Lanteno	161
Plazuela, La	Auzoburua / Capitalidad	Maroño	199
Plazuela, La	Auzoa / Barrio	Menoio	227
Pozoportillo	Benta / Venta	Ozeka	276
Quejana	v. Kexaa / Quejana	Kexaa / Quejana	132
Repilla	Auzoburua / Capitalidad	Erretes	111
Restergo	Kalea / Calle	Luiaondo	182
Riberos, Los	Etxea / Casa	Menagarai	217
Robina	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	139
Robinarriba	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	140
Rueda, La	Antzinako errota / Antiguo molino	Maroño	200
Sagasti	Auzoa / Barrio	Arespalditza	79
Salmantón	Kontzejua eta haren auzoburua / Concejo y su capitalidad	Salmantón	278

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Sálvada	v. Gorobel / Sálvada	Gorobel / Sálvada	318
San Babilas	Auzoa / Barrio	Olabezar	257
San Juan	Auzoburua / Capitalidad	Erbi	102
San Lorentzo	Kalea / Calle	Luiaondo	182
San Martin	Auzoa / Barrio	Murga	239
San Pedro	Auzoa / Barrio	Menagarai	217
Saraube	Auzoa / Barrio	Olabezar	259
Satia	Auzoa / Barrio	Lanteno	163
Serna, La	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	141
Soañes	Auzoa / Barrio	Añes	59
Sobrevilla	Auzoa / Barrio	Soxo	292
Sologuren	Auzoa / Barrio	Agiñaga	53
Sologuren	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	141
Soxo	Kontzejua / Concejo	Soxo	285
Tabor, El	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	141
Torre	Kalea / Calle	Luiaondo	184
Torre	Auzoa / Barrio	Murga	240
Txirigoa	Auzoa / Barrio	Menagarai	219
Ubiarte	Auzoa / Barrio	Soxo	293
Udote	Eroritako etxea / Casa en ruinas	Lanteno	164
Ugalde	Auzoa / Barrio	Arespalditza	80
Ugarte	Auzoa / Barrio	Murga	241
Ugarte	Etxea / Casa	Olabezar	260
Ulibarri	Auzoa / Barrio	Izoria	130
Ulibarri	Auzoburua / Capitalidad	Ozeka	276
Ulizar	Auzoa / Barrio	Maroño	200
Undio	Auzoa eta etxeak / Barrio y casas	Zuhatza	312
Ungila	v. Eskorieta / Ungila	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	335
Ungino	Cima / Monte	Gorobel / Sálvada	331
Ureta	Auzoa / Barrio	Lanteno	165
Uria	Auzoa / Barrio	Erbi	103
Uriarte	Auzoa / Barrio	Olabezar	261
Urieta	Auzoa / Barrio	Zuhatza	314
Urruela	Auzoa / Barrio	Soxo	294
Urteaga	Auzoa / Barrio	Erretes	113
Urzaniko	Etxea / Casa	Añes	60
Valle, El	Auzoa / Barrio	Soxo	295
Valle, El	Auzoa / Barrio	Zuhatza	314
Villanueva	Auzoa / Barrio	Soxo	295

Leku-izena Topónimo	Izaera Entidad	Kontzejua Concejo	Or. Pág.
Víllodas	Auzoa / Barrio	Kexaa / Quejana	142
Viña, La	Auzoa / Barrio	Soxo	297
Vulpijeras	Auzoa / Barrio	Soxo	297
Yerros, Los	Auzoa / Barrio	Etxegoien	118
Zabalbetxi	Auzoa / Barrio	Murga	242
Zaballa	Auzoa / Barrio	Beotegi	94
Zaballa	Cima / Monte	Montañas de Ayala / Aiarako mendiak	338
Zalduerte	Auzoa / Barrio	Lanteno	165
Zerrabe	Auzoa / Barrio	Zuhatza	315
Zerralde	Auzoa / Barrio	Arespalditza	80
Zubiaga	Auzoa / Barrio	Erretes	113
Zubiaga	Auzoa / Barrio	Maroño	202
Zubialde	Lekua / Lugar	Arespalditza	82
Zubibarri	Kalea / Calle	Luiaondo	184
Zubiete	Torre / Dorrea	Lanteno	166
Zuhatza	Kontzejua / Concejo	Zuhatza	299

# Aiarako gailurrak / Cimas de Ayala

---

(Euskal Mendizale Federazioko Katalogoak / Del Catálogo de Cimas de la Euskal Mendizale Federazioa)

Izena / Nombre	Alt.	ED50 30T	
		UTM X	UTM Y
Babio	583	497725	4766599
Bortaun	705	494294	4776141
Eskorieta / Ungila	642	495499	4769204
Eskutxi	1.185	490191	4765450
Iturrigorri	1.073	494136	4763007
Pagonabarra	606	497715	4773190
Peregaña	628	493200	4770750
Ungino	1.099	491842	4764625
Zaballa	643	490774	4772699

## Jai patronalak / Fiestas patronales

Herria / Pueblo	Data / Fecha	Jaia / Festividad
Izoria	Enero / Urtarrila	7 San Julian
Maroño	Enero / Urtarrila	17 San Anton
Olabezar	Enero / Urtarrila	24 San Babilas
Menoio	Abril / Apirila	25 San Marcos / San Marko
Erbi	Mayo / Maiatza	3 La Santa Cruz / Santi Kurutz
Etxegoien	Mayo / Maiatza	8 Nuestra Señora de la Antigua / Antzinako Andra Maria
Arespalditza	Mayo / Maiatza	15 San Isidro
Añes	Mayo / Maiatza	21 San Ramiro
Murga	Junio / Ekaina	24 San Juan Bautista / Done Joanes Bataiatzailea
Menagarai	Junio / Ekaina	29 San Pedro Apóstol / Done Petri Apostolua
Salmantón	Julio / Uztaila	18 Santa Marina
Zuhatza	Julio / Uztaila	18 Santa Marina
Luiaondo	Julio / Uztaila	22 Santa María Magdalena / Andra Maria Magdalena
Erretes	Julio / Uztaila	22 Santa María Magdalena / Andra Maria Magdalena
Agiñaga	Julio / Uztaila	25 Santiago Apóstol / Done Jakue Apostolua
Lanteno	Julio / Uztaila	25 Santiago Apóstol / Done Jakue Apostolua
Kexaa / Quejana	Agosto / Abuztua	5 Nuestra Señora de las Nieves / Edurretako Andra Maria
Luxo	Agosto / Abuztua	15 La Asunción de Nuestra Señora / Andra Mariaren Jasokundea
Soxo	Agosto / Abuztua	30 San Emeterio / Done Meteri
Beotegi	Septiembre / Iraila	29 San Miguel / Done Mikel
Opellora / Costera	Septiembre / Iraila	29 San Miguel / Done Mikel
Ozeka	Octubre / Urria	8 Nuestra Señora del Rosario / Arrosarioko Andra Maria
Madaria	Noviembre / Azaroa	23 San Clemente / San Klemente
Lexartzu	Diciembre / Abendua	8 La Purísima Concepción / Andra Maria Sortzez Garbia

# Eranskin dokumentala

## Apéndice documental

---

**Donación de muchas iglesias al monasterio de san Felix de Oca en 21 de mayo de 864<sup>1</sup>.**

**Archivo de San Millán, becerro gótico, fol. 45, y galicano, fol. 108.**

In Christi nomine redentoris nostri. Ego quidem gracia dei Didaco, comite, amore divino compungtus, de scelerum meorum numerositate recordatus, sic facio donacionem pro remedio anime ee ad atrium sanctissimi Felicis et sancti Micael, et sancte Marie et sanctorum Petri et Pauli et sancti Ioannis aukensis et tibi patri Severo abbati, naenon et omnibus tibi sublectis clericis in ibidem die et nocte Christo famulantium. Id circo concedo et confirmo ad atrium predicti sancti Felicis aukensis meos monasterios qui sunt in loco vocabulo Sub-Angulo sancti Iohannis de Barcena et sancti Fabi, en sancte Eugenie cum suas hereditates et suas regulas et suas iacencias et defesas in montes ermos, et poui terminos de hereditates vel de exitus in hac regula, de illo loco qui dicitur Coba de Ezquti usque ecclesia sancti Micaele et ad illum ribum de Rozas et sancti Romani de Flabione, et per Alzaparapos usque illo ribo de Longas; et pergis ipso termino ad Pennaforata, deinde per medium monte de Mannata usque ad illa ciconia de Salvata et ad illa Ponnata. Et ego Didaco, comite, confirmo ad huius regule et ad Aquelle abbate de sancti Ioannis ipsa defesa et silva que est in Barcena de illo vado usque ad illo roio qui descendit de Salvata; itaque, preter homines de hoc monasterio, alios homines de alias villas non habeant licencia in ipso ribo infra termino supradicto piscatos prendere, naec aliqua genera scindere in ipsa silva glandiferos, vel aliqua genera arborum que sunt in ea et in Barcena, id est de illo roio de Salvata per suma ripa de Barcena usque ad illa via publica qui discurret de Salvata apud Salbantó, et per illo semitario qui discurret de Faro ad Coronellas, et per suma ripa usque ad illa serna de Gaucella; et in ipsa silva defesa alios heredes non habeant porcionem, sed propia sit confirmata in hunc monasterium; et ipsa serna de Gaucella de illo ribo maiore ad sursum, et iuxta arroio de Gaucella usque ad illa fonte, ad integritatem sint

<sup>1</sup> Tanto la transcripción como su traducción al castellano, se han tomado literalmente de la colección de Llorente, 1807, tomo III, pág. 98-102.

Hala transkripzioa nola gaztelaniarako itzulpena Llorenteren bildumatik jaso da hitzez-hitz, 1807, III. liburukia, 98-102. or.

confirmata; amen. Et ego Didaco, comite, pro remedio anime mee sic trado alios monasterios, id est, sancti Vincenti de Annis, sancti Iacobi et sancti Iohannis de Uzuza, Uzuza de sursum et Uzuza deorsum cum suos dexteris de eius circuitum de subtus pars ecclesie usque ad fonte, et de ipsa fons usque ad suma penna de Urzanico, et ad sumum de Ugatarz et ad illa fonte que stat ante ecclesia sancti Vincenti et cum sua defesa, et ipsa serna qui est infra ipsos terminos ad integritatem, et saute de Viluertes. In ipso ribo qui curren nullo homine ausus sit piscato prendere, nec de illo ribo maiore ad sursum, nisi Aquelli abbas et suos fratres, et Valero abbas de sancti Vincenti de Annis et suos fratres, et Fenestro abbas sancti Iacobi de Uzuzas cum suos fratres. Et ego Didaco, comite, sic trado similiter alios monasterios; id est sancti Martini episcopi, et sancti Juliani, et Basilise, sancti Vincenti et Leti, santa Iusta et Rufina, sancti Felicis nolensis cuius ecclesias sunt fundatas in Pontecerci cum omnia pertinencia, montes, terminos cum regulas. Ego Didaco, comite, sic confirmo istos monasterios cum suos monacos et suos fratres ut serviant ad sancti Felicis et sancti Micael et sancte Marie, et sancti Petri et sancti Iohannis qui sunt ecclesias fundatas sub Aukensis et ad Severo abbas cum tres calices argenteos, quinque calices de stango, sex casullas de sirgo, octo casullas de lino, triginta octo libros, et cum istos abbates de istos monasterios. Et condono meos decimos ad ipsos monasterios id est duocentas sexaginta octo baccas, quadraginta duas equas, octoginta quinque porcos, et octoginta tres capras, decem et sex caballos, et septem mulos, et uno asino per ad equas, et sex genapes pallias, novem plumazos pallios, et viginti tapetes ante mano, duodecim plumazos lanios, et una grege de oves. Et meas villas prenominatas cum suas decanias ad ipsos deserviant, id est, Angulo, et Salbata, et Eversa, et Lixarzo, et Urzanico, et Pando, et Fluiso, et Ervico, Desolio, et Dobaltia, et Salbantone. Et concedo ad sancti Felicis dibisiones pro suos ganatos ad pastum in montes, in fontes, in exitos, et introitos, de sancti Micael usque ad illa coba de Ezquti, et ad illa Ponnata, deinde ad sancti Romani de Flabione, dein Alzaparapos, deinde ad ribo de Longas et de penna ad penna usque ad illa ponnata, ita ut ad isto ganato de sancti Felicis non inquirat aliquis homo montatico. Et condono ibidem duas cruces de argenteo, unam de allatone, duos incensarios, quinque vasos argenteos, quatro cornias. Et haec omnia predicta liberos et ingenuos confirmo per in seculum seculi. Si quis autem homo disrumpere voluerit ista regula, rex, aut comite, aut potestas, aut abbas, descendat super eum ira domini nostri Ieruchristi, et cum Datham et Abiron habeat porcione in inferno inferiori, et absorbeat terra sicut absorbit Sodoma et Gomorra, amen. Et ad regali parte pariet duo talenta auri, et duplum ad regulam. Facta carta testamenti era nongentesima secunda, die sexto nonas maias, regnante principe rege nostro Adefonso in Obeto. Ego Didaco comite qui hac regula confirmavi in atrio sancti Felicis et in manu de Severo abbati manu mea signum feci †. Gomace hic testis. Comellu hic testis. Sarracino hic testis. Sancio Episcopo hic testis. Tamarum prestiber acripsit.

**Gaztelaniazko itzulpena / Traducción al castellano**

En el nombre de Cristo nuestro redentor. Yo Diego, conde por la gracia de Dios (1), excitado del amor divino, y recordándome de la multitud de mis pecados, hago donación por el remedio de mi alma al atrio del santísimo Felix, y de san Miguel, de santa María, de los santos Pedro y Pablo, y de san Juan de Oca (2) y a ti padre abad Severo, como también a todos los clérigos súbditos tuyos, que sirven a Dios allí día y noche. Concedo, pues, y confirmo al atrio del citado san Felix de Oca mis monasterios, en un lugar que dicen Baxo-Angulo (3), y son san Juan de Bárcena, san Fabio y santa Eugenia, con sus heredades, reglas, adyacencias, dehesas y montes yermos; y acoto los términos de las heredades y salidas de esta regla desde la cueva de Ezcuti hasta la iglesia de san Miguel y el río de Rozas, y hasta san Roman de Flabion, y por Alzaparapos hasta el río de Longas, y va el término a Peñahoradada, después por en medio del monte de Mañada hasta la cigüeña de Salvada y la Poñada. Y yo el, conde Diego confirmo a esta regla y a Aquelio, abad de san Juan, la misma dehesa, y la selva de Bárcena desde el vado hasta el arroyo que baja a Salvada, por lo qual solamente los hombres de este monasterio, y no los de otras villas, tendrán licencia de pescar en el mismo río dentro de los términos acotados, y lo mismo en quanto a cortar en la citada selva los árboles que fructifican bellota y otros qualesquiera de los que hay en ella y en Bárcena desde el río de Salvada por la riba alta de Bárcena hasta el camino público que va de Salvada a Salvanton, y por el sendero de Faro para Coronillas, y por lo alto de la riba hasta la serna de Gaucella; y en la dehesa de la misma selva no haya porcionistas, porque ha de ser propia de este monasterio, y lo mismo la citada serna de Gaucella hasta la fuente; todo lo qual sea firme íntegramente, amen. Y yo el conde Diego también entrego por el remedio de mi alma otros monasterios a saber, san Vicente de Añez (4), Santiago (5), y San Juan de Uzuzza (6). En Uzuzza de arriba y Uzuzza de abaxo, parte de la iglesia hasta la fuente, de allí hasta la cima de la peña de Urzanico, y hasta la cumbre de Ugatarze, y la fuente que está delante de la iglesia de san Vicente, con su dehesa y la serna que hay dentro de estos términos y el soto de Viluertes. En el río que por allí corre, ningún hombre sea osado de pescar, como tampoco en el río mayor, sino el abad Aquelio y sus hermanos, y Valero, abad de san Vicente de Añez, y sus hermanos, y Fenestro abad de Santiago de Uzuzas, y sus hermanos. Y yo el conde Diego entrego del mismo modo otros monasterios de san Martín obispo, de los santos Julián y Basilisa, y de los santos Vicente y Leto, de las santas Justa y Rufina, y de san Félix de Nola, cuyas iglesias están fundadas en Pontecerci (8), con toda su pertenencia, montes, términos y reglas. Yo el conde Diego confirmo estos monasterios con sus monjes y hermanos, para que sirvan a San Félix y san Miguel y santa María y san Pedro, y san Juan, cuyas iglesias están en Oca, y al abad Severo con tres cálices de plata y cinco de estaño, seis casullas de seda y ocho de lino, treinta y ocho libros, y los abades de estos monasterios. Y dono a los citados monasterios mis diezmos, esto es, doscientas sesenta y ocho vacas, cuarenta y dos yeguas,



ochenta y cinco puercos, ochenta y tres cabras, diez y seis caballos, siete mulos y un asno para yeguas, y seis genapes palias (9), nueve plumazos palios (10), veinte tapetes antemano (11), doce plumazos de lana (12) y un rebaño de ovejas. Y sirvan a dichos monasterios mis villas citadas con sus decanías, a saber, Angulo (13), Salvada (14), Eversa (15); Lixarzo (16), Urzanico, Pando, Fluiso (17), Ervico (18), Desolio (19), Dobaltia (20), y Salvanton (21). Y concedo a san Félix el derecho de divisa para pastos de sus ganados, en montes, fuentes, salidas y entradas desde san Miguel a la cueva de Ezcuti, la Poñada, san Roman de Flabion, Alzaparapos y río de Longas, y siguiendo la peña hasta la Poñada, con el fuero de que ningún hombre pueda pedir montazgo al ganado de san Félix. También le dono dos cruces de plata, una de latón, dos incensarios, cinco vasos de plata, quatro cornias (22); y todo lo confirmo para siempre ingenuo y libre de servidumbre. Si algún rey, conde, potestad, abad, ú otro cualquiera hombre, quisiere deshacer esta regla, baxe sobre él la ira de nuestro señor Jesucristo, y tenga en el infierno inferior su parte con Datan y Abiron, y lo trague la tierra como tragó a Sodoma y Gomorra, amen. Pague a la parte del rey dos talentos de oro y a la regla el duplo. Hecha fue la carta de testamento en la era novecientas y dos (23), el día sexto antes de las nonas de Mayo, reinando el príncipe nuestro rey Alonso en Oviedo. Yo el conde Diego, que confirmé esta regla en el atrio de san Félix en manos del abad Severo, hice con mi mano este signo †. Gomacio, testigo, aquí. Gomelio, testigo, aquí. Sarracino, testigo, aquí (24). Sancho obispo, testigo, aquí. Tamaro, presbítero, lo escribió.

## Oharrak / Notas<sup>2</sup>

(1) *Conde por la gracia de Dios*. Esta expresión en la presente escritura es testimonio infalible de que antiguamente no se pretendía significar con ella una soberanía independiente, pues el mismo conde don Diego que la usa para su título llamó después rey suyo al príncipe don Alonso III, y calendó por su monarquía de Oviedo el instrumento; por lo cual no tuvieron razón los escritores, que para probar la calidad de soberano en los señores de Vizcaya, alegaron aquel modo de titularse en algunas escrituras. Este don Diego, de quien tratamos, era don Diego Rodríguez Porcelos, conde de Castilla, hijo de don Rodrigo Fruelaz, y nieto de don Fruela, que también lo habían sido.

(2) *De Oca*. El monasterio de san Felix, o Felices de Oca, estuvo situado cerca de donde ahora la villa de Villafranca de montes de Oca, y también de la ciudad de Oca, capital del obispado de su nombre, que por el tiempo de la presente escritura estaba unido al de Valpuesta, con todo el territorio del condado de Castilla que gozaba don Diego, quien usa de una potestad casi soberana en el contenido del instrumento, pues

<sup>2</sup> Se trata de las notas con las que el propio Llorente comenta su traducción. Llorentek berak bere itzulpena hormitzeko ematen dituen oharrak dira.

tal era en aquellos siglos la anexión y subordinación de unos monasterios a otros, reduciendo a la clase de súbditos los que habían sido independientes; por lo que debemos pensar que fue señor solariego de Ayala y Mena, o que con el condado le había concedido el monarca poder para el objeto. Después el monasterio mismo de san Félix de Oca, que ahora se hallaba cabeza de tantos anexos, fue subordinado al de san Millán de la Cogulla con todos ellos por vía de anexión en el año de mil quarenta y nueve, y vino a parar en priorato.

(3) *Baxo-Angulo*. El valle de Angulo constituye parte del de Mena: no hay pueblo alguno que se llame Baxo-Angulo, pero sí uno nombrado *Encima-Angulo*. Como quiera, los tres monasterios que aquí se donan de san Juan de Bárcena, san Fabio de Mena, y santa Eugenia de Angulo, estuvieron en el valle de Mena, y todos tres eran propios del conde, por lo que según la disciplina de su tiempo podía enajenarlos o anexarlos a otro monasterio como lo hizo a san Félix de Oca.

(4) *San Vicente de Añez*. Hoy es el lugar de Añez en la provincia de Álava, hermandad de Ayala, cuya iglesia conserva su título de san Vicente, servida por un monge de san Millán de la Cogulla. El valle de Ayala confina con los de Losa y Mena; y con esta escritura se confirma lo que tenemos expuesto sobre los límites de Álava, pues no le pertenecían este pueblo ni los muchos que se citan en escritura sitios en dicho valle de Ayala, como iremos notando.

(5) *Santiago*. Este monasterio estaba en el lugar de Uzuza de arriba, ya despoblado, en el valle de Mena.

(6) *San Juan de Uzuza*. Monasterio de Uzuza de abaxo, lugar también despoblado en el mismo valle de Mena.

(7) *Con sus dextros*. Se llamaba dextro el territorio perteneciente a la iglesia en su circunferencia, que por lo regular era de setenta y dos pasos geométricos.

(8) *En Pontecerci*. Estos monasterios que aquí se nombran son los mismos que el abad Pablo había construido y donado a san Martín de Flabio en el año ochocientos cincuenta y tres, como hemos visto por la escritura núm. 8. De aquí resulta que los condes de Castilla se consideraban autorizados con el poder económico necesario para hacer dismembraciones, y uniones de iglesias y monasterios aun con repugnancia de los prelados, pues lanzó el conde don Diego las maldiciones ordinarias de su siglo contra cualquiera que intentase contradecir su hecho aun quando fuese abad.

(9) *Genapes palias*. No sé lo que significa: por eso dexo las palabras como están en el original latino, para que otro mas instruido las traduzca.

(10) *Plumazos palios*. Me sucede lo mismo.

(11) *Tapetes antemano*. Lo mismo.

(12) *Plumazos de lana*. Lo mismo.

- (13) *Angulo*. Ya he dicho que no hay ahora lugar con este nombre, pero sí un valle.
- (14) *Salvada*. Tampoco con este, pero sí, la peña que conserva el nombre de Salvada entre los valles de Angulo y Ayala. El pueblo de Maroño en Ayala, provincia de Álava, es sucesor de Salvada, y por eso goza diezmos san Millán de la Cogulla.
- (15) *Eversa*. Lugar despoblado de Ayala.
- (16) *Lixarzo*. Hoy Lexarzo en Ayala.
- (17) *Urzanico, Pando, Fluiso*. Lugares despoblados en Ayala.
- (18) *Ervido*. Hoy *Ervi* en Ayala.
- (19) *Desolio*. Hoy *Soxo* en Ayala.
- (20) *Dovaltia*. Este lugar se llamó después *Obaldia*, se despobló, y le sucedió el actual *Madaria* en Ayala, priorato de san Millán.
- (21) *Salvanton*. Hoy *Salmanton* en Ayala.
- (22) *Cornias*. No sé lo que eran.
- (23) *En la era novecientas y dos*. En este tiempo aún vivía el rey Ordoño I; pero sin embargo reynaba don Alonso III su hijo por voluntad del padre desde la era ochocientas noventa y nueve, como consta de la inscripción de la cruz de oro de Oviedo, donada en la era novecientas diez y seis, en que contaba don Alonso el año decimoséptimo de su reinado. Véase la inscripción en Morales, Masdeu y otros.
- (24) *Sarracino, testigo, aquí*. Este puede ser el Sarracino, padre de don Lope, que se cuenta como primer señor de Vizcaya. Don Luis de Salazar y Castro, en la tabla que imprimió en su obra de las *Glorias de la casa Farnese*, nombró a Sarracino como señor de Vizcaya en el año ochocientos setenta y uno.



